

# Euskal Herriko ekonomi hazkundera eta gizarte-aldaketak (1100-1850)

*Emiliano Fernández de Pinedo*



## **Euskara Institutuak argitaraturiko bestelako lanak**

**Ekonomia matematikorako sarrera**  
Miguel A. San Millán eta Felicidad Viejo

**Ekonomiarako sarrera: konpetentzia,  
autoritarismoa eta aldaketa  
ekonomia kapitalistetan**  
Samuel Bowles eta Richard Edwards

**Ekonomiarientzako matematikako  
gaiak**  
Federico Valenciano eta Miguel  
Aramendia

**Enpresaren ekonomia (sarrera)**  
Eduardo Pérez Gorostegui

**Espainiako ekonomiari buruzko  
ikasgaiak**  
José Luis García Delgado

**Kontabilitate plan orokorra**  
Itziar Azkue eta Gaizka Zubiaur

**Merkataritza zuzendaritzako kasu  
praktikoak**  
José F. Beristain, Francisco J. Forcada  
eta Iñaki Periañez

**Sozietateen kontabilitatea**  
José Alvarez López

**Informazioa eta eskariak:**  
Euskal Herriko Unibertsitateko  
Argitalpen Zerbitzua

Internet:[http://www.lg.ehu.es/servicios/se\\_az](http://www.lg.ehu.es/servicios/se_az)  
1397 P.K. 48080 Bilbao  
Tf. 946 012 227  
Faxa 944 801 314

**ESKATU GURE KATALOGOA**



**E**uskal Herriko  
ekonomi hazkundera  
eta gizarte-aldaketak  
(1100-1850)

*Emiliano Fernández de Pinedo*

EUSKAL HERRIKO  
EKONOMI HAZKUNDEA  
ETA GIZARTE-ALDAKETAK  
(1100-1850)



EUSKAL HERRIKO  
EKONOMI HAZKUNDEA  
ETA GIZARTE-ALDAKETAK  
(1100-1850)

*Emiliano Fernández de Pinedo*

Itzultzailea  
*Aztiri Itzulpen Zerbitzuak*

Koordinatzailea  
*Iban Zaldúa*

eman ta zabal zazu



|                               |                                  |
|-------------------------------|----------------------------------|
| Universidad<br>del País Vasco | Euskal Herriko<br>Unibertsitatea |
| servicio editorial            | argitalpen zerbitzua             |

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburuaren ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, errejistroz edo beste edozein erataria, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Itzultzaileak: Azpiri Itzulpen Zerbitzuak (I. Arrizabalaga, M. Ezpeleta, E. Lazkano)  
Gainbegiratzailea eta koordinatzailea: Iban Zaldúa

Lanaren egilea eta jatorrizko izenburua:

© Emiliano Fernández de Pinedo, *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100/1850*, Madril, 1974

© 1999, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

I.S.B.N.: 84-8373-141-X

Lege gordailua: BI-1176-99

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.  
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)



*A Leopoldo y Felisa, mis padres*





# Aurkibidea

|  |     |
|--|-----|
| <b>Euskarazko berrargitalpenari Hitzaurrea</b> .....                       | 11  |
| <b>Prólogo a la reedición en vascuence</b> .....                           | 17  |
| <b>Aurkezpen gisa</b> .....  | 23  |
| <b>Lehenengo argitalpenaren hitzaurrea</b> .....                           | 35  |
| <b>I. Inguru geografikoa</b> .....   | 39  |
| <b>II. Demografia</b> .....  | 45  |
| <b>III. Nekazaritza</b> .....  | 57  |
| Abeltzaintzaren eta basogintzaren egitura .....                            | 57  |
| Nekazaritza-sektorearen aurrerakada .....                                  | 59  |
| Artoaren iraultza .....  | 60  |
| <b>IV. Euskal industria XVIII. mendearen hasiera arte</b> .....            | 65  |
| <b>V. Euskal Herriko gizartearen egitura Behe Erdi Aroan</b> .....         | 71  |
| Bando-gerrak .....   | 78  |
| Heresiak .....   | 91  |
| <b>VI. Noble berriak: XVI eta XVII. mendeak</b> .....                      | 93  |
| Diruak zakurrak ere dantzan jartzen ditu .....                             | 93  |
| «Gatzaren altxamendua» .....   | 95  |
| <b>VII. Demografia: 1700-1850</b> .....                                    | 111 |
| XVIII. mendeko auzotarren zenbaketak .....                                 | 111 |
| Erroldak biztanletan: 1768, 1787 eta 1797 .....                            | 113 |
| XIX. mendearen lehenengo erdiko erroldak .....                             | 119 |
| Demografiaren hazkundea: desoreka .....                                    | 121 |
| Biztanleen antolamendua: desoreka banaketan .....                          | 121 |
| 1787: dentsitateak eta «nekazaritzako» «per capita» produktu gordina ..... | 122 |
| Hazkundea: 1704-1787, 1747-1787 .....                                      | 128 |
| Nekazaritzan oinarritutako hazkunde baten mugak: 1787-1857 .....           | 130 |

|  |            |
|--|------------|
| Biztanleriaren egitura .....   | 132        |
| Heriotzaren atzerakada .....   | 143        |
| Hilkortasunaren jaitsiera bultzatu zuten faktoreak .....                       | 147        |
| Inokulazioa, txertoak eta neurri profilaktikoak .....                          | 151        |
| Heriotzen arrazoiak .....  | 152        |
| Ardogintzaren koiuntura eta demografia .....                                   | 157        |
| Gerrak eta demografia .....  | 159        |
| Migrazioak .....   | 168        |
| Migrazioak eta populazio piramideak .....                                      | 174        |
| Migrazioak, legedia eta koiuntura .....  | 176        |
| <b>VIII. Nekazaritzako produkzioa: 1700-1850 .....</b>                         | <b>179</b> |
| «Nekazaritzako» per capita errenta gordina .....                               | 179        |
| Laboreen banaketa geografikoa 1771-1775. urteetan .....                        | 184        |
| Ustiapen unitatea: baserria .....  | 189        |
| Nekazaritzako produktu gordina errolden bidez .....                            | 191        |
| Labore-txandaketa .....  | 197        |
| Nekazaritza eta abeltzaintzaren egituran izandako aldaketak .....              | 198        |
| Nekazaritzako produkzioa hamarrenen bidez .....                                | 201        |
| Laboreen hedapena .....  | 215        |
| Hedapenaren finantzaketa .....   | 230        |
| Errendimenduak .....   | 233        |
| Ongarriak .....  | 236        |
| Abeltzaintza .....   | 239        |
| Basoa .....  | 246        |
| <b>IX. Barne-merkatuaren eraketa eta lurrak emandako kapitalen metaketa ..</b> | <b>251</b> |
| Feriak eta merkatuak .....   | 253        |
| Aleen merkataritza eta jokabide monopolistak .....                             | 257        |
| Garraiobideak .....  | 263        |
| Garraio-kostuen jaitsiera: zaldi-mandoetatik orgara .....                      | 265        |
| Bideria hobetzearen ondorioak .....  | 268        |
| Trafikoaren gaineko eskubide feudal eza .....                                  | 270        |
| Jabego-errejimena .....  | 271        |
| Lur-jabegoaren bilakaera, garai honetan zehar .....                            | 278        |
| Errenta feudalak: kontratu enfiteutikoak, zergak eta hamarrenak .....          | 282        |
| Lurraren errenta .....   | 289        |
| Ramelluriko etxaldea eta abeltegia .....                                       | 292        |
| Nekazaritza-kreditua .....   | 301        |
| Zenbaterainoko zorra zuten nekazariak .....                                    | 304        |
| Zentso-edukitzailak .....  | 312        |
| Zentsoa, interes-tasa eta betearazpena .....                                   | 315        |
| Nekazariak zorrak izatearen zergatiak .....                                    | 317        |
| Zentsoak eta ondareen sorrera .....  | 321        |
| Lurraren sarrera merkataritza-zirkuituan .....                                 | 323        |
| <b>X. Industria: 1700-1850 .....</b>   | <b>327</b> |
| Nekazaritzako eskaria eta produktibitatea .....                                | 327        |
| Eskaintza .....  | 330        |



|  |            |
|--|------------|
| Burdingintza tradizionalaren gainbehera . . . . .  | 337        |
| Beste manufaktura batzuk . . . . .   | 342        |
| Foruak, protekzionismoa eta industrializazioa . . . . .                                    | 344        |
| Merkataritza-kapitalismotik industri kapitalismora . . . . .                               | 349        |
| <b>XI. Gizarte-estruktura, klase eta gatazkak . . . . .</b>                                | <b>355</b> |
| Hiriak, hiribilduak eta baserri-mundua . . . . .   | 355        |
| Landatar gorenak . . . . .   | 358        |
| Kleroa . . . . .   | 367        |
| Nekazariak . . . . .   | 376        |
| Artisauak eta arrantzaleak . . . . .   | 379        |
| Burgesak . . . . .   | 383        |
| Hazkundera eta gizarte-aldaketak . . . . .   | 390        |
| 1718ko matxinada. Gertakariak . . . . .  | 391        |
| Pertsonaiak . . . . .  | 397        |
| Zergatiak . . . . .  | 398        |
| Ondorioak . . . . .  | 401        |
| 1766ko matxinada. Atarikoak . . . . .  | 403        |
| Gertakariak . . . . .  | 407        |
| Errepresioa . . . . .  | 415        |
| Protagonistak . . . . .  | 416        |
| Herri xehearen diputatuak eta pertsoneroak . . . . .                                       | 419        |
| Izu Handirantz . . . . .   | 421        |
| Behe-mailako maizterrak edo eskekoak . . . . .   | 431        |
| Pobre koitaduak! . . . . .   | 432        |
| Talde menderatzailearen barruko kontraesanak . . . . .                                     | 436        |
| Zamakolada . . . . .   | 438        |
| Altxamendua . . . . .  | 440        |
| Zamakoladako pertsonaiak . . . . .   | 443        |
| Antzinako nobleak modernoek aurka . . . . .  | 444        |
| Legedia liberala, nekazariak eta arrantzaleak . . . . .                                    | 446        |
| Lehenengo gerra karlista. Gorenek nekazari-jendea erakartzeko egindako saialdiak . . . . . | 447        |
| Egoera ekonomikoa eta errentak . . . . .   | 449        |
| Foruen aldeko gerra? . . . . .   | 453        |
| Aduanak . . . . .  | 455        |
| Desamortizazioen ondorio politiko eta ekonomikoa . . . . .                                 | 459        |
| Gerra . . . . .  | 460        |
| Klaseen arteko borroka? . . . . .  | 464        |
| <b>Ondorioak . . . . .</b>   | <b>467</b> |
| <b>Iturriak . . . . .</b>  | <b>471</b> |
| <b>Aipatutako bibliografia eta argitaratutako iturriak . . . . .</b>                       | <b>483</b> |
| <b>Glosarioa . . . . .</b>   | <b>493</b> |



## Euskarazko berrargitalpenari Hitzaurrea

Liburu hau *Annales* Eskola delakoaren eraginpean egindako doktorego-tesia izan zen: E. Le Roy Ladurie eta bere *Languedoc*-enean, P. Goubert eta bere *Beauvais*-enean; erredakzioa, hein handi batean, Parisen egin zen, Le Roy, Dupâquier, F. Braudel —zeina orduan «aurkitu» bainuen— eta P. Vilar-en mintegietara joaten nintzelarik. Horregatik du itxura bikoitza: nekazaritza-historiak eta demografiak oso ardaztutako ekonomi historia batena, azken horri dagokionez L. Henry-ri jarraitzen niolarik, zuhurtsunez; baina baita gizarte-historia batena ere, zeinak bazuen loturarik Porchnev-en *Les soulèvements populaires en France*-rekin, eta, nola ez, E. Labrousse-rekin. Parisera azken horrekin estudiatzera joan nintzen, hain zuzen ere, une horretan bertan erretreta hartu behar zuela jakin gabe. Halaber, ez nuen gutxi jaso Cepalzaleengandik eta Vladimir Ilich Ulianov-en *Kapitalismoaren garapena Errusian* liburutik, edo K. Marx-en izaera historikoko lanetatik.

Baina urte haietan batzuek ez genuen soilik eskolak ematen, edo eskuetara heltzen zitzaigun gutzia irakurtzen, edo artxiboetan datuak jasotzen<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Probintzia-mailako artxiboen ordutegiak murrizak ziren eta ez zuten beti ere langilego finkorik. Autorik gabe, Bilbotik Oñatira edo Donostiara edo Gernikara joateak egun erdi bidaiatzen xahutzea ekartzen zuen, batzuetan dokumentuak hiru edo lau orduz ikusteko, eta fotokopiarik gabe. Parrokia-artxiboak barreiaturik zeuden, ez gaur bezala bilduta. Kontsulta, ardura zuen abadearen borondate onaren baitan egon ohi zen, eta askotan ez zen erraza hura konbentzitzea bila ari nintzena kopuruak zirela: bataiatuen, hildakoen, ezkonduen kopuruak, hamarrenak edo hasikinak... eta ez sasikumeak... Gipuzkoako parrokia batean ezin izan nuen ni baino zaharragoa ez zen apaiza konbentzitu, eta agindu zidan hark burutuko zuela jaiotako eta hildakoen kontaketa astun eta aspergarria... handik denbora batera, bete egin zuen konpromisoa. Baina helburua ezezaguna den lan gogorretan akatsak egin ohi direnez, edo hirugarren bati agindu ahal zaizkionez... ez nintzen bidali zizkidan kopuruak erabiltzera ausartu. Behin batean, isil-isilik, hamarrenen ezabapenaren bidegabekeriari buruzko sermoi bat entzun behar izan nuen, eta, ondoren, abadeak oraindik orain mantendu behar zirela defendatu zuen; tazmia gordeko zuela eta aztertzen utziko zidala espero nuen, baina ez zen hala gertatu. Baina datu-

eta atzerrira ateratzen maisu ospetsu zirenekin estudiatzera. Duela gutxi Mikel Azurmendik gogorarazi dit 1972an, erbestaturik bizi zen apartamentuan, Montmartreko auzoan, ea Euskal Herria kapitalismo espainiarrak kolonizaturik zegoen ala ez eztabaidatu genuela... Juanjo Castillok bildu gintuen; azken hau, ni bezala, ikasleen, hegoamerikarren eta garaitu autoktonoen hotel batean zegoen, Cujas kalean; Grand Hôtel Saint-Michel izen arranditsua zuen, eta gaur egun halamoduz eraberrituta dago. Uste dut hara joan nintzela Jose Antonio Osabaren bitartez, zeinak muga igaro behar izan baitzuen Bandas-etako grebaren ondorioz. Eta Osaba ezagutu nuen urte batzuk lehenago Uretamendin eta Barakaldoko bebarru batean bizi ziren apaiz batzuen bizitokietara joan ohi nintzelako, eta hantxe, bebarru horretan elkartuko ginen, apika. Garai hartan gutxi gorabehera, azken aldiko FLP-en militatzen nuen, eta Carmen Echevarriarekin batera, multikopistaz arduratzen nintzen, «vietnamita» batetaz, zeinarekin inprimitzen baitziren alajaina Frente de Liberación Popular izeneko erakunde «burges txikiaren» panfletoak; erakunde horretaz gaizki esaka ibili ohi ginen, segurtasunezko arrazoi jakinengatik. Nahikoa etsigarria eta kezagarria da Euskal Herriko ikus-entzuteko komunikabidderen batek nola kontatu duen frankismoaren aurkako oposizioa zer izan zen lurralde honetan. Beste historia bat kontatuz ez bakarrik iragana, baizik eta oraina eta etorkizuna aldatuko dutela uste dute, akaso. 2000. urtea gertu dagoelarik, oraindik ere talde batzuk «vieux résistants»-en iragan bat eraiki nahian dabilzala dirudi.

Beraz, zeregin frankorako astia egon zen, eta bide horietatik ibili ginen, eta ez beste batzuetatik.

Aipatu egileengandik, eta beste batzuengandik, eta eztabaida askotatik, ideiak, eskemak, ereduak ateratzen genituen, eta haiekin joaten ginen artxiboetara, datu bila. Batzuetan bilatzen genuena aurkitzen genuen, beste batzuetan ez, eta noizean behin baita susmatzen ez genuena ere. Lan-hipotesiak beharrezkoak dira, prozesuaren amaieran teorizatzea bezainbat. Baina batzuetan hasierako hipotesiak bilaketa eta aurkikuntzak baldintzatzen ditu, eta, beraz, baita emaitzak ere. Eta askotan teorizazio deitzen zaio beste norbaiten ereduaren karikaturaren erabilerari, zeinaren gainean datu batzuk hautsez tatu egiten baitiren.

Geroago XVIII. mendeko nire historian<sup>2</sup> esplizitu egin nuen «ereduaren» zati handi bat *Euskal Herriko ekonomi hazkundera...* liburuan zegoen,

---

bilketa ez zen beti hain gogorra suertatzen. Ezin dut ahaztu izena gogoratzen ez dudana Leintzeko bailarako nekazaritza-gune bateko parrokia bateko serorak eman zidan bazkaria. Justu bazkaltzeko orduan heldu nintzen eta, ziur aski, abade zaharrari gauza bitxiak bilatzen zebilen nahikoa gazte arraroa iruditu nintzaion, eta harekin mahaian esertzera gonbidatu ninduen: patatak bakailoarekin eta artoaz hazitako oilo askeen arrautzak... Ez dut inoiz ere gorringo haiek bezalakorik busti eta dastatu.

<sup>2</sup> «Coyuntura y política económicas», *Centralismo, ilustración y agonía del Antiguo Régimen (1715-1833)*, M. Tuñón de Larak zuzenduriko *Historia de España*-ren VII. liburukia, 9-173. orr., Bartzelona 1980, zehazki 11-16. orrialdeetan.

bi salbuespen erlatiborekin: artisautza-sektorea, eta fiskalitatea. Lehenengoari apalki heldu nion X. atalean, baina XVIII. mendeko Euskal Herriko ekonomi egituran zuen pisu handia 184. orrialdeko koadroan eta horren gaineko 179-184. orrialdeetako iruzkinetan ageri da. Hiru probintzien ekonomi egitura ondo islatzen duela uste dut, eta akaso aipatu X. atalaren hasieran koka zitekeen. Tesi-epaimahaiko partaide batek siderurgia arloaren pisua sinetsgaitza zela azpimarratu zuela gogoratzen dut; nekazaritza-arloko ikerlaria izanik, ez zuen kopuruak eta kalkuluak gauzatzeko nire bideen aurka egin, ondorioen aurka baizik. Orduan ez zen oraindik protoindustrializazioaren moda sortu eta batzuentzat «den-dena» zen nekazaritza-arloa, eta besteentzat merkataritza, baina batzuk, garai haietan eta oraindik ere gorai-patuak, «aurrerakinen sistema» mota bat den «etxeko industria» «aurkitzen» ari ziren. Ze eztabaida *Verlagssystem* eta *putting out system* delakoen arteko desberdintasunen inguruan!<sup>3</sup> Bigarren «hutsunea» fiskalitatea izan zen. Nire alde euskal probintziek fiskalitate berezi bat zutela esan behar dut, eta fisikoaren bitartez soberakinaren zati apal bat baino ez zela berbanatzen. Baina ez nintzen ahaztu XVII. mendeko hogeita hamarreko hamarkadako monarkiararen fisko-eskakizunek eragindako gizarte-mailako ondorioez.

Hutsune hauetako gehienak ondorengo azterketek bete dituzte; askotan lortzeko zailak suertatzen diren atzerriko argitalpenetan zehar barreiatuta daude, eta behin baino gehiagotan Luis Maria Bilbaorekin batera egindakoak dira<sup>4</sup>.

Baina, jakina, denborak ez du alferrik aurrera egin. Liburua duintasunez zahartu dela uste dut, eta han defendatzen nituen eta orduan onartu ez

---

<sup>3</sup> Bi esapide dira, bata alemanierazkoa eta bestea ingelesezkoa, fenomeno berdina izendatzeko. Hain aditu ziren aditu batzuek, *Verlagssystem*-en ordez *Verlangsystem* idatzi zuten, behin baino gehiagotan, eta, beraz, ez dirudi errua linotipistari egotzi ahal zaionik. Ramón Carande jaunak, *Carlos V y sus banqueros* liburuan, I. liburukia, Madril 1965, 182-187. orrialdeetan, sistema aztertu zuen XVI. mendeko Gaztelako oihalgintzari zegokionez. Antzeko zerbait gertatu zen, geroago, *protoindustrializazioarekin*, aurreindustrializazioarekin nahastu baitzen, besterik gabe. Batzuentzat gogorregia bide da F. Mendels-en artikuluko pare bat, besterik ez, irakurtzea.

<sup>4</sup> «Centros de la industria siderúrgica en el País Vasco», *Schwerpunkte der Eisengewinnung und Eisenverarbeitung in Europa 1500-1650*, H. Kellenbenz argitaratzaile, II. liburukia, Kölln 1974; «Un cas régional avec faible pression fiscale: le Pays Basque péninsulaire», *Review. A Journal of the Ferdinand Braudel Center for the Study of Economics*, III. liburukia, New York, 1979; «From the Bloomery to the Blast-Furnace: Technical Change in Spain iron-making (1650-1822)», *The Journal of European Economic History*, 17. liburukia, 1. zenbakia, 1988ko udaberria; «Auge y crisis de la siderometalurgia tradicional vasca (1700-1850)» (L. M. Bilbaorekin), *La economía española la final del Antiguo Régimen*, II. liburukia, Madril 1982; «Haciendas forales y revolución burguesa: las haciendas vascas en la primera mitad del siglo XIX», *Hacienda Pública Española*, 108-109 zkia., 1987; «Gasto público y reformas fiscales. Las Haciendas forales vascas», *Historia de la Hacienda en España (siglos XVI-XIX)*, *Hacienda Pública Española*-ren ale berezia, 1/1991; «Fiscalidad y absolutismo en Castilla en la primera mitad del siglo XVII», *Política y hacienda en el Antiguo Régimen*, J. I. Fortea eta C. M. Cremades (arg.), Murtzia 1993; «Los altibajos mercantiles del Consulado de Bilbao en los años 80 y 90», *La corona de Castilla*, IV. liburukia, Madril 1998.



ziren edo harridura sortu zuten tesi batzuk berretsi egin dira: «artoaren iraultza», haur-hilkortasunaren jaitsiera, edo industrializazio-prozesua ez zela mearen esportazioaren ondorio izan<sup>5</sup>. Gaur egun ohikoa da entzutea Euskal Herria ustiategi txiki eta ertainteko lurraldea izan zela, eta hau ezin dela nahastu nekazari jabe txiki eta ertainen nagusigoarekin<sup>6</sup>.

«Ekonomi historiako» tesi bat zenez, jaramon gutxi egin zitzaizen bere alderdi «sozialei», agian matxinadetako paskinak gaztelaniaz zeudelako, edo haien edukia ez zelako bereziki «patriotikoa», edo euskal gizartearen banaketa eta jauntxoen eta monarkia eta inperioaren arteko harreman sendoak islatzen zituztelako. Pixka bat harridura sentitzen naiz gaur egun azpimarratzen direnean probintziako eliteek koroaren eta menekoen artean betetzen zuten bitartekaritza-rola, eta haiek zerbitzu horiengatik eskuratu zituzten sariak.

Baina 1974tik ekonomiaren historialari gazte sail batek aurrerapen handiak egin ditu euskal probintzien feudalismo garatuaren<sup>7</sup> garaiko iragan

---

<sup>5</sup> Gai honi buruz lanean jarraitu dut *Euskal Herriaren ekonomi hazkundera...* liburuko 353 eta 354. orrialdeetan finkaturiko norabidetik, ondoko argitalpen hauetan ikus daitekeen bezala: «Nacimiento y consolidación de la moderna siderurgia vasca (1849-1913)», *Información Comercial Española*, 598. liburukia, Madril 1983; «Las dudosas bases económicas del primer nacionalismo vasco», *Cuadernos de Alzate*, 2. zkia., Madril 1985; «Avances técnicos y consecuencias económicas en la siderurgia española del siglo XIX», *La ciencia moderna y el Nuevo mundo...*, José Luis Peset (arg.), Madril 1985; «La industria siderúrgica, la minería y la flota vizcaína, 1880-1899», *La industrialización del Norte de España*, E. Fernández de Pinedo eta J. L. Hernández (arg.), Bartzelona 1988; «Burguesía comercial autóctona, proteccionismo e industrialización en el País Vasco en el siglo XIX», *Burguesías e industrialización en América Latina y Europa Meridional*, M. Cerutti eta M. Vellinga (bil.), Madril 1989, beste argitalpenen artean.

<sup>6</sup> Gaur egun oin-oharren zati handi bat gehiegizkoak direla eman dezake. Baina orduan, hirurogeita hamarrekada hamarkadaren hasieran, harridura sor zezaketen baieztapenak dokumentatu egin behar ziren, gaur egun onartuta badaude ere. Antzeko zerbaite gertatu zitzaion A. Otazuren *El igualitarismo vasco. ¿Mito o realidad?* liburuari, Donostia 1973. Bere tesia arbuizatzeko era «zientifiko» bat egilea «fils à papa»-tzat jotzea izan zen.

<sup>7</sup> Termino honek eragozpen batzuk eragin ohi ditu, kasu batzuetan neoliberalismora aldatu diren antzinako kriptolabrouszealeen aldetik. Terminoek ez dute garrantzirik, garrantzizkoa azpian dagoena da. Antzinako Errejimentzat —maiz erabilitako esapidea, gutxitan esplizitaturakoa— produkzio-harreman kapitalistak dituen sistema ekonomiko bat hartzen bada, jakina Antzinako Errejimena eta Feudalismo garatua ez dira termino sinonimoak. Alderantziz, Antzinako Errejimentzat hartzen bada Behe Erdi Aroko krisitik sortutako sistema bat, zeinetan lurra ez baiten, hein handi batean, salgai librea, binkulatuta eta amortizaturako dagoelako; zeinetan errentak nekazaritza-mozkina menderatzen jarraitzen baituen; zeinetan nekazaritza-arloko soldatapeko lanak bigarren mailakoa izaten jarraitzen baituen, eta ia ez baitagoen artisautzan; zeinetan hipoteka-krediturik ohikoena zentsoa baiten... ez dut eragozpenik feudalismo garatua edo antzinako feudalismoa, eta Antzinako Errejimena termino baliokidetzat hartzeko. Orokorrean, alderdi feudala azpimarratzen dugunok esplizito egiten dugu (ikus 3. oin-oharreko aipua, 11-16. orr.), baina hau ez da ohikoena Antzinako Errejimena termino erabiltzen dutenen artean, hau gai arantzatsuak ekiditeko eta «neutraltasun zientifikoan» mantentzeko komodin erraza delarik. Salbuespen bat, 1950ko hamarkadako gainera, «Los fundamentos económicos de la sociedad estamental» dugu, Miguel Artolarena, *Los orígenes de la España contemporánea*, Madril 1959, I. liburukia, 60-64. orr.

ekonomikoari buruz dugun ezagutzan. Lurralde gutxik du, Euskal Herriak bezala, bere eskulangintza-arloa hain ondo aztertua, L. M. Bilbao, R. Uriarte edo I. Carrión-en lanei esker, edo bere demografia, Santiago Piquerori esker, edo bere fiskalitatea R. Díaz De Durana, Isabel Mugartegi eta Mario García Zúñigari esker, beste batzuen artean.

Paradoxikoki, aurrerapen hauek, argitalpen zientifikoetan jasoak, ez dira beti unibertsitate-mundutik haratago zabaldu. Izan ere, frankismoko zentsoraren desagertzearekin batera atzean gordetzen zen sektarismoa azaleratu da. Muga ekonomikoak behera etortzearekin bat, kulturalak jasotzen ahalegintzen dira batzuk. Normal bezala ikusten da industri produktua egiten dituztenak esportatu eta merkatu askean konpetitu beharra. Aldiz, ondasun kultural batzuk «babe» beharra dagoela ematen du, «eskola», «kapera» edo «aberri» arrazoiengatik, berdin dio. Arlo honetan eta beste batzuetan, tamalez, zenbait politikari eta zenbait akademiko eskutik doaz. Batzuentzat zein besteentzat garrantzitsuena ez da zientzia egitea eta hedatzea mugaz honatago edo haratago, baizik eta haien sarjentutze-ahalmena ezagutaraztea, boterea izatearekin konfunditu ohi duten jarrera, zuzenean edo zeharka kontrolatzen dituzten diru-laguntzen babespean, neoliberalismoaren zaleak badira ere. Ez dute zalantzarik nabarmentzeko, ahoz, jakina, zein aipatu behar den eta batez ere zein baztertu behar den, nork agitara eman dezakeen eta nori sartu behar zaizkion orijinalak kaxoian.

Honaino heldu bazara eta liburua irakurtzeko prest bazaude, zuhurra izan zaitez lan hau aipatzeko orduan. Ziurtatu zein giro unibertsitario, akademiko edo politikoan egingo duzun. Baliteke Pedregaltarrek, Tortilla de Huevinatarrek eta haien ezkutariak zu zerrenda beltz batean sartzea, ordenagailuan (haien modernitatearen erakusle, postmodernoak haiek). Hala eta guztiz ere, ez arduratu gehiegi. Sarjentuek agintzen dutena agintzen dute, eta ustarazten dutena baino askoz ere gutxiago.

Emiliano Fernández de Pinedo  
Bilbon, 1998an



## Prólogo a la reedición en vascuence

Este libro fue una tesis doctoral realizada bajo la influencia de una parte de la llamada Escuela de los *Annales*: E. Le Roy Ladurie con su *Languedoc*, P. Gouvert con su *Beauvais* y redactada en buena medida en París compaginando su elaboración con la asistencia a los seminarios de Le Roy, Dupâquier, F. Braudel, a quien entonces «descubrí» y P. Vilar. De ahí su doble aspecto: una historia económica muy focalizada en la historia rural y en la demografía, siguiendo aquí, con prudencia, a L. Henry; pero también de una historia social que no dejaba de tener concomitancias con el Porchnev de *Les soulèvements populaires en France* y, cómo no, con E. Labrousse. Fui a París, precisamente, para estudiar con él, ignorando que justo se jubilaba. También aprendí no poco de los llamados Cepalistas y de *Del desarrollo del capitalismo en Rusia* de Vladimir Ilich Uliánov o de las obras de carácter histórico de K. Marx.

Pero en aquellos años algunos no sólo impartíamos clases o leíamos casi todo lo que caía en nuestras manos o recogíamos datos en los archivos<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Los horarios de los archivos provinciales eran reducidos y no siempre había personal permanente. Sin coche, ir de Bilbao a Oñate o a San Sebastián o a Guernica suponía gastar medio día en el viaje, a veces para poder acceder a los documentos tres o cuatro horas y sin fotocopias. Los archivos parroquiales estaban dispersos, no como ahora concentrados. Su consulta solía depender de la buena voluntad del eclesiástico a quien habían encomendado su custodia y muchas veces no resultaba fácil convencerle de que básicamente uno buscaba cifras: número de bautizados, fallecidos, casados, diezmos o primicias... y no hijos naturales... En una parroquia guipuzcoana no logré persuadir al cura, que por cierto no era mucho mayor que yo, y él se comprometió a llevar a cabo la pesada y aburrida tarea de contar nacidos y difuntos... compromiso que cumplió, al cabo de un cierto tiempo. Pero como en trabajos áridos y realizados por quién no sabe el fin se pueden cometer errores o encargárselos a un tercero... no me atreví a usar las cifras que me envió. Una vez tuve, bien calladito, que recibir un sermón sobre la injusticia de la supresión de los diezmos, seguido del parecer de que aún deberían subsistir, en la confianza, defraudada por cierto, de que se conservaría la tasmía y que se permitiría consultarla. Pero en la búsqueda de datos no todo solía resultar tan duro. No tengo para olvidar la comi-

y buscábamos salir al extranjero para estudiar con los que ya eran maestros consagrados. Mikel Azurmendi me ha recordado hace poco que en 1972 en el apartamento en donde vivía exiliado, en el barrio de Montmartre, discutimos sobre si el País Vasco estaba colonizado o no por el capitalismo español... Nos puso en contacto Juanjo Castillo, que estaba alojado, como yo, en un hotel de estudiantes, de sudamericanos y de derrotados autóctonos, sito en la calle Cujas, pomposamente llamado Grand Hôtel Saint-Michel y hoy medianamente remozado. Creo recordar que recalé allí gracias a José Antonio Osaba, que había tenido que cruzar la frontera debido a la huelga de Bandas. Y a Osaba lo conocía porque años antes había frecuentado los domicilios de unos curas obreros que vivían, unos en Uretamendi y otro en un semisótano de Baracaldo y allí, en ese semisótano, debimos coincidir. Por aquella época más o menos yo militaba en lo que fue el último FLP y con Carmen Echevarría me encargaba de la multicopista, una «vietnamita», con la que se imprimían los panfletos de aquella organización «pequeño burguesa» llamada nada menos que Frente de Liberación Popular y de la que solíamos hablar mal por obvias razones de seguridad. Resulta bastante deprimente y preocupante cómo en algún medio audiovisual del País Vasco se cuenta lo que fue la oposición al franquismo en esta tierra. Deben creerse que contando otra historia van a modificar no ya el pasado, sino el presente y el futuro. Próximo el año 2000 todavía, parece ser que ciertos grupos tienen que construirse un pasado «de vieux résistants».

Así que hubo tiempo para muchos menesteres y en esos caminos, que no andurriales, anduvimos, y no en otros.

De los autores citados y de otros y de muchas discusiones algunos sacábamos las ideas, los esquemas, los modelos con los que luego íbamos al archivo a la búsqueda de datos. A veces encontrábamos lo que buscábamos, otras no y alguna vez también lo que no sospechábamos. Las hipótesis de trabajo son necesarias, tanto como al final del proceso intentar teorizar. Pero a veces la hipótesis inicial suele condicionar la búsqueda y los hallazgos y por tanto los resultados. Y muchas veces se llama teorización a lo que no es otra cosa que el uso de la caricatura de un modelo ajeno sobre el que se han espolvoreado algunos datos.

Buena parte del «modelo», luego explícito en mi historia del siglo XVIII<sup>2</sup>, estaba en *Crecimiento...* pero con dos ausencias relativas: el sector artesanal

---

da que me puso el ama de llaves de un cura de una parroquia rural, cuyo nombre he olvidado, del valle de Léniz. Llegué justo a la hora de comer y debí parecer al anciano clérigo un joven más bien raro, buscando cosas extrañas y me invitó a que le acompañara en la mesa: patatas con bacalao y huevos de gallinas libres y criadas con maíz... No he vuelto nunca a untar y a paladear unas yemas como aquellas.

<sup>2</sup> «Coyuntura y política económicas», pp. 9 a 173 del tomo VII, *Centralismo, ilustración y agonía del Antiguo Régimen (1715-1833)*, de la *Historia de España* dirigida por M. Tuñón de Lara, Barcelona 1980, en concreto pp. 11 a 16.

y la fiscalidad. El primero está discretamente abordado en el capítulo X, pero hay que señalarlo, su gran peso en la estructura económica del País Vasco del dieciocho queda expuesto en el cuadro de la página 158 y en los comentarios que al mismo realicé de la página 153 a la 158. Creo que refleja bien la estructura económica de las tres provincias y tal vez debiera haber encabezado el citado capítulo X. Recuerdo que un miembro del tribunal de la tesis me señaló que el peso del sector siderúrgico en el conjunto de la economía vasca no era creíble; agrarista él, no rebatió mi forma de obtener las cifras y los cálculos, sino las conclusiones. Entonces aún no había surgido la moda de la protoindustrialización y «todo» era sector agrario para unos o comercial para otros, aunque algunos, citados entonces y aún ahora elogiosamente, estaban «descubriendo» la «industria a domicilio», que es una modalidad del «sistema por adelantos», ¡Qué disquisiciones sobre las «diferencias» entre el *Verlagssystem* y el *putting out system*!<sup>3</sup>. La segunda «laguna» fue la fiscalidad. En mi descargo, debo señalar que las provincias vascas tenían una fiscalidad peculiar y que escaso excedente se redistribuía a través del fisco. Pero no me olvidé de las repercusiones sociales de las exigencias fiscales de la monarquía en los años treinta del siglo xvii.

La mayor parte de esas lagunas se han ido colmando con estudios posteriores, en muchos casos dispersos en publicaciones extranjeras, de no siempre fácil acceso, y no pocas veces en colaboración con Luis María Bilbao<sup>4</sup>.

Pero evidentemente, el tiempo no ha pasado en balde. Creo que el libro ha envejecido con dignidad y que algunas de las tesis sostenidas en él

---

<sup>3</sup> Se trata de dos expresiones, una alemana y otra inglesa, para un mismo fenómeno. Había expertos tan expertos que en vez de *Verlagssystem* escribían más de una vez, con lo que no parece pertinente atribuir el error al linotipista, *Verlangsystem*. En *Carlos V y sus banqueros* de D. Ramón Carande, t. I, Madrid 1965, pp. 182 a 187 ya estaba analizado el sistema para el textil castellano del siglo xvi. Algo parecido sucedió más tarde con la *protoindustrialización*, confundida sin más con preindustrialización. Para algunos debe resultar durísimo leer un par, no más, de artículos de F. Mendels.

<sup>4</sup> «Centros de la industria siderúrgica en el País Vasco», en *Schwerpunkte der Eisengewinnung und Eisenverarbeitung in Europa 1500-1650*, Editor H. Kellenbenz, vol. II, Colonia 1974; «Un cas régional avec faible pression fiscale: le Pays Basque péninsulaire», en *Review. A Journal of the Ferdinand Braudel Center for the Study of Economics*, vol. III, New York, 1979; «From the Bloomery to the Blast-Furnace: Technical Change in Spain iron-making (1650-1822)», en *The Journal of European Economic History*, vol. 17, n.º 1, Spring 1988; «Auge y crisis de la siderometalurgia tradicional en el País Vasco (1700-1850)» (en colaboración con L.M. Bilbao), en *La economía española al final del Antiguo Régimen*, vol. II, Madrid 1982; «Haciendas forales y revolución burguesa: las haciendas vascas en la primera mitad del siglo xix», en *Hacienda Pública Española*, n.º 108-109, 1987; «Gasto público y reformas fiscales. Las haciendas forales vascas», en *Historia de la hacienda en España (siglos xvi-xx)*, número especial de *Hacienda Pública Española*, 1/1991; «Fiscalidad y absolutismo en Castilla en la primera mitad del siglo xvii», en *Política y hacienda en el Antiguo Régimen*, J.I. Fortea y C.M. Cremades editores, Murcia 1993; «Los altibajos mercantiles del Consulado de Bilbao en los años 80 y 90», en *La corona de Castilla*, t. IV, Madrid 1998.

y que entonces no fueron aceptadas o chocaron como la «revolución del maíz», el descenso de la mortalidad infantil, o que el proceso de industrialización no se debió a la exportación de mineral<sup>5</sup>, se han visto confirmadas. Hoy es un lugar común que el País Vasco fue una tierra de pequeñas y medianas explotaciones, que no hay que confundir con predominio de pequeños y medianos propietarios rurales<sup>6</sup>.

Como era una tesis de «historia económica», se le prestó escasa atención a sus aspectos «sociales», a lo que quizá tampoco haya sido ajeno el hecho de que los pasquines que acompañaron a los motines populares estuvieran en castellano, así como el poco «patriótico» contenido de los mismos o que patentizaran las divisiones de la sociedad vasca y los sólidos nexos de los «jaunchos» con la monarquía y el imperio. Uno se queda un poco sorprendido cuando observa en la actualidad el énfasis que a veces se pone en destaca el papel de intermediación de las élites provinciales entre la corona y los súbditos y las mercedes que aquellas reciben por esos servicios.

Pero desde 1974 toda una serie de jóvenes historiadores de la economía han hecho avanzar notablemente los conocimientos que tenemos sobre el pasado económico de las provincias vascas en el feudalismo desarrollado<sup>7</sup>.

---

<sup>5</sup> Sobre este tema he continuado trabajando en la dirección señalada en *Crecimiento...*, pp. 348 y 349, como se puede apreciar en «Nacimiento y consolidación de la moderna siderurgia vasca (1849-1913)», en *Información comercial española*, vol. 598, Madrid 1983; «Las dudosas bases económicas del primer nacionalismo vasco», en *Cuadernos de Alzate*, vol. 2, Madrid 1985; «Avances técnicos y consecuencias económicas en la siderurgia española del siglo XIX», en *La ciencia moderna y el Nuevo Mundo...*, edición a cargo de José Luis Peset, Madrid 1985; «La industria siderúrgica, la minería y la flota vizcaina a fines del siglo XIX», en *Mineros, Sindicalismo y Política*, Oviedo 1987; «Factores técnicos y económicos en el origen de la moderna siderurgia y la flota vizcaina, 1880-1899», en *La industrialización del Norte de España*, Editores E. Fernández de Pinedo y J.L. Hernández, Barcelona 1988; «Burguesía comercial autóctona, proteccionismo e industrialización en el País Vasco en el siglo XIX», en *Burguesías e industrialización en América Latina y Europa Meridional*, compilación de M. Cerutti y M. Vellin-ga, Madrid 1989, entre otras publicaciones.

<sup>6</sup> Buena parte de las notas a pie de página hoy en día parecerán excesivas. Pero entonces, a principios de los años setenta, había que documentar afirmaciones que podían sorprender y que hoy están aceptadas. Algo parecido le sucedió al libro de A. de Otazu sobre *El igualitarismo vasco. ¿Mito o realidad?*, San Sebastián 1973. Una forma «científica» de rechazar sus tesis fue calificarlo de «fils à papa».

<sup>7</sup> Este término suele levantar algunas objeciones, en algunos casos por parte de antiguos criptolabroussianos convertidos al neoliberalismo. Los términos no tienen importancia, lo importante es lo que subyace. Si por Antiguo Régimen, expresión utilizada tan frecuentemente como no explicado su contenido, se entiende un sistema económico ya con relaciones de producción capitalistas obviamente Antiguo Régimen y Feudalismo desarrollado no son términos sinónimos. Si por contra por Antiguo Régimen se entiende un sistema que ha surgido de la crisis bajo medieval, en el que la tierra no es en gran medida una mercancía libre porque está vinculada y amortizada, la renta sigue dominando al beneficio agrícola, el trabajo asalariado es secundario en el mundo rural y casi inexistente en el artesanal, si la principal forma de crédito hipotecario es el censo... no veo inconveniente en considerar feudalismo desarrollado o tardío y

Pocos territorios tienen tan bien analizado su sector artesanal como el País Vasco gracias a las obras de L. M. Bilbao, R. Uriarte o I. Carrión o su demografía por Santiago Piquero o su fiscalidad merced a los trabajos de R. Díaz de Durana, Isabel Mugartegui y Mario García Zúñiga, entre otros.

Paradójicamente estos avances, recogidos en publicaciones científicas, no siempre han logrado difundirse mucho más allá del mundo universitario. Y es que con la desaparición de la censura franquista ha aflorado el sectarismo que se agazapaba tras ella. Mientras que las fronteras económicas van cayendo, hay quienes se esfuerzan en elevar las culturales. Se considera normal que quienes elaboran productos industriales tengan que exportarlos y competir en un mercado abierto. Por contra algunos bienes culturales parece ser que tiene que ser «protegidos», independientemente de su calidad por motivos de «escuela», «capilla» o «patrióticos». En este y otros terrenos desgraciadamente, ciertos políticos y ciertos académicos caminan de la mano. Para unos y otros lo importante no es hacer ciencia y difundirla aquende y allende las fronteras, sino manifestar su capacidad de sargentear, aptitud que confunden con tener poder, al amparo de subvenciones, que directa o indirectamente controlan, ellos tan partidarios del neoliberalismo. No vacilan, obviamente de forma verbal, en señalar quien debe ser citado y sobre todo quien debe de ser ignorado, quien debe poder publicar y a quien hay que meterle los originales en un cajón.

Si Vd. ha llegado hasta aquí y está dispuesto a leer el libro, sea prudente a la hora de citar o mencionar la obra. Asegúrese en qué ambiente universitario, académico o político lo va a llevar a cabo. Pudiera suceder que los Pedregal, los Tortilla de Huevina y sus escuderos le metan en una lista negra de ordenador (manifestación de su modernidad, postmodernos ellos). De todas formas tampoco se preocupe demasiado. Los sargentos mandan lo que mandan y muchísimo menos de lo que hacen creer.

Emiliano Fernández de Pinedo  
Bilbao 1998

---

Antiguo Régimen como términos equivalentes. En general los que enfatizamos el aspecto feudal lo hemos explicitado (cita de la nota 3, pp. 11 a 16), lo que no siempre sucede con los que utilizan el término Antiguo Régimen, fácil comodín para no afrontar temas espinosos y mantenerse en la «neutralidad científica». Una excepción y de los años cincuenta además, «Los fundamentos económicos de la sociedad estamental», M. Artola, *Los orígenes de la España contemporánea*, Madrid 1959, t. I, pp. 60 a 64.





Aurkezpen gisa:

*Euskal Herriko ekonomi hazkundera eta gizartealdaketak 1100/1850*, hogeita bost urte eta gero

1996an EHUko Arabako Errektoreordetzak eta Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak liburu hau euskaratzeko diru-laguntza eman zigutenean, 1974ko *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100/1850* hau itzuli eta argitaratzearen zentzugabekeriaz ohartarazi nahi izan ninduen ofizioko adiskide batek: adiskidearentzat, 1974tik berrargitaratu ez den liburu batek ez luke horrelako arreta mereziko, bere edukia honez gero gaindituta dagoelako seinale litzatekeelako, besteak beste.

Ez nengoen eta ez nago —ez kasualitatez nire unibertsitate-sailekoa ez den— lagun horrekin ados. Izan ere, azken hogeita bost urte hauetako euskal historiografia ia osoan etengabe aipatu den liburu hau izugarri erabiltzen da oraindik, baina agorturik dago gaztelaniaz eta asko fotokopiatzen da. Horrenbesteko arrakasta izandako liburu baten euskarazko itzulpenak eta argitarapenak ia mereziko luke, besterik ez bada, merkatuan hutsune hori betetzeko, batzuei —oraindik— hain gauza gutxi iruditzen zaien gure hizkuntzan gainera. Beraz, Emiliano Fernández de Pinedorengandik liburua itzultzeko baimena lortu nuenean, ez nuen zalantzarik izan eta biziki poztu nintzen.

Liburu hau, hein handi batean, euskal eta espainiar historiografiaren klasiko bat bihurtu delako. Eta «klasiko» diodanean, bere zentzurik positibo eta zabalenean esan nahi dut, oraindik orain fruituak ematen jarraitzen duen lan jori batez ari naizelako hain zuzen ere. Egia da azkeneko hogeita bost urteetan euskal historiografiak aurrerapauso itzelak eman dituela, eta are gehiago liburu honen gaiari dagokionez: Antzinako Errejimenaren krisialdia Euskal Herrian. Izan ere, liburu hau dugu, beste gutxi batzuekin batera, gaur egunera arteko ikerketen oinarri, gida eta pizgarri, batzuetan

bertan zirriboratuak agertzen diren tesietan sakontzeko eta aberasteko, beste batzuetan tesi hauek baieztatzeko eta, askoz ere gutxiagotan, bertan azaldutako hipotesiei ñabardurak egiteko.

Liburu hau garrantzitsua iruditzen zait, gainera, Historia idazteko era baten lekuko eta eredu delako; izan ere, gaur egun horrelako obra bat egitea gero eta ez-ohikoagoa bihurtu da gure lanbidean. Are gutxiago lehenengo lan batez ari bagara, doktorego-tesi batez. *Euskal Herriko ekonomi hazkundera...* hau ekonomi- eta gizarte-historia lan bat dugu: epealdi jakin bateko oinarri materialen deskribapenetik eta bilakaeratik abiatuz, gizarte horren egitura eta gorabeherak azaldu eta aldi berean politika edo ideologia-mailako ondorioak ateratzen saiatzen da. Beraz, liburu hau —beste iturburu batzuk aipa baldin badaitezke ere—, Frantziako *Annales* eskolaren eta materialismo historikoaren tradiziozko aberatsenean koka dezakegun historia osoaren edo *totalaren* adibide bikain bat dugu, azpidisziplinaz beteriko gure gaur egungo akademia-mundu hiper-espezializatura ohituta gaudenontzat freskagarri suerta daitekeen halako osotasun-antebizio batez jantzitako lana; hala iruditzen zait, behintzat, berrirakurtzen dudana bakoitzean. Mota eta maila honetako lan eguneratuak aurkitzeko azken urte hauetan argitaratutako Euskal Herriko historiaren sintesi eta eskuliburu-tara jo beharko genuke eta, hala ere, ez genuke pareko adibiderik topatuko, eskuartean dugun liburu hau, garaian eskura zegoen bibliografia eta bigarren mailako iturrien ezagutza sakona erakusteaz gain, batik bat lehenengo mailako iturrien bilakuntza eta analisisian oinarritutako obra dugulako. Eta hau argi eta garbi agertzen zaigu lana irakurtzerakoan. Honi garrantzi handia eman nahi nioke. Liburu hau irakurri duten nire ikasleek ikasturtearen amaieran ematen didaten iruzkinetan, ia beti antzeko komentarioa aurkitu izan dut: —politikoki zuzena iruditzen zaidan esamolde bat erabiliz— *aberatsegia* iruditu zaiela, hots, oso interesgarria baina irakurketa zailtzen omen duten datu andanaz, koadroz, grafikoz eta aipuz beteegia. Aurreneko kurtsoetako ikasle hauen presa eta jakin-nahi maila ulertzekoa bada ere, liburu honen irakurketarekin bidali nahi didan mezuaren alde bat baino ez dute harrapatzen: hain zuzen ere edukiari dagokiona, irakurri ondoren Euskal Herriko historiak askoz ere gehiago dakigulako dudarik ez baitago. Baina gehiago dakigu baita lan egiteko, ikertzeko modu batez ere: artxiboko lan latz eta emankorraz, frogak eta oinarriak argi eta modu ulergarrian aurkeztearen garrantziaz, garaiko gizon-emakumeei hitza uzteak eskaintzen duen aberastasunaz, guztiz ziurrak ez diren hipotesiak zailantzez azpimarratzearen prestutasunaz... Gaur egun —eta ekonomi historia ez da salbuespen bat— aurkitzeko hain errazak ez diren bertuteak, Emiliano Fernández de Pinedok bere ibilera zientifikoan zehar behin eta berriro eutsi dielarik.

Liburu hau testuinguruan kokatzearen, bi zirkunstantziaz hitz egin beharko genuke, gutxienez. Alde batetik, garaian gertatzen ari zen espainiar historiografiaren berrikuntza-haizeei buruz. Frankismoaren lozorrotik

esnatzen ari zen espainiar historiografiaren egoeran, 60ko hamarkadatik batik bat —orduan hasi zen formatzen, hain zuzen ere, gure egilea—, gauza inportanteak gertatzen ari ziren. Aurreko historialari handien irakaskuntzak alboratu nahi ez baditugu ere —Sánchez Albornoz eta R. Carande bezalakoengan pentsatzen ari naiz—, argi dago Vicens Vives, M. Artola edo F. Ruiz Martín-en eskuetatik heldutako ekonomi eta gizarte-historiaren alderdi ezberdinen ikerlari bihurtu zen «historialari-belaunaldiaz» ari naizela, zeintzuen artean, esaterako, J. Nadal, J. Fontana, J. Torras, A. García Sanz, L. M. Bilbao eta E. Fernández de Pinedo bera ere aurkitzen baititugu —badaezpada, zerrenda osoa emateko inongo intentziorik ez dudala gehitu nahiko nuke—. Historialari hauen lana erabakigarria izan zen 60ko hamarkadaren bukaeran eta 70ekoaren hasieran ordu arte nagusi bide zen historia politikoak edota positibista-rankearrak menderatzen zuen eremu akademiko kontserbatzailea berritzeko eta astintzeko eta, azken finean, gaur egungo historialaritzari ateak irekitzeko. *Euskal Herriko ekonomi hazkundera...* honen guztiaren adibide paregabea dugu.

Beste aldetik, lan hau euskal historiografia nazionalista edo abertzale baten zenbait baieztapeni erantzun sendoa emateko ahalegin bat dugu, A. Otazu edo P. Fernández Albaladejo garai berberean egiten ari zirenen ildotik. Kasu honetan, noski, ezin gara bide nazionalista horren nagusigo akademikoaz mintzatu, baina bai garai gatazkatsu horretan euskal gizartemailan lortzen ari zen eragin handiaz. Besteak beste Foruak eta antzinako euskal *demokrazia*, Gaztela eta Espainiarekiko euskal probintzien harremanen izaera eta Karlistaden esanahi historikoa barneratzen zuen imajinario nazionalista mito eta topiko ahistorikoz beterik zegoela uste zutenek ikerketan eta zorrotasun zientifikoan oinarritutako bide bat proposatu nahi zuten, eta beronen emaitza bikainenetako bat dugu, hein batean behintzat, *Euskal Herriko ekonomi hazkundera...* Liburu honen argitalpenaz geroztik, beraz, gauza asko aldatu da euskal historiografiaren panoraman, bai abertzalea kontsidera dezakegunaren baitan —halabeharrez—, bai ez-nazionalista, antinazionalista edo abertzaletasunaren mitoeekin kritikoarenean (aukera beza bakoitzak nahiago duen formulazioa).

Liburua argitaratu zenetik gaur egunera lan franko egin da hiru probintzietako Antzinako Errejimenaren krisiaren historian sakontzeko; batzuk, dagoeneko, egileak berak azpimarratu ditu bere sarreran. Den-denak aipatzea ezinezkoa izateaz gain, ez luke zentzurik izango hau bezalako sarrera edo aurkezpen batean. Hala ere, lan luzeak, hots, liburu eta tesi batzuk aipatzea beharrezkoa iruditzen zait, asko eta asko E. Fernández de Pinedoren liburuak irekitako ateetatik abiatu direlako hain zuzen ere (artikuluak, noski, askoz ere ugariagoak dira, baina aurkezpen honen luzerak ezinezkoa egiten du zerrenda bat zirriborratzea ere). Nabarmendu beharra dago E. Fernández de Pinedok bere inguruan (EHUko Ekonomi Historia eta Erakundeen Sailean hain zuzen) garai hauei buruz aritu eta aritzen den ikertzaile talde garrantzitsu bat sortu duela. Liburuaren lehenengo zatia

dagokionean (xii-xvii. mendei buruzkoa hain zuzen) eginiko lana itzela izan da, hura, egileak esaten digun bezala, bigarren mailako iturrietan eta, hortaz, zirriborratuta agertzen zaigulako liburu honetan. Ikuspegi anitzetatik eta epealdi ezberdinetarako lan batzuk aipatzearen (egileak bere 1974ko testuan aipatzen duen García de Cortázarrek geroago idatzitakoak alde batera utzita), hor ditugu esaterako R. Ayerbe (1985), E. Barrena (1989), R. Díaz de Durana (1986), E. García (1985), L. M. Bilbao (1976), J. Juaristi (1992), L. Soria (1982), J. A. Aspiazu (1990), eta, hein batean, guztiz historiakoa kontsidera ezin badaiteke ere, J. Azurmendiren ekarpena (1992).... eta, noski, garai honi buruz E. Fernández de Pinedok berak beranduago idatziriko artikulua ere (gure egileak bakarka edo lankidetzan ekoiztutako euskal aurreindustria-garaietako artikulua eta lanen laburpenerako, ikus aurkezpen honen amaierako bibliografia, eta bere sarrera). Bigarren zatia dagokionean, antzeko ikuspuntuetatik eutsi zitzaion liburua- ren muina dugun xviii. mende «luzearen» (1700-1850) analisiari —saihes- tezina Euskal Herriko Antzinako Errejimenaren krisiaren iturburu mate- rialak ezagutu ahal izateko— *Euskal Herriko ekonomi hazkundera...*-ren lan garaikide batzuetan: batez ere A. Otazu (1973) eta P. Fernández Alba- ladejorenean (1975). Beste lan orokor batzuk J. Arpal (1979) eta C. Martí- nez Gorriaran (1993) ditugu. Hauen artean tokian tokiko ikerketa orokorrak ere egin dira, esaterako J. R. Cruz Mundetena (1991) edo, beste ikuspegi batetik, M. R. Porresenak (1983 eta 1987). Euskaraz idatzirikoen artean Agirreazkuenaga (1993b) dugu. Populazioaren gorabeherei buruz askoz gehiago dakigu orain demografia historikoan koka ditzakegun hainbat lan eredugarrii esker: S. Piquero (1991) eta J. Urrutikoetxea (1992) batez ere. Nekazaritza eta ekonomia landatarraren bilakaera eta izaeran sakondu du- tenen artean aipa daitezke A. Otaegi (1991), M. Azurmendi (1993), E. Cata- lán (1992), M. A. Herrero (1993) eta, berriro ere, E. Fernández de Pinedo- ren beraren artikulua, batzuetan L. M. Bilbaorekin batera landuak. Garaiko artesautza eta batik bat burdingintzaz R. Uriarte (1988) eta I. Carrión (1991) aritu dira maisuki, bakarrak izan ez badira ere. Merkataritzaz, R. Ba- surto (1983) eta A. Zabalarenak (1983) ditugu lanik aipatuena. Ogasuna- ri dagokionez, I. Mugartegiren lanak (1990 eta 1993) saihestezinak dira. Gizarte-historiaren arloan (batez ere gizarte-gatazka eta gerra-egoerei bu- ruz) eta erakunde- eta ideologia-testuinguruan sakondu dute, ikuspuntu, kalitate, gai eta helburu ezberdinekin, askoz ere multzo anitzagoa osatuko luketen G. Monreal (1974), J. M. Portillo (1991), P. Fernández Sebastián (1991), J. Aranzadi (1981), A. Otazu (1982), J. Agirreazkuenaga (1987 eta 1993a), J. M. Mutiloa (1982), J. M. Ortiz de Orruño (1983) eta J. Gracia (1993); euskaraz, nahiz eta berez ez den ikerketa orijinalean oinarrituriko lana, González eta Barcenilla (1989) dugu. Alde batera uzten dut indus- trializazioaren gaia, liburu honen froga-harrietako bat bada ere, zerrenda luzeegia suerta daitekeelako; izan ere, egileak argi uzten digunez, liburu hau, hein batean behintzat, euskal industrializazioaren problematikarako

atari edo sarrera gisa erabil daiteke (ikusi, gai honi buruz, egileak berak Hitzaurrean esaten duena, eta, maila apalago batean, Zaldua 1991). Eta, arrazoi berberagatik, ez ditugu gehitzen Nafarroari edo Iparraldeari buruz orduz geroztik idatzi direnak, nahiz eta kasu askotan —batez ere historiografia nafarrari dagokionez— lan horien eta liburu honen arteko harreman epistemologikoak oso estuak izan. Zirriborratu dudan zerrenda honekin (barka nazatela agertu ez direnek), *Euskal Herriko ekonomi hazkundera...*-ren argitalpenaz geroztik burututako lanaren oroigarri bibliografiko apal bat utzi nahi nuen; informazio gehiago eta eztabaiden berri lortu nahi duenak, jo dezala Olabarri eta Vázquez de Prada (1983), Albaladejo (1985), Morales (1988) eta Donezar-en (1988) artikuluetara. Edozein kasutan, liburu honek duen garrantzia azpimarratu nahi nuke berriro ere. Alde bate-tik, modu batean edo bestean, aipatu ditudan lan horietako askoren hazietako bat izan zelako eta, bestetik, aipatu bezala, ondorengo ikerketa hauen argitara begiratuta ere, oraindik indarrean dagoen obra dugulako E. Fernández de Pinedorena.

Itzulpenera joz, eta aurreko guztia kontuan harturik, ahalegin honen beharraz eta ezaugarriez zertxobait (gehiago) jardun nahiko nuke. Baten batek argudia dezake Hego Eukal Herriko historialari eta ikasle euskaldunak ez gaudela halako itzulpen baten beharrean, kontuan harturik denok ulertzen dugula gaztelania eta, literatura-arloan bezala, aberasgarriagoa lizatekeela, printzipioz, irakurketa jatorrizko hizkuntzan egitea. Liburu-a agortuta dagoela alde batera utzita, eta Iparraldeko irakurleen beharren kontua ere alboratuz (geroago mintzatuko naiz azken argudio honek nire ustez dituen ahuleziez), euskal historiografiaren ezaugarrietako bat ekarri nahiko nuke gogora: euskarazko lanen produkzio urria alegia. Erdaraz soilik funtzionatzen duten esparru akademikoak, tesiak euskaraz aurrera ateratzeko doktore-urritasuna, euskal komunitate zientifiko-intelektual baten falta, merkatu eta azpiegitura-arazoak... nahi ditugun zergatiak eta gehi-ago aukera ditzakegu, baina honen guztiaren ondorio lazgarrienetako bat euskarazko ekoizpen historiografikoaren ahulezia dugu, bai liburu-mailan, bai artikulua-mailan ere. Are gehiago kontuan hartzen badugu oso euskaltzaleak bide diren argiteletxeek hartutako bidea: Euskal Herriaren edo Munduaren Historia orokorrak egiterakoan, historialari erdaldunetz osatutako ekipo bat eratu, azkenik lana euskaratu, argitaratu eta (susmatzen dut) diru-laguntza ederrak eskuratzeko. Gure artean euskaraz idatz dezakeen aditurik izango ez balitz bezala! Egia da, ordea, ganorazko euskal historiografia bat bultzatzeko ezinbestekoa zaigula historia euskaraz irakurri ahal izatea. Alde honetatik, itzulpenak ordeztiko egoki bat izan daitezke, batez ere historiografiaren *klasikoen* itzulpenak. Azken urte hauetan hauek ugaritu badira ere (adibidez, Gaiak argitaletxean), ez dira oraindik asko, eta bideak luzea dirudi. Edozein kasutan, oraindik historialaritzarako lexikoa landu eta bateratu beharrean gaude, eta honetarako itzulpenak beharrezkoak zaizkigu, are gehiago Euskal Herriaren historiari buruz ari

diren lanenak, gure euskara zientifikoa trebatzeko eta fintzeko ezinbestekoak, nire ustez. Ildo honetatik, liburuaren azken orrialdeetan aurkituko duzuen hiztegia eskaintzea otu zitzaigun, ekarpen xume bezala alegia. Bertan lexiko historikoa aberasten jarraitzeko hainbat proposamen egiten dugu, inongo betierekotasun nahirik gabe eta eraikuntza-prozesuan da-goen hiztegi tekniko baterako ekarpenak direla oso kontuan harturik. Alde honetatik, agian norbaitek pentsatuko du hitz hedatuegiak sartu direla, baina nahiago izan dugu akatsa larregitasuna izatea, urritasuna baino.

Itzulpenaren arazoekin jarraituz, lehenengoa izenburuan bertan begi-bistakoa da, hots, jatorrizko *País Vasco* itzultzeko egin den aukera zalantzagarria: Euskal Herria. Eguneroko bizitzako elkarrizketetan, normalean, horrelako zalantza batek lekurik ez badu ere, liburu bat idatzi edo euskar-tzerakoan kontu handiagoarekin ibili behar dugu. Izan ere, jakin badakit «Euskal Herria» esaten dugunean sei edo zazpi herrialdeek osaturiko multzoaz hitz egin ohi dugula. Hau ez da, ordea, E. Fernández de Pinedok erabiltzen duen «País Vasco»-ren kasua: liburuan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari buruz soilik idazten du, noizean behin Nafarroa edo Iparraldeko kontuei erreferentzia bat edo beste eskaintzen badie ere. Beraz oraindik batzuek «Vascongadas» deitzen jarraitzen duten lurraldeari buruzko liburu bat da (izan ere, egileak berak behin baino gehiagotan erabiltzen du «Vascongadas» hori, «País Vasco»-ren sinonimo bezala alegia). Alternati-bak bilatzen saiatu bagara ere, gogora etorri zaizkigunak baztertu ditugu, azkenik hautatutakoa baino ahistorikoagoak (Euskadi eta Euskal Autono-mia Erkidegoa<sup>1</sup>) edo hartzen duen epealdi luze gutzirako desegokiak (Probintzia Askeak, Probintzia Exentoak) iruditu zaizkigulako. Egilearen aukera, gainera, oso garbia da, lehen aipatu dudan bezala: berarentzat «País Vasco» hiru probintziek osatuko lukete eta hau, euskaraz, era garbi batean Euskal Herria esatea baino erremedio egokiagorik ez dago, nahiz eta ikuspuntu abertzaletik bederen eztabaidagarria iruditu. Izan ere ikus-pegi hau euskaraz oso gutxitan eman delako iruditzen zaigu arraro eta, nire ustez behintzat, ohitzen joan behar dugu abertzaleak ez diren ideiak, kontzeptuak eta ikuspuntuak euskaraz ere entzuten eta irakurtzen, hitzen esanahia ondo zehaztuz, jakina.

Irakurlea gatzelaniaz utzi ditugun pasarteen ugaritasunaz ere kontu-ratuko da. Izan ere, liburu osoan zehar jatorrizko dokumentuetako ai-puen kopurua eta luzera nahikoa handia da eta, behin baino gehiagotan,

---

<sup>1</sup> Azken honekin Euskal Autonomia Erkidegoa Izango Dena bezalako ariketak saiatzea posible bazen ere —Jugoslavia Ohia eta antzekoen bidetik—, ez ditut kontuan hartu. Beste aukera posiblea (eta, nire ustez, nahiko egokia) adiskide batek proposatu zidana izan zitekeen: Mendebaldeko Euskal Herria. Hala ere, hasierako hautua mantenduko dut. Finean, badago «Euskal Herriaren» erabilera hau oinarritzeko arrazoi historikorik: hain zuzen ere XVIII. mendean fun-daturiko *Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* ez al dugu *Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte*a bezala ezagutzen?

historialariaren testuan tartekatuta daude, itzulpena zailduz. Azkenik, gehienak gaztelaniaz uztea erabaki dugu, jatorrizko dokumentuetan zeuden bezala alegia, errealtate historikoaren ispilu gisa —tamalez, Euskal Herriko historiari buruzko euskarazko idatzizko dokumentu orijinalak oso urriak dira eta idatzizko dokumentuak dira, hain zuzen ere, egileak gehien erabiltzen dituenak—; testuan tartekatutako pasarteak motzegiak edo kofonikoegiak suertatzen zirenean bakarrik itzuli ditugu euskarara. Horregatik aipatu dut gorago Iparraldeko euskaldunentzat itzulpen hau akaso ez litzatekeela egokiena izango, halaberrez gaztelaniazko terminologia historikoaren nahikoa mende geratzeaz gain, gaztelaniaz utzitako pasarteen irakurketa zaila suerta baitakioke; akats hau kontuan hartuta ere, batik bat hegoaldeko irakurleek erabiliko duten liburu honetako jatorrizko pasarte- zaporea eta erabilgarritasuna —testu-iruzkinetarako, adibidez— gor- detzea erabaki dugu.

Bestalde, gauza bera egin dugu euskal eta espainiar idazle, kronika- ri eta historialari «tradizionalen» lanen pasarteekin ere (Labayru, Iturri- za, Guiard...), xx. mendearen bigarren erdialdeko gehienak euskarara itzuli ditugularik, bestalde. 1974ko argitalpenean gaztelania ez den bes- te hizkuntza batean emandako zatiak bere horretan uztea erabaki dugu, baina espainierara itzulita agertzen zirenak euskaraz eman ditugu (hauxe egin dugu, esaterako, *Peru Abarkaren* zati batekin: kasu honetan Klasi- koak bildumaren jatorrizko pasartera jo dugu; Bibliarenean, Elizen arte- koa erabili dugu). Izen bereziak itzultzerakoan ere arazoak izan ditugu; izan ere, ekonomi eta gizarte-historiako liburu honetan ez da egiten pertsonaia historiko *ospetsuen* historia —tarteka hauetako batzuk ager- tzen badira ere, noski—. Ordea, merkatari, aitoren seme, nekazari eta eskulangile askoren izen-abizenak ematen zaizkigu, eta baita toponimo ugari ere. Euskal erabilera nahiko finkatuta dagoen kasuetan, hots, herrien edo pertsonaia handien izenean —Alegia, Zamakola...— euskal izenda- peno edo ortografia erabili izan dugu. Ez, ordea, izen berezia «ezezagu- na» egiten zitzaigunean: kasu horretan egileak lehenengo argitalpenean ematen zuen gaztelaniazko forma hobetsi dugu, euskarazko forma ba- liokidea oso argia izan zitekeen kasuetan ere, dokumentazio orijinala erabiltzeko posibilitaterik izan ez dugulako hain zuzen ere; segur aski gaztelaniaz idatzitako izkribu zahar horietan agertzen diren grafiak egi- leak erabiltzen dituen gaur egungo espainierazko forma bateratuetatik gertuago izango direnez, hauek ere gehienbat bere hartan uztea erabaki dugu.

Dudarik gabe, itzulpen honetako irakurleak akats bat baino gehiago aur- kituko du, eta batzuetan ez da ados egongo koordinatzaileak edo itzultzai- leek egindako aukerekin; hala ere lana gogorra izan da eta emaitza, behin betikotasun gurarik gabe baina, pozik uztekoa dela esango nuke. Eskerrak banatzeko orduan askotan deserotasunez beteriko itzultzaileen lan bikaina aipatu behar dut: Itziar Arrizabalaga, Miren Ezpeleta eta Edurne Lazkano.



Bestalde, eskerrak orobat modu batean edo bestean laguntza eta aholkua eskaini didaten Gidor Bilbao, Eugenio Riaño, Ignacio Carrión, Isabel Murgartegi, Ernesto Lopez, Santiago Piquero eta Jabier Ormazabali (jakina, aurki daitezkeen akatsak koordinatzailearenak dira). Baita diru-laguntza baten bidez itzulpen hau posible egin zuten Arabako Errektoreordetzari eta Foru Aldundiari ere, eta EHUko Euskarako Errektoreordetzari, liburua argitaratzea onartu izanagatik. Azkenik, Emiliano Fernández de Pinedo egileari, hainbeste luzatu den lan honi ekiteko baimena emateagatik.

*Iban Zaldúa*

Itzulpenaren koordinatzailea  
EHUko Ekonomi Historia eta Erakundeen Saila  
Gasteizen, 1998an

### **Aipaturiko bibliografia**

- AGIRREAZKUENAGA, J. (1987), *Vizcaya en el siglo XIX (1814-1876): Las finanzas públicas de un Estado emergente*, Bilbo.
- AGIRREAZKUENAGA, J. (1993a), *Gerra eta bakea: Politikagintza Lege Zaharraren krisialdian*, Bilbo.
- AGIRREAZKUENAGA, J. (1993b), *Industrializazioa abiatu ezinik: Euskal Herriko ekonomia-aren gorabeherak Lege Zaharraren kinkan*, Bilbo.
- ARANZADI, J. (1981), *Milenarismo vasco*, Madril.
- ARPAL, J. (1979), *La sociedad tradicional en el País Vasco*, Donostia.
- AYERBE, R. (1985), *Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (s. XI-XV). Aportación al estudio del régimen señorial en Castilla*, Donostia.
- ASPIAZU, J. A. (1990), *Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI: mercaderes guipuzcoanos*, 2 liburuki, Donostia.
- AZURMENDI, J. (1992), *Españolak eta euskaldunak*, Donostia.
- AZURMENDI, M. (1993), *Nombrar, embrujar. Para una historia del sometimiento de la cultura oral en el País Vasco*, Irun.
- BARRENA, E. (1989), *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*, Donostia.
- BASURTO, R. (1983), *Comercio y burguesía mercantil en Bilbao en la segunda mitad del siglo XVIII*, Bilbo.
- BILBAO, L. M. (1976), *Vascongadas (1450-1720). Un crecimiento económico desigual*, argitaragabeko tesia, Salamancako Unibertsitatea.
- CARRIÓN, I. (1991), *La siderurgia guipuzcoana en el siglo XVIII*, Bilbo.
- CATALÁN, E. (1992), *Economía eclesiástica en Vizcaya durante el Antiguo Régimen*, argitaragabeko tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- CRUZ MUNDET, J.R. (1991), *Rentería en la crisis del Antiguo Régimen (1750-1845)*, Errenteria.
- DÍAZ DE DURANA, J. R. (1986), *Alava en la Baja Edad Media. Crisis, recuperación y transformaciones socioeconómicas*, Gasteiz.

- DONEZAR, J. M. (1988), «Interpretaciones de la crisis del “Antiguo Régimen”», in *II. Euskal Mundu Biltzarra. Euskal Herriaren historiari buruzko biltzarra. IV. alea: Antzinako Errejimenaren krisia*, Donostia.
- FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P. (1975), *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa (1766-1833). Cambio económico e Historia*, Madril.
- FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P. (1985), «El País Vasco: algunas consideraciones sobre su más reciente historiografía», in R. Fernández (arg.), *España en el siglo XVIII. Homenaje a Pierre Vilar*, Bartzelona.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1972), «La desamortización en Vascongadas», *I Congreso de Historia Económica*, Bartzelona.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1973), «¿Lucha de bandos o conflicto social?», in *La sociedad vasca rural y urbana en el marco de la crisis de los siglos XIV y XV*, Bilbo.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974), «La entrada de la tierra en el circuito comercial: la Desamortización en Vascongadas. Planteamiento y primeros resultados», *Agricultura, comercio colonial y crecimiento económico en la España contemporánea*, Bartzelona.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. & BILBAO, L. M. (1976), «La coyuntura agraria de la llanada alavesa y tensiones sociales en la primera mitad del siglo XIX», in J. L. García Delgado et alii, *La cuestión agraria en la España contemporánea. VI coloquio de Pau*, Madril.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1977a), «El campesinado parcelario vasco en el feudalismo desarrollado», *Saioak*, 1. [Baita in *Historia General del País Vasco*, 6. libk., Donostia, 1981].
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1977b), «Actitudes del campesino propietario ante la usura y el crédito rural», *Dinero y Crédito. Actas del I Coloquio Internacional de Historia Económica*, Madril.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. & BILBAO, L. M. (1978a), «En torno al problema del poblamiento y la población vascongada en la Edad Media», in *Las formas de poblamiento en el señorío de Vizcaya durante la Edad Media*, Bilbo.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. & BILBAO, L. M. (1978b), «Factores que condicionan la evolución del régimen de propiedad de la tierra en el País Vasco peninsular», in *La economía agraria en España. Propiedad, explotación, comercialización y rentas*, Madril. [Baita in *Historia General del País Vasco*, 6. libk., Donostia, 1981].
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1981), «Un caso regional de baja presión fiscal: El País Vasco peninsular», in *Historia General del País Vasco*, 6. libk., Donostia.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. & BILBAO, L. M. (1981), «Evolución del producto agrícola bruto en Vascongadas, 1538-1850», in *Historia General del País Vasco*, 6. libk., Donostia.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1982), «Aspectos económicos y sociales de Vitoria y su entorno en la Baja Edad Media», in *Vitoria en la Edad Media*, Gasteiz.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. & BILBAO, L. M. (1982), «Auge y crisis de la siderometalurgia tradicional vasca (1700-1850)», in *La economía española al final del Antiguo Régimen Tomo II. Manufacturas*, Madril.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1983), «Estructura de los sectores agropecuario y pesquero vascos (1700-1850)», in *IX Congreso de Estudios Vascos. Antecedentes próximos de la sociedad vasca actual. Siglos XVIII y XIX*, Donostia.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1984), «Etapas de crecimiento de la economía vasca (1700-1850)», *Papeles de economía española* 20.

- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. & BILBAO, L. M. (1984), «La producción agrícola en el País Vasco peninsular 1537-1850. Tendencia general y contrastes comarcales. Una aproximación», *Sail-koadernoak. Historia-Geografía 2*, Eusko Ikaskuntza.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1985), «Del censo a la obligación: modificaciones en el crédito rural antes de la primera guerra Carlista en el País Vasco», *Actas del I Coloquio Vasco-Catalán de Historia*, Bartzelona.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1987), «Haciendas forales y revolución burguesa: las Haciendas vascas en la primera mitad del siglo XIX», *Hacienda Pública Española*, 108-109.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1988), «Liberalismo y Fueros en vísperas de la primera guerra carlista», *Sin color ni grito (diez conferencias para la libertad)*, Bilbo, El Sitio.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1991), «Gasto público y reformas fiscales. Las Haciendas forales vascas», *Historia de la Hacienda en España (siglos XVI-XIX). Homenaje a Don Felipe Ruiz Martín. Hacienda Pública Española*, Madril.
- FERNÁNDEZ SEBASTIÁN, J. (1991), *La génesis del fuerismo. Prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País Vasco, 1750-1840)*, Madril.
- GARCÍA, E. (1985), *Laguardía en la Baja Edad Media (1350-1516)*, Gasteiz.
- GONZÁLEZ DE GARAI, I. eta BARCENILLA, M. A. (1989), *Jauntxoak, burgesak eta foruak*, Bilbo.
- GRACIA, J. (1993), *Mendigos y vagabundos en Vizcaya (1766-1833)*, Bilbo.
- HERRERO, M. A. (1993), *Evolución de la propiedad agraria y de la renta de la tierra en el País Vasco durante el siglo XIX y principios del XX*, argitaragabeko tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- JUARISTI, J. (1992), *Vestigios de Babel. Para una arqueología de los nacionalismos españoles*, Madril.
- MARTÍNEZ GORRIARÁN, C. (1993), *Casa, provincia, rey. Para una historia de la cultura del poder en el País Vasco*, Irun.
- MONREAL, G. (1974), *Las instituciones públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*, Bilbo.
- MORALES, A. (1988), «Interpretaciones de la crisis del “Antiguo Régimen”. Introducción», in *II. Euskal Mundu Biltzarra. Euskal Herriaren historiari buruzko biltzarra. IV. alea: Antzinako Errejimenaren krisia*, Donostia.
- MUGARTEGUI, I. (1990), *Hacienda y fiscalidad en Guipúzcoa durante el Antiguo Régimen 1700-1814*, Donostia.
- MUGARTEGUI, I. (1993), *Estado, Provincia y Municipio. Estructura y coyuntura de las haciendas municipales vascas. Una visión a largo plazo (1580-1900)*, Oñati.
- MUTILOA, J. M. (1982), *Guipúzcoa en el siglo XIX (Guerras, Desamortización, Fueros)*, Donostia.
- OLABARRI, I. eta VÁZQUEZ DE PRADA, V. (1983), «La sociedad vasca en los siglos XVIII y XIX: estado de la cuestión», *IX Congreso de Estudios Vascos*, Donostia.
- ORTIZ DE ORRUÑO, J. M. (1983), *Alava durante la invasión napoleónica. Reversión fiscal y desamortización*, Gasteiz.
- OTAEGUI, A. (1991), *Guerra y crisis de la Hacienda local. Las ventas de bienes comunales y de propios en Guipúzcoa, 1764-1814*, Donostia [liburuxo honen euskarazko itzulpena badago, Gipuzkoako Aldundiak berak egindakoa].
- OTAZU, A. de (1973), *El «Iguaritarismo» vasco: Mito y realidad*, Donostia.

- OTAZU, A. de (1982), *La burguesía revolucionaria vasca a fines del siglo XVIII*, Donostia.
- PIQUERO, S. (1991), *Demografía guipuzcoana en el Antiguo Régimen*, Bilbo.
- PORRES, M. R. (1983), *Un ejemplo de economía rural de Antiguo Régimen, el Condado de Treviño (1650-1800)*, Gasteiz.
- PORRES, M. R. (1987), *Gobierno y administración de la ciudad de Vitoria en la primera mitad del siglo XVIII : aspectos institucionales, económicos y sociales*, Gasteiz.
- PORTILLO, J.M. (1991), *Monarquía y gobierno provincial. Poder y Constitución en las provincias vascas (1760-1808)*, Madril.
- SORIA, L. (1982), *Los hombres y los bienes de la villa de Hernani entre 1585-1650*, Bilbo.
- ÚRIARTE, R. (1988), *Estructura, desarrollo y crisis de la siderurgia tradicional vizcaína (1700-1840)*, Bilbo.
- URRUTIKOETXEA, J. (1992), *En una mesa y compañía: Caserío y familia campesina en la crisis de la «sociedad tradicional», Irún, 1766-1845*, Donostia.
- ZABALA, A. (1983), *La función comercial del País Vasco en el siglo XVIII*, 2 liburuki, Donostia.
- ZALDUA, I. (1991), «Bizkaiko industrializazioa: Eztabaida historiografiko bat», in *Muga*, 77. zkia., ekaina, 20-37.



## Lehenengo argitalpenaren hitzaurrea

*Euskal Herriko ekonomi hazkundera eta gizarte-aldaketak (1100-1850)*, 1967-68 ikasturtean, Espainia saiakera eta artikulutik irtetzera zihoala ematen zuenean, hasitako doktore-tesi baten emaitza laburtua da; 1971-72 ikasturtean ia erabat amaituta zegoen —1971ko ekainerako lehenengo sei atalak idatzita zeuden— eta 1973ko azaroan defendatu nuen, «egin ezazu tesi bat hamabost egunetan» punta-puntan zegoenean. Hasiera batean Bizkaiko eta Gipuzkoako industrializazioaren ikerketaren hitzaurrea izan behar zuen arren, hortik sortzen ari ziren munduak eta iturriek, bertako ikuspegi idilikotik hain desberdinak zirenek, ikusita, nekazarien mundua aztertzeraz eraman ninduten. Horregatik, gehiegi nahastu gabe, nekazaritza-guneetako demografia, nekazaritza eta gizarteaz aztertu ditut bereziki. Merkataritza-sektore garrantzitsua gainera baino ez dut aztertu; hor ditugu gai horri buruzko Guiard eta Manuel Basas-en lanak, bidean dauden beste ikerketa batzuekin batera, Manuel González Portillarena adibidez. Euskal Herriko herri eta hirietako merkataritzak eskualdearen muga estuak gainditzen ditu; Iparraldeko itsasoaren itsasertzak, Hispanoamerika, Andaluzia, Gaztela... hartzen ditu. Zaila da bertako hazkundera, arazoak, porrotak etab. eskualdetik bertatik bakarrik azaltzea eta ikerketa sendoa baten, nire eskutik at legokeen mundu bat hartuko zukeen.

Lana XVIII. mendean eta XIX. mendearen lehenengo zatian oinarritzen bada ere, ezin izan dut Goi Erdi Aroan hasten den ikuspegi laburra egiteko tentaldia saihestu. Erdi Aroko mendeetarako eta XVI. eta XVII. mendeetarako ez naiz eskuizkribuek baliatu. Dena edo ia dena argitaratutako testigantzetan oinarrituta dago. Horra hor bere ahultasuna. Luis María Bilbaoren tesiak dituen material kuantitatibo aberatsak, liburu honetako lehen ataletan gertatzen den bezalaxe, datu gutxi batzuetan, intuizioan eta gehiago ezagutzen diren inguruetan gertatutakoetatik egindako extrapolazioetan oinarritzen diren sintesiak dituzten arriskuak erakutsiko ditu.

Tesia ez da bakarkako lana. Ikertzailearen inguruan beste batzuek idatzi dutena eta erakutsi diotena dago. Gai horri dagokionez, hainbat zor aitortu behar dut. Historialari izateko prestakuntzan nigan eragin sakona izan duten bi irakasle izan ditut: karrerako lehen urteetan<sup>1</sup>, Miguel Artola, Munduko Historia eta Espainiako Historiako klaseei esker; klase horien-  
gatik izan ez balitz, gaur egun ikasketa klasikoetan lizentziatua izango nintzatekeen. Beste zorra Felipe Ruiz Martínekin daukat. Sarrikon jasotako Ekonomi Historiako ikastaroei eta bere irakaskuntzei esker, lizentziatu berria nintzenean, *Annales* Eskolako onena eta Espainiako Historia ekonomiko eta sozialaren sintesi pertsonala eta ederra eskuratu nituen eta, bere laguntzarik gabe, ez nintzateke hain gai zabala aztertzeraz ausartuko. Bataren nahiz bestearen lana ezagutzen duenak liburu honek asko zor diela ikusiko du, baina ez erudituek hainbeste begiratzen dituzten oin-oharren-  
gatik. Euskal Herriko ikertzaile guztiok asko zor diogu Julio Caro Barojari, hori ukatzerik ez dago. Egoera latzenetan ere, Euskal Herriko historia maila zientifikoan mantentzeko gai izan da eta hori mirezgarria da. Zalan-  
tzarik gabe, ez dut merezi beste aipatu, ez eta erabili dudan guztietan ere.

Ikertzaile gazteak ondo dakien moduan, tesi luze batek pertsona askorekin harremanak izatera bultzatzen zaitu. Lanean hasterakoan talde-lanean sinesten da, elkarlanean, ideien eta aurkikuntzen trukean. Ikerketaren erdi-  
aldera eszeptikoagoa bihurtzen da pertsona eta, azkenerako, zertan ari zaren ere ez duzu esaten. Gauza asko esan daiteke beste batzuen aurkikun-  
tzak bereak izango balira bezala erabiltzen dituztenez edo, beste norbaitek mekanografiatutako orijinalak izanik eta erabiliz, aipatu ere egiten ez di-  
tuztenez. Dokumentu historikoak desegin eta ezkutatzearen ardura (eta kontzientziaren zama) duten beste norbaitzuek ere gauzaren bat idatz zite-  
keen. Haiek jarritako oztopoek sei hilabetetik urte betera atzeratu zuten materialaren bilketa-lana. Ez da ahazteko modukoa.

Haatik, nire lana erraztu duten pertsonak oztopatu dutenak baino gehiago izan dira. Eskerrak eman nahi nizkieke, bere garaian eskaini zida-  
ten laguntza handiarengatik, Emilio Enciso Vianari, Micaela Portillari eta Ernesto Aransay-ri; horiek egindako ikerketa-lanak eta Gasteizko elizbarru-  
tiko artxiboa sortu izana, historialariek inoiz behar adina eskertu ezingo dugun laguntza da; Ildefonso Rodríguez de Lama-ri, Kalagorriko kalonje artxibozaina denari, bere laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen jaso ditudan hamarren-kopuru aspergarri guztiak jasotzea; Tolosako Recalde jaunari; Bilboko Carlos González Echegaray-ri; Loiolako Eguillor aitari; Beasaingo Arturo Garcíari; Vicente Rodríguez Graciari eta artxiboak era-  
kutsi dizkidaten parrokiako apaiz askori.

---

<sup>1</sup> Gaur egun Filosofia eta Letrak ikasten ari denarentzat argitu beharra dago hirurogeiko hamarkadan, Salamancako Unibertsitatean behinik behin, katedradunek «komunak» deituri-  
koetan ematen zituztela klaseak eta ikastaro horietan aurrerago egin ahal izango ziren aukeren laburpena egiten zela.

Ezin ditut aipatu gabe utzi liburu hau argitaratzeko Miguel Artolak, Ramón Garrabouk, Manuel Pérez Ledesmak eta, batez ere, Federico Grafek egin zituzten edo egin nahi izan zituzten kudeaketak. Federico Grafekin, gainera, lan honen alderdi desberdinak aztertu ditut eta emaitza onuragarriak lortu.

Urte hauetan Carmen Echevarriaren laguntza paregabea izan dut eta bera izan da askotan horrelako lan batek dituen alderdirik neketsuenak eta eskergabeak egin behar izan dituenak. Hala ere, Carmenek eskaini didan laguntzarik baliagarriena, atal bakoitzean egin duen kritika-lana izan da, liburuaren historialarientzat bakarrik izan ez dadin. Luis María Bilbaori materialak biltzeko garaian jasotako laguntza eskertu behar diot, baina, batez ere, atal askori buruz izan dugun ideia-trukaketak eta eztabaidak eskertu behar dizkiot, oso baliagarriak gertatu baitzaizkit<sup>2</sup>.

Historia gizarte-zientzia bat da, geografia, ekonomia, literatura edo hizkuntzalaritza bezalaxe eta, beraz, zientzia zehatzak baino gehiago baldintzatzen dute eragin estraprofesionalek. Oso argi dugu hori eta ez dugu uste liburu hau edo liburuaren egilea salbuespenak direnik —«historia ezin da historialariarengandik bereiztu»—, baina horrekin ez dugu historia ideologia bihurtu nahi, inola ere ez; alderantziz beharbada. Gure mugak eta joerak ezagutzeak historiaren errealitatera gehiago hurbiltzen gaituela uste dut. Beti jakin dut Euskal Herriari buruz idaztea eta, are gehiago, bere historiari buruz idaztea zeregin arriskutsua dela. Beraz, iradokizun txiki bat egin nahi dut. Ezikasi gutxi dago, adibide aseptiko bat jartzearen, turbinei buruz idaztea ausartuko dena aerodinamikan injineru izan gabe; haatik, historian ezjakin asko dago lan historiko eta historialariei buruz epitetoak eman, euren iritziak adierazi eta pontifikatzen dituztenak, beren «tam-tam» bereziak erabiliz. Berritsu horiek euren iritziak, balore-aburuak eta «hasi berrientzako aipamenak» idatziz egitea eskertuko genuke, herri honetako historia mitifikatua argituko digun eztabaida sortzeko bide bakarra baita.

*Emiliano Fernández de Pinedo, 1974*

---

<sup>2</sup> Tesia defendatu ondoren Alfonso Otazuren liburu argitaratu zen, *El igualitarismo vasco, mito y realidad*; zoritxarrez, bere liburuako material aberatsen zati bat bakarrik gehitu ahal izan dut oin-oharretan.





# I

## Inguru geografikoa<sup>1</sup>

Gaur egungo Euskal Herriko probintziek, geologikoki, geosinklinal piriniar-kantabriarrean eratuak dira; bertan, kretazeo eta eozenoaren garaian gehienbat kararizko masa bat ezarri zen, oligozenoan altxatu izan zena. Ardatzen norabidea, batez ere iparraldeko geruzan, MIM-EHE izan zen. Tolesturak ez ziren oso bortitzak izan eta estilo jurasikoa nabarmentzen da, tolestura-failak baztertu gabe: Gasteiz-Altsasu-Irurtzun «korridorea» komunikabide aparta izateaz gain, Ekialdetik Mendebaldera doan fosa tektonikoa da.

Erliebe asimetrikoa da eta ibai kantabriarrek, malda eta emari handiagoa dutenez, higadura-intentsitate handia dute; horiek izan dira Urduñako Haitza, Gorbea, Aitzgorri eta Aralargo mendilerroetatik igarotzen den isurialdeen banalerroa Hegoalderantz mugitzeko bi arrazoiak. Oro har, Bizkaia-ko itsasoko isurialdeko ibaiak (Nerbioi, Deba, Urola, Oria, Urumea, Bidasoa), malda nagusitik iparralderantz jaisten dira eta, beraz, kontsekuenteak dira. Baina batzuetan, geruzen norabidea jarraitzen dute; hala gertatzen da Nerbioi ibaiaren behe-ibilguan, goialdean kontsekuentea den arren, batez ere bere ibaiadarrei dagokienez. Ibaiadarrek E-M norabidea hartzen duten haran ortoklinalak osatzen dituzte eta komunikabideetarako oso garrantzitsuak dira, esate baterako Zumaia-Donostia-Irun luzera-haran jarraia edo barnealdeko Beasain-Bergara-Elorrio-Durango-Bilbo luzera-harana. Historikoki garrantzi handiagoa izan dute M-H eta EIE-MHM norabideko geruzak moztu dituzten haran kontsekuenteek: Kadagua, Nerbioi, Altube, Arratia eta Mañaria; azken hau Ibaizabalen ibaiadarra da eta, behin mendea igaro ondoren, Urkiolako bailaratik barneratzen da Hegoalderantz. Lehenengo aipatu ditugun haranek Gaztelako artileak Bilboraino egiten

---

<sup>1</sup> Sarrera hau, hein handi batean, H. Lautensach-en *Geografía de España y Portugal* liburuan geografía fisikoari buruz azaltzen denaren laburpen partziala da.

zuen bidea erraztu zuten eta, besteek, burdinak eta arrain freskoak edo gazituak, Errioxako ardoaren edo Arabako gariaren truke, barneko probintzietara egiten zuten ibilbidea. XVIII. mendearen bigarren erdialdean eta XIX. mendearen hasieran garraiobideetan egin ziren ahalegin gehienak ibai hauen goi-ibarrak bereizten zituzten mendateak irekitzean oinarritu ziren.

Zumaiatik Frantziako mugaraino doan kostaldea itsaslabarrez osatuta dago eta itsas mailaren lurbarneratze flandienseak inbasio-badiak sortu zituen: Donostiako Kontxa eta Pasaiakoa, adibidez. Mendebaldea muxarratuagoa da, handik MHM norabidea duten Kantabriar mendikatearen lerrokatze zehiarrak igarotzen baitira eta bertan, lurbarneratze flandienseak itsasadarrak sortu zituen: Gernikakoa, Plentziakoa... Itsasadar horiek arrantzako eta merkataritzako ontzien babesleku izan dira aspaldidanik. Batzuetan padura ugari dago, XVIII. mendearen aurretik zabalagoak izango zirenak ziurraski. Padura horietako asko, demografiaren hazkundea zela-eta, XVIII. mendearen bukaeran eta hurrengoaren hasieran lehortu zituzten.

Klima ozeanikoa da eta kostaldean barnealdean baino nabarmenagoa da, nahiz eta gehiegi altxatzen ez den erliebearen erruz, Hegoaldera itsasoaren eragina asko barneratzen den. Kantauriko mendizerraren hegoaldean dagoen Arabako lurraldean, euri-prezipitazioen urteko baloreak oso azkar jaisten dira eta egun eguzkitsuak ugaritu eta bitarte termikoa gehitu egiten da.

«Arroka karedun eta margatsuz osatutako hedadura ikaragarriak eta prezipitazio ugari klimak azaltzen dute Kantabriako lurralde gehiengan *lehm* delako lurzoru nabar eta kareduna (*terra fusca*) nagusitzea. Leku jakinetan dauden alubioiez osatutako lurzoruen gainean hedatzen da Erdialdeko Europako lurzoru nabarra eta erdialdeko eta hegoaldeko mendi garaien ezaugarri nagusia, berriz, rendsina hezea da, lurzoru eskeletikoak eta gris-horiskak edo harkaitz biluziak ez daudenean behintzat. Azken hauek oso beheraino jaisten dira hemen, lainoa oso beheraino sartzearen eta landaretza naturalaren giza suntsipenaren ondorioz.»

Lurzoru honetan eta prezipitazio ugari esker nagusitu ziren beste garai batean, kostaldean, haritza, gaztainondoa, lizarra, artea eta, leku ospetetan, pegoa; oihanpean, berriz, garoa eta otalurreko zuhaiskak, gorostiak eta hurrondoak zeuden. Baina, Lehen Karlistadaren ondoren batez ere, inausketa-prozesu sakona garatu zen eta, poliki-poliki, antzinako asoziazioak ordezkatu zituzten; horien ordeztasun, «larretarako erabiltzen ziren formazio azpiespontaneo bajuak eta... *Pinus pinaster*, *pinus insignis* eta *Eucalyptus globulus* arbolez osatutako basoak garatu ziren».

Zaila da Euskal Herriko paisajera historikoki hurbiltzea. Zalantzarik gabe, Araban orain baino zuhaitz gehiago zeuden eta Bizkaiko eta Gipuzkoako basoa, hiriguneak sortzean gertatutako aldaketa sakonak alde batera utzita, alaiagoa izango zen, gaurko pinudien berde iluna eta tristea baino argiagoa.

Itsasoa duten bi probintziei dagokienez, oztopo handiak daude basoa-  
ren azalera neurtzeko. Espezieak asko aldatu direla argi dago. 1784. urtean,  
Errege-ordena baten indarrez, Gipuzkoako herri bakoitzeko kontzejuaren  
mendietan eta mendi jabedunetan zenbat zuhaitz zeuden zenbatu zituzten.  
1802an Historiako Errege Akademiaren hiztegiak argitaratu zuen laburpe-  
nean datu hauek jaso ziren<sup>2</sup>:

|   |           |
|---|-----------|
| Haritz motzak eta lardenak . . . . .      | 5.322.665 |
| Pago motzak eta lardenak . . . . .        | 4.771.502 |
| Gaztainondo motzak eta lardenak . . . . . | 894.683   |
| Intxaurrondoak . . . . .                  | 22.710    |
| Lizarrak . . . . .                        | 51.694    |
| Arteak . . . . .                          | 23.874    |
| Zurzuriak . . . . .                       | 298       |
| Zumarrak . . . . .                        | 700       |
| Haltzak eta makalak . . . . .             | 199       |

Gauza jakina da baldintza fisikoek giza jarduera bultzatu edo oztopa-  
tu dutela. Klimak, xvii. mendean kostaldeko bi probintzian artoa geure-  
ganatu eta zabaltzea bultzatu zuen; egur ugari zegoela aprobetxatuz, ontzi-  
gintza eta burdinoletarako ikaztegiak sortu ziren. Burdinolak erreka  
txikien bazterretan kokatu ziren eta prezipitazio ugari eta erregularrei es-  
ker eta, batez ere Somorrostro aldean, baina baita beste inguru batzuetan  
ere, sakabanatuta zegoen burdin masa bat zegoelako funtzionatu ahal izan  
zuten. Kostalde muxarratuak eta lurbarneratze flandiensearengatik sortu-  
tako itsasadarrek arrantza-portuak eta merkataritzakoak bultzatu zituzten.  
Baina Bizkaiko itsasko kostalde osoak eta Ipar Euskal Herriko Lapurdi eta  
Zuberoako probintziek antzeko baldintza fisikoak zituzten eta dituzte eta,  
hala ere, lurralde horietan jarduera desberdinak garatu dira eta kasu ba-  
tzuetan oso desberdinak gainera.

Ekonomiaren ikuspuntutik begiratuta, herrialdearen zati handi bat *nekaza-  
ritza pobrea* izateagatik bereizi zen eta, beraz, ingurune honek, aldiro-aldiro  
eta oso azkar gainpopulazio erlatiboa izan ohi zuen; hau da, emigratzaileen  
esparrua zen edo, Braudel-ek dioena gogoratuz, «proletargo-erreserba bat»  
lautadarentzat eta kolonientzat. Demografiaren soberakina meseta aldera he-  
datu zen batzuetan eta itsaso aldera bestetan. Emigrazio horiek xvi. mendera  
arte espedizio militarrek izan ziren: penintsulako iparraldeko nekazariak,  
mendiak eskaintzen zizkien baliabide eskasengatik hegoalderantz jo zuten eta  
horrela gertatu zen mesetaren eta Andaluziaren birkonkista eta birpopulaketa:

<sup>2</sup> *Diccionario de la Real Academia de la Historia*, I. liburukia, 328. or. «En este plan se  
omitíó el número de plantíos de los muchos viveros que había de robles, castaños y hayas, y  
los árboles trasplantados recientemente.»

gailegoek, asturiarrek, santandertarrek eta euskaldunek. Birkonkista amaitu zenean euskaldun askok Italiako militar-kanpainan parte hartu zuen. Ez zen kasualitatea izan Frantziako Frantzisko I.a euskaldun horietako batek preso hartzea: «3.000 Guipuzcoans et Navarrais combattaient à Pavie»<sup>3</sup>. Mundu Berriaren aurkikuntzak Gaztelarako exodoa geldiaraziko du, baina ez Andaluziarakoa, eta euskaldunak, Iparraldeko ibilbidea (Flandes) utzi eta Indietako karreran murgilduko dira, Amerikara joateko nahitaezkoa baitzen Andaluziatik igarotzea<sup>4</sup>.

Eskualde menditsua izatea, komunikabide zailak izatea esan nahi du eta, era berean, garraio garestia. «La montagne est obligée de vivre sur elle-même pour l'essentiel, de tout produire, vaille que vaille, de cultiver la vigne, le blé et l'olivier, même si le sol ou le climat s'y prêtent mal. Société, civilisation, économie, tout y a un caractère d'archaïsme et d'insuffisance.» Horregatik, XIX. mendera arte ardo garratza, txarra eta garestia ematen zuten mahastien laborantza mantendu zen eta baita mesetakoarekin lehiatu ezin zen gariarena ere. Baina mendia nekazaritzarako pobrea bazen ere, bazituen beste baliabide batzuk: itsasontziak eraikitze eta ikatza egiteko basoak, burdina lantzen zuten burdinoletako eta meatzeetako gabiei eta hauspoei eragiteko erreka ugari. Lehen sektorearen urritasunak gainontzekoen garapena bultzatu zuen, izan ere, ikuspuntu sozialetik begiratuta askotan gune arkaikoa den arren, ekonomikoki mendiak ezin baitu bere kabuz iraun: zituak inportatu behar izaten ditu eta, beraz, bere ordainketa-balantza orekatzeko beste produktu, gizaki eta zerbitzu batzuk esportatu behar ditu. Ontziek, burdinak, zurak, harginak, eskribauek, konkistatzaileek, merkatariek, burokratek eta, dudarik gabe, baita behartsuek ere, Hegoalderantz jo zuten, Flandes aldera, Italiara, Amerikara. Berak egin eta saltzen zituen produktuak ordaintzeari esker, artilea esportatzeagatik eta espezieak, oihalak, kinkilak etab. inportatzeagatik jasotzen zituen sariei esker, emigratzaileei esker, batez ere Cadizen eta Amerikan finkatu eta batzuetan aberasturik itzuli eta beste batzuetan dohaintzak egin zituztenei esker eta, azkenik, zerbitzuen salmentari esker, beharbada defizitarioa izango zen merkataritza-balantza orekatu zen.

Mendia merkataritzarako oztopo izan ez bazen ere, ikuspuntu kulturaletik, kanpoko eragin guztiei gogor egin zien aurre. Latina Hegoalde eta Mendebaldeko eremu batzuetan sartu zen soilik; kristautasuna oso berandu eta indar gutxirekin finkatu zen, zenbait kasutan XX. mendera arte iraun duten ohitura superstizioso eta paganoei amore eman zielarik. Gauza bera gertatu zitzaion monarkiaren administrazioari ere. Baina horrek guztiak ez

---

<sup>3</sup> Lefebvre, Th., *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*. Paris, 1933, 286. or.

<sup>4</sup> Braudel, F., *La Méditerranée et le Monde méditerranéen*. Paris, 1966, I. liburukia, 208. or.

du esan nahi inguru hau «refuge des libertés, des démocraties, des *republiques paysannes*»<sup>5</sup> zenik. Askorentzat demokratikoa izan zen itxurakeria legal horren azpian errealitate latza zegoen. Gernikako Batzarraren «demokrazia», Urrestietakoarena, Gipuzkoakoarena eta, nola ez, Arabako Arriagako Batzarrarena mito eder bat baino ez da eta horretaz baliatu ziren landatar gorenen, jauntxo esaten zaienen nagusitasuna ezkutatzeko. Horren froga dira Euskal Herrian, Iberiar Penintsulako beste inon baino bortitzago, gertatu ziren altxamenduak: bando-gerrak, 1631-1634, 1718, 1766 eta 1804ko matxinadak eta Karlistadak, hereseen eta sorginen jazarpenak ahaztu gabe.

---

<sup>5</sup> Braudel, F., *op. cit.*, I. liburukia, 34. or.



## II

### Demografia

Aurrerago ikusiko dugunez, su-zenbaketen eta bilketen bitartez lortutako kopuruak eta bilketa horietan oinarritutako interpretazioak ez dira oso fidagarriak; baina, hala ere, oraindik zailagoa da XVI. mendera arteko Euskal Herriko demografiaren ibilbidea ezagutzea, zenbait auzotar-errol-datuko datuak baino ez baitira ezagutzen<sup>1</sup>. Osatu gabeko datu horiez gain, beste bi iturri-mota ere erabil ditzakegu: lehenengo eta behin, hiribilduen sorrera-data, horien jatorriak demografiaren hazkundearekin zerikusia duela suposatuz, nahiz eta, beranduago ikusiko dugunez, uste hori ez den beti egia izaten; bigarrenez, elizak altxatu ziren garaiko eta ermitategi eta ermitak euren parrokietatik bereizi zireneko datak; ermitak, handik aurrera, jatorrizkoari edo matritz deiturikoari atxiki zitzaizkion. Oinarritzat erabili dudana hipotesia hiribilduen sorrera-datarekin erabilitakoaren antzekoa da: eliza berri bat eraikitzen bazuten, ermita bat parrokia bihurtzen bazen, eraikinaren kostua eta mantenimendua ordaintzeko auzokideak zeudela esan nahi du, hau da, demografiaren hazkundera gertatu dela esan nahi du. Harreman horren lekukotasun garbiena Nafarroako Azul herriari 1306an emandako fundazio-gutuna da; bertan, hauxe ezarri zen: «que si llegaba el número de cristianos a 30 familias, se les diese vicario, iglesia y cementerio propio»<sup>2</sup>.

---

<sup>1</sup> *Diccionario histórico-geográfico del País Vasco*, 1802. Faksimile-berrargitalpena, Bilbo, 1968; hemendik aurrera *Diccionario Real Academia Historia* izendatuko dugu, II. libk., 427-428. orr., Valderejo sarrera: Ribera, hamar petxari eta erdi; Villamardones, zazpi petxari; La Lastra, zazpi petxari; Lahoz, hamabost petxari eta erdi. *Ibidem*, I. libk., 404. or., Laguardia sarrera. 1366an Biasteriko (Laguardia) ermandadeak 599 ordaintzaile edo su zituen.

<sup>2</sup> *Ibidem*, I. libk., 143. or. Labayruk biztanleria eta parrokien arteko harremana susmatu zuen, nahiz eta bere ustez eliza eraikitzea zen faktore nagusia: «Como se ve, fueron surgiendo las parroquias que hoy conocemos, que dieron lugar a que con su importancia se diera vida a un núcleo de vecinos, que formó un pueblo.» *Historia general del Señorío de Bizcaya*. Bilbo, 1968, I. libk., 249-250. orr.



Mendebalde osoan bezalaxe, x. mendetik aurrera demografiaren hazkundera gertatuko da eta, batzuetan mantendu eta beste batzuetan gora egin bazuen ere, XIII. mendearen erdialdera arte iraungo zuen hazkundera, XIV. mendearen bigarren zatian behera egin zuelarik. Birkonkista da hedapen horren ezaugarriarik argiena. Penintsula iparraldeko ingurune menditsuetan zegoen demografiaren hazkundera izugarriarekin bi azpimesetak birpopulatu ziren. Toponimo batzuei esker badakigu bi Gazteletako eta Andaluziako zein ingurune konkistatu eta kolonizatu zituzten baskoiek: badakigu ziur Burgosen<sup>3</sup>, Salamancan<sup>4</sup> eta Avilan<sup>5</sup> egon zirela. 1147an, arabarrek eta nafarrek Almeriako konkistan parte hartu zuten<sup>6</sup>; Sevillakoan euskaldunen ontziek (1248); gipuzkoarrek 1343an Algecirasko setioan parte hartu zuten<sup>7</sup>; Baeza eta Ubedako konkistan eta birpopulaketan Salazartarren etxea ageri da eta beste batzuk Andaluzian gelditu ziren eta han zabaldu zuten euren leinua: adibidez, «Pedro Ruiz de Berrioz, uno de los primeros pobladores de Baeza»<sup>8</sup>. Hegoaldera lehorreko eta itsasoko bideetatik heldu ziren. Hasiera batean, merkataritza egitera baino lurrak konkistatzera joan ziren, gero birpopulatzeko. Kasu guztietan, euren eskualdeak eman ezin ziren bizitzeko baliabideen bila. Militar, kolono, garraiolari, merkataria eta, jakina, kortsarioentzat ere, Penintsulako hegoaldea gune garrantzitsua izango da gero Amerikako konkistan eta merkataritzan parte hartu ahal izateko<sup>9</sup>.

<sup>3</sup> Sánchez Alborno, Cl., *Despoblación y repoblación del valle del Duero*. Buenos Aires, 1966, 302. or., 63, 64 eta 65. oharak, eta 314. or.

<sup>4</sup> *Ibidem*, 348. or.

<sup>5</sup> *Ibidem*, 378. or.

<sup>6</sup> *Diccionario R. A. H.*, I. libk., 34. or.

<sup>7</sup> *Diccionario R. A. H.*, II. libk., 260. or.

<sup>8</sup> Labayru, *op.cit.*, III. libk., 46. or., eta *Memorial de la calidad y servicios de la casa de Salazar y Muñatones*, Félix de Lucio Espinosa y Malo jaunarena. Madril, 1682, 19. or., atz. Egituraren ezaugarri horrek ez du hainbat salbuespen baztertzen; horixe da, dirudenez, Enkarterrien zatirik handienaren kasua, VIII. mendean Goi-mesetako kristauek birpopulatu zituztenak (García de Cortázar, J. A., *La época Medieval*, Madril, 1973, 130. or.). Inguru horretako toponimo gehienak gaztelerazkoak dira eta hor dugu Hegoaldetik Iparralderako jendetza erorreraren beste froga bat. García de Salazarrek ere ekarpen batzuk egin ditu: Arabako jendea Karrantzán finkatu zen askoz ere beranduago, haran hartan bizi zen Juan Ortiz de Pinedaren arbasoak «fueron venjdos de Pinedo, que es en Valdegouja e por esto tomaron este nombre de Pinedo»; hortik zetorren Aedoren leinua (*Las Bienandanzas...*, 131. or.). Somorrostroko Salazar familia-koa zen, ezkontza bidez, Ruy Fernandes de Pinedo, eta bere semeekin eta Lope García de Salazarren bilobekin Losa eta Gaubea herriak odoleztatu zituzten (*op.cit.*, 242. or.).

<sup>9</sup> «La presencia de los vizcaínos —en realidad vizcaínos y guipuzcoanos— es muy antigua en toda esta zona marítima, a la que descenden trayendo el hierro de sus herrerías, primero, y después terminan por establecerse de asiento en ella cuando las exploraciones por el oeste africano y las entradas en Marruecos proporcionan ocupación a marinos experimentados..., se dedican primero a los viajes de exploración... y después al comercio con ultramar.», «Las naciones extranjeras en Cádiz durante el siglo XVII». H. Sánchez de Sopranis, in *Estudios de Historia Social de España*, IV. libk., II. al. Madril, 1960, 701. or.

Biztanle euskaldunen irteera gertatu arren, horrek ez du esan nahi une berean eta kontrako bidean kolonizazio kulturala izan ez zenik: kristautasuna eta nekazaritzako ohiturak (lanabesak, errotak, mahastiak etab.) Ebroko ibarretik sartu ziren. García de Cortázarrek adierazi duena gogoratuz, Vitulok eta bere adiskideek Emeterio eta Zeledonio santuei, Kalagorriko martiri erromatarrei, eskaini zieten elizetako bat<sup>10</sup>. Bizkaian, Larrabetzuko hiribilduak martiri horiei eskainitako eliza bat du eta, Gipuzkoan, Azkoitiak ere bai. Baina badirudi kostaldeko probintzietako kulturaren frantsesek eta gailegoek ere eragin handiagoa izan zutela; eragin hori Donejakuera zihoazen erromesek bultzatu zuten beren joan-etorrietan. Nahikoa da San Martin, erromatar-galiar santua, eta Santa Marina, Ama Birjina galaikoa omentzeko eraikitako eliza-kopuru handiaz ohar-tzea<sup>11</sup>. Arabak eta Gipuzkoako erdialdeak, berriz, hegoaldetik etorritako korronteen eragina pairatu zuten; hori dela eta, San Millani eskainitako parrokia ugari dago<sup>12</sup>.

Baina hegoaldeko lurraldeetan asentamenduak gertatu ziren arren, jatorrizko inguruetako biztanleriaren dentsitateak gora egin zuen. Demografiaren hazkunde hori hiribilduen sorreran nabaritu zen batez ere; era berean, fenomeno horren helburua jendea bertan geratzea zen eta horretarako abantaila fiskal eta juridikoak erabili zituzten<sup>13</sup>.

Bi bultzada demografiko nagusi bereiz daitezke: lehena XII. mendearen erdialdean hasi zen eta Birkonkistak indarra galdu zuen arte iraungo zuen, 1270. urtera arte gutxi gorabehera; bigarrenak XIV. mendearen bigarren laurdena hartu zuen. Lehenengo etapan, hedapenaren lehenengo arrastoak Araban kokatu behar ditugu eta hala frogatzen dute Gesaltza (1140), Biasteri (1164), Gasteiz (1181), Antoñana (1182), Bernedo (1182), Argantzun (1191) eta Labrazari (1196) emandako foruek<sup>14</sup> eta Alfontso VII.aren

---

<sup>10</sup> García de Cortázar, J. A., *El dominio del Monasterio de San Millán de la Cogolla*, Salamanca, 1969, 100. or.

<sup>11</sup> Caro Baroja, J., *Los vascos*, Madril, 1958, 364. or.

<sup>12</sup> Gipuzkoan: Arcayo, Zizurkil eta Gatzagan; Araban: Gorrebuston, Gantzagan, Jungitun, Larrean, Villamadernen, Zuhatzu Ganboan eta Zuhatzu Donemiliagan. Parrokia eta ermita horietako santuen azterketa sistematikoa egin beharko litzateke; santuaren izenaren, kristautasunaren garaiaren, birpopulaketaren garaiaren eta eragin kulturalen artean loturaren bat dago, zalantzarik gabe; hala, bada, Bilboko parrokia bat eta Elantxobeko beste bat Italiako San Nikolas Barikoaren omenez eraiki ziren, biak kostaldeko portuetan hain zuzen ere.

<sup>13</sup> Pierre Vilar-ek fenomeno hori adierazi du dagoeneko «Katalunia Berriaren» okupazioak (1100-1150) Zaharraren gain izan zituen ondorioetan. *La Catalogne dans l'Espagne moderne*, Paris, 1962, II. libk.

<sup>14</sup> *Diccionario R. A. H.*, 1802, dagokion artikuluetan; eta Floranes, *Discurso histórico y legal...* Gasteiz, 1776, *Historia General del Señorío de Bizcaya* delakoan berrargitaratua, Bilbo, 1971, VII. libk., 783. or. Arabarentzat «Alava: desarrollo de las Villas y Fueros Municipales (siglos XII-XIV)». Gonzalo Martínez Díez, S. J., in *Anuario de Historia del Derecho Español*, XLI. libk., Madril, 1971, 1063-1130. orr.

garaiari Gasteizko erdiguneari beste hiru kale gehitzeak: Correría, Zapatería eta Herrería. Hurrengo mendean ere iraungo du bultzada horrek Araban: Kalagorriko gotzaina zen don Jerónimo Aznarrek 1257an idatzi zuen gutunean, Trebiñoko artzapez-barrutia aipatzerakoan lehen *Reja*-n<sup>15</sup> jasota zeuden hogeita hamabost herrixkaz gain, beste hogeita hemezortzi aipatzen ditu eta Gasteizek ere, 1256 inguruan beste hiru kaleekin zabaldu zuen bere erdigunea: Cuchillería, Pintorería eta Judería<sup>16</sup>; kale horien ize- nek hazkunde demografikoarekin batera espezializazio ekonomiko-soziala gertatu zela adierazten dute. Mende bereko bigarren zatikoak dira Bastida (1242), Agurain (1256), Kontrasta (1256), Korres (1256), Santa Kurutze Kanpezu (1256), Valderejo (1273), Beranturi eta Urizaharreko foruak ere. Era berean, nahiz eta barnealdean baino beranduago, kostaldean ere hiribilduak sortu ziren: XII. mendearen bukaeran eta XIII.aren lehenengo here- nean hainbat portu sortu zen Gipuzkoan eta beste bat Bizkaian: Donostia (1180-1202), Hondarribia (1203), Getaria (1209), Mutriku (1209), Bermeo (1236) eta Zarautz (1237); garai berean gertatu zen Santanderko Lau Hiribilduen eta Galiziako itsasadar garaien birpopulaketa. Beranduxeago ger- tatu ziren mendateen azpian kokatu ohi diren eta geografikoki eta ekono- mikoki desberdinak diren bi eremu bereizten dituzten herrietako foruak: Balmaseda (1199), Urduña (1229), Otxandio (1254-1289), Isasti (1287) eta Durango (XIII. mendea) Bizkaian; Artziniega (1272) Araban eta Tolosa (1256), Segura (1256), Arrasate (1260), Bergara (1268), Antzuola (1268), Ordizia (1268) eta Ataun (XIII. mendea) Gipuzkoan. Hala, bada, kostalde- ko bi probintzietan sortu ziren lehenengo hiribilduei dagokienez, arrantza- ra eta nabigaziora zuzendu ez zirenak, merkataritzan aritu ziren; nekazari- tza eta abeltzaintzan aritzen ziren bi eremu desberdinen artean sortu ziren: zituetan aberatsa zena hegoaldean eta zitu gutxi baina burdina eta abere asko zituena iparraldean.

XIII. mendearen azkeneko herenetik aurrera, badirudi demografiaren he- dapena gelditu egin zela Araban —1274 eta 1325 artean ez zen hiribildurik sortu, 1326 eta 1338 artean sei sortu baziren ere—, eta kostaldeko probin- tziek, aldiz, bultzada indartsua izango dute XIV. mendean: Gipuzkoako hiri- bilduen %58k eta Bizkaiko %70ek mende horretan jaso zituzten foruak eta Araban, berriz, %32k soilik. Daten arabera, badirudi mendearen bigarren za- tia izan zela garrantzitsuagoa, baina kontuz ibili behar dugu: garai horretan sortutako hiribilduek ez dute demografiaren hazkundera adierazten, sakabana- turik bizi zen jendea gotorlekuetan bildu zela baizik, une horretan inguru hartan zeuden gatazkak zirela-eta, segurtasun bila joan baitziren; hala gertatu zen Zumaian 1347an eta Mungian, Larrabetzun eta Errigoitin 1376an.

<sup>15</sup> *Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. Arciprestazgo de Treviño y Campezo. Gas- teiz*, 1968, 10. or.

<sup>16</sup> Caro Baroja, J., *op.cit.*, Madril, 1958, 82. or.

Beraz: Araban goiz hasi ziren hiribilduak sortzen eta garairik onena 1150 eta 1275 artekoa da. Bestalde, kostaldeko probintzietan XII. mendean hasitako hazkundera indartu egin zen XIV. mendearen lehenengo zatian.

Joera-aldaketaren adierazlerik argienak XIV. mendearen erdialdean soma daitezke. 1343ko gosetearen berri dugu, adibidez, eta gosetearen erruz «morio muchas gentes de fanbre, que andando por los caminos se cayan muertas, deziendo, dadme pan»<sup>17</sup>; baina ez da agertu, orain arte egindako ikerketetan behinik behin, 1348-1349ko izurritearen arrastorik. 1400-1401eko epidemiaren berri baino ez dugu<sup>18</sup>. Badirudi izurri beltzak ez zuela Katalunian beste eragin inguru honetan eta nahiko goiz berrindartu zela. Hala, bada, Euskal Herriko koiuntura Felipe Ruizek deskribatutako Gaztelakoaren antzekoa izango zen: «Populazioaren gorakada 1445. urtetik gutxi gorabehera»<sup>19</sup>. Ezagutzen ditugun XVI. eta XVII. mendeetako kopuru demografikoek kritika ugari izan dituzte: datu biribilduak direla —herriz herri eginiko zenbaketa dagoenean—, kopuru orokorrak agertzen direla, batzuetan suen bidez eta beste batzuetan auzotarren bidez emanda, batzuetan jatorri fiskala izan ohi dutela eta besteetan elizak jasotako datuak direla; horri guztiari bestelako oztopoak gehitu behar zaizkio. Bizkaian, adibidez, zuzenbidezko errejimeneko desberdintasunek bazuten ondoriorik erroldan: hiribilduetan, hirian eta Enkarterrietan Gaztelako irizpidea jarraitzen zuten (zenbaketa egiterakoan, familia bat edo gizon alargun bat auzotar bat zela jasotzen zuten eta, alarguna emakumea bazen, auzotar erdia zenbatzen zuten; Enkarterrietako kontzejuren batean gizon alarguna ere erdia zen); Bizkaiko Lur Zabalean eta Durangaldean, berriz, suka (edo etxeka) kontatzen zuten. García de Cortázarren ustez su fiskal bat bestelako hiru su arrunt ziren<sup>20</sup>, baina azken horietako bakoitzak auzotar bat baino gehiago ordezkatzeko zuten, izan ere, kide bakarreko, erdiko, hereneko... familiak baitzeuden. Oztopo horiek, xehetasunak jasotzen zituzten orijinalik ez egoteak eta zerrenda osagabeak, zailtasun handiak dira XVI eta XVII. mendeetan zeuden kopuru demografikoak ezagutzeko, oraingoz erabil daitezkeen zenbaketetan

---

<sup>17</sup> García de Salazar, Lope, *Las Bienandanzas e Fortunas*, Bilbo, 1955, 421. or.

<sup>18</sup> Labayru, E., *op. cit.*, III. libk., 11. or. Aurrekoak 1400ean datatzen du eta Joaquín Antonio de Camino y Orellak 1401ean, in *Historia civil, diplomática, eclesiástica anti-gua y moderna de la ciudad de San Sebastián*, Madril, 1923, I. libk., 140-141. orr.: «En este reinado y año de 1401 hirió con tanta furia el azote de la peste a los pueblos de Guipúzcoa, que sufrieron la mayor desolación, siendo abandonados de sus moradores, que por evitar el contagio se refugiaron al abrigo de los montes, según consta de relaciones antiguas y una que se halla estampada en el Oficio Dominical de la parroquia de Zarauz.»

<sup>19</sup> Ruiz Martín, F., «La población española al comienzo de los tiempos modernos», *Cuadernos de Historia*, I. libk., 1967, 195. or.

<sup>20</sup> García de Cortázar, J. A., *Vizcaya en el siglo xv*, Bilbo, 1966, 70. or.

oinarrirituz. Luis María Bilbaok laster aurkeztuko duen tesian agertuko diren iturri berriek kopuru zehatzak emango dizkigute. Bitartean, gutxi gorabeherako datu hipotetikoetan oinarritu beharko dugu, batzuk beste batzuk baino sinesgarriagoak badira ere.

1514an, Bizkaiko 20 hiribilduek eta hiri bakarrak 5.563 auzotar zituzten, auzotutakoak barne. Gune horiek Floridablancaren erroldan ordezkatzaren zuten proportzioa, %30, kontuan hartuta, guztira 18.543 auzotar izango genituzke; kopuru hori, 1514ko zenbaketari Bizkaiko Lur Zabaleko prokuradorearen ustez 1501ean Jaurerrian zegoen biztanleria, 10.000 auzotarrekoa, gehitzean lortzen dugun kopurua baino arras handiagoa da<sup>21</sup>. XVII. mendearen lehenengo laurdenerako Tomás Gonzálezek emandako kopuru partzialek, 1704an egindako su-zenbaketakoek baino maila bajuxeagoa adierazten dute<sup>22</sup>: 19.000 auzotar gutxi gorabehera (76.000 biztanle); kopuru hori 1631ko Bizkaiko txosten batean ageri diren 20.000 auzotarretatik gertu dago<sup>23</sup>.

Badirudi Gipuzkoako hiribilduetako su-zenbaketa xv. mendeko laurogeiko hamarkadako dela<sup>24</sup>; guztira 2.164  $\frac{1}{2}$  dira, Oñati kontuan hartu gabe. Gorosabelek, inolako iturririk eman gabe, su bat = 5,5 auzotar direla adierazi zuen<sup>25</sup>. Gil lizentziatuak emandako zifra eskasak estrapolatuz —Arrasate 464 auzotar, Eskoriatza 169, Aretxabaleta 121, Elgeta 200, Gatzaga 100, Bergara 515 eta Antzuola 150—<sup>26</sup>, 1556an 14.555  $\frac{1}{2}$  auzotar izango genituzke eta 1587ko elizako erroldaren arabera, berriz, 13.193. Estrapolazio arriskutsu hauekin jarraituz, 1615ean 21.064  $\frac{1}{2}$  ditugu<sup>27</sup>; kopuru hori exajeratu samarra da beharbada, baina aurrekoak baino askoz ere sinesgarriagoa, benetako kopuruetatik nahiko urrun daudela iruditzen

---

<sup>21</sup> *Ibidem*, 80. or.

<sup>22</sup> González, T., *Censo de población de las provincias y partidos de la Corona de Castilla en el siglo xvi*. Madril, 1929, 361-362. orr. Oro har, xvi. mendeko amaierako kopuru horiek kontuan hartzen dira dokumentuak espreski honela dioenean: «habiéndose hallado las averiguaciones de varias iglesias y ante iglesias hechas por Real Orden en los años de 1569, 1616 y 1625, se copian a continuación». Enkarterrietako elizako errolda soilik, nire ustez gutxietsita dagoena, 1587koa da.

<sup>23</sup> Guiard, T., *Historia de la Noble Villa de Bilbao*, Bilbo, 1908, Bilbon berrargitaratua, 1971, II. libk., 450. or., eta Domínguez Ortiz, A., *La sociedad española en el siglo xviii*. Madril, 1963, 105. or., eta Labayru, E., *op. cit.*, V. libk., 201. or.

<sup>24</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako 1530eko apirilaren 30eko Batzar Nagusietako laburpenaren arabera. Donostia, 1927, 31. or.

<sup>25</sup> Gorosabel, P., *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Gipúzcoa* liburuan Oñatin 1481ean ehun su zeudela ageri da. Liburua Bilbon berrargitaratu zen, 1971, 350. or. Gorosabelek, Tomás Gonzálezek eta González Echegaray-k xvi. eta xvii. mendeen amaierarako antzeko kopurua adieraziko dute: 2.335 su, Oñati sartu gabe.

<sup>26</sup> Kalagorriko Katedraleko Artxiboa. Gil Lizentziatuaren Liburua, eskuizkribua, 197-210 orr. atz.

<sup>27</sup> Gorosabel, P., *Diccionario...* liburuak hainbat herriko biztanle-kopurua ematen digu 1615erako eta dugun iturri bakarra da.

baitzaigu. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1830ean XVI. mendearen bigarren zatirako kalkulatu zituen ia 70.000 arima, hau da, 17.416 auzotar inguru, ezin ditugu baztertu<sup>28</sup>. Ez dirudi astakeria Gipuzkoak XVI. mendearen amaieran eta XVII.aren hasieran, Bizkaiaren antzera, 70.000 eta 80.000 biztanle artean izan zituela pentsatzeak.

Goian adierazitako datuekin ez zaigu zentzuzkoa iruditzen XVI. mende hasierarako kopuru bat ematea<sup>29</sup>, baina, hala ere, dokumentu kualitatiboetan suma daitekeenez, mende horretako lehenengo erdia hedapen-garaia izan zen. 1509 eta 1558 artean Bizkaian gutxienez hogeita bederatzita parrokia bereizi ziren beren jatorrizko guneeetatik, gehienetan nekazaritza-inguruetakoak, eta gertaera hori hazkunde demografikoaren adierazgarri da; horretaz gain, hainbat hiribildutan eliza-kopurua bikoiztu egin zen: Durangon, adibidez, bigarren eliza bat eraiki zuten —Santa Ana— 1540an<sup>30</sup>. Bilboko zabaluneak ere hedapenaren adierazgarri dira: 1463an hiria Arenal eta San Nikolasetik hedatu zen eta hogeit urte beranduago beste hedapen bat eskatu zen; 1526an Bidebarrietako kalea edo Kale Berria sortu zen eta 1581ekoak dira Santiago Plazatxoaren zabaldua eta errege-kalea, gero Ribera kalea izango zena, irekitzeko lehenengo ahaleginak<sup>31</sup>.

Panoramika nahiko baikorra izan arren, mendearen lehenengo he-renean hiru aldiz azaldu zen izurria, nahiz eta, dirudienez, leku jakin batzuetan baino ez. 1506ko lehortearen eta gosetearen ondoren izurria etorri zen hurrengo urtean; 1517an Durangon bazela adierazi zen eta 1530ean, besteren artean, Bilbon eta Balmasedan<sup>32</sup>. Baina gertaera horiek ez zuten joera hedakorra aldatu. Balmasedak 1514an 275 auzotar zituen, 1532an 300 eta 1565ean 332 izan zituen<sup>33</sup>. Baina, 1564-1568ko izurriak aldaketa nabarmena ekarri zuen demografiari nahiz gizarteari zegokienez. Epidemia gogorragoa izan zen Araban eta, bertan, beste inon baino lehenago hasi zen demografiaren beherakada. Ordura arte,

---

<sup>28</sup> Gorosabel, P., *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*. Tolosa, 1899, I. libk., 63. or.

<sup>29</sup> 1500ean Bizkaian 62.000 —gutxienezko muga— eta 74.000 —gehienezko muga— artean zeuden? Kopuru horiek lortzen dira 1501eko eta 1514ko datu hipotetikoei lauko koefizientea aplikatuz gero.

<sup>30</sup> Datuak honako liburu hauetatik hartu ditugu: Labayru, *Historia General del Señorío de Bizcaya*, Bilbo 1900, berrargitalpena, 1968, IV. libk., eta Iturriza, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, Rodríguez Herreroren edizioa, Bilbo, 1967.

<sup>31</sup> Guiard, T., *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. Bilbo, 1908. Berrargitalpena, Bilbo, 1971, I. libk., 181 eta 372. orr. García de Cortázar, J. A., *Vizcaya en el siglo xv*, 78 eta 79. orr. Labayru, *op. cit.*, III. libk., 338 eta 490. orr.

<sup>32</sup> Demografiaren beheraldi hau F. Ruiz Martínek aipatua du: «La población española al comienzo de los tiempos modernos», *Cuadernos de Historia*, 1967, I. libk., 197. or.; Balmasedarentzat, Heros, Martín de los, *Historia de Valmaseda*, Bilbo, 1926, 354. or.

<sup>33</sup> *Ibidem*, 496 eta 497. orr.

1527an 13.802 auzotar izatetik 1557an 15.685 izatera igaro zen, baina 1583rako 13.918ra jaitsi zen<sup>34</sup>. Gaixotasuna Zaragoza aldetik iritsi zen eta ia Araba osoa kutsatu zuen, baina kostaldeko probintzietan ez zuen sarraski handirik sortu<sup>35</sup>.

Garai hartarako, Bilbon jende berria herritartzeko oztopoak jartzeko lehenengo neurriak hartzen hasiak zeuden; ijito eta eskaleak ere bota zituzten Euskal Herritik eta, beranduago, lapur eta bidelapurrei aurka egiteko arauak ezarri zituzten; gai horiek guztiak behin eta berriro azalduko dira mende horretan eta baita hurrengoan ere<sup>36</sup>.

1597-1601eko izurria iparraldetik etorri zen. Santanderren, Castro, Otañes eta Onton herrietan 1597ko urtarrilean izurria zela badakigu eta abuztuan Pasai Donibanen ere ageri da, Castrotik etorritako meantziek

---

<sup>34</sup> Landazuri y Romarate, J. J., *Historia Civil de Alava*. Gasteiz, 1798, I. libk. 114, 115 eta 116. orr. Araban su bat = ordaintzaile bat = lau auzotar. 1527ko 14.052 auzotarretan Orozkoko harana ere barnean dago; azken horrek garai hartan 250 auzotar inguru zituen, baina beranduagoko zenbaketetan haran hori ez zen kontuan hartuko eta horrek *Diccionario de la Real Academia de la Historia* liburuaen egileak nahastu zituen, I. libk., 51 eta 52. orr. 1557rako, González, T., *op. cit.*, 118-122. orr. Madoz, bere hiztegian (I. libk., 220. or.) nahastu egin zen T. González aipatzean. 1583ko datuak hemendik hartuta daude: «Relación de las hermandades y pagadores que tiene esta provincia de Alava», 1583tik 1600era arteko Arabako Dekretuen 7. liburua, 1. eta 2. orriak. Beste zenbaketa bat egiteko ahaleginak 1575eko azaroaren 22ko eta 1576ko maiatzeko Batzarretakoak dira. Zenbaketa hori 1577 eta 1583 artean kokatzea sinesgarria da. Ikusi Arabako Dekretuen 6. liburua, 1568tik 1582ra, 100 eta 106. orriak atz. Zenbaketa horiek, XVIII. mendekoak bezalaxe, ez dira zehatz-zehatzak, baina benetako kopuruekiko duten aldea jaiotza-tasak kalkulatu egiaztatu beharko da. Haatik, joera eta hazkundetasa zein diren azaltzen dutela uste dugu.

<sup>35</sup> Labayruk, *op. cit.*, Bilbon 1565. urtean nahiko hedatu zela dio eta Balmasedan eta inguruetan 1564, 1565 eta 1566. urteetan ezagutu zutela adierazi da. 1567 eta 1568. urteetan izurriak jota hildakoen jantziak erre ziren eta hainbat pertsona kanporatu zuten hiritik. Heros, Martín de los, *op. cit.*, 356. or. Arabako berri izateko oinarri-oinarrizkoak da E. Enciso Vianaren argitalpena, «Un noticiero del siglo XVI», *Boletín Sancho el Sabio*, XI. urtea, XI. libk., 1967.

<sup>36</sup> 1564an baldintzak ezarri ziren bilbotarra izateko; hurrengo urtean, urtarrilaren 18ko Errejimentuak han inguruan zebiltzan ijito eta eskaleen egoera aztertu zuen eta elizateetako fededunek bota zituztela agindu zen. 1566ko apirilaren 15eko Errejimentuak berriz ere aztertu zuen gai hori eta maiatzaren 10ean eskaleak atxilotzeko eta konbertituak eta haien ondorengoak botatzeko agindua eman zen. 1569an alfer, emakume eta pertsona susmagarrien aurka neurriak hartu ziren eguneroko kalteak, hots, «los daños e inconvenientes que cada día suceden», saihesteko; 1576an lapur, bidelapur, eskale, biraolari eta antzeko beste batzuen aurka gauza bera egin zen eta, arrakastarik gabe, apaiz, diputatu, errejidore, sindiko, eskribau eta diruzain enpleguetatik zentso-etxeetan bizi zirenak botatzen ahalegindu ziren. Eskale izatetik bidelapur izatera ematen den jauzia adierazgarria eta argigarria da. Labayru, *op. cit.*, IV. libk., 371, 384, 429... orr. 1579an eta 1585ean gai bera aztertzen jarraitzen zuten. Etorkinen eta kapare ez zirenen kanporatzeak 1563, 1565, 1567, 1618 eta 1622an dekretatu ziren, Iturriza, *op. cit.*, I. libk., 144. or. Antzeko neurri diskriminatzaileak hartu ziren Gipuzkoan: 1601eko Batzar Nagusietan beren noblezia frogatuta ez zutenak kargu ofizialetatik kentzea erabaki zen. 1652an Pasaiako bi errejidoreren aurka espediente ireki zen ez zituztelako errejidore berriak aukeratzeko hauteskundeak egin, lehenago hautatutakoa frantsesa baitzen eta ez baitzen kapare. Echegaray, C., *Compendio...* Donostia, 1924, 167-169. orr.

ekarria; urte berean Donostian ere agertu zela badakigu, zein hilabetetan azaldu zen ez badakigu ere. Hurrengo urtean Santander, Lekeitio, Azkoitia, Donostia, Hondarribia, Oñati, Bilbo, Abadiño, Portugalete, Gasteiz... eta beste hainbatetan ere agertu zen; 1599an Balmasedan, zazpi hilabete iraun zuen, ia Araba osoan, Errioxan... 1601ean Euskal Herriko herri askotan izurria zegoen oraindik ere. Orokorrean, gosea izurriarekin batera hedatu zen; 1598, 1599 eta 1600eko uzta txarren erruz etorri zen gosea eta izurriaren hedapena bultzatu zuen, herriak ezin baitziren isolatu. Gaixotasunaren nondik-norakoak ohiko eredia jarraitu zuen: hiriz hiri kutsatzen zen «kontratazioaren bidez» eta horixe gertatu zitzaion Gasteizi 1599an; hiriek inguruko herrietara zabaltzen zuten gaixotasuna. Hala, bada, Errioxan ez zen iparraldetik, Trebiñotik edo Arabako Lautadako herrietatik sartu, baizik eta hegoaldetik, Logroñotik. Horren arrazoia oso argi dago: izurri-urteak eta gose-urteak batera izaten ziren eta Lantziegoko apaizak kontatzen duena gogoratuz «la gente de esta tierra estaba tan necesitada a lo menos de lo que era vino [que] aunque más penas se ponían, no dejaban de ir secretamente y hurtados a la ciudad de Logroño, de donde vino a muchos pueblos mucho daño»<sup>37</sup>.

xvii. mendeko beheraldiak ez zuen eragin berbera izan inguru guztietan. Bizkaiko hiribilduek 1514an zuten auzotar-kopurua eta 1704an egindako su-zenbaketa konparatzen baditugu, xviii.aren hasieran, oro har, bi mende lehenago zituzten kopuruetara iristen ez zirela ikus daiteke. 1704an jasotako kopuruei %20 gehitzen badiegu ere, 1514ko zenbaketan zegoen kopurua handiagoa zen. Bestalde, xvi. mendean biztanle-kopurua handitu egin zenez, orokorrean, hiribilduen joera demografikoa beheranzkoa izan zen xvii. mendean: 1700. urtean, Urduñak, batasuna egin zen garaitik (1634) ordura biztanleria erdira murriztu zela zioen<sup>38</sup>. Balmasedak 1565ean 333 auzotar zituen eta 1655ean, berriz, 118 baino ez zituen; 1685ean, 129 baino gehiago zituen. Durangok, 1514an 637 auzotar zituen eta 1634an «ocho y cientos y mas vecinos»<sup>39</sup>, baina xviii. mendearen hasieran ez zituen 400 baino gehiago. Baziren salbuespen batzuk: Bilbo, Elorrio, Miraballes, Larrabetzu, Otxandio, Areatza eta Errigoitik 1704an xvi. mende hasierako kopuruak mantendu edo gainditzen zituzten, baina Bilbo eta Otxandio izan ezik, gainontzekoak nekazaritza-izaera nabarmena duten hiribilduak dira. Manufaktura-gune batzuek —Balmaseda eta Durangokoek adibidez— jasan zituzten oztopo eta atzeraldiei kostaldeko portuen galerrak gehitu behar zaizkie. Bizkaiko ikuskatzaileak 1632an egindako idazki

---

<sup>37</sup> Enciso Viana, E., *art. cit.*; Bennassar, R., *Recherches sur les grandes épidémies dans le nord de l'Espagne à la fin du xvième siècle*. Paris, 1969, 40-42. orr.; Camino y Orella, J. A., *op. cit.*, I. libk., 193. orr.; HEAA, Vargas Ponce bilduma, 9-22-4-4179, 394. orr.; Heros, Martín de los, *op. cit.*, 358-362. orr.; Anonimoa, *La villa de Lequeitio en el siglo xviii*, Bilbo, 1921, 3-6. orr.; Azkoitiko Udal Artxiboa. 1649-1650ko izurriak ez zuen Euskal Herria kutsatu.

<sup>38</sup> Sagarminaga, *El gobierno foral*, II. libk., 599. orr.

<sup>39</sup> Durangoko Udal Artxiboa, 4. legajoa, 9. zkia.



batean egoera larriaren berri eman zuen: «los pueblos marítimos, que solían estar llenos de gente», orain «despoblados de marineros» zeuden<sup>40</sup>. Bermeon 1622an honako kezka jaso zen: «muchas pérdidas por la mar de hombres con que está despoblada»; kezka hori bat dator datu demografikoe-kin: 430 auzotar 1514an eta 200 1622an<sup>41</sup>. Egoera horren arrazoioren artean, itsas-armadan, hots, «en la Armada del mar océano en ocasiones de Peleas», izandako galerak, gaixotasunak, batez ere 1630 eta 1631koak, eta mairu eta holandarren itsaslapurretak zeuden. Horregatik guztiagatik, bizkaitarrek, «itsasoko jardueretarako baino nekazaritzako jardueretarako eta kulturarako joera handiagoa zuten»<sup>42</sup>. Gipuzkoako kostaldeko egoera antzekoa zen. Flandesko altxamenduak eta itsaslapurren gorakadak eragin negatiboa izan zuten Getarian; Hondarribiak, Aragoiko eta Nafarroako artilea Frantziako portuetatik esportatzearen erruz eta, era berean, gerraren erruz, oso biztanle gutxi zituen: «400 casas y no cabales 300 vecinos mientras que cuando hubo mayor comercio había cerca de 500 casas y más de 600 vecinos»<sup>43</sup>. Zalantzarik gabe, hiribildu guztien gainbehera ez zen une berean gertatu. Batzuei Flandes-Medina ardatza hautsi zenean iritsi zitzairen gainbehera, beste batzuei itsasoaren nagusigoa galdu zenean; azken hori, Itsas Armada Garaitezinaren ondoren gertatu zen. Manufaktura-zentro batzuen kasuan 1634. urtearen ondoren gertatu zen. Bilbok egoerari aurre egiten jakin zuen, kostaldeko hiribildu txikiak galdutako merkataritza-jarduera erakartzea lortu baitzuen, eta baita Gasteizek ere, baina Donostiak, aldiz, ez.

Egoera horren aurrean, nekazaritza eta abeltzaintza-guneek euren biztanle-kopurua mantendu zuten xvii. mendean, mende horren hasieran, guztien artean, 1704an zegoenaren antzeko kopurua baitzuten<sup>44</sup>. Halakoe-tan gertatu ohi denez, nekazaritza-guneetarako joera indartu egin zen.

Arabako egoera larriagoa izan zen. 1683an 10.934 auzotar zituen probintziak<sup>45</sup>, hau da, 1525ean baino askoz ere gutxiago. 1564-1568an hasitako beherakada areagotu egin zen hurrengo mende osoan eta hori adierazten dute bilketek eta literaturako hainbat pasartek: Casetas eta Esquide, Biasteriko eskumenean zeudenak, 1600 eta 1644an despopulatu ziren; azkenak husteko arrazoia hau izan omen zen: «por ser lugar muy pasagero y por los graves daños y molestias que a sus vecinos les causaban los soldados que iban de tránsito para Navarra»<sup>46</sup>; Trebiñok, Araba erdian dagoen

<sup>40</sup> Labayru, *op. cit.*, V. libk., 226-227. orr.

<sup>41</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, 9-22-4-4179, 394-396. orr. *La Villa de Lequeitio en el siglo xviii*, 3-6. orr.

<sup>42</sup> Labayru, *op. cit.*, V. libk., 226-227. orr.

<sup>43</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, 9-22-4-4179, 380. orr.

<sup>44</sup> Ondorio hori Tomás Gonzálezek hainbat elizaterako emandako biztanleak eta 1704ko datuak konparatuz lortu dugu.

<sup>45</sup> Arabako Dekretuen 19. liburua, 1680-1688, 396. orr.

<sup>46</sup> Biasteriko Udal Artxiboa, 21. errejistroa, 3. zkia.

Burgosko enklabeak, XVI. mendearen erdialdean beherakada ezagutu bazuen ere, XVI. mendearen azken laurdenean biztanle-kopurua mantentzen zuen, baina XVII. mendearen bigarren zatian jasango du benetako beherakada eta lehen zituen bost parrokietatik bat baino ez zen geratu<sup>47</sup>. Koadrilaka, aurkitutako datuek ahalbidetzen duten sailkapen bakarraren arabera, 1583 eta 1683 artean atzerakada handien izan zuten herriak Mendoza, Zuia, Aiara eta Agurain izan ziren: beren biztanleen laurdenetik herenera bitarteko kopurua galdu zuten; Gasteizko koadrilak, berriz, %8 galdu zuen bakarrik eta Biasteri —mahasti ugariko ingurunea— %7,5 hazi zen. Gasteiz hiriarri dagokionez, 1557an eta 1745ean bere ermandadean auzotarkopurua berdina zuen. XVII. mendeko azken urteetan eta XVIII.eko hasieran ez zen egoera aldatu: Mendoza, Zuia eta Gasteizek behera egin zuten, Agurain mantendu egin zen eta Biasteriko biztanleriak gora egin zuen poliki-poliki; Aiarak, berriz, lehen galdutako gehiena berreskuratu zuen.

#### Arabako auzotar-erroldak

| Koadrilak                | 1525   | 1557   | 1583   | 1683    | 1724   |
|--------------------------|--------|--------|--------|---------|--------|
| Gasteiz . . . . .        |        |        | 2.706  | 2.503   | 2.408  |
| Agurain . . . . .        |        |        | 2.272  | 1.638 ½ | 1.642  |
| Aiara . . . . .          |        |        | 2.172  | 1.501 ½ | 2.153  |
| Biasteri . . . . .       |        |        | 2.172  | 2.333   | 2.556  |
| Zuia . . . . .           |        |        | 2.296  | 1.493   | 1.370  |
| Mendoza . . . . .        |        |        | 2.300  | 1.465   | 1.439  |
| <i>Guztira</i> . . . . . | 13.802 | 15.685 | 13.918 | 10.934  | 11.568 |

Laburtuz: koiuntura zehaztasunez neurtzeko datuak ez baditugu ere, badirudi kostaldeko probintzietan aldaketa berandu gertatu zela, XVII. mendearen lehen laurdenaren azken urteetan hain zuzen ere, eta merkataritzagune txikietan, manufaktura-lanetan aritzen zen hainbat hiribildutan eta kostaldean izan zuen eragin handiena; nekazaritza- eta abeltzaintza-guneak, aldiz, mantendu egin ziren. Araban, 1564-1568ko izurriak argi eta garbi markatu zuen aldaketa; beheraldia XVII. mendearen erdialdetik aurrera areagotu egin zen eta XVIII. mendean ere nabarmendu zen.

<sup>47</sup> *Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. Arciprestazgo de Treviño y Campezo*. Gasteiz, 1968, 12. or.



### III

## Nekazaritza

Zaila da, benetan, Euskal Herriko nekazaritzaren bilakaerari buruzko edozein ikerketa egitea, gai honi buruzko datu kuantitatiborik ez baitugu ia. Zorionez, Historiaren arloan datuak neurtzea, pisatzea eta, azken finean, informazioa konparaziorako bidea emango duten datu homogeneoen bidez ematea, beharrezkoa dela aitortzen dute, gero eta gehiago, historialariek. Eta, ikerketa berrien zain gauden bitartean, interesgarri izan daiteke prozesu horren halako zirriborro bat egitea, nahiz eta bide okerretik jotzeko arriskua ere handia izango den.

Industriaurreko egituren barnean, nekazaritza eta demografia elkarri oso lotuta ageri dira: biztanle-kopuruak gora egiten duen heinean, uzta-kopuruak ere gora egin beharko du hazkunde hori gertatu aurretik, hazkunde horrekín batera nahiz ondoren. Oro har, azken hamar mende hauetan bi bider hautsi da erlazio dialektiko hori Iberiar penintsulan: XIV. mendearen erdialdera lehendabizi eta XVII. mendean ondoren. Hala ere, Euskal Herriko kostaldeko bi probintzietan behintzat, ez dirudi gosearen eta izurriteen eraginak horrenbestekoak izan zirenik, batez ere Katalunian Erdi Aroaren amaieran eta Gaztelan XVII. mendean izandakoekin konparatzen baditugu. Euskal Herrian nekazaritza hori izurriteetatik bertako aldaketek babestu zutela adieraztea agian gehiegitxo esatea bada ere, hauxe azpimarratu nahi genuke: zazpi mendetan zehar, Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazaritza-paisajea aldatuz joan da historian zehar poliki-poliki.

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloan, Gipuzkoan eta Bizkaian hiru ziklo nabarmendu dira nagusiki.

### **Abeltzaintzaren eta basogintzaren egitura**

Hasieran, baso-ustiapena eta abeltzaintza nekazaritza baino garrantzitsuagoak izango ziren ziurrenik. Baina nekazaritza errotzen eta indartzen

joan zen pixkanaka, populazioaren gorakadak bultzatuta. Euskal Herriko ekonomiaren arloan abeltzaintzaren sektoreak izan zuen garrantzia garbi ikusten da hiztegian: euskaraz, «aberatsa» hitzak abelburu ugariko gizakia esan nahi zuen<sup>1</sup>; Foruan zigorrak abelburuen bidez ordaintzen ziren eta nekazaritzako hiztegiak, hein handi batean, latinean edo hizkuntza erromani-koan du jatorria; hona hemen zenbait adibide: «solo» edo «soro» (nekazaritzako onibarrak), «zekalea», «aitzur» edo «atxur», «errota», «bolinchu» (eihera edo bolua). Horrek guztiak nekazaritzaren nagusitasuna nahiko berandu gertatu zela adierazten du<sup>2</sup>. XI eta XII. mendeetako dohaintzen argitalpen urrietan ere, baso-ustiapenari lotuta, abeltzaintzaren nagusitasuna nabarmentzen da eta honekin batera garatuko dira sagastiak, mahastiak eta, kostaldeko herrietan, arrantzarako baliabideen ustiapena<sup>3</sup>. Halaber, «Donemiliagako botoek» Bizkaiko eta Gipuzkoako alfoz guztiei idiak eskatzen zizkieten<sup>4</sup>. Demografi presioak murriztarazi egin zituen hainbat saroe edo abereen bazkaleku, eta horietako asko sagasti eta nekazaritzarako lur bihurtu ziren, berorietan gari, artatxiki, liho-uztak... landatzeko<sup>5</sup>. Hala, XIII. mendearen erdialderako eta, batik bat hurrengo mendearen erdialderako, uzta txar bat izateak goseak eta heriotzak zituen ondorio, nahiz eta abereak sakrifikatuz krisi haiek apur bat bederen arintzen ziren<sup>6</sup>. Deba herriaren lekualdatzea da garai honetako gizakiak pairatu zituen aldaketen

<sup>1</sup> Costa, J., *Derecho consuetudinario y económico popular de España*, II. liburukia, 45. or. Bartzelona, 1902. Bizkaiari dagokion zatia Miguel Unamunok idatzia da.

<sup>2</sup> Caro Baroja, P., *Los Vascos*, 164, 175 eta 243. orr., 6. oharra. Madril, 1958.

<sup>3</sup> Astigarribiako San Andres monasterioko dohaintzaren berrespenean, 1091koan, hauxe adierazten da: «cum pascuis et montibus et mazanetis et portis ad piscandum.» García de Cortázar, J. A., *El dominio del Monasterio de San Millán de la Cogolla*. Salamanca, 1969, 182. or., 193 eta 194. oharra. Balmasedaren sorrerako eskriturretan, hots, 1199ko idatzietan, mahastiak, abereen bazkarako belardiak, errotak, sutarako edo etxeak egiteko zuhaitzak, golkaketarako abereak... aipatzen dira; Iturriza, *op. cit.*, II. libk., 199-202. orr. Durangoko nekazarien foruan, 1150ekoan, bertako trashumantzia ere bazela adierazten dela dirudi, Caro Baroja, *op. cit.*, 202. or.

<sup>4</sup> García de Cortázar, *op. cit.*, 252. or., 25. oharra.

<sup>5</sup> Saroeak forma biribileko lur-zatiak ziren, abereen bazkaleku gisa erabiltzen zirenak; erdian mugari bat izan ohi zuten eta trashumantzia-motaren bati lotuta egon zitezkeela pentsatzen da. Informazio gehiago behar izanez gero, ikusi Caro Baroja, *Los Vascos*, 213. or., 4. oharra, eta Lasa, J. J., «Las luchas en torno a las seles y caserío de Albitxuri», in *Homenaje a don J. M. Barandiarán*. Bilbo, 1964, I. libk, 179-188. orr. Kartulario Liburua, 2. zenbakia, 1625ean hasia, 3. orria atz. Ziortzako Artxiboa, BAA. 1353ko, 1370eko, 1371ko, 1382ko, 1411ko, 1417ko, 1446ko eta 1475eko kontratuak. Ikus ditzagun zenbait adibide: 1371n Uribarren de Nareako mortuorioa irabaziak erdibana egitekotan eman zuten kalonjeek, sagastien 200 oinen truk; eta 1441ean Nareako bi baserriak sagastien 360 oinen truk. 1417an Arexpe de Artako etxeak sagarrondoan 200 oin izateko hitza eman zuen, irabaziak erdibana egitekotan. Mugártegui, J. J., *Índice General del Archivo de Cenarruza*. Bilbo, 1932, 15. or., 1. erregistroa, 9 eta 10. zkia.

<sup>6</sup> García de Salazar, Lope, *Las Bienandanzas e Fortunas*. Bilbo, 1967, Rodríguez Herrero-ren argitaraldia, 421 eta 422. orr.

beste adierazgarri argi bat; 1294an portutik urrun toki garai batean sortutako herri hura, 1343an ur ertzera eraman zuten, hala, leku hark eskaintzen zizkien ezaugarriak arrantzarako, garraiorako eta lurrak lantzeko aprobetxatzeko<sup>7</sup>.

XII eta XIII. mendeetan batez ere Bizkaiko mendebaldean estualdiak izan baziren ere —horixe adierazten da Balmasedako Foruan—, hurrengo bi mendeetan bihurtu ziren saroeak sagasti, eta murrizketa hori kontratu enfi-teutikoen eta irabaziak erdibana banatzeko kontratuen bidez gauzatu zen<sup>8</sup>. Luberritutako sail hauen hedapenak ziurrenik ere laborarien eta jauntxoaren artean hainbat liskar sortuko zuen; hau da, zituetan eta sagastietan interesatutako nekazarien eta hein handi batean ekonomiaren oinarri abeltzaintza zuten jauntxoaren artean tirabira ugari izango ziren. XV. mendearen amaiera aldera, nekazariak kexati zebiltzan, izan ere jauntxo haiek «por fuerza e contra su voluntad» mendiak hartu eta berenganatu zituzten, «fasiendo e nombrándoles seles, non lo seyendo»<sup>9</sup>.

Nekazaritzaren sektoreak aurrera egin bazuen ere, kostaldeko bi eskal probintzietako lurrak pobreak ziren oraindik eta, askotan, garau-eskasia izan ohi zuten. Garau hauek Arabatik, Briviescatik, La Burebatik eta Tierra de Campos-tik<sup>10</sup> ekartzen zituzten, eta larrialdirik gorrietan garia, itsasoz, Frantziatik, Bretainiatik, Ingalaterratik eta Andaluziatik ekarri ohi zuten<sup>11</sup>.

## Nekazaritza-sektorearen aurrerakada

XVI. mendean, sagastiak murriztu egin ziren eta, askotan, zituek hartu zuten haien lekua<sup>12</sup>. XV. mendearen azken alderako agertu ziren jada kontratu enfiteutikoak. Berauetan, dokumentuetan «tributo» deitzen dena edo zerga, garitan ordaindu behar zen; gainera, kasu batzuetan, abeltzaintzaren arloan irabaziak nagusiarekin erdibanatuz lan egiteko obligazioa zuen kolonoak<sup>13</sup>. Arian-arian, sagastien partzuergo zaharren lekua, garitan eman

<sup>7</sup> Gorosabel, *Diccionario...* Bilbo 1971, 230. or.

<sup>8</sup> Kartulario Liburua, 2. zkia., 1625ean hasia, 10. orria, Ziortzako Artxiboa, BAAan.

<sup>9</sup> Hemen aipatzen diren gertakariak 1483 baino lehenagokoak dira, urte horixe baita dokumentuaren data. Usurpazioa Errege-Erregina Katolikoaren agintaldia hasi aurretik gertatu baitzen. González, T., *Colección de Cédulas*. Madril, 1829, I. libk., 88. or.

<sup>10</sup> G. de Cortázar, J. A., *op. cit.*, 95-96. orr.

<sup>11</sup> G. de Cortázar, J. A., *op. cit.*, 97. or., *Las Bienandanzas e Fortunas*, 422. or.

<sup>12</sup> Honetaz ohartu zen J. R. Iturriza ere; honek ere Ziortzako eskriturak erabili zituen. Baina bere ustez, gariak gain artoak ere izan zuen zerikusirik sagastien atzerakadan 1560. urte aldera. *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Bilbo, 1967, II. libk., 116. or.

<sup>13</sup> Kartulario Liburua, 2. zkia., Ziortzako Artxiboa, 9 eta 18. orriak. Kontratuen urteak 1410 —lehenengotarikoa, ez baita garaitu horretan besterik aurkitu—, 1490, 1493 eta 1498 dira.

beharreko errenta finkoek hartu zuten. Ziortzako abadiako XVI. mendeko hogeita bost truke aztertu ondoren, honela banatu zirela ikus daiteke:

---

|                 |        |
|-----------------|--------|
| 1500-1550 ..... | 3-%12  |
| 1551-1560 ..... | 8-%32  |
| 1561-1570 ..... | 13-%52 |
| 1571-1580 ..... | 1- %4  |

---

Goian ikus dezakezunez, 1550etik aurrera bakarrik jarri zuen demografi hazkundera zalantzan antzinako egitura hura: sagardoaren produktioaren kaltetan, ogiaren produktioa indartu zen.

1588tik 1592ra bitartean, Euskal Herriko eremu hezeenetako hamai-ka herritan, hots, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako iparraldeko hamai-ka herritan, ordaindutako zenbait hamarrenen azterketatik, honako ondorioa atera genezake: XVI. mendearen erdialdetik amaierara bitartean, eskualde honetako herrialde gehienetan produkturik oinarritzkoenak garia, artatxikia eta gaztaina ziren, eta zerrenda horretan sagarrak betetzen zuen hurrengo lekua, horren ohikoa ez bazen ere. Mendi-mendian kokatzen ziren herrixketan, abere-hazkuntza garrantzi handiko jarduera zen. Inguru honetan bertan, zenbait hirigunek, Bilbok adibidez, edari-eskaera handia zuen eta ondorioz, maiz, ondoko lur-lantze guztiak, batez ere mahatsondoz, eta baita sagarrondo ere, osatzen ziren<sup>14</sup>. Arabako gainontzeko lurraldea bi zatitan bereizita zegoen. XII. mendearen erdialdeko idatzi batzuek adierazten dutenez, eremu hezearen eta Kantauriko mendizerraren arteko lurraldeetan zituek %78 osatzen zuten eta, beronen barnean, lehengoa gari-uzta zen eta bigarrena, berriz, garagarra. %22, berriz, leguminosok osatzen zuten (babak, dilistak, zalkea, ailorbea eta erua). Kantauriko mendizerraren hegoaldean, Errioxan, zituak eta mahatsondoak —azken honek XVII. mendean hedapen handia izan zuen— elkarren osagarri ziren.

## Artoaren iraultza

XVII. mendearen erdialderako agertu zen artoa Bizkaian eta Gipuzkoan eta gainontzeko zituak atzeraraziz hedatu zen. Gai hau autore ugari-landu duten arren, ez dira askotan ados jarri izan, nahiz eta, oro har, zitu honen sarrera aurreko mendean kokatzen duten gehienek. 1520rako sartu omen zen artoa Espainian; garai horretan soilik landare apaingarri gisa erabiltzen

---

<sup>14</sup> KKA, 2.219, 2.231, 2.236, 2.238, 2.242, 2.243. legajoak.

zen eta lorategietan bakarrik landatzen zen<sup>15</sup>. Th. Lefebvre ere jaso zuen idatziz jada 1570ean Baionan<sup>16</sup>. Bonifacio Echegaray jaunak artoa Euskal Herrian XVI. mendean sartu zela dio<sup>17</sup>. E. Goyhenechek, berriz, 1523an sartu zela uste du<sup>18</sup>. Aldiz, 1592ko eta aurreko urteetako urritasun-garaian, behartsuek, elikatzeko, ordurarte abereei ematen zieten jaten zuten: gaztainak eta arbia<sup>19</sup>. Hala ere, artoa ez da ageri berorien artean. Aztertutako 1588-1592ko hamarrenetan ez da artorik aipatzen, izan ere «borona» dioenean oraindik artatxikia esan nahi baitu, «borona» eta «mijo» hitzak ez baitira inoiz erabiltzen herri berari dagozkion testuetan. Dena den, aipamenak garbiak dira XVII. mendean. Hondarribian aurkitutako 1622ko deskribapen batean hauxe aipatzen da: «Siémbrese trigo, panizo, mijo y maíz en que ahora han dado mas por hallar en ello mucho provecho»<sup>20</sup>. Urte horretan bertan Gernikan ere «cantidad de millo, maiz y poco trigo»<sup>21</sup> aipatzen da, eta Llanesen (Asturias) «escanda y borona de maíz que en toda esta sierra hay mucho»<sup>22</sup> hitzak aurki daitezke. Isastik ere 1625erako sartua zela bazekien eta «mijo de India» izena eman zion<sup>23</sup>. Gonzalo Otalora jaunak, 1634an, Durangoko merindadeko uztetan «pan, maíz y borona» aipatu zituen<sup>24</sup>. 1667an, Gernikako prebostearen eta elizako kabildoaren hamarrenei

---

<sup>15</sup> 1542an, Leonhard Fuchs-ek, *De Historia Stirpium Commentari* liburuan jaso zuen landare hau. Laguna-k, Gualtherus Riffi zeritzonaren marrazkiaren bidez, Dioscórides liburuan bildu zuen 1544an. Eta II. liburuko 88. atalean hauxe dio: «Hállase a cada paso una suerte de mijo llamado turquesco que produce unas cañas muy grandes, y en ellas ciertas mazorcas llenas de muchos granos..., de las cuales, molidas, hace pan la ínfima gente, y este es el maíz de las Indias». Noski, Laguna-ren irudiak artoa adierazten du (Font Quer, Pío, *Plantas medicinales*, Labor argitaletxea, 1962, 945-948. orr.). Gonzalo Fernández de Oviedoren liburuan ere —*Sumario de la natural historia de las Indias*, lehen argitalpena, Toledo, 1526—, bada zitu horri buruzko deskribapen bat. Artoaren abantailak zerrendatzen ditu, berriz, Mexikon 1591n inprimatutako Juan de Cárdenasen *Problemas y secretos maravillosos de las Indias* liburuak: klima guztietara egokitzen den hazia da, ziklo motzekoa, garia baino erraztasun handiagoz oratzen da, elikagai gisa erabil daiteke heldu aurretik ere, kanaberari probetxua eman dakioko, bertatik ezti beltz gozoa ateratzen baita eta hostoak zaldia elikatzeko erabil baitaitezke, etab. (Ediciones de J. B. Ayallo-Arce, Biblioteca Anaya, Salamanca, 1963, 27-29. orr.)

<sup>16</sup> Lefebvre, Th., *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*. Paris, 1933, 204. or.

<sup>17</sup> *Ibidem*, 204. or.

<sup>18</sup> Goyheneche, E., «L'introduction du maïs en Euskal Herria et en Europe (1523)», in *Homenaje a Don José Miguel de Barandiarán*, II. libk., 133-136. orr.

<sup>19</sup> Guiard, T., *Historia del Consulado de Bilbao*, Bilbo, 1913, I. libk., 21. or.

<sup>20</sup> Huetz de Lemps, Alain, *op. cit.*, I. libk., 495. or., eta HEAA., Vargas Ponce bilduma, «Noticias de los pueblos de la costa de Guipúzcoa y Vizcaya», 9-4179, 371. or. atz.

<sup>21</sup> HEAA., Vargas Ponce bilduma, 9.22.4.4179, 395. or.

<sup>22</sup> HEAA., Vargas Ponce bilduma, 9.22.4.4179, 397. or.

<sup>23</sup> Isasti, *Compendio historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, Donostia, 1850, 152. or.

<sup>24</sup> Otalora y Guitssasa, Gonzalo de, *Micrología geográfica del asiento de la Noble merindad de Durango por su ámbito y circunferencia*. Sevilla; 1634, 1884an berrargitaratua, Madril, 33. or.



buruz sortutako istiluetan aipatu zela badakigu<sup>25</sup>, eta urte horretan bertan, Ziortzako abadiaren hiru etxek zerga iraunkorra 15, 25 eta 20 lakari artotan ordaintzeko hitza eman zuten<sup>26</sup>. Zuberoan, Ipar Euskal Herrian, 1673rako artoak artatxikia bazterrarazi zuen<sup>27</sup>. Beraz, nahiko garbi ikusenezake zitu hau batez ere XVII. mendean hedatu zela, eta orduan hasi zitzaion garrantzia ematen ere, nahiz eta aurreko mendearen amaiera aldera ezagutuko zen. Vargas Ponceren iritzia da, ziurrenik, zuzenena arlo honetan: artoaren sarrera 1576an datatu zuen, eta urte askotan zehar «mijo de Indias» edo «Indietako artatxikia» deitu izan zela argitu zigun. «Introducido con lentitud, como toda novedad hasta los años de 1630, todavía se ve por los diezmos cuán escasa era esta cosecha»<sup>28</sup>. Hasieran, artoa abereentzako pentsutarako erabili zen, baina nahiko azkar bihurtu zen gizakiaren elikagai. XVII. mendeko uzta eskasek eta gose-garaiek ere izango zuten zerikusirik, ziurrenik ere, aldaketa horretan. Jende pobreaken dietarako elikagai gisa artirina erabiltzea, nahiko goiz hedatu zen. Horregatik egiten da, garai honi dagokionez, gaixotasun berri baten aipua: «una enfermedad desconocida hasta entonces, de curso tan grave y serio pronóstico que [Gaspar del Casal en 1725] la interpretó como lepra atípica, llamada lepra escorbútica». Asturiasen ezaguna zen gaixotasun hau gutxi gorabehera 1630. urtetik aurrerantz<sup>29</sup>.

Artoaren hedapenak nekazaritzako egiturak aldarazi zituen. Isastik artoari buruz honakoa aipatu zuen: «se da muy bien en los valles y lugares húmedos»<sup>30</sup> eta, hala, «artoak hezetasun eta temperatura bereziak behar zituenez, udan erein behar zen, lurpeko ur ugariko lurzoruetan edota erraz urrezta zitezkeen lurraldeetan eta, beraz, bailara eta sakonuneetan»<sup>31</sup>. Artoak

---

<sup>25</sup> Altube, *Ensayo histórico... de Guernica*, Gernika, 1913, 334. or.

<sup>26</sup> Kartulario Liburua, Ziortzako Elizaren artxiboko 2.a, 24. or.

<sup>27</sup> Lefebvre, Th. *op. cit.*, 205. or., 5. oharra.

<sup>28</sup> HEAA., E-71, «Prólogo a los estados de vitalidad...», Vargas Ponce.

<sup>29</sup> Casal y Julián, Gaspar del (1668-1755), *Historia Natural y Médica del Principado de Asturias* liburuaren egilea. Gizon honek gaixotasun hau elikadura monotono eta eskasegiaren ondorio zela ulertu zuen. Sendatzeko esnea, arrautzak eta haragia proposatu zituen. Zehazki, gaixotasun hau PP faktorearen edo azido nikotinkoaren eskasiaren ondorioz sortzen da, faktore hori oso garrantzitsua baita. «Es vitamina fundamental para el metabolismo... En el maíz hay sustancias inhibitoras de la síntesis nicotínica y aun inactivadores funcionalmente del mismo, como el factor indol-3-acético que se encuentra en la fracción proteica del grano o semilla de maíz. Este cuerpo inhibe la síntesis del ácido nicotínico y del triptófano, por lo que las dietas ricas en maíz son pelagrógenas». Ikusi Lorenzo Velázquez, B., *Terapéutica con sus fundamentos de Farmacología Experimental*, 9. argitalpena, 1963. Editorial Científico Médica, 1317 eta 1318. orr. Peláez Redondo, J. eta Peña Yañez, A., *Manual de Patología médica*, Madril, 1964, 538-586. orr. *Enciclopedia Salvat de las Ciencias Vegetales* 2, Mallorca, 1968, 312. or.; Noilhan, H., *Histoire de l'agriculture à l'ère industrielle*. Paris, 1965, 217. or.

<sup>30</sup> Isasti, *Compendio historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, Donostia, 1850, 152. or.

<sup>31</sup> Lautensach, H., *Geografía de España y Portugal*. Bartzelona, 1967, 201. or.

azkenean garai bertsuan ereiten zen beste zitu baten lekua, hots, artatxikiarena, hartu zuen<sup>32</sup>, nahiz eta artoaren hedadura batez ere garagarraren eta oloaren kaltetan eta beste zituak ereiteko hezeegiak ziren haran barretetako zelaien kaltetan garatu zen. Zelai eta larreen atzerakada horrekazienda larria murriztarazi egin zuen eta, aldiz,azienda xehea bultzatu. Hala dio, behintzat, Lautensach jaunak: «aldiz,azienda xehea gero eta gehiagogaratu zen, eta honela gauzatu zen: Iparraldean eta Mendebaldean, elikatzeko produktu gisa artatxikiaren lekua artoak hartu zuen. Artatxikia, berriz, hegaletan eta leku altuetan ereiten zen lehorreko laborea zen. Artoa sartu zenean, lehen erdialdean garatzen ziren lur-lantzeak beheragoko lurraldeetara jaitsi ziren. Herri inguruetakolekurik altuenetan itsas pinuzko basoak landatu ziren edota otalur edo sasitza gisa utzi ziren eta, beraz, ganadu xehearentzako larre bihurtu ziren»<sup>33</sup>. Noski, Lautensach jaunak bilakaerari buruz eginiko deskribapen hau zehaztu egin beharko litzateke, baina bertan dioena indartzeko, Oñatin, 1654an jendeariazienda xehea izateko gomendioa egiten zitzaiola esan daiteke<sup>34</sup>.

Artoak, nekazaritzako egiturak aldarazteaz gain, bigarren eta hirugarren sektoreko krisia arindu zuen. Populazioaren gaia aztertzerakoan ikusi dugunaren ildotik, XVII. mendearen lehenengo herenean kostaldeko biztanleak lurralde lantzeaz eta nekazaritzaz arduratu ziren batez ere eta ez, horrenbeste, itsasoko jardueraz. Garai horretan, Donostian ziren burdinazko eta kobrezko obretako maisu ofizialak (hots, «los maestros oficiales de obras de fierro y cobre») eta Bizkaiko olagizonak kexatu egin ziren kanpotikolehiakortasunaren ondorioz lan gutxi zutelako<sup>35</sup>. Hori zela eta, zituak gero eta gehiago landu ziren, eta «de treinta y seis años a esta parte poco más o menos [hau da, 1596tik] ha huido costumbre de hazerse las dhas roturas y nouales en la dha anteigla [Abando] *por que antes del dho tpo no se usaba ni acostubraba hacerse las tales aberturas y nouales sino que los caseros y uecinos solam<sup>te</sup> cultiaban las heredades antiguas y se ocupaban en otros ministerios como en nauegar por la mar y otros oficios*»<sup>36</sup>.

Gauza hauek guztiak kontuan hartuta, badirudi populazioaren zati handi bat —merkatariak eta artisauak— nekazaritza-lanetara itzultzeak ez zuela sektore honetan arazo handiegirik sortu, lur-eskaeraren eta eskaintzaren artean ez zela desfaserik izan, «Indietako artatxikiari» esker. Garia biltzen zenetik (abuztutik) artoa erein arte (otsaila-martxoa), lurra atsedenean utz zitekeen edota, ongaria izanez gero, arbia erein zitekeen bertan,

<sup>32</sup> Lautensach, H., *op. cit.*, 200. or., eta Lefebvre, Th., *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*. Paris, 1933, 204. or.

<sup>33</sup> Lautensach, H., *op. cit.*, 200. or.

<sup>34</sup> AHN, Consejos, 2.733 legajoa (1, a) 199. or. atz.

<sup>35</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, 4-22-4-4193, 129-130 eta 144. orr.

<sup>36</sup> AHN, Consejos, 24.880. legajoa (1), 157. or.; letra etzanak gureak dira.

arbiaren zikloa oso motza baita. Lehenengo kasuan bi uzta lortzen ziren urtean, bata gariarena eta bestea artoarena; bigarrengoan hiru: garia, arbia eta artoa. Dena dela, urtebetez lugorri uzteko ohitura hura baztertzeko modua izango zuten horrela. Bestalde, gariarekin erkatuz, eta baita artoak ordeztuko zuen beste zitu batekin, hots, artatxikiarekin, erkatuz ere, etekin handiagoak eskaintzen zituen artoak, bai landutako gainazalari zegokioenez eta baita haziari zegokioenez ere. 1802an —datu hauxe da ezagutzen dugun bakarra—, anega bat garik 130 landaketetan, lurrik onenetan, hamaika anega ematen zituen; aldiz, eremu berean, hamabost anega arto lor zitezkeen<sup>37</sup>. Elikadura-ezaugarriei zegokienez, garia baino kaloria gutxi-xeago zituen: gariak 260 kaloria 100 gramoko eta artoak 240 kaloria<sup>38</sup>. Gainera, bataren eta bestearen erein eta uzta-garaiak batera izaten ez zirenez, gizon-emakumeen eta abereen lana hobeto bana zitekeen urte osoan zehar, eta gari-landaketen lurraldeetan izan ohi zen urtaroko geldialdia saihesteko aukera eskaintzen zuen. Horrek guztiak, produkzioaren gorakada landutako lurraldearena baino handiagoa izango zela pentsatzera garamatza; produktibitatea eta etekinak hazi egingo ziren beraz, hau da, ia lurralde gehiago landu beharrik gabe, ale-kopuru handiagoa lortzeko bidea izango zuten.

---

<sup>37</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, 4-22-4-4197, 1802an eginiko errolda, Orioko erantzuna.

<sup>38</sup> *Documento Geigy. Tablas científicas*. Konrad Diem-ek idatzita eta argitalpena: GEYGI, J. R., S. R., Basilea, Suitza, seigarren argitalpena, 1965, 515-527. orr. Espainiako inprimaketa: Sociedad Alianza de Artes Gráficas. Bartzelona, 1965.

## IV

### Euskal industria XVIII. mendearen hasiera arte

Euskal Herriko industriarik garrantzitsuena siderurgia zen. Dokumenturik zaharrenek lehenengo burdinolak Araban kokatzen dituzte, eta beroriei buruzko aipamenik antzinakoenak IX. mende amaierakoak dira<sup>1</sup>. Esate baterako, Donemiliagako botoek Gipuzkoari eta Bizkaiari idiak eskatzen bazizkieten ere, Arabako herri batzuek burdinazko golde-muturrak eman behar izaten zituzten. Arabako burdinolen gainbehera XIV. mendearen lehenengo urteetan hasi zen; mende horretan, baso-soiltzeen ondorioz, Alfontso XI.ak burdinola gehiago ez zuela egingo hitz eman zuen. xv. mendearen bukaera aldera, Errege Kontseiluak Oñatiko kondeak Barrundia, Asparren eta Ganboako ermandadeetan zituen burdinolak botatzeko agindua eman zuen eta Zigoitiko ermandadean kokatzen zen Infanterriko dukearena 1516an itzali zen, larreak hondatzen zituelako<sup>2</sup>. XIII. mendearen bukaeran, Bizkaian eta Gipuzkoan «masukariolak» izan zirela badakigu<sup>3</sup> eta, halaber, badakigu Andaluziara burdina bidaltzen zela ere<sup>4</sup>. Sektorearen instituzionalizazioa Behe Erdi Aroan gertatu zela dirudi: Segurako 1290eko foruak masukariolak aipatzen ditu<sup>5</sup>, eta «rayeras» eta «maceras» zeritzotenak ere baziren<sup>6</sup>; Oiartzungo burdinolen forua 1338koa da<sup>7</sup>; Burdinolen Bizkaiko forua 1440koa da, eta foru horiek aipatzen dira Foru

---

<sup>1</sup> Balparda, G. de, *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros*. Madril, 1925, I. libk., 258. or. Burdinolak aipatzen dira Akoztaiko elizaren 871ko dohaintzan, Santa-Graziko elizakoan eta Estabeluko San Martingo elizakoan.

<sup>2</sup> AHN, Consejos, 454. (3) legajoa.

<sup>3</sup> Zehazki, Legazpin, 1290ean; *Diccionario de la R.A.H.*, II. libk., 361. or.

<sup>4</sup> Guiard, T., *Historia del Consulado, de la Casa de Contratación de Bilbao y del comercio de la villa*. Bilbo, 1914, I. libk., 76. or.

<sup>5</sup> *Diccionario de la R. A. H.*, II. libk., 361. or.

<sup>6</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 109. or.

<sup>7</sup> Caro Baroja, J., *Los Vascos*, Madril, 1958, 233. or.; Labayru, *op. cit.*, II. libk., 721. or.; Echegaray, C., *Compendio...*, 268. or.

Zaharrean ere (1452). Arrasateko olagizonen ordenantzak 1437an berretsi zituzten, eta Markinakoak 1474an<sup>8</sup>.

Oro har, burdinolak hornitzeko Somorrostrotik itsasoz betaontzi delako bidez edota lehorretik garraiaketaren bidez ekarritako betak, nahiz bertako meategiak erabiltzen ziren. Hasieran, mendietan, egur-ikatzaren iturrietatik gertu kokatu ziren, eta lan guztia besoetako indarra erabiliz egiten zuten; baina, xv. menderako ibai ertzetara jaitsi zituzten burdinolak batez ere, hala ibaietako uraren indarra aprobetxatzeko; indar hori, hasieran, hauspo bati eragiten zion paladun gurpil bat mugitzeko erabiltzen zen soilik, eta honek, toberan zehar, zuzeneko berokuntza-labeari behar zuen airea ematen zion. Beta urtu ondoren ateratzen zen totxoa olagizonek lantzen zuten<sup>9</sup>. Nekazaritzaren munduko beharrei erantzuna ematen zieten —aitzurak, palak, ferrak...—, baina batez ere gerrarako eskaerez —gerrako arnesak, armadurak, bonbardak, lantzak...— eta flotako eskaerez —iltzeak eta aingurak— arduratzen ziren. xv. mendean, Euskal Herriko siderurgia sendotu egin zen, baina horrekin batera merkatari eta hornitzaileek gero eta kontrol handiagoa izan zuten industria horren gain. Eskaerak herrietako eta probintziako merkatua gainditzen zuenean, Verlagssystem zeritzona ezartzen zen. Olagizonen edota arnesak egiten zituzten maisuen gaitasun finantzario eskasak, olagizon eta maisu hauek merkatarien mende utzi zituen<sup>10</sup>. Arlo honetan, herrietako bitartekarien aurkako legea zen Bizkaiko Foruko IV.a, erreterietako arduradunei burdinarekin eta altzairuarekin salerosketak egitea eragozten baitziren; izan ere, esperientziak garbi erakutsi zuen jarduera horrek min handia egiten ziela olagizonei.<sup>11</sup>

Gaztelako demografiaren hazkundeak, Amerikaren kolonizazioak eta Granadako konkistaz geroztik Espainiako Koroak izan zituen gatazkek, siderurgiaren produkzioa bultzatu eta hobekuntza tekniko ugari ekarri zuten. Dirudienez, Bizkaian instalatu zuten lehenengo gabia —urjauzi baten indarrak mugitzen den maza— xvi. mendeko lehenengo hamarkadakoa da<sup>12</sup>, nahiz eta beronen erabilera 1540az geroztik hedatu zen<sup>13</sup>. Horrela, masakariolak burdinola txiki bihurtu ziren eta besoen indarrak altzairua bakarrik landu zen harrez geroztik.

Pedro Medinak, agian exajeratuz, xvi. mendearen amaiera aldera Bizkaian eta Gipuzkoan 300.000 kintal burdina lantzen zela aipatzen zuen, eta heren bat ontziak eta tresnak egiteko erabiltzen zen probintzian bertan;

---

<sup>8</sup> Labayru, *op. cit.*, I. libk., 571. or.

<sup>9</sup> Iturriza, *op. cit.*, 108. or. Henao, *Averiguaciones de Cantabria*. Tolosa, 1894, II. libk., 106. or. Honako testuan ageri den deskribapena, bi irudiz hornitutakoa, oso egokia izan daiteke: Caro Baroja, *op. cit.*, 229. or. eta hurr.

<sup>10</sup> García de Cortázar, J. A., *Vizcaya en el siglo xv*, 140. or.

<sup>11</sup> Labayru, *op. cit.*, I. libk., 574. or.

<sup>12</sup> Iturriza, *op. cit.*, I. libk., 109. or., Rodríguez Herreroren oharra.

<sup>13</sup> Henao, *op. cit.*, 1. liburua, 38. atala; 2. alea, 105. or., oharra.

beste heren bat erremintak, armak, iltzeak eta ferrak egiteko; eta gainontzekoa barratan esportatzen zen<sup>14</sup>. Gutxi gorabeherako kalkulu hauetatik ondorio hauxe atera genezake: XVI. mendearen hasieratik erdialdera arte, burdinoletatik ateratzen zen burdinaren zatirik handiena manufakturatut egiten zen. Arlo honetan sortu ziren zailtasunen lehenengo sintomak 60ko hamarkadakoak dira, garai horretan hasi baitziren Frantziara beta esportatzearen aurkako protestak<sup>15</sup>; gainera, horrekin batera, landutako burdina erosi eta mineralak saltzean oinarritutako monopolioak indartu ziren<sup>16</sup>. 1579ko pragmatikak, itsasontzi nazionaletan soilik esportatu beharra ezarri zuenak, burdinaren prezioak murrizarazi eta zenbait burdinola itxiarazi zituen<sup>17</sup>; dena den, 1587rako Gipuzkoak burdina eta altzairua atzerriko ontzietan ateratzeko baimena lortu zuen eta Bizkaiak ere pribilegio bera eskatu zuen, eta hainbat aldiz eman zitzaion<sup>18</sup>. Dena den, eskaeren jaitsierara beste arrazoi batzuen ondorio izan zen. Zailtasun horien adierazle dugu, esate baterako, honako kasua: 1586an Gipuzkoak garbi adierazi zuen ez ziela atzeritarrei Bizkaiko burdinarik eta altzairurik salduko, harik eta Gipuzkoako olagizon eta tratulariek zuten gutzia saldu arte<sup>19</sup>. Handik hamar urtera ere, bizkaitarrak kexu ageri ziren antzeko neurriak hartu zirelako<sup>20</sup>. Itsasoko harremanak, itsaslapurretak zirela-eta, moztu egin zirenez —Bizkaiak eta Gipuzkoak itsasoz inportatzen zuten beren kontsumorako ale ugari—, eta mende bukaeran elikagaien krisi ugari izan zenez, nekazaritzaren esparruko produktuen prezioek gora egin zuten. Horrek, batetik, artisauen soldataren baitan izan zuen eragina eta, bestetik, manufakturatutako produktuen eskaera murriztu egin zuen nekazaritzaren esparruetan. 1592an, Jaurerriko sindikoak zailtasun haiek hainbat gerrak eragin zituela adierazi zuen garbi: «guerras de los dichos Estados de Flandes y reinos de Inglaterra y Francia»<sup>21</sup>. Dena den, krisia ez zen artean oso latza izango: alemaniar bat, edozein burdinazko barra erraz moztu eta txiki zezakeen asmamen bat ezartzen ahalegindu bazen ere, ez zuen bere asmoa lortu, «porque cesaría y faltaría el trabajo personal y sustento de mucho número de personas que se ocupaban de ese ministerio»<sup>22</sup>; 1617an, Ortuño de Ugarte bilbotarrak burdina Liejan bezalatsu egiteko emandako iradokizunak ere<sup>23</sup> antzeko erantzuna izan zuen, eta garai hartan harrikatza erabiltzeko eginiko

<sup>14</sup> Medina, P., *Grandezas de España*, Alcalá de Henares, 1595, 275. or.

<sup>15</sup> Sagarminaga, *El gobierno y régimen foral...* Darío Areitioak osatutako argitaraldia. Bilbo, 1928, I. libk., 147, 193, 288, 326. orr.

<sup>16</sup> *Ibidem*, I. libk., 368, 372 eta 406. orr.

<sup>17</sup> *Ibidem*, II. libk., 92. or.

<sup>18</sup> *Ibidem*, II. libk., 223. or.

<sup>19</sup> *Ibidem*, II. libk., 338. or.

<sup>20</sup> *Ibidem*, III. libk. 410. or.

<sup>21</sup> *Ibidem*, III. libk., 113. or., eta Guiard, *Consulado*, I. libk, 211. or.

<sup>22</sup> Sagarminaga, *op. cit.*, III. libk., 67. or.

<sup>23</sup> Guiard, *Consulado*, I. libk., 524. or., oharra.

ahaleginek ere ez zuten arrakasta handiegirik izan<sup>24</sup>. Atzerriko lehiari aurka egiteko burdin saltzaileek honako neurriak hartu zituzten soilik: batetik, betaren esportazioa eragotzi zuten, hala, euren lehiakideak eta, batez ere, lehiakide frantziarrak lehengairik gabe uzteko<sup>25</sup>; eta, bestetik, 1621eko Errege-agindua bidez, Espainiaren mendeko lurretan atzerriko burdina saltzea debekatu zen<sup>26</sup>. Egia esateko, arazorik latzena manufakturatutako produktu siderurgikoen atzerrian zuten lehiakortasuna zen. Somorrostroko mineralen hurbiltasunak eta kalitateak, eta baita basoen ugaritasunak ere, euskaldunei abantaila handia eskaintzen zien totxoak eta burdinazko barrak egiteko kostuen esparruan, baina manufakturatutako produktuetan gauzak arras desberdinak ziren: langintza honetarako lan esku ugari behar izaten zen eta hauen soldata merkeagoa izan ohi zen atzerrian, eta, horretaz gain, Espainiako prezioen gorakadari, elikadurarako aleen euskal defizita gainerratu behar zitzaion. 1619an, Jaurreriak bertako artisautzaren beherakada azaltzeko erabiltzen zuen aitzakia Espainiara eta Indiara esportatzen zen burdina zen. Hots: «hiero labrado en las ferrerías menores tan sutil y acomodado para todas obras que han podido introducir por allá todos los oficios, tirando así nuestro trato y manufacturas de que se solían proveer de estas Provincias [Bizkaia eta Gipuzkoa] necesariamente y por consiguiente se han perdido nuestros oficiales y muchos de ellos por no haber salida aquí de lo que lababan se han ido a trabajar y mantenerse fuera y los van enseñando»<sup>27</sup>. Urte berean, bi probintzietako ordezkariak osatutako batzorde bat erabaki bat hartzen ahalegindu zen esparru honetan: «en cuanto a las medidas de evitar que se sacase de su territorio el hierro delgado para labrarlo en otras partes con perjuicio de los oficiales guipuzcoanos y vizcaínos que se emplean en esta industria»<sup>28</sup>. Saio hauek ez zuten arrakasta handiegirik lortu izan. Bizkaiko armagintza indartsuak ez zuten lortu su-armetara egokitzerik, eta XVIII. mende hasierarako desagertua zen ia erabat armagintza, bai eta ainguragintza ere<sup>29</sup>. Bizkaiko hiribilduen krisiak bazuen zerikurisik beren manufakturatutako produktuen lehiakortasun faltarekin. Gipuzkoan, industria arinak zorte hobea izan zuen, eta Soraluzeko Armen Errege Fabrikak, alkabuz eta mosketeen produkzioaz arduratzen zen fabrikak, Koroaren eskaerei esker, ondo iraun zuen.

Nahiz eta goian aipatutako abantailak izan, totxoaren eta burdinazko barren manufaktura arrazionalizatzeko eta kostuak jaisteko beharra sumatu zen. Isastik, 1625ean, bere idatzietan bi burdinola bereizten zituen

<sup>24</sup> Sagarminaga, *El gobierno foral...* Bilbo, 1892, I. libk., 346. or.

<sup>25</sup> Sagarminaga, osatua, III. libk., 350 eta 409. orr., eta Sagarminaga, *El gobierno foral...*, I. libk., 346. or.

<sup>26</sup> Labayru, *op. cit.*, VI. libk., 429. or.

<sup>27</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, 4-22-4-4.193, 129-130. orr.

<sup>28</sup> Sagarminaga, *El gobierno foral...*, I. libk., 352. or.

<sup>29</sup> Iturriza, *op. cit.*, I. libk., 113. or., eta Guiard, *Consulado...*, I. libk., 226. or., oharra.

oraindik: «mayores» eta «menores». Lehenengoetan, beta arragoa batean kaltzinatu ondoren, urtu egiten zen sutegian ikatzaren bidez. Hortik ateratzen zen agoa gori-gori mailutzarraren azpian jarriz lortzen zen totxoa. Besteetan, «martinete» deitzen ziren eta urez mugitzen ziren burdinoletan, honako lanak egiten ziren: «se achica el hierro sutil o platinete, y los arcos de hierro, clavazón, palanquetas, porras, masas y otras cosas menudas con mucha perfección»<sup>30</sup>. Batzuek burdina urtuz eta besteek tiraketak burutuz osatzen zuten prozesu bikoitz hau ia desagertua zen XVII. mendearen erdialderako. 1651n, Durangoko merindadeko prokuradorea kexu ageri zen burdinola txikiak, erregaia eta laneskua aurrezteko, burdina urtu eta tiraketak burutu<sup>31</sup>, biak egiten hasi zirelako. Halaber, garai horretan, Ribadeneirak burdina sutegi-ausporik gabe urtzeko pentsatu zuen asmamena, olen jabeen Batzarrak 1641ean baztertu zuen hura, zenbait tokitan onartu egin zuten, Henaok ikusi zuela baieztatu baitzuen<sup>32</sup>. Hobekuntza hauek izan arren, 1673an eta 1702an 1621eko Errege Agindua ezarri zen berriro.

Dena den, XVII. mendean zailtasun ugari izan bazen ere, Euskal Herriko industria siderurgiko astuna ez zen suntsitu, baina Pedro Medinak barratan esportatzen zela zioen heren bakar hura, noski, jada herena baino gehiago zen, eta horrekin batera manufakturatutako produktuek behera egin zuten; halaber, banaketarako bideak atzerritarren esku geratu ziren. Bertako ordezkarien bidez, atzerritar horiek ematen zizkieten maileguak burdina produzitzen zutenei eta, ondorioz, atzerritarrek ezartzen zizkieten baldintzetan onartu behar izaten zituzten prezioak, hots, «los precios en la misma especie que los extranjeros dieren»<sup>33</sup>.

Aldiz, Bergarako oihal-industria hasi berriak eta, batez ere Durangoak, hurrenez hurren 1497an eta 1496an berretsitako ordenantzak zituztenak, desagertu egin ziren XVI. menderako, ezin izan baitzuten ezer egin atzerriko eskaintzaren aurrean<sup>34</sup>.

---

<sup>30</sup> Isasti, Lope de, *Compendio historial de la M. N. y M. L., Provincia de Guipúzcoa*, 1625; Donostiako argitalpena, 1850, 233 eta 158. orr.

<sup>31</sup> Sagarminaga, *El gobierno foral...*, II. libk. 144-145. orr.

<sup>32</sup> Guiard, T., *op. cit.*, I. libk., 524. or., oharra, eta Henaok, *op. cit.*, 2. alea, 106. or., oharretan.

<sup>33</sup> *Exposición de Vizcaya a S. M.*, c. 1661.

<sup>34</sup> Labayru, *op. cit.*, III. libk., 522-523. orr. eta IV. libk., 627. or.





## V

### Euskal Herriko gizartearen egitura Behe Erdi Aroan

Erdi Aroaren amaierako Euskal Herriko gizartea, bi faktore hauen eragina jasan zuen prozesu luze baten emaitza izan zen: alde batetik, Birkonkistarena, emigrazioa erraztu baitzuen eta, era berean, demografi presioa arindu eta, bestetik, XIV eta XV. mendeetako gizartearen gertatu ziren borrokena. 1526ko Foruak Bizkaiari aitortutako kaparetasun unibertsalak<sup>1</sup> ekarri zuen prozesuaren amaiera, ikuspuntu juridikotik behinik behin.

Erdi Aroko azkeneko bi mendeetan gertatutako gatazken aurretik, eta gatazken garaian ere bai, gizarte-talde hauek bereiz ditzakegu: lehenik eta behin, *noblezia*, «fijosdalgo, ricos omes, infanzones, caballeros, escuderos fijosdalgo»<sup>2</sup> delakoez edo, besterik gabe, ezkutariez osatua<sup>3</sup>. Noblezia, era berean, beste bi taldetan zati daiteke: gailurrean, ahaide nagusiak; horiek ziren, zalantzarik gabe, aberatsenak, lurrari nahiz pribilejio eta erretegi zego-kienez eta, horien artean, etxe hauek nabarmendu ziren: Bizkaian, Butroe, Mujika, Urkiza, Arteaga eta Villela<sup>4</sup>. Horien diru-sarrerek iturri desberdinak zituzten<sup>5</sup>. Lope Garcia de Salazarrek bere etxeak honako ondasunak zituela zioen: elizak, markoak, mortuorioak, alkatetza bat, prebostetza bat, merindade bat, burdinolak, etxeak, errotak, sagastiak, mahastiak, orubeak eta beten gaineko eskubideak (azken horien prezioak gora egin zuen)<sup>6</sup>. Villela etxeak, 1438an, ondasun hauek zituzten: errotak, Gatikako Santa Maria elizako patronatua, euren abizena zuten gurrupilak eta bi burdinola; gainera,

---

<sup>1</sup> G. de Cortázar, J. A., *Vizcaya en el siglo xv*. Bilbo, 1965, 319. or. Caro Baroja, *Los Vascos*, 1971ko argitalpena, 74. or.

<sup>2</sup> *Diccionario R. A. H.*, I. libk., 486-491. orr.

<sup>3</sup> G. de Cortázar, J. A., *op. cit.*, 318. or.

<sup>4</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 94. or.

<sup>5</sup> Arocena, I., *Los banderizos vascos*. Donostia, 1969, 17. or.; jaun hauek 1536an eta 1569an zituzten ondasunen adibideak ematen ditu.

<sup>6</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 121. or.

une horretan, maiorazkoaren titularra foru-alkatea zen<sup>7</sup>. Juan Sánchez, «marroquines» delako taldeetako bat, Gipuzkoako merio nagusia zen, zenbait tenpluren patronatua zuen, errotak eta «beste jaraunspen asko» zituen eta hogeita bi laborari erosi zituen<sup>8</sup>. Garbi ikusten da euren ondasunak nobleziari zegozkiola: mendiak, saroeak, euren basailu ziren laborarien gaineko eskubideak eta errotak zituzten, elizen patronatua zuten eta bertako onuraduna ezarri eta hamarrenak kobratzen zituzten, bidesariak<sup>9</sup>, ehoketen eskubideak<sup>10</sup>, alkatetzen eskubideak, prebostetzenak, eskribautzenak eta, Salazar etxearen kasuan, esportatuko beten eskubideak ere bai. Diru-sarrera horiez gain, merkataritzako ekonomian ere parte hartu zuten: burdinolak eraiki zituzten eta burdina saldu zuten eta beranduago ikusiko dugu ontzigintzan eta merkataritzan ere aritu zirela. Ahaide nagusi hauek Bizkaiko jaunarekin zituzten harremanak «ia feudalak ziren: jaunak errentetan parte hartzeko eskubidea ematen zien nobleei hauek zeregin militarretan laguntzearen trukean»<sup>11</sup>; 1489an, nobleen betebeharra bere jaunari, hots, erregeari, laguntzea zen eta, horretarako, 222 baleztari eta 249 lantza eraman behar zituzten<sup>12</sup>.

Horien azpian kapare-taldea zegoen; batzuek diru-sarrera zuzenak zituzten, beste batzuk, berriz, «sogetos a comer pan de algunos solares e casas comarcanas»<sup>13</sup> zeuden; ahaide nagusiekin harremana zuten guztiek, batzuetan senitarteko lotura zuten eta, hori bai, gehienek harreman feudala zuten<sup>14</sup>. Talde honetan, Lorenzo de Padillak, kapare arruntak eta gizon aberatsenak izan ohi ziren infantzoi-etxeak bereizten ditu; lehenak oinetxeetan bizi ziren eta «ez zuten basailurik» eta, azkenak, «basailu edo zergadunak» zituzten, baina ez zuten jurisdikziorik<sup>15</sup>.

*Kapare ez zirenak.* Talde heterogeneoa dugu; *status* juridikoaren araberako sailkatzen badira euren benetako egoera ezkutuan geratzen da. Gehien ezagutzen dugun taldea zentsoa ordaintzen zuten laborariena da. Bizkaian, laborari hauek «orubean eraiki edo bizitzeko gaitasuna zuten, baina landa jaunaren esku geratzen zen, hau da, orubearen jabearen esku», eta etxea uzten zutenean «eraikita zegoen orubearen nagusiaren esku geratzen zen»<sup>16</sup>. 1150. urtean, Antso VII.a Nafarroako erregeak zen eman zuten

<sup>7</sup> Labayru, *op. cit.*, III. libk., 91. or.

<sup>8</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 104. or.

<sup>9</sup> Arocena, I., *op. cit.*, 12. or.

<sup>10</sup> *Ibidem*, 18. or.

<sup>11</sup> G. de Cortázar, J. A., *op. cit.*, 315. or.

<sup>12</sup> *Ibidem*, 337. or.

<sup>13</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 98. or.

<sup>14</sup> Dirutan ordaindutako errentaren truk egindako zerbitzuen adibideetarako, ikusi Gurruchaga, I., «Notas sobre los parientes mayores», in *R. I. E. V.*, XXVI. libk., 481. or. eta hurr. *Apud* Arocena, I., 9. or., eta Arocena, I., *op. cit.*, 10. or.

<sup>15</sup> *Crónicas de la Casa de Vizcaya*, berrargitalpena, Bilbo, 1971, 557. or.

<sup>16</sup> G. de Cortázar, J. A., *op. cit.*, 303. or.

Foruaren arabera, Durangoko merindadean zentsoa ordaintzen zuten laborariek, zergak dirutan ordaintzen zituzten, zuten aziendaren arabera, eta generotan, berriz, galtzuri- eta gari-neurri batzuk; era berean, prestameroak etxerik ez baldin bazuen, etxea eskaini behar zioten eta merioari eta honekin etor zitezkeen lau gizonei eta berorien zaldiei ostatua eskaini behar zieten<sup>17</sup>. Zerga horiek, aurrerago, dirutan baino ez ziren ordainduko: 1404an, zentsoa ordaindu behar zuten eta Gerrickaizko hiribilduarekin bat egin zuten Bolibarko eta Arebatzegiko laborariek, urteko eta su bakoitzeko zortzi marabedi ordaintzen zituzten soilik<sup>18</sup>. Handik gutxira laborarien egoerak txarrera egingo zuen, ordaindu behar zen kopurua beti bera baitzen eta su bakoitzak ordaindu behar zuena su-kopuruaren arabera baitzegoen. Izan ere, erregeak, laborariek hiribilduetara edo infantzoi-etxeetara alde egin ez zezaten eta bere errentak murriz ez zitezten, su guztien artean ordaindu beharreko kopuru finko bat eskatu zien; su-kopurua jaisten zenean, laborari bakoitzak ordaindu behar zuen kopurua handiagoa zen, baina erregeak jasotzen zuen errenta beti berdina zen eta kopurua ez zen aldatzen; aldiz, suko zortzi marabedi ordaintzen zutenean, kopuru osoak gora nahiz behera egin zezakeen, erregearentzat. Erregeak zentsoa ordaintzen zuten laborariengandik hartzen zituen eskubide horiek inorenganatuak izan zitezkeen. García de Cortázarrek adierazitako garapena kontuan hartzen badugu, zilegi da nekazari horiek ordura arte Bizkaiko jaunaren koilazoak izan zirela pentsatzea eta kanon edo zentsoa dirutan ordaintzen hasi zirenean izendatzeko modua aldatzea.

Antzeko beste talde bat, baina egoera kaskarragoa zuena, espreski *koilazo* deitzen zutena zen. Erreferentzia gutxi baina sendoak daude. Bestalde, Araban eta x. mendean behintzat, beste morroi-klase bat zegoen, nekazari-morroiak edo *kasatoak*; horien egoera erreal eta juridikoa goian aipatu ditugunena baino okerragoa izan zen garai hartan<sup>19</sup>, Donemiliagara 952an egindako emari baten arabera<sup>20</sup>. Lehenengoei dagokienez, badakigu existitu zirela eta García de Cortázarrek xi. mendeko gizarte-maila hau deskribatzean adierazitakoa baino egoera okerragoa zutela; Alfontso XI.ak 1332an Arabako probintziak ematen zuenaren truk Arriagako ermandadeko kofradeei eskainitako pribilejioei esker dakigu hori<sup>21</sup>, urte horretan Arabako jaunek morroiak euren lurretan geratzea nahi baitzuten: «e si por aventura los collazos desampararen las casas ó los solares á sus señores, que les puedan tomar los cuerpos oquier que los fallaren, é que les entren las heredades que ovieren»<sup>22</sup>. Gainera, koilazo horiek aldatu, saldu eta erosi

<sup>17</sup> Iturriza, J. R., *op. cit.*, I. libk., 139-140. orr.

<sup>18</sup> G. de Cortázar, J. A., *op. cit.*, 304. or.

<sup>19</sup> G. de Cortázar, J. A., *El dominio del Monasterio de San Millán de la Cogolla*, Salamanca, 1969, 226-230. orr.

<sup>20</sup> *Ibidem*, 106. or.

<sup>21</sup> *Ibidem*, 226-227. orr.

<sup>22</sup> *Diccionario R. A. H.*, I. libk., 486-491. orr.

egin zitezkeen<sup>23</sup>, baina legearen ikuspuntutik erregearen mende zeuden, Alfontso XI.aren esku baitzeuden euren gaineko «errege-jaurgo eta justizia»<sup>24</sup>.

*Kapareen lurretan bizi ziren laborariak* osatzen zuten beste talde bat. Nobleek data horretan bertan honakoa eskatu zioten erregeari: «que los labradores que moraran en los suelos de los fijosdalgo que sean suyos, según que lo fueron fasta aquí»; erregeak onartu egin zien eskaera eta honako eskubidea eman zien: «que los fijosdalgo de Alava ayan en los omes que moraren en los suelos aquel derecho que solian é deber auer; pero que retenía en ellos el semoyo, e el buey de marzo, é el señorío real, é la justicia» ... «e otorgamos que los fijosdalgo ayan las caloñas e los omeclellos cada uno de ellos de los collazos, é de los omes que moraren en los sus suelos, segunt que lo solian é deben aver»<sup>25</sup>.

Hau da, Araban bi talde zeuden, koilazoak eta laborariak; azkenekoen egoera ez da lehenengoena bezain argia, baina, beharbada, ez zen horren zorrotza izango, 1332an Arabako ermandadeko kofradeek eta Gasteizko kontzejuak sinatu zuten hitzarmena kontuan hartzen badugu; bi taldeen arteko aldea leku batetik bestera mugitzeko eskubidean zegoen, honakoa hitzartu baitzen: «si algún labrador de Alava viniese á morar á Vitoria ó á sus aldeas dexando á so señor, que so señor ó otro cualquier confrade que le puede entrar la heredad», hau da, bere jaunaren lurretatik alde egin dezakete, baina lurra galduko dute<sup>26</sup>.

Bizkaia eta Gipuzkoari dagokienez, egoera nahiko antzekoa zen. Badakigu Gatzagan, 1087. urtean, koilazoak zeudela eta bi mende geroago, 1304an hain zuzen ere, Elduan eta Bleotegin ere bai<sup>27</sup>. Hala ere, orokorrean, nekazariak laborari izendatzen zituzten, euren egoera zein zen kontuan izan gabe, baina eskatzen zitzaizkien zergengatik koilazoak zirela uste dut, nahiz eta, horietako batzuk, aurrerago ikusiko dugunez, juridikoki jaunaren auzitegien mende zeuden. Laborari horiek ere erosi eta saldu egiten zituzten; hala, bada, Juan Sanchezek, Bizkaiko jaunaren seme-alaba ziren don Simon eta doña Aldonzari Santurtziko hamabi laborari eta Ysecako beste hiru erosi zizkien<sup>28</sup>; beste batzuetan, zerbitzuen ordainetan ematen zituzten; esate baterako, Lope Garcia de Salazarrek, Aiarako jaunaren ordezkari edo «cabezalero» izateagatik Orozko eta Bediako laborariak

---

<sup>23</sup> *Ibidem*, I. libk., 475-485. orr.: «Privilegio del Rey D. Alonso XI confirmando la sentencia arbitral que inserta, dada por Juan Martinez, sobre las diferencias que tenian los cofrades de la hermandad de Alava y el concejo de Vitoria. En Valladolid à 22 de febrero de la era 1370, año de 1332.»

<sup>24</sup> *Ibidem*, I. libk., 486-491. orr.: «Privilegio del Rey D. Alonso XI en razon de la entrega que los cofrades de la hermandad de Arriaga le hacian de la provincia de Alava, baxo los pactos que se expresan. En Vitoria à 2 de abril era 1370, año de 1332.»

<sup>25</sup> *Ibidem*, I. libk., 487. or.

<sup>26</sup> *Ibidem*, I. libk., 475-485. orr.

<sup>27</sup> Gorosabel, *Diccionario...*, 281. or.; *Diccionario R. A. H.*, I. libk. 164. or.

<sup>28</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 104. or.

jaso zituen<sup>29</sup>. Zenbait kasu ez-ohikotan, dirua baldin bazuten, euren askatasuna eta lurra eros zitzaizkien<sup>30</sup>.

Ez dakigu «laborari» hauek zein betebeharrak zituzten. Daukadan adibide bakarra I. Arocenak argitaratu eta aztertutakoa da<sup>31</sup>. Dokumentuetan «laborari» ziren guztiek Astigarragako lur eta unibertsitatekoen maila bera izango balute, jaunen mende zeuden eta generotan, dirutan eta lanaren bidez zergak ordaintzen zituzten morroi ugari izango genuke. Bizkaian zentsoa ordaintzen zuten kasuan oinarrituta ezin daiteke ideia orokorra eman, hauek ez baitzuten euren lanaren bidez ordaintzen eta ez baitzeuden jaunen justiziaren mende, XIV eta XV. mendeetan behinik behin, baina kontuan izan behar da kasu zehatz honetan erregearen mende zeudela, erregea baitzen euren jauna. Arocenaren arabera, 1382an, Navarra Martinez de Oñaz Murgiako andreak eta Astigarragako lur eta unibertsitateko biztanleek «hitzarmen» bat sinatu zuten eta honako klausulak nabarmentzen dira: Astigarragakoek Murgiako jaunei bederatziko hamar errealeko 500 marabedi ordainduko zituzten eta Murgiako larreetan gizentzen zuten txerri-talde bakoitzeko txerri bat eman beharko zuten, hau da, dirutan eta generotan ordaindu beharko zuten, baina, horretaz gain, euren lanaren bidez ere ordaindu behar zuten: «Astigarragako etxe bakoitzetik bi emakume joango dira Murgiara artatxikia jorratu eta garbitzera eta beste bi gariarekin gauza bera egitera»; idi-pareak zituzten etxeek idi-pare bat eraman beharko zuten jaunen lurra lantzeko eta etxeko gizonak, ontziak egiteko erabiltzen ziren habeak, hesolak eta arbaztak garraiatzen lagundu behar zuten. Nobleek beren basoetako zura edo herribasoetatik lapurtutakoa komertzializatzen zutela frogatzen digu horrek; horregatik, Astigarragako nekazariak debekatuta zuten haritz eta pagoak botatzea eta egur hori aprobetxatzea; euren etxeak egiteko edo konpontzeko erabil zezaketzen soilik. Eta laborariak jaunen auzitegiaren mende zeuden gainera: «Astigarragako auzotarren artean liskarren bat sortuko balitz, Murgiako jaunak konpontzeko erantzukizuna izango du. Baina honek lortzen ez badu, Aiztondoko alkate nagusiaren jurisdikziora bidaliko ditu, haren eskumenean baitago lurra»<sup>32</sup>. Baina, hala ere, jaunen justiziaren mende zeuden, Aiztondoko alkatetzaren nagusia beste noble baten esku baitzegoen<sup>33</sup>. Horren

---

<sup>29</sup> *Ibidem*, 116. or.

<sup>30</sup> Urquijo de, J., *Refranero vasco. Los refranes y sentencias de 1596*. Donostia, 1967, II. libk., 155 eta 156. orr.

<sup>31</sup> *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, año XI*: «Un caso excepcional en el panorama social de Guipúzcoa: el Señorío de Murguía», eranskina; eta *Los Banderizos Vascos*, 10, 11 eta 12. orr.

<sup>32</sup> *Ibidem*, 10-11. orr.

<sup>33</sup> Alkatetzaren nagusiak: «Con este nombre se conocieron en tiempos anteriores ciertos distritos municipales compuestos de diferentes aldeas subordinadas a una jurisdicción común. Ejercíase ésta, así en lo civil como en lo criminal, por algún caballero a quien el rey hacía esta merced para durante su vida con título de “Alcalde Mayor”.» Gorosabel, P., *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*. Bilbo, 1967, I. libk., 470. or.

truk, jaunak, bere ganadua Astigarragako larreetara ez bidaltzeko, Ergobiako pasabidean bidesaririk ez kobratzeko, bere lurretara lanera joaten zirenean jaten eta edaten emateko eta, «bere arbasoek egin izan zuten bezalaxe», babestu eta defendatzeko konpromisoa hartzen zuen<sup>34</sup>.

«Kontratu» hori salbuespena al da? Ez dirudi hala denik, izan ere «honelako asko egon ziren, 1447ko udal-legeak gauza arrunta bailiran mintzatzen baitira hauetaz»<sup>35</sup>. Egoera hori arrunta zen ala ez eta «laborari» guztiek baldintza berberak zituzten ala ez alde batera utzirik, dokumentu honek jaurgo errejimen tipikoa zegoela frogatzen du eta XIV eta XV. mendeetan, ziurrenik, larriagotu egin zela.

Nekazari askeak ba al zeuden? Bai, noski. *Bienandanzas e Fortunas* lanaren arabera, Avellanedako biztanleak honelakoak ziren: «omes llanos e quitos de pecho ca en aquel lugar ... nunca ovo onbre labrador»; baina ziurrenik kapareen azkeneko maila izango ziren eta garai gatazkatsu haietan tregoak egingo zituzten jaunekin eta jaun indartsuenen zerbitzura jarriko ziren, haien babespean bandoetan parte hartzeko<sup>36</sup>.

Nekazaritza eta abeltzaintzatik bizitzeko behar zutena baino gehiago produzitzen hasi zirenean eta, demografi hazkundera egon arren, soberakina eta metaketa sortzen hasi zirenean, biztanle batzuk beste lanbide batzuetan espezializatzen hasi ziren. Lanaren banaketa hori, lurretik bakarrik bizitzea ezinezkoa zelako ere gertatu zen eta, era berean, lurraldearen kokapen geografikoagatik ere bai, artilea esportatzen zuen Iberiar mesetaren eta kanpoko merkatuen artean baitzegoen. Artisauak, olagizonak eta merkatariak hirietan bildu ziren eta sistema zaharrari kontrajarritako eta, era berean, sistema zaharraren zati zen elementu berri bat osatu zuten. Burdin fabrikatzaileek eta merkatariek, baina azken horiek bereziki, gero eta garrantzi handiagoa zuten: merkataritzako ekonomia berriak, ekonomia feudalarekin lotuta sortu bazen ere, bere interesak ezartzea lortu zuen poliki-poliki.

Merkatariek jatorri desberdinak zituzten: juduak eta Burgoskoak<sup>37</sup>, baina batzuk «omes comunes» ere bai, Bilbora bizitzera joandako jaunaren petxariak: «ganaron como mercaderes e buenos, e onrados mucha hacienda»<sup>38</sup>. Hasieran, gaztelauen eta atzerritarren zerbitzura zeuden garraiolarietako batzuk —«marinelak»— merkataria egin ziren. Une horretan, aberatsek batez ere, lurrak erosi zituzten eta jaun bihurtu ziren; gizartean sortu ziren gatazketan parte hartu zuten, Europa osoan bezala. Bilboko familia nagusiak —Basurto, Leguizamon, Arbolancha, Zurbaran, Bilbao la

<sup>34</sup> Arocena, I., *op. cit.*, 12. or.

<sup>35</sup> *Ibidem*, 10. or.

<sup>36</sup> *Ibidem*, 10. or. García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 50. or.

<sup>37</sup> Burgoskoek izan zuten garrantzia eta Bilborekin izan zuten harremana, batzuetan gatazkatsua, aztertzeko, ikusi Basas Fernández, M., *El consulado de Burgos*. Madril, 1963.

<sup>38</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 82 eta 84. orr.

Vieja eta Salinas— «se fisieron de mercaderes»<sup>39</sup>. Jaun berri hauek noble zaharrei aurre egin zieten eta aginte-karguak lortzeko borrokatu ziren; era berean, merkataritzan parte hartzen jarraitu zuten eta Lekeition, adibidez, «desde antigüedad fue a mando e ordenança del solar e linaje de Yarça e levantose con[tra] ellos Martjn Peres Licona que era un mercadero rico, e allegó parentela»<sup>40</sup>.

Foruetako zenbait lege merkatarien kontra zegoen, olagizonei dirua aurreratzea —ez dugu ahaztu behar gehienetan burdinolen nagusiak nobleak zirela— eta produktua aldez aurretik erostea debekatu baitzitzaien. 1332an euren kontra hartu zuten hainbat erabaki Arabako kofradiako jaunek eta Gasteizko kontzejuak, eta bertako biztanleei maileguak egitea debekatu zitzaien, berorien bitartez tokiak eta lurrak erosten baitzituzten<sup>41</sup>. Berrogeita bost herrixka zeuden auzitan eta, lau izan ezik, beste guztiak, Gasteizko kontzejuaren mendera igaro ziren eta burgesek eman zuten arrazoia honakoa izan zen: «porque las *compramos* é ganamos así como debíamos»<sup>42</sup>. Sistema berbera erabiliz, Bilboko merkataria aberatsek xv. mendearen bukaeran inguruko elizateetako lurrak eta baserriak erosi zituzten eta bertan etxeak eraiki eta bestelakoak ezarri zituzten, hots, «etxeak, mahastiak, sagastiak eta bestelako produktuak [ezarri dituzte] soro haietan eta hiribilduko eskaera-liburuan eta auzotar-eroldan jarri dituzte, euren ardo, sagardo eta uztak bertan sartu, upelaratu eta saldu ahal izateko»<sup>43</sup>. Lurrean inbertitzen zuten, baina etekina lortu nahi zuten eta ez errenta bakarrik; hala ere, gogoratu behar da abendu hasieratik maiatzaren erdialdera arte salmenta-monopolioaren laguntza izan zutela<sup>44</sup>. Lur-jabe eta merkatarien artean ez zegoen erabateko antagonismorik eta, era berean, ez dugu pentsatu behar jaunak ez zirela merkataritzan sartu: Artzentalesko leinu edo familien artean borroka piztu zuen arrazoietakoa bat, Diego de Traslaviñak Santa Cruzenak ziren eta burdinaz zamatuta zeramatzaten mando batzuk lapurtzea izan zen<sup>45</sup>.

Hiribildu nagusietan, merkatariekin batera nekazariak, artisauak eta noble batzuk bizi ziren. Batzuk kapareen edo ahaide nagusien ondorengoak ziren; beste batzuk, zentsoa ordaintzen zuten laborarien edo ihes egindako koilazoen ondorengoak ziren. Legeari zegokionez, denak zeuden erregearen mende eta Gaztelako legeak agintzen zuen eta ez Foruak.

Merkataritza eta Koroarekin harreman handia zuten juduek; hauen jarduera nagusiak merkataritzako salerosketak, zergen kobrantzak eta

---

<sup>39</sup> *Ibidem*, 82. or.

<sup>40</sup> *Ibidem*, 189. or.

<sup>41</sup> *Diccionario R. A. H.*, I. libk., 475-485. orr.

<sup>42</sup> *Ibidem*, I. libk., 478. or., letra etzanak gureak dira.

<sup>43</sup> García de Cortázar, J. A., *Vizcaya en el siglo xv*, 79. or., 130. oharra.

<sup>44</sup> *Ibidem*, 101. or.

<sup>45</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 374. or.



maileguak ziren<sup>46</sup>. Euskal Herriko merkataritza-gune nagusietan kokatuta zeuden —Gasteiz eta Balmaseda—, eta aljama garrantzitsuak zituzten bertan<sup>47</sup>; israeldarrak ere baziren Mendozan eta Biasteriko ermandadean<sup>48</sup>; Bilbon judutegirik ez zuten arren, badakigu bazirela eta merkataritzako jardueretan toki garrantzitsua zutela, Medina de Pomar hiriko bi merkataritza-judutarrek Errege-Erregina Katolikoei adierazitako kexuaz fidatzen bagara behintzat<sup>49</sup>. xv. mendearen bukaeran Euskal Herritik bota zituzten, Espainiako gainontzeko tokietatik bezalaxe, baina badirudi zenbait lekutan geratu zirela fede-aldaketari esker<sup>50</sup>.

Ikuspegi labur honekin amaitzeko Eliza falta zaigu. 1332an, Araban, Arriagako ermandadeko jaunen artean klerikoak sartu ziren. Hori egia da goi-kleroaren kasuan, herrialdeko familia garrantzitsuenetako kide baitziren, eta Bizkaia eta Gipuzkoan apaizak ere sartu ziren, eliza batzuen patronatuak jaunen esku baitzeuden eta jaun horiek izendatzen zituzten kargu hori beteko zuten pertsonak; behe-nobleziako bigarren semeek lortu nahi izaten zuten kargu hori. Hainbat kasutan izan ezik, apaizak ez ziren hamarrenen onurez gozatzen zutenak eta, beraz, Euskal Herriko kleroak ez zuen Gaztelako Elizak zuen boterea, baina goi-nobleziarekin harreman estua zuen, kostaldeko bi probintzietan batez ere.

## Bando-gerrak

x. mendetik 1250-1300 arte Europak hazkunde-etapa luzea izan zuen; azkeneko urteetan gainpopulazio erlatiboa adierazten zuten seinaleak agertu ziren eta Erdi Aroko gizartea ahalmen ekonomiko-sozialen mailarik gorenera iristen ari zela adierazten du horrek. 1300-1315etik 1370 bitarteko urteen ezaugarri nagusia krisialdia izan zen, gosete eta izurriekin batera; horrek guztiak atzerakada luzea ekarri zuen eta gerrek krisialdia areagotu zuten<sup>51</sup>. Dubyren arabera, «jaurgoen ahultzearen ondorioz, xiv. mendeko

---

<sup>46</sup> G. de Cortázar, J. A., *op. cit.*, 299. or., 7. oharra; Labayru, E., *op. cit.*, III. libk., 248. or.

<sup>47</sup> Rodríguez Herrero, *Valmaseda en el siglo xv y la aljama de judíos*. Bilbo, 1947, 13 eta 14. orr.

<sup>48</sup> *Diccionario R. A. H.*, I. libk., 51. or.

<sup>49</sup> González, T., *Colección de Cédulas*, Madril, 1829, I. libk.; eta Labayru, *op. cit.*, III. libk., 283-284. orr.

<sup>50</sup> «Estos escribanos eran nuevos convertidos, digo nietos de personas q se bautizaron quando los Reyes católicos mandaron salir despaña a todos los judíos, y sus abuelos siendo viejos, por no dexar su tierra, se conbirtieron.» Enciso, E., *Un noticiario del siglo xvi*, «Sancho el Sabio» buletinaren separata, XI. urtea, XI. libk., 1967, 11. or. Testua 1568. urtekoa da eta Arabako Errioxako Lantziego herriari dagokio. Garai berean, kristaututako artisau zahar bat bota zuten Bilbotik eta, Foruak bidaltzeko agindu arren, batzuk geratu egin zirela frogatzen du horrek.

<sup>51</sup> Vilar, P., *La Catalogne dans l'Espagne moderne*. Paris, 1962, I. libk. «La guerre sort des crises avant de les porter à leur apogée», 500. or.

atzeraldia batez ere nekazaritzaren inguruan sortu zela pentsatzea zuzena da»<sup>52</sup>. Alearen prezioaren beherakadak, nekazarien eskaerek (orain, demografiaren beherakadaren ondorioz, lur gehiago zegoen eta egoera hobea zuten), gerra dinastikoez nahiz barnealdekoek sortutako suntsipenek eta zergen gorakadek ere eragin negatiboa izan zuten hauengan. Horren guztiaren ondorioz, lur-jabeek laborarien ordainarazpenak gehitu zituzten eta aspal-ditik ordaintzen ez ziren zergak berrezarri zituzten, hau da, beren mende zeudenen egoera gogortu zuten. Lurra lantzeagatik ordaintzen zutenen egoerak okerrera egin zuen eta lanekuaren eskaera eskaintza baino handiagoa zen; egoera horren ondorioz jaun eta laborarien artean borroka bortitzak sortu ziren. Nekazarien mugimenduaren jatorria, «1325 inguruan kokatu behar da, jaunek, nekazaritza-produktuen merkatuaren narriaduraren kontra egiteko euren eskaerak biderkatu zituztenean»<sup>53</sup>. Dena dela, denek ez zuten modu berean erantzun: nekazari dirudunek mendekotasuna eta lan-zerbitzuak deuseztu nahi zituzten; pobreenek gehiago nahi zuten, gizartearen erreforma lortu nahi zuten, jaun eta apaizei ondasunak kendu nahi zizkieten eta horretarako borrokatzen ziren. Bi joera horien arteko aurkakotasunaren erruz, «mugimendu honek oso azkar egin zuen porrot»<sup>54</sup>.

Iberiar penintsulan ere bizi izan ziren tentsio horiek, baina ezaugarri berezi batzuk kontuan izan behar dira lirategi, batez ere Birkonkista garai-koak; halaxe egin dute C. Sánchez Albornoz-ek eta P. Vilar-ek. Hala ere, atzeraldian ere gizarte-gatazkak egon ziren. Izaera politikoa eman nahi izan zitzaizen istilu hauei: nobleziaren zati baten eta Koroaren arteko borroka. Ehun Urteko gerraren garai berean Gaztelan antagonismo ugari sortu zen eta, historia tradizionalaren arabera, protagonista nagusiak erregea, erregegaia eta lehenengoaren nahiz bigarrenaren alde jarritako noblezia izan ziren. Prozesuan zehar, aristokrazia zaharraren zati bat —Joan II.aren aurka zeuden infanteak, adibidez— indargabe utzi zuten eta ondasun asko kendu zituzten —Majanoko treguak—; aldi berean, noblezia berri bat sortu zen. Ondasun gehienak indarrez edo behin-behineko hitzarmenen bitartez lortu zituzten: halaxe gertatu zen Enrike II.aren emariekin. Euskal Herriari dagokionez, jaunek zituzten ondasunen zati bat garai honetan bertan osatu edo finkatu zen: Juan Alonso de Mujicari buruz honakoa idatzi zen: «ganó en el tiempo del rey don Pedro todas las Rentas que son en el dicho solar de Mugica»<sup>55</sup>; Martin Ruiz de Arteagari buruz: «privó... con el Rey don Enrique tercero, ganó todas las rentas quel dicho solar de Arteaga ha»<sup>56</sup>; Urquizuren etxeari buruz: «ganó en el tiempo de la muerte del

---

<sup>52</sup> Duby, G., *Economía rural y vida campesina en el occidente medieval*. Bartzelona, 1968, 406. or.

<sup>53</sup> *Ibidem*, 434. or.

<sup>54</sup> *Ibidem*, 435. or., eta Vilar, P., *op. cit.*, I. libk., 449. or.

<sup>55</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 91. or.

<sup>56</sup> *Ibidem*, 91-92. orr.

conde don Tello [Pedro Krudelaren sasiaia] todas las rentas mas prouechosas que son en el solar de Urquiçu, e ganó a Villa Real»<sup>57</sup>.

Historia tradizionalak esaten ez duena hauxe da: erregeek eta erregegaiek egin zituzten emari eta mesedeetako asko, lehenago nekazariei egingako usurpazioen aitortpena baino ez ziren izan<sup>58</sup>. Gatazka politikoen atzean klasearteko borroka isil baina bortitz eta gogorra zegoen; jaunak zergak eta zerbitzuak gehitzen saiatu ziren —tradizioak eta foru partikularrek ezarritakoak baino marabedi gehiago kobratu nahi zituzten eta erregearen mende zeuden lurra jaunaren mende jarri nahi zituzten— eta jaunaren eta maila desberdinetako laborarien artean sortu zen borroka.

Jaunek egindako usurpazioetako askok eragina izan zuten botere judicialaren baitan: «Con motivo de las guerras que hubo entre don Juan II [1406-1454] de Castilla y el rey de Navarra, Pedro Velasco hizo una entrada en el reino de Navarra y quemó la villa de San Vicente y sus aldeas, excepto Avalos: entonces le dió el rey de Castilla el señorío de la villa de Haro con título de conde; sin embargo, de que el mismo rey había ofrecido no enagenar esta villa»<sup>59</sup>; Leinzko harana, Beltran de Guevara Oñatiko jaunaren esku geratu zen, «con la jurisdicción civil y criminal»; Enrike II.ak eman zion 1374an «en premio de su fidelidad y servicios»<sup>60</sup>, eta Legutio, Abendañoko Juan de San Juanen esku geratu zen, Enrike IV.ak eman baitzion Toroko Gorteetan (1471)<sup>61</sup>. Beste kasu batzuetan jaunaren saiakuntzek porrot egin zuten eta badirudi Arrasaten horixe gertatu zela 1374an, Enrike II.aren agintaldian: «fue siempre realenga a pesar de las solicitudes de algunos caballeros para adquirir su señorío»<sup>62</sup>. Haatik, 1353an hiribildutik hurbil zeuden zazpi herrik hiribilduaren jurisdikziopean sartu behar izan zuten jaunaren ekintzen ondorioz: «[los] moradores en las dhas Aldeas e lugares ... a pro e mejoramiento de vos e de cada uno de nos e de nras haciendas e de nros bienes e porque vivimos de servidumbre [irakurtezina] e muy desaguisada con los males e dapnos e furtos e robos

---

<sup>57</sup> *Ibidem*, 92. or. «Marroquines» delakoek, Diego López Onbera Bizkaiko jaunari Navas de Tolosan emandako laguntzari esker osatu zuten euren ondasuna (101. or.). Lope García de Salazarrek, ehun eta hoge seme-alaba izan zituenak eta Aiarako jaunaren ordezkari edo «cabezalero» zenak, honako ondasunak zituen: «ovo del por esta cauçaleria el solar de Aranguti e los labradores de Orosco, e de Bedia, e otros eredamjentos», 116. or. Gaztelan gertatutako fenomeno bera gertatu zen, zalantzarik gabe; ikusi Moxó, Savador, «De la nobleza vieja a la nobleza nueva», *Cuadernos de Historia*, Madril, 1969, 202-205. orr.

<sup>58</sup> Cabrilla, Nicolás, «Salamanca en el siglo xv: Nobles y campesinos», *Cuadernos de historia*. Madril, 1969, 255-295. orr.

<sup>59</sup> *Diccionario geográfico-histórico de España por la R. A. H.*, II. atala, Errioxa edo Logroñoko probintzia osoa hartzen du eta Burgosko herri batzuk ere bai. Govantes, D. Angel Casimiro, Madril, 1864, 84. or.

<sup>60</sup> *Diccionario R. A. H.*, I. libk., 431-432. orr.

<sup>61</sup> Rodríguez Ferrer, M., *Las Vascongadas...* Madril, 1873, 224. or., 1. oharra.

<sup>62</sup> *Ibidem*, II. libk., 29. or.

e fuerzas e desaguisados que recibimos de los ricos-omes e cavalleros e escuderos poderosos que viven y moran en dha tierra y en la comarca por salvar e defender de los dhos robos ... conocemos e otorgamos que entramos por vos en la dha V. de Mondragon ... que pechemos con vos en todos los pechos e derechos e pedidos del rey ... En q<sup>to</sup> los montes bravos y exidos y otros montes comunes del Rey que los ayamos y nos aprovechemos de ellos en su servicio en uno comunmente e que nos defendades y acotedes con la voz del dho S<sup>or</sup> Rey...»<sup>63</sup>.

Emari horien atzean dauden gizarte-gatazken froga nagusiak nekazarien altxamenduak dira: 1423an, Leinzko jaurerrikoak —gorago esan dugu 1374. urtean Oñatiko jaunaren esku geratu zirela— jaunaren ahultasuna aprobeztatuz, altxatu egin ziren; Ayala, Mujika eta Salazar jaunengana jo behar izan zuen eta haranean etxe asko erre ondoren, bereziki gizon batena —«Estivarris de Galerça, que era causador de aquel fecho»—, eta haranean lapurretak egin ondoren lortu zuen garaipena: «quedaron sojuzgados a su mesura»<sup>64</sup>. Urte berean Arrasateko kontzejua altxatu zen Oñatiko jaunaren aurka —altxamenduaren arrazoia ez da inon ageri—, eta gotorleku bat eta burdinola eta errota batzuk erre zizkieten, nahiz eta gero garaituak izan ziren, eta «fiso gelas faser tales e mexores e pagaron muchas costas»<sup>65</sup>.

Jurisdikzio-aldaketa nekazariarentzat oso kaltegarria ez zela pentsa daiteke. Ideia okerra da hori, izan ere, kontzeju edo haraneko alkatea eta ofizialak hautatzeko aukera galtzen baitzuten; Azkoitiko hiribilduak, adibidez, kargu horiek jaunek aukeratzen zituztela zioen: «de su mano e mando por usar de dos varas e dos oficios, asi de la fuerza como de justicia, como mal de pecado muchos vecinos de esta villa estan despojados aun hoy dia de sus posesiones, por virtud de sentencias e mandamientos que so color de justicia fazian dar e pronunciar a los tales Alcaldes sin llamados ni oidos e a otros moviendo pleitos e discordias por manera que perdian todo o lo mas de lo que tenian en los tales pleitos e otros algunos por temor de perder sus faziendas, venian a fazer lo que ellos querian por grave que fuese la causa e en la via de fuerza mandando e apremiando que fuesen en pos dellos e sin ellos en bandos, e linajes, e asonadas a quemar Villas e casas e ferrerías e a derribar torres e a los que non querian fazer su mandado, amenazando e injuriando e descalabrando e sacandolos de sus casas e faziendo otras muchas fuerzas e males e daños»<sup>66</sup>. Hori irakurri ondoren erraz uler daiteke, bandokideen borroketan, zenbait hiribildu noble-talde baten zein bestearen alde jartzea. Beste adibide honek justiziaren agintea

---

<sup>63</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, XXXIII. alea, Arrasaten, orri solteak.

<sup>64</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 259. or.

<sup>65</sup> *Ibidem*, 259 eta 260. orr.

<sup>66</sup> Echegaray, C., *Compendio...*, 126. or

nekazariak ezer gabe uzteko eta berriro ere jaunen lurretara itzultzeko erabili zutela azaltzen du: «E mientras así fueron los dichos señores del dicho solar de Lazcano alcaldes de la dicha alcaldía [Arieriakoa, Gipuzkoan], siempre sojuzgaron e sometieron a los dichos mis vasallos, vecinos e moradores que e sony de la dicha alcaldía les tuvieron tanto apremiados e sojuzgados como [si] sus propios vasallos solariegos fueran, cohechándolos a los que querían, e facianles otros muchos excesos, e agravios, e sin razones, de manera que por ellos fueron tanto opresos e subjuzgados, que ovieron de venir e vinieron a su mandar por fuerza e contra su voluntad»<sup>67</sup>.

Era berean, nobleak herri-lur batzuez jabetu ziren, batez ere mendiez; zentsoa ordaintzen zuten laborariak kexu ziren: «por ellos ser hombres bajos e de poca maña, algunos caballeros del dicho nuestro Condado e Señorío de Vizcaya, e otras personas del dicho Condado, por fuerza e contra su voluntas les entraron e tomaron e ocuparon los dichos montes, fasiendo e nombrándoles Seles, non lo seyendo e arrojándolos, e apropiándolos para sí, sin nuestra licencia e mandado, e sin causa e título alguno los han tenido e poseído, e tienen e poseen injusta e non debidamente»<sup>68</sup>. 1362an Juan Lopez de Gamboaren kontra epaia eman zen Debako eskumeneko lurraldeak har ez zitzaiz eta bertako biztanleei kalterik egin ez ziezaien<sup>69</sup>. Usurpazio horiek 1488an ere oraindik egiten ziren: Ermuako biztanleek euren kexua adierazi zieten Errege-Erregina Katolikoei: «agora ... que algunas personas poderosas por les hacer dagno dis que los tientan e han intentado e impedido que no corten los vecinos de dicha villa la leña como de antes solían faser»<sup>70</sup>.

Baina nekazariak kentzeaz gain, beste batzuei ere kendu zizkieten ondasunak. 1380an San Benitoren Ordenak Joan I.ari bere kexua adierazi zion eta honakoa izan zen arrazoia: «las depredaciones de que eran víctimas sus casas por parte de los grandes señores, así condes como caballeros y otros, pues se apoderaban de las posesiones de esta Orden y de sus vasallos con el falso título de encomienda que nadie les había dado, ni ellos adquirido, y luego les exigían pechos y tributos». Ziortzako abadeak ere kexu ziren, 1381ean, lurralde hartako ezkutari eta kapare batzuez, «diciendo que son deviseros, é Padrones de la dicha Egleſia... las entraran é tomaran los montes, é vienes, é Seles, é ganados, é frutos de la dicha Egleſia, é los Caseros, é Caserías é Parroquianos della»<sup>71</sup>. 1398an, Gerri-kaizko haraneko burdinoletako jaunek eta Arbatzegi, Ziortza eta Bolibar-ko kontzejuek Ziortzako abatetxearen mendi eta ondasunak eraso zituzten:

---

<sup>67</sup> P. Gorosabel, *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*. Bilbo, 1967, I. libk., 474-475. orr.

<sup>68</sup> González, T., *op. cit.*, I. libk. 88. or.

<sup>69</sup> Echegaray, C., *Investigaciones referentes a Guipúzcoa*. Donostia, 1893, 238. or.

<sup>70</sup> González, T., *op. cit.*, I. libk., 187. or. Gorosabel, P., *Diccionario...* Bilbo, 1971, 90. or.

<sup>71</sup> Iturriza, J. R., *op. cit.*, II. libk. 113-115. orr., eta Labayru, E., *op. cit.*, I. libk. 251. or.

«Algunas personas [horien artean «roanos, fixos dalgos e Labradores» aipatzen direlarik] con codicia deshordenada queriendose enriquecer de los montes e bienes de la Abadía e de ellos con poderío esforzandose de las leyes e privilegios nuevos e otros si por abastecer sus herrerías de carbón y es tentada la dha Abadia... de muchas mañas de pleitos e de contiendas especialmente de los dhos Sres. de las dichas Ferrerías e concejos e pueblos ante dichos»<sup>72</sup>; 1414an ere Ziortzako Kolejialaren eta Gerrikaizko biztanleen artean arazoak zeuden<sup>73</sup>. Izan ere, usurpazioa lehenago hasi zen; 1372an, «Bizkaiko ezkutariak» Amorotoko, Ipazterreko, Gardanteko eta Azumendiako «hamarrena bereganatu zuten»<sup>74</sup>.

Hamarrenak besterentzeko prozesu horrek xv. mendearen amaiera arte iraun zuen. 1450 inguruan «la casa de Butrón... pretendió llevarse parte de los diezmos [de la iglesia de Deusto] y prevalido de su predominio en la tierra; se los llevó por algún tiempo hasta que, impugnando el falso derecho, se dieron cuatro sentencias firmes en favor del cabildo de Deusto y en contra de Butrón»<sup>75</sup>. 1488an, Errege-Erregina Katolikoek, Kalagorriko gotzain-barrutiko abadetza guztietako pertsona eta ondasunei errege-babesa eman behar izan zieten mehatxuetatik babesteko: «las amenazas de los duques del Infantado, Nájera, Plasencia y otros muchos señores de alta calidad, que pretendían poner mano en sus personas y bienes»<sup>76</sup>.

Usurpazio horien erruz eta, aurrerago ikusiko dugunez, Errege-Erregina Katolikoek garaian gertatu zen jaunen aurkako erreakzioaren erruz, xv. mendearen amaieran erregeen patroigopean zeuden elizak eta gero jaunen esku geratu zirenak, hots, «divisera» delakoak izatera pasa zirenak, aztertu ziren<sup>77</sup>.

Hiribildu batzuk sortu zirenean hamarrenak eman zitzaizkien eta, kasu horietan, gatazka leku horietako biztanleen eta inguruko jaunen artean sortu zen. Markinako biztanleen eta Barroeta eta Ugarte etxeetako jaunen artean, adibidez, horixe gertatu zen eta gatazkak, 1417an hasi eta 1455 arte iraun zuen: «en que se hicieron cuatro partes [de los diezmos]: dos se dieron a la villa y las otras dos se repartieron entre Ugarte y Barroeta»<sup>78</sup>.

Hala, bada, jaunen esku geratu ziren hamarrenak, mendiak, lurak eta jurisdikzioak.

Une berean beste prozesu bat garatu zen eta jaunek ezarritako zergak gogortu egin ziren. 1344an Arabako Kontrasta eta Done Bikendi Harana

---

<sup>72</sup> *Liquidación de diezmos y tributos* liburuan, xviii. mendeko kopiaren arabera. Ziortzako Artxiboa, 104, 105 eta 106. orr.

<sup>73</sup> Labayru, *op. cit.*, III. libk., 49. or.

<sup>74</sup> Iturriza, J. R., *op. cit.*, II. libk., 245. or.

<sup>75</sup> Labayru, *op. cit.*, III. libk. 139. or.

<sup>76</sup> Biasteriko San Joan Parrokiako Artxiboa. 1. errejistroa, 37. zenbakia.

<sup>77</sup> G. de Cortázar, J. A., *Vizcaya en el siglo xv*. Bilbo, 1965, 313. or.

<sup>78</sup> Labayru, *op. cit.*, III. libk., 62. or.

errege-hiribilduak hainbat zerga ordaintzetik salbuetsita geratu ziren: «del pecho llamado semoyo y buey de marzo, que pretendía exigirles el prestamero real Lope Sánchez de Gauna, como quiera que no había sido costumbre pagarlo, ni estaban sujetos a este pecho, las demas villas realengas de la comarca»<sup>79</sup>; baina egoera horrek denbora gutxi iraun zuen, Enrike II.ak Kontrasta hiribildua Rui Hernández de Gaunari eman baitzion<sup>80</sup>. Beste batzuetan, «algunos homes fijos dalgo, é otros lecajos que andan por el dicho Señorío de Vizcaya por los caminos, é fuera de los caminos por las casas de los labradores, é de las ferrerías a les demandar, pan é vino, é carne, é otras viandas é dineros para ellos, é amenazandolos, é firriendoles fasta que se lo facen dar, é esto que es manera de robo» (1376)<sup>81</sup>. Gehiegikeria horien ondorioz, erregearen basailu ziren Uribe, Busturia eta Markinako merindadeetako «homes buenos» direlakoak, Lur Zabalean zehar banatuta zeudenak, 1376. urtean elkartu egin ziren hiru hiribildu osatzeko: Larrabetzu, Errigoiti eta Mungia<sup>82</sup>, eta Lumo, Forua, Busturia, Kortezubi, Arteaga, Ibarrangelu, Ereño, Nabarriz, Aulesti, Mendata, Ibarruri eta Muxikako elizateetan eta Ajangizko kontzejuan banatuta zeuden berrehunen bat laborari zentso-ordaintzaile, urte berean, Bizkaiko jauna zen don Joan infantearen aginduz, Gernikako alkatearen mendera pasa ziren<sup>83</sup>. Hiribilduetan auzotuz, laborariak babesari lortu nahi zuten, jaunaren zergetatik ihes egiteko: «[si] algun pariente mayor ... les pusiere mayor demanda de los dichos ocho maravedis que pagan cada año por cada un fuego que ayuden eso mesmo [asimismo] los dichos moradores de la dicha villa a los dichos labradores»<sup>84</sup>.

Baina ez ziren landan eta, beraz, babesik gabe, bizi ziren nekazariak zerga hauek ordaindu behar zituzten bakarrak; Errigoitiko hiribilduko biztanleek, besteren artean, honako abantailak izan zituzten: «que no pagasen la quarta de escanda cada fuego de cada año; nin diesen Sayones, nin bocineros, ni el maravedi del Prestamero de cada año de cada fuego, é otras mercedes que les nos fecimos», baina hiribilduko harresien babesari izan arren, kexu ziren: «agora nuevamente que bos los sobredichos, o alguno de bos que les demandades que bos pechen, é paguen los dichos pechos é tributos é busto, é puerto, é vrcion, é manería, é 24 dineros del Merino, e vna quarta de escanda de cada fuego, é Sayones, é bocineros, é vn maravedi del Prestamero de cada fuego de cada año, é que les prendades, é tomades sus vienes sobre ello sin razon, é sin derecho é contra las dichas

<sup>79</sup> *Diccionario R. A. H.*, II. libk., 357. or.

<sup>80</sup> *Ibidem*, I. libk., 214. or.

<sup>81</sup> Iturriza, J. R., *op. cit.*, II. libk. 128. or.

<sup>82</sup> *Ibidem*, II. libk., 284-285. orr.

<sup>83</sup> *Ibidem*, II. libk., 89. or.

<sup>84</sup> *Ibidem*, II. libk., 266-272. orr. 1402an, Gerrickaizko hiribilduko kontzejuaren eta Arbatzegi eta Bolibarko monasterioetako eliztar edo laborari jatorren artean egindako hitzarmenetik.

mercedes q. les nos fecimos». Bizkaiko prestamero nagusiari, kontzejuei, alkateei, prebosteei, merioei, beste agintaritza batzuei eta ahaide nagusi garrantzitsuenei zuzendu zien idatzi hau don Joan erregeak: Butroeko Gonzalo Gómez, Muxikako Juan Alfonso, Albizko Rui Martínez, Busturiako merindadeko Merio Nagusia, Juan Sánchez de Meceta eta Adan Martin de Yarza eta Bizkaiko beste zaldun Ezkutari batzuei<sup>85</sup>. Jaunek hartu zuten indarra oso handia izan zen, eta Azkoitiko hiribildua menderatzerira iritsi ziren ahaide nagusiek honako ohitura izan zuten: «la costumbre de defender que ninguno fuese osado de casar a sus hijos sin su licencia ni edificase casas ni otros edificios sin su autoridad e mandado e faziendo guisar por la tierra yantares e los recibian como si fuesen sus vasallos, e ellos sus señores naturales»<sup>86</sup>.

Nekazariak zuten babes bakarra ermandadeak sortzea eta ihes egitea zen; «a fin de se sustraer de non pechar nin contribuir en los pedidos e otros pechos reales que les eran repartidos, dejaban los solares e casas propias pecheras que tenían y se iban a vivir a tierras de infanzonazgo, donde dis que facían chozas e casas en que vivir e estaban»<sup>87</sup>. Hori zen behartsuenek zuten aukera bakarra eta zergak ordaindu ezin zituztenez, «vendían e empeñaban sus haciendas e heredades pecheras a homes poderosos e hijos dalgo»<sup>88</sup>; horrela, gelditzen zirenen zergak gora egiten zuten, ihes egindakoez ordaindu behar zuten kuota gehitzen baitzitzairen. Hauek inguru hartan lapurretan egiten zuten eta ahaide nagusiek nolabait babesten zituzten lapur-taldeak eta iheslari-taldeak osatuko zituzten.

Merkatariek ere jasan zituzten jaunek ezarritako zergen igoerak eta lapurretak. Lope Garcia de Salazarrek, bere semeek eta Portugaleteko bi auzotarrek, 1455ean, Bilbora zihoazen ontziak gelditzen zituzten Portugaleten eta zergak ordaintzera behartzen zituzten<sup>89</sup>. Urte batzuk lehenago, 1442an, Salazar leinuko bandokoez salmentak eta birsalmentak egiten zituzten Barakaldon, Bilbok zuen monopolioa errespetatu gabe<sup>90</sup>. Garai berrean (1449), giroan somatzen zen urduritasunagatik eta merkatariek, mandazainek eta bestelako ibiltariak barnealdera abiatzen zirenean izaten zituzten arazoengatik kexu azaldu zen hiribildu hori eta honakoa adierazi zuten: «los robados, en atención a que las causas promovidas se dilataban, no se atrevían a querellarse y a denunciar»<sup>91</sup>.

---

<sup>85</sup> *Ibidem*, II. libk., 138-140. orr. 1464ko Errege Zedulan Trebiñoko kondeari eta Bizkaiko ahaide nagusiei Bermeon, Lekeition eta eskualde horietako elizateetan zergak banatzea («echar repartimientos») debekatu zitzairen (Lekeitioko Udal Artxiboa).

<sup>86</sup> Echegaray, C., *Compendio...*, 126-131. orr.

<sup>87</sup> González, T., *op. cit.* I. libk. 74. or.

<sup>88</sup> *Ibidem*, I. libk., 74. or.

<sup>89</sup> Labayru, E., *op. cit.*, III. libk. 23. or.

<sup>90</sup> *Ibidem*, III. libk., 116. or.

<sup>91</sup> *Ibidem*, III. libk., 136. or.



Baina ez ziren jaun edo lur-jabeak lapurretak egiten zituzten bakarrak. Beheraldi ekonomikoa jasan duten beste garai batzuetan bezalaxe, kalte-tuen gertatu ziren nekazari batzuk lapurretan hasi ziren. Hiribilduek, merkatariek eta laborariek ere lapur hauekin izan zuten jarrera oso gogorra izan zen. Nahikoa da Ermandadeko koadernoetan hauei buruzko ataletan jartzen duena irakurtzea. Iheslariak, gaizkileak, moneta faltsuak egiten zituztenak, harrapatu bezain laster zigortzen zituzten<sup>92</sup>. Baina ezin dugu ahaztu lapur askok bandokideen babesa zutela, batzuetan oso argia eta beste batzuetan ezkutuagoa. Lapurrak ere zenbait kasutan elkartu egin ziren eta zonak banatu zituzten; jaun garrantzitsu baten babesa bilatzen zuten eta babesaren truk harrapakinaren zati bat ematen zioten. Hala, bada, Burgosko eta Bizkaiko hiribilduetako merkatariek erregeari beren kexua adierazi zioten 1469an: «por quanto los rouauan Juan Alonso de Muxica e sus hermanos vastardos por la tierra e por la mar. Pedro de Avendaño e sus hijos bastardos, desde Alaua fasta la mar. Otro si, Lope Furtado de Salcedo, e Ochoa de Murga, e Juan de Salsedo e algunos de sus parientes, e asi mjsmo de Marroquines, rouauan a los mercaderes de Burgos; aunque Lope Furtado no rouaua, pero tomaua la terçia parte de lo que ellos robauan, dando gelo ellos»<sup>93</sup>.

Jaunen eta nekazarien, jaun eta klerikoen eta jaun eta merkatarien artean gatazka hauek gertatzen ari ziren une berean, noble edo jaun artean ere kontraesanak zeuden.

Nobleen arteko liskarrei historia tradizionalak bando-gerrak deitu die: oinaztarrak ganboatarren kontra. Baina, askotan esandakoa baztertuz, bi bando hauek ez ziren txikikeriengatik borrokatu eta euren arteko borroken arrazoiak ez ziren andak eramateko modua, «bozina ospetsua» edo gaztainen lapurreta izan. Euren arteko borroken arrazoiak sakonagoak ziren: Santa Cruz eta Arcentales leinukoak burdinaz zamatutako mando batzuk konfiskatu zizkietelako eta abelburu bat lapurtu zitelako borrokatu ziren<sup>94</sup>, Yarza eta Licona familiak Lekeitioko eskumenarengatik<sup>95</sup>, Juan de Avendaño eta Juan de Mugica «guja de Alvina» delakoagatik<sup>96</sup>; beste batzuk eskribauen izendapenengatik<sup>97</sup>; Alfontso XI.aren semea zen Joan eta Aiarako leinua ondorengo herriengatik: «Edelica, Tartanga, Aloria, Arco-maña y Arvieto que eran del infanzonado de la tierra de Ayala»<sup>98</sup>; Bermeon, «Furtad Sanches de Olavarrieta e Juan Ortis de Arrescurenaga, seyendo

<sup>92</sup> *Ibidem*, III. libk., 136. or.

<sup>93</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 224 eta 225. orr.

<sup>94</sup> *Ibidem*, 375. or.

<sup>95</sup> *Ibidem*, 189. or.

<sup>96</sup> *Ibidem*, 194. or. Labayru, E., *op. cit.*, III. libk., 61-62. orr., «alcaldía de Albia» interpretatu du.

<sup>97</sup> Labayru, E., *op. cit.*, III. libk. 61-62. or.

<sup>98</sup> Zamácola, J. A., *Historia de las naciones Bascas*, Bilbo, 1898, 460. or.

vn linaje e parientes, sobre qual valeria mas al poner de los ofiçios»<sup>99</sup>; «Juan Alonso de Mújica, hijo de Gómez González de Butrón..., heredero del solar de su padre, recobró en este año la tierra y señorío de Aramayona, que Pedro de Abendaño le había usurpado»<sup>100</sup>; Laudioko ezkutari kapareak eta lurralde horretako jauna zen Pedro Ayala mariskala, honek bigarren instantziaren bidez erregearengana jotzea eragozten zuelako ezkutariei<sup>101</sup>.

Arazo ekonomikoak zeuden eta, horrekin batera, birkonkistaren geldialdia, diruaren devaluazioa eta, nekazaritza aztertu dugunean ikusitakoa gogoratu, nekazaritza eta abeltzaintzaren egituran ere aldaketak gertatzen ari ziren eta noble guztiak ez zuten aldaketa horiei egokitzea lortu; baldintza horiek guztiak zituen garai hartan, nekazarietara eta apaizetara egindako lapurretek ez zituzten nobleziaren diru-arazo guztiak konpontzen eta, horretaz gain, nobleen artean ere gatazkak sortzen hasi zirela kontuan izan behar da<sup>102</sup>.

Bi bandoetako zatiketari dagokionez, ez zen erabatekoa izan eta ez zen Euskal Herrian bakarrik gertatu<sup>103</sup>. I. Arocenak ohartarazi digu jaun batzuk bandoz aldatzen zirela<sup>104</sup>; beste batzuetan, goian jarritako adibidean bezalaxe, leinu berberakoak izanik ere, elkarren artean borrokatzen ziren. Caro Barojaren ustez zatiketaren arrazoia honakoa izan daiteke: «hubiera que buscarla en las dos tendencias a que pudo estar inclinada la nobleza alavesa en un tiempo: la castelana, representada por los Mendoza, y la navarra, dirigida por los Guevara»; eta Ignacio Arocenak geografikoki ere desberdintasunak zeudela dio<sup>105</sup>. Aukera horiek baztertu gabe, baina hala-korik esateko froga gutxi dagoela kontuan izanik, beste bi bide hauek ikertu eta sakondu beharko liriateke: bata Galiziako liskarrek iradokitzen dute, behe- eta goi-noblezia aurrez aurre jartzen baititu<sup>106</sup>; beste hipotesia Gaztelako gatazketan —oso gutxi aztertu dira eta batere argiak ez dira— oinarritu daiteke, une batean noblezia zaharra eta berria aurrez aurre jarri baitzituen eta, bestalde, ezin daiteke ahaztu bandokide batzuek beren ondasunak eskuratu eta finkatu zituztela garai ilun horretan.

Nekazariak, hiribilduetako biztanleak eta behe-nobleziako kide batzuk, ahaide nagusiei eta gaizkileei aurre egiteko, elkartu egin ziren eta ermandadeak sortu zituzten. «Aunque se ignora la época de su institución,

<sup>99</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 198. or.

<sup>100</sup> Labayru, E., *op. cit.*, III. libk., 140. or.

<sup>101</sup> González, T., *op. cit.*, I. libk., 387. or.

<sup>102</sup> Kapareen sarreretan diruaren aldaketa eta gorabeherek zuten eragina aztertzeko, García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 428-429. orr.

<sup>103</sup> Cabrillana, Nicolás, *art. cit.*, 256. or.

<sup>104</sup> Arocena, I., *Los banderizos vascos*. Donostia, 1969, 26. or.

<sup>105</sup> Caro Baroja, *Los vascos*, Madril, 1958, 85. or., eta Arocena, I., *op. cit.*, 5-6. orr.

<sup>106</sup> Galiziako gatazken deskripzio paregabea, argia eta laburra irakur daiteke liburu hone-tan: García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 447-449. orr.

consta su existencia en el año 1329 por una orden de doña María Díaz de Haro, Señora de Vizcaya... para que los Alcaldes de la hermandad ejecutasen a los banderizos que fuesen hallados en culpa»<sup>107</sup>. Normalean, ermandadeek, batzuetan erregearen laguntzarekin eta beste batzuetan laguntzarik gabe edo bere aurka, ahaide nagusien aurkako jarrera hartu zuten. 1390ean, «Juan de Sant Juan de Avendaño, e Juan Alonso de Mújica, e Gonzalo Gomes de Butron el viejo, e Martjn Rois de Arteaga, tomaron libramjento en sus tierras del Rey, e ovieron convencion en vno de ayudarse a lo tomar»<sup>108</sup>, eta, horregatik, Bizkaiko ermandadeak beraien aurka altxatu ziren. Ahaide nagusien itunean oinaztarrak eta ganboatarrak elkartuta ageri dira. Bandokideen egoera nahiko larria izango zen: Butroekoen kasuan behintzat «njnguno de la Encartaçión no osaua yr [defenderle] por mjedo de la ermandad»<sup>109</sup>.

1415ean, Bizkaiko ermandadeak Gonzalo Moro korrejidorearen kontra altxatu ziren, itsaso bidez probintziatik garia atera nahi baitzuen, Asturias eta Oviedora eramateko, eta hori foruen aurka zihoan. Ermandadeek estututa, bandokide nagusien laguntza eskatu zuen, Abendaño eta Salazarrena hain zuzen ere<sup>110</sup>; lehenengoari, erregeak hilabete batzuk lehenago kondena moduan jasotako erbesteratzeko zigorra barkatu zion. Ermandadea desegitea lortu zuen eta larre-sari bat jaso zuen ordainetan<sup>111</sup>. 1442an Arabako ermandadeak Pedro López Ayalaren kontra altxatu ziren; Aguraingo jauna eta Gipuzkoako merio nagusia zen eta Agurainen zuen dorre batean inguratu zuten. Inguru hartako jaun nagusiak etorri zitzaizkion laguntzera eta Bizkaitik Lope Garcia de Salazar ere joan zitzaion bere laguntza eskaintzera. Laguntza eskaini ziotenen artean, Pedro Ferrández de Velasco kondea zegoen, «pesandole mucho dello, e mas por [que] algunas comunjdades de sus tierras e comarcas, querian rebullir en fauor de las dichas hermandades»<sup>112</sup>. Jaunek Guerediaga etxea hartu eta erre egin zuten eta Aguraingo inguru guztia suntsitu zuten<sup>113</sup>.

Bandokideen aurkako erasoak 1457. urtean hasi zen eta Enrike IV.ak zuzentzen zituen ermandadeak; Gipuzkoakoak honako hauen kontra altxatu ziren: «contra todos los parientes mayores, no acatando a Ones nj a Gamboa... e fezieronles pagar todos los malefiçios e derribandoles todas las casas fuertes, que vna sola no dexaron en toda la proujnçia», dirudienez, Olaso eta Unzueta etxeak izan ezik, eta erbesteratu egin zituzten<sup>114</sup>.

---

<sup>107</sup> Iturriza, J. R., *op. cit.*, I. libk., 141-142. orr.

<sup>108</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 183-184. orr.

<sup>109</sup> *Ibidem*, 185. or.

<sup>110</sup> *Ibidem*, 194. or.

<sup>111</sup> Labayru, E., *op. cit.*, III. libk., 50. or.

<sup>112</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 260. or. eta *Diccionario R. A. H.*, I. libk., 46. or.

<sup>113</sup> *Ibidem*, 261. or., eta Garibay, baina 1443koa, *apud Diccionario R. A. H.*, I. libk., 46. or.

<sup>114</sup> García de Salazar, Lope, *op. cit.*, 174. or.

Horietako batek, Lope Garcia de Salazarrek, hain zuen ere, hurrengo urtean erbestetik itzuli nahi izan zuenean, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Santanderko ermandadeak bere aurka altxatu ziren, auzi zibilak eta kriminalak jarri zituzten bere aurka eta bere ondasunak hartu zituzten «fasiendole faser muchos gastos»<sup>115</sup>.

Ermandadeak, ahaide nagusien aurkako borroka garaitu eta hauen boterea mugatzen zuten heinean —ez zuten ez Gipuzkoako eta ez eskualdeko Batzar Nagusietan hitz egiteko eta botoa emateko eskubiderik—<sup>116</sup>, lurralde hartan zeuden gaizkileen aurka ere aritu ziren.

Nortzuek osatzen zituzten ermandadeak? Oso datu gutxi dugu beraien gizarte-osaketari buruz. Galizia eta Kataluniari buruz dakigunean oinarrituz, maila desberdinetako nekazariak osatzen zituzten; zentsoa ordaintzen zuten laborariak ere parte hartuko zuten, bandokideek ohiturak ezarritakoak baino zerga gehiago eskatzen baitzizkieten; hiribilduetako biztanleek, merkatariek batez ere, inguru hartan lehenbailehen bakea ezartzea nahi baitzuten, horrela bideetan lasai ibili ahal izateko; eta jaunen mende zeuden laborariak ere osatuko zituzten, nekazari askeekin batera. Horiei guztiei behe-nobleziako kide batzuk gehitu behar zaizkie; azken horiek zeregin garrantzitsua izan zuten, gai militarretan esperientzia eta antolatze gaitasuna ere bazituzten-eta. Behe-nobleziak edo, I. Arocenak diona gogoratzuz, hiriko aristokraziaren sektore batek<sup>117</sup>, agintzen zuen ermandadeetan<sup>118</sup>. Lope Garcia de Salazarrek 1390ean Bizkaiko ermandadeetako buruak hauek zirela adierazten du: «Juan Sanches de Villela e Martjn Ochoa de Laviero, que eran dos omes entendidos... e eran Alcaldes del fuero anbos a dos»<sup>119</sup>. 1415ean, Martin Ortiz de Martierto gobernadore nagusiak eta Busturiako alkateak<sup>120</sup> —badirudi bi zirela eta ermandadeko alkateak ere bazirela— ziren ermandadetako buruak<sup>121</sup>. Araban, 1442an, noble bat zegoen ermandadeetan, Juan Lopes de Lascano, bere ezkutariekin batera<sup>122</sup>. Horregatik, «Ahaide nagusiek Gipuzkoako hiribilduei egindako desafioan, aipatzen diren hogeita hamar kapareen kontra zuzendu zen erronka» eta, kasu batzuetan, ganboatarren leinukoak ziren<sup>123</sup>. Datu horiek guztiek, Euskal Herriko gizarte-gatazkak Galiziakoan antzekoak izan zirela pentsarazten dute: nekazariak, hiribilduak eta kapare ziren batzuk

---

<sup>115</sup> Labayru, E., *op. cit.*, III. libk., 235-236. orr.

<sup>116</sup> *Ibidem*, III. libk., 233, 236 eta 248. orr.

<sup>117</sup> Arocena, I., *op. cit.*, 32. or.

<sup>118</sup> Garcia de Salazar, Lope, *op. cit.*, 184. or.

<sup>119</sup> *Ibidem*, 184. or.

<sup>120</sup> *Ibidem*, 194. or.

<sup>121</sup> Labayru, E., *op. cit.*, III. libk., 50. or., Fr. Diego de Ayala aipatuz, «Apuntes de...», VII. libk., Floranesen bildumako eskuizkribuak.

<sup>122</sup> Garcia de Salazar, Lope, *op. cit.*, 260-261. orr.

<sup>123</sup> Arocena, I., *op. cit.*, 32. or.

goi-nobleziaren aurka. Baina Galizian hitzarmena hautsi egin zen eta laborariek porrot egin zuten eta Euskal Herrian, aldiz, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan, gorabehera larriak jasan arren, azkenean ermandadeek, erabateko garaipena lortu ez bazuten ere, nolabaiteko garaipena lortu zutela esan daiteke.

Errege-Erregina Katolikoan garaipena jaunen porrotean oinarritu zen, zailtzarik gabe; Guadalupeko epaiak (1486) Katalunian, eta oinetxeetan bizi zirenek («solariegos») euren jauna uzteko eskubidea aldarrikatzeak Gaztelan (1481), nobleziaren aurkako indarra zegoela adierazten dute. Baina ahaide nagusiak ez ziren desagertu. Lehenago zuten boterea mugatu egin zen eta, aurrerago ikusiko dugunez, usurpazioaren bidez eskuratutako ondasunak kendu zitzaizkien. Baina hamarrenak eta alkatetza ugari mantendu zituzten.

Jaunen porrotean oinarriturik eta Errege-Erregina Katolikoekin monarkia indartsua sendotzean, jaunen aurkako erreakzio gogorra sortuko da. 1505ean, Arabako Kontrasta hiribilduko jauntza lortu nahi zuen Bernardino de Lazcano kondenatu zuten<sup>124</sup>. Gipuzkoako Gatzaga hiribilduko gatzagak, Enrike II.ak Oñatiko kondeari eman zizkionak eta «con cuyo título extendió su dominio y se llamó señor de Salinas», 1492. urtean Valladolideko Kantzelaritzak emandako epaiaren ondorioz, berriz ere hiribilduaren esku geratu ziren<sup>125</sup>. Leintz bailarako jurisdikzioa, hau ere Enrike II.ak 1374an Oñatiko kondeari emana, Gaztelako Kontseilu Nagusian kontraesan asko izan zituen epaiketaren ondoren, 1501ean Koroari itzuli zitzaion «eta [bailarak] garai bateko askatasuna berreskuratu zuen»<sup>126</sup>. Ochoa de Salazarrek, 1487an, Portugaleten jasotzen zituen prebostetza-eskubideak galdu zituen, aldi baterako behinik behin<sup>127</sup>. «Mugimendu eta gatazken garaian» inorenganatuak izan ziren Dulantzi eta El Burgo hiribilduak, bertako toki eta jauntzarekin batera, Koroaren eskumenera itzuli ziren 1512an<sup>128</sup>. Pedro de Ayalak, Aguraingo kondeak, zenbait iskanbilatan parte hartu zuen eta bere ondasunak kendu zizkioten: «en los alborotos de la guerra civil de las comunidades, se le confiscaron todos sus bienes y posesiones y se declararon realengos... el valle de Cuartango, Llodio, Ayala, Arrastaria, Urcabustaiz, Salvatierra, Morillas, Subijana y Ormijana». Beranduago, Laudio, Aiara, Urkabustaiz eta Arrastaria bailarak itzuli zizkioten, baina Koartango eta Agurain, Morillas, Subilana eta Urbilana hiribilduak ez. Horretaz gain, hiribildu horietako estatu orokorrak, Koartangoko bailarekin batera, «compró al rey el pecho o tributo del semoyo, buey de marzo, servicio real, gallina y carnero por 2.700.600 maravedís»<sup>129</sup>. Beste

<sup>124</sup> *Diccionario R. A. H.*, II. libk., 357. or.

<sup>125</sup> *Ibidem*, II. libk. 283. or.

<sup>126</sup> *Ibidem*, I. libk., 431-432. orr.

<sup>127</sup> González, T., *op. cit.*, I. libk., 151. or.

<sup>128</sup> *Ibidem*, VI. libk., 257-258. orr.

<sup>129</sup> *Diccionario R. A. H.*, II. libk., 37. or.

herri batzuek ez zuten halako zortetik izan, Legutio eta bere inguruko herrixkak adibidez, 1371n bertako jaunaren mende geratu baitziren eta 1678. urtera arte ez zuten askatasuna lortu<sup>130</sup>.

## Heresiak

Ermandadeen eta jaunen arteko liskarrek unerik gogorrena bizi zutenean, heresia bat agertu zen Durangaldean. Zoritxarrez, iturri nagusia, Inki-sizioaren espedienteak, berariaz erre zuten, batzuen ustez Independentziako Gerran eta, beste batzuen ustez, 1828an<sup>131</sup>. Badirudi xv. mendearen bigarren laurdenean Bizkaiko ingurune industrialenean sortu zen baldotarren edo fratixeloen talde bat izan zela; inguru horretan burdinola ugari zegoen eta oihalgintzaren inguruan gremio bat sortu zen eta, beraz, «jende xehea, jornalariak, laborariak, industriariak etab. ziren hauen jarraitzaileak»<sup>132</sup>. Atxilotuetako batzuen edo atxilotuen ezkonlagunen ogibideek egiaztatzen dute sekta artisauen artean garatu zela; 1500. urtean, hamazazpitik hamasei emakumeak ziren eta bat gizona; gizona aitzogintzan aritzen zen, bi emakume, berriz, ehuleak ziren eta beste bi oihalgile baten eta gerrikogile baten emazteak, hurrenez hurren<sup>133</sup>. Fenomeno horrek 1559. urtera arte iraun zuen, urte horretan, eta lehenago ere bai, 1550ean hain zuzen ere, Inki-sizioak esku hartu behar izan baitzuen<sup>134</sup>. Heresia pobreen artean eta, bereziki, artisauen artean garatu zela —egiten zuten aldarrikapenetako bat ondasun-erkidegoa zen— begien bistakoa da. Beraz, mugimendu hori, Erdi Aroaren bukaera aldean Europan sortu ziren korronte heretikoekin erlazionatu beharko litzateke; mugimendu horien zio nagusia «garai hartako zoritxarren erruz edo egitura ekonomiko eta sozialen garapenaren erruz sortutako ondoeza»<sup>135</sup> izan zen. Ezin dugu ahaztu xv. mendean Bizkaiko industria siderurgikoa indartu egin zela, «Verlagssystem» delakoa finkatu zela eta burdinotako ofizialek horren aurka egin zutela.

---

<sup>130</sup> Rodríguez Ferrer, M., *op. cit.*, 224. or., 1. oharra.

<sup>131</sup> Carriazo, Juan de M., *Precursores españoles de la Reforma. Los herejes de Durango (1442-1445)*. Madril, 1925, IV. libk., 46. or. Espainiako Antropologia, Etnografia eta Historiaurreko Elkartea, laugarren urtea.

<sup>132</sup> *Ibidem*, 46. or. Durangoko Udal Artxiboko 1927ko inbentarioaren arabera, 6. legajoan, 4. zenbakian, honakoa beharko luke: «protestas, requerimientos y diligencias que practicó el Teniente prestamero mayor de esta villa con la Justicia y regimiento de ella y su cabildo Ecl.º, suponiendo haber venido a esta villa a refugiarse diferentes sectarios de Fray Alonso de Mella para que se le entregasen con todos sus bienes, es de fecha de 20 de agosto de 1444 y contiene deiciséis hojas». Dokumentuaren ordezkari nork atera zuen jasota dago... Ikusi halaber Otazu, Alfonso, *El «igualitarismo» vasco: mito y realidad*, Donostia, 1973, 99. or., 99. oharra.

<sup>133</sup> Labayru, E., *op. cit.*, III. libk., 112. or.

<sup>134</sup> Zamácola, J. A., *op. cit.*, 462. or. 1. oharra.

<sup>135</sup> Heers, J., *L'occident aux xivème et xvème siècles*. Paris, 1963, 329. or.



## VI

### Noble berriak: XVI eta XVII. mendeak

#### Diruak zakurak ere dantzan jartzen ditu...

Erdi Aroko amaierako gizarte-gatazketatik indartsu atera ziren merkataria; eta hauen indarra handitu egin zen XVI. mendean: burdina, artilea nahiz ontziak ipar Europara esportatzen aritzen zirenek eta, batez ere, Indietarako karreran buru-belarri murgilduta eta batzuetan, familiarekiko loturek bultzatuta, Sevillako Kontratazio-etxeke zamaketari eta ofizialekin lotuta zeudenek, mende honetan beren aberastasunak areagotu egin zituzten. Noblezia ez zen horren ondo atera, lurak oraindik bere esku segitu zuen arren. Hauen bigarren semeak hispaniar burokrazian sartu ziren eta, administrazioan eskuratuko zituzten soldata mamitsuen bidez<sup>1</sup>, beren familiei lagundu zieten. XVI. mendeko pribilegiatuak merkataria eta funtzionarioak izango ziren beraz. Hauxe zion Felipe Ruiz Martínek noble zahar hauei buruz: «ez zuten “modernitateak” ekarri zituen aldaketekin irabazi, baina ez ziren hauek izan gehien galdu zutenak ere». Behe-nobleziaren zati bat, batez ere errentak dirutan jasotzen zituena, prezioek eta soldatek gora egin zutenean, lur jota geratu zen. Nekazaritza soldatapeko langileez landu behar zen lekuetan, Errioxan kasu, soldaten gorakadak lurjabe askori larrialdi eta zailtasun handiak ekarri zizkion, nahiz eta lurjabe hauek udalak beren mende zituzten eta langileen eskaerei mugak jartzen ahalegindu ziren<sup>2</sup>. Jada XVI. mendearen amaieratik eta batez ere XVII.aren hasierako urteetan, aberastu ziren nekazaria edota nekazaritza-guneetara jo eta kaparetasuna lortzen ahalegindu ziren merkataria, Arabako hiribilduetako udaletan<sup>3</sup> ohorezko karguak betetzen zituzten noble haien lekua hartzen

<sup>1</sup> Ruiz Martín, F., «La banca en España hasta 1782», in *El Banco de España*, Madril, 1970, 61. or.

<sup>2</sup> Enciso, E., *Laguardia en el siglo XVI*. Gasteiz, 1955, 157. or.

<sup>3</sup> Biasteri. Auzia. Parrokiako artxiboa.



ahalegindu ziren. Caro Barojak ongi ikusi zuena gogoratu, XVII. mendean noblezia berri bat osatu zela esan daiteke eta halaxe gertatu zen, oro har, Penintsula osoan ere<sup>4</sup>.

Kostaldeko bi probintzietan, gizon hauen guztien jatorria argia da: Amerikako joan-etorrietan aberastutako merkatariaik edota indiano eta atzerritarren senitartekoak ziren<sup>5</sup>. Aberastu berri hauen botereak eta luxuak haserrearazi zituen oraindik udaletako boterea kontrolatzen zuten, baina diru-sarrerak ahituta zituzten leinu zaharretako asko; aldiz, aberats berri hauek, ospe eta luxuaren bidez eta, batzuetan, herriko gertaeretan jarrera zehatz eta argirik hartu gabe jokatu, ingurukoen gain aginduko zuen taldea aberastasunaren arabera berrantolatzen ahalegindu ziren. Bilboko Udaleko Probisioak, 1657koak, tirabira horiek garbi adierazi zituen: «Y hauiendo reconocido que algun Tienpo a esta parte Se hauía Tratado de Yntroducir en esa dha Villa [Bilbo] por diferentes personas della el serbirse las mugeres casadas y las que no lo heran de escuderos Y jentiles Honbres y otros criados quando salían de sus casas y Tambien que otros de los Vecinos de esa dicha Villa trataban de yntroduzir en ella el andar en sillas de manos... Y porque el Introducirse los dichos abusos solo serbían de destruir las familias de esa dicha Villa Y ponerlas en ocasión de que se orijinasen muchos disgustos y descomodidades pues los que por la calidad de su sangre, si se Yntrodujese el dicho abuso hera preciso Vsasen del no se hallarían con comodidades de Hacienda con que lo pudiesen conseguir Y si lo hiciesen otros de Inferior calidad que se hallasen con mas conbeniencias de Hacienda sería exponer a Vnos con otros a continuos disgustos Y enbaraços... porque no hauiendose Jamas en esa dicha Villa la obstentacion y banidad que oi se quería Introduzir quando los tiempos pasados huian sido tan pingues Y los presentes de tanta calamidad se hauían de permitir se huuiesen excesos.» Eta aipatzen dituen gehiegikeria edo abusu horiek debekatu egin zituzten<sup>6</sup>. Nobleziako titulu bat lortuz edota zenbait ezkontzaren bidez desagertaraziko zituzten elkarren arteko desberdintasunak.

Beraz eta laburtuz: aristokraziaren zati baten gainbehera, beste zati baten eta Austriako etxekoen burokrazian sartutako bigarren semeen gaztelaniatzea, zenbait merkatarik nekazaritza-guneetara biltzea eta udaletako karguak betez nobleago izaten ahalegintzea. Hona hemen horren guztiaren adibide bat: Pedro Fernández del Campo y Angulok Mejoradako markes titulua lortu zuen XVII. mendean erdialdetik amaierara bitartean; Bilboko alkate eta Arratiako merindadeko foru-alkate izana zen eta Madrilera joan

---

<sup>4</sup> Braudel, F., *La Méditerranée...* Paris, 1966, II. libk. Gaztela Berriaren kasua aztertzeko, ikusi Salomon, N., *La Campagne de Nouvelle Castille*. Paris, 1964, 289-300. orr.; batez ere ikusi azken orrialdean Gorteei zuzendutako Oroitza-txostena, 1624ko azaroaren 11koa.

<sup>5</sup> Caro Baroja, J., *Los vascos*, Madril, 1958, 253. or.

<sup>6</sup> «Provisión para reprimir el abuso de que á las señoras de Bilbao acompañasen escuderos en sus salidas de casa á súplica de su Ayuntamiento», Labayru, *op. cit.*, V. libk., 726. or.

zen bizitzera, bai eta han kargu garrantzitsuak bete ere; haren anaia, Iñigo, Tuyko gotzain izan zen. Hauen aita, 1625ean Bilboko alkate eta 1626an zinegotzi izan zena, 1631tik 1634ra bitartean matxinatuek jazarri zituzten gizonetako bat izan zen<sup>7</sup>. Merkataritza eta nekazaritzako errentak, nekazaritzako errentak eta soldata ofizial onak eta, noski, juroak ziren beren ondasunen oinarriak. Koroak Indietatik aberastuta zetozenen dirutza konfiskatzen zuelako eta herri-zorrenaren tituluen bidez itzultzen zizkielako, eta baita hauek inbertsio errentagarri eta ziurtzat jotzen zutelako ere, aberats berrien diru-sarrera ugari juroen interesak zituzten jatorri. Santa Brijidako moja errekoletok Gasteizko komentua fundatzerakoan, Valladolidetik errentatzat bi juro ekarri zituzten, «bata Burgos hiriko milioien gain ezarria, urteko errentari zegokionez 150.000 marabedikoa», eta bestea 79.000 marabedikoa Granadako milioien gain<sup>8</sup>. Botodun hauen doteetako dirua ere herri-zorreen inbertitu zen. Hala, 18.052 erreal eta 32 marabedi erabili zituzten 1663an Gaztela Zaharreko Salinas herriko 75.603 marabediko urteko errentaren gaineko juroan<sup>9</sup>. Laikoen gain indar handiagoa zuen, ziurrenik ere, lurrak: Balmasedako indiano aberats baten testamentuak ere horixe adierazten du: «que todo su caudal se remitiese a España, se impusiese en fincas ciertas y seguras para que con ellas, sin llegar a el principal se lavrase un convento de Religiosas de N<sup>a</sup>. M<sup>e</sup>. S<sup>a</sup>. Clara y se mantuviese. [Pero] Felipe quarto por las necesidades que urgían a la Corona, se valió y apoderó del y en su recompensa mandó despachar un juro de 46.672 rs.-8 mrs. de renta en cada año sobre el papel sellado de las Ciudades de Burgos y Palencia y Valladolid por no haver alcanzado se estendio a los partidos de La Coruña, Oviedo, Laredo, Logroño etc.»<sup>10</sup>.

Oso emankorrak ere ez ziren izan inbertsio hauek, baina probintzieta-ko ordainketa-balantza parekatzen lagundu zuten, noski, interesak fondo gaztelauetatik kobratzen baitziren.

### «Gatzaren altxamendua»

Koiuntura aldatzean gatazkak itzuli ziren eta jada XVI. mendearen erdialdera somatzen hasi ziren gizarte-aldaketak areagotu egin ziren. 1601ean, historia tradizionalen adierazten denez, «con motivo de haberse querido hacer extensiva a Vizcaya la contribución llamada de Millones», Bizkaiko

<sup>7</sup> *Ibidem*, V. libk., 446-450. orr. Mendearen erdialdera, Mungiako Pedro de Villelak Len-cesko konde titulua jaso zuen eta Don Juan Bautista de Garay y Otáñez Rada bilbotarrak, Villarrubia de Langreseko markes titulua. *Ibidem*, 367. or.

<sup>8</sup> Gasteizko Magdalena komentuko ordainagiriaren eta ogasunaren liburua, 2. or.

<sup>9</sup> Gasteizko Magdalena komentuko ordainagiriaren eta ogasunaren liburua, 195. or.

<sup>10</sup> «Razón de los juros q<sup>e</sup> cobra este convento de Religiosas de N<sup>ra</sup> M<sup>te</sup> S<sup>ta</sup>. Clara de la villa de Balmaseda». Balmasedako Parrokiako Artxiboa.

jaurren altxamendu bat izan zen («matxinada»), eta 1631tik 1634ra bitartean, gobernua gata estankatzeko agindua eman zuenean, gata berri eta luze bat hasi zen<sup>11</sup>. Espainiako Koroaren premia finantzarioak areagotu egin ziren depresio-garaian (1586-1680/86). Azken epealdian (1627-1680/86), Konde Dukearen saiok porrot egin zutenean eta lusitaniarrek genoarrak ordeztu zituztenean, zerga-zama handitu egin zen zergadunen kopurua hazi ez arren edota kopuru hori murriztu arren, eta hauen egoerak okerrera egiten zuen askotan. «Errege Ogasunak, 1635 baino lehenagoko idazpenengatik hornitzailei ordaintzeko diru-sarrerak lortzeko asmoz, “milioien” zerbitzuak errepikatu eta gainjarri zituen, lanbideak eta eskubideak pignoratu zituen, media anata delakoa jaso edo kendu zien kargu bat, mesede bat, kostulaguntzaren bat ematen zienei; gatzaren gain ezarpen bat egin zen; kleroak 553.000 dukateko diru-laguntza ordaindu behar zuen; laguntza-eskaera bat egin zen eta 187.000 dukat lortu ziren... 1635az gerotik. Presioa areagotu egin zen, gainera, etorkizunari begira: aurreko guztia indartu egin zen eta kontzeptu berriak ezarri ziren»<sup>12</sup>. Forua eta zerga-salbuespenak izan arren, Euskal Herrian ere zergen areagotze hori gertatu zen. Ikus dezagun, beraz, zein izan zen istilu haien muina.

Zenbait unetan altxamenduan izan zen indarkeria eta gatzaren arazoak ekarri zituen aldarrikapenak ez genituzke ulertuko Bizkaiko jaurren gairai hartan bizi zen egoera ezagutu gabe. Askotan esan izan dugu Bizkaia defizitarioa zela zituen arloan; horregatik, foruetan adierazitakoaren ildotik, bi gainetan, Balmasedan eta Urduñan, kokatzen ziren aduanak, hala, bizkaitarrak inolako karga edo zergarik ordaindu gabe nahi adina inportatu eta esportatzeko libre izan zitezten. Gainera, ezarpenei zegokionez, probintzia hau ez zegoen fiskaltza gaztelauaren mende. Zergen arloan eta Koroarekin zituen loturei zegokionez, honako zereginak baino ez zituen: dohain bat, hiribilduetan biltzen zutena, zentsoa ordaintzen zuten nekazariak ematen zutena, burdinoletako eskubideak<sup>13</sup>, zenbait hamarren eta hein handi batean jaunei kendutako hiribilduetako prebostetzen errentak<sup>14</sup>. Dohainari zegokionez, nahiko berria zen. Egañak dioenez, Gipuzkoan lehengo dohaina 1629an egin zen<sup>15</sup>. Bi pribilegio hauek —aduanak eta zerga-salbuespena— osatzen zuten foruetako aipamen eta aldarrikapen ugaritako oinarri ekonomikoa. Foruetako lege ugari hautsi egiten ziren eta askotan Bazar Nagusiek beraiek hausten zituzten lege horiek; ez zuen honek, haatik,

<sup>11</sup> Trueba, A., *Datos para la historia de Vizcaya*. Lugo, 1900, 287. or. Labayru, *op. cit.*, V. libk., 233-244. orr. eta 33. eranskina, 680-696. orr.

<sup>12</sup> Ruiz Martín, F., *op. cit.*, 121-122. orr.

<sup>13</sup> G. de Cortázar, J. A., *Vizcaya...*, 276. or.

<sup>14</sup> Egoera honek Katalunian gertatuaren antza du. Vilar, P., *op. cit.*, I. libk., 586. or.

<sup>15</sup> Egaña, D. I., *El guipuzcoano instruido*. Donostia, 1780, 184. or. Labayru, *op. cit.*, V. libk., 191. or. Azken honek, Bizkaiaik, batez ere gizon armatuen bidez, 1512tik aurrera Errege-Erreginei eginiko zerbitzuak zerrendatzen dituen txosten bat idatzi zuen.

kezka handiegirik sortarazten. Izan ere, foruak zerga-pribilejioak zirela ulertu behar dugu.

Zergek gizarte-egituraren bidez egiten dute indar. Batetik, zergek beren helburua betetzen dute eta, bestetik, zenbateko horrez gain, modu zehatz bati jarraituz biltzen dira. Helburua eta modua agintean dagoen taldeak edo klaseak erabakitzen du. Aztertzen ari garen kasuan, helburua Koroaren larrialdiei, nobleziaren ordezkari zen Estatuaren estualdiei, erantzutea zen, politika inperialistari eutsi nahian itota baitzebilien; izan ere, nahikoa moderatuak izan ohi ziren Gaztelako gorteak politika horren aurkako adierazpen argiak egin zituzten.

Bizkaian, zergen jasotzea (edo, orduan erabiltzen zen hitz errukior hura berreskuratzuz, dohainarena), eta jasotzeko modua Batzar Nagusiek erabakitzen zuten beren Gernikako batzarraldietan. Batzar hauetan gehiengoa nekazaritza-inguruetako jaun gorenak osatzen zuten eta hauek, xvii. mendearen hasieratik, probintziako batzar haietan nekazariak —mendietako baserritarrek («caseros») — ez parte hartzeko hainbat eraso egina zuten. 1613ko abenduaren 10ean, hiribilduen eta hiriaren parte-hartzerik izan ez zen Batzarrean, haxe erabaki zen: «se ordenó que en adelante no fuesen admitidos como procuradores de las Anteiglesias los que no supieran leer y escribir en romance»<sup>16</sup>, hots, gaztelaniaz. Euskaraz hitz egiten zutenak, gehiengoa hortaz, baztertu egin zen horrela; bazterketa hura oso gogorra izan zen, hizkuntza erromaniko hura ulertu eta mintzatzeaz gain, idazten ere jakin behar zela kontuan hartuz. Neurri hau nahiko gogorra izango zen, inolaz ere, garai hartako nekazari gaztelau batentzat ere. Nekazariak, beren burua norbaitek ordezkatzeari nahi bazuten, goi-mailako jaunaren parte hartzea eta, beraz, aberatsena, beharko zuten. Neurri hori zorrotasun handiz ezarri zen: 1624an ez ziren onartu Arrieta, Ipazter, Sondika, Leioa, Berango, Lemoiz, Laukiz, Basigo, Gamiz, Arteaga eta Ubideako prokuradoreak eta honako arrazoia eman zuten: «no se hallaban con su suficiencia necesaria en leer y escribir en lengua castellana, como estaba decretado»<sup>17</sup>. 1625eko irailaren 16ko Batzarrean Barakaldo eta Berangoko prokuradoreei bi dukateko isuna eta bost eguneko kartzela-zigorra ezarri zieten<sup>18</sup>, eta 1629an ez ziren Leioa, Getxo, Sopelana eta Fikako prokuradoreak onartu, antzeko arrazoiengatik<sup>19</sup>. Neurri hauek, nekazariak eginiko aldarrikapen ilun batzuk —besteak beste, euskaraz hitz egiteko eta jende xeheak gobernatzeko eskubidea— azaltzen dizkigute, baina gerora aztertuko ditugu zehaztasun handiagoz aldarrikapen horiek. Nekazarien aurkako erasoaldia udaletara ere iritsi zen. Begoñako udalak Bizkaiko jaurerriari honako hauen defentsan zerbait egiteko eskatu zion, hots: «de los vecinos propietarios y de los inquilinos que tienen

<sup>16</sup> Sagarminaga, *El Gobierno foral...* Bilbo, 1892, I. libk., 307. or.

<sup>17</sup> *Ibidem*, I. libk, 381. or.

<sup>18</sup> *Ibidem*, I. libk, 381. or.

<sup>19</sup> *Ibidem*, I. libk, 422. or.

vecindad en dicha Anteiglesia contra algunos vecinos de Bilbao, propietarios de casas en Begoña, que pretenden que ellos, y no sus inquilinos, han de tener voto activo y pasivo en los Ayuntamientos y elecciones. Sin embargo, de estar domiciliados fuera; pero no consta en el libro de Acuerdos lo que la Junta resolvió en este caso»<sup>20</sup>. Noski, hau Bilboko jabeen eta Begoñako errentarien arteko ezinikusia indartu zuen beste arrazoi bat izan zen.

Arazoia Batzar Nagusietan ageri ez diren arren, probintziako zergak handitu egiten ziren batzuetan eta, horregatik, zenbait elizateko (Abando, Deustua, Begoña eta beste zenbait) biztanleek hauxe eskatzen zuten: «no estableciesen [el Corregidor o el Regimiento general] repartimientos sin causa justa y sin competente autorización, pues diz que tres o cuatro veces al año lo hacían, montando cada una más de tres mil ducados, lo cual era fatigar el país y a los vecinos pobres».

Neurri hauek guztiek, inolaz ere, nekazarien taldean ezinegon sakona sortuko zuten<sup>21</sup>.

Egoera horretan, 1629ko irailaren 4ko Gernikako Batzarrean Errege Ogasunaren estualdien berri ematen zuen eskutitz bat irakurri zen, eta dirua eskatzen zitzaien bertan. Batzarrak hamasei kidez osatutako batzorde bat izendatu zuen, González fiskalarekin, korrejidorearekin, diputatuekin eta sindikoekin batera, erabakia har zezan; hiribilduetako eta hiriko prokuradore gehienak aurka zeuden, beraiek ordaindu beharreko zatia ikaragarri hazi-ko zela ikusten baitzuten. Batzorde horrek, irailaren 11n, erregea zerbitzatzeara eta horretarako 600 tonako bi galeoi, behar zuen tresneria guztia, artilleria, munizio eta hornidurarako 36.000 dukat eta sei hilabetez 200 marineli zegokien soldata bidaltzea erabaki zuen. Ordainketarako, «acordaron también crear arbitrios especiales en todos los pueblos sobre el vino de la cosecha propia y el foráneo, el pescado que se sacase del Señorío, y el que viniese de fuera, y todas las mercaderías que se descarguen en los puertos». Horren truke, zenbait mesede eskatu zioten, besteak beste, Bizkaiko jaurerri-rik ateratzen zen beten ehuneko bakoitzeko 100 marabediko zerga 10 urtetan, eta 50 marabedikoa Bizkaiko lurretarako balira, eta Bilboko errenteriko pisua Bizkaiko jaurerriko gainontzeko herrietakoekin parekatzea<sup>22</sup>.

---

<sup>20</sup> *Ibidem*, I. libk, 468. or.

<sup>21</sup> Honen antzeko bazterketa bat, baina aberats berri batzuen kontrakoa, hiribilduen eta Bizkaiko Lur Zabalen arteko konkordiaren bidez, 1630an ezarri zen: «que no podrán ser elegidos Diputados generales los que hayan tenido oficios mecánicos ni sus hijos...». *Ibidem*, I. libk. 473. or.

<sup>22</sup> *Ibidem*, I. libk., 459-462. orr., eta Labayru, *op. cit.*, V. libk. 133, 184 eta 680. orr. Zehazki hauxe ordaindu beharko zuten: 2 marabedi Jaurerriko uzteko pitxar ardo bakoitzeko edota ekarri edo eramaten zen bakoitzeko, erreal bat arrain-karga bakoitzeko eta 2 erreal portuetatik kanporatu eta zamarietan kargatutako eskabetxatu eta ondutako arrainaren truk; kanporatzen zen arrain gazi-tuaren ehuneko 0,5, kanpotik erresuma hauetara ekarritako lenterriaren, oiñalaren, kinkilen, tresneriaren, paper eta artilearen eta zetazko produktuen ehuneko bat. Aldiz, ziurrenik ere nekazariak ez haserrearazteko, «quedaban libres de pago los granos, el aceite y la grasa de ballena».

Beraz, zeharkako zergen bidez eta kontsumoaren eta merkataritzaren gain halako zerga batzuk ezarri kobratu nahi zen dirua. Gainera, ordaintzeko orduan hauxe gertatu zen: «algunas personas, Anteiglesias y Villas habían acudido al Fiscal González y á la Junta del donativo, á pedir exenciones de casas censuarias y ermitas, y de jurisdicciones acumulativas; que unas lograron sus pretensiones y otras las llevaban muy adelantadas»<sup>23</sup>. Horregatik, 1630ean zenbait kexuren bidez gai hau aztertzeko izendatutako ordezkari batzuek honakoa betetzera behartu zituzten: «que cesasen las dichas sisas é imposiciones al terminar el año porque se habían arrendado, y que en su lugar se hiciese entre los vecinos de Vizcaya un repartimiento proporcionado á la cuantía de los gastos que quedaban por cubrir, exceptuándose de esta derrama á las Encartaciones, mediante el pago de diez y siete mil ducados que ofrecieron por su sexta parte»<sup>24</sup>. Proiektu berrian, banaketa bakoitzaren aberastasunen arabera egitea erabaki zen, hau da, «conforme al vecindario de los pueblos y al caudal de cada vecino; “al rico como á tal, y al mediano y menor como á tales”»<sup>25</sup>. Ordainketa beloizko txanponetan egingo zuten.

Batzorde horren irizpidea aldarazi zuen presioaren guneak Bilbo hiribildua —«porque los dhos nonbrados trataron de relebar sus haciendas y bienes [y] echan las cargas a otros», hauek merkataritzaren gaineko zergak ezartzen baitzituzten—, eta itsasgizonak ziren; hauek adierazi zuten, «su sustento y facultad consiste en lo que pescan y en un poco de bino en la costa y el Arbitrio que se dio para el dicho servicio agrava lo uno y lo otro».

Janarien gaineko zergak eta Koroak bultzatutako diru-aldaketen ondorioz izandako prezioen gorakada elkarrekin geratu ziren. 1625ean berzigitatutako beloizko txanpon berria onartzeko agindua ematen zuen erregezedula onartu zen<sup>26</sup>, baina handik hiru urtera honakoa eskatu zen: «[que] se baje en el Señorío la moneda de vellón á la cuarta parte de su valor nominal que es lo que se acerca a su verdadero valor intrínseco ya que no puede haber precio justo en las cosas de comercio»<sup>27</sup>. Gainera, «para que hubiese surtido de pescado curadillo ó bacalao se necesitaba pagar en plata parte de su valor»<sup>28</sup>. Manipulazio hauen ondorioz, prezioen gorakada izugarria izan zen eta, hala, Erregea bera ere «muga-sariak jaistera behartuta» sentitu zen<sup>29</sup>. Horregatik, merkatarikaririk lehortutako bakailaoa eta beste arrain batzuk ez zituzten Bizkaiko jaurerrira eramaten eta Donostian, Baionan edota Donibane-Lohizunen saltzen zuten, «lo cual es causa

<sup>23</sup> Sagarminaga, *op. cit.*, I. libk., 466. or.

<sup>24</sup> *Ibidem*, I. libk., 469. or.

<sup>25</sup> *Ibidem*, I. libk., 470. or.

<sup>26</sup> *Ibidem*, I. libk., 402. or.

<sup>27</sup> *Ibidem*, I. libk., 429. or.

<sup>28</sup> *Ibidem*, I. libk., 429. or.

<sup>29</sup> *Ibidem*, I. libk., 429. or.

de que escaseasen los mantenimientos en Vizcaya, porque han dejado de venir los arrieros que traían pan, vino, aceite, jabón, lanas y otras cosas necesarias para llevar en retorno pescado, de manera que ha subido la fanega de trigo á veinte y seis reales de diez y ocho que debía costar»<sup>30</sup>. Zenbait kasutan berrogeita sei errealetaraino igo zen. Bestalde, tasaren arabera ezarrিতাকo prezioetan nahiz prezio handiangoetan ere, burdinak ez zekarkien etekinik eta, ondorioz, burdinaren ekoizpena gelditu egin zen. 300.000 dukat baino gehiagoko galera ekarri omen zion Bizkaiko jaurreiriari beloizko txanponaren balioaren beherakadak. Gainera, «todos estos males aumenta[ba]n con la creación del oficio de Veedor del comercio que ha introducido en el Señorío, separando dicho oficio del corregimiento»<sup>31</sup>. Salgaien balioaren dukat bakoitzeko marabedi baten aberiek edo eskubideek, Bilboko Unibertsitateak eta Kontratazio-etxeak kobratzen zituztenek, 1624tik 1629ra bitartean beherakada bat izan zela adierazten dute eta horixe da kexuek beren arrazoia zutela adierazten duen frogak:

**Kontratazioak jasotako aberia-eskubideak, marabeditan**<sup>32</sup>

|                    |                    |
|--------------------|--------------------|
| 1613-1614: 646.947 | 1622-1623: 704.268 |
| 1614-1615: 730.940 | 1623-1624: 747.626 |
| 1615-1616: 370.674 | 1624-1625: 429.501 |
| 1616-1617: 481.738 | 1625-1626: 533.127 |
| 1617-1618: 578.278 | 1626-1627: 355.570 |
| 1618-1619: 530.961 | 1627-1628: 453.852 |
| 1619-1620: 485.930 | 1628-1629: 546.658 |
| 1620-1621: 594.403 | 1629-1630: 743.335 |
| 1621-1622: 546.973 |                    |

Bizkaiko jaurreriko biztanleriaren zati handi baten egoera ondo adierazten da Lekeitioko hiribilduan egin zen 1631ko urtarrilaren 13ko udal irekian. Bertan, galeoien dohainaren arabera zegokiena, 30.000 erreal, ordaintzeko dirua lortzen ahalegindu ziren. Hasieran auzotarren artean halako banaketa bat egiten ahalegindu ziren, baina «visto y mirado la disposición y caudal que cada vecino tiene no podían ni alcanzaban a llegar a los tipos y plazos que contiene el mandamiento... para pagar los treinta

<sup>30</sup> *Ibidem*, I. libk., 430. or.

<sup>31</sup> *Ibidem*, I. libk., 445. or.; Labayru, *op. cit.*, V. libk., 176. or. Azken honek dioenez, 1628ko abuztuko batzarraldian honako gaia landu zen, hots: «se trató con detención sobre el estado precario en que se hallaba el comercio del Señorío por haber separado del corregimiento el cargo de veedor».

<sup>32</sup> Labayru, E., *op. cit.*, V. libk., 220. or.

mil reales con que estaba cargada dha villa por causa de poca sustancia y fuerzas e imposibilidad de los vecinos que al presente se hallan en dha villa y por lo que se conoce de los que estan en servicio de su magd. en sus reales armadas». Honegatik guztiarengatik eta «porque esta dha villa y su conzejo y propios estaban al presente con muchas deudas y en especial de lanças mareantes que hoy deben más de ciento y sesenta mill mrs. ultra de otros censos y tributos que debe», hiribilduarenak ziren marea-errotak saltzea erabaki zuten<sup>33</sup>.

Bestalde, dirua lortzeko, Errege Ogasuna kargu ofizialak saltzen aha- legindu zen: Enkarterrietan eskribautza berriak sortu ziren eta Ogasun- kontseiluak 1616an pignoratu zituen<sup>34</sup>; Gipuzkoan garai horretan, ordain- du ondoren, herri ugari beste hiribildu batzuen eskumenetik irten zen<sup>35</sup>; Bizkaian, «Domingo de Murueta había obtenido merced perpetua de la es- cribanía del número y Ayuntamiento de Durango por quinientos ducados» eta «estaban en igual caso las exenciones de jurisdicción de las casas cen- suarias de Bolibar, vecindadas á Guerricaiz, de la jurisdicción acumulati- va que en la casa y solar de Ugarte y otras casas de Jemein tiene la villa de Marquina, [y] de la agregación de la Anteiglesia de San Agustín de Echevarría á la villa de Elorrio». Gernikako Batzarraren iritiz, «en ellos se habían quebrantado los fueros y exenciones»<sup>36</sup>.

Koroak bere diru-sarrerak areagotzeko erabili zituen presio-bideak ez ziren horretan amaitu: «Se presentó un memorial [1630ean], reclamando contra ciertas novedades... y eran el cobrar derechos á las lanas del Señorío, cuando antes no se cobraban derechos sino á las lanas de Castilla, el cobrar asimismo un real por cada cabeza de ganado que entrase en Vizcaya, y el que paguen derechos los paños que pasen por las aduanas de Vitoria, Orduña y Balmaseda, como si se fuese á sacarlos Fuera del Reino»<sup>37</sup>. Gerora, 1632an, tentsioa ere handiagoa zenean, «expusieron... los Síndicos que los proveedores de las carnicerías de este Señorío se quejaban de que en Castilla se les hace pagar dos reales por cada cabeza de carnero por dacio é impuesto echado por S. M. á los carneros que se traen a Vizcaya»; horrez gain, Galizian hala gertatzen omen zen: «se quitaba á los vizcainos... la octava parte de la cantidad del vino de Rivadavia»<sup>38</sup>.

Gainera, Errege Ogasunak, zenbait diru-sarrera, Gurutzadako Bulda- ko limosna adibidez, murriztuko ez zitzaiola bermatzeko, zilarretan or- daintzea eskatzen zuen. Hala, nekazariak kobrezko txanponak baino ez zituztenez, zilarrezkoak eskuratu behar izaten zituzten eta, horretarako,

---

<sup>33</sup> Lekeitioko Udal Artxiboa. 10. erregistroa, 55 zkia., 215. orria.

<sup>34</sup> AHN Kontseiluak 4.420. legajoa.

<sup>35</sup> González, T., *op. cit.*, 125. or.

<sup>36</sup> Sagarmínaga, *op. cit.*, I. libk., 466 eta 467. orr.

<sup>37</sup> *Ibidem*, I. libk., 475. or.

<sup>38</sup> *Ibidem*, I. libk., 10. or.



zegokien saria ordaindu behar zuten. Jada 1623an honelako kexuak ez ziren gutxi: «no podía pagarse en plata la limosna de la Bula de la Santa Cruzada, por no haber más que moneda de vellón»<sup>39</sup>.

Gerora ikusi ahal izango dugunez, zerga horiei erantzun ezkorra eman zitzairen 1633ko otsailaren 14ko Batzarrean eta horietatik *bat bakarrik* dagokio gatzari.

Nekazaritza-inguruneetako jaun gorenek soldaduen zerbitzu berri bat, gatzaren estankoa eta borondatezko dohain bat onartu zituzten. Eta horixe besterik ez zen falta istiluak pizteko. 1631ko urtarrilaren 18ko udal-bilkura edo Errejimentuan, Erregearen urriaren 3ko agindua adierazten zen, «para embargar la sal que hubiere en el Señorío, y de ponerla estancada de manera que en adelante no se venda [sino] por cuenta de la real Hacienda, pagándose la fanega á cuarenta reales, y que este impuesto se establecía en equivalencia de la contribución de Millones de Castilla»<sup>40</sup>. Urte horretan bertan, atzeritarren errolda bat egitea eta eskubide batzuk ordainaraztea ere erabaki zen, baita halaxe egin ere, eta ekainaren 25eko Batzarraren bidez beren jantzi eta armez hornitutako 250 infantez osatutako dohain berri bat antolatu zen<sup>41</sup>.

Hilabete haietan idatzi zen garai hartako foru-hausteei eta berauen kontrako irainei buruzko zenbait oroitza-txosten ere. Halaxe bukatzen zuen horietako batek: «que por cualquiera fuerza que los vizcainos yzieren en defensa de los fueros no yncurran en pena ninguna»<sup>42</sup>. Garai horretakoa izango dira Bizkaiko jaurerriko aholkulariaren, hots, Mateo Echebarriaren, bi idatzi ere: «Pretensión de Vizcaya sobre el crecimiento del precio y estanco de la sal y las razones que tiene para ello» eta «El Señorío de Vizcaya sobre la nueva Orden Real del estanco de la sal, y crecimiento de su precio»<sup>43</sup>.

1631ko irailaren 23rako Batzar Nagusirako deia egin bazen ere, 24ra arte atzeratu behar izan zen, jendea haserretzen hasia baitzen. Irailaren 24ko Batzar hura istilu artean egin zen eta gatzaren estankoaren aurka azaldu zen. Biblioteka Nazionalean dagoen eta Sagarminaga eta Labayruk erabili zuten zerrendan oinarrituz, honakoa esan daiteke: «La gente que acudió, entre la cual había muchos vecinos no junteros, estaba muy descontenta e irritada... Parece ser que se gritaba que era menester que se hablase en vascuence para que todos entendiesen lo que se dijera, que no debían ser Diputados los que vistiesen calzas negras, esto es, los que se sustentaban como caballeros, sino las personas sencillas». «Cuéntase también que estuvo amenazada la vida del Corregidor, y la de otros veinte ó

---

<sup>39</sup> *Ibidem*, I. libk., 380. or.

<sup>40</sup> *Ibidem*, I. libk., 479. or.

<sup>41</sup> *Ibidem*, I. libk., 483 eta 485. orr.

<sup>42</sup> Labayru, *op. cit.*, V. libk., 201-203. orr.

<sup>43</sup> *Ibidem*, 201, 203, 207-209. orr.

treinta caballeros, á los cuales atribuía sin duda la multitud alguna floje-  
dad ó indiferencia en cuanto á la defensa de los derechos del Señorío». Kontakizun honetan ageri denez, altxatu zirenak mila eta bostehun inguru izango ziren<sup>44</sup>.

Gatzaren estankoa beste karga edo zerga bat baino ez zen, nahiz eta juridikoki ez izan besteak bezain onargarria. Gainera, zeharkako zerga hau, batez ere nekazari, arrantzale eta artisaueri oso gogorra egin zitzaien. Gatzaren prezioaren gorakadak —zergak prezioaren ehuneko berrogeita lau osatzen zuen<sup>45</sup>— garestitu egiten zituen hainbat prozesu, hots, «enca-  
recía la salazón del pescado en Vizcaya, y aumentaba considerablemente los gastos de beneficiar el bacalao de Terranova, á que se iban dedicando los vizcaínos»<sup>46</sup>; hala, gainera, kanpoko bakailaoaren sarrera erraztu egi-  
ten zen. Horrez gain, «gainontzeko lurraldeetako biztanleek elikatzeko ha-  
ragi gatzatua erabiltzen zutenez, zerga berri honek beren elikagaiak esku-  
ratzeko baliabiderik gabe utziko zituen<sup>47</sup>».

Irailaren 24ko Batzarrak ez zituen gehiegi ikaratu bertako jaun gore-  
nak. Hurrengo urtean ordainketa berri bat baimendu zuten. Don Alonso Enríquez, Bizkaiko epaile nagusia, jaurerrira etorri zenean, asmo hauxe zuen: «ir de pueblo en pueblo para recoger los donativos que pudiese, á tí-  
tulo puramente gracioso. Sin hacer fuerza al que no quisiese dar nada». Bilketa horretan sindikoak izan zituen lagun. Baina epaile nagusiak boronda-  
tezko dohainari derrigorrezko izaera eman zion. Zamudion, hogeita hamar pertsona baino gehiago ekarri zituen bere aurrera, «para obligarles a con-  
tribuir al donativo... y ... se esperaba que iban a hacer lo mismo con los  
vecinos de otros pueblos del Señorío»<sup>48</sup>. Hori gutxi ez balitz, Enkarterrie-  
tan izan ezik, Bizkaiko gainontzeko lurraldeetan ere zerga-banaketa bat  
egitea erabaki zen 424.314 marabedi biltzeko eta, hala, «para acudir á mu-  
chas ocasiones de gastos que al presente se ofrecen»<sup>49</sup>.

Gipuzkoan ere antzeko zerbait gertatu zen. 1629an 70.000 dukat or-  
daintzeko konpromisoa hartu zuen<sup>50</sup>. Handik hiru urtera, beste Errege Ze-  
dula baten bidez, Gipuzkoari beste borondatezko dohain bat eskatu zi-  
tzaion. Ordainarazpen horretarako etorri zen «D. Bernardo de Atodo e  
Ipinarrieta, oidor de la Real Audiencia de Valladolid... pero viéndose la  
provincia agobiada con los gastos de las guerras y armamentos, representó a  
Su Majestad la imposibilidad en que se encontraba de prestar este servicio.

---

<sup>44</sup> Sagarminaga, *op. cit.*, 492. or.

<sup>45</sup> *Ibidem*, II. libk., 9. or. 1623an gatzak 25 erreale balio omen zuen, eta horietatik hamaika Errege-Erreginentzat zerga gisa ordaintzen ziren.

<sup>46</sup> *Ibidem*, I. libk., 483. or.

<sup>47</sup> *Ibidem*, I. libk., 482. or.

<sup>48</sup> *Ibidem*, I. libk., 494 eta 496. orr.

<sup>49</sup> *Ibidem*, I. libk., 496. or.

<sup>50</sup> Egaña, D. I., *op. cit.*, 184. or.

Atodo empezó en su visita a exigir el donativo aisladamente en los pueblos, valiéndose de la fuerza material. Por este último medio arrestó al Alcalde y vecinos principales de la villa de Mondragón, que se negaron a suscribirse a la satisfacción de las cuotas pedidas»<sup>51</sup>.

Zerga berriak nahiz berriro ezarri beharrekoak onartzeko Batzarraren erraztasun hau oso lotuta dago Espainiako monarkian Euskal Herriko jaun gorenek betetzen zuten lekuarekin. Euskal Herria nahiko pobrea zen, aristokraziako familietako bigarren semeek merkatari, eliz gizon, militar edota burokrata bihurtu behar izaten zuten, eta Koroaren zerbitzurako lanpostuak betetz, burokrazian sartzea zen ohikoena. Hauek, Madrilen talde garrantzitsu eta sendoa osatzen zuten. Beraz, hauen diru-sarreraren zati bat erregearen esku zegoen. Horregatik, dirua eskatzen zenean, probintzietako batzarrek ez zuten oro har inolako oztoporik jartzen: erregeak pozik egon behar zuen eta, gainera, kontuan hartu behar dugu ordaindu behar zutenak nekazariak, arrantzaleak edota merkatariak izaten zirela eta ez, noski, dohainari buruz erabakitzen zutenak. Horrelako presioa egitea, prebendak lortzeko meritua egitea zen: 1632an «se tuvo noticia de que el síndico que fue Landaverde había obtenido el patronato de Rigoitia, haciendo valer falsamente que á él se le debía la concesión de los servicios de los galeones y los doscientos cincuenta infantes»<sup>52</sup>. Horrelako gizaki goranahien aurkakoak izan ziren, hain zuzen ere, herritarren errepresaliak.

Laburtuz: Gernikako Batzarretatik nekazariak bota egin zituzten eta goi-mailako jaunen ahalmena indartu zen. Hauek, Koroari lotuta zeudenez, zerga gehiago ezartzeko eragozpenik ez zuten azaltzen, eta zerga horiek kontsumoaren gain karga berriak jarritz banatzen ahalegindu ziren. Aldi berean, diruaren aldaketek janariak garestitu egin zituzten eta merkataritza zaildu; gainera, merkataritzak okerrera egin zuen sortu zen ikuskatzailearen irudi berriarekin eta karga txiki berrien multzoarekin.

Ikus dezagun orain altxamendua nola gauzatu zen. Errejimentuak, hauxe baitzen Batzar Nagusien ordezkaria batzarraldiz batzarraldi, 1632ko urriaren 16an zerga hori sartzeari eta gatzaren estankoari uko egin zion. Bilboko Udalaren urriaren 23ko aktan, jarrera hori honako arrazoiatatik hartu zela adierazi zen, hau da, «en confirmación de otro decreto que ántes tenía hecho en su junta general só El árbol de guernica en v<sup>te</sup> y cuatro de Sept<sup>e</sup> del año pass<sup>do</sup> de mil y seiscientos y treinta y uno [que] había decretado que se vendiese sal libremente sin el dho estanco é ynposi<sup>on</sup>»<sup>53</sup>. Dokumentu honen arabera, pregoia egin zenean, «En esta dicha villa y en el discurso del dho pregon se abía alborotado todo El pueblo». Urtebete beranduago idatzitako eta Labayruk argitaratutako «Relación de los alborotos

---

<sup>51</sup> P. Gorosabel, *Noticias...*, I. libk. 649 eta 650. orr.

<sup>52</sup> Sagarminaga, *op. cit.*, I. libk., 493. or.

<sup>53</sup> «Documento histórico memorable», 8. or.

de Vizcaya desde el año 1631 hasta el 34» testuaren egilearentzat<sup>54</sup>, altxamendu hura piztu zuena, Bilboko kontzejuak errejimentuaren dekretua argitaratzeari emandako ezetza izan zen —«no le conbenia executar el pregon q<sup>e</sup> el gobierno del Señorío le mandaba echarse»—. Jendearen haserrea piztu zutenak hauek izan ziren: Francisco Barrio Nuevo, «veedor de las cosas del mar, y diciendo que había robado mucho», eta Pedro de Urazandi, diputatu nagusi izana, «diciendo que lo habían de matar por haber sido quien concedió el donativo, y que á su cargo tenía la fábrica de galeones». Altxamenduak batez ere langileak mugiarazi zituen: ferratzaileak, itsasgizonak, txalupa-zainak, zurratzaileak, oratzaileak, bizarginak eta jostunak, eta baita Bilboko behe-mailako zenbait eskribau, letradu eta tratulari<sup>55</sup> eta probintziako beste hainbat nekazari eta itsasgizon ere. Hauen emazteek ere izan zuten zer esanik: «increpaban á las mujeres principales diciéndoles que ahora sus maridos é hijos serían alcaldes y regidores, y no los traidores que vendían a la república... y pues todos eran iguales, no era bien que unos comiesen gallina y ellos sardina»<sup>56</sup>.

Albaramenduaren une hartan, altxatutakoek Bilboko udalari zenbait eskakizun ezartzea lortu zuten. Hauek urriaren 23ko aktan ageri dira eta honako puntu hauek dira bertan azaltzen diren errebindikazioen guneak: 1) ikuskari ofizioaren desagerpena; 2) Bilboko portutik ateratzen ziren Gaztelako oihalen gain zergarik ez ezartzea 7 kanalara iristen ez zirenean, ordu arte ere ez baitzen ordaindu; 3) Bizkaiko jaurerriko artileen gain zergarik ez ezartzea, hori zerga berria baitzen; 4) lehorreko aduanetan hamarrenak ordaindu zirela adierazten zuten «albalá» deituriko dokumentuen truk ezer ere ez ematea, ez eta erresumaz kanpoko kargatzaileei emandakoen truk ere; 5) Ribadaviako ardorik ez ekartzea; 6) Bilboko zenbakiko hamasei eskribauk halako txanda zehatz bati jarraitzea honako zereginetan: «en las manifestaciones y despachos de sus descargos de las mercaderías que los extranjeros traen a esta villa y lo que en retorno cargan»; 7) Urduñako eta Balmasedako aduanetan legezkoak diren eskubideak baino gehiagorik ez ordaintzea, eta 8) «q<sup>e</sup> el pueblo a pedido q<sup>e</sup> ese decreto y capítulos queden también firmados por los vecinos de esta villa y se teme que a menos no se quietara El dho pueblo». Dokumentu honen barrenean berrehun eta hirurogeita bat biztanlek bota zuten beren sinadura. Ikusten denez, aldarrikapen eta kexuak merkataritzako transakzioen gain ezarritako zerga berrien aurkakoak ziren, eta erraz suma zitekeen berorien atzean nortzuk zeuden: diru-sarrera txiki eta ertaina zuten merkatarri eta kontsumitzaileak.

Ordurako, altxatuek «pregoiak eman eta Udalaren lanak» egiten zituzten, eta prebentziozko neurri gisa jaurerriko eta herrietako biztanlerik

<sup>54</sup> Labayru, *op. cit.*, V. libk., 680-696. orr.

<sup>55</sup> *Ibidem*, V. libk., 683. or.

<sup>56</sup> *Ibidem*, V. libk., 683. or.

garrantzitsuenei honako agindua eman zien: «que no se juntasen ni comunicasen, so pena de que irían á sus casas y los matarían». Akta hori sinatu aurreko egunean, Aparicio de Uriberen etxea, eskribau eta Bilboko alkate zen gizon honen etxea, eraso zuten eta, horretaz gain, Domingo de Castañeda, Korrejidorearen Auzitegiko prokuradorea, hil zuten. Azaroaren 25ean, itsasgizonen laguntzaz, Pedro Fernández del Campo jaunaren etxean sartu ziren eta Pedro de Villetaren bila ibili ziren, honen aita Galeoien arloko dohain eta zerbitzuetan komisari izandakoa baitzen, «y pusieron como advertencia una horca en la casa que poseía en Munguía».

Ez dakigu zehaztasun osoz, Bilbon eta inguruetan halakoak gertatzen ziren bitartean, Jaurerriko gainontzeko lurraldeetan zer gertatu zen, baina albaramendua erabat hedatu zen. Horren adibide garbia izan zen 1633ko otsaileko Batzarra. Bertan, herritarren aldarrikapenek Foruen babesa eta gatzaren estankoaren desagerpena baino harantzago egin zuten, eta hirian lantzaz hornitutako bi milaren bat nekazari eta itsasgizon bildurik, «Se sancionaron veinticuatro decretos encaminados á soliviantar mas al pueblo y adquirir libertades que no estaban consignadas en el Fuero». Kasu honetan ere oroitzatxostenaren egileak dekretu bat zehazten du soilik eta berorrek ez du inolako zerikusirik gatzaren estankoarekin; aldiz, zergak eta diru-aldaketak ditu aipagai: «que no se pagase las bulas de allí adelante en plata sino en vellon»<sup>57</sup>. Sagarminagak labur-labur bildu zituen. Aipagarrienak hamaika dira eta bat bakarrik dagokio gatzari: «que se anulen todos los nombramientos de agentes y comisionados que se hubiesen hecho en razón del estanco de la sal». Lau dira, oro har, merkataritzaren gain ezarri ziren zerga berrien aurkakoak: «Que los vizcainos cumplan con pagar el importe de la Bula donde la recibieren, y no estan obligados á enviarlo á otra parte», «que se escriba a Vitoria para que no se imponga á las cosas que se llevan de Vizcaya ni á las que se traten», «que se escriba en la misma razón á Elgoibar porque no se cobran tampoco tales imposiciones á los vizcainos en el Señorío», «que no se cobren en Ubidea y Ochandiano más albalás del hierro que pasa a Castilla, que lo que dispone la ley del Fuero», «que no se traiga el vino de Rivadavia ni otros de este género, por los derechos que hacen pagar»; bat da itsasgizonei ezarritako traben aurkakoa: ziurrenik ere itsaslapurretaren, Ingalaterrarekin zituen gatazken eta itsasoratzeen ondorioz, Koroa Europa iparraldeko herrialdeekin merkataritzaren alorrean zituen harremanak eta arrantza-espedizioak mozten ahalegindu zen eta, horregatik, honakoa eskatu zen: «que no se cierren los puertos ni se impida la navegación á los mercantes vizcaínos, por ninguna causa». Beste dekretu batek basoetako egurra erabiltzen zuten ontzigitileen edota nekazarien interesak defendatzen bide zituen: «que los oficiales de la Superintendencia de fábricas y plantíos no lleven más derechos que los que les

---

<sup>57</sup> *Ibidem*, V. libk., 688-689. orr.

corresponden, y se apliquen las condenaciones á los mismos plantíos». Azkenik, bik Foruak babestu nahia ageri dute: «que se proceda contra Pedro Fernández del Campo y otros quebrantadores de los Fueros» eta «que se transfiera al Señorío la merced del patronato de Rigoitia, concedido á Antonio de Landaverde». Eta beste batek bidelapurreten gorakada eta herrietan honi aurka egiteak sortzen zituen gastuak ditu aipagai: «que se sigan á costa común las causas contra malhechores, por no tener recursos los pueblos para seguirlos»<sup>58</sup>.

Caro Barojak argi eta garbi erakutsi zuen garai hartan aberastu ziren merkatarien eta antzinako leinuen ordezkari zirenen artean gatazka bat sortu zela<sup>59</sup>. Aipatu dugun oroitzatxosten anonimoan ez da ezer esaten gatazka horretaz, baina bada hori pentsatzera eraman gaitzakeen zenbait aipu ere. Hala, 1633ko martxoaren 30ean erregeak hartutako errepresiozko neurrietako bat hauxe izan zen: «que se diesen por perdidas las mercaderías que no trajesen certificación de los veedores del Almirantazgo, aunque no fuesen comprendidas en la prohibición del Contrabando»; Bizkaian matxinatuen beldur ikuskaria ihesi joan zenez eta, beraz, 1632ko urriaren 21etik ikuskaririk ez zutenez, «*cesó el comercio con pena de naturales y extrangeros: y con la falta del trato conoció la plebe y la gente trabajadora que procedía el daño de los alborotos pasados y se lesionaron muchos intereses*»<sup>60</sup>. Gainera, fiela eta kontsulak hautatzerakoan, matxinatuak tratulari eta merkatarien botoak bere alderdikoan aldera erakartzen ahalegindu ziren, eta horren aurka agertu ziren, berriz, hiribilduko korrejidorea eta errejimentua<sup>61</sup>.

Orain arte iturri fidagarri gehiegirik izan ez dugunez eta berorien egileak batez ere errepresioan parte hartu zutenak izan zirela kontuan hartuz, zail gertatzen zaigu ondorio argiak ateratzea. Egin genezakeen gauza bakarra hipotesi modura interpretazio orokor bat egitea da: hasieran altxamendu hura batez ere zergen gorakadak bultzatu zuen. Felipe Ruiz Martínek erakutsi duenez, «zerga berri hauek, merkataritzan edo manufakturretan lan egiten zutenen gain nekazaritzako lur-jabeen gain baino eragin handiagoa izan zuten»<sup>62</sup>. Merkatariak, eta are gehiago merkatari txikiak, nekazarien egoeraz baliatu ziren lehenengo etapa horretan, behin eta berriro ezartzen zizkieten dohainek eta zerga berriek estutu egiten baitzituzten —altxamendua- ren eragileak, lur jota gelditu ziren atzerritarren eta merkatarien semeak, elizgizon ausartenak eta herri xehea izan zirela dio Antonio de Mendozak—, eta ikuskariari eginiko erasoak hortxe du oinarria. Dirudienez,

<sup>58</sup> Sagarminaga, *op. cit.*, I. libk., 19 eta 20. orr.

<sup>59</sup> Caro Baroja, J., *Los vascos*, 253. or. eta 259. orrialdeko 25. oharra; iturri hau erabili zuen: «Discursos de don Antonio de Mendoza, secretario de Cámara de Felipe IV».

<sup>60</sup> Labayru, *op. cit.*, V. libk., 689. or.

<sup>61</sup> *Ibidem*, V. libk., 690. or.

<sup>62</sup> Ruiz Martín, F., *op. cit.*, 122. or.

mugimendu hura erradikalizatu egin zen eta Bizkaiko jaurreri osoaren gobernu zalantzan jarri zen, eta beharrezkoa izan zen berauentzat «desprenderse de los caballeros de manto negro y espada y regirse por los montañeses»<sup>63</sup>, hau da, nekazari eta baserritarrengana jotzea. Hauek eta mendi inguruetako biztanleek, 1633ko Batzarrerako ez zioten botererik eman nahi zaldun eta handikiei, hau da, «a los caballeros y gente principal»; izan ere, hauen ustez, longain eta lantzadunak «avian de yr a la Junta y avian de gobernar dallí adelante»<sup>64</sup>. Mugimendua gogortzeak eta 1633ko martxoaren 30eko Errege-neurriek merkatariak antzinako familien taldera bultzatu zituzten eta «se suplicó al Rey acordase, que, castigando a los cabezas de la rebelión, se librase al Señorío del impuesto de la sal y se restituyese á éste en su antiguo gobierno y se le diese el veedor para que el comercio no pereciese»<sup>65</sup>. 1634ko maiatzaren 24an goizeko zazpiak aldera altxamenduaren arduradun nagusiak preso hartu zituzten; guztiak azkar epaitu zituzten eta heriotza-zigorra eman zitzaizen: hiru garrotez eta hiru urkatuta hil zituzten, maiatzaren 24ko ilunabar aldera. Horrek izua zabaldu zuen («no pareció en Bilbao casero ninguno de la montaña por algunos días») eta ehunen bat bermeotarrek Donibane-Lohizunera alde egin zuten sei «pinaza» ontzitan<sup>66</sup>. Altxamenduan zehar, matxinatuak bakarrik Korrejidorearen auzitegiko prokuradorea, Domingo de Castañeda, hil zuten<sup>67</sup>. Urte horretan bertan, erregeak, altxamenduan parte hartu zuten Espainiaz kanpoko atzeritarrei eta Bizkaiko beste hamabiri izan ezik, gainontzeko partaide guztiei indultua eman zien. Bizkaiko hamabi horien artean zeuden hil zituzten sei gizon haiek ere. Berorietatik sei eskribauak ziren, bi lizentziatuak, bat elizgizona, bi ferratzaileak («los valientes del común»), beste bat trapu-merkataria eta jostuna eta, gainontzekoen lanbideari buruz, ez da aipamenik egiten, nahiz eta badakigun bat Gernikakoa zela, bere izenaren aurretik don erabiltzen zuela eta 1633an sindiko hautatu zutela. Beste biak bilbotarrak ziren; bi horietatik bat, sindikoarekin eta eskribauarekin batera, garrotez hil zuten. Gernikarra eta Bermeoko lizentziatu bat izan ezik, gainontzekoak Bilbon bizi ziren<sup>68</sup>.

Bizkaiko «Gatzaren altxamendua», koiuntura-aldaketarekin Europa osoko Mendebaldean sortu ziren beste hainbat altxamenduren artean biltzen da. Iberiar penintsulan, honen aurretik, Oportoko maçarosas (1628) eta Santarem-gokoa (1629) izan ziren, eta bi hauek ere zergen kontrako altxamenduak izan ziren. Horiexek izan ziren jende arteko egonezin haren lehenengo adierazpenak, nahiz eta 40ko hamarkadan Espainiako monarkian

---

<sup>63</sup> Labayru, *op. cit.*, V. libk., 680. or.

<sup>64</sup> *Ibidem*, V. libk., 695. or.

<sup>65</sup> *Ibidem*, V. libk., 690. or.

<sup>66</sup> *Ibidem*, V. libk., 693 eta 694. orr.

<sup>67</sup> *Ibidem*, V. libk., 683 or.

<sup>68</sup> *Ibidem*, V. libk., 242. or.

argiago azalduko ziren eta muturra Katalunia eta Portugalgo altxamenduen bidez joko zuen; dena den, ezin ahanz genitzake Aragoiko independentziaren aldeko altxamendua, Hajar dukeak bultzatutakoa, Andaluziakoa, Medinasidoniako dukeak bultzatutakoa, 1646tik 1648ra bitartean Valentzian izan ziren mugimenduak<sup>69</sup>, edota Segoviako eta Toledoko ehuleek bultzatu zutena, hauei «dozavo» erdia kobratzen ahalegindu zirenean, zerga honen xedea hauxe zelarik: «quitar una y media pulgada a todo genero vendible por varas castellanias». Madrilen Konde Dukearen aurkako paskinak agertu ziren. Haietako batek, Toledon jarri zirenen antzeko batek, hala zioen amaiera aldera: «no hay otro remedio que tomar el acero». Matxinaden izaera eta altxamendu sezesionistena nahiko desberdina bada ere, B. Porchnev-ek garai horretako gatazka frantziarrei buruz esandako hau kontuan hartu beharrekoa dela iruditu zaigu: «Aucun artifice n'aurait permis aux hauts dignitaires français du XVII<sup>e</sup> siècle de faire naître un soulèvement populaire, si les conditions objectives sociales et économiques n'avaient pas incité spontanément les classes populaires de la campagne et de la ville à des tentatives toujours nouvelles de lutte contre le joug seigneurial et fiscal»<sup>70</sup>.

Bizkaiko altxamenduaren ezaugarriek badute Frantzian garai berean izan ziren beste batzuen antza. Arrazoi nagusia, itxuraz behintzat, zerga berriak izan ziren, «herriaren pazientzia horretxek ahitu zuen, izan ere, aurrez izan ziren beste hainbat esplotazio-modurekin nazkatuta baitzegoen»<sup>71</sup>; areago, kontuan hartu behar dugu zerga berri horiek produktu gordina murriztu zenean ezarri zirela edota, zergen karga hura produktu gordinaren gorakadaren gainetik ezarri zela<sup>72</sup>. Hori ez da, gainera, kointzidentzia bakarra: Pirinioaren bi aldeetako altxamenduetako protagonistak, oro har, ez ziren elkarrengandik oso desberdinak izan —pobre, artisauek eta nekazari hauei, «menu peuple», «populace», «caseros de la montaña», «la plebe más baja» izenak eman izan zitzaizkien—, eta aurrea hartu zutenak hirietako biztanleak izan ziren, nahiz eta beti nekazarien laguntza aintzat hartu zuten eta horretan oinarritu ziren eta, lehenengo etapan, burgesiaren laguntzaz edota neutralitateaz baliatu ziren. Dena den, hauek, burgesak, altxamenduak aurrera egin ahala, boterean zeudenen alde agertu ziren. Gatazka eta istilu hauei gehienetan erregearen tropek eman zieten amaiera; gero, berriz, eta buruzagi nagusiak hil zituztenean edota ihes egin zutenean, amnistia eman zitzaizkien, bai eta zergak apur bat arindu ere<sup>73</sup>. Gure kasuan goi-mailako jaunek

---

<sup>69</sup> Ubieto, Reglá, Jover y Seco, *Introducción a la Historia de España*. Bartzelona, 1969, 395-399. orr.

<sup>70</sup> Porchnev, B., *Les soulèvements populaires en France*. Paris, 1963, 14. or.

<sup>71</sup> *Ibidem*, 43. or.

<sup>72</sup> Le Roy Ladurie, E., *Les paysans de Languedoc*. Paris, 1966, I. libk., 495. or.

<sup>73</sup> Ikusi Porchnev, *op. cit.*, 214-218. orr., Baionako altxamenduaren berri izan nahiez gero, Bizkaikoaren antzekoa izan baitzen hainbat alderditan; Le Roy Ladurie, *op. cit.*, I. libk., 495-498. orr. eta 426-427. orr.



ez zuten beste inoren laguntzarik behar izan: «El castigo pidió Vizcaya, las prisiones hizo la villa de Bilbao con su alcalde y regidores, y la causa sentenció el corregidor y la ejecución el preboste mayor de Bilbao y dos escrivanos del número, sin que interviniese á cosa ninguna desta justicia persona de fuera, ni ministro de su magestad de fuera del Señorío»<sup>74</sup>. Bizkaiko matxinadak, multzo horretan, ez du inolako berezitasunik, bi ezaugarri hauengatik ez bada: iraupena —1631ko irailaren 23tik 1634ko maiatzaren 24ra— eta herritarren aldarrikapenen konplexutasuna, arlo ekonomikora ez ezik botere politikora ere iritsi baitziren —«los de capote y lanza... avian de gobernar dallí adelante».

---

<sup>74</sup> Labayru, *op. cit.*, V. libk., 237. or.

## VII

### Demografia: 1700-1850

#### **XVIII. mendeko auzotarren zenbaketak**

Errolda demografiko hauei su-zenbaketak deitzen zitzairen Bizkaian, suak Gipuzkoan eta bilketak («acopiamientos») Araban. Batzuek zein besteek helburu fiskal garbia zuten: probintzietako zergak edo Koroaren eskae-rak banatzea. Auzotar-erroldak egiterakoan, probintziaren edo eskualdeen arabera irizpide desberdinak jarraitu zituzten eta, beraz, komenigarria izan-go da zenbaketa bakoitzaren argibideak ematea.

Bizkaian, bi su-zenbaketetan oinarritu dugu gure ikerketa, 1704koan eta 1745ekoan hain zuzen ere, mendearen bigarren zatian mota honetako beste zenbaketa batzuk baldin badaude ere, 1768tik aurrera biztanleen erroldak baititugu. 1745eko su-zenbaketa Gaztelako eredia jarraituz egin zen, baina ez ziren salbuespenak egin kaparetasuna zela-eta. Aitzitik, mende hasierakoa su-zenbaketa tipikoa da eta aurreko mendeetan erabilitako iriz-pide berbera jarraituz egin zen, baina zorionez zehaztasun asko dituen ori-jinal batek gaur egun arte iraun du. Horri esker, suaren kontzeptu konplexu eta aldakorra utzi eta auzotarraren («vecino») kontzeptura igaro ahal izan gara. 1704rako su fiskal eta ez-fiskalen arteko bereizketa (fisko-su bat = hiru su ez-fiskotar, García de Cortázarren ustez) jada desagertu egin zen, baina Erdi Aroko ñabardura zaharrak mantentzen ziren oraindik. Errejimen juri-diko eta administratiboaren arteko desberdintasunak eragina izaten zuen auzotar-errolda egiterakoan. Hiribilduetan, hirian eta Enkarterrietan, *grosso modo*, Gaztelako irizpidea erabiltzen zuten —salbuespen bakarra zen En-karterrietako kontzejuren batean gizon alargun bat auzotar erdiztat hartzen zela—, baina Lur Zabalean eta Durangoko merindadean su osoak, erdiak, herenak eta laurdenak ere bazeuden eta, beraz, heren bateko hiru suk su oso bat egiten zuten eta horrela behin eta berriro. Badirudi sua zergak or-

daintzeko neurria zela: lur-sailaren hedaduraren arabera ordaintzen zen eta ez familia-kopuruen arabera eta, beraz, alargun aberats bat su oso bat izan zitekeen eta arrantzale-familia bat su laurden bat. Su = auzotar berdinke- ta egiteak akats larriak sor ditzake<sup>1</sup>, batez ere lurra lantzetik zetozen diru- sarrerek garrantzi gutxi zuten lekuetan, arrantza-portuetan adibidez: Elan- txobek, 1704an, 21 ½ su zituela jaso zen eta 40 auzotar ziren guztira. Lur Zabalean eta Durangoko merindadean batez bestekoa honakoa litzateke: su bat = 1,19 auzotar.

1704ko zenbaketa orijinala erabili izan dugula kontuan izanik, gure kalkuluak egin ahal izan ditugu eta familia bat edo gizon alargun bat auzo- tar bat zela eta emakume alargun bat, andre bat edo emakume ezkongabe bat auzotar erdia zela jo dugu. Bi zenbaketetan Orozko bailara falta dela aipatu behar da, 1784an pasa baitzen jaurreriaren mendera, eta 1745ekoan Enkarterriak ere falta dira. Kasu hauetan, oztopo txiki hori gaınditzeko es- trapolatu egin dugu.

Araban bilketa ugari dago —1683, 1724, 1733, 1737 eta 1747—, bai- na lehenengo lauen kasuan, gehienez ere herriz herri egindako laburpenak aurkitu ditugu, eta 1747koaren kasuan, berriz, notarioaren aurrean eginda- ko orijinalaren kopia bat gorde da; bertan, 1704koan bezalaxe, banan-ba- nako xehetasunak jasotzen dira. Erabilitako irizpidea errolda egin zuten ofizialek erabilitako berbera da: auzotar bakoitzak, bere egoera kontuan izan gabe (alarguna, errotua, jornalaria, bizilaguna...), osoa, eta emaku- mezkoek (alargunek, bizilagunek, jornalariak...), erdia.

Honelako orijinalak erabiltzen direnean, auzotar-erroldean oztopo na- gusiak saihesten dira: zergen banaketa arautzen duen eta ikerketa histori- koetan erabili ohi den amaierako laburpenetik auzotar pobreak eta journala- riak kentzea eta dontzeilak, emakume alargunak, bizilagunak, elikatuak, klerikoak eta goi-noblezia gutxiestea<sup>2</sup>. Honekin ez dugu esan nahi kopuru errealak ezkututzen saiitzen ez zirenik —Arrieta-Libaok 1704an bere auzo- tar-erroldearen erdia deklaratu zuen<sup>3</sup> eta 1737an Arabako probintzia Apinaniz hiribilduarekin auzitan zebilen ordaintzaile-kopurua ezkutatzegatik<sup>4</sup>—, baina benetako arazoa irizpidean dagoela azpimarratu nahi dugu, hau da, inguru bakoitzeko ohituretan eta batez ere inguru pobreetakoetan; le- geak ohitura hauek babesten zituen eta ez ziren iruzurtzat hartzen, baina

---

<sup>1</sup> *Estudios socio-económicos comarcales - Guernica*, Bilbo, 1972; liburu horretako «Ante- cedentes históricos de la comarca» idatziaren egileak ez ditu hiribilduetako auzotar-erroldek eta su-zenbaketak bereizten (78-82. orr.) eta, beste akats askoren artean, 1797ko biztanleria 1798kotzat hartzen du eta 1810ekoa 1818kotzat.

<sup>2</sup> AAA, Dekretuen 31. Liburua, 1731-1736, 43. or. *Ibidem*, Dekretuen 28. Liburua, 1719tik 1724ra. *Ibidem*, Dekretuen 31. Liburua, 1731-1736, 43. or. *Ibidem*, Arabako Dekretuen 31. Li- burua, 1731-1736, 43. or. *Ibidem*, Arabako Dekretu liburua, 1731-1736, 39. or. *Ibidem*, Araba- ko Dekretuen 32. Liburua, 1736tik 1740ra, 3. or.

<sup>3</sup> GBEA, 1704ko su-zenbaketa, Arrieta-Libaon.

<sup>4</sup> AAA, Arabako Dekretuen 32. Liburua, 1736tik 1740ra, 15. or.

biztanle-kopurua murrizten zuten zerga gutxiago ordaindu behar izateko. Kontrol-sistema uste baino perfektuagoa zen. Tazmiak, lehenagoko auzotar-erroladak eta udal bakoitzak egindako eta euren akta-liburuetan jasotako zenbaketa partikularrak zeuden eta horiek guztiak eskatzen zizkieten; horixe gertatu zitzairen 1747an Zigoitiako ermandadeari edo 1704an Begoña eta Barakaldori<sup>5</sup>.

Gipuzkoan, zoritxarrez, ez dauzkagu halako oztoporik. 1696ko Su-liburuaren arabera Carmelo Echezarayk emandako «1696ko» zenbaketa Tomás Gonzálezek argitaratutako datuekin eta «1530eko» erroldarekin bat dator; azken hori xv. mendearen amaierakoa izango da ziur asko. Vargas Poncek ondo ezagutzen zuen Argien Mendean, Gipuzkoan, demografiari buruz zegoen dokumentazioa eta 1678an probintziak «80.000 arima ez zituela» estimatzen zuen<sup>6</sup>. Badirudi Iruñeko apezpiku-barrutiarena zen Gipuzkoako helduen errolda bat 1733koa zela eta «elizetako parroko eta erretoreei galdetuz» osatu zela; J. I. Tellechea Idigorasek argitaratu zuen, baina ez zuen iturririk aipatu<sup>7</sup>. Dokumentuak, laburpenean, 14.018 familia eta 56.879 heldu ematen ditu, eta banan-banan gehituz gero kontuan hartzeko modukoa ez den oso alde txikia dagoela ikus daiteke —56. 896 heldu—.

## Erroladak biztanletan: 1768, 1787 eta 1797

Dagoeneko aipatu ditugun eta gero eta gehiago erabiltzen diren Aranda, Floridablanca eta Godoyren erroldak dira. Lehenengoari dagokionez, apezpiku-barrutika eta herrien ordena alfabetikoa jarraituz egindako kopia, Historiako Errege Akademian dagoena, erabili dugu. Kasu batzuetan, Bourgoing-en iritzian eta 1787ko erroldari egindako hitzaurrean oinarrituz<sup>8</sup>, datu

<sup>5</sup> GBEA, 1704ko su-zenbaketa, I. liburukia, 20 atz., 21 eta 8. orr.

<sup>6</sup> HEAA 71: «Estados de vitalidad y mortalidad de Guipúzcoa en el siglo xviii. Trabaxados por el Teniente de Navío D. José Vargas Ponze, director de la Rl. Academia de la Historia, 1805». Zoritxarrez zerrenda horiek hutsune larriak dituzte eta xviii. mendeko Gipuzkoako demografiari buruzko ikuspegi partziala ematen dute. Gai honi buruzko kritika bat argitaratuko dugu laister.

<sup>7</sup> *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. XXVII. urtea, 1. eta 2. koardenoak. Donostia, 1971, 173-176. orr., orijinala Iruñeko katedralean dago.

<sup>8</sup> Bourgoing, «Le gouvernement espagnol avait fait, en 1768, un dénombrement qu'il avait des raisons de croire défectueux, parce que d'abord on n'y avait pas mis beaucoup de soin, parce que, surtout, comme on était fassément persuadé qu'il avait pour objet l'établissement d'une imposition nouvelle sur les maisons, on cherche à tromper les commissionnaires par des déclarations infidèles.» *Tableau de l'Espagne moderne*, 1803, 3ème edition, I. libk., 282-283. orr.; eta 1787ko errolda: «ha creído S. Mg. ser necesario repetir la enumeración de gente, que se hizo en el año de mil setecientos sesenta y ocho; pero teniendo entendido que temerosos los pueblos de las quintas o aumento de contribuciones, ocultan las noticias, y disminuyen el número de personas...»

gutxi dituelako eta, beste batzuetan, gehiegi dituelako<sup>9</sup> zuzena ez dela pentsatu izan da. Nire iritziz, eragozpen handienak honakoak dira: alde batetik, kopia-laburpen bat izanik, transkripzioan egon daitezkeen akatsak eta, bestetik, zehaztasunetan kleroa ez agertzea eta zenbait herri eta auzoren izenak idazteko eta izendatzeko izandako zailtasunak; ez dira herri bakoitzeko biztanleak jasotzen bakarrik, bataiarria zuten parrokia-laguntzailerak guztietakoak ere bai. Izendegi bat betetzerakoan oso erraza da, beraz, parrokia nagusiaren mende zeuden beste batzuk ez aipatzea.

Floridablancaren zenbaketa da fidagarriena, hori egiaztatzeko froga handirik ez badago ere. P. Vilarren<sup>10</sup> iritzia iruditu zaigu egokiena eta Euskal Herriko orijinalen azterketak iritzi hori berresten du hein handi batean. Haatik, zenbait xehetasun aipatu behar da. Mauleón Islak Errege Aginduak «beste zerrenda-motaren batean baldin bazeuden ere, zerrenda orokorrean denak jasoz» errolda egiteko adierazten zuela ohartarazi zuen<sup>11</sup>. Azkoitiko erantzunak beste ohar hau egin zuen: «que en la enumeración de la suma general de edades están incluidos los curas, beneficiarios, sacristán y demás sacerdotes como también las religiosas de ambos conventos con sus vicarios, igualmente que los pobres y demás habitantes en el hospicio... según se previene en la Real Orden». Hala ere, Bilboko Udalak korrejidoreari egindako kontsultak, adinen araberrako zerrenda orokorretan kleroa sartzen zen ala ez oso argi ez zegoela adierazten du<sup>12</sup>. Herri gehienetan ez da erabilitako irizpidea adierazten eta, beraz, Errege Aginduak adierazitakoa egin zutela ulertu behar da. Baina zenbait herritan irtenbide bat ala bestea hartzen zela zehaztu zen edo, zehaztuta ez badago ere, anbiguotasunik gabe ondoriozta daiteke<sup>13</sup>. Kleroa kontuan hartu ez zela argi zegoen kasuetan, piramideak emandako kopuru osoari gehitu zaio. Baina, hala ere, zehaztasunik ematen ez den herrietan, adinen kopuru orokorrari bizi ziren kleriko eta erakundeetako biztanleak gehitu beharko litzaizkioken ala ez, ez dago batere argi. Argitaratutako erroldan biztanleria puztu egiten dela argi dago, piramidean kleroaren zati bat eta biztanleria

---

<sup>9</sup> Vilar, P., *op. cit.*, II. libk., 29 eta 31. orr.

<sup>10</sup> *Ibidem*, II. libk., 40. or. Izan ere, herri gehienetan egin zen zenbaketa 1786. urtean.

<sup>11</sup> Mauleón Isla, Mercedes, *La población de Bilbao en el siglo XVIII*. Valladolid, 1961, 58. or.

<sup>12</sup> *Ibidem*, 56. or.

<sup>13</sup> Gipuzkoan, argi dago kleroa Azkoitiko, Aiako, Beasaingo, Zeraingo, Orendaingo, Leinz bailarako eta Zarauzko piramideetan ageri dela; Asteasuako eta Baliarraingoan, berriz, ez. Bizkaian, Zeanuri, Dima, Bakio, Bedia, Durango, Galdakao, Lemoa, Mungia, Guenes eta Basaurikoetan bai; Arteaga, Ubide, Zamudio, Lekeitio, Abadiño, Abando, Abanto de Suso eta de Yuso, Arrazola, Axpe, Berriz, Karrantza... herrikoetan ez. Orokorrean, onuradun bat edo bi bakarrik falta dira, baina, batzuetan, kopurua handiago da, nahiz eta %10era ez den iristen; hala, bada, Abandon, piramideak 208 pertsona gutxiago ditu —5 onuradun, erregearen 4 enplegatu, soldatadunak, eta 199 erlijioso, gizonezkoak nahiz emakumezkoak; kopuru osoa, beraz, 3.051 da (2.843+208). Araban, Gesaltzan —biztanleriaren %10 ia—, Arespalditzan, Saratxon eta beste batzuetan ez da ageri, eta Laudion eta beste batzuetan, aldiz, bai.

instituzionala jasota baitago eta gero, bigarren aldiz gehitzen baitute. Antzeko anbiguotasun eta utzikeriak gertatu ziren zerbitzariekin<sup>14</sup>. Horregatik, 1797ko erroldan oharrak idatzi zituena ez zebilen oso oker konparaketak egiteko 1787ko laikoak eta klero sekularra hartu zituenean biztanleria osotzat<sup>15</sup>. Godoyren zenbaketaren Bizkaiko herriz herriko laburpen bat aurkitu dugu eta, horrek, egin zela frogatzen du, kopuru partzialak ez baitatoz bat beste errolda batzuetakoekin.

Orain arte egindako kritika literarioaren baliotasuna eta beharra baztertu gabe, berme handiagoak eskaintzen dituzten beste teknika batzuk erabiliz aurrerapauso bat ematea beharrezkoa dela uste dugu. Dena dela, zenbait zehaztasun egitea komeni da. Erroldetan egindako adinaren araberrako banaketei esker eta «batez beste hogeita hamar urteko bizitzari dago-kion hilkortasun konstanteko biztanleriaren maskulinitasun-tasa» delakoarekin egindako konparaketei esker lortutako maskulinitasun-tasen kalkuluak, konparaketak emaitza positiboa izan arren, ez ditu erroldaren fidagarritasuna eta piramidearen analisisa bermatzen eta hainbat arrazoi dago hori pentsatzeko. Maskulinitasun-tasa zentzugabea eta irregularra adinaren deklarazio akastun baten emaitza izan daiteke —adin biribilen erakargarritasuna, zahartzeko edo gaztetzeko joera, sexuen arabera desberdina...—<sup>16</sup> eta ez dauka zertan biztanle-kopurua ezkutatu. Bestalde, piramide batek biztanleria osoa jasotzen ez badu ere, herrialdearen demografi egoeraren adierazgarri izan daiteke. Edozein arrazoiengatik, inguru zabal bat falta daiteke amaierako laburpenean, Kataluniaren kasuan adibidez, eta gerta daiteke piramidea hutsune horretaz ez ohartzea. Baina, horretaz gain, ezkutatzeko sistematikoa egon daiteke adinen egitura aldatu gabe: nahikoa izango litzateke iruzurrak pertsonen gain ez baina familien gain eragina izatea, familia pobreak kanpo utziz adibidez. Horregatik guztiagatik, lehenik eta behin izendegi fidagarria erabili dugu eta herriz herri osatu dugu, zenbait herriren falta saihesteko edo antzemateko, nahiko arrunta baita erroldatan emandako herriak gehitzean honelako akatsak egitea. Hala ere, Arandaren erroldaren kasuan, posible da auzo, eranskin edo ledaniaren bat ahaztea goian adierazi ditugun arrazoiengatik. Bestalde, zenbaketa barrutik kritikatu dugu. Zenbaketa ondo egin baldin bazen, unitate-kopurua adierazten duten zifrek ausaz banatuta egon behar dute eta zeroz amaitzen diren zeinuen proportzioa %10etik hurbil egongo da. Hala, bada,

---

<sup>14</sup> Araban, Getarian (Espejo), honela azaltzen da: sei zerbitzarietatik hiru «son de lugar y están puestos en su sitio. Los otros tres son forasteros y porque toca a sus respectivos pueblos no se les pone en la lista».

<sup>15</sup> Ez ditugu zehaztasun gehiago emango, baina badira beste akats batzuk: adinak zehazterakoan egindakoak edo «klase-bereizketa» ataleko anbiguotasunak, jaioberriak ere sistematikoki laborarizat hartzen baititu eta, horrela, lehen sektorea artifizialki putzen baita.

<sup>16</sup> Henry, L., *Démographie. Analyse et modèles*. Paris, 1972, 28-29. orr.

hein batean, Arandaren errolda komunioko arimei haur-kopuruaren portzentaia proportzionala gehitzearen emaitza ote den egiaztatu ahal izango da. Azkenik, J. Nadalek egin duenaren ildotik<sup>17</sup>, ausaz ateratako zenbait herri-tako jaiotza-tasa kalkulatu dugu %40tik hurbil ote zeuden egiaztatzeko. Herri guztiak daudela egiaztatu ondoren, honako hau metodorik zorrotzena dela uste dut. Ez du erabateko ziurtasuna ematen, jakina, baina bai sinesgarritasun edo sinesgaiztasun-maila onargarri bat, eta baita kopuru probablearekiko nolabaiteko desbideratzea.

Arandaren erroldan ez dugu herri hauetako biztanleria aurkitu: Araban, Iburguren, Gordeliz, Opellora, Tobera, Villambrosa, Saratsu, San Miguel, San Pelaio, Santa Eulalia, Lasarte eta Otazu; Barruelo, Burgillos eta La Serna herrietako biztanleria Zollogeti, Karkamu eta Biasterikoetan, hurrenez hurren, sartu zela uste dut. 1787an eta probintzia berean, Ametzaga, Andoin, Araia, Arriola, Egin, Gordoia, Urabain, Iburguren, Ilarduia, Añes, Menagarai, Martioda, Aretxabaleta, Alaiza, Arburu, Arrieta, Azilu, Ezkerekotxa, Gazeo, Gereñu, Langarika, Luscando eta Trokoniz falta dira eta, ziurrenik, Inurrieta eta Jauregiko biztanleak Gilarten eta Uribarrin sartu zituzten, hurrenez hurren. Gipuzkoan, 1787ko erroldan Oñati falta zela aipatu behar da<sup>18</sup>.

Unitateen banaketak ez du ezer berezirik adierazten ez 1768an eta ez 1787an ere. Araban, 1768an eta 1787an, zenbaki bikoitiak eta bakoitiak ia proportzio berean ageri dira eta 1768an, zortzi eta bederatzizko zenbakiak dira maiztasun horretatik urruntzen diren bakarrak<sup>19</sup>.

Jaiotza-tasen kalkulari dagokionez, ezkutaketa larriak detektatzeko baino ez du balio. %35 eta %45eko koefizienteak sinesgarriak dira XVIII. menderako, baina bata edo bestea onartzen badugu biztanleria %25 inguru aldutuko litzateke. Jaiotza-tasek ez dute, beraz, benetako kopurua ematen, sinesgarria edo sinesgaitza izan daitekeen kopuru bat edo kopuru zehatza egon daitekeen tarte onargarria baizik.

Lortutako tasa guztiak posibleak dira, baina batzuek ez dirudite oso probableak. 1704, 1745 eta 1747ko zatidurak altuegiak direla eta %40ko batez besteko tasa onargarriagoa dela pentsatzen baldin badugu, ondorioztatzen den lehenengo gauza auzotar-erroldetan antzeko gutxiespen-maila dagoela da: %25 eta 30 artean gehitu beharko litzaioke lortutako kopuruari, auzotar-kopuruari 4,34 koefizientea aplikatuz. Beraz, Bizkaian, %50,99

---

<sup>17</sup> Nadal, J., «La Catalogne dans l'Espagne moderne». *Chronique in Etudes et Chronique de démographie historique*, 1964, 150. or. P. Vilarren erantzuna in «Essai d'un bilan démographique de la période 1787-1814 en Catalogne», in *Annales de démographie historique*, 1965, 53-54. orr.

<sup>18</sup> Oñatiko biztanleria, parrokiako artxibotik ateratakoa, Pablo Fernández Albadalejok eman dit. 1768an falta diren Arabako herriak 800 biztanletan estimatu ditut eta 1787koak 2.500 biztanletan.

<sup>19</sup> Bizkaiak eta Gipuzkoak herri gutxi zituzten euren banaketa adierazkorra izan zedin.

eta 51,93 tasak onartzen baditugu, 60.731 biztanle izango genituzke 1704an eta 72.391 1745ean<sup>20</sup>.

### Jaiotza-tasak zenbaketetako datuak onartzuz

|                | a)   | b) | c)         | d)     | e)    | f)    |
|----------------|------|----|------------|--------|-------|-------|
| Araba .....    | 1747 | 11 | 221,1428   | 4.302  | 51,39 | 8,55  |
|                | 1768 | 11 | 236,7999   | 6.765  | 35,00 | 10,23 |
|                | 1787 | 9  | 227,6000   | 6.215  | 36,62 | 8,76  |
| Gipuzkoa ..... | 1733 | 14 | 558,9991   | 11.000 | 50,81 | 15,24 |
|                | 1768 | 14 | 619,3852   | 16.515 | 37,50 | 15,09 |
|                | 1787 | 14 | 651,2852   | 18.306 | 35,57 | 15,33 |
| Bizkaia .....  | 1704 | 18 | 805,5279   | 15.798 | 50,99 | 26    |
|                | 1745 | 21 | 978,2993   | 18.837 | 51,93 | 26    |
|                | 1768 | 21 | 1.186,2426 | 30.546 | 38,83 | 29    |
|                | 1787 | 21 | 1.248,1853 | 33.519 | 37,23 | 29    |
|                | 1797 | 20 | 1.350,3994 | 34.271 | 39,40 | 31    |

a) Zenbaketaren data.

b) Herri-kopurua.

c) Bataioak.

d) Biztanleak.

e) Jaiotza-tasa edo zatidura milako.

f) Biztanleen laginaren portzentaia biztanleria osoarekiko.

*Oharrak:*

- 1) Bataioen kopurua zazpi urteko batez bestekoa da, zenbaketa egin zen urtea oinarritzat hartuta.
- 2) Biztanle-kopurua, su-zenbaketen edo bilketen kasuan, 4,34 koefizientea aplikatuz lortu da, 1733an Gipuzkoan izan ezik, kasu horretan c) «helduen» kopurua baita. 4,34 koefizientea, Bizkaian eta Araban 1787an jasotako erroldako biztanleria ezkontzak, gizon alargunak eta emakume alargunen erdia gehitzean lortutako kopuruaz zatitzearen emaitza da.
- 3) Zenbaketa bakoitzetik herri berberak hartzearen eta gure kalkuluaren arteko aldea oso txikia da.

Alderantzizkoa egiten badugu, hau da, zatidura handi horiek gutxiespenaren emaitza direla pentsatzen baldin badugu eta ziuurrenik %40 izango litzatekeela pentsatzen badugu, 77.425 eta 93.990 biztanle izango genituzke, hurrenez hurren, eta Araban, 50.200 biztanle eta %51,39ko tasa edo 64.500 biztanle eta %40ko tasa.

<sup>20</sup> 1704: 12.850  
       823 ½ falta diren hamar herrietako estimazioa.  
       320 Orozko bailarako estimazioa.  
       13.993 ½ auzotar bider 4,34 = 60.732 biztanle.

1745: 13.622  
       2.677 Enkarterrietako estimazioa.  
       381 Orozko bailarako estimazioa.  
       16.680 auzotar bider 4,34 = 72.391 biztanle.



Gipuzkoan, %50,81 tasa onartzen badugu 1733an, estrapolatuz probintzia osorako lortutako 72.181 «helduen» kopurua<sup>21</sup> errealitatean arimen kopuru osoa zela onartu behar dugu. Kopuru hori 17.789 familia bider 4 egin da lortutako kopurutik oso hurbil dago eta koefiziente hori helduen kopurua zati zenbaketak emandako familia-kopurua egitean lortzen denetik hurbil dago. Baina, bestalde, %40ko tasarekin 91.700 biztanle izango genituzke eta kopuru horrek eta 72.181 «helduak» biztanleriaren %83 —1787an zazpi urte baino gehiago zituzten biztanleen portzentaia— osatzen dutela suposatzean lortzen dena antzekoak dira; guztira 86.966 biztanle izango genituzke. Oraingoan ere bi estimazioak sinesgarriak dira.

1768, 1787 eta 1797. urteetarako Bizkaiko zatidurek ez dute inolako arazorik sortzen: onargarriak dira eta probintzia horretarako Arandaren, Floridablancaren nahiz Godoyren erroldak onar daitezkeela berresten dute. 1797an, berriz, Gipuzkoarako emandako kopurua, 104.491 hain zuzen ere, ez da hain fidagarria. Beharbada 114.491 errealitatetik hurbilago egongo da. Beste bi probintzietarako 1768 eta 1787an emandako tasei dagokienez, Arandaren eta Floridablancaren erroldak zuzentasun- edo inperfekzio-maila bera dutela adierazten dute eta, beraz, bata onartzen bada ez dago inolako eragozpenik bestea ere onartzeko.

1768, 1787 eta 1797ko batez besteko tasek inoiz %40 ez gaintu izanak, mendearen lehenengo erdian jaiotzaren zatidura onargarriena %40 izan zela pentsarazten du eta, beraz, biztanleriaren kopuru onargarrienak tasa horren arabera estimatutakoak direla pentsa daiteke. Hala, bada, ondorengo kopuruak izango genituzke:

### Euskal Herriko biztanleria XVIII. mendean

|            | Bizkaia |        | Gipuzkoa |        | Araba  |        |
|------------|---------|--------|----------|--------|--------|--------|
|            | a)      | b)     | a)       | b)     | a)     | b)     |
| 1704 ..... | 77.426  | 60.732 |          |        |        |        |
| 1724 ..... |         |        |          |        | 64.500 | 50.200 |
| 1733 ..... |         |        | 91.700   | 71.500 |        |        |
| 1745 ..... | 93.990  | 72.390 |          |        |        |        |
| 1747 ..... |         |        |          |        | 64.600 | 50.275 |
| 1768 ..... | 105.266 |        | 109.446  |        | 66.086 |        |
| 1787 ..... | 114.726 |        | 119.415  |        | 71.182 |        |
| 1797 ..... | 111.603 |        | 104.491  |        | 69.158 |        |

a) %40ko tasaren bidez lortutako estimazio maximoa, baina beharbada errealitatetik hurbilen dagoena.

b) Estimazio minimoa, auzotar-kopurua bider 4,34 egitetik lortua.

<sup>21</sup> 56.879 heldu = %78,80, Iruñeko apezpiku-barrutiko Gipuzkoako biztanleriaren portzentaia 1768an; 100 = 72.181.

1768 eta 1787ko datuak herriz herri egindako batuketa partzialetakoak dira. Ikus daitekeenez, jasotako erroldaren azpitik daude. Bizkaian, jasotako piramidearen azpitik ere badaude, baina Gipuzkoan piramidearen kopuru osoaren gaineratik daude eta Araban ere bai.

### **XIX. mendearen lehenengo erdiko erroldak**

XIX. mendean erroldak urritu egingo dira nahiz eta, lehenengo laurdean bereziki, asko egin ziren edo, gutxienez, programatu. Badirudi 1802an oso errolda interesgarria egin zela<sup>22</sup> eta bertan Mauleón Islak Bilbokoa aurkitu du<sup>23</sup>. *Diccionario de la R.A.H.* delakoak 1802rako emandako kopuruak ez dira zenbaketa honetakoak eta, Bizkaiari dagokionez, erabilgaitzak dira: 124 herritatik, 52ri 1797ko biztanleria esleitu zaie eta beste 26 herritako datuek Godoyren erroldatik zenbaki bakar bat dute desberdina eta inprentako akatsa dela pentsa dezakegu. Bizkaiaren kasuan, Thouvenot jeneralak eskatuta 1810. urtean egindako zenbaketaren emaitzak Gernikako juntetxeko artxiboan daude<sup>24</sup>; Gipuzkoakoak eta Arabakoak, berriz, Arabako Foru Aldundiko artxiboan daude, H. 160. legajoa; Gipuzkoako datuak biribilduegiak daude eta Arabakoek hutsuneak dituzte. Araban, frantziarrek alde egin ondoren, estatistika bat egin zen: «Estadística general de los habitantes, casas, molinos... ganados... bienes concejiles enajenados y cosecha de los dos últimos quinquenios (1803-1807 y 1808-1812)». Herri batzuk falta dira. Hori eta 1810ekoa egiteko Godoy eta Floridablancaren ereduak hartu ziren oinarritzat eta haiei egindako oharrek hauetarako ere balio dute<sup>25</sup>.

1825 inguruan argitaratutako zenbaketek balio desberdinak dituzte: Miñanoren hiztegiak eskaintzen duena, poliziarena —1825ean egin zen eta Madozen hiztegian dago jasota kopuru osoa— eta herriz herri egindako zerrenda bat, iturririk aipatzen ez duena eta Gernikako juntetxeko artxiboan dagoena<sup>26</sup>. Miñanoren hiztegiko Bizkaiko 124 herriei dagokienez, 49k 1802ko *Diccionario de la R.A.H.*-n esleitzen zaien biztanle-kopuru berbera dute eta horietako batzuk 1797ko erroldan jasotako kopuruak dira. Horretaz gain, beste hamaika kopuru bat datoz Godoyren erroldako datuekin eta beste hamaikak 1802ko datuetatik zeinu bakarra dute desberdina —Ubideak, 426 1802an eta 416 1826an; Ereñok 457 eta 467,

---

<sup>22</sup> 1802an zehaztasun asko jasotzen zituen galdeketa bat-bidali zen herrietara; hirurogeita bost galdera orokor eta hogeita bost galdera «politiko» zituen eta demografiari buruzkoak ziren gehienak, osasunari buruzkoak barne. Samaniegoko Parrokiako Artxiboan aurkitutako datuak dira.

<sup>23</sup> Mauleón Isla, M., *op. cit.*, 61. or.

<sup>24</sup> GBEA, EETC, 1. zkia., 1799tik 1828ra arteko urteak.

<sup>25</sup> AAA, H. 35etik 38ra bitarteko legajoak eta Durangoko Udal Artxiboa, dokumentu zaharrak.

<sup>26</sup> GBEA, EETC, 1. zkia., 1799tik 1828ra bitarteko urteak.

hurrenez hurren—; kopiatzerakoan egindako akatsa izan daiteke. Hamalau herri baino ez datoz bat 1826ko zerrendarekin. Hiztegi horren erabilera baztertzeko nahikoa arrazoi dela uste dut, nahiz eta historialari eta geografok askotan erabiltzen dituzten zenbaketa horiek, indizeak egiteko oinarri gisa ere bai. Poliziaren erroldari dagokionez, Lekeitio eta Bilbo-ko orijinalak erabili ditut eta bertan kaleka eta atarika datu asko daude jasota: biztanleen izenak, adinak, ogibideak, jatorriak, zenbat denbora daramaten bertan bizitzen eta Bilbon, zenbait kasutan, joera politikoa ere bai. 1826ko zerrenda, Bilboren kasuan, %2,75 azpitik dago eta Lekeitioaren kasuan, %17,21; guztira, biztanleria osoa, Madozek eskainitako polizia-erroldaren kopuru osoa baino %29 txikiagoa da<sup>27</sup>. Azken horrek bere hiztegiaren garai berean emandako kopuruek Miñanorenaren antzeko akatsak dituzte: Bizkaiko 36 herritan 1826ko zerrendan ageri diren zenbaketak errepikatzen dira. Azkenik, 1857ko errolda dago. Zehaztasun estatistikoa duen lehenengo errolda dela esaten da eta 1768 eta 1787koek duten zehaztasun berberarekin egin zela dirudi. Egileek barkamena eskatu zuten emaitzak argitaratu zirenean: «No es, Señora, el resultado que tengo la honra de presentar a V. M. de aquellos en que cabe la seguridad de una exactitud completa», «en la clase de las [poblaciones] medianas es donde recaen mayores sospechas de casos de ocultación intencional y maliciosa, porque el interés les avisa y recuerda que al crecimiento sigue la elevación de categoría, con aumento de cuotas en el pago de ciertos impuestos y cargas». Espainiako biztanleria osoa 15.464.340koa zen, baina ohar bat egingo dute: «La Comisión no está penetrada de la rigurosa precisión de esta suma; piensa al contrario que debiera resultar mayor», eta benetako kopuruak ezkutatu egin zirela, «los albergues destacados» delakoen zenbaketa ezegokia egin zela, sakabanatutako habitataren arazoak etab. azpimarratu zituzten<sup>28</sup>. Zenbaketa hori jasotzen duten garai hartako bi argitalpen daude: bata zehaztasun handikoa da izendegiari dagokionez, auzoak ere aipatzen baititu; horrela uler daiteke Mungia hiribilduko biztanle-kopurua 1.863koa dela aipatzea, baina errealitatean 592 + errebaleko 118 = 710 dira eta gainontzekoak hiribilduan auzotutako Bakio, Derio, Fruiz, Gamiz, Lemoiz, Maureolas eta Morgako etxeetakoak dira; bestea ez da horren zehazta, baina piramideak ditu. Lehenengoa hazkundeak eta dentsitateak ezartzeko erabili dut eta bigarrena biztanleriaren egitura zehazteko.

Laburtuz, azterketa-lanaren oinarriak hiru dira: Bizkaia eta Arabako XVIII. mendearen lehenengo erdiko auzotar-erroldak, Aranda eta Florida-blancaren erroldak eta 1857ko errolda. Hala ere, ez ditugu horregatik 1797 eta 1810eko zenbaketak eta polizia-errolda baztertzen, onargarriak

<sup>27</sup> XIX. mendearen bigarren laurdenerako beste zenbaketa batzuk ere badaude, baina akatsak dituzte eta aipatzea ere ez du merezi; horien artean, 1846ko katastroko matrikula.

<sup>28</sup> *Nomenclátor de los pueblos de España, formado por la Comisión de Estadística general del Reino*. Madril, 1858, hitzaurreko orr., III eta V.

direla pentsatzen baitugu. Hiru probintzietarako datuak ez ditugunez edo batzuetan oso biribilduak daudenez (horixe gertatzen da Araban 1810ean), edo herrien izendegia eta dagozkien kopuruak ez ditugunez, 1825ekoan gertatzen den bezalaxe, nahiago izan dut ez erabiltzea. Gainera, XVIII. mende hasierako datuen eta 1787ko eta 1857ko errolden bidez mende horretako eta XIX. mendearen hasierako hazkundea erraz zehaz daiteke.

### Demografiaren hazkundea: desoreka

Hiru probintzietarako garai bereko zenbaketak 1768ra arte ez ditugunez, zaila da konparaketak egitea. Dena dela, oso argi antzematen dira probintzien arteko desberdintasunak. Bizkaia eta Gipuzkoako hazkunde-tasak oso antzekoak izan ziren —%0,47 eta %0,49, hurrenez hurren, estimazio handiena onartuz— eta barneko probintziak, aldiz, hazkunde-tasa txikiagoa izan zuen, %0,16koa besterik ez. Bizkaia eta Arabako datuez fidedatzen bagara, lehenengoak XVIII. mende osoan izan zuen hazkundeak tasa uniforme mantendu zuen —aipatutako %0,47 mende osoan—, eta Arabak, berriz, mendearen lehenengo erdian ez zuen hazkunderik izan eta bigarreanean, berriz, oso handia<sup>29</sup>.

**Hazkunde-tasak**

|                                | a)    | b)    |
|--------------------------------|-------|-------|
| Bizkaia (1704-1787) . . . . .  | %0,47 | %0,76 |
| Gipuzkoa (1733-1787) . . . . . | %0,49 | %0,95 |
| Araba (1724-1787) . . . . .    | %0,16 | %0,56 |

a) Lehenengo zutabeko (a) datuen bidez kalkulatu, 118. or.

b) Bigarren zutabeko (b) datuen bidez kalkulatu, 118. or.

### Biztanleen antolamendua: desoreka banaketan

Arabaren eta Gipuzkoan, mende hasierako kopuruen herriz herri egindako zenbaketarik ez dagoenez, ezinezkoa da biztanleen antolamendua kalkulatzeari, baina 1787ko erroldak ematen duen multzoaren irudia mende-hasierarako ere baliagarria izango da ziurrenik; Araban 1747an egindako bilketa hipotesi horren aldeko testigantza egokia da.

<sup>29</sup> Emaiza hauek ikusita, Francisco Bustelok «Algunas reflexiones sobre la población española de principios del siglo XVIII», *Anales de economía*, 15. zkia, 1972ko uztaila-iraila, 106. or., artikuluan Espainia osorako egindako oharak zentzuzkoak iruditzen zaizkigu. Ez dugu uste Campofloridoren garaian Gaztelako biztanleria katastroan jasotakotik oso urrun ibiliko zenik, gehienez ere %10 txikiagoa izango zen.

Kostaldeko probintzien eta barnealdeko probintziaren arteko desberdintasunak begien bistakoak dira. Lehenengo bietan biztanle gehiago zeuden eta erregularri banatuta zeuden, Gipuzkoan bereziki. Arabak, iparmendebaldean, erdialdean —hiriaren ekarpenagatik— eta Errioxan izan ezik, Gaztelaren antzeko demografi egitura zuen: 1747an probintzia gehienez 20 biztanle/km<sup>2</sup> baino gutxiago zeuden eta inon ez zegoen 50 biztanle baino gehiago. Bizkaian, 1704an herri gehienetan zeuden 20 biztanle/km<sup>2</sup> baino gehiago; 40tik gora zutenak ere asko ziren eta zenbait tokitan 70etik gora ere bazeuden. Egoera hori mantendu egin zen 1787an eta 1857an. XVI. mende amaierako eta XVII. mendeko beheraldiaren ondorioek hurrengo bi mendeetan iraun zuten eta industri iraultzak desberdintasunak areagotu egin zituen.

### **1787: dentsitateak eta «nekazaritzako» «per capita» produktu gordina**

Salbuespen gutxi batzuk izan ezik, kostaldeko bi probintzietako herri guztiek 20 biztanle/km<sup>2</sup> baino gehiago zituzten eta asko ziren 70 eta 100etik gora ere zituztenak: Bermeo (126), Bilbo eta inguruak (279), Getxo (123), Gernika-Lumo (227), Mundaka (368), Ondarroa (286), Portugalete (328)..., Alegia (100), Berrobi (104), Elgeta (121), Gabiria (205), Soraluze (144), Donostia (166), Tolosa (115)... Nerbioiren itsasadarren bi aldeak, kostaldea eta Oria bailara dentsitate handiek iraun zutelako nabarmendu ziren. Gipuzkoan biztanleriaren dentsitatea Bizkaian baino handiagoa izateaz gain, biztanleriaren banaketa ere egokiagoa zen. Gipuzkoan oso gutxitan gaintzen zen 200 biztanle/km<sup>2</sup> kopurua (Gabiria, 205) eta Bizkaian, aldiz, kopuru hori erruz gaintzen zuten zazpi herri zeuden. Aitzitik, 50 eta 69 bizt./km<sup>2</sup> baino gehiago zituzten inguruak ugariagoak ziren Gipuzkoan. Bizkaiko jaurrerria, goi-mailako jendeak hala ulertzen ez bazuen ere, Bilbo zen; Gipuzkoa, berriz, probintzia. Gipuzkoako oreka administrazioan eta gobernu politikoan irudikatu zen: batzarrak ez ziren beti leku berean egiten eta urte bakoitzean hiribildu batean egiten ziren.


Bizkaian, 70 biztanle/Km<sup>2</sup> baino gehiago zituzten hogeitaherrietatik, hamabi kostaldean edo kostaldetik oso hurbil zeuden; batzuk merkataritzatik bizi ziren (Bilbo), beste batzuk arrantzatik eta kabotajetik (Bermeo, Lekeitio, Mundaka, Ondarroa, Portugalete, Santurtzi, Ibarangelu-Elantxobe) eta industriatik (Durango, Otxandio, Balmaseda, Areatza, Ermua), eta gainontzeak nekazaritzatik eta, zenbait kasutan (Etxabarri, Sukarrieta, Isasti, Gorkiz, Getxo eta Urduliz), hurbil zegoen porturen bateko lanetik. Administrazio zereginak Gernikan bakarrik ziren biztanleria-kopuru handi baten sostengu<sup>30</sup>.

---


<sup>30</sup> Gernikak 1787ko errolari emandako erantzuna eta AHN, Consejos, 1357. legajoa, 14. zkia., 13. or. atz.




**Bizkaia, 1704.**  
Dentsitatea biztanle/km<sup>2</sup>-tan



**Euskal Herria, 1787.**  
Dentsitatea biztanle/km<sup>2</sup>-tan



Araba, 1747. Dentsitatea biztanle/km<sup>2</sup>-tan



Euskal Herria, 1857. Dentsitatea biztanle/km<sup>2</sup>-tan

1787an 70 bizt./km<sup>2</sup> baino gehiago zituzten Bizkaiko hogeit hamar herriak

|                   | A     | B   | C   |   |
|-------------------|-------|-----|-----|---|
| Bermeo.....       | 127   | 59  | %62 | Arrantzaleak eta arrantza-<br>ren inguruko lanbideak.   |
| Bilbo.....        | 280   | 19  | %58 | Merkatariak eta artisauak.  |
| Durango.....      | 90    | 59  | %45 | Artisauak eta merkatariak.  |
| Etxabarra.....    | 76    | ?   |     | Denak nekazariak.   |
| Ermua.....        | 74    | 17  | %52 | Artisauak.  |
| Gorliz.....       | 78    | 114 |     | Ez da zehazten.   |
| Getxo.....        | 123   | 140 |     | «Como la mitad labradores<br>y otros navegando en<br>navíos y pesquería, ejer-<br>ciendo muchos de ellos<br>ambos oficios». |
| Gernika-Lumo..... | 227   | 60  | %44 | Errentatzaileak eta fun-<br>tzionarioak.  |
| Ibarrangelu.....  | 81    | 122 |     | Gehienak «se ejercitan en<br>la mar y cultivan tierras<br>juntamente».  |
| Lekeitio.....     | 1.088 | 104 |     | Arrantza-portua.  |
| Mundaka.....      | 369   | 50  |     | «Los varones desde siete<br>años arriba trabajan en<br>el mar y en la labranza<br>conjuntamente».                           |
| Otxandio.....     | 182   | 67  | %80 | Artisauak eta mandazai-<br>nak.   |
| Ondarroa.....     | 286   | 95  |     | Arrantza-portua.  |
| Sukarrieta.....   | 159   | 267 |     | Gehienak nekazariak.  |
| Portugalete.....  | 328   | ?   | %40 | Marinelak, merkatariak,<br>artisauak eta fabrika-<br>tzaileak.  |
| Santurtzi.....    | 87    | ?   | %93 | Nekazari-lanak ere egiten<br>dituzten arrantzaleak eta<br>jornalariak alde batetik<br>eta, bestetik, artisauak.             |
| Urduliz.....      | 77    | 178 |     | Gehienak nekazariak.  |
| Balmaseda.....    | 86    | ?   | %60 | Artisauak.  |
| Areatza.....      | 75    | 53  |     | Artisau asko, kopuru ze-<br>hatza zehaztu ezin den<br>arren.  |

A: dentsitateak biztanle/km<sup>2</sup>-tan, 1787an.

B: «Nekazaritzako» *Per Capita* Produktu Gordina errealetan (1771-1775). Bizkaiko batez bestekoa, 110 erreal.

C: fabrikatzaileen, artisauen, arrantzaleen eta abarren portzentaia, biztanleria osoarekiko kalkulatua eta artisau, merkatari... bat 4,34 dela estimatuz, hau da, beren familiak ere kontuan hartuz, 1787ko erroldak eskainitako kopuru edo informazio kualitatiboaren arabera.



Gipuzkoan errealitate hori zehatzagoa zen. Dentsitate altuen banaketa Bizkaian zegoenaren antzekoa zen: zenbait portutako jarduera nagusiak arrantza, urrutiko merkataritza eta kabotajea ziren; horien artean, Getaria (104 bizt./km<sup>2</sup>), Zarautz (104), Pasaia (114), Donostia (166) eta Mutriku (82), baina Debak 53 baino ez zituen. Barnealdean, *grosso modo*, Gatzaga-Bergara-muga frantsesa errege-bideak zeharkatuko duen zerrenda: Arrasate (82 bizt./km<sup>2</sup>), Urretxu (96), Zumarraga (77), Itsaso (83), Gabiria (205), Ormaiztegi (75), Ordizia (111), Lazkao (84), Baliarrain (81), Legorreta (85), Alegia (100), Tolosa (115), Berrobi (104), Belauntza (62) eta Ikaztegieta (100). Industria oinarri zuten zenbait herri txikiz eta nekazaritzan aritzen ziren beste zenbaitez osatutako ingurunea zen. Batzuen eta besteen garapenak merkataritza-jarduera handia ahalbidetu zuen. Tolosak, Nafarroatik, Gipuzkoako barnealdetik eta Donostiatik iristen zitzaizkion produktuak bildu eta berriro banatzen zituen. Industria, nekazaritza eta merkataritzako sektoreen arteko osagarritasun hori izango da Gipuzkoako barnealdeko ezaugarria. Hala, bada, dentsitate handiko eta «Nekazaritzako» Per Capita Produktu Gordin («N»PCPG) txikiko manufaktura-hiribilduak ditugu, hala nola Arrasate, Soraluze eta Tolosa edo erdipurdiko nekazaritza eta artisau ugari dituztenak, hala nola Ordizia eta Urretxu. Azter ditzagun adibide zehatz batzuk, probintziako batez besteko «N»PCPGa 120 errealekoa zela eta horrekin elikadurarako premiak asetzen ez zirela kontuan izanik.

**1787an Gipuzkoan 70 bizt./km<sup>2</sup> baino gehiago zituen zenbait herri**

|                   | A   | B   | C     |
|-------------------|-----|-----|-------|
| Arrasate. ....    | 82  | 83  | 45,32 |
| Soraluze. ....    | 144 | 109 | 51,57 |
| Tolosa. ....      | 116 | 111 | 40,07 |
| Ordizia. ....     | 112 | 129 | 22,34 |
| Urretxu. ....     | 96  | 103 | 16,60 |
| Hondarribia. .... | 84  | 68  | 53,29 |

A: 1787ko dentsitateak.

B: «N»PCPGa («Nekazaritzako» Per Capita Produktu Gordina): 1771-1775. Gipuzkoako batez bestekoa, 120 erreal.

C: fabrikatzaileen, artisauen, merkatarien, arrantzaleen eta euren familien portzentaiak biztanleria osoarekiko, Floridablancaren erroldaren arabera; aurreko koadroan jarraitutako sistemaren bidez kalkulatu.

Beste herri batzuek, aldiz, hala nola Altzagak («N»PCPGko 329 erreal), Baliarrainek (226), Ikaztegietak (352), Itsasok (265) eta Zaldibiak (197), 70 bizt./km<sup>2</sup> baino dentsitate handiagoak zituzten, baina

probintziak zuen «N»PCPGko 120 errealak erraz gainditzen zituzten eta sinesgarria da nekazaritzan zuten soberakina inguruko manufaktura-herrietako eskaeraren arabera zegoela. Oro har, dentsitate handiko zenbait toki industrian, merkataritzan eta arrantzan oinarritzen zen; inguru horietako biztanleek, soberakinak zituzten gertuko herrietan erosten zituzten elikagaiak, Arabatik inportatzen zituzten eta itsaso bidez atzeritik ere ekartzen zituzten. Beste herri batzuek nekazaritza baino ez zuten garatu.

Baina dentsitate handiko inguruek ez zuten Bizkaia eta Gipuzkoa osoa hartzen. Bi probintzietako zatirik handiena, autosufizienteak izateko zailtasunak zituzten herriek osatuta zegoen eta herri horietako biztanleriak emigratu egiten zuen (Aiaren kasua adibidez) edo jarduera osagarrietan aritzen zen, hala nola ikatza egiten, zuhaitzak botatzen, gurdiak egiten... Orokorrean, beren «N»PCPGa 120 errealetik gorakoa izan ohi zen, baina kopuru horrekin ezinezkoa zen beti behar guztiak asetzea. Horixe gertatzen zen Zestoan, Elduaenen, Berastegin, Ataunen, Zegaman eta beste herri batzuetan<sup>31</sup>.

Arabara iristean, bat-batean, sakabanatutako populatze ugaritik herri txikietara pasako gara, 20 bizt./km<sup>2</sup> baino gehiago ez duten herrietara hain zuzen ere. Gasteizko inguruko errealtatea adierazitakoaren antzekoa zen, baina hirian bizi zen biztanle-kopuru handiak ezkututzen zuen eta inguru horretan izan ezik, iparmendebaldean eta hegoaldean bakarrik zeuden kostaldean zeudenen antzeko dentsitateak. Iparmendebaldeko euriei esker artoa landatzea posible zen eta inguru hura Bizkaiaren antzekoa zen paisajeari nahiz produktuei zegokienez. Errioxan, mahastiari esker, mui-noen gainean eraikitako eta gotortutako herri handietan biltzen zen biztanleria (Biasteri adibidez); beste batzuk, Bastida esate baterako, eliza-gotorleku txiki batek babestutako mendi-hegaletik bidera jaitsi ziren. Toki bateko nahiz besteko bizimoduak oso desberdinak ziren eta ezin dira erlazionatu. Errioxako dentsitateak, nekazaritzako per capita errenta gordin altuak zituzten merkaturatutako nekazaritzan oinarritzen ziren: Eltziegok 651 erreale; Bastidak 438; Samaniegok 377; herri guztiek Arabako batez bestekoa, 307 errealekoa, gainditzen zuten. Aitzitik, Laudiok eta Lezamak, iparmendebaldean zeuden arren, 186 eta 162 zituzten hurrenez hurren eta, beraz, ez ziren Arabako batez bestekora iristen, baina Bizkaia eta Gipuzkoako batez bestekoak gainditzen zituzten. Arabako gainontzeko tokitan, paradoxikoa dirudien arren, nekazaritzako per capita errenta gordin altuak baina dentsitate txikiak dituzten inguruak ditugu. Nekazaritzaren

---

<sup>31</sup> *Diccionario de la R.A.H.*-k azalduakoa egiaztatzen duten herri bakoitzaren datu kualitatibo ugari ematen du. Jakina denez, salbuespenak ere baziren; Alkizak 42 biztanle zituen kilometro karratuko eta 221 errealeko «N»PCPGa, beraz, bere produkzioak kontsumoa erraz gainditzen zuen.

oparotasunak eta soberakin handiak ez du biztanleria-dentsitate handia zegoela esan nahi.

1857an, 70 bizt./km<sup>2</sup> baino gehiago zuten tokiak gero eta gehiago ziren, baina ez zen dentsitateen birbanaketarik gertatu, ez eskualde-mailan eta ez probintzia-mailan.


### **Hazkundeak: 1704-1787, 1747-1787<sup>32</sup>**

Datu erabilgarriak Bizkaikoak (1704-1787) eta Arabakoak dira, azken horrentzat mendearen bigarren erdikoak bakarrik (1747-1787). Bizkaiko biztanleria bikoiztu zuten gunek probintzia osoan sakabanatu ziren, nahiz eta iparreki alde nabarmendu zen bereziki.


Hazkunde txikia izan zuten gunek mendebaldekoak izan ziren, Enkarterrietakoak: Karrantza, Turtzioz, Garape, Zalla eta Galdames. Biztanleriaren hazkunde handiek (%100 baino handiagoek) portuetan —Plentzia, Bermeo, Mundaka, Ondarroa—, nekazaritza-inguruneetan —Morga, Forua, Lumo, Arbatzegi...—, industriaguneetan —Ubidea, Otxandio...— nahiz merkataritza-inguruneetan —Portugalete...— izan zuten eragina. Baina zehaztu egin behar da. Ez dira gauza bera Portugalete, Deustua, Lumo, Otxandio, Ondarroa, Mundaka, Sukarrieta edo Lekeitioko hazkundeak eta Morga, Errigoiti, Zeanuri eta beste askotakoak; lehenak, 75 bizt./km<sup>2</sup> baino gehiago zituzten eta besteek, 1704an, ez zituzten 25 bizt./km<sup>2</sup> baino gehiago. Hasieran 75 bizt./Km<sup>2</sup> baino dentsitate handiagoa zuten herriak eta laurogeita hiru urte horietan euren biztanle-kopurua bikoiztu zutenak oso gutxi ziren: Portugalete, Otxandio, Ondarroa, Mundaka, Lumo eta Sukarrieta, hau da, azkena izan ezik, nekazaritza-koak ez ziren jarduerak egiten zituzten elizateak: arrantza, merkataritza eta artisautza. Baina herri horien hazkundera ez zen gertatuko nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak egiten zituzten esparruetan ere biztanle-kopurua bikoiztu eta, zenbait kasutan, hirukoiztu ere egin ez bazen. Probintzia txiki bat, Bizkaia, nahitaez gaingaitu behar zuen alor bateko eskaera orokorraren handitzeari esker garatu ziren nekazaritza-koak ez ziren jarduerak garrantzitsuak. Otxandio, Zeanuri eta Ubidea herriek, hurrenez hurren, 102,01, 113,22 eta 105,89ko hazkunde-portzentaiak izan baldin bazituzten, produktu siderurgikoen (iltzeak, ferrak, aitzurrak...) eskaera handitu zelako gertatu zen; produktu siderurgikoen eskaera handitu bazen, etxeen, gurdien eta, oro har, luberritutako inguruen kopurua ere handitu zelako izan zen.

---

<sup>32</sup> 1704ko eta 1747ko auzotar-eroldak gutxietsita dauden arren, hazkundeak eta dentsitateak auzotar-kopurua bider 4,34 eginez kalkulatu dira. Ziurrenik, hazkundeak ez ziren horren handiak izan, baina horrek ez ditu gure oharrak balio gabetzen.



**Bizkaia, hazkundeak:  
 1704tik 1787ra**



**Araba, hazkundeak:  
 1747tik 1787ra**

Arabian, bateratutako zortzi herrik baino ez zuten lortu euren biztanleria bikoiztea. Hiru, probintziako inguru hezean, hau da, artoa ereiten zen inguruan, zeuden kokatuta: Lezama, Laudio eta Aramaio; azken horretan ola edo sutegi ugari zegoen. Beste hiru Errioxan zeuden: Eltziego, Nabaridas eta Labraza; inguru honetako biztanleria izan zen gehien ugartitua zena mende honetan, aipatutako herriez gain, Kripan, Leza, El Villar, Samaniego eta Uriona herrietako hazkundera ere %75 eta %99 artekoa izan baitzen.

### Nekazaritzan oinarritutako hazkunde baten mugak: 1787-1857

Miñano eta Madozen datuetan eta zenbait argitarapenek kopuru osoak jasotzeko erabili dituzten kalkulu eta «erroldean» oinarritu izan bagina, XIX. mendearen lehenengo berrogei urteetan geldialdi sakona egon zela eta Lehen Karlistadaren ondoren hazkunde ikaragarria gertatu zela «egiaztatuko» genuke. Baina Pablo Gorosabelek 1844an Gipuzkoako biztanle-kopurua eman zuenean —109.879—, kopuru hori zehatza ez zela adierazi zuen<sup>33</sup>. Adierazpen edo ohar hori garai hartako zenbaketa guztietan egin beharko litzateke<sup>34</sup>, salbuespen bakarrarekin: 1825eko polizia-errola. Floridablancaren erroldaren eta 1857koaren artean, fidagarriena eta seguruen da.

#### XIX. mendearen lehenengo erdiko biztanleria Euskal Herrian<sup>35</sup>

|            | Bizkaia | Gipuzkoa | Araba     |
|------------|---------|----------|-----------|
| 1787 ..... | 114.726 | 119.415  | 71.182    |
| 1797 ..... | 111.603 | 104.491  | 69.158    |
| 1810 ..... | 112.920 | 115.587  | c. 70.000 |
| 1813 ..... | —       | —        | 63.275?   |
| 1825 ..... | 144.875 | 135.838  | (92.807)  |
| 1857 ..... | 160.579 | 156.493  | 96.398    |

<sup>33</sup> Gorosabel, *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*, I. libk., 66. or.

<sup>34</sup> «Errola» horietako batzuk ikusteko: 1819 eta 1820rako, P. Gorosabel, *op. cit.*, I. libk., 65. or., edo 1840rako, EETC, I. zkia., in GBEA.

<sup>35</sup> Iturriak: 1810, *Bizkaia*, herriz herriko zerrenda, 1810ekoa, orri solte batean aurkitua in EETC, I. zkia., 1799tik 1828ra bitarteko urteak. GBEA. *Gipuzkoa*: «Estado de los clérigos que hay en esta Provincia, de Guipúzcoa, con expresión de los curas, beneficiados, capellanes, sus rentas y obligaciones: el número de havitantes por cada población... cuio estado es conforme a las razones remitidas por los pueblos.» Dokumentuaren zati bat Donostian, 1811ko apirilaren 27an datatuta dago. AAA, 160. H. *Araba*: «[Plan] que manifiesta el nú-

1787 eta 1857 artean dauden hirurogeita hamar urteetan, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako urteko hazkunde-tasak %0,48, %0,38 eta %0,43 izan ziren, hurrenez hurren. Barnealdeko probintziak aurrerapen handia egin zuen eta Bizkaia XVIII. mendeko tasa mantendu zuen; Gipuzkoa, berriz, gutxien hazi zena izan zen. Baina aurreko mendearekin egiten diren konparaketak ez dira zuzenak, XVIII. mende hasierako errolden data desberdinen erruz. Hala ere, badirudi Arabak erritmoa azkartu zuela eta Gipuzkoa ez zela hainbeste hazi. Urteko %0,40 inguru ibili ziren eta portzentaia hori gainditu ere egin zuten tasa hauek oso handiak direla pentsatu behar da, ezin baita ahaztu 1787 eta 1857 artean hiru gerra egon zirela eta horietako bat zibila gainera. Gerrak egon arren, oro har, aurreko mendeko tasak mantendu izanak, alde batetik, demografiaren egituran aldaketa sakonak gertatu zirela adierazten du eta, bestetik, gerragatazkek, modu tristean bada ere, industri iraultzarik gabeko hazkunde bat arindu zutela.

1787ko kopuruek XVIII. mendean egon zen kopururik handiena adierazten dute; Godoyren erroldako, 1810eko eta 1813ko datuek ez dituzte kopuru horiek gainditzen. 1797ko zenbaketa egin aurretik 1793ko inbasio frantsesa gertatu zen eta, Gipuzkoan batez ere, ondorio larriak izan zituen; bestalde, 1810 eta 1813ko erroldak Independentziako Gerran egin ziren. Beheraldia bi mendeen artean gertatu zen, beraz: XVIII. mendeko azkeneko hamarkadan eta XIX.eko lehenengoan. Gero, 1787ko maila berreskuratuko da eta gainditu ere erraz gaindituko da. Karlistadak ez zuen goranzko joera aldatu hiru probintzietan; erritmoa moteldu zen, baina besterik ez.

XIX. mendearen lehenengo erdian eskualde onuradunak ugaritu ziren, baina, hala ere, dentsitateen banaketa ez zen aldatu. 1857ko mapak aldaketa txikiak ditu 1787koarekiko: 70 biztanle/km<sup>2</sup> baino gehiago eta baita 100 baino gehiago ere dituzten inguru ugari; baina dentsitate handiko eta

---

mero de pueblos, habitantes, beneficiados, curas, capellanes, sus rentas, cargas y obligaciones e Iglesias de esta M. N. Provincia de Alava». Gasteizen datatua, 1810eko maiatzaren 2an. Herri guztien artean egiten duten kopurua 63.529koa da, baina Gasteiz eta beste hamar herri falta dira; azken horiek gehituz gero 70.000 biztanle izango genituzke. AAA, 160. H. GBEAn, EETC, 1. zkia., 1799tik 1828ra arteko urteak, orri solte batzuetan, 1813an Araban ermandadeka zeuden arima-kopurua ageri da, eta kopuru osoa 63.275 da. 1813: Araba, dagoeneko aztertutako errolda. 1825: Polizia-errolda. *Vizcaya*, Madoz, *op. cit.*, *Guipúzcoa*, Madoz, *op. cit.*, IX. libk., 121. or.: Madozek ez du Arabarentzat kopururik ematen, baina *Ensayo histórico sobre las provincias vascongadas*, Bordele, 1836, 64. or., frantsesetik Pedro Martínez Lópezek itzulitako egile ezezaguneko liburuan Bizkaian 144.875, Araban 135.838 eta Gipuzkoan 92.807 kopuruak ageri dira. Ohartuko zinetenez, Bizkaiko kopurua Madozek polizia-erroldakoa dela esaten duena da eta Arabari Gipuzkoari dagokiona ematen dio. Beraz, Gipuzkoari emandako kopurua, hau da, 92.807, Arabak 1825ean zuen biztanleria izango da ziurrenik. Iturri beraren arabera, Espainia osoko biztanleria-kopurua 14.154.341 biztanlekoa zen. Madoz, IX. libk., 121. or. Hala, bada, Arabako kopurua ziurtasun handirik gabe ematen dugu. 1857: errolda ofiziala.

txikiko tokiak eskualde berberetan daude. XVIII. mendean hazkunde indartsua izan zuten herri gehienek lortutako abantaila mantendu zuten; beste batzuek handitu egin zuten. XVIII. mendean hain egoera ona ez zuten inguru batzuen aldeko oreka gertatu zen arren, ezin daiteke esan dentsitateen birbanaketarik gertatu zenik.

Oro har, mende eta erdiko hazkundeak biztanleen banaketaren zirriborroa egin zuen eta industri iraultza garatzen hasi zenean banaketa hau finkatu egin zen: kostaldea, Nerbioiren itsasadarraren bi aldeak, Durango-Eibar-Soraluze-Bergara-Beasain-Tolosa-Donostia-Irun ardatza eta Araban, Gasteiz eta, maila txikiagoan, Errioxa. XVIII. mendean bezalaxe, Nerbioiren itsasadarra eta Gasteiz bi probintzietako buru izango dira; aitzitik, Donostiak ez ditu Gipuzkoako gainontzeko herrietako jarduerak eta izaera ilunduko.

### Biztanleriaren egitura

XVIII. mendeko hirugarren eta laugarren laurdenean ez ziren akzidente demografiko garrantzitsuak gertatu: hornigaien krisialdiren bat egon zen, zituekin egindako espekulazioek larriagotu zutena eta, horren ondorioz, 1766an altxamendua gertatu zen Gipuzkoan, baina ez ziren ez goseteak eta ez izurriak egon. Gorabehera handirik izan ez zuen hazkunde hau 1787ko piramideetan jasota dago.

#### 1787ko biztanleriaren banaketa adin-tarteka eta ehunekoka

| Adinak       | Araba  |       | Gipuzkoa |       | Bizkaia |       | Espainia |       |
|--------------|--------|-------|----------|-------|---------|-------|----------|-------|
|              | G      | E     | G        | E     | G       | E     | G        | E     |
| 0 - 7 ....   | 9,04   | 8,70  | 8,63     | 8,35  | 8,85    | 8,85  | 9,32     | 8,91  |
| 7 - 16 ....  | 8,45   | 8,10  | 9,35     | 8,80  | 8,64    | 8,39  | 9,07     | 8,60  |
| 16 - 25 .... | 7,25   | 7,55  | 7,59     | 8,74  | 7,29    | 8,59  | 7,81     | 8,07  |
| 25 - 40 .... | 10,91  | 10,91 | 9,34     | 10,81 | 9,82    | 11,40 | 10,74    | 11,02 |
| 40 - 50 .... | 6,32   | 6,58  | 5,26     | 6,21  | 5,53    | 6,38  | 5,85     | 6,05  |
| + 50 ....    | 7,74   | 8,40  | 7,22     | 9,64  | 7,07    | 9,13  | 6,95     | 7,57  |
|              | 49,71  | 50,24 | 47,39    | 52,55 | 47,20   | 52,74 | 49,74    | 50,22 |
|              | %99,95 |       | %99,94   |       | %99,94  |       | %99,96   |       |

Piramide erregularrak baina oinarri ez oso zabalekoak, haur eta gazteen hilkortasun handiaren erruz. Gizon gehiago dago hamasei urte arte

eta hamasei urtetik aurrera emakumeak nagusitzen dira; horren arrazoia bi faktore hauetan oinarri daiteke: gizezkoen hilkortasun handian kostaldeko portuetan eta emigrazioan. Arabako piramidean emakumeen nagusitasuna ez da horren nabarmena eta hogeita bost eta berrogei urte artean desagertu egiten dela esan daiteke; hori, probintzia horretan emigrazio gutxiago zegoelako eta gizonak itsasoko istripuetan hiltzen ez zirelako izan daiteke.

1787tik aurrera ezinegona sortuko da gizartean, bidelapurreriarekin eta gerrekin batera. Independentziako Gerrak demografiari zartada nabarmena eman zion, alde batetik gerrara joan ziren hamasei eta hogeita bost urte arteko gizonen hilkortasuna handitu zelako eta horren ondorioz ezkontzak eta jaiotzak ere gutxiagotu zirelako eta, bestetik, handik denbora gutxira eragina izan zuten suntsiketa handiak gertatu zirelako. Aurre-rago ikusiko dugu uztek behera egin zutela, ikaragarri jaitsi ez baziren ere; aitzitik, 1813ko eroldako Arabako erantzunak exageratuak ez baldin badira behintzat, Frantziako armadak atzera egitean aziendarekin egindako sarraskia ikaragarria izan zen: ongarria urritu zen eta, era berean, trakzio-indarra ere bai, eta lehenago ere nahiko urria zen nekazarien elikadura okertu zen.


Arabako herri gehienek banan-banan erantzun zuten, tropa inbadi-tzaileek alde egin zuten garaiko Arabako egoeraren piramidea eraikitze-ko aukera izan dut. Akatsik larriena, armada nazionalaren barnean oraindik arabarrak zeudela da eta, beraz, ezinezkoa da gizonen hilkortasunari buruzko datu zehatzak lortzea<sup>36</sup>.

Erroldatan ageri den biztanle-kopurua 61.636 da, hau da, biztanleria osoaren —63.275— %97,40, 1787an bezala banatuta beti ere. Gaur egun arte iraun duten erantzunak herriz herri emanda daudenez, piramide oso-osorik eraikitzea beharrezkoa izan da eta azken emaitzak honakoak dira:


---

<sup>36</sup> Erantzunetako batean armak hartu zituztenak ere kontuan hartu izan zirela zehazten da, baina gauza bera egin al zen gainerako herrietan? Ez al da normalagoa kontuan ez hartzea eta horrela demografiaren behaldiaren aitzakiarekin zergak ordaintzetik libre gertatzea?






Araba, 1787




Araba, 1857

**Populazio-piramideak**  
 (oinarria × altuera = tarte bakoitzeko biztanle-kopurua)




Gipuzkoa, 1787




Gipuzkoa, 1857

**Populazio-piramideak**  
 (oinarria × altuera = tarte bakoitzeko biztanle-kopurua)




Bizkaia, 1787




Bizkaia, 1857

**Populazio-piramideak**  
 (oinarria × altuera = tarte bakoitzeko biztanle-kopurua)




Bizkaia, 1787




Bizkaia, 1857

**Populazio-piramideak ehunekoetan  
eta euren artean konparagarriak**




Gipuzkoa, 1787




Gipuzkoa, 1857

Populazio-piramideak ehunekoetan eta euren artean konparagarriak



Araba, 1787



Araba, 1857

Populazio-piramideak ehunekoetan eta euren artean konparagarriak

| Adinak       | 1813   |        | 1813 (%) |       | 1787 (%) |       |
|--------------|--------|--------|----------|-------|----------|-------|
|              | G      | E      | G        | E     | G        | E     |
| 0 - 7 ....   | 5.425  | 5.271  | 8,80     | 8,55  | 9,04     | 8,70  |
| 7 - 16 ....  | 5.586  | 5.365  | 9,06     | 8,70  | 8,45     | 8,10  |
| 16 - 25 .... | 4.386  | 5.158  | 7,11     | 8,36  | 7,25     | 7,55  |
| 25 - 40 .... | 6.028  | 6.701  | 9,77     | 10,87 | 10,91    | 10,91 |
| 40 - 50 .... | 3.836  | 4.046  | 6,22     | 6,56  | 6,32     | 6,58  |
| + 50 ....    | 4.971  | 4.863  | 8,06     | 7,88  | 7,74     | 8,40  |
|              | 30.232 | 31.404 | 49,04    | 50,94 | 49,71    | 50,24 |
|              | 61.636 |        | 99,90    |       | 99,95    |       |

Gerraren eta mobilizazioaren ondorioak, hamasei eta berrogei urte arteko gizonen dagokien tartean eta zero eta zazpi urte arteko tartean, gizon nahiz emakumeetan, ikus daitezke eta are gehiago 1787ko datuekin konparatzen baditugu. Floridablancaren erroldan hamasei eta hogeita bost urte arteko gizonak %7,25 ziren eta honetan, berriz, %7,11; lehenengoaren aldeko desberdintasun txiki horrek ez gaitu nahastu behar. Adin horretan, armadan erroldatzeagatik gerrak sortutako hilkortasunak gizonengan emakumeengan baino eragin handiagoa izan zuela suposatzen baldin badugu, honako emaitzak ditugu: 1787an gizonen eta emakumeen arteko diferentzia, emakumeen aldekoa beti ere, 0,30ekoa zen eta 1813an diferentzia hori handitu egin zen eta 1,25ekoa izatera iritsi zen.

Zero eta zazpi urte arteko tartean ikus daitekeenez, gizonen hilkortasun handiak eta gerraren gorabeherak jaiotza-tasaren erorketa ekarri zuten, baina beheraldi hori 1787ko datuekin erkatzen baldin badugu ez da horren nabarmena eta zazpi eta hamasei urte arteko bi zutabeetako datuak konparatzen baldin baditugu, 1813ko piramidearen aldeko diferentzia dago. Jada piramide honetan haurren heriotza-tasaren jaitsieraren ondorioak somatzen direla pentsarazten dit horrek; aurrerago ikusiko dugunez, jaitsiera hori XVIII. mendeko laurogeiko hamarkadaren eta XIX. mende hasieraren artean gertatu zen eta, horren ondorioz, piramidearen oinarria pixka bat zabaldu egin zen<sup>37</sup>. Horregatik, gerraren erruz gertatutako jaiotza-tasaren jaitsiera, haurren heriotza-tasaren jaitsierarekin orekatu ahal izan zen hein batean. 1813ko piramidean, teorian, gerrak zuzenean eragin ez zituen adin-tarteak daude: emakume guztiak, zero eta zazpi urte artekoak izan ezik, eta zazpi eta hamasei urte arteko eta, ziurrenik, berrogei urte baino

<sup>37</sup> «A fécondité égale, la base de la pyramide est même plus large, en proportion, avec la mortalité faible q'avec la forte». Henry, Louis, *Manuel de démographie historique*. Genève-Paris, 1967, 36. or.

gehiagoko gizonak. Tarte horiek berriro ere 1787koekin alderatzen baldin baditugu, ikusiko dugu gehienetan aldea 1813koena dela —zazpi eta hamasei eta hamasei eta hogeita bost urte arteko emakume gehiago eta zazpi eta hamasei urte arteko eta berrogeita hamarretik gorako gizon gehiago— edo euren artean ia desberdintasunik ez dagoela —hogeita bost eta berrogei eta berrogei eta berrogeita hamar urte arteko gizonak—. Gatazkak eta jaiotza-tasaren beherakadak zuzenean eragindako belaunaldietan izan ezik, hogeita bost urtetik behera dituztenen kasuan, hau da, XVIII. mendeko azkeneko hamarkadatik aurrera jaio zirenen kasuan, XIX. mendeko piramidearen aldea garbia da.

Independentziako Gerraren eta Lehen Karlistadaren artean hogeitaz daude; politikari dagokionez, urte istilutsuak izan ziren, alde bateko nahiz besteko partidekin —erregezaleak liberalak baino gehiago—, eta akzidenten demografiko larriak egon ez baziren ere, gizartean sortu ziren tirabirek 1833-1839ko gatazka iragarriko zuten. 1857ko eroldako piramideek garai hartako demografiaren garapena irudikatzen dute.

Gerrak egon arren edo, zehazkiago, gerren erruz, 1857ko Euskal Herriko biztanleriaren egitura Floridablancaren garaikoa baino gazteagoa zen.

#### Adin-tarteka egindako banaketa, portzentaiatan: 1787 eta 1857

| Adinak          | Araba |       | Gipuzkoa |       | Bizkaia |       |
|-----------------|-------|-------|----------|-------|---------|-------|
|                 | 1787  | 1857  | 1787     | 1857  | 1787    | 1857  |
| 0 - 7 . . . .   | 17,74 | 19,19 | 16,98    | 19,84 | 17,71   | 20,47 |
| 7 - 16 . . . .  | 16,55 | 15,91 | 18,15    | 17,60 | 17,04   | 17,38 |
| 16 - 25 . . . . | 14,80 | 16,33 | 16,33    | 16,91 | 15,89   | 15,81 |
| 25 - 40 . . . . | 21,82 | 24,16 | 20,15    | 20,66 | 21,23   | 22,29 |
| 40 - 50 . . . . | 12,90 | 9,68  | 11,47    | 9,40  | 11,92   | 9,62  |
| + 50 . . . .    | 16,14 | 14,65 | 16,86    | 15,47 | 16,21   | 14,43 |

Zazpitik hamasei urte arteko tartean izan ezik, abantaila 1857ko piramidearen aldekoa zen argi eta garbi, hau da, gazte eta heldu asko zegoen; hori, 1787an muga hamasei urtetan zegoelako eta 1857an, berriz, hamabost urtetan zegoelako izango da ziurrenik. Aitzitik, berrogei urtetik gora, joera alderantzizkoa izango da: 1787an 1857an baino zahar gehiago zeuden. Lanekuaren eskaintzari dagokionez, XIX. mendean erdialdea oso une egokia izan zen. 1787arekiko bigarren berezitasuna gizon eta emakumeen arteko alde txikia da. XVIII. mendean bezalaxe, gizonak gehiago ziren hamabost urte arte eta hortik aurrera emakume gehiago zeuden, nahiz eta sexu baten eta besteen arteko dibergentziak oso ahulduta ageri diren, batez ere azkeneko urteetan; Araban, gizonen nagusitasuna nabarmena zen adin-tarte guztietan. Lehen Karlistadako «belaunaldi hutsa» argi eta garbi



ikusten da; sartunea erraz ikus daiteke hiru piramideetan eta hamabost eta hogeita bost urte arteko tartean izango du eragina (1857 – 1839 = 18; 24 = 1857 – 1833).

1787ko datuekin egindako konparaketa ez da behar bezain nabarmena. Horren arrazoia, XVIII. mende amaieratik gertatutako haurren eta gazteen heriotza-tasaren jaitsiera handia da; jaitsiera horren ondorioz, piramideen oinarri eta tarteko mailak handituko dira. Gerren erruz txikitzen baziren ere, gerrek eragindako heriotza-kopuruak ez zuen inoiz XVIII. mendearen lehenengo hiru laurdenetan eta lehenago ere zegoen haurren eta gazteen heriotza-tasa gainditu.

Lehenago esan duguna gogoratu, berrogei urtetik gorakoen kopuru txikia eta, bereziki, berrogei eta berrogeita hamar urte artekoena, bi faktore hauek gainjartzearen emaitza da: Independentziako Gerran gertatutako jaiotza-tasaren jaitsiera eta Lehen Karlistadako heriotza-tasa handia. 1808 eta 1813 artean jaio zirenek, edo jaio behar zutenek, 1833 eta 1838 artean egingo zituzten hogeita bost urte, hau da, gerra-garaian; horiexek berak dira 1857an berrogei eta berrogeita hamar urte artean izan beharko lituzketenak (1857 – 1813 = 44; 49 = 1857 – 1808), bi gerren eragina jasan zutenak hain zuzen ere. Horregatik, haurren heriotza-tasaren jaitsierak ez zituen erabat orekatu gertaera larri horien ondorioak. Baina jaitsiera horri esker «iraultza» demografiko hori ez zen horren sakona izan, bestela, 1857ko piramidean, hamasei eta hogeita bost urte arteko tartean sartune ikaragarria egongo baitzen, bi faktore gainjarri baitziren: gerra-garaian ohikoa izan ohi den jaiotza-tasaren jaitsiera eta beren gurasoak Independentziako Gerrako «belaunaldi hutsaren» partaide izatea. 1857ko piramidean argi ikusten da sartunea, baina haurren eta gazteen heriotza-tasak behera egin izan ez balu, sartune hori askoz ere sakonagoa izango zela uste dugu. Baieztape hau 1857ko piramidearen hamasei eta hogeita bost urte arteko tartea eta 1787ko tarte bera konparatzean egiaztatuko da:

|                | Ehunekoa |       |
|----------------|----------|-------|
|                | 1787     | 1857  |
| Araba .....    | 14,80    | 16,33 |
| Gipuzkoa ..... | 16,33    | 16,91 |
| Bizkaia .....  | 15,88    | 15,81 |

Akzidente horiek guztiak izan baziren ere, bi probintzian, XIX. mendearen erdialdeko portzentaia Floridablancaren garaikoa baino handiagoa da, baina 1857ko kopuruak gutxietsita daudela kontuan izan behar da, 1787ko hamasei eta hogeita bost urte arteko tartea eta 1857ko hamabost eta hogeita bost urte artekoa konparatzen baitira.

Azalpen honen ondoren argi geratu da arriskutsua dela «belaunaldi hutsez» hitz egitea eta are gehiago beroriek ekonomian eta gizartean izandako eragin negatiboak gehiegi estimatzea. 1787an, epidemien eta gerren eraginik jasan ez zuen piramidea izanik, %49,52k (hamasei eta berrogeita hamar urte artekoak) %50,48ren pisua eusten zuen Araban eta 1857an, pare bat «belaunaldi hutsen» ondoren, %50,17k %49,73rena. Gipuzkoan «produktiboak» (hamasei eta berrogeita hamar urte artekoak) %47,95 ziren 1787an eta %46,97 1857an; Bizkaian, %49,04 eta %47,72, hurrenez hurren.

Orain arte emandako datuetan oinarrituta atera daitekeen behin-behineko ondorioa hauxe da: Independentziako Gerra benetan esaten den bezain katastrofikoak izan balitz, eta hildakoen kopuruari begiratuta hala emango zukeen, hurrengo belaunaldian, hau da, Karlistadaren garaiko belaunaldian, biztanleriaren lurgaineko presioaren beherakada nabarmena gertatuko zatekeen. Hala ere, gizarteko tentsioen ondorioz gerra sortu izanak kontrakoak adierazten duela dirudi. Bi gerrak biztanleriaren eta baliabideen artean sortutako desorekaren *behin-behineko* «irtenbideak» izan ziren. Beraz, Independentziako Gerrak demografian izandako ondorio ikaragarriak berrikusi beharko lirartekeela uste dut, hildakoen kopurua gehiegi baloratu gabe eta hurrengo urteetan izan zituen eragin negatiboak puztu gabe. XIX. mendeko lehen erdia hartuko luketen soldaten eta errenten kurbek arazoa hein handi batean argituko lukete.

## Heriotzaren atzerakada

Heriotza-tasaren jaitsiera izan zen, zalantzarik gabe, XVIII. mendeko demografiaren hazkundearen faktore erabakigarria, baina, hala ere, jaitsiera hori kuantifikatzeko iturriak oso gutxi dira eta arazo ugari sortzen dute. Vargas Poncek jasotako parroketako errejistroak begiratzea nahikoa da, Gipuzkoako parroketan, hildakoen liburuetan haurren izen guztiak jasotzen ez zirela egiaztatzeko; XVIII. mende bukaeran ere ez ziren jasotzen. Beste bi probintzietan egoera ez da askoz ere hobea. XVIII. mendearen bigarren hamarkadan, hildako haurrak ere inskribatzeko agindua eman baldin bazen ere, mendearen bigarren erdira arte ez ziren inskribatzen hasi —hainbat eta hainbat hutsune eta akatsekin gainera!—, eta parrokia askotan XIX. mendera arte ez dira ageri. Hala ere, agirian «párvulo» hitza agertzeak ez du hildako haur guztiak ageri zirela bermatzen eta horixe gertatzen da Beasainen, adibidez. Bestalde, Biasterin, urte batzuetan hildako haur guztiak zorrotzasunez inskribatu ondoren, berriro ere inskribatu gabe geratu dira eta, horren ondorioz, hildakoen kurban hilkortasun «krisiak» edo hazkunde natural oso positiboak sortuko dira; gorabehera horiek «hornigaien krisien» edo «iraultza demografikoen» ondorio izan zirela esan bada ere, errealitatea beste bat da eta une horretan parrokan zegoen apaizaren eraginkortasunaren edo utzikeriaren ondorio baino ez dira. Akats horiek

erabat aleatorioak dira eta kurba asko baliorik gabe uzten dituzte. Bestalde, hirietako kabildoek, ehorzketengatik jasotakoan oinarrituz eramaten zuten kontabilitateaz gehiegi fidatzerik ere ez dago eta hori ondoriozta daiteke 1759ko bisitaldian Gasteizko Santa Maria elizako fabrika-liburuan egindako oharretatik: «Y porque también está informado S. I. que en esta ciudad [Gasteiz] hay el abuso de no enterrar los párbulos con la solemnidad que se requiere, sino que los interesados, se componen con el campanero, dando recado al Mayordomo del Cabildo, y los llevan de noche o antes de amanecer, y otros los llevan muy temprano, y los dejan en las puertas de las Iglesias y conventos como incognitos, y lo peor es haberlo executado muchas veces con niños y niñas de ocho a diez años, de manera que por no pagar los dros parroquiales, y de entierro y poderlo ocultar los dejan morir sin los sacramentos que se les deben administrar, a que se llega con este motivo dejan de ponerse sus partidas en el libro de difuntos, de que también pueden seguirse considerables perjuicios: por tanto, y deseando S. I. evitarlos y ocurrir a remedio mandaba y mando al Mayordomo actual, y sus sucesores de dicho cabildo, y al chantre y canonigos individuos de el no permitan que sus campaneros y sacristanes den sepultura en esta Iglesia a ningún párbulo ni adulto sin la concurrencia de sacerdotes que está dispuesto y a todos los vecinos, estantes y habitantes de esta Ciudad no lleven ocultamente los párbulos a las puertas de las Iglesias y conventos, y que llegando a la edad de siete años, o antes si se hubiere anticipado el uso de la razón llamen al cura para que pueda examinar su capacidad y administrarlos el santo sacramento»<sup>38</sup>.

Horri guztiari komentu<sup>39</sup> eta ospitaleetako ehorzketak gehitu behar zaizkio. Zorionez, salbuespen batzuk egon ziren. Plentzian, 1723ko ekainaren 8an, bisitatzailleak haurren partiden idazpenak adierazi gabe ez uzteko eta adina ere jasotzeko agindu zien onuradunei; 1736ko ikuskapenean berriro gauza bera gogorarazi zitzaien. Durangon, «haurren partiden gaia» isilean ez gordetzeko agindu zitzaien eta 1727ko abuztuaren 28tik aurrera adina ere zehaztuko da. Beraz, 1730etik aurrera kalkulatu ahal izan dugu haurren heriotza-tasa. Hala ere, badirudi hamarkada horretan egon zen kontrola ez zela erabatekoa izan Durangon eta bere tasa baxu eta ez-ohikoak agerian uzten du hori —%150.

Bi herri hauei esker hilkortasunaren atzerakadaren etapa desberdinen zirriborroa egin daiteke. Durangoko «txikiagotze naturala» inguruko parrokietatik etorritako asko eta asko hiribildu honetan hiltzen zirelako gertatu zela esan behar da —esate baterako, %31 hirurogeita hamarreko hamarkadan—. Durangok nekazaritza-inguruetatik jende ugari erakartzen

---

<sup>38</sup> Gasteizko San Migel Parrokiako Artxiboa. Gasteizko Kolejiako kontu-liburua, 1729tik aurrera, 91. or.

<sup>39</sup> HEAA, 71. E., Vargas Ponce, Biztanleen zerrendak... Tolosan.

zuen eta inguruko herrietatik etorritakoen hilerrria izan zen. Horregatik, hildakoen kurba bataiatutakoen kurbatik oso hurbil dago gehienetan eta are gehiago haurrak ere kontuan izaten hasi zirenean. Mende osoan zehar, Plentzian eta, batez ere, Durangon, heriotza-tasa oso handia izan zuten urteak ditugu, hornigaiaren krisiagatik nahiz gaizki diagnostikatutako eta hila-bete gutxi batzuk irauten zituen epidemiaren batengatik —1765 eta 1766. urteetako «disentería de sangre» delakoa adibidez—<sup>40</sup>. Baina, 1711ko krisian —110 hildako Durangon, haurrak zenbatu gabe— heriotza-tasaren bat-bateko jautzia sortzeaz gain, hurrengo hamar urteetan bataio-kopurua ere asko jaitsi zen. Honelako hondamendiak ez dira mende osoan errepikatuko. 1720tik aurrera, heriotza-tasa handiarekin batera jaiotzen jaitsiera gerta zitekeen edo ez, baina ez zuen jaiotza-tasaren beheraldi luzea sorraziko. Plentziako parrokiari, XVIII. mendean behinik behin, badirudi jaiotza-tasaren beherakada sortzen zuten heriotza-tasak desagertu egin zirela, baina ez Lekeition; azken hori arrantza-portua zen eta Durangokoaren antzeko ereduia zuen. Erregistroetan zeuden akatsek ez digute gehiago zehazteko aukerarik emango, baina Biasterin eta Bastidan, XVIII. mendearen bigarren hamarkadako demografiaren beheraldia behintzat —Bastidan hogeita hamarreko hamarkadara arte luzatu zen—, hilkortasunaren krisiaren ondorio izan ote zen susmoa dugu.

#### Haurren heriotza-tasak (‰)

|              | Plentzia | Durango |
|--------------|----------|---------|
| 1730-39..... | 242      | «151»   |
| 1740-49..... | 308      | 203     |
| 1750-59..... | 253      | 225     |
| 1760-69..... | 250      | 241     |
| 1770-79..... | 197      | 244     |
| 1780-89..... | 124      | 198     |
| 1790-99..... | 152      | 223     |
| 1800-09..... | 62       | 167     |
| 1810-19..... | 121      |         |
| 1820-29..... | 90       |         |
| 1830-39..... | 121      |         |
| 1840-49..... | 104      |         |

Uzta txarren erruz sortutako hilkortasunaren krisiak 1764, 1765 eta 1766an gertatu ziren Durangon, eta 1766an Plentzian, baina krisi-mota hau ahulduz joan zen eta kostaldeko probintzietan XIX. mendearen hasierarako

<sup>40</sup> Durangoko Udal Artxiboa, Durangoko Dekretuen 13. liburua, 1766, 73. or.

desagertu egin zen, 1803ko kurbek horixe adierazten dutelarik. 1802ko uzta eskasak ez zuen eraginik izan edo, izan bazuen ere, ez zen ia nabaritu Durango, Beasain eta Plentziako hildakoen kopuruetan, baina Biasterin hildakoen kopuruak gora egin zuen nabarmen eta, gainera, haurrak kontuan hartzen ez zirela gogoratu behar da —1802an eztei-kopuruak behera egin zuen eta hurrengo urtean jaiotza-tasak ere bai—; hala, bada, hildakoen kopurua asko igo zen eta Bastidan ere gauza bera gertatu zen. Beraz, badi-rudi eraginik jasan ez zuten herri periferikoen eta barnealdekoen artean bazegoela nolabaiteko kontrajartzea.

### Durango, bataioak eta heriotzak hamarkadaka

|                 | <i>a</i> | <i>b</i> | <i>a - b</i> | <i>a</i> | <i>b</i> | <i>a - b</i> | Urtean<br><i>a - b</i> |
|-----------------|----------|----------|--------------|----------|----------|--------------|------------------------|
| 1740-1749 ..... | 714      | 764      | -50          |          |          |              | -5                     |
| 1750-1759 ..... | 716      | 769      | -53          |          |          |              | -5,3                   |
| 1760-1769 ..... | 804      | 903      | -99          |          |          |              | -9,9                   |
| 1770-1779 ..... | 818      | 926      | -108         |          |          |              | -10,8                  |
| 1780-1789 ..... | 706      | 692      | +14          |          |          |              | +1,4                   |
| 1790-1799 ..... | 748      | 889      | -141         | (1) 663  | 653      | +10          | +1,11                  |
| 1800-1809 ..... | 743      | 897      | -154         |          |          |              | -15,4                  |
| 1810-1819 ..... | 873      | 982      | -109         | (2) 723  | 483      | +240         | +30                    |
| 1820-1829 ..... | 919      | 697      | +222         |          |          |              | +22,2                  |
| 1830-1839 ..... | 935      | 1.265    | -330         | (3) 385  | 321      | +64          | +16                    |
| 1840-1849 ..... | 1.136    | 823      | +313         |          |          |              | +31,3                  |

*a*: bataioak

*b*: heriotzak

(1): 1795eko bataioak eta heriotzak kontuan izan gabe.

(2): 1812 eta 1813ko bataioak eta heriotzak (asko eta asko frantsesak) kontuan izan gabe.

(3): 1834tik 1839ra arteko bataioak eta heriotzak kontuan izan gabe.

Hirurogeita hamarrekota hamarkadara arte, haurren heriotza-tasen muga fidagarriena %300 eta 250 artean ibili zen. Lehenengo haustura esanguratsua 1770-1779ko hamarkadan gertatu zen Plentzian —%197— eta hurrengoan Durangon —%198—; hala ere, Durangoren kasuan, XIX. mendearen hasiera arte itxaron beharko dugu —%167— aldaketa argi eta garbi ikusteko<sup>41</sup>. Durangoko bataioen eta hildakoen kurbak begiratzea nahikoa da gertatutako aldaketaz ohartzeko, Plentzian, 1755etik aurrera, hazkunde naturala positiboa izan baitzen eta handik aurrera izan zituen gorabeherak oso txikiak izan baitziren eta hauek Independentziako Gerran eta, batez ere,

<sup>41</sup> Ondorio horiek atera zituen Jordi Nadalek Palamosko demografia aztertu zuenean, «Demografía y economía en el origen de la Cataluña moderna. Un ejemplo local: Palamós (1705-1839)», in *Estudios de Historia Moderna*, Bartzelona, 1960, VI. libk.

Karlistadan gertatu ziren. Durangon, goian adierazitako arrazoiengatik, laurogeiko hamarkada arte balantzea negatiboa izan zen, baina handik aurrera, 1800-1809ko hamarkadan izan ezik, positiboa izan zen. Bilakaera arrunta da hori, gerren erruz (1795, 1812, 1813 eta 1834tik 1839ra) eta Durangon, gatazkak zeudenean, ospitale militarrek jartzeagatik hildakoen kopuru handia izan zuten urteak kontuan hartzen ez baditugu: 1812 eta 1813ko hildakoen liburuen orrialdeak Napoleonen soldaduen izenez beteta daude. Hala, bada, urte horiek kontuan hartzen ez baditugu, XIX. mendeko lehenengo hamarkadan izan ezik, 1780tik aurrera balantzea positiboa izan zen hamarkada guztietan, hiribilduan hiltzen ziren inguruko elizateetakoak kontuan izanda ere.

### **Hilkortasunaren jaitsiera bultzatu zuten faktoreak**

Historiari dagokionez, zenbait gertaera egiaztatzea inor konbentzitzeko moduan azaltzea baino errazagoa da oraindik ere eta are gehiago korrelazio faltsuen arriskua kontuan izaten badugu. Haatik, XVIII. mendean zehar eta bigarren zatian bereziki, hilkortasunaren jaitsiera bultzatu zuen zenbait fenomeno gertatu zen. 1733tik eta batez ere hirurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera, uzten gorabeherak ahultzen joan ziren; abuztu kasarrak gero eta urriagoak ziren<sup>42</sup>. Mende honetako azkeneko laurdenean bide-sarea eta aleen biltegiatzea eta merkaturatzea —azken horien alderdi negatiboa espekulazioa izan zen— hobetu ziren eta horrek guztiak dieta erregularizatu eta dibertsifikatu zuen, barnealdean inportatutako produktuak eta arraina sartu baitziren eta kostaldera hegoaldeko ardoak heldu baitziren. Dietaren erregularizazioak laborari eta artisauengan izango zuen eraginik handiena, goseteak desagertu baitziren, baina dietaren dibertsifikazioa nobleek, klerikoek eta burgesek baino ez zuten ezagutu. Pribilejiatu hauek «oparotasunez» jaten zutela zioen Larramendik 1750 inguruan<sup>43</sup> eta hauentzat izaten ziren kolonietako produktuak. 1700. urtean txokolatea jan ohi zuen gosaltzeko «la gente más principal y distinguida de San Sebastián»<sup>44</sup>. Ziortzako kalonjeek, mendearen bigarren erdian, inportatutako produktu ugari kontsumitzen zuten: Virginiako abadira, Norvegiako bakailaoa, sardinak, izokina, olioia, txokolaterako kanela, azukrea eta azukre-kozkorrak,

---

<sup>42</sup> «La evolución del producto agrícola bruto en la llanada alavesa, 1611-1813», Luis María Bilbao eta Emiliano Fernández de Pinedok Zientzi Historikoen Metodologia Aplikatuaren I. Jardunaldiari egindako Komunikazioa, Santiago Konpostelako Unibertsitatea, 1973ko apirilaren 24tik 27ra.

<sup>43</sup> Larramendi, M., *Corografía de Guipúzcoa*, Buenos Aires, 1950, 199. or. Lan hau 1754. urtean idatzi zen.

<sup>44</sup> *Descripción de San Sebastián relativo a su población, costumbres y comercio por uno que acaba de venir de allí*. Londres, 1700, itzulpena, Donostia, 1943, 35-37. orr.

azafraia, Caracasko kakaoa eta, gutxiago, ardo zuria, gorria eta nafarra, Salamancako barbantzuak etab.<sup>45</sup>. Horiei guztiei haragi-kantitate handia ere gehitu behar zaie eta hemen harategian erosten zutena kuantifikatu ahal izan dugu:

**Ziortzako kalonjeek (4) janaridendan erositako haragi freskoa<sup>46</sup>**

| Urtea      | Librak  | Kiloak  | Gramoak eguneko eta kalonje bakoitzeko |
|------------|---------|---------|--|
| 1778 ..... | 843 ½   | 388,088 | 265                                    |
| 1790 ..... | 1.030   | 473,895 | 324                                    |
| 1791 ..... | 982     | 451,811 | 309                                    |
| 1792 ..... | 1.122 ½ | 516,454 | 353                                    |
| 1793 ..... | 1.037   | 477,116 | 326                                    |
| 1794 ..... | 1.126 ½ | 518,294 | 354                                    |
| 1795 ..... | 793 ½   | 365,083 | 250                                    |
| 1796 ..... | 729     | 335,407 | 229                                    |
| 1797 ..... | 796     | 366,234 | 250                                    |
| 1798 ..... | 832     | 382,797 | 262                                    |
| 1799 ..... | 863     | 397,060 | 271                                    |
| 1800 ..... | 916     | 421,445 | 288                                    |
| 1801 ..... | 889 ½   | 409,252 | 280                                    |
| 1802 ..... | 967 ½   | 445,139 | 304                                    |
| 1803 ..... | 1.063   | 489,078 | 334                                    |
| 1804 ..... | 953 ½   | 438,698 | 300                                    |
| 1805 ..... | 935 ½   | 430,417 | 294                                    |
| 1806 ..... | 1.075   | 494,599 | 338                                    |
| 1807 ..... | 954 ½   | 439,158 | 300                                    |
| 1808 ..... | 1.006   | 462,853 | 317                                    |
| 1809 ..... | 951     | 437,548 | 299                                    |
| 1810 ..... | 1.204   | 553,951 | 379                                    |
| 1811 ..... | 1.066   | 490,459 | 335                                    |
| 1812 ..... | 743     | 341,849 | 234                                    |
| 1813 ..... | 594     | 273,295 | 187                                    |
| 1814 ..... | 678     | 311,943 | 213                                    |
| 1815 ..... | 650     | 299,060 | 204                                    |
| 1816 ..... | 788     | 362,553 | 248                                    |
| 1817 ..... | 909     | 418,224 | 286                                    |
| 1818 ..... | 910 ½   | 418,914 | 286                                    |

<sup>45</sup> Ziortzako Parrokiako Artxiboa, BAAn, Ziortzako kapitulu-mahaiko administrazio-liburua, 1751tik 1813ra, 130 atz.-134 orrialdeak.

<sup>46</sup> Ziortzako kapitulu-mahaiko liburuak, 1751tik 1806ra eta 1807tik 1818ra; 1819an kalonjeek mahai hori egiteari utziko diote. 1812 eta 1816 artean haragiaren kontsumoa asko jaitsi zen eta 1795etik 1799ra ere, hainbeste jaitsi ez bazen ere, kontsumoak behera egin zuela ikus daiteke. Prezioek gora egin zuten urte horietan, Independentziako Gerran batez ere. Horregatik kalonjeek haragi fresko gutxiago kontsumitu zuten.

Pribilejiatuen dieta zuten, zalantzarik gabe, Bilboko burgesena bezalako<sup>47</sup>. Normalean, haragi-kontsumoa askoz ere txikiagoa zen. Aberekien proteinak ez ziren oso ugariak nekazarien etxean. Hauen dieta karbohidratoetan oinarritzen zen batez ere. Plentzian 8,801 kilo haragi fresko kontsumitzen ziren biztanleko eta urteko; Mundakan, 2,887; Karrantzan, 2,170 eta Portugaleten, 1,235<sup>48</sup>. Harategietan saldutako haragiaren ordez ordaindu behar zituzten zergetatik ateratako datuak direla kontuan izanda, hau da, autokontsumoa kontuan izan gabe, minimo bat zela pentsatu behar da, baina, hala ere, oso baxua da eta aberekien proteinetan dieta pobrea zela adierazten du horrek; portuetan arrainaren kontsumoarekin orekatzen zuten proteina eskasia hori.

XIX. mendearen hasieran, Delikan, lur-jabea zen laborari batek eta bere emazteak, nahiko ekonomi maila ona zutenak eta eroso bizi zirenak, gosaltzeko «olio edo gantzarekin egindako baratxuri-zopa» jaten zuten; bazkaltzeko «lakari-laurden egoskariko eltze bat» hartzen zuten eta osagaiak honakoak izan ohi ziren: «haba, alubia, pito, garbanzos y otras berzas y nabo con media libra de tocino y algunas veces chorizo y lomo salado». Askarian ogia eta gazta edo fruta jaten zuten, urtaroaren arabera, eta afaltzeko, «aza, erbia, babarruna edo zalke freskoa eta laurden bat haragi gazitu eta, guztiarekin, ogia»; hiru libra ogi jaten zuten eta ardo pixka bat, batzuetan urarekin nahastuta. Elikagai guztiak eurek landutakoak zirela zehaztuko da. Bergarako maizter baten etxean, goizean eta gauean esnea edo baratxuri edo tipula-salda hartzen zuten; esnea hartzen zutenean ez zuten ogirik jaten, baina saldarekin kalitate gutxiagoko edo zekalearekin nahastutako gari-ogia edo artoa legamiarekin jaten zuten. Eguerdian, baba edo aza urdai edo gantzarekin eta, horren aurretik, aza edo baba-salda ogi edo arto-zopekin eta gauean, gaztainak zeudenean esnearen ordez horixe jaten zuten. «Lan egiten zuen eta eroso bizi zen» jendea zela azpimarratu zen<sup>49</sup>. 1803an Euskal Herriko Adiskideen Elkar-teak jasotako dieta guztietan ogiaren edo taloaren garrantzi handia nabarmenduko da eta baserriko uztatik kanpoko produktuen eskasia ere bai: jaten zen haragia zezina zen, urdaia etxeko txerriarena etab. Bijilietarako baino ez ziren erosten bestelako produktuak: olioia, gantzaren ordez; kostaldean batez ere, abadira, balea edo sardinak, urdaiaren eta zezinaren ordez. Arrazoi erlijiosoengatik erosten ziren produktu horiei gazta eta, mahastiak ez zituzten inguruetan, ardo gehitu behar zaizkie.

---

<sup>47</sup> Mauleón Islaren arabera, *op. cit.*, 210. or., 1743an, jaio berriak kontuan izanda, «pertsonek bakoitzeko eta eguneko 130 gramo haragiko dieta» zuten eta batez besteko horrek gizartean, kontsumo aldetik zeuden desberdintasunak ezkututzen ditu.

<sup>48</sup> GBEA, ETPSV, 1 eta 2. zkia., 1810. urtea, herri bakoitzean.

<sup>49</sup> «Curiosidades históricas referentes a las provincias vascongadas. Año 1803. Noticia sobre la economía doméstica de los labradores de varios pueblos.» *Euskal-erria*, XLIV. libk., 1901eko lehenengo sei hilabetekoa, 331-332. orr.



1821ean datatutako kontsumoaren gaineko zergen banaketa batek nekaritza inguruko eta hiri inguruko munduen artean zeuden desberdintasunak erakusten dizkigu; lehena autokontsumoan oinarritzen zen eta bigarrenak, berriz, trukean oinarritutako ekonomia zuen. Bilbo hiribilduan probintzia osoko biztanleriaren %10 baino ez zen bizi, baina ardoaren %29, txakolinaren %7, postreko ardoen %71, pattarraren %39, ozpinaren %67, olioaren %68 eta harategietan saldutako haragiaren %51 kontsumitzen zen<sup>50</sup>.

Desberdintasun handi horiek alde batera utzita, E. Labroussek dioena gogoratuz, pobreek bizimodua hobetu zuten<sup>51</sup>. Zerealen kontsumoa erregularizatzeaz gain, haragi apur bat ere sartu zuten euren elikaduran eta sagardoaren ordeaz ardoa kontsumitzen hasi ziren, osasungarriagoa bide zena. 1776 baino lehenxeagotik urte horretara arte «harategi asko [ireki ziren] ... lehenago ez zituzten herrietan», baina oraindik kontsumoa txikia zen<sup>52</sup>. Iturritzaren arabera, zezina, 1793 inguruan, «[era] manjar común de los labradores vascongados, pues su diaria refección se reduce a un topín o puchero de berzas, puerros condimentados con cecina y tocino»<sup>53</sup>. Ikusgarriagoa izango zen ardoaren kontsumoaren gorakada. XVIII. mendearen erdialdean, Gipuzkoak Nafarroatik ekartzen zuen ardoa, eta probintzia hau «la India de los cosecheros de Navarra, como de la Rioja lo es Vizcaya» zela esaten zen. Burdinaren etekinak ardotan joango ziren<sup>54</sup>. Iturritzak, mende amaieran, kontsumo hori ikaragarria zela esaten zuen («exorbitante respecto de los tiempos pasados»)<sup>55</sup>.

Aurrerakuntza hauetaz gain, haurrekin ordura arte izandako jarreraren aldaketa ere aipatu behar da. Pierre Chaunuk ere, garai klasikoan, Frantzia hurrei garrantzi handiagoa ematen zitzaizela azpimarratu du. Jarrera-aldaketa hori Gipuzkoan jada gertatua zen aberatsen artean XVIII. mendearen erdialderako eta Manuel Larramendik jarrera hori gaitzetsi zuen: «Crían a sus hijos con melindres, vístenlos como principitos, cúmplenles todas sus mañas; no los ha de azotar el maestro en la escuela, ni tocarlos, ni refírlos.» Jesuitarentzat, haurrekiko jarrera ideala aurreko urteetako zen, orduan «criaban a sus hijos duramente y sin melindres, sopas

<sup>50</sup> GBEA, Estadística, 1809tik 1826 arteko urteak. 16. errejistroa.

<sup>51</sup> Labrousse, E., *Fluctuaciones económicas e historia social*. Madril, 1962, 354. or.

<sup>52</sup> *Ensayo de la Sociedad Bascongada de Amigos del País*. 1766. urtea. Gasteiz, 1768, 74. or.

<sup>53</sup> Iturritza, J. A., *op. cit.*, I. libk., 71. or.

<sup>54</sup> Larramendi, M., *op. cit.*, 200. or. Bowles, G., *Introducción a la historia natural y la geografía física de España*, bigarren argitaraldi zuzendua. Madril, 1782, 309. or.; liburu honek idea berbera ageri da eta honako hau gehitzen du: «Yo no sé que sea cierto»; beste hau ere badio: «Debo, sin embargo, advertir que los caseros y la gente trabajadora no suelen tener dinero para beber vino sino los días de huelga», 310. or. Kontsumoaren desberdintasun ekonomiko-sozialen beste adibide bat.

<sup>55</sup> Iturritza, *op. cit.*, I. libk., 72. or.

de ajo de desayuno, y a la escuela descalzos y sin sombrero ni montera, lloviese o nevase, o hubiese mucho sol y bochorno. Así se criaban fuertes y robustos»<sup>56</sup>. Jesuitak hamar urte bete aurretik erdiak hiltzen zirela «ahazten du».

## Inokulazioa, txertoak eta neurri profilaktikoak

1762 eta 1763. urteetan Euskal Herrian ez zen oraindik inokulazioa ezagutzen, Azkoitian izan zen baztanga-epidemia baten berri emateko don Antonio de Carasak Euskal Herriko Adiskideen Elkartera bidalitako txostenean ez baitzen oraindik aipatu ere egin<sup>57</sup>. Hamar urte beranduago egin ziren hedapen zabalxeagoa izan zuten lehenengo entseguak: hiru probintzietan 1.126 haur inokulatu ziren<sup>58</sup>. Beranduagoko txosten batek (1784) zehaztu zuen Euskal Herriko Adiskideen Elkartea 1769. urtean hasi zela inokulazioa bultzatzen, «escribiendo a muchos médicos del país de mejor nota, y mas dispuestos a introducir esta novedad». Ilustratuek, hasieran kontrako iritziak egon zirela adierazi zuten —«las contradicciones que hallaba [1772an] en todas partes el nuevo método de la inoculación»—, baina epidemiarekin kontrako iritzi horiek desagertuz joan ziren, oso gogorra izan baitzen: «una de las más crueles y matadoras que se ha observado hasta ahora»; 1783 eta 1784. urteetan Gasteizen izan zuen eraginik nabarmena. 1784ko laburpenean argi azaltzen da iritzi aldaketa horren jatorria: «Los teólogos en esta ocasión han estado mas indulgentes que nunca; pues habiéndoseles consultado por algunos si podían lícitamente inocular a sus hijos, respondieron afirmativamente»<sup>59</sup>.

Ohartuko zinetenez, Euskal Herrian eta Espainian garai beretsuan hedatu zen inokulazioa eta emaitzak positiboak izan ziren<sup>60</sup>.

Badirudi XIX. mendearen hasieran inokulazioa eta txertoa gauza arruntak zirela. 1800eko abuztuaren 28an Elgoibarrek Tomás López emandako erantzunean honakoa azpimarratzen da: «q<sup>e</sup> en la última epidemia de las viruelas que fue muy general no murieron sino tres criaturas y un hombre y todos los demás experimentaron los buenos efectos de la inoculación q<sup>e</sup> no se descuidaron en ello los facultativos»<sup>61</sup>. 1802ko erroldaren oinarri izan

---

<sup>56</sup> Larramendi, M., *op. cit.*, 199. or.

<sup>57</sup> *Ensayo...*, 338-340. orr.

<sup>58</sup> *Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Sociedad Bascongada de Amigos del País en Bilbao en 1772*, «Disertaciones y observaciones prácticas sobre la inoculación», 55, 56, 57, 61 eta 62. orr.

<sup>59</sup> *Extractos...*, 1784ko iraila, 40-48. orr.

<sup>60</sup> Nadal, J., *Historia de la población española; Historia de la población mundial* liburuko eranskina, Reinhard eta Armengaud-ek egina. Bartzelona, 1966, 636-637. orr.

<sup>61</sup> BN, T. López, 7311. eskbu., 174. or. atz.

zen «Interrogatorio a que deben contestar todos los pueblos de España...» delakoan, «Adición a preguntas políticas sobre la población» ataleko hamabosgarren galderari honako erantzuna eman zitzaion Samaniego herrian: «en efecto se ha practicado y practica en este pueblo la inoculación y vacunación de las viruelas, y ha surtido buenos efectos, por lo cual se prestan sin recelo los padres a que sus hijos logren este beneficio»<sup>62</sup>, eta Mutrikun, urte berean, beste hau adierazi zen: «se ha executado la inoculación desde treinta años a esta parte; y la vacunación se practica»<sup>63</sup>.

Aitzitik, neurri higienikoak oso mugatuak izan ziren eta, orokorrean, noble eta burgesen artean baino ez ziren hedatu<sup>64</sup>; sardeska eta ezpain-zapiaren ohitura ez zen, noski, nekazarien artean hedatu. Peru Abarkak hainbat etxetan ikusi zituen tresna horiek alferrikakoak zirela pentsatzen zuen; bere ustez «Askoz gozuago dira aza ta okela zati eskuz ebagi, atzakaz ta ogiz batu ta jaten dirianak»<sup>65</sup>.

Ilustratuak etxeetako gelak aireztatzeaz eta etxeen orientazio egokiaz arduratu ziren eta 1766ko *Ensayo...* liburuan kapitulu bat eskaini zioten komunei edo, beraiek erabiltzen zuten terminoa errespetatuz, leku amankomunei<sup>66</sup>.

Beste neurri profilaktikoetako bat, oraingo honetan orokorragoa, hilerrien ezarpena izan zen. XIX. mendearen hasiera arte hildakoak elizan ehorzteko ohitura orokorra zen. XVIII. mende bukaeran hilobiak irekitzea debekatu zen<sup>67</sup> eta, beranduago, elizetan hobiratzea ere debekatu zen eta hilerriak sortu ziren. Bastidan, 1796an, urte bete pasa arte hilobiak ez irekitzeko agindua eman zen eta 1806rako hilerrian ehorzten zituzten hildakoak<sup>68</sup>. Plentzian 1811ko azarotik aurrera aplikatu zen.

## Heriotzen arrazoiak

XIX. mendearen hasieran, Errege Ordena bat zela-eta, zenbait parrokiatan hildakoen ogibidea, sexua, adina, heriotza-data eta gaixotasuna jasotzen hasi ziren. Zoritzarrez, apaiz guztiek ez zuten agindu hori bete edo ez da inon halakorik ageri behinik behin; gainera, urte gutxi iraun zuen ohitura

---

<sup>62</sup> Samaniegoko Parrokiako Artxiboko orri solteak; errolda hori berreskuratu eta aztertuz gero Espainia osoko ikuspegi interesgarria izango genuke.

<sup>63</sup> 1802ko erroldaren eskuz idatzitako kopia, in HEAA, Vargas Ponce, 22. libk.

<sup>64</sup> Moguel, J. A., *Peru Abarka*, berrargit., Bilbo, 1970, 60. or.

<sup>65</sup> Moguel, J. A., *Peru Abarka*, Klasikoak, Donostia, 1990, 57-58. or. [itzulpen honen koordinatzaileak gehituriko oharra, jatorrizko argitarapenean aipu hau gatzelaniaz baitzegoen].

<sup>66</sup> *Ensayo...*, 298-302. orr.

<sup>67</sup> Plentziako Parrokiako Artxiboa, Hildakoen eta Ezkontzen Liburua, 1775eko abenduaren 28 eta 1818ko abenduaren 20 artekoa, 1791. urtea.

<sup>68</sup> Bastidako hildakoen liburua, 158 atz. eta 159. orr eta bosgarren liburua, 31. or. atz.

horrek. Laudioko bailaran, Lamuzako San Pedron hain zuzen ere, liburu bat erabili zuten lan horretarako eta 1801eko uztailaren 8tik 1807ko azaroaren 13ra bitarteko hildakoak ageri dira bertan<sup>69</sup>. Biasteriko San Joanen antzeko datuak jaso ziren heriotza-agirietan 1802ko urtarriletik 1806ko urtarrilera bitartean. Laudion, bi taldetan sailkatu ditut datuak, haurrak ere agertzen baitira: bata zero eta bederatzi urte artekoak —haur eta gazteen heriotza-tasari dagokion tarte— eta bestea hamar urtetik gorakoak. Nahikoa da bi zerrendak gainera begiratzea zatiketa honen arrazoiak ulertzeko. Zero eta bederatzi urte arteko 94 hildakoak kopuru osoaren %30,23 dira eta, horien artean, %34,04 nola hil zen ez da zehazten; gehienetan egun edo hilabete batzuetako haurrak dira eta haurren heriotza-tasaren barnean sar daitezke<sup>70</sup>.

### Heriotza zekarten gaixotasunen sailkapena aparatu edo sistemaka

#### LAUDIO

##### 0 ETA 9 URTE ARTEKO HERIOTZAK

##### *Infekzioso-kutsakorrek edo hedatuak:*

|                             |           |       |        |
|-----------------------------|-----------|-------|--------|
| Paludismoa-tertzianak ..... | 4         | 4,25  |        |
| Elgorria .....              | 14        | 14,89 |        |
| Baztanga .....              | 12        | 12,76 |        |
|                             | <u>30</u> |       | %31,91 |

##### *Liseri-aparatua:*

|                      |           |      |        |
|----------------------|-----------|------|--------|
| «Ganbareta» .....    | 2         | 2,12 |        |
| Disenteria .....     | 5         | 5,31 |        |
| Heste-zizareak ..... | 8         | 8,51 |        |
|                      | <u>15</u> |      | %15,95 |

##### *Arnas aparatua:*

|                         |          |      |       |
|-------------------------|----------|------|-------|
| Katarro-kalentura ..... | 1        | 1,06 |       |
| Katarroa .....          | 1        | 1,06 |       |
| Eztula .....            | 2        | 2,12 |       |
|                         | <u>4</u> |      | %4,25 |

##### *Nerbio-sistema:*

|                            |           |       |        |
|----------------------------|-----------|-------|--------|
| Epilepsia .....            | 11        | 11,70 |        |
| Istripu apoplektikoa ..... | 1         | 1,06  |        |
|                            | <u>12</u> |       | %12,76 |

<sup>69</sup> Lamuzako San Pedro Parrokiako Artxiboa, Laudioko bailara.

<sup>70</sup> Sailkapenak eta iruzkinak Vicente Rodríguez Gracia doktorearen lan ikaragarriari esker egin ahal izan dira eta bere laguntza benetan eskertzen dugu.

|   |    |        |        |
|---|----|--------|--------|
| <i>Traumatismoak:</i>                       |    |        |        |
| Harrapatua .....                            | 1  | 1,06   | %1,06  |
| <i>Ez da gaixotasunik zehazten</i> .....    | 32 | 34,04  | %34,04 |
|   | 33 |        |        |
| 0 ETA 9 URTE ARTEAN HILDAKO GUZTIAK.....    | 94 |        | %99,97 |
| 10 URTETIK GORAKO HERIOTZAK                 |    |        |        |
| <i>Infekzioso-kutsakorrak edo hedatuak:</i> |    |        |        |
| Kalentura .....                             | 2  |        |        |
| Intsolazio-kalentura .....                  | 1  |        |        |
| Isipula .....                               | 1  |        |        |
| Eskrofulak .....                            | 2  |        |        |
| Elgorria.....                               | 1  |        |        |
| Sinkope-tertziana .....                     | 1  |        |        |
| Tertzianak .....                            | 10 |        |        |
| Intsolazioa .....                           | 13 |        |        |
|   | 31 | %14,29 |        |
| <i>Kardiobaskularrak:</i>                   |    |        |        |
| Apoplexia.....                              | 2  |        |        |
| Edema .....                                 | 3  |        |        |
| Hidropesia .....                            | 8  |        |        |
| Perlesia edo istripu perletikoa.....        | 15 |        |        |
|   | 28 | %12,90 |        |
| <i>Traumatikoak:</i>                        |    |        |        |
| Istrupak .....                              | 5  | %2,30  |        |
| <i>Liseri-aparatua:</i>                     |    |        |        |
| Kolikoa .....                               | 1  |        |        |
| «Ganbarak» .....                            | 1  |        |        |
| Disenteria .....                            | 2  |        |        |
| Hesteetako hantura .....                    | 1  |        |        |
| Tumore eskerrosoa .....                     | 1  |        |        |
|   | 6  | %2,77  |        |
| <i>Nerbio-sistema:</i>                      |    |        |        |
| Histeria edo afektu histerikoa.....         | 4  |        |        |
| Umore arruntak .....                        | 1  |        |        |
| Erotasuna .....                             | 2  |        |        |
| Lurra jateagatik .....                      | 1  |        |        |
|   | 8  | %3,69  |        |
| <i>Ginekologikoak-obstetrikokoak:</i>       |    |        |        |
| Erditzea eta sabelondoa .....               | 5  |        |        |
| Odol-isuria .....                           | 1  |        |        |
|   | 6  | %2,76  |        |

|                                     |       |        |
|-------------------------------------|-------|--------|
| <i>Arnas aparatua:</i>              |       |        |
| Asma .....                          | 8     |        |
| Burutik beherakoa .....             | 14    |        |
| Katarroa eta zahartzaroa .....      | 1     |        |
| Katarro-kalentura .....             | 7     |        |
| Alboko mina .....                   | 1     |        |
| Izurria sor dezakeen katarroa ..... | 1     |        |
| Difteria edo angina .....           | 1     |        |
| Alboko punta .....                  | 4     |        |
| Pneumonia .....                     | 6     |        |
| «Bularrekoa» .....                  | 1     |        |
| Tisia .....                         | 2     |        |
|                                     | <hr/> |        |
|                                     | 46    | %21,20 |
| <i>Lokomozio-aparatua:</i>          |       |        |
| Bihotzeko hezueria .....            | 1     |        |
| Erreuma .....                       | 14    |        |
|                                     | <hr/> |        |
|                                     | 15    | %6,91  |
| <i>Beste arrazoi batzuk:</i>        |       |        |
| Miseria .....                       | 1     |        |
| Bat-batean .....                    | 12    |        |
| Zahartzaroa .....                   | 10    |        |
| Zahartzaroa + istripua .....        | 1     |        |
| Oheratuta .....                     | 1     |        |
|                                     | <hr/> |        |
|                                     | 25    | %11,53 |
| <i>Ezezagunak:</i>                  |       |        |
| Abjenezia .....                     | 1     |        |
| Kalentura ustela* .....             | 41    |        |
| Ultzera leizetsuak .....            | 1     |        |
| Frenitisa .....                     | 1     |        |
|                                     | <hr/> |        |
|                                     | 44    | %20,27 |
| Ez dakigu .....                     | 2     |        |
| Hilda aurkitua .....                | 1     |        |
|                                     | <hr/> |        |
|                                     | 3     | %1,38  |
| 10 URTEK GORA HILDAKO GUZTIAK ..... | <hr/> |        |
|                                     | 217   | %100   |
| <b>BIASTERI</b>                     |       |        |
| <i>Infekzioso-kutsakorrak:</i>      |       |        |
| Kalentura .....                     | 6     |        |
| Elgorria .....                      | 1     |        |
| Sinkope-tertziana .....             | 3     |        |
| Tertzianak .....                    | 16    |        |
| Koartanak .....                     | 3     |        |
| Intsolazioa .....                   | 24    |        |
|                                     | <hr/> |        |
|                                     | 53    | 53     |

\* Ziurrenik infekzioso-kutsakorra.

|   |           |            |
|---|-----------|------------|
| <i>Kardiobaskularrak:</i>               |           |            |
| Hidropesia .....                        | 8         | 8          |
| <i>Traumatikoak:</i>                    |           |            |
| Istripuak .....                         | 5         | 5          |
| <i>Ginekologikoak-obstetrikoak:</i>     |           |            |
| Sabelondoa.....                         | 1         | 1          |
| <i>Arnas aparatua:</i>                  |           |            |
| Alboko mina .....                       | 1         |            |
| Alboko punta.....                       | 9         |            |
| Bularrekoa .....                        | 2         |            |
| Tisia.....                              | 2         |            |
| Odol-okada .....                        | 1         |            |
|   | <u>15</u> | 15         |
| <i>Lokomozio-aparatua:</i>              |           |            |
| Erreuma .....                           | 4         | 4          |
| <i>Beste arrazoi batzuk:</i>            |           |            |
| Miseria .....                           | 3         |            |
| Bat-bateko istripua.....                | 1         |            |
| Istripuak .....                         | 1         |            |
| Ez da zehazten.....                     | 7         |            |
| «Sofocado después de larga nieve».....  | 1         |            |
| «Mal de diena orina» (harria ote?)..... | 1         |            |
|   | <u>14</u> | 14         |
| HILDAKO GUZTIAK .....                   |           | <u>100</u> |

Haur eta gazteen heriotza eragiten zuten gaixotasun nagusiak elgorria (%14,89), baztanga (%12,76) eta epilepsia (%11,70) ziren eta gaixotasun hauek, arazorik gabeko garaietan, hau da, hornigaien krisirik ez zegoen garaietan, diagnostikatutako heriotzen ia %40 eragiten zuten; portzentaia horrek %50 gaindituko luke arrazoia zehazten ez zen heriotzen zati proportzionala gehituko bagenio. Elgorriak heriotza ugari eragiten zuen eta gaixotasun honek ekartzen zituen konplikazioak, hala nola bularreko hauraren elgorri gaiztoa, entzefalitisa etab., ziren heriotza horien arrazoiak. Epilepsiaren garrantzia harrigarriagoa eta bitxiagoa zen. Badirudi ez zirela kasu epileptikoak bakarrik izan, baizik eta hurrei gaizki diagnostikatutako bestelako konbultsioak ere bai. Maiztasun handi horren gizarte-arrazoiak endogamia, erditzean izandako traumak eta epilepsia sortzen zuen meningoentzefalitisa izango lirateke. Garai hartako baldintza profilaktiko txarrak bi gaixotasunetan irudikatuko dira argi eta garbi: disenterian (%5,31) eta zizareetan (%8,51); hauen gizarte-arrazoiak pobrezia, higiene falta eta baldintza ekonomiko eta sozial eskasak ziren.

Helduen heriotza eragin zuten gaixotasunei dagokienez, Laudio (klima hezea) eta Biasteriren (klima lehorra) artean ez dago alde handirik. Gaixotasun infekzioso-kutsakorren nagusitasuna nabarmena zen: %33,18 Laudion, kalentura ustela kontuan izanda, eta %53 Biasterin; herri honetan intsolazioa eta kalentura ustela ziren nabarmenenak. Lehena tifus exantematikoa zen, bakteriatuak sortzen zuten eta zorriek transmititzen zuten; biztanleriaren zati handi baten bizi-baldintza txarren beste adibide bat baino ez da hori.

### Ardogintzaren koiuntura eta demografia

Bastidako bataioen kurba gordinetan eta batez besteko kurba mugikorrenean jokaera ez-ohikoa ikus daiteke eta are gehiago Lekeitio, Plentzia eta Beasaingoekin konparatzen baditugu; Biasteriko kurbarekin konparatzen badugu, ordea, desberdintasuna ez da horren nabarmena. Bastidan, XVII. mendearen amaieran eta XVIII.aren hasieran egondako jaiotza-kopuru handiena ez zen XIX. mendean ondo murgilduta egon arte gainditu eta, Biasterin, berriz, XVIII. mendearen laurogeita hamarreko hamarkadara arte. Bi herri hauetako nekazaritza-sektorearen egiturak azalpen sinesgarria eskaintzen digu: Bastidak, XVII. mendeaz geroztik gutxienez, monolaborantza zuen eta lantzen zuten produktu bakarra ardoa zen; Biasterin, berriz, ardoak garrantzi handia zuen arren, zituak ere lantzen zituzten. Kostaldeko bi probintzietan ardoaren kontsumoaren gorakada nabarmenak —gaur egungo autore gehienek berresten dute hori—, Errioxako mahastizaintzat garai oparoak zetozela iragartzen zuten. Zoritxarrez, ezin izan ditugu Euskal Herriko prezioen datuak aurkitu, baina, ia ziurtasun osoz, Espainian eta Frantzian izandako antzeko gorabeherak izan zituztela suposa daiteke. Katalunian, ardoaren prezioaren gorakada XVIII. mendeko lehenengo erdian gertatu zen eta bigarren erdian, aldiz, geldialdi erlatiboa izan zuen; beherakada 1778an hasi zen eta 1788tik 1792ra nolabaiteko zuzperraldia izan zuen<sup>71</sup>. Frantzian egoera honakoa zen<sup>72</sup>:

|            | 1726-41 | 1771-89 | 1785-89 |
|------------|---------|---------|---------|
| Garia..... | 100     | 156     | 166     |
| Ardoa..... | 100     | 135     | 113     |

Prezioen arteko truke-erlazioari soldaten gorakada gehitzen baldin badiegu ardoa produzitzen zuten inguru batzuetan izandako zailtasunez

<sup>71</sup> Vilar, P., *op. cit.*, II. libk. 379-383. orr.

<sup>72</sup> Braudel, F., Labrousse, E., *Historie Economique et Sociale de la France*, II. libk., 399. or.



ohartuko gara eta, gure kasuan, Bastidan izandakoez. Katalunian ardoaren produkzioan lan egiten zutenen soldata 1779an 9,25 izatetik 1797an 17,54 izatera pasatu zen<sup>73</sup>; Frantzian, 1777 eta 1790 artean, ardoen prezioek beherakada nabarmena jasan zuten garaian hain zuzen ere, igoera %16koa izan zen<sup>74</sup>. Hala, bada, mahastien kasuan jornaliririk gabe lan egitea ezinezkoa zela kontuan izanik, ardo-produzitzailleak soldata gorakorrek ordaindu behar izan zituen ardoaren beraren prezioa beherantz zihorean. Era berean, zituekin egiten zen truke-erlazio erreala gero eta okerragoa zen: gero eta ardo gehiago eman behar izaten zuen gari-kantitate berberagatik. Bastidak oso gutxi produzitzen zuen autokontsumorako eta arazo horiek guztiak argi ikusten dira bertako parrokiako kurbetan. Hirurogeiko hamarkadatik aurrera bataiatuen kopuruak behera egin zuen eta 1785 inguruan izan zuen mailarik baxuena. Ardogileen etekinek jasan zuten estutzearen emaitza izan zen. Bestalde, ezkontzek gora egin zuten, bikoteek haur gutxiago zituztela pentsatu beharko dugu eta argi erakusten du hori hamarkada bakoitzeko «ugalkortasunaren» kurbak; bataiatutako haurrak tarte bakoitzeko ezkontzen artean zatituta kalkulatu dugu. XVIII. mendearen lehenengo laurdenean ehun eta hirurogeita hamar urteetako batez bestekoa erruz gainditu zen: garai horretan ardoak prezio altuak izan zituen eta mahastiak berreraiki eta hedatu egin ziren, Biasteriko hamarrenen kurbak argi erakusten duenez. Izan ere, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera «ugalkortasuna» batez bestekoaren azpitik mantendu zen, XIX. mendearen lehenengo urteetan izan ezik. Biasterin ere gertatu zen beherakada, baina gutxiago iraun zuen eta, gainera, ardoaren prezioaren geldialdia zerealen prezioaren igoerarekin orekatu zen.

**Bastidako «ugalkortasuna» hamarkadaka  
(bataioak : ezkontzak)**

|              |      |                |      |
|--------------|------|----------------|------|
| 1680-89..... | 3,22 | 1780-89 .....  | 3,66 |
| 1690-99..... | 4,66 | 1790-99 .....  | 3,42 |
| 1700-09..... | 5,52 | 1800-09 .....  | 4,37 |
| 1710-19..... | 6,02 | 1810-19 .....  | 4,15 |
| 1720-29..... | 4,68 | 1820-29 .....  | 4,08 |
| 1730-39..... | 4,02 | 1830-39 .....  | 4,07 |
| 1740-49..... | 5,15 | 1840-49 .....  | 3,39 |
| 1750-59..... | 4,09 | 1680/789 ..... | 4,40 |
| 1760-69..... | 4,51 | 1790/849 ..... | 3,87 |
| 1770-79..... | 4,03 |                |      |

<sup>73</sup> Vilar, P., *op. cit.*, II. libk., 547. or.


<sup>74</sup> Braudel, F., Labrousse, E., *op. cit.*, II. libk., 489. or.

## Gerrak eta demografia

Independentziako Gerrak suntsiketak sortu zituen, baina oso leku zehatzetan gertatu ziren. Frantziako armadak, atzera egin zuenean, bere ibilbidean aurkitu zituen herrietako aziendetan sarraski izugarria eragin zuen, baina ibilbidetik urrun zeuden herriek ez zuten kalterik izan. Gauza bera gertatu zen tropen ostatuarekin eta borrokekin. Gerra nazional-herrikoa izan arren, ez zuen eragin zuzenik izan biztanleriarengan, baina ezin daiteke gauza bera esan 1833-1839ko gerra zibilari buruz. Bat-bateko borroketan, zelatetan edo batailetan gertatutako heriotzek ez dute heriotza-tasaren kurba puztuko, ez baziren herrian bertan edo inguruetan gertatzen edo herrian —Durangon horixe gertatu zen— ospitale bat ezarri ez bazen behintzat. Errealitate hau Biasteri eta Bastidako kurbetan islatzen da, ez baitira ia gerraren ondorioak sumatzen. Beasainen, gatazkaren ondorioz jaiotza-tasak behera egin zuen eta heriotza-tasak gora, baina oso aldaketa txikiak izan ziren; aitzitik, 1813 eta 1814an, garai honetako ehorzketa gehien gertatu ziren. Plentzian, lehenbizi hildakoen kopuruak egin zuen gora (1809); gero ezkontzak gutxitu ziren (1809tik 1811ra) eta, horren ondorioz, jaiotzak ere urritu egin ziren (1810etik 1812ra). Hala ere, jaiotza-tasaren beherakada heriotza-tasaren gorakada baino nabarmenagoa izan zen. Gatazkaren erruz atzeratutako ezkontzek 1814, 1815 eta 1816. urteetako ezkontzen kurba puztu zuten eta garai honetako mailarik gorena lortu zuten. Lekeition, jaiotza-tasa eta ezkontzen kopurua heriotza-tasak gora egin aurretik hasi ziren behera egiten. 1814 eta 1815. urteetan, Plentzian izandako arrazoi berberengatik, ezkontza ugari egon zen eta Karlistada amaitzean baino ez zen kopuru hori gainditu. Oro har, eragin handirik jasan ez zuten inguruak egon ziren; beste toki batzuetan, hots, gerrillak egon ziren tokietan edo balio estrategikoa zuten tokietan, gerraren ondorio nagusiak jaiotza-tasaren eta ezkontzen beherakadak izan ziren, alde batetik, segurtasunik ez zegoelako eta, bestetik, gizonezkoek ihes egin zutelako edo armadan edo partidetan zeudelako. Inguru horietan heriotza-tasak gora egiten zuen nabarmen urteren batean, baina ez ditugu arrazoi zehatzak ezagutzen. Hala ere, gatazkak ez zuen joera aldatu.

Independentziako Gerraren eta Karlistadaren artean barealdia egon zen eta lasaitasun hori hirurteko konstituzionalean izandako erregearen aldeko taldeek eta elgorri-epidemia bortitz batek baino ez zuten aztoratu. Lekeition Fernando de Zabalaren partida aritu zen. Honen jarraitzaileetako batzuk bortizkeria handiz hil zituzten hiribildu horretatik hurbil, bertako hildakoen liburuan jaso baitziren; hala, bada, hogeita sei urteko lekeitiar bat dugu eta hil-kanpaiak jo ziren haren alde; Herriatuko beste bat, hogeita lau urtekoa eta Domingo de Bengoa, Ipazterrekoa; azken hori «fue fusilado la tarde de este día [1822ko urriak 11] en el arenal de esta villa por el Destacamento de soldados constitucionales del regi-

miento de Sevilla que estaba de guarnición». Hirurogeita hiru urte zituen. Gerrillak agertu izanak gizartean ezinegona zegoela adierazten du, baina demografikoki ez zuen ondorio larririk izan. Aitzitik, elgorriak, endemikoa izan ohi denak, epidemia bortitza eragin zuen eta zenbait tokitan haurren heriotza asko sortu zituen<sup>75</sup>. Biasterin, 1828an, jaiotza ugari izateaz gain, aztertu dugun garaiko heriotza gehien egon ziren: 161 lagun; heriotza gehien egon ziren hilabeteak urria, azaroa eta abendua izan ziren. Gaixotasunak bat eta lau urte arteko haurren izan zuen eragin handien eta urte bete ez zutenengan ere eragina izan zuen, baina ez zen hain bortitza izan. Hiribilduko bi parrokiatako batean —San Joanen— elgorriak sortutako hildakoen kopurua zehaztu zen; hamar urte artean hildako haur gehienak epidemiaren ondorioz hil ziren eta haurren heriotza-tasa %325era iritsi zen.



**Bastida.**  
**Kolera-gaitzaren epidemia**

Gauza jakina da Karlistada, Euskal Herriko, Nafarroako eta Iberiar penintsulako iparrekialdeko beste toki batzuetako nekazari asko mobilizatu zituen gerra zibila izan zela eta, beraz, Independentziako Gerrak baino

<sup>75</sup> Gorosabelen arabera, *Noticias...* 1823an sukar horia egon zen Gipuzkoako zenbait herritan.

eragin handiagoa izan zuela biztanleriarengan. Beasaingo kurban izan ezik, gainontzeko guztietan heriotza-tasak gora egin zuen, toki batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago, eta herri batzuetan gerraren erruz hildakoak eta koleraren erruz hildakoak nahastu ziren. Epidemia honek denbora gutxi iraun zuen, baina oso bortitza izan zen. Errioxan «en este día 26 de agosto de 1834 se empezó a sentir en esta Villa de Labastida el terrible azote de la peste llamada cólera morbo; se desarrolló con furia esta plaga en 1 de septiembre, y siguió, con algunos intervalos, hasta el 15 de octubre, en que se enterró el último que falleció víctima de esta desoladora epidemia». Irailaren 6rako, katoliko erromatarren erritoari jarraituz hildakoei egin ohi zitzaien gaubeila egiteari utzi zitzaion, eta izurria amaitu zen arte «fueron conducidos, sin ceremonia alguna a el campo Santo inmediatamente despues de haber espirado». Izan ere, azaroaren 2ra arte ez zen epidemia amaitu izanagatik eskerrak emateko Te Deuma egin<sup>76</sup>.

Bilbon, lehenengo kasuak 1834ko abuztuaren bukaera aldean agertu ziren eta irailaren erdialdean «gaixotasunak indar handia hartu zuen». Donostian, lehenengoa hilabete berberaren 21ean agertu zen harresi-barruan eta bertan epidemiak 5 hildako eragin zituen eta urriaren 31 arte iraun zuen; harresitik at, gaitzak 41 hildako eragin zituen San Martingo aldirian eta urriaren 5etik azaroaren 21era bitartean iraun zuen. Zehaztasunik eman gabe, barnealdeko herriak «infestados de cólera» zeudela adierazi zen<sup>77</sup>.



Kolera-gaitzaren epidemia egon zela adierazi ez zen herrietan ere heriotza-tasa oso handia izan zen. Lekeition izan ziren kopuru handienak: 249 hildako 1834an eta 141 1835ean, eta borrokan hildakoen kopurua, berriz, ez zen oso handia izan: hamahiru eta bi, hurrenez hurren; aitzitik, gazteen (bat eta bederatzi urte artekoak) eta helduen (hogeita berrogeita hemeretzi urte artekoak) heriotza-tasak handiak izan ziren.



Parrokietako kurbetatik edo auzotarrenetatik (Arespalditzakotik, esate baterako) atera daitekeen ondorioa, Karlistadak biztanleriarengan Independentziako Gerrak baino eragin zuzenagoa izan zuela da.


---

<sup>76</sup> Bastidako hildakoen liburua, 1828-1860, 71 atz., 75 eta 89 atz. orr.


<sup>77</sup> *Memoria sobre el cólera morbo según se ha observado en la ciudad de San Sebastián en el presente otoño...* Donostia, 1834, 3-8 orr.








ARESPALDITZA, Bataioak





BEASAIN

Sta. Mariako parrokia eta Garingo parrokia (Beasaingo auzoa)









## Migrazioak

XVIII. mendean, Euskal Herriko emigratzaileen helmugak ohikoak izan ziren: Meseta eta Andaluzia penintsulan eta Indiak itsasoz bestalde. Oso zaila da demografi mugimendu horietan zenbat jende mugitu zen neurtzea eta kuantifikatzea. Kopuru horietara hurbiltzeko, Lekeitioko Santa Maria parrokiako, Bastidako Ama Birjinaren parrokiako eta Biasteriko San Joan parrokiako hildakoen liburuak erabili ditut. Azkeneko bietan, gehienetan, hildakoen nondik-norakoak zehaztuta daude; hala, bada, nondik etorri ziren jakin dezakegu. Lekeition, auzotarren bat hiribildutik kanpo hiltzen zenean, non hil zen aipatu ohi zen; baina ez ziren denak zehazten eta, gainera, ez daude jasota Lekeitiotik kanpo hil ziren guztiak. Kopuruek gutxi gorabeherako hurbilketa eskaintzen dute, baina emigratzaile-kopurua baino gehiago emigratzaile horiek nora joan ziren edota nondik etorri ziren zehazteko balio du. Errioxan batez ere, hildakoen liburuak ezkontzen liburuak baino egokiagoak iruditu zaizkigu, gehienetan pobreak izan ohi ziren jornalari eta langileen behin-behineko imigrazioen berri izateko; gehien mugitzen zen taldea osatzen zuten hauek eta ezkontza-aktetan beharbada ez zen mugimendu hauen berri zehatza jasoko. Biasteriren kasuan, ospitalean hildakoak ehortzi zituzten parrokia aukeratu dugu.

Kopuruek merkataritza-harremanak adierazten dituzte batez ere, heriotzen kopurua bidaia-kopuruarekin eta, jakina, bidaia horietan sortzen ziren arriskuekin lotuta baitzegoen. Faktore horren ondorio da, hain zuzen ere, Ternuan bakailaoaren arrantzan hildakoen portzentaia handia. Merkataritzaren bitartez mugitzen ziren emigratzaileak eta, beraz, Ternua edo Ginearen kasuetan izan ezik, kopuruak euskaldunen emigrazioen abiapuntuak zehazteko ere esanguratsuak dira. Erlazio ekonomikoek asentamenduak bultzatu zituzten eta horren adibideak ditugu hildakoen liburuetan: 1800. urtean Cadizen hildako bat lekeitiarra zen, baina Andaluziako hiri horretako auzotarra zen ordurako.

Portuen inguruetan bizi zen jendeari dagokionez, oso gutxi ziren Gaztelara edo Mediterraneoko kostaldera alde egin zutenak; azken hori katalanek, valentziarrek eta barnealdeko jendeak okupatu eta birpopulatu zuten. Aitzitik, kolonia garrantzitsua zuten Cadizen, itsasoz bestaldeko merkataritza baimendu eta Amerikako independentzia lortu zen arte behintzat, Indietara alde egiteko abiapuntua baitzen. Amerikara gero eta jende gehiago joan zen, eta ez dirudi kolonien emantzipazioak jario horretan beherakadarik eragin zuenik. Hala ere, 1830etik 1850era bitartean ez da ez Hegoamerikako eta ez Ertamerikako portuetan hildako inor ageri. Hogeita bederatzia hildakoetatik, zortzi Amerikako bidaian hil ziren —ez da zehazten nola hil ziren— eta gainontzeak Kuban.

### Lekeitioko emigratzaileen heriotza-lekuak

| Lekuak                                | Kopuru gordinak |      |      |      | Ehuneakoak |       |       |       |
|---------------------------------------|-----------------|------|------|------|------------|-------|-------|-------|
|                                       | 1680            | 1730 | 1780 | 1830 | 1680       | 1730  | 1780  | 1830  |
|                                       | 1729            | 1779 | 1829 | 1850 | 1729       | 1779  | 1829  | 1850  |
| Bizkaia { Portuak .....               | 8               | 14   | 7    | 5    | 10,65      | 9,81  | 6,06  | 9,83  |
| Barnealdea .....                      | 5               | 7    | 5    | 1    |            |       |       |       |
| Gipuzkoa .....                        | 12              | 15   | 9    | 4    | 9,83       | 7,00  | 4,54  | 6,55  |
| Santander, Asturias, Galizia .....    | 6               | 17   | 9    | 4    | 4,91       | 7,94  | 4,54  | 6,55  |
| Cadiz eta Sevilla .....               | 5               | 9    | 27   | 1    | 4,09       | 4,20  | 13,63 | 1,63  |
| Mediterraneo itsasoa edo kostaldea .. | 2               | 2    | 4    | 1    | 1,63       | 0,93  | 2,02  | 1,63  |
| Barnealdeko probintziak .....         | 8               | 8    | 5    | 1    | 6,55       | 3,73  | 2,52  | 1,63  |
| Portugal edo bertako kostaldea .....  | 1               | —    | 2    | —    | 0,81       | —     | 1,01  | —     |
| Frantzia edo bertako kostaldea .....  | 12              | 5    | 5    | 4    | 9,83       | 2,33  | 2,52  | 6,55  |
| Herbeheretako kostaldea .....         | —               | —    | 1    | —    | —          | —     | 0,50  | —     |
| Britainia Handiko kartzelak .....     | 3               | 50   | 2    | —    | 2,45       | 23,36 | 1,01  | —     |
| Britainia Handia .....                | —               | —    | —    | 4    | —          | —     | —     | 6,55  |
| Irlanda .....                         | —               | 3    | —    | —    | —          | 1,40  | —     | —     |
| Estatu Batueterako bidaiari .....     | —               | —    | 1    | 2    | —          | —     | 0,50  | 3,27  |
| Amerikan edo bidaiari .....           | 28              | 67   | 110  | 29   | 22,95      | 31,30 | 55,55 | 47,54 |
| Ternua .....                          | 30              | 12   | 3    | —    | 24,59      | 5,60  | 1,51  | —     |
| Baiaeren arrantzagunak .....          | —               | 3    | —    | —    | —          | 1,40  | —     | —     |
| Afrika .....                          | —               | —    | —    | 1    | —          | —     | —     | 1,63  |
| Ginea edo bertako kostaldea .....     | —               | —    | 1    | 3    | —          | —     | 0,50  | 4,91  |
| Bestelakoak .....                     | 2               | 2    | 7    | 1    | 1,63       | 0,93  | 3,53  | 1,63  |
| <i>Guztira</i> .....                  | 122             | 214  | 198  | 61   | 99,92      | 99,93 | 99,94 | 99,90 |

*Oharra:* horietaz gain, Errege Armadan edo Errege Zerbitzuan 40, 15, 19 eta 0 hil ziren garai-tarte bakoitzean. Eta itsasoan hildakoak edo non hil ziren zehaztu gabe, baina beti ere Lekeitiotik kanpo, 21, 15, 48 eta 50, «se tocó a clamor por» labur baten ondoan jasota. 1780tik aurrera zehazgabetsuna handiagoa da eta 1830etik aurrera ia zehaztutakoen kopuru berbera ziren.

Euskal Herriak bakailoaren arrantza egiteari guztiz utzi zion. XVII. mendean lehenengo urtetan hasi zen, baina XVIII. mendean erdialderako ia ez zuen parte hartzen. Larramendik Caracasko Konpainiari egotzi zion errua: «Ha sido ocasión para que los mercaderes hayan sacado sus cuentas y hayan abandonado el comercio de esos géneros [bakailoa eta balea] por aprovecharse del comercio del cacao, que hallan ser mejor y más proficuo y de menos costa y cuidados»<sup>78</sup>. Bada kointzidentzia kronologikorik Pasaiako konpainiaren lehenengo ontzien irteeraren (1730)<sup>79</sup>, Ternuan hildakoen bat-bateko beherakadaren eta Venezuelan hildakoen gorakadaren artean: bat ere ez 1680 eta 1729 artean, eta hamabi Caracasen, bat Cumanán eta beste bat Puerto Cabellon 1730 eta 1779 artean, hau da, garai horretan Amerikan hildakoen %21.

<sup>78</sup> Larramendi, M., *op. cit.*, 213. or.

<sup>79</sup> Estornés Lasa, J., *La Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Buenos Aires, 1948, 61. or.

Indietara zuzendutako emigrazioaren gorakadarekin batera, Frantzia-  
rekin zeuden harremanetan atzerakada gertatu zen eta Gaztelarako emigra-  
zioan ere bai. Larramendik berak zioenez, «se aplican muchísimos... a ser-  
vir en toda España de pajes, de criados, de escribientes», eta hargin eta  
arotz-lanetara joan zirenak ere baziren<sup>80</sup>, baina, hala ere, badirudi joera  
hori gero eta ahulagoa zela. Biasteriko San Joango eta Bastidako datuek  
egiaztatzen dituzte Lekeitioko datuak. Bastidan, hildakoen liburuan jasotako  
bizkaitar eta gipuzkoarren portzentaiak %28,56, %21,42, %11,76 eta  
%7,54 izan ziren 1700-1709, 1750-1759, 1800-1808 eta 1840-1849 tartetean  
hurrenez hurren; Biasterin, %23,67, %8,95 eta %2,32 izan ziren 1700-1709,  
1750-1769 eta 1770-1789 tartetean.

1829. urtean azalduko da Ginean lehenengo hildakoa; kopuru honek  
ez du garrantzi handirik izango, baina hurrengo hogeitazurteetan kopuru  
hori handituz joango da. Era berean, Estatu Batuetan bizkaitarrak agertu-  
ko dira, New Orleansen hildako bat hain zuzen ere, eta datu honek beltzen  
salerosketan parte hartu izan zutela pentsarazten digu, «Gineako karrera»  
deitu izan den horretan, hain zuzen ere.

Garai berean, kolonia ohiekin izandako loturen mozketak orekatzeko,  
Frantzia eta Britainia Handiarekin zituzten harremanak zuzpertzten hasi zi-  
ren, heriotzen arrazoiak ez baitziren jada, XVIII. mendearen erdialdean ger-  
tatu zen bezalaxe, gerrak edo itsaslapurretak.

Bastidako eta Biasteriko San Joango datuek Errioxarantz zuzendutako  
imigrazioa islatzen dute, hau da, jendeak beste ingurune batzuetatik alde  
egin zuela. Nekazaritza-egiturak baldintzatu izan ditu kopuru horiek neurri  
handi batean. Mahastiak edo zituak, artoa izan ezik, landatzen zituzten ne-  
kazaritza-inguruetan lan esku ugari behar izaten zen urteko zenbait garai-  
tan, baina lan esku horrentzat lanik ez zegoen gainontzeko urtarotetan. Be-  
har hori herriko bertako jornalari eta lur-jabe txikiak asetu ohi zen  
neurri batean, euren uztak oso txikiak zirenez eta, altueragatik, inguru ge-  
ografiko txikietan egoten ziren klima desberdinen erruz, indartsuagoak zi-  
ren nekazarien lurretan lan egin behar izaten baitzuten. Hala, bada, Sama-  
niegon «los habitantes de este pueblo, esto es, aquellos más necesitados,  
después de San Juan en junio, en que están concluidas las labores de viñe-  
do, acostumbran a salir a tierras de Navarra y otros parages tempranos a  
ocuparse en la siega de mieses, de ínterin que las de esta población como  
más tardías se sazonan que suele ser a fines de julio o principios de ago-  
sto, y cuyas emigraciones son útiles porque ocupan el tiempo que en este  
pueblo no podrían hacer con utilidad, pues no se les puede proporcionar  
en tales estaciones empleo»<sup>81</sup>.

---

<sup>80</sup> Larramendi, M., *op. cit.*, 206 eta 215. orr.

<sup>81</sup> Samaniegoko Parrokiako Artxiboa, orri solteak, biztanleriari buruzko galdera politikoen  
24. erantzuna, 1802ko errolda.

### Bastidan hildako imigranteen jatorrizko probintzia edo nazioa

|  | Kopuru gordinak |      |      |      | Ehunekoak |       |       |       |
|--|-----------------|------|------|------|-----------|-------|-------|-------|
|  | 1700            | 1750 | 1800 | 1840 | 1700      | 1750  | 1800  | 1840  |
|  | 1709            | 1759 | 1809 | 1849 | 1709      | 1759  | 1809  | 1849  |
| Araba .....                              | 13              | 6    | 24   | 30   | 18,57     | 14,28 | 28,23 | 28,30 |
| Bizkaia .....                            | 17              | 6    | 8    | 1    | 24,28     | 14,28 | 9,41  | 0,94  |
| Gipuzkoa .....                           | 3               | 3    | 2    | 7    | 4,28      | 7,14  | 2,35  | 6,60  |
| Santander .....                          | 3               | —    | 2    | 1    | 4,28      | —     | 2,35  | 0,94  |
| Asturias .....                           | 1               | —    | 1    | —    | 1,42      | —     | 1,17  | —     |
| Nafarroa .....                           | 1               | 2    | 2    | 1    | 1,42      | 4,76  | 2,35  | 0,94  |
| Burgos .....                             | 7               | 10   | 12   | 23   | 10,00     | 23,80 | 14,11 | 21,69 |
| Logroño .....                            | 3               | 7    | 13   | 28   | 4,28      | 16,66 | 15,29 | 26,41 |
| Galizia .....                            | 12              | 6    | 13   | 9    | 17,14     | 14,28 | 15,29 | 8,49  |
| Frantzia .....                           | 4               | —    | —    | —    | 5,71      | —     | —     | —     |
| Madril .....                             | —               | —    | —    | 2    | —         | —     | —     | 1,88  |
| Soria .....                              | —               | 1    | —    | 1    | —         | 2,38  | —     | 0,94  |
| Valladolid .....                         | —               | —    | 2    | —    | —         | —     | 2,35  | —     |
| Palencia .....                           | —               | —    | 2    | 1    | —         | —     | 2,35  | 0,94  |
| Jatorri italiarreko soldadu frantsesa. . | —               | —    | 1    | —    | —         | —     | 1,17  | —     |
| Zehaztu gabe .....                       | 6               | 1    | 3    | 2    | 8,57      | 2,38  | 3,52  | 1,88  |
| <i>Guztira</i> .....                     | 70              | 42   | 85   | 106  | 99,95     | 99,96 | 99,94 | 99,95 |

Mahastia eta zitua lantzen zen tokietan, bilketak garai berean egiten ez zirenez, arazoa ez zen monolaborantza zuten herrietan bezain larria. Hala ere, kasu horietan ere behar-beharrezkoa zen kanpotik langileak ekartzea. Meijide Pardok<sup>82</sup> deskribatutako eta kuantifikatutako gailegoen migrazioek asetzen zuten lanekuaren beharra lan gehien zegoen unetan. 1797. urtean, Bastidak auzotar eta biztanleen kopurua 450 familiakoa zela adierazi zuen, «además de otros setecientos jornaleros forasteros que la son necesarios por el tiempo de seis meses para el laboreo de sus viñas y recolección de frutos»<sup>83</sup>.

Penintsulako IMko biztanleen proportzioa handia izan zen Biasterin nahiz Bastidan XVIII. mende osoan, baina, hala ere, beheranzko halako joera bat zegoen, batez ere XIX. mendearen bigarren laurdenean. Behin-behineko soldatapekoak ziren, «mozos solteros», «solteros sirvientes», testamentua egiten zutenean zera uzten zuten: «la soldada que avian ganado en la temporada de cabas», eta horrekin zorrak ordaintzen ziren eta gainontzekoa mezetarako ematen zen<sup>84</sup> edo, bestela, soldata hori hildakoa ehorzteko erabiltzen zen. Emigratzaile hauek Bizkaira ere iritsi ziren; hala, adibidez, Ziortzako

<sup>82</sup> «La emigración gallega intrapeninsular en el siglo XVIII», *Estudios de Historia de España*, IV. libk. II. al., Madril, 1960.

<sup>83</sup> AHN, Consejos, 1749. leg., 26. zkia.

<sup>84</sup> Biasteriko San Joango hildakoen liburutik, 1751ko ekainaren 28an hildakoa, 218. or.

abatetxeak gailego baten soldata adierazi zuen 1758an bere zor eta hartze-koetan<sup>85</sup>.

Galiziatik gero eta imigrante gutxiago zetorren eta Kantabrietik, berriz, bat ere ez; hala, bada, barnealdeko inguruetatik zetorren jendeak ordezkatu zituen horiek: Biasteriren kasuan, Burgos, Logroño, eta Nafarroatik zetorren jendea asko ugaritu zen eta, era berean, Arabatik ere iristen zen jendea, bai-na Arabatik eta Logroñoeko probintziatik zetozenak ez ziren Errioxakoak.

XVIII. mendearen bukaeran eta batez ere hurrengo mendearen hasieran, urrutiago zeuden probintzietatik —Madril, Soria, Valladolid, Palencia— zetozen langileak azaldu ziren, eta horrek lanekuaren mugikortasun handiagoa zegoela adierazten du.

Laburtuz: bizkaitarrak eta gipuzkoarrak, XVIII. mendea aurrera joan ahala, Amerikara joan ziren batez ere. Barnealderanzko migrazioak behera egin zuen. Arabako Errioxak, iparraldeko, Euskal Herriko eta Galiziako jendea erakarri zuen XVIII. mendearen lehenengo erdian, eta mende osoan Galiziatik, Burgostik eta ardoa lantzen ez zen Logroñoeko inguruetatik ere jendea iritsi zen.

#### Biasteriko San Joanen ehortzitako imigranteen jatorria

|                          | Kopuru gordinak |           |           | Ehunekoak |           |           |
|--------------------------|-----------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
|                          | 1700            | 1750      | 1770      | 1700      | 1750      | 1770      |
|                          | —<br>1709       | —<br>1759 | —<br>1789 | —<br>1709 | —<br>1759 | —<br>1789 |
| Araba . . . . .          | 7               | 16        | 10        | 18,42     | 23,88     | 23,25     |
| Bizkaia . . . . .        | 6               | 5         | —         | 15,78     | 7,46      | 0         |
| Gipuzkoa . . . . .       | 3               | 1         | 1         | 7,89      | 1,49      | 2,32      |
| Nafarroa . . . . .       | 3               | 6         | 8         | 7,89      | 8,95      | 18,60     |
| Burgos . . . . .         | 2               | 8         | 3         | 5,26      | 11,94     | 6,97      |
| Logroño . . . . .        | 2               | 9         | 7         | 5,26      | 13,43     | 16,27     |
| Galizia . . . . .        | 10              | 16        | 8         | 26,31     | 23,88     | 18,60     |
| Frantzia . . . . .       | 1               | 1         | —         | 2,63      | 1,49      | —         |
| Soria . . . . .          | 1               | —         | 1         | 2,63      | —         | 2,32      |
| Cuenca . . . . .         | —               | —         | 1         | —         | —         | 2,32      |
| Zaragoza . . . . .       | —               | 1         | 1         | —         | 1,49      | 2,32      |
| Palencia . . . . .       | —               | 1         | 1         | —         | 1,49      | 2,32      |
| Madril . . . . .         | 1               | —         | —         | 2,63      | —         | —         |
| Toledo . . . . .         | 1               | —         | —         | 2,63      | —         | —         |
| Andaluzia . . . . .      | 1               | —         | —         | 2,63      | —         | —         |
| Flandeskua . . . . .     | —               | —         | 1         | —         | —         | 2,32      |
| Zehaztu gabe . . . . .   | —               | 3         | 1         | —         | 4,47      | 2,32      |
| <i>Guztira</i> . . . . . | 38              | 67        | 43        | 99,96     | 99,97     | 99,93     |

<sup>85</sup> Ziortzako Artxiboa. Ziortzako kapitulu-mahaiko administrazio-liburua, 1751tik 1813ra, 48 or.

Oinarrizko ezaugarri hauek ez dute hainbat zehaztasun baztertzen. Bizkaiko burdinolek laneku espezializatua erakartzen zuten, batez ere Gipuzkoakoa: Otxandion «la mayor parte de los que trabajan en dhas fábricas son forasteros venidos de la Provincia de Guipúzcoa los mas»<sup>86</sup>; Zeaurin, urtarrilean eta udazkenean, nekazariak ikatza egiten zuten «a una con otros que también vienen de otros lugares y provincias»<sup>87</sup>. Gipuzkoako Aian, jende asko ikatza egitera eta burdinoletan lan egitera Bizkaira joan ohi zela adierazi zen: «al señorío de Vizcaya y montañas de Santander, por no haber todos en las de su distrito»<sup>88</sup>. Larramendik, XVIII. mendearren erdialdean Gipuzkoako olagizonak kanpora joaten zirela idatzi zuen: «van a las herrerías de Navarra y a las pocas que hay en Aragón. Salen muchísimos al señorío de Vizcaya... salen carboneros en grande número a Vizcaya y a la Montaña»<sup>89</sup>. Orokorrean, urtaroen arabera sortzen ziren migrazioak ziren: «Los labradores solteros emigran en la estación del verano a carbonear y segar a diferentes provincias»<sup>90</sup>.

Artisautzarekin lotutako jarduerak galiar imigranteak ere erakarri zituen. Ilustratuak kexu ziren: «la mayor parte de las tejerías y ollerías del País están en poder de franceses, que trabajando aca los veranos se vuelven a su casa por el invierno con muy buenos reales que debieran quedar en el País, si ciertas preocupaciones que se tienen contra estos oficios no retrajesen de ellos a nuestros paisanos: y lo mismo sucede con los peleteros, linterneros y caldereros de que hormigean estas tres provincias»<sup>91</sup>. Amezketan, 1787an, hogeita hiru nafar eta frantses zeudela jaso zen<sup>92</sup>; Tolosan ehun eta hirurogeita bat: «advenedizos, navarros, castellanos, alaveses y franceses»<sup>93</sup>. Hala ere, Pirinioez bestaldeko migrazioa txikitu egin zen XVIII. mendearren lehenengo urteetan. Bastidan, mende horretako lehenengo urteetan, lau frantses daude jasota; Biasteriko San Joanen, 1700 eta 1769 artean, bi, eta handik aurrera ez dira gehiago azalduko. Badirudi moztu zen mugaz bestaldeko migrazioa urte batzuetarako lanera etortzen ziren gizonena izan zela, bertan geratzeko asmorik gabe etortzen zirena hain zuzen ere. Horixe adierazten du 1718. urtean Hernanin egindako atxilotetak: hiru frantses atxilotu zituzten Espainiatik beren lanaren truk lortutako urrea eta zilarra atera nahi zutelako. Hiru galdaragile ziren, hogeita hamabi eta hogeita hemezortzi urte artekoak. Lehenak hamar urte zermatzen Espainian, Kataluniatik sartu zen eta Gaztelan lan egin zuen; beste

<sup>86</sup> 1787ko errolda, Otxandiok emandako erantzuna.

<sup>87</sup> 1787ko errolda, Zeaurik emandako erantzuna.

<sup>88</sup> *Diccionario de la R.A.H.*, 1802, II. libk., 133. or.

<sup>89</sup> Larramendi, M., *op. cit.*, 206. or.

<sup>90</sup> HEAA, 1802ko errolda, Mutrikuk emandako erantzuna, Vargas Ponce bilduma, 22. libk.

<sup>91</sup> *Ensayo de la R.S.B.A.P.*, Gasteiz, 1766, 199 eta 200. orr.

<sup>92</sup> 1787ko erroldari emandako erantzuna.

<sup>93</sup> 1787ko erroldari emandako erantzuna.



biek bi urte eta zortzi hilabete baino ez zeramatzaten eta denbora horretan ondorengo ibilbidea egin zuten: muga - Gasteiz - Burgos - Palencia - Rioseco - Peñacerrada de Bracamonte - Rioseco - Balmaseda - Bilbo - Donostia. Guztira, zilarrezko berrogei errealeko berrehun eta hiru dobloi eta erdi konfiskatu zitzaizkien, urrezko txanponetan, zilarrezko hogeita bi ezkutu eta erdi, hiru zaldi eta bi eskopeta; horretaz gain, zilarrezko erlikiontziak, arrosarioak eta gurutzeak ere konfiskatu zitzaizkien<sup>94</sup>. Aitzitik, urtaro jakin batzuetarako etortzen zirenen migrazioak mantendu egin ziren, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak kritikaturako migrazioak hain zuzen ere.

Noizean behin, batez ere XVIII. mendearen bukaeran eta XIX.aren hasieran, goseak bultzatuta, barnealdeko jendea, ondo hornituta zeuden eta prezio merkeagoak zituzten portuetara joango da. Donostian, 1804ko urtarrilaren 13an, Errege Kontseiluari jakinarazi zitzaion «la grande emigración que hay desde Castilla a este País» eta, horregatik, «se halla este Pueblo concurrido de crecido número de mendigos y familias de Castilla que buscan su sustento de limosna: los cuales unidos a los muchos pobres del Pueblo y su contorno que recurren tam<sup>n</sup> a él presenta un objeto de la maior compasión y ternura»<sup>95</sup>. Zorrak zituzten nekazariak, lanik gabeko jornalariak, behartsuak, lapurrak edo gerrillariak ziren eta horien guztien aurka errepresio gogorra ezarriko da 1770. urtetik aurrera; mendearen azkeneko urteetan errepresioa areagotu egingo da.

Kasu gehienetan, emigratzaile eta pobre hitzak sinonimoak dira. Hildakoen liburuak egiaztatzen dute hori. Biasterin, mende hasieran hildako hogeita hemezortzi imigranteetatik, hogeita lau ospitalean hil ziren edo «pobreak» zirela espreski adierazi zen, eta 1750 eta 1789 arteko ehun eta hamarretatik hirurogeita hamabost. Horiei beste hainbat gehitu beharko litzaieke: zerbitzariak edo etxe laurdena eta ereintzaren anega bat jaraunspen gisa bere arimari uzten ziotenak; San Joango kabildoak honela jaso zuen: «por si salen inciertos dhos bienes [lo] entierro en la forma que... practica con los pobres que mueren en dicho hospital»<sup>96</sup>. Oro har, hiletak ordaintzeko ere dirurik ez zuen jendea zen. Bastidan, 1700 eta 1709 artean, bi izan ezik, beste guztiak pobreak zirela adierazita dago eta 1750 eta 1759 artean bost izan ezik beste guztiak.

## Migrazioak eta populazio-piramideak


Normalean, behin-behineko edo urtaro zehatzetako migrazioek ez dute arrastorik utzi 1787ko populazio-piramideetan. Adinkako banaketetan islatzeko, migrazio garrantzitsuagoak eta etenik gabeak behar dute izan eta

---

<sup>94</sup> AHN, Consejos, 5. leg., 14. zkia.

<sup>95</sup> AHN, Consejos, 2457. leg., 2. zkia.

<sup>96</sup> Biasteriko San Joango hildakoen liburua, 1750-1759, 236. or.



Lekeitioko populazio-piramidea 1825ean

horixe erakutsi digu P. Vilarrek Kataluniako zenbait ingurutan, euren biztanleria bost aldiz ere handitu baitzen. Ez zen gauza bera gertatu Euskal Herrian. Hala ere, itsasoko jarduerak eta Amerikaranzko irteerak eragina izan zuten kostaldeko herrietan eta gizonezkoen tartean huts nabarmenak sortu ziren. Mutriku, 1776an, haurrak kontuan izan gabe, zazpi urte baino gehiago zituzten 1.530 pertsona zituen, apaizak barne. Hiribilduan eta aldirian 284 gizon eta 513 emakume bizi ziren eta landan 357 eta 376, hurrenez hurren. Informazioa eman zuenak ohar hau jarri zuen: «Nótese aquí la igualdad, allí la desigualdad; ésta nacida de más vicio y celibatismo, de más criadas que criados, y del marinerage q<sup>e</sup> va y tal vez no vuelve y de los idos a América»<sup>97</sup>. Errealitate hori begi-bistakoa zen portua zuten herri txikietan, hau da, oso nekazari gutxi zuten herrietan. Baina hainbat portutako adin-tarte desberdinetako portzentaiak konparatzean, oso desberdinak direla ohartu gara eta zera pentsa daiteke, batzuetan itsasoan zebiltzanak kontuan hartzen zituztela eta beste batzuetan ez eta, jakina, horrek errealitatea ezkututzen du. Baina badirudi arrazoia beste bat dela. Lekeitioko 1825eko polizia-eroldaren zorroztasunari esker, kostaldeko inguruetan migrazioek sortu zuten arazoa zehaztasunez uler daiteke. Garai horretan hiribilduak 2.607 biztanle zituen, kanpotarrak kontuan izan gabe; kopuru horretan, 304 gizon eta 338 emakume imigranteak dira eta kontuan izan behar da gizonen heriotza-tasa handiagoa zela eta horregatik emakume gehiago daudela. Biztanleria osoaren laurdena dira —%24,62—. Bizkaitik

<sup>97</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, Mutriku, 9-22-4-4197.

etorriak ziren gehienak —%85,36—, eta horietatik ia erdiak —%45,95— inguruko udaletatik etorri ziren: Amoroto, Berriatua, Mendexa, Gizaburuaga eta Ipazterretik; gehienetan, sexu bateko nahiz besteko nekazariak ziren eta lehen sektorea utzi eta arrantzan nahiz zerbitzuetan aritzen ziren: neskameak, labezainak, jostunak... Hauen ondoren gipuzkoarrak zeuden, %10,60, eta beste probintzia batzuetatik etorritakoak, berriz, oso gutxi ziren —%3,43—; bestalde, Indietatik itzultitakoak —hiru, %0,46 hain zuzen ere— eta frantsesak —%0,15— ere oso gutxi ziren.

Nekazaritza-inguruetatik etorritako imigrante horiek hazkundearen eta hiribilduko populazio-piramidearen ekarpen erabakigarria dira, goian aipatutako %25 erruz gainditzen baitute. Ez da ahaztu behar hiribilduan jaio ziren imigrante horien seme-alabak lekeitiartzat hartu zituztela. Hala, bada, bertakoen kopurua handitu egingo da. Tarte bakoitzean imigranteek kopuru osoarekiko osatzen duten portzentaia ezartzen denean erraz ikus daiteke hori.

**Tarte bakoitzeko imigranteen ehunekoa. Lekeitio, 1825**

|             |       |             |       |
|-------------|-------|-------------|-------|
| 0- 4 .....  | 2,17  | 45-49 ..... | 50,39 |
| 5- 9 .....  | 3,21  | 50-54 ..... | 53,43 |
| 10-14 ..... | 10,13 | 55-59 ..... | 43,90 |
| 15-19 ..... | 13,67 | 60-64 ..... | 34,40 |
| 20-24 ..... | 16,66 | 65-69 ..... | 42,16 |
| 25-29 ..... | 27,90 | 70-74 ..... | 37,50 |
| 30-34 ..... | 34,81 | 75-79 ..... | 56,00 |
| 35-39 ..... | 34,59 | 80-84 ..... | 28,57 |
| 40-44 ..... | 43,77 | 85-89 ..... | 66,66 |

Ondorioak begi-bistakoak dira: arrantza eta nabigazioaren erruz gizon ugari hiltzen zen eta horrek eragina izan zuen Lekeitioko piramidean, baina baita inguruko herrietako piramideetan ere, hutsuneak betetzen zituztenak baitziren. Horregatik ziren antzekoak kostaldeko piramideak eta nekazaritza-inguruetakoak<sup>98</sup>.

### **Migrazioak, legedia eta koiantura**

Nekazaritza-baliabide eskasak dituen beste edozein herriren antzera, Euskal Herria ere beste eskualde batzuetatik etorritako imigranteen behin betiko asentamenduak saihesten saiatu da. Auzotar izan nahi zuten guztiek,

<sup>98</sup> Mauleón Islak, Bilborako migrazioak aztertzerakoan antzeko ondorioak atera ditu, kopuruak adierazi ez baditu ere. *Op. cit.*, 86 eta 87.orr.

probintzian jaiotakoak ez baldin baziren, kaparetasuna egiaztatu beharra zuten. Kaparetasuna egiaztatzeko izapide luze eta garestiak egin behar ziren. Kostu handia zuten beste betebeharrak batzuen artean, kaparetasuna frogatu nahi zuenak bi pertsona eraman behar zituen —sindikoko bat eta fiel bat— bere jaioterrira, kostu guztien kargu bera eginez, jakina, eta bertan, bataio-agiriaren eta ezkontza-agiriaren bidez, lekukoei galdeketak eginez etab. bere kaparetasuna eta odol-garbitasuna frogatu beharko zuen<sup>99</sup>. Normalean, Bilboko merkatariek lege horiek erabiliko dituzte merkataritzan zailtasunak daudenean atzerriko konpetentzia saihesteko<sup>100</sup>.

1770 inguruan jarrera aldatu egingo da. Demografiaren hazkundera eta zenbait lanbideren garapena ez ziren modu berean gertatu eta lanbide horiei informazio-prozesua ez egiteko eskubidea eman zitzaizkien denboraldi batez. Eskubide hori zuten lanbideetako batzuk hauek dira: «pregoneros, carniceros, barrenderos, zurradores, y los que profesan algún otro oficio infame... solo mientras ejercen sus oficios»; era berean, beharrezkoak ziren bitartean behinik behin, mediku edo zirujauak, herriren baten soldatapean lan egiten zutenean, eta beste artista batzuek ere bazuten eskubide hori<sup>101</sup>. Tolerantzia honek ez zuen luze iraun. Urte berean, maiatzaren 20ko Gernikako Batzar Nagusiak gai hau aztertu zuen: «la exclusión de extranjeros que se introducen en este Señorío a título de peleteros, capadores, amoladores de tijeras y otros oficios iguales». «Habiéndose propuesto queja general en la Junta de los robos y males que de ordinario comete esta clase de gente en este Señorío resolvió y mandó q<sup>e</sup> las justicias ordinarias cuiden de expelerlas, si no las viesen notoriamente ocupadas en trabajo útil a la tierra»<sup>102</sup>. Bilboko irekitze erlatiboa onuragarria izan zen gehiegizko alokairuak kobratzen zituzten etxeen jabeentzat<sup>103</sup>, baina nekazariak gaitzetsi egin zuten, mende bukaera aldean<sup>104</sup>. Ezkutuko tolerantzia eta finkatuta ez zeuden kanpotarren eta atzerritarren aurkako legeak behin eta berriro ikusiko dira XIX. mendearen lehenengo hogeita hamar urteetan. Praktikan, irizpide liberalak ezarriko dira. Nekazaritzaren munduak nola baiteko homogeneotasuna zuen gizarte hartan, arrotzen asentamendua eragozteko interes kolektiboak zeuden. Komunitate hori zatitzen hasi zenean, hau da, nekazari aberatsen, maizterren eta soldatapekoen artean zatiketak gauzatu zirenean, talde nagusiari eroso gertatu zitzaion laneku merkea egotea. Osmosia, funtsean, bizitza-mailaren araberakoa eta eskualde bakoitzean dagoen lan-aukeren araberakoa izango da hemendik aurrera eta, interesen arabera, foru-legedia ere baztertu da.

<sup>99</sup> Mauleón Isla, *op. cit.*, 25-29. orr.

<sup>100</sup> *Ibidem*, 31 eta 32. orr.

<sup>101</sup> *Ibidem*, 34 eta 35. orr.

<sup>102</sup> BAA, Jaurerriko Erabakiak eta Dekretuak. 1770ko maiatzaren 20ko Batzarra.

<sup>103</sup> Mauleón Isla, *op. cit.*, 37. or.

<sup>104</sup> *Ibidem*, 38. or.



## VIII

### Nekazaritzako produkzioa: 1700-1850

#### «Nekazaritzako» per capita errenta gordina<sup>1</sup>

Elizak eraman duen kontabilitate zehatzari esker, nekazaritzako produkzio guztiaren eta bere diru-balioaren gutxi gorabeherako ideia bat egin genezake. Eskusatua ordaindu behar zela-eta, 1771tik 1775era bitartean hamarrena ordaindu beharra zuten produktuen zenbaketa egin zen parrokiara eta, ondoren, izango zuen diru-balioa kalkulatu zen, aurrez emandako prezioez bidertuz. Hauek merkatuko prezioen behetik zeuden eta, beraz, dirutan jasotako balioak, prezio horiek erabili zituzten eskualde eta apezpiku-barrutien artean konparazioak egiteko soilik erabil daitezke. Oztopo hori saihesteko, hamarren masa bider hamar egin eta anega garitan

---

<sup>1</sup> Agian ez da beharrezkoa izango baina, badaezpada, honako oharra egin nahi genuke: «N»PG edo «I»PG kontzeptuek ez dute gaur egungo errealitate bera biltzen. Abeltzaintzaren sektorea gutxietsi egiten da eta basoei dagozkien balioak ez dira sartzen. Beraz, «N»PG errealitatearen azpitik kokatzen da eta, aldi berean, «industriakoak» gehiegizko balioa adierazten du, erdilandutako burdinaren barnean egur-ikatzaren balioak ere sartzen baitira. Gainera, arrantzari legokiokeena ere ez da ageri. Jakina, estatistikak erabiltzen hasi aurretiko garai batean oso nekez erabili ahal izango dira XIX. menderako pentsatutako eskema edo ereduak. Horregatik, Nekazaritzako eta Industriako terminoei komatxoak ezartzea irudituz zait egokiena: «N», «I». Merkataritzara produkzioaren zati bat baino zuzentzen ez duten ekonomietan, monetarizazioak emaitzak faltsutu ditzake. Garia, artoa edota zekalea elikatzeke erabiltzen dituzten nekazari-errietan horietako anega bat zerealek erabilera-balio bera du, teoriarik izan dezakeen truke-balio desberdina dena delakoa izanik ere. Gariz eginiko ogia finagoa da eta arto-taloak baino gehiago balio du *merkatuan*, baina elikadura-balioari dagokionez, antzekoak dira. Hala ere, monetarizazioak bestela homogeneizatu ezingo lirakekeen kantitateak homogeneizatzeko bidea ematen du. Probintzia-mailan, dirutan eginiko errenten kalkularen eta ogia egiteko anega irinetan eginiko kalkularen artean kontraesanik ez izateak justifikatzen du, hein handi batean, gure «N»PCEG. Erabili diren datuen zorrotasunari dagokionez, tazmiak gorde zituzten udalerrietan egiaztatutako dira: Gasteizko Kolejiak, Biasteri, Arespalditza, Otxandio... Kasu guztietan eskusatuen aitorpena hamarrenen liburuekin bat zetorren, egin beharreko egokitzapenak egin ondoren.

eman dira, prezioekiko erlazioa aldatu gabe. «Nekazaritzako» *per capita* Errenta Gordina bilatzeko 1768ko zenbaketa erabili da, produkzio-errol-datik gertuena dagoena horixe baita.

Egin beharreko kalkuluak egin ondoren:

|                | «N» P C E G   |                        |
|----------------|---------------|------------------------|
|                | <i>Erreal</i> | <i>Aneg.-Lak. gari</i> |
| Araba .....    | 307           | 13-11                  |
| Gipuzkoa ..... | 120           | 4-7                    |
| Bizkaia .....  | 110           | 4-2                    |

Koadro simple honetatik lehenengo ondorioak aterako ditugu: nekazaritzaren ikuspuntutik, probintziarik aberatsena Araba zen, eta ez gutxigatik gainera. Zifra hauek dokumentu kualitatiboek behin eta berriro adierazten zigutena jarri digute agerian: Bizkaia eta Gipuzkoa defizitarioak ziren zerealei zegokienez; inportatu egin behar izaten zituzten; Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazaritzak ezin zituen bertako elikadura-premiak asetu. Eskualde honetako irudi hau Penintsularen iparralde osora zabal daiteke: nekazaritzaren arloan, Gaztela Zaharra Kantabriar inguruetako lurraldea baino askoz aberatsagoa zen. Beraz, funtsik gabeko hainbat baieztapen —Gaztelako nekazaritzako baliabideen pobrezia<sup>2</sup>— argitu egin beharko da eta onena konparazioak egitea izango da.

Soilik ogia egiteko baliabideak kontuan hartuz gero —garia, artoa, zekalea, artatxikia eta gaztainak—, desberdintasunak murriztu egingo dira, baina ez dira desagertuko.

A) *Ogia egiteko zerealen kopurua anegatan biztanle eta auzotar bakoitzeko*: Araba, 10-1 eta 44-1; Gipuzkoa, 5-4 eta 25-4; Bizkaia, 6-4 eta 27-7.


B) *Anega gari eta arto auzotar bakoitzeko*: Araba, 42-1; Gipuzkoa, 24-1; Bizkaia, 26-5.

Arabako lurren zati handi batean gurdi-abereak elikatzeko hamarrena ordaintzen zuten produktuak erabiltzeak —erua, ailorbea— baina eskualde hezeetan belarrak eta arbiak elizaren zergarik ez ordaintzeak, handitu egingen du Arabako «N»PG. Dena den, artean baziren desberdintasunak.

Oro har, «N»PCEG handienak artoaren esparruaren hegoaldera kokatzen ziren: Arabako eta Errioxako galsoro gehienak. Eltziego (651 erreal), Nabaridas (725)... ziren kopururik altuena lortzen zutenak. Baina, zalan-

<sup>2</sup> Ringrose, David R., «Transportation and economic stagnation in Eighteenth century Castile», *The Journal of Economic History*, XXVIII. alea, 1968ko martxo, 62. or.

tzarik gabe, harrigarriena Arabako zenbait udalerrri txikitan lortzen ziren «N»PCEG ikaragarriak ziren: Egin (522), Urabain (508), Margarita (567), Artzubiaga (806), Durana (529), Zurbano (690), Artaza (514), Gereia (514), Legarda (605), Mendiguren (515), Otaza (648), Beranturi (511), Santurde (669), Oto Barren (597), Erribera Goitia (513), Karasta (622), Komunioi (630), Logrozana (520), Melledes (605), Arrieta (702)... dira, besteak beste, soberakinak zituen eskualde honen barnean kokatzen ziren herrien zenbait adibide, eta hauek hornitzen zituzten kostaldeko probintziak hein batean. Trebiñoko konderriaren ekialdean soilik egiten zuen behera, zekalea nagusi zen lurraldea zenez eta gariak baino askoz ere prezio txikiagoa zenez, «N»PCEGaren kopuruak 180 eta 269 errealetan kokatzen zirelarik (ikusi ondoan ageri den mapa).



**Euskal Herria, 1771-1775.**  
**«Nekazaritzako» per capita errenta gordina, errealetan**

Kostaldeko probintzietan ez ziren 270 errealeko kopurua gaindituko zuten udalerrriak erraz aurkituko; hala ere, aipagarria da Tolosa ingurueta-ko eta Gernikaren ekialdeko herrietako «N»PCEG altua. Lehenengo ka-



suan, Oria ibaiaren arroako merkataritzaren eta industriaren garapenak nekazaritzaren sektorea sustatu egin zuen. Ez ziren asko halako inguruak, dentsitate handiko eremu baten inguruan «N»PCPG altua zuten herriak biltzen baitziren.

Dena den, oro har dentsitate handiko guneak eta «N»PCPG altuak ez ziren beti bat etortzen. Honek garbi erakusten digu iradokizun geografikoak baztertu egin behar direla. Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazaritza ez zen gai bere kabuz bertako biztanleria handiaren premiak asetzeko, noski. Urritasun horrek manufaktura eta merkataritza-sektoreak bultzatu egin zituen, jarduera hauen bidez soberakinak izaten baitzituzten eta beroriekin zerealak ekarri eta bildu baitzitzaketen.

Sektore hauen garapenari esker bizi zirela ikusteko, nahikoa izango da zenbait herritako «N»PCEG behatzea. Hona hemen zenbait adibide: Bilbok, eta hemen sartzen da Begoñako elizatea ere, 18 errealeko per capita errenta baino ez zuen; Donostiak eta honen inguru zabalek, 77; hainbat manufaktura-hirik, hots, Ermuak, Otxandiok, Ubideak eta Arrasatek adibidez, hurrenez hurren, 16, 66, 29 eta 83; Plentzia eta Pasaiaiko kabotaje-portuek, 48 eta 3... Amaitzeko, nekazaritza eta abeltzaintza kanpoko sektoreen garapena «N»PCEGren alderantzizko erlazioan gauzatu zen. Hiribildu hauek, bigarren eta hirugarren sektorearekin lotzen ziren herri hauek, etengabeko janari-urritasunaren erantzule ziren.

|                   | «N»PCEG       |
|-------------------|---------------|
|                   | —             |
|                   | <i>Erreal</i> |
| Donostia .....    | 72            |
| Soraluze .....    | 109           |
| Arrasate.....     | 83            |
| Eibar .....       | 111           |
| Getaria .....     | 73            |
| Mutriku .....     | 119           |
| Pasaia .....      | 3             |
| Errenteria .....  | 83            |
| Hondarribia ..... | 68            |
| Lezo.....         | 127           |
| Orio .....        | 64            |

Gipuzkoako 1789ko txosten batek biltzen zuen urte horretan herriz herri gari-uzta zenbatekoa izan zen eta 1790era arteko premiak asetzeko zenbat gari behar zen. Lortutako kopurua nahiko normala izan zen, 93 herrik 214.315 anega bildu baitzituzten eta, beraiek, 1771-1775ean 227.263 bildu baitzituzten. Defizita 76.968 anega garitakoa izango zela ateratzen zen

hortik. Hala ere, soilik 15 hiribilduk 63.812 anegako gari-premia zuten eta horien artean aipagarriena Donostia zen, berak bakarrik 20.315 anega behar baitzituen; Soraluze, Arrasate eta Eibarrek ere kopuru handia behar zuten, 14.142, eta ez zuten gutxi behar Getaria, Mutriku, Pasaia, Errenteria, Hondarribia, Lezo eta Orioko portuek eta hauen inguruek ere, 16.855 anega<sup>3</sup>.

Aipatutako hiribildu horiek guztiek, Lezok ezik, «N»PCEG txikia zuten, probintziako batez bestekoa baino txikiagoa, eta kontuan hartu behar dugu probintziako batez bestekoa ere nahiko txikia zela.

Egitura hau aztertuta atera daitezkeen ondorio ekonomiko eta sozialak begien bistakoak dira: kostaldeko probintzien biztanleriaren zati handi batek erosi egin behar zuen jan behar zuena, hau da, manufakturarak edota beren lan-indarra saldu behar zuen. Merkataritza-bideetan sartuta zegoen eta bide horiek eskualdearen edota Penintsularen beraren mugak gainditu egiten zituzten. Horrek «mundu-mailako» koiuntura batean edota, gutxienez «inperio-mailako» koiuntura batean buru-belarri sartuta zeudela eta, aldi berean, merkataritza-kapitalismoaren esku zeudela adierazten du, merkataritzaren esku baitzeuden bai beren produktuak merkaturatzerakoan —burdina, armak...— eta baita beren hornigaiak erostekoan ere. Gizartearen arloan izan zituen eraginak ere garbi nabari dira: gremiotan bildurik nahiz bildu gabe zeuden artisauen eta merkatarien arteko tentsioa; artisauek kontsumitzaile ziren heinean, hauen eta zerealak inportatu eta biltzen zituztenen arteko gatazkak. Hala, Araban gizartearen arloan bakea nagusi bazen ere, kostaldeko bi probintzietan gatazka ugari izan zen: 1718an, 1755ean, 1766an eta 1804an.

Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleria mantendu ez ezik handitu ere egin zenez, argi eta garbi ikusten da zerealen defizita ondasunen eta zerbitzuen esportazioen bidez ase beharra zegoela. Lehenengo atalean, industri produktzioa azaletik bada ere kuantifikatzea nahiko erraza da. Bilboko 1777ko Konsulatuaren oroitza-txosten batek, erdilantutako eta xafla eta barretan elaboratutako burdinaren produktzioa 140.000 kintalekoa zela Bizkaian eta Gipuzkoakoan, berriz, erdira iristen zela azaltzen du eta kintal bakoitzari 110 errealeko batez besteko balioa eman zion. Beraz, 15.400.000 eta 7.700.000 errealeko lirateke, hurrenez hurren<sup>4</sup>.

Konparazioak zehaztasunez egiteko, beharrezkoa litzateke, erdilantutako burdinaren balioa ezagutu beharrean, landu gabeko burdinaren balioa ezagutzea, eta kontuan hartu behar litzateke ontzi eta ontzioletako tresneria gutxienez. Dena den, errore-marjina ez litzateke handiegia izango eta guk lortu nahi ditugun emaitzak ere ez lirateke asko aldatuko. Bizkaiko eta Gipuzkoako «N»PG, anega garitan, 446.975 eta 494.408koa zen

---

<sup>3</sup> AHN, Consejos, 1.304. leg., 20 zkia., 5. or.

<sup>4</sup> Guiard, T., *Consulado*, II, 556 eta 557. orr.

hurrenez hurren eta erdilandutako burdinarena, berriz, 30 errealeko anega erabiliz<sup>5</sup>, 513.333 eta 256.666 anegakoa. Beraz:

|                | «N»PG<br>Anegatan |   | «I»PG<br>Anegatan |                 |
|----------------|-------------------|---|-------------------|-----------------|
| Bizkaia. ....  | 446.975           | + | 513.333           | = 960.308 anega |
| Gipuzkoa. .... | 494.408           | + | 256.666           | = 751.074 anega |

Bizkaiko eta Gipuzkoako gari-kontsumoa urteko 803.535 eta 765.555 anegakoa izango zela pentsa daiteke<sup>6</sup>. Hau da, zerbitzuen sektorea kontuan hartu gabe ere, Gipuzkoan produkzioa eta kontsumoa orekatu egin ziren eta Bizkaian, berriz, produkzioa handiagoa zen. Jaurrerian batez ere Bilboko portuari esker merkataritzari zegozkion diru-sarrerak handiagoak izango zirela eta, halaber, erdilandutako burdinaren zati handi bat Gipuzkoan arma, sarraila, aingura eta burdineria bihurtuz manufacturazten zela ahaztu gabe, nekazaritzaren arloan defizitarioak ziren probintzia hauetan ondasunak metatu ziren edota metatzeko aukera izan zuten berden.

### Laboreen banaketa geografikoa 1771-1775. urteetan

Urduña, Barazar eta Altubeko mendateek gurutzatzen duten koskatzarrak, nekazaritza-inguruneei eta laboreei dagokienez, halako muga bat ezartzen du. Sakabanatutako baserrietatik Arabako herri bildu eta txikietarako bidea adierazten dute. Zenbait gorabehera egon arren, muga honen hegoaldera kostaldeko probintzietan ohikoak diren zereal eta zuhaitz-motek garrantzia galdu egiten dute eta, era berean, muga honen iparraldera ez dira ia ikusi ere egingo Arabako produktu ohikoenak. Hala ere, ez genuke honakoa esan gabe utzi nahi: laboreei dagokienez, muga hau geografikoa baino areago historikoa dugu.

Bada, ordea, muga honen bi aldeetara ikusiko den zereal bat: garia. Urduñan izan ezik Bizkaiko gainontzeko lurralde guztietan eta Gipuzkoaren

<sup>5</sup> 1775etik 1779ra bitartean Araban erabiltzen zen prezio errearen batez bestekoa da; hau erabili dugu eta ez elizaren erroldako 22 errearena, erabilitako burdinaren prezioa ere erreala baita.


<sup>6</sup> *Censo de Frutos y Manufacturas*-en eginikoaren ildotik, urteko 30 anegako batez besteko kontsumoa kalkulatu dut auzotar bakoitzeko eta 1789ko auzotarren kopurua demografiari buruzko kapituluaren eginiko kalkuluaren arabera zehaztu dut; nekazaritzako eta industriako produkzioak hurrenez hurren 1771-1775 eta 1777koak direnez, kontsumoan goitik jo dut, data horien eta Floridablancaren erroldaren artean biztanleriak gora egin baitzuen.

zatirik handienezan uzta nagusia artoarena zen. Antzuola, Aretxabaleta, Zegama, Eskoriatza, Ezkio, Oñati, Gatzaga, Bergara eta Zumarragako mendi-inguruetan soilik ez zuen gari-ekoizpena gaintzen; altueragatik batez ere. Araban, artoak iparmendebaldean zuen garrantzia batik bat, Laudio, Artziniega, Aiara, Lezama, Okondo eta Amurrion, inguru haue-  
tan klima Bizkaikoaren antzekoa baitzen; baina hegoaldera, biltzen zituzten kopuruak gero eta txikiagoak ziren, batez ere euri eskasiaren ondorioz. Arabako bailara txikietako zenbait zokotan soilik biltzen zen zenbait anega, zenbaitetan oso gutxi, eta lortzen zena ureztaketari edota geruza freaticoari esker lortzen zen (*a* mapa). Garagarraren iparraldeko muga, kostaldeko probintzien eta Arabaren arteko muga administratiboa zen, eta muga hau bat zetorren zereal pobreen mugarekin, hots, zekale eta artatxikiarenarekin. Araba ekialdean lantzen zituzten batez ere zereal horiek: Bernedo eta Urizaharran, kopuruari dagokionez, gariaren atzetik horiek ziren garrantzitsuenak eta Durruma Kanpezun gari-kopurua baino kopuru handiagotan lortzen ziren (*c* mapa). Gaztaina, behartsuen ogia, Bizkaia eta Gipuzkoa guztian apur bat biltzen zen, bai eta Arabako iparraldean ere, eta baziren hiru salbuespen: Nerbioiko itsasadarraren eskuinaldeko bazterra, Azkoitia eta Azpeitiko ingurunea eta Gipuzkoa ekialdeko zati handi bat.


Edari garrantzitsuenak sagardoa eta ardoa ziren. Sagardoa kostaldeko bi probintzietan edaten eta egiten zen, baina batez ere Beterrin, Nafarroarekin mugan dagoen Gipuzkoako lurraldeetan. Araban, sagarrondoa ez zen oso ohikoa eta sagarra fruta gisa bakarrik erabiltzen zen (*e* mapa). Iparraldeko sagastiek XVIII. mendean behera egin zuten, batez ere gariaren eta Errioxako ardoaren aurrerapenaren ondorioz. Gipuzkoako ekialdean mantendu egin ziren, batez ere nekazaritza-ingurueta-  
ko jauntxoek probintzian zehar ardo nafarrak libreki garraiatu eta esportatzeko jarritako oztopoen ondorioz<sup>7</sup>. Euskal Herrian mahastiak bi muturreko lekutan kokatzen ziren, Arabako Errioxan —1771-1775. urteetan 682.000 pegarreko produktioa izan zuen— eta Bizkaiko kostaldean eta mendebaldean. Errioxako ardo gorriari eta, beraz, Arabako eta Logroño-ko ardo gorriari dagokionez, Bizkaiko jaurerrian mende bukaerarako zortzi pitxerreko 300.000 pegar baino gehiago kontsumituko zela dio Iturrizak<sup>8</sup>. Eta Logroñon, Haro eta Atamauri inguruan, 1771-1775. urteen inguruan urteko 160.000 pegar produzitza iristen ziren. Kantauriko mendizerraren iparraldean mahatsondoak ez zuen ia garrantzirik, zenbait mahatsondo baino ez baitziren ikusten Erriberan, Beranturin eta Aramiñon. Soilik Arabako iparmendebaldean, Arrastarian, 3.000 pegar inguruko uzta biltzen zen eta Urduñan, Bizkaiko enklabean, 5.000 pegar. Bizkaiko eta Gipuzkoako mahastiak

<sup>7</sup> Carrera y Pujal, J., *Historia de la economía española*. Bartzelona, 1947, V. libk., 47. or.


<sup>8</sup> Iturriza, J.A., *op. cit.*, I. libk. 72. or.



**A mapa**  
Artoaren produkzioaren mugak  
Euskal Herrian, 1771-1775. urteetan




**B mapa**  
Oloaren eta garagarraren produkzioaren mugak  
Euskal Herrian, 1771-1775. urteetan




**C mapa**

Zereal pobreen, hots, zekalearen eta artatxikiaren eremuak 1771-1775. urteetan




**D mapa**

Gaztainondo eta olibondoaren eremuak Euskal Herrian 1771-1775. urteetan



**E mapa**  
Sagarraren produkzioaren banaketa  
Euskal Herrian 1771-1775. urteetan



**F mapa**  
Ardoaren produkzioaren banaketa  
Euskal Herrian 1771-1775. urteetan

kostaldean eta Nerbioiko itsasadarraren bi alboetara kokatzen ziren, Enkarterrien atzetik horixe baitzen ingururik garrantzitsuena (*f* mapa; bertan, 1771-1775. urteetako daturik ezean, Guenes, Portugalete, Hiru Kontzeju, Garape, Balmaseda eta Zallako mahastietako datuak falta dira eta berauen uztak 1799an hurrenez hurren 5.500, 4.500, 300, 2.000, 19.000 eta 2.800 pegarrekoak izan ziren)<sup>9</sup>. Noski, Bizkaiko eta Gipuzkoako Zarautz eta Getariako mahatsondoak babes-neurri garrantzitsuei —«mientras dura su despacho se cierra la entrada al forastero»<sup>10</sup>—, garraioaren zailtasunei eta kostaldeko tenperatura goxoei esker mantendu ziren.

Azterketa labur honi amaiera emateko olibondoa geratzen zaigu baina, hau oso gutxi landu zenez, aipatu bakarrik egingo dugu. Iparraldean muga Kantauriko mendizerran zuen eta, oro har, ekonomian ez zuen inolako pisurik: 4.473 anega Oioneko uzta kontuan hartu gabe.

### Ustiapen-unitatea: baserria

Etxe sendoak, kareharriz eta harkoskoz eginikoak, egurrezko egiturakoak eta teila gorri-gorritz estaliak; eraikin gogorrek, etnologoek oso ondo deskribatu izan dituzte, batez ere Caro Barojak. Pezozko zenbait eraikin gaztelaurekin konparatuz gero, hura desberdintasuna! Eta horregatik, askotan errazegi, garai oparoez eta aberastasunaz hitz egiten da. Gaur egungo bidaiariaren ikuspegia historikoki baliozkoa ote zen galde geniezaioke geure buruari. 1771-1775. urteetan, Gipuzkoako udalerrietako nekazaritzako *per capita* errenta gordinik altuena Ikaztegietakoa zen —352 erreale—; Arabako batez bestekoa 307; Nabaridas, mahatsondoen ingurunean, 655era iristen zen, eta arabar erdigunean Foronda 452ra iristen zen. Hauexek dira zenbait adibide eta ez dira muturretako adibideak gainera. Nekazaritzaren arloan aberatsena zen herri gipuzkoarrak hegoaldeko probintziaren batez bestekoa 45 errealeko diferentziaz soilik gaingitzen zuen. Baina batez bestekoek desberdintasunak ezkutuan uzten dituzte. Agian Bizkaian eta Gipuzkoan errentaren banaketa Araban baino proportzionatuagoa izango zen. Agian. Ikusiko dugunez, Bizkaiko jaurerriko lur-jabeen kopurua barnealdeko probintziakoa baino altuagoa zen, behintzat.

Ikuspegi tradizionala apur bat zehaztu ondoren, ohiko ustiapen-unitate bat nolakoa zen deskribatzen hasiko gara. Baina ohikoa 1700ean, 1800ean ala 1850ean? Mende hasierako baserria, auzotar bakar baten bizileku zen baserri hura eta mende bukaerakoa, askotan bi familia baino gehiago hartzen zituen baserri hura, berdinak al ziren? Ziortzan, 1810ean

---

<sup>9</sup> GBEA, *Censo de Frutos y Manufacturas*.

<sup>10</sup> *Diccionario R.A.H.*, II. libk., 486. or.



hogeita hamazazpi jabe hogeita hamahiru etxetan eta hiru errotatan bizi ziren; hogeita sei jabe eta hogeita hamar maizter hogeita lau etxetan eta gutxienez hirurogeita hamasei maizter, berrogeita hamabi etxe, bederatzi etxetxo eta sei errotatan; guztira, ehun eta hirurogeita bederatzi auzotar, ehun eta bederatzi etxe, bederatzi etxetxo eta bederatzi errotatan; hau da, berrogeita bi baserri, heren bat, bi bizitzakoak ziren.

«Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte» zeritzonoko kide ilustratuen arabera, 1766an Gipuzkoako baserri normal batek lau anegako gainazala zuen, 3,840 eta 5,488 hektarea bitartekoa<sup>11</sup>, eta 32 anega gariko eta 48 anega artoko uzta biltzen zuen<sup>12</sup>. Elorrión, 1771-1775. urteetan Andre Maria Sortzez Garbia barrutiko kabildoari hamarrena ordaintzen zioten hirurogei baserrien arteko batez bestekoa 46 anega gari, 62-4 anega arto, 4-3 anega gaztaina eta 1-6 anega mistokoa zen, sagar eta liho pixka batekin<sup>13</sup>. Ilustratuen kalkulua ez zen, ez, oso baikorra. Hauen kalkuluen arabera, hamarrenak, errenta eta hazia ereiteko eta uzta biltzeko garaietako egunsariak ordaindu ondoren, nekazariaren esku 215 erreál baino ez ziren geratzen, hau da, hamar anega arto edota zazpi anega gari geratzen zitzaizkien. *Censo de Frutos y Manufacturas* delakoaren egileek familiako eta urteko 30 anega beharko zirela kalkulatu zuten<sup>14</sup>, eta Canga Argüelles-ek bere *Diccionario de Hacienda* liburuan, gaixoak eta bularreko haurrak aparte utziz, urteko eta pertsonako gutxienez 5 anega kontatzen zituen<sup>15</sup>, hau da, familiako eta urteko 20 eta 25 anega. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte-koek arrazoi izan balute, ez ziren ederki biziko, ez horixe, baserriar gipuzkoarrak.

Aipatutako Elorrioko hirurogei baserrien produkzioa batez bestekotzat hartu eta geure kalkuluak eginez gero, hauxe izango genuke:

|                                  | Garia | Artoa |
|----------------------------------|-------|-------|
| Uzta.....                        | 46    | 62-4  |
| Hamarrena + hasikina = 1/8 ..... | 5-9   | 7-9   |
| Hazia, 1/10 garitan.....         | 4-6   |       |
| Hazia, 1/24 artotan.....         | 25-3  | 2-7   |
| Errenta: uztaren 1/3 .....       | 15    | 20-9  |
| Familiaren elikadurarako.....    | 0     | 30    |
| <i>Geratzen zaiena</i> .....     | 20-9  | 1-3   |

<sup>11</sup> Anega bat 0,96 edo 1,372 hektarea den kontuan hartuta.

<sup>12</sup> *Ensayo...*, 164. or. eta hurr.

<sup>13</sup> AKK, Eskusatua 1771-1775, Elorrión.

<sup>14</sup> *Censo de la riqueza territorial de España*. Madril, 1802, 2. or, Araban.

<sup>15</sup> Canga Argüelles, *Diccionario de Hacienda*, I. libk. 284. or.

Artoaren uzta ia osorik beren elikadurarako erabiltzen zuten eta 20-9 anega garirekin zergak, konponketak, tresneria eta soldataren bat edo beste —*Ensayo*-an kalkulatu dena baino gutxiago ziurrenik ere— ordaindu behar izaten zuten, bai eta jantziak, ardoa... ere. Egia da oraindik ere zenbait anega gaztaina, misto eta sagar geratzen zitzaizela, bai eta agian izango zituzten dozena ardiek utzitako etekinak ere. Beraz, maizterren kasuan gari-uztaren erdia baino gutxiagoko soberakinak zituzten eta, jabeen kasuan, gariaren %75era eta artoaren heren batera iritsiko ziren.

Bowles-ek bere bidaian etxe berri ugari zegoela ikusi zuen, «haietako batzuk handiak eta ondo eraikiak»<sup>16</sup>. Batzuk..., eta gainontzekoak, gehien-go? 1796an Erandioko elizateko bi etxe tasatu ziren zorrak ordaindu ahal izateko, Etxebarria (hots, etxe berria) eta Etxebarrieta (hots, etxe berri ugari tokia). Lehenengoak 80 estatuko oinplanoa zuen (305 metro karra-tu) eta «balustre, balkoi eta eranskinetan» bi kintal burdina; 40.089 errealeko balioa eman zitzaion. Bigarrenaren oinplanoa lehenengoaren erdira iritsiko zen gutxi gorabehera, berrogeita bi estatu baitzituen, ez zuen burdinazko elementurik eta 12.079 errealeko balioa eman zitzaion, Etxebarriaren balioaren herena baino txikiagoa, beraz. Landutako lurren arteko desberdintasuna ez zen horrenbestekoa: 11.494 (4,38 Ha.) eta 7.831 estatu (2,18 Ha.) hurrenez hurren; lehenengoak belarretarako erabiltzen ziren landugabeko 1.185 estatuko lurralde erantsia eta zenbait erkameztitako 1.262 estatuko mendi-zatia (0,92 Ha) zituen bitartean, bigarrenak ez zuen halakorik<sup>17</sup>. Horrek, batetik, basoek diru-sarrera handiegirik ez zietela emango esan nahi zuen eta, bestetik, larreak eta batez ere landare-ongarria lortzeko herri-lurretara jo beharko zutela adierazten zuen. Lur-saila zenbat eta txikiagoa izan, are handiagoa zen proportzioan bertako produkzioaren kontsumoa, hau da, sortzen ziren soberakinak oso gutxi ziren. Aldiz, laneskua sobera izan ohi zen eta hazia erein eta uzta biltzeko garaian baserri handietan behar izaten ziren soldatapekoen lekua hauek hartzen zuten; bestela, ikatza egiteaz edota, idi parek zutenean, beta, burdina, artilea edota garia garraiatzeaz arduratzen ziren. Gainera, uzta txarra izan zuten urteetan haziak erosten zituzten. Beraz, baserri batzuetatik besteetara baziren, bai, alde nabarmenak.

### **Nekazaritzako produktu gordina errolden bidez**

Asko ez badira ere, jatorri desberdineko iturriak aztertuz, 1771-1775. urteetako errolda soilik har genezake kontuan seriotasunez, bai eta Gipuzkoako 1787ko eta 1789ko estatistika, Arabako 1797koa eta Bizkaiko

---

<sup>16</sup> Bowles, C., *op. cit.*, 317. or.

<sup>17</sup> AHN, Consejos, 1.697. leg. (29).

1799koa eta 1818koa ere. Azken honen eta elizak egindakoaren kasuan izan ezik, gainontzekoen helburua ez zen fiskala eta hazietan izan zitezkeen defizita kalkulatu nahi zen berorien bidez. Zoritzarrez, elkarrengandik oso gertu daude askotan; dena den, XVIII. mendearen azken laurdenean eta hurrengo mende hasieran zerealen produkzioa egonkortu edo murriztu egin zela somatzen da argi eta garbi. XIX. mendearen erdialdean nolako joera izan zen ezin esan genezake ziurtasunez, 1857ko erroldaren eta 1859ko datuak ez baitira oso fidagarriak. 1857ko edo 1859ko datuak —hauek, Gipuzkoaren kasuan haien errepikapen hutsak dira— ziurrenik errealitatearen azpitik kokatzen dira eta Bizkaian gariak apur bat behera egin zuela eta Gipuzkoan eta Araban beherako joera hori larriagoa izan zela adierazten dute; aldiz, hiru probintzietan artoak gora egin zuen, batez ere barnealdeko probintzian, baina datu hauek ez datoz bat Madozen kalkuluekin, hauen arabera, Arabak 1845. urte aldera mende hasieran baino zereal gehiago esportatzen baitzuen<sup>18</sup>. Beraz, ziurrenik ere auzotarren kopuruak gora egin zuenez, mende erdialdera produkzioak ere XVIII. mende amaiera aldera baino handiagoa izan behar zuen. Gainontzeko bi probintzien kasuan ez da inolako zalantzarik, errolda berak azaltzen duenaren ildotik, artoaren produkzioak gora egin zuen, ziurrenik zifrek adierazten dutenaren gainetik gainera, eta gariaren produkzioak ere halakoxe joera izan zuen, horren indartsua izan ez bazen ere (ikusi ondoko koadroak).

#### Ardo-produkzioa pegarretan

| Bizkaia                             | Gipuzkoa                    | Araba                                    |
|-------------------------------------|-----------------------------|--|
| 1771-1775 (1) . . . c. 120.000      | 1771-1775 (1) . . . . 9.927 | 1771-1775 (1) . . . 681.764              |
| 1818 (2) . . . . . . . . . . 81.657 |                             | 1845 (3) . . . . . . . . . . + 1.000.000 |

#### Iturriak:

- (1): Santanderko apezpiku-barrutian biltzen zen zatiko produkzioa izan ezik (Enkarterriak, Goredexola kanpoan utzita) Bizkaiko gainontzeko lurretakoa 64.514 pegarretara iristen zen. Enkarterrien ingurunean txakolinak garrantzia zuenez, ez litzateke egokia produkzioa biztanlerian oinarrituta kalkulatzeko. T. López-ek, Iturrizaren txostenari esker, eskualde honi 1793an «urteko berrogeita hamabost mila pegar txakolin» ematen dizkio. B.N., 7311 eskuiz., 64.414 + c. 55.000 c. 120.000 pegar; kopuru hau Iturrizak Bizkaiko jaurerri osorako eta XVIII. mendeko urte emankorretarako emandako kopuruaren berdina da: «Anualmente unas cinco mil pipas de a 24 cántaras de chacolí». *Op. cit.*, I. libk., 32. or.
- (2): Lehen aipatu dugun errolda.
- (3): Madoz, *Diccionario*, I. libk., 203. or., «ascendiendo anualmente á más de un millón de cántaras de vino».

<sup>18</sup> Madoz, *Diccionario*, Madril, 1845, I. libk., 225. or.

### Zerealen produkzioa

|                     | Bizkaia  |          |                     | Gipuzkoa |         |                     | Araba   |        |         |         |
|---------------------|----------|----------|---------------------|----------|---------|---------------------|---------|--------|---------|---------|
|                     | Garia    | Artoa    |                     | Garia    | Artoa   |                     | Garia   | Artoa  | Garag.  | Oloa    |
| 1771-5 (1) . . . .  | 203.834  | 438.998  | 1771-5 (1) . . . .  | 227.268  | 317.415 | 1771-5 (1) . . . .  | 562.475 | 61.551 | 190.088 | 105.843 |
|                     |          |          | 1787 (2) . . . . .  | 293.477  | —       |                     |         |        |         |         |
| (5) . . . . .       | (200.000 | 300.000) | 1789 (3) . . . . .  | 260.000  | —       |                     |         |        |         |         |
| 1799 (6) . . . . .  | 169.753  | 347.335  |                     |          |         | 1797 (4) . . . . .  | 478.172 | 17.603 | 148.510 | 71.393  |
| 1799 (7) . . . . .  | 171.162  | 231.531  | 1799 (7) . . . . .  | 289.020  | 270.908 | 1799 (7) . . . . .  | 429.862 | 69.154 | 98.576  | 80.637  |
| 1818 (9) . . . . .  | 239.242  | 494.961  |                     |          |         | Mende am. (8)       | 552.650 | —      | —       | —       |
|                     |          |          | 1857 (10) . . . . . | 198.766  | 365.974 | 1857 (10) . . . . . | 285.419 | 61.310 | 105.720 | —       |
| 1859 (11) . . . . . | 206.931  | 572.218  | 1859 (11) . . . . . | 198.766  | 365.974 | 1859 (11) . . . . . | 312.836 | 50.892 | —       | —       |

#### Iturriak:

- (1): Eskusatua, 1771tik 1775era bitarteko batez bestekoa. Bizkaian, Enkarterri gehienak, Santanderko apezpiku-barrutiaren menpe zeudenak, ez ziren dokumentuetan bildu eta, beraz, biztanlerian oinarrituta ondorioztatu ditut. Artoaren kasuan izan ezik gainontzekoetan, halaxe jokatu dut Arabako datuei dagokienez ere, falta den inguruak, Burgosko apezpiku-barrutiko inguru horrek, ez baitzuen zereal hori produzitzen.
- (2): Soraluece y Zubizarreta, Nicolas, *Historia General de Guipúzcoa*. Gasteiz, 1870, I. alea, 47. or., 1787ko informe baten arabera, urte horretako gari-uzta ona izan zela kontuan hartuta.
- (3): AHN, Consejos, 1.304 legajoa, 20 zkia., 5. or.; «Estatuak», biribildutako zifren bidez, 94 herritako uzten berri ematen du = 220.795 ½ anega. 1789an eta 1771-1775ean 94 herri hauek izan zuten uztarekin konparatuz gero, guztira, 1787an 260.000 anegako uzta izango genuke.
- (4): Anes, G., *Las crisis agrarias en la España moderna*. Madril, 1970, 149. or., honen arabera: AHN Consejos 1.345/30.
- (5) XVIII. mende bukaeran, urte emankorretan, Iturriak dionez: Iturriza, *op. cit.*, I. libk., 31. or.: noski, artoaren kasuan datuak gutxietsi egin dira.
- (6): «Zortzi udalerrri falta dira». GBEA, Frutos y Manufacturas.
- (7): *Censo de la riqueza territorial e industrial de España*. Madril, 1803, Araba, 1 eta 2. orr.; Gipuzkoa, 36, 37 eta 38. orr.; Bizkaia, 90. or.
- (8): *Diccionario R.A.H.*; Madozek bildutako artikulua, I. libk., 225. or., bere *Diccionario* lanean.
- (9): «Estado de Frutos de la provincia de Vizcaya, sacado de las razones remitidas en el año 1819 por los respectivos cabildos seculares y eclesiásticos y patronos llevadores de diezmos». GBEA, E, ETC, 1. zkia., 1789tik 1828ra, orri solteak. Uzta 1818koa izango da.
- (10): Gipuzkoa, *Crónica general del País vasco-navarro*. Madril, 1865, Cayetano Rosell-ek zuzendua, Bilbon berrargitaratua, 1970, 11. or., «según datos oficiales, la producción declarada en 1857 fue la siguiente». Araba, AAA, H. 51. legajoa. Norberaren kontsumora zuzendutako nekazaritzako produktu eta laboreen estatistika, 1857. urtea.
- (11): Erresumako Estatistikako Batzar Nagusia. *Memoria sobre el movimiento de la población de España en los años 1858, 1859, 1860 y 1861*. Madril, 1863, 11. or.

Ardoari dagokionez, 1771-1775eko errolda soilik erabil daiteke, gehiagorik ezer gutxi. Kopuru orokorretatik honako ondorioak atera ditzakegu: Errioxako mahastiak ziren nagusi, bertako produkzioak kostaldeko probintzietakoa bost bider gaintitzen baitzuen, eta XVIII. mendearen azken laurdenetik hurrengo mendearen erdialdera arte gora egin zuen nahiko azkar.

Araban, mahastien banaketa honako taulan ikus daiteke. Errioxakoak ez diren mahastiak ez dira oso ugari, eta Errioxan Biasteri, La Puebla de Labarka, Paganos, Eltziego eta Bastida ziren garrantzitsuenak: hauetan biltzen zen probintziako produkzioaren erdia baino gehiago.

**Ardo-produkzioa Araban, pegarretan**  
1771-1775. urteetako batez bestekoa

| Ermandadea                     | Produk. guztira | %    |
|--------------------------------|-----------------|------|
| <i>Arrastaria</i>              |                 |      |
| Aloria .....                   | 158-4           |      |
| Artomaña .....                 | 1.044           |      |
| Delika .....                   | 1.127-2         |      |
| Tertanga .....                 | 217             |      |
|                                | 2.546-6         | 0,37 |
| <i>Aiara</i>                   |                 |      |
| Beotegi .....                  | 11-6            |      |
| Menagarai .....                | 148-6           |      |
| Murga .....                    | 8-6             |      |
| Okondo .....                   | 668-2           |      |
| Arespalditza .....             | 66              |      |
|                                | 902-8           | 0,14 |
| <i>Beranturi</i>               |                 |      |
| Beranturi .....                | 519-6           |      |
| Santa Kurutze Saportilla ..... | 94              |      |
| Zanbrana .....                 | 636             |      |
|                                | 1.249-6         | 0,18 |
| <i>Estabelu eta Aramiñon</i>   |                 |      |
| Estabelu eta Aramiñon .....    | 2.117-6         | 0,31 |

| Ermandadea                           | Produk. guztira | %     |
|--------------------------------------|-----------------|-------|
| <i>Biasteri</i>                      |                 |       |
| Biasteri + Paganos + La Puebla ..... | 149.332-4       |       |
| Mainueta .....                       | 16.741-4        |       |
| Eltziego .....                       | 83.337          |       |
| Kripan .....                         | 6.018           |       |
| Lantziego .....                      | 38.044          |       |
| Leza .....                           | 13.293          |       |
| Moreta .....                         | 8.306-2         |       |
| Nabaridas .....                      | 24.689-6        |       |
| Oion (1) .....                       | 37.436          |       |
| Samaniego .....                      | 29.681          |       |
| Uriona .....                         | 29.298-2        |       |
| El Villar .....                      | 21.801-4        |       |
| Benasperi .....                      | 2.301           |       |
| Ekora .....                          | 8.913-4         |       |
|                                      | <hr/>           |       |
|                                      | 469.192-2       | 68,82 |
| <i>Erribera</i>                      |                 |       |
| Komunioi .....                       | 220             |       |
| Leziñana .....                       | 570             |       |
| Sagastieta .....                     | 28-6            |       |
| Quintanilla .....                    | 70-4            |       |
| Ribaguda .....                       | 319-4           |       |
| San Migel .....                      | 182             |       |
| Bezanauri .....                      | 260             |       |
|                                      | <hr/>           |       |
|                                      | 1.650-2         | 0,25  |
| <i>Laudio</i>                        |                 |       |
| Laudio bailara .....                 | 400             | 0,05  |
| <i>Kondearen lurrak</i>              |                 |       |
| Ocio .....                           | 2.142-4         |       |
| Bastida .....                        | 168.051         |       |
|                                      | <hr/>           |       |
|                                      | 170.193-4       | 24,97 |
| <i>Portilla</i>                      |                 |       |
| Portilla .....                       | 200             | 0,02  |

| Ermandadea                   | Produk. guztira | %    |
|------------------------------|-----------------|------|
| <i>Gatzaga</i>               |                 |      |
| Buradon Gatzaga .....        | 24.781-2        | 3,64 |
| <i>Gaubea</i>                |                 |      |
| Quintanilla .....            | 70              | 0,01 |
| <i>Labraza</i>               |                 |      |
| Labraza eta Gorrebusto ..... | 8.458           | 1,24 |
| <i>Guztira</i> .....         | 681.761         | 100  |

(1) 1776tik 1780rako hamarrenen batez bestekoaren arabera.

Ikusi dugunez, ez da erraza nekazaritzako errolden bidez produkzioaren aldaketa positiboak nahiz negatiboak sumatzea. Baina, dena den, balio handikoak dira osotasunaren barnean produktu bakoitzak zuen pisua aztertzeke, nahiz eta kontuan hartu beharko dugun bolumen txikiko zerealak gutxietsita daudela, anega edukieran oinarritutako neurria baita. Kostaldeko bi probintzietan artoa zen, zalantzarik gabe, nagusi, nekazariaren elikaduran leku garrantzitsua betetzen zuen, eta Bizkaian beronen uzta gari-uztaren bikoitza izatera iritsi zen behin baino gehiagotan. Aldiz, gutxien merkaturatzen zen zereala zen, norberaren elikadurarako erabiltzen baitzen gehienetan. Garia, ordea, batez ere saltzeko ereiten zen, bai errentak garitan ordaintzen zirelako edota baita batez ere krisi-garaietan gehien inportatzen eta esportatzen zen zereala zelako ere. Leguminosoek ez zuten halako garrantzirik, gartzainaren atzetik zeuden inondik inora ere.

#### Nekazaritzako produkzioa, 1771-1775. urteetako batez bestekoa, anegatan

|                | Garia   | Artoa   | Garagarra | Oloa     | Erua    | «Rica»    | Sagarra  | Olibondoak |
|----------------|---------|---------|-----------|----------|---------|-----------|----------|------------|
| Bizkaia .....  | 203.834 | 438.998 | —         | —        | —       | —         | 48.998   | —          |
| Gipuzkoa ..... | 227.268 | 317.415 | —         | 3.966    | —       | —         | 80.420   | —          |
| Araba .....    | 562.475 | 61.551  | 190.088   | 105.843  | 13.438  | 14.197    | —        | 4.473      |
|                | Baba    | Indabak | Zalkea    | Ailorbea | Zekalea | Artaxikia | Gaztaina | Intxaurra  |
| Bizkaia .....  | 1.440   | 2.325   | —         | —        | —       | —         | 28.526   | 500        |
| Gipuzkoa ..... | 3.739   | —       | —         | —        | —       | —         | 26.507   | —          |
| Araba .....    | 34.616  | —       | 11.998    | 23.282   | 24.398  | 5.852     | —        | —          |

*Oharra:* Askotan leguminosoak, zereal pobreak, gaztaina eta intxaurra «hamarren txikien» atalean sartzen zirenez edota dirutan edo garitan ordaintzen zirenez, idatzi diren kopuruak minimoak dira.

Araban, gariaren nagusitasuna are nabarmenagoa zen, honen atzetik nahiko urrutitik garagarra eta oloa zeuden, eta artoa eta zekalea zeuden azken lekuan. Garagarrari eta oloari, batez ere zaldiak eta txerriak elikatzeke erabiltzen zen zereal hauei, idiei irin bihurturik ematen zitzaizkien beste hiru zereal erantsi behar zaizkie: erua, «rica» eta ailorbea, azken hau, idortutako adarren forman, eho gabe eta uretan bustita ganaduari ematen zitzaiolarik. Gainontzeko leguminosoak —babak, zalkea, indabak—, gizakia nahiz animaliak elikatzeke erabiltzen diren janari horiek, Bizkaian eta Gipuzkoan baino garrantzi handiagoa zuten eta, ikusi dugunaren ildotik, hori nahiko arrunta zen gutxienez XVI. menderako. Leguminosen garrantzia klimak eta larre-eskasiak baldintzatu zuen askotan. Eskualde hezean animaliak indartzeko arbia eta mendietako larreak erabiltzen ziren, baina arbiak hamarrenik ordaintzen ez zuenez, ez daki-gu kopuruari dagokionez zer-nolako garrantzia zuen. Aldiz, Arabako lur gehienetan, gurdi-abereetarako zenbait produktu ereitea behar-beharrezkoa zen. Beraz, Arabako lautadetan eta artoaren eremuan nekazaritza-egitura eta, beraz, elikadura-mota nahiz lan-erritmoak nahiko desberdinak izan ziren.

## Labore-txandaketa

Nahiz eta Araban lurra lugorri utzi, hau da, nahiz eta lur-sailaren erdia atsedenean utzi eta behin uzta bildu ondoren lur horiek larretarako libre geratu, Bizkaian, Gipuzkoan eta artoa ereiten zen Arabako lur-sailetan lurrari ez zitzaion atsedenic ematen eta bi urtetan hiru uzta biltzen ziren, jada azaldu dugun eskemari jarraiki. Nekazaritzako laboreen deskribapen nagusiak Euskalerrriaren Adiskideen Elkarateak *Ensayo* lanean egindakoak<sup>19</sup>, Gillermo Bowles-enak<sup>20</sup>, Laborderenak<sup>21</sup> —honek anglosaxoniarraren lanak erruz erabili zituen— eta Vargas Ponceren Bergarako berriemailearenak<sup>22</sup> dira. Hauen artean badira zenbait desberdintasun, eta azkenaren eta gainontzekoen artean dauden desberdintasunak are handiagoak dira. Hirurogeita hamarreko hamarkadan idatzi zuen Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kideak dionez, gari eta arto-uzten artean arbiarena tartekatzen zen; aldiz, Bowles-ek lurra larretarako uzten zela esaten du. Dena den, biak bat datoz hazia ereiteko eta uzta biltzeko garaiari dagokionez. 1802ko deskribapena, askoz ere zehatzagoa, ez dator bat aurrekoekin ereiteko eta uzta biltzeko garaiari dagokionez: uztailean garia ebakitzen zen eta galondan lasto berdetarako

---

<sup>19</sup> *Ensayo...*, 76-92. orr.

<sup>20</sup> Bowles, G. de, *op. cit.*, 311-314. orr.

<sup>21</sup> Laborde, *Itinéraire descriptif de l'Espagne*, Paris, 1808, II. libk., 133-134. orr.

<sup>22</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma.



artoa, apirilera arte iraungo zuen arbia eta lihoa ereiten ziren; artoaren ereinaldia, indaba eta kalabazarenarekin batera, maiatzean izaten zen eta urrian edo azaroan biltzen zen; aldiz, gainontzeko deskribapenetan irailean edo urrian biltzen zela esaten da.

Lurrak lantzeko laiak eta goldeak erabiltzen ziren; lehenengoak batez ere artotarako lurra prestatzeko erabiltzen ziren eta golde-mota ugariak, berriz, hainbat lanetarako eta garia ereiteko balio zuten. Bi tresna hauen erabilera lur-sail hauen gogortasunak bultzatuko zuen, artoa erein aurretik lurra gogorragoa baitzen eta, halaber, laboreen ziklo bat amaitu ondoren lurra gehiago zulatu behar izaten baitzen eta horretarako ezin baitzen ohiko golde erromatarra erabili. Hortz luzeko tresna harekin, hots, Katalunia-ko «franga» delakoaren antzeko tresna harekin, lur-sailak laiatzeak lanesku ugari eta ahalegin handia eskatzen zuen. Zeregin honetarako eta garia jitzeko ere, idaurra erabiltzen zen eta bi langintzetarako ez zen gurdi-aberrik behar. Dena den, Arabako gari-eremuetan alderantzizkoa gertatzen zen, bi prozesuetarako animalien indarra erabiltzen baitzen. Beraz, mahastien eremua alde batera utzita, kostaldeko probintzietan gizakiaren indarra gehiago erabiltzen zen eta urte osoan zehar erregularatasun handiagoz banatzen zen.

## **Nekazaritza eta abeltzaintzaren egituraren izandako aldaketak**

Azaldu dugun nekazaritza-egitura, Argien Mendeari buruzko deskribapen hori, xvii. mendearen azken aldera eta xviii. mendean izan ziren aldaketen ondorio da, eta xix. mendearen lehenengo erdian zenbait aldaketa berri ere izan zen gainera. Aldaketa horiek batez ere zereal pobreen baitan izan zuten eragina. Iturrizak honakoa dio batez ere Bizkaian eta mende bukaera aldera arlo horretan gertatu zenaz: «hasta principio del presente siglo [xviii] se sembraba cebada, centeno y mijo en los manzanales y tierras de labor, pero por ser su pan moreno y áspero no usan, y es rara la casería que siembra estas semillas»<sup>23</sup>. Zekalearen atzerakada oso nabarmena izan zen Errioxan ere: Biasterin, 1700-1709rako 100 indizetzat hartuz, 1800-1809an 8,65era jaitsi zen. Antzekoa gertatu zitzaizen sagastiei ere, bi arrazoi hauek medio: Errioxako ardoaren lehia eta ogia egiteko hazitarako lurren beharra. Oro har, sagarrondoaren artean zerealak ereiten ziren; baina presio demografikoak gora egin zuenean eta sagardoaren kontsumoa jaitsi zenean, hainbat zuhaitz bota egin zen. 1775ean, Andoainen garbi ageri zen honakoa: «la decadencia que llevan los manzanales y el poco cuidado en volver a plantar [los] minora considerablemente». Lizartzan, berriz, 1803an honakoa aitortzen zen sagarrari dagokionez: «especie muy abundante en

---

<sup>23</sup> Iturriza, R., *op. cit.*, I. libk., 60. or.

otro tpo y tan pobre en el día por aumentar el grano»<sup>24</sup>. Gaztainondo ugari ere galdu egin zen eta kontuan izan behar dugu honek baserritarrentzat garrantzi handia zuela, arbiak ganaduen kasuan zuen leku bera betetzen baitzuen<sup>25</sup>; hau da, gariaren uztatik artoaren uztara bitarteko garaia errazten zuen, are gehiago lehenengo uzta oso ona izan ez zuten kasuetan<sup>26</sup>, izan ere, XVIII. mendean oraindik ugaria izan arren «no [era] en tanta copia como en tiempos pasados»<sup>27</sup>.

Lihoak, mihise zuriak egiteko erabiltzen zen landare hark, atzera egin zuen poliki-poliki. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartekoen ustez, iraganean gehiago eta hobeto biltzen zen lihoa, hots, «había tradición de que en otros tiempos se cogía más y mejor», eta hauen iritziz, beherakada hori nafarrek hazi ugari ekartzen zutelako eta Euskal Herrian prezio erosoagotan saltzen zutelako gertatu zen, lehen hazia atzerritik baitzekarten<sup>28</sup>. Riga, Zelanda, Flandes, Galizia eta beste hainbat lekutatik ekarritik hazia hobetzeko saio haiek arrakastarik izan zuten. Lizartzan, 1803an, hiru liho-mota bereizten ziren: «berria», arbiarekin batera ereiten zena eta handik hiru hilabetera biltzen zena; «agorra», hau da, irailekoa, garai horretan ereiten baitzen, oso fina ez izanagatik nahiko ugaria eta bederatzi hilabeteko zikloa zuena; eta azkenik, martxokoa, «guztietan preziatuena», ekainaren hasieran biltzen zena<sup>29</sup>. Honen atzerakada XX. mendearen hasiera arte luzatu zen<sup>30</sup>, eta gaur egun Enkarterrietako hainbat toponimok berau lantzen zela gogorarazten dute.

XIX. mendean abeltzaintzaren gorakadaren ondorioz larre artifizialen kopurua hazi egin zenez, labore berri bat onartu zen. Labore hau hasieranazienda elikatzekeo erabili bazen ere, ondoren giza elikadurarako ere oso erabilia izan zen. Labayruk dionez, «la batata se introdujo por los ingleses, y ya en 1772 se la usaba en Bilbao...»; Gipuzkoan zertxobait lehenago sartu zen, Hondarribiako bastioi batean hartutako ale bati esker, eta Araban, berriz, «se plantó en 1776 y en el año de 1779 se extendió su cultivo»<sup>31</sup>. Data hauek nahiko goiztiarrak dira. Bizkaiko 1779ko erroldan Enkarterrietan bakarrik ageri da patata: Lau Kotzejuetan 60 otarreka beldu ziren, Balmasedan, berriz, oso gutxi<sup>32</sup>. Oñatin ere garai bertsuan

---

<sup>24</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, XXXIII. alea, eta KKA, Eskusatua, 1771-1775, Andoain; San Martín, A., *El labrador vascongado*. Madril, 1791, 8. or.

<sup>25</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, XXXIII. alea, Lazkaoren deskribapena.

<sup>26</sup> Horixe gertatu zen XVII. mende bukaerako urteren batean Donostian, «aurreko urtean izugarritzko urritasuna izanik, gaztainaren irinaz egin behar izan baitzuten ogia», anonimoa. *Descripción de San Sebastián, relativa a su gobierno, costumbres y comercio por uno que acaba de venir de allí*. Londres, 1700, 38 eta 39. orr.

<sup>27</sup> Iturriza, J. R., *op. cit.*, I. libk, 72. or.

<sup>28</sup> *Ensayo...*, *op. cit.*, 124. or.

<sup>29</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, XXXIII. alea. Lizartzaren deskribapena.

<sup>30</sup> Labayru, *op. cit.*, 485-486. orr.

<sup>31</sup> *Ibidem*, I. libk., 486-487. orr.

<sup>32</sup> GBEA. *Censo de Frutos y Manufacturas*, dagozkien artikuluetan.

biltzen zen<sup>33</sup>; aldiz, Elgoibarren 1800ean oraindik batata ez zela sartu adierazten da, herrialde horretan labore hori ganadua gizentzeko erabiltzen zen arbiak ordeztzen baitzuen<sup>34</sup>. Bilananeke hamarrenetan lehen aldiz 1799an ageri da eta 1815ean, berriz, Alegin. Bizkaian, 1818an patataren uzta nahiko txikia izan zen: 1.580 arroa = 18.170 kilo = 181,70 Qm. Mende bat beranduago 221.130 Qm-tara iritsi zen<sup>35</sup>. Gipuzkoan eta Bizkaian baino gehiago hedatu zen Araban 1857ko erroldan ageri denez, eta errolda honetan datuak gutxietsita daude gainera, Araban 141.453 anega patata jaso baitzen bertan ageri denez eta produktu hau, gariaren atzetik bigarrena baitzen; aldiz, Gipuzkoan 61.257 anega soilik lortu ziren. Tuberkulu honek izugarritzko aldaketa ekarri zien nekazariei, xvii. mendean artoaren sarrerak ekarri zienaren antzekoa, izan ere «neurri bereko gainazalean, labore berriak elikatzen zuen biztanleria-kopurua, gariak elikatzen zuena baino bost aldiz handiagoa zen»<sup>36</sup>.

xviii. mendearen erdialdeko eta xix. mende hasierako deskribapen hauetan —*Ensayo*, Bowles eta 1802koa— bazka-landareak aipatu ez arren eta Ilustratuek hauek onartzeko propaganda egin bazuten ere<sup>37</sup>, xix. mendearen erdialderako, abuztu eta apirila bitartean arbia, ailorbea, aza eta oloa edota artoa eta bazka-landareak txandakatzeaz gain, pagotxa ere lantzen zen<sup>38</sup>, eta badirudi lurra lantzeko tresnak dezente aldatu zirela<sup>39</sup>. Madozek Elorrio, Zaldua, Ermua, Markina, Ondarroa, Aulestia eta Lekeitio-ko bailaretan, hau da, Bizkaiko iparrekialdean, bazkatarako artoa inguru txiki batzuetan ereiten zela dio. Halaber, arbi artean hirusta ere lantzen zela eta arbia atera ondoren zelai osoa honek estaltzen zuela ere azaltzen du; horretaz gain, ez dira falta izaten, «porciones pequeñas de campo destinadas a prados perennes, cuya duración llega a seis o siete años; siendo los

<sup>33</sup> *Diccionario R.A.H.*, II. libk., 195. or.

<sup>34</sup> López, T., B. N., 7311 eskbu., 173. orrialdearen atzealdea.

<sup>35</sup> Ibáñez García, G. eta Bidaurrázaga Acha, V., *Orientaciones generales para el desarrollo y prosperidad de la Provincia de Vizcaya*. Bilbo, 1933, 100. or.

<sup>36</sup> Morineau, M., «La pomme de terre», honakoaren aipamena: Chr. Vandenbroeke, *Aarda ppelteelten aardappelverbruik in de 17e en 18e eeuw*, 1969. *Annales*, azaroa-abendua, 1970, 1.768. or.

<sup>37</sup> *Extractos de las Juntas generales celebradas por la R. B. de A. del País*, Bilbon, 1772an; alpalparen edo luzernaren kasuan eta Holandako hirustaren kasuan, ikusi 17 eta 18. orr. Gipuzkoan, Lazkaon, «auzotar batzuk xviii. mende-bukaeran entseiu gisa alpalpa eta masusta arbola landu dute». HEAA, Vargas Ponce bilduma, XXXIII. alea.

<sup>38</sup> Garagarza, E. de, *Cultivo agrario de Vizcaya y sus necesidades más urgentes*. Bilbo, 1859, 9. or.

<sup>39</sup> Trueba, A., *Datos para la historia de Vizcaya*. Lugo, 1900, 101. or.; honakoa azpimarratzen da bertan: «hoy [1864] se cultivan en Vizcaya muchísimas plantas forrajeras y leguminosas que no se cultivaban hace veinte años»; ikusi, halaber, *Bosquejo de la organización social de Vizcaya*. Bilbo, 1970, 34. or. Baina lan hauek aurrerapen eta bertuteei buruz exajeratzeko joera dute. Julian Luna-k, *Memoria...* liburua (Bilbo, 1842, zenbakirik gabeko orr.), txandakako labore gisa arbia eta ailorbea aipatzen ditu.

más usuales de trébol flor globular... y rara vez alfalfa». Ingurune horretan hain zuzen ere, ukuiluetan hazten ziren behiak garai hartan<sup>40</sup>.

## **Nekazaritzako produkzioa hamarrenen bidez**

Udalerri bakoitzak, kurba bakoitzak, bere berezitasunak izan zituen. Arabako lautadan, eta baita Biasterin ere, xvii. mendeko beheraldi hura xviii. mendearen bigarren hamarkadan iritsi zen punturik larrienera. Gasteiz inguruan 20ko hamarkada eta Errioxan 40ko hamarkada pasatu arte, ez zen gertatu koiuntura-aldaketa garbirik. Otxandion gari-produkzioa makal ibili zen 60ko urteak iritsi ziren arte eta, aldiz, artoarenak gogor egin zuen gora 1755era arte, nahiz eta ondorengo hamar urteetan beherakada gogorra izan zuen; dena den, berriro goranzko joera hartu zuen ondorenean. Hala eta guztiz ere, uztek, lehenxeago edo geroxeago, goranzko bidea hartu zuten 1780ra arte eta hortik aurrera behera egin zuten, nahiz eta beheraldien iraupena desberdina izan zen kasuan kasu. Zenbait herritan —Gasteizko hamarren-barrutian, Otxandion— ziklo horren atzetik berrindartu egin zen produkzioa, nahiz eta, gero, Independentziako Gerrak oztopatu egin zuen joera hori; beste zenbait herritan —Arespalditza, Laudio— beherakada etengabea izan zen, nahiko poliki gertatu zen arren. Aldiz, Biasterin poliki-poliki gora egin zuen. xix. mendearen lehen erdialdean hazkundea nahiko poliki gertatu zen —Oionen— edota murriztu egin zen —Arespalditzan, Laudion, Otxandion eta, hein batean, Bastidan—. Gizarteari eta ekonomiari dagokionez, azpimarragarriak dira xviii. mendearen erdialdeko aurrerakada handia, 1760tik aurrera etorri ziren uzta eskasak, 80ko hamarkadatik aurrera izan zen joera baikor haren amaiera, gerrak eragindako momentuko suntsiketa lokalizatu eta larriak —krisi larri gehienak Independentziako Gerran eta Karlistadan izan ziren— eta xix. mendearen lehenengo hereneko produkzioaren beherakada edo geldialdia. Oro har, zereal eta leguminoso guztiek artoaren antzeko joera izan zuten; hala ere, Biasteriko garagarra eta zekalea salbuespenak dira, lehenengoak xix. mendeko lehenengo hogeita hamar urteetan behera egin baitzuen<sup>41</sup> eta bigarrenak, berriz, batez ere mahatsondoak hedatzearen ondorioz, xviii. mendeko 30eko urteetan behera egin baitzuen; mendearen amaiera aldera ez zen ia batere lantzen. Badirudi zereal hori lantzen zen lur-sail pobreetan mahatsa ere landu zela, baina zereal honen atzerakada nekazaritzak emandako aurrerakaden seinale eta ardoaren merka-

<sup>40</sup> Madoz, *Diccionario...*, XVI. libk., 379. or.

<sup>41</sup> Garagarraren produkzioari, hots, mando-taldeen pentsuaren produkzioari, 1710etik 1725era, hots, artoak behera egin zuenean, eutsi egin zitzaion, mahastien garapenari esker, eta 1785etik aurrera izan zuen beherakada ere ardoarenarekin bat dator.

turatzearen adierazle izan bazen ere, elikaduraren ikuspuntutik ez zen gehiegi hobetu, multzo osoaren barnean, Biasterin ez baitziren mende hasierako aleen produkzio osoaren %5era iristen.

**Bilboko hamarren-barrutiko gariaren eta artoaren hamarrenak**  
(Bilbo + Begoña + Abandotik Bilbora bitartean auzotutako etxeak), lakaritan<sup>42</sup>

|                 | Garia |        | Artoa |        |
|-----------------|-------|--------|-------|--------|
| 1670-1679 ..... | 520   | 74,24  | 389   | 46,53  |
| 1680-1689 ..... | 698   | 100    | 836   | 100    |
| 1690-1699 ..... | 478   | 68,48  | 1.076 | 128,70 |
| 1771-1775 ..... | 1.898 | 271,91 | 3.374 | 403,58 |
| 1805-1810 ..... | 1.778 | 254,72 | 2.981 | 356,57 |
| 1816-1826 ..... | 1.622 | 232,37 | 2.959 | 353,94 |

XVIII. mendean nekazaritzako produkzioak izandako gorakadak argi eta garbi adierazten du. Otxandion eta Bilbo-Begoñan gorakada izugarria izan zen: lehenengo hiribilduan, gariaren eta mistoen produkzioa hirukoiztu egin zen gutxienez eta artoaren produkzioa, berriz, erraz bikoiztu zen; bigarrean, gariaren produkzioa hirukoiztu egin zen ia eta artoaren produkzioa lau aldiz handiagoa izatera iritsi zen. Dena den, bi kasuotan produkzio-maila txikietatik abiatu ziren eta, beraz, datu hauek ez dira oso esanguratsuak. Arabako lautadan garia %45era iritsi zen, garagarra %42ra eta mistoak %30era, beraz, guztira, %40ra. Errioxan, Biasteriko hamarren-barruti zabalean, har daitezkeen mugako daten arabera, garia %35 eta %45 bitartean hazi zen, garagarra %33 eta oloa, berriz, %53, nahiz eta gorabehera handiak izan zituen. Otxandioko gorakada, zalantzarik gabe, izugarria izan zen. Hiribildu honetan lehenengo sektorea ez zen oso handia —biztanleria guztiaren %20— eta maila txikietatik abiatu zirenez, hazkuntza-tasa ikaragarriak izan zituzten. Bilbo eta Begoñako hazkunde ikaragarriaren arrazoia ere antzekoa da. Ohartxo hauez gain, Arabako zenbait herri txikitako kurbek —Orenin, Betolatza eta Arburu— 1735etik 1800era bitartean ia mende osoa iraungo zuen geldialdi bat izan zutela adierazten dute, nahiz eta ziklo ugari izango zituzten<sup>43</sup>. Dena den, eremu dinamikoek ez zituzten beren zerealen uztak %40az beherako tasetan hazten ikusi.

<sup>42</sup> Bilboko Santiago Parrokiako artxiboa, ordainagirien liburuak eta hamarrenen liburuak.

<sup>43</sup> «La evolución del producto agrícola bruto en la Llanada alavesa, 1611-1813». Luis María Bilbao y Emiliano Fernández de Pinedo.

**Otxandioko hamarrenak, lakaritan<sup>44</sup>**

|                 | Garia  |        | Artoa  |        | Garagarra + babak<br>+ zalkea + oloa<br>+ garbantzua |        |
|-----------------|--------|--------|--------|--------|--|--------|
| 1730-1739 ..... | 2.820  | 100    | 6.375  | 100    | 430  | 100    |
| 1740-1749 ..... | 3.583  | 127,05 | 5.668  | 88,90  | 761  | 176,97 |
| 1750-1759 ..... | 5.280  | 187,23 | 6.186  | 97,03  | 725½   | 168,72 |
| 1760-1769 ..... | 5.397  | 191,38 | 8.706  | 136,56 | 544½   | 126,62 |
| 1770-1779 ..... | 8.475  | 300,53 | 11.040 | 173,17 | 769  | 178,83 |
| 1780-1789 ..... | 9.816  | 348,08 | 13.470 | 211,29 | 1.567½   | 364,53 |
| 1790-1799 ..... | 8.067  | 286,06 | 11.334 | 177,78 | 972  | 226,04 |
| 1800-1809 ..... | 10.140 | 359,57 | 16.860 | 264,47 | 927  | 215,58 |
| 1810-1819 ..... | 9.948  | 352,76 | 12.300 | 192,94 | 883  | 205,34 |
| 1820-1829 ..... | 11.064 | 392,34 | 12.096 | 189,74 | 1.203  | 279,76 |
| 1830-1837 ..... | 8.520  | 302,12 | 12.885 | 202,11 | 1.075  | 250,00 |

**Gasteizko unibertsitate eta kolejiako hamarren-barrutia, anegatan<sup>45</sup>**

|                | Garia     | Garagarra   | Mistoak   | Produkzioa guztira |
|----------------|-----------|-------------|-----------|--------------------|
| 1731-1739..... | 688 - 100 | 770 - 100   | 524 - 100 | 1.983 - 100        |
| 1779-1788..... | 998 - 145 | 1.099 - 130 | 682 - 130 | 2.781 - 140        |

**Biasteri + Paganos + La Puebla udalerrietako hamarrenak, rogotan<sup>46</sup>**

|                 | Garia           | Garagarra       | Zekalea        | Oloa           |
|-----------------|-----------------|-----------------|----------------|----------------|
| 1680-1689 ..... | 12.702 - 87,76  | 10.849 - 94,16  | 1.190 - 89,54  | 1.768 - 80,76  |
| 1690-1699 ..... | 14.916 - 103,06 | 11.160 - 98,86  | 1.183 - 89,00  | 2.028 - 92,89  |
| 1700-1709 ..... | 14.473 - 100    | 11.521 - 100    | 1.329 - 100    | 2.183 - 100    |
| 1710-1719 ..... | 11.335 - 78,31  | 11.945 - 103,63 | 1.284 - 96,61  | 2.003 - 91,75  |
| 1720-1729 ..... | 13.455 - 92,96  | 11.835 - 102,72 | 1.339 - 100,75 | 1.844 - 84,47  |
| 1730-1739 ..... | 12.314 - 85,08  | 9.995 - 86,75   | 505 - 37,99    | 1.059 - 48,51  |
| 1740-1749 ..... | 14.445 - 99,80  | 10.278 - 89,21  | 402 - 30,24    | 1.054 - 48,28  |
| 1750-1759 ..... | 19.155 - 132,34 | 11.315 - 98,21  | 493 - 37,09    | 702 - 32,15    |
| 1760-1769 ..... | 16.130 - 111,44 | 11.578 - 100,49 | 216 - 16,25    | 1.952 - 89,41  |
| 1770-1779 ..... | 17.654 - 121,97 | 11.305 - 98,12  | 391 - 29,42    | 2.279 - 104,39 |
| 1780-1789 ..... | 18.856 - 130,28 | 12.690 - 110,14 | 243 - 18,28    | 2.554 - 116,99 |
| 1790-1799 ..... | 19.649 - 135,76 | 15.374 - 133,44 | 312 - 23,47    | 3.341 - 153,04 |
| 1800-1809 ..... | 19.896 - 141,42 | 12.943 - 112,34 | 115 - 8,65     | 2.415 - 110,62 |
| 1810-1819 ..... | 21.068 - 145,56 | 10.182 - 88,37  | 172 - 12,94    | 3.219 - 147,45 |
| 1820-1829 ..... | 21.103 - 145,80 | 8.630 - 77,10   | 104 - 7,82     | 1.794 - 82,18  |

<sup>44</sup> Otxandioko Parrokiako artxiboa, «Libro de tazmías de el Cabildo de la Parrochia de Sra. Sta. Marina de la V. de Ochandiano y de su Anexa de la Concepción de Muxica Olaeta», 1728-1837.

<sup>45</sup> «La evolución del producto agrícola bruto en la Llanada alavesa, 1611-1813». Luis María Bilbao eta Emiliano Fernández de Pinedo.

<sup>46</sup> Biasteriko Sta. Maria Parrokiako artxiboa. Kabildoaren kontu-liburuak.

Aleen gorakada honekin batera beste zenbait produktuk atzera egin zuen. Dokumentu kualitatibo ugari ogia egiteko zerealen ondoan sagarrondoek atzera egin zutela adierazten du. Otxandioko hamarrenek horixe adierazten dute argi eta garbi: sagarrondoaren produkzioa laurdenera jaitsi zen eta antzeko zerbait gertatu zitzaion lihoari ere.

Presio demografikoaren ondorioz, sagastiak eta liho-sailak murriztu egin ziren eta ogia egiteko baliagarri ziren zerealek hartu zuten haien lekua. Honek aldaketak ekarri zituen, noski, ardoa inportatu beharra eta etxe eta baserrietako irutearen gainbehera esaterako.

### Otxandioko hamarrenek

|                 | Sagarrak<br>lepo-saskitan (1) | Lihoa<br>kargatan (1) |
|-----------------|-------------------------------|-----------------------|
| 1730-1739 ..... | 161 - 100                     | 71½ - 100             |
| 1740-1749 ..... | 185 - 114,90                  | «101½» - 141,95       |
| 1750-1759 ..... | 144½ - 89,75                  | 135 - 188,81          |
| 1760-1769 ..... | 101 - 62,73                   | 120½ - 168,53         |
| 1770-1779 ..... | 75 - 46,58                    | 59 - 82,51            |
| 1780-1789 ..... | 68 - 42,23                    | 44½ - 61,88           |
| 1790-1799 ..... | ? -                           | 32 - 44,75            |
| 1800-1809 ..... | 32 - 19,87                    | 6¼ - 8,74             |
| 1810-1819 ..... | ? -                           | 16 - 22,37            |
| 1820-1829 ..... | 44 - 27,32                    | 11¾ - 16,43           |

(1) Lepo-saskia bost otareren parekotzat hartu dugu eta, dokumentuetan ageri denez, karga = liho estatu bat.

Ardoari dagokionez, baziren bi mota eta, aurkakoak ez baziren ere, desberdinak ziren: kostaldeko mahastia, udal-ordenantzen bidez ongi babestua, eta Errioxakoa, «libreganbista»; lehenengoak eskualdeko merkatua babestu nahi zuen, eta bigarrenak, berriz, konkistatu. Mendearen lehenengo berrogei urteetan Errioxako mahastiek Iparraldeko merkatua konkistatu zuten eta garai honetan ardo gorriaren kontsumoa biztanle-kopurua baino azkarrago hazi zen. Larramendik halaxe adierazi zuen jada 1754. urtean: «Oí decir a don Antonio Idiáquez, caballero tan conocido, que siendo él muchacho no había en todo Azcoitia taberna de vino y que los particulares se surtían por aventureros que pasaban errantes de un lugar a otro. Hoy [1754] si no hubiese cuatro y cinco tabernas de todos vinos, chiquito y grande, navarro y clarete de Rioja, lo pasarían mal los alcaldes. Se ha ido desterrando la sidra e introduciéndose el vino, de manera que Guipúzcoa es la India de los cosecheros de Navarra, como de la Rioja

lo es Vizcaya»<sup>47</sup>. Hedapen hori erraztu egin zen Arabako Errioxaren kasuan, zerga gutxiago ordaindu behar baitzen bertan. 1734an Gaztelako Errioxako hiribilduetan, Najeran bereziki, kexu ageri ziren hainbat zerga ordaindu behar zituztelako eta, aldiz, Logroñotik gertu zeuden Nafarroako eta Arabako herrietan produkzioak etengabe gora egin zuelako<sup>48</sup>.

**Bilbo-Begoñako ardoaren hamarrenak, pitxerretan  
eta Biasteri + Paganos + La Pueblakoak pegarretan**

| Bilbo-Begoña    |        |        | Biasteri + Paganos<br>+ La Puebla |         |        |
|-----------------|--------|--------|-----------------------------------|---------|--------|
| 1680-1689 ..... | 15.440 | 100    | 1680-1689 .....                   | 110.251 | 100    |
| 1690-1699 ..... | 6.884  | 44,59  | 1690-1699 .....                   | 104.193 | 94,51  |
| 1700-1709 ..... | 13.663 | 88,49  | 1700-1709 .....                   | 133.967 | 121,51 |
| 1710-1719 ..... | 13.180 | 85,36  | 1710-1719 .....                   | 134.085 | 121,62 |
| 1720-1727 ..... | 20.599 | 133,41 | 1720-1729 .....                   | 166.995 | 151,47 |
| 1730-1737 ..... | 17.422 | 112,84 | 1730-1739 .....                   | 162.237 | 147,15 |
| 1744-1749 ..... | 12.026 | 77,89  | 1740-1749 .....                   | 155.593 | 141,13 |
| 1750-1759 ..... | 19.208 | 124,40 | 1750-1759 .....                   | 144.433 | 131,00 |
| 1760-1769 ..... | 12.795 | 82,87  | 1760-1769 .....                   | 151.408 | 137,33 |
| 1770-1779 ..... | 10.779 | 69,81  | 1770-1779 .....                   | 158.880 | 144,11 |
| 1780-1784 ..... | 21.256 | 137,66 | 1780-1789 .....                   | 165.268 | 149,90 |
| 1796-1800 ..... | 14.208 | 92,02  | 1790-1799 .....                   | 160.545 | 145,62 |
|                 |        |        | 1800-1809 .....                   | 146.182 | 132,59 |
|                 |        |        | 1810-1819 .....                   | 110.950 | 100,63 |
|                 |        |        | 1820-1829 .....                   | 131.702 | 119,46 |

Biasteriko kurbek argi eta garbi adierazten dute; P. Villarrek prezioen bidez Kataluniaren kasurako argi ikusi zuenaren ildotik, mahastien hedapena mendearen lehenengo erdialdean gertatu zen. Eta mahastien indartze hori batez ere ardo zuriari esker gertatu zen, mende horretako maximoa 20ko hamarkadan lortu baitzuen eta gorakada horri eutsi baitzion 50eko hamarkadara arte. Ondoren ardo beltzak hartu zuen haren lekua, eta mende bukaera aldera arte produkzio guztiaren beherakada apur bat geldiaraztea lortu zuen. 80ko hamarkadan ardo zuriak izan zuen gorakadatxoak eta ardo beltzaren pixkanakako indartzeak mendeko maximoak ekarri zituzten

<sup>47</sup> Larramendi, M., *op. cit.*, 200. or. Hitz hauen antzekoak, oso antzekoak, errepikatuko ditu, mende bukaeran eta XIX. mende hasieran hainbat kronikarik eta bidaiarik.

<sup>48</sup> Huetz de Lemps, A., *Vignobles et Vins du Nord-Ouest de l'Espagne*. Bordele, 1967, I. libk., 402. or. eta 70. oharra.



1780tik 1795era bitartean. Haron, 1746tik 1785era bitarteko hamazazpi urtetako joera (urteak ausaz hautatu dira), 1770era arte gutxienez, gorakorra izan zen, eta urte horretan 26.456 pegarren hamarrena jaso zen. XIX. mendeko bigarren hamarkadako gainbehera sakona, hein batean Independentziako Gerraren eragin ezkorren ondorio izan zela esan behar da. Bastidako kurbak Biasterikoak egiaztatzen ditu. Uzta eskasak izan ziren, zinez, 1810ean, 1812an eta 1813an, baina baita 1814an, 1816an eta 1817an ere, eta azken hauek ezin egotz geniezazkioke zuzenean gerrari. Larrialdi hura pasatu ondoren zuzperraldi bat izan zela dirudi, baina, Biasterin gutxienez, bide luzea geratzen zitzaien 80ko urteetako hamarrenetako 17.000 pegarretara edo kopuru handiagoetara iristeko, bai horixe! Haron, XIX. mende hasieran lortutako produkzioa —160.000 pegar Huetz de Lemps-ek adierazi zenez— 1734an eta 1770ean lortutakoen azpitik dago (hurrenez hurren, 167.730 eta 264.560 pegar); aldiz, 1834ko 356.000 pegarreko errekorra ez zen ziurrenik ere inoiz gainditu aurreko mendean. 1815eko kopurua (230.000 pegar), 1818koa (241.000 pegar) eta 1834koa ohizkanpokoak izan zitezkeen arren, badirudi behin gerrak ekarri zituen zailtasunak gainditu zirenean, produkzioak joera gorakorrari eutsi ziola<sup>49</sup>. Dena den, ez Biasteriko hamarrenek eta ezta Oionekoek ere ez dituzte Huetz de Lemps-en datuak egiaztatzen. Azken udalerrri honetan, 1808an hasi zen beherakada hark jarraitu egin zuen gerra zibilerara arte. 1776tik 1809ra bitartean hamarrenetan batez beste 3.000 pegar bildu baziren ere, aurrerantzean, 1831ra arte, 2.000 pegarrera jaitsi zen produkzioa. Zaila da hainbeste kointzidentzia egonda —Biasteri, Paganos, La Puebla, Bastida eta Oion— Independentziako Gerratik Karlistadara bitartean gutxienez, mahastien atzerakada bat egon ez zela pentsatzea.

Kostaldeko mahastien bilakaera ez zen horren ikusgarria izan. Kasu honetan ere mahatsondoen landaketa mendearen lehenengo hogeitamar urteetan kokatzen da eta, agian, Lekeitioren kasuan lehenengo berrogei urteetan. Hiribildu honetan 1735. urte inguruan bazen kronikari anonimo bat eta halaxe zioen: «Viñedo que estos años se ha aumentado mucho su fruto»<sup>50</sup>. Ardo horiek bertako merkatu osoa monopolizatzen zuten ia, ezin baitzen bertan atzerriko ardoa saldu harik eta udalerriko ardo guztia saltzen zen arte<sup>51</sup>. Herriko aberats eta lur-jabeei errenta oparoak ziurtatzen zizkien sistema hura ez zuten ongi ikusten kontsumitzaileek, batez ere modu xehekatuan erosten zutenek eta, hala, auzi eta gatazka ugari sortu zen.

Protektionismo horrek Bizkaiko eta Gipuzkoako txakolinaren atzerakada geldiarazi egin zuen, eta baita zenbait herriren zuzperraldia ekarri ere;

<sup>49</sup> *Ibidem*, I. libk., 491. or.

<sup>50</sup> *La Villa de Lequitio...*, 18. or.

<sup>51</sup> *Diccionario R.A.H.*, II. libk., 486. or.

horixe da, esate baterako, Lekeitioko mahastien kasua ere, 40ko hamarkadaren ondorenean, 1778ra arte, beherantz egin baitzuen eta urte horretatik aurrera zuzperraldi bat izan baitzuen, zuzperraldi horretako produkzioak mende hasierako urte oparo haiek guztiak gainditu zituelarik. 1829an «mahastien hedapen izugarria»<sup>52</sup> aipatzen zen eta, Karlistadak atzerakada bat eragin arren, 1846an eta 1849an oso uzta onak, XVIII. mendeko urterik onetakoak bezain onak, lortu ziren. Aldiz, Bilbo inguruetako mahastiak, XVIII. mendeko zuzperraldi berantiarraren ondoren, mantendu egin ziren, nahiz eta gorabehera ugari izan zituzten, eta 60ko urteetan beherantz egin zuten. Beste herri arrantzale batean, Ondarroan, txakolinaren produkzioa «uzta onak izan ziren urte hartan», 1704. urte inguruan, 990-1.100 pegasarrekoa izatetik 1771-1775. urteetan 1.533 pegasarrekoa izatera pasatu zen, hau da, %43ko gorakada izan zuen<sup>53</sup>.

Beraz, kostaldean mahastiak XVIII. mendean poliki-poliki hedatu edota mantendu egin ziren, baina nahiz eta kontsumoa jaitsi ez, salmentetan ez zen lortu lantzen zen udalerrietako mugak gaintzerik. Agian Arabako Errioxan produkzioak XVIII. mende amaieran izan zuen gainbeherak eta batez ere Independentziako Gerraren ondoren areagotu zen beheraldiak, garai hartako kostaldeko mahastiak indartu egingo zituen. Baina koiunturak eragindako aldaketa horiek ez zuten aldatu XVIII. mendeaz geroztik argi eta garbi nabarmendu zen joera hura: kostaldeko mahastiak lehenxeago edo geroxeago desagertu egingo ziren, batez ere, komunikazioek hobera egin ahala.

Kostu konkurrentzialagoko produktuetan espezializatzeko joera hark arazo ugari sortarazi zizkion Errioxari, are gehiago garraioen hobekuntza motela kontuan hartuta. Zerealen prezioen gorakada handiagoak eta ardoaren prezioen beherakadak mahastizainen diru-sarrerak murriztarazi egin zituen eta, gainera, horri superproduktzioorako joera gaineratu behar zitzaion. 1771. urterako mahastien hedaduraz hauxe esaten zen: «llega ha ser perjudiciales a sus dueños... pues hay cosechero que con la mitad de las viñas que hoy tiene estaba rico y habiéndolas duplicado, se halla nada sobrado en el día». «Ultimamente —jarraitzen zuten— se ha reducido el País al solo producto del vino, y dificultándose la salida por su

---

<sup>52</sup> Lekeitioko Arrantzale Kofradiaren artxiboa. Lekeitio Marinelen Kofradia, 1754tik 1857ra, 9. erregistroa, 16. zkia.

<sup>53</sup> 1704ko datua 1704ko su-zenbaketakoa da, I. libk, 439. or. Bertan honakoa aipatzen da: «Lo que es particular de los vecinos viene a hacer una propiedad de viñedos que en el estado presente un año de buena cosecha podrá dar de treintaséis a cuarenta pipas de chacolí», eta upela bat, 1640ko laginketa batean ageri denez, = 27 ½ pegasar. Datuak, Santiagoko fabrikak jasotzen zituen hamarrenen seirenean oinarritu dira. Txakolin garbia zen, saltzeko prest zegoena, lermak kenduta, eta dirutan jaso espezietan emandakoa. Santiagoko Parrokiako artxiboa, Ordainagirien liburua. Iturri honen ezagutza M. González Portillari esker izan dut.


abundancia, es forzoso que se vaya agotando aquél, con lo que tiene que introducir en frutos de primera necesidad, y que los propietarios viéndose precisados en los apuros a deshacerse a menos precio de sus efectos, lleguen a experimentar la última infelicidad». Honi guztiari gizarte arloko hainbat tirabira erantsi behar zaizkio, mahastiak lantzeak proletarizazio-prozesua, behin-behineko langabezia eta pobreen ugaritzea indartu baitzituen<sup>54</sup>. Horrelakoxe arazoak sumatuko dira hain zuzen ere mende bukaerako hainbat gatazkatan eta Lehen Karlistadan. «Ale eta egoskariak landatzeari utzi eta mahasti gehiegi lantzen zelako» ilustratuek eginiko kritikek ez zuten oinarri sendoegirik. Mahatsak merkataritzea eta diru-ekonomiaren sarrera bultzatu zuen esparru honetan eta produkzio kapitalistetako erlazioak sustatu zituen, aldi berean merkaturatzeko egokia zen soberakina eta eskaera handia sortuz, eskatzen zuen soldatapekoen kopuru handiari esker. Mahastien ingurune haietan autokontsumoa gainditu egin zuten eta, gainera, aleak inportatu egin behar izaten zituztenez, hertsiki zerealetan oinarritzen ziren inguruneak merkaturako produzitzera bultzatu ziren. Bestalde, landare hauek lantzeko egokiak ziren lurak ez ziren hala zerealetarako, ez eta larre gisa erabiltzeko ere<sup>55</sup>. Mahatsondoak landatzea ezinezkoa izan balitz, Errioxako hedapen demografikoa, zerealen errendimenduen beherakadaren ondorioz, gelditu egingo zen. Irtenbidea, beraz, ezin zitekeen izan mahatsondoak kentzea. Aldiz, errioxarrek garai hartan izan zitezkeen bi irtenbideak probatu zituzten: ardoen zati bat pattar bihurtzea eta, luzarago iraun zezan, ardoaren kalitatea hobetzea, hala, urrutiko merkatuetara, Amerikara kasu, iritsiko baitzen. 1765etik aurrera ardo-soberakinak distilatu eta merkaturatzea pentsatu zen eta ekimen honen lehenengo bultzatzailea Juan Elhuyar izan zen. Honen pattarra Logroñoko, Euskal Herriko, Santanderko eta Asturiasko merkatuetaraino, eta baita Ferroleko merkatuetaraino ere, iritsi zen. Jarduera honek beste zenbait eskualdetako hainbat kapitalista erakarri zuen, 1790ean Reuseko Josef Revert, Juan Bautista Barbarie merkatari madrildarra eta La Roque izeneko frantziar bat besteak beste<sup>56</sup>. 1787an don Manuel Quintano, Burgosko metropoliko Elizako deana, Bordelera joan zen bertako teknikak ikastera, gero Bastidan aplikatzeko asmoz, baina ez zuen arrakasta handiegirik izan.

---

<sup>54</sup> *Extractos*, EHAekoak, 1771, 31. or. eta hurr.


<sup>55</sup> Huetz de Lemps, *op. cit.*, I. libk., 403. or.

<sup>56</sup> *Ibidem*, I. libk., 426 eta 427. orr.




### Laudio

bailarako hamarrenak (1792-1841): «fanegas de trigo [---] y maíz [—]  
que en cada año se reparten en su hórreo común a cada uno  
de los nueve perceptores de frutos de dhovalle»




### Arespalditza

Gariaren (—) eta artoaren (---) hamarrenak lakaritan






### Otxandio

Gariaren (—) eta artoaren (---) hamarrenak lakaritan



### Gasteizko unibertsitatea eta kolejiala (1693-1814)


Hamarren guztiak (garia + garagarra + minuziak) anegatan




**Bastida**

Gari eta garagararen hamarrenak anegatan,  
eta ardo-hamarrenak 3½ pegarreko zahagitan


----- joera




**Biasteri, La Puebla eta Paganos**  
Gariaren (—) eta garagarraren (---) hamarrenak rogotan



**Biasteri, La Puebla eta Paganos**  
Zekaleen hamarrenak rogotan




**Biasteri, La Puebla eta Paganos**  
Muztio zuriaren (—) eta ardo beltzaren (---) hamarrenak pegarretan. 6. urtean oinarriritako 11 urtetako batez besteko mugikorra: ardo zuria + ardo beltza (—)



**Oion**


Gariaren (—) eta garagarraren (---) hamarrenak robotan (robo 1: 6 lakari)




**Oion**

Oloaren (—) eta eskandaren hamarrenak + komuñarenak + zekalearenak robotan (---) (robo 1: 6 lakari).





**Oion**  
Ardoaren hamarrenak pegarretan



**Lekeitio**  
Txakolinaren hamarrenak, Elizaren fabrikari dagozkionak, arradatan  
(arrada 1 = 10½ pitxer)

## Laboreen hedapena

«Debe haverse notado tanta bentaja en el cultivo del grano q<sup>e</sup> es increíble la tierra q<sup>e</sup> se roza diariamente. Es tanta, y tanto lo q<sup>e</sup> se abandona la plantación de los montes q<sup>e</sup> no tardará en perderse el equilibrio entre el grano cuja falta puede suplirse de fuera y el carbon necesario para el consumo de las herrerías»<sup>57</sup>.

Oro har, argi eta garbi dago produkzioaren gorakada lur berriak lantzeak ekarri zuela. Eta landu ziren lur-sail berri hauek guztiak luberri edo «novalía» nahiz «noval» izenez ezagutu ziren: «algunas novalías rozadas y cultivadas en las tierras comunes», «novalés o tierra nuevas reducidas nuevamente a cultura»<sup>58</sup>. Horrelako hainbat adibideren bidez, garbi ikusten da, basoberan lur berriak lantzeaz baino areago, depresio-garaietan utzitako lurrak berriro lantzeaz arduratzen zirela. Horregatik, hasierako etapan sail berrietako luberriketa-gastuak ez ziren horrenbestekoak izan, ez, behintzat, gero, oihanpea edota mendi garaia urratzea beharrezkoa izan zenean izango zirenen adinakook.

1704ko su-zenbaketa, XVII. mendearen azken urteak eta XVIII.aren hasiera hartzen dituen depresio-garai hartan egindako su-zenbaketa hura, nahiko egokia da lurrak sobera ziren eta lur-sail askoren bateratzea gertatu zen garai haren adierazle gisa. Aldi berean lur-sail asko utzi egin ziren eta sasitzak hartu zituen laster. Durangoko Axpen hamar etxe zeuden eraitsita, «y todas estas dhas casas caidas tienen sus tierras y pertenecidos que las rigen y administran los dueños»; Durangon, berriz, «se hallan otras muchas casas demolidas e inhabitables por ruina que amenazan»; Berriren, eraitsi edo utzitako hogeita bi baserrietatik zazpitan lur-sailak landuta zeuden, beste zazpitan landu gabe zeuden eta zortzi «en ser» ziren; Iurretan, erretako etxe baten onibarrak «mendiak hartu zituen»; Abandon bost baserri erorita zeuden, eta haietako bi beste bati lotuta, hamaika hutsik eta hiru baserrietako lurrak beste batzuei alokatzen zitzaizkien; Basaurin, zazpi auzotarreko Finaga auzoan, abandonatuta zeuden hiru etxetako ereiteko lurrak estrepadi bihurtu ziren; Begoñan beste baserri batzuetako maizterrek utzitako hiru etxetako lurrak lantzen zituzten; Laukizen baziren bizitzeko moduan ez ziren bi etxe eta berorien lur-sailak sasitzak hartuta zeuden; Amoroton lau etxe «germadas» delakoetatik bati buruz esaten deenez, «tuvo algunas heredades que hoy están incultas»; Ipazterren bederatzi etxe huts eta hamalau erorita, erreta edo eraitsita zeuden, hala, zergak ez ordaintzeko; Barakaldon, berriz, «de poco tiempo a esta parte se an caído muchas casas sin que haya esperanza de reedificarlas. Esta republica, se añade, tiene la deterioridad de muchas casas desde la última numeración q. se hizo en año de 1688» eta, deklaratzailleek ziotenez, etxeen berrogeita

<sup>57</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, 53-54. orr., modernoa.

<sup>58</sup> KKA, Eskusatua, 1661-1662an sailkatua, baina, egia esateko, 1761ean Zalduak eta Lemoak emandako erantzuna da.

bost lur-sail biltzen ziren bertan. Horrelako kasuetan lur-sailak landu gabe geratu ziren edota beste onibar batzuei erantsi zitzaizkien: Abandon, Abando-Ibarra auzoan, Francisco de Gallarturen baserriak 450 errealeko errenta ordaintzen zuen, «porque están agregadas las tierras que son pertenecientes a otra que tiene su inmediata a esta y en tiempo que estaba arrendaba daba la mitad de dhos 450 rs.». Elizate berean bazen beste etxe bat ere, hots, «otra [casa] caída... cuyas tierras están incorporadas en la [casa] de arriba»; Barakaldon, eraitsitako berrogeita bost etxetakoak beste zenbait etxeri erantsita zeuden. Aldiz, beste batzuetan, lurrak landu gabe geratzen ziren edota basoberaren osagai bihurtzen ziren; Basauriko San Migelen baziren bost etxe ereiteko lurrak estrepadi bihurtuta zituztenak («cinco [casas] que están las tierras de sembrijo reducidas a jarales»); Zaratamon «hay otros dos suelos [de casas] que sus tierras de sembrijo son ya jarales». Beraz, lur-sail ugari abandonatu egin ziren, baina iraun zuten asko hazi egin ziren.

Kostaldeko egoera latzagoa zen oraindik. Ibarrangelu-Elantxoben sei etxe huts zeuden, bertako lurrak, oro har, beste auzotar batzuek lantzen zituztelarik, eta beste hamabi etxe, berriz, suntsituta zeuden; Aulestin, «declararon dichos fieles y vecinos que se han caído y demolido en la calle de esta población de Aulestia hasta veinte y cinco casas que no tuvieron pertenecido alguno»; Natxituan eroritako hamahiru etxe zeuden eta berorietako zortziren datak ere ageri ziren: bost 1692. urte inguruan, bat 1684ean, beste bat 1680an eta azkena 1674an; Ean berrogeita sei etxe lur jota geratu zirela eta jada ez zutela zergarik ordaintzen jaso zen; biren lurrak landu gabe zeuden. Askotan etxearen lurzorua baratza bihurtu zen eta batzuetan ez zen jakiten zein izan ote ziren bertako jabeak ere, «y aun todas las [casas] que hoy asisten en dha puebla [Ea] se demolerán dentro de muy poco tiempo por ser muy poco el numero de sus habitantes, ninguno su comercio y poco sustancioso su terreno». Bedaroan eta honi Ean zegokion zatian baziren eroritako beste hogeita lau etxe ere.

Testigantzarik latzena Ondarroakoa dugu, esaten zenez bertako etxe ugari eraitsi behar izan baitziren, hots, «muchas casa próximas a demolerse aunque hoy habitadas y antes se puede esperar el que padezca disminución que no el que tenga aumento»; horrela jarraitzen zuen gainera: «en un repartimiento redoble que les tocan trescientos y cincuenta y ocho rs. y veinte y ocho maravedis las casas que son de Alguna propiedad están cargadas con seis rs. de cada una ocasionando esta distribucion la suma pobreza [e] imposibilidad de muchos pobres que residen en ella y por la poca sustancia que las casillas que habitan tienen y la mayor parte del lugar como podrán reconocer los caballeros numeradores está próxima a caerse y sin ninguna esperanza de reedificar»<sup>59</sup>.

Lurrak abandonatu eta onibar ugari bildu egin zela adierazten duen frogarik adierazgarriena 1704ko hainbat herritako auzotar eta etxeen arteko

---

<sup>59</sup> GBEA, «Fogueración de 1704», aipatutako herri bakoitzean.

zatidurak eskainiko digu: Bizkaiko berrogeita hemeretzi herritan 4.954 auzotar zeuden 4.943 etxetan, hau da, familia bat etxe bakoitzeko.

Egoera hura nahiko ona zen maizterrentzat. Ramelluriko onibarraren errentek, Bastidan, punturik baxuena XVIII. mendearen hasieran izan zuten eta, zenbaitetan, XVII. mende bukaerako errenten azpitik kokatu ziren.

Ondorengo urteetan, ordea, pixkanaka-pixkanaka hobera egin zuen egoerak eta berreskuratze horiek guztiak areagotu egin ziren mendearen erdialdetik aurrera. Laudioko bailaran, lehenengo luberritzeak noiz izan ziren, XVIII. mendearen bigarren hamarkadako luberriei buruzko auzi bati esker dakigu. 1722an, Lamuzako San Pedro elizako kabildoak auzitara jo behar izan zuten, nekazariak berriki urratu zituzten lurrei zegozkien hamarrenak ordain ziezazkioten. Baina gehientsuenak egin zioten uko ordainketari, eta zekitena esaten ez zutenak edota lehendik ordaindu beharrekoak ordaintzen ez zituztenak eskumikatu egingo zirela mehatxu egin behar izan zuten<sup>60</sup>. Halako arrazoi indartsuek bultzatuta, berrogeita zortzi lekuko azaldu ziren eta zekitena deklaratu zuten, beraiek luberritu zituzten sailak zein ziren azalduz eta inguruko luberriketei buruz zekitena adieraziz. Behartuta egin zituzten deklarazio horiei esker egin ahal izan ditut ondorengo koadroak. Lehenengoan, ereindako anegak luberritzearen hasierako dataren arabera sailkatu ditut eta, bigarren-  
goan, berriz, landu zuten luraren izaeraren arabera egin dut sailkapena.

#### Luberriketen datak

| Data                | Ereintza anegatan |
|---------------------|-------------------|
| 1660-1669.....      | 42 (1)            |
| 1670-1679.....      | 8 - 03            |
| 1680-1689.....      | 8 - 02            |
| 1690-1699.....      | 16 - 01           |
| 1700-1709.....      | 11 - 03           |
| 1710-1719.....      | 39 - 09           |
| 1720-1722.....      | 5 - 06            |
| (2).....            | 5 - 10½           |
| <i>Guztira.....</i> | <i>136 - 10½</i>  |

(1) Zehazki, lur-sail hauek luberritzen 1662an eta 1668an hasi ziren, baina prozesuak 1722ra arte iraun zuen; beraz, zuzenena, 42 anega horiek gaintzeko kopuruak kontuan hartuta proportzionalki garai horretan zehar banatzea litzateke.

(2) Ez da datarik zehazten. Gainera, beste hamazazpi erantzunetan ere ez da ageri: 1680tik 1689ra bitartean hirutan, 1670etik 1679ra lautan; 1680tik 1689ra behin; 1690etik 1699ra hirutan; 1700etik 1709ra lautan; 1720tik 1722ra behin eta, beste batean, ez da inolako datarik ageri.

<sup>60</sup> Lamuzako San Pedro Parrokiako artxiboa. «Traslado fehaciente de la egecutoria...», 9 eta 10. orr.

Bi lekukoren edo gehiagoren aitortenak gutxi gorabehera bat zetozean, zehatzena soilik hartu dut kontuan.

### Landu ziren lurrak

|   | Anegak    | Portzentaia |
|---|-----------|-------------|
| Otadiak, landu gabeko lur-zatiak, bideak, ihitokiak, haitz-tokiak, etab. .... | 24 - 02½  | 17,65       |
| Estrepadiak, ipuruak, egurretarako soilik erabiltzen ziren gurpiztiak .....   | 45        | 33,09       |
| Hariztiak eta zuhaiztiak .....  | 64 - 04   | 47,06       |
| Zehaztu gabekoak .....  | 4 - 04    | 2,20        |
|   | 136 - 10½ | 100         |

Koadro hauetan argi eta garbi suma daiteke 1710etik 1719ra bitartean aurreko hogeita hamar urteetan —43-09— adina anega lur urratu zela ia —39-09— eta, noski, onuradunak laster konturatu ziren horretaz, ordura arte iruzur txiki ugariaren aurrean ezer esan ez zuten arren. Lurrak lantzeak batez ere eraikuntzarako erabiltzen ziren basoen gain izan zuen eragina eta ez horrenbeste ikatz edota egurretarako erabiltzen zen basoen gain. Lekuko guztiek aitortzen zuten, gertakari hau nahiko orokora izan zen eta bailara osoan garatu zen. Halaxe zioen haietako batek: «es rara la casa, que en este valle dexe de tener quebrante, y nuevo rompimiento», eta beste batek «que en el varrio de Olarte de este valle donde tiene su hauitacion que se compone de catorze caserías en el tpo. de su acordanza, es verdad por hauerlo visto, que la mitad poco mas o menos de las heredades que al presente cultiuan los dueños de dhas caserías son nobales y nuevos rompimientos, quebrantados en su tpo. y reducidos a nobales huiendo sido xaros y montes arbolares»<sup>61</sup>.

Soro bihurtu ziren lur-zati asko luberri izan ziren aurrez ere, eta Lau-dioko nekazariak oso zehatzak ziren arlo honetako hitzak erabiltzerakoan, labakiak, luberriak eta lur-urraketak (hots, «roturo», «rozadura» eta «quebrante») argi eta garbi bereizten baitzituzten. Labaki eta luberriak bi edo hiru urtetan lantzen ziren eta lur-urraketak, berriz, lurrak ogia egiteko zerealetarako behin betiko soro bihurtzea esan nahi zuen.<sup>62</sup> Dena den, bizkaieraren eta gipuzkeraren lexikoak ez du halako bereizketarik egiten, eta guztietarako labaki edota luberri hitzak erabiltzen ziren.

Luberriketarako, lurra lantzeko sistematik antzinakoena gauzatzeko, sail-kopuru handiak behar dira, eta ez da gai produkzioaren hazkundeari

<sup>61</sup> *Ibidem*, 42. or. atz.

<sup>62</sup> *Ibidem*, 91. or. eta 92. or. atz., 96, 100 eta 151. orr.

luzaroan eusteko. Hori hala izan dadin, lur-zati berriak urratu behar dira eta horrek lan handia eta luzea eskatzen du. Gainera, diru-sarrera handia behar zen eta errentariak gastuei ezin izaten ziren aurre egin. Demografiak gora egin zuen heinean, lubakiak lurrak urratuz gauzatu ziren. Oro har, agintariak kontra egin ziren eta ermandadeko koadernoetako legeak edota Foruetakoak betetzera bultzatu zituzten. Hauetan esaten zenez, herri bateko auzotar orok, aurrez zerbait ordainduz gero, urte batzuetarako mendiarren zati bat itxi eta zati hori landu zezakeen; ondoren, lur-zati hartan ezkurra erein behar zuen, berriro herri-lur gisa erabilia izan zedin. 1724an, Hernaniko hiribilduak Br. Alorburu izeneko gizon baten aitari baimena eman zion udaleko lur-zati bat lantzeko, ohiko bideari jarraiki, urteko dukat bat ordainduz erroldan. Handik zortzi urtera, beste auzotar batek zertxobait gehiago ordaintzea proposatu zuen, baina hiribilduak, lurra lantzeko zekartzan gastuak kontuan hartuta, proposamen hura baztertu egin zuen eta Alorbururi errenta beste sei urterako luzatu zion. Tirabira hark jarraitu egin zuenez, hiribilduak Arlorbururi beste hainbatek eskaintzen zuena adina ordaintzeko eskatu zion, baina honek ezezkoa eman zuenez, landutako lur hartan zuhaitzak lantzeko agindu zion ondoren, legearen arabera aspaldi horixe egin behar baitzuen. Alorburuk korrejidorearengana jo zuen eta honek hiribilduaren dekretuak baliorik gabe utzi zituen, lur hartan zuhaitzak lantzeko agindu zuen eta honako isuna jarri zion: «quatro ducados a cada uno de los vecinos que asistieron a los quatro Ayuntamientos en que se habló de este asunto, y en las costas todas del pleito, por aver contraforado, quebrantando la ley del titulo 38. cap. 5 de los Fueros de Guipuzcoa»<sup>63</sup>. Korrejidorearen jarrera hori ezinezkoa izango zen handik hogeita hamar urtera.

Arabako Batzarrek mendearen erdialdera ere antzeko jokabidea izan zuten<sup>64</sup>. Jarrera-aldaketa ofiziala 1763. urte aldera kokatzen da eta aldaketa horretan izan zuten zerikusia garai hartako uzta txarrek. Oñatiko udala, alde batetik, eta lur-saila itxi eta herri-lur gisa erabiltzeko aukera gabe geratu zen saroe baten jabeak, bestetik, aurrez aurre jarri zituen auzi batean, Francisco Antonio de Olabek, Errege Kontseiluen abokatu eta Gipuzkoako korrejidore tenienteak, aldekoak eta aurkakoak aztertu ondoren, saroearen jabeen alde egin zuen: «Las consecuencias que se siguen, argumentaba, en resolver en un sentido o en otro son graves, por lo que mira a los pastos, la leña y aprovechamientos comunes, pero por otra parte resultan algunas utilidades y ventajas, porque se aumentan las personas para las cargas de la República, se multiplican las cosechas y frutos y se acrecienta el vecindario, siendo

<sup>63</sup> Anonimoa, *Alegato sobre la nulidad de una sentencia del Corregidor en el pleito de la Rozadura de la Villa de Hernani*, Hernani, u.g. Bizkaiko Aldundiaren Liburutegia, V. F., 1.153, 1 eta 2. orr.

<sup>64</sup> *Cuaderno de leyes y ordenanzas... de Alava*. Gasteiz, 1761, 259, 260 eta 261. orr.

uno de los objetivos principales que atiende la política de todos los reinos y pueblos»<sup>65</sup>.

Aurrerakada hura hiru zuzenbidetan gauzatu zen: lehen labakitarako, ongarritarako, larreetarako nahiz egurretarako erabiltzen ziren herri-lurren behin betiko landaketa; hein handi batean herritarren erabilerara zuzentzen ziren lur-sail partikularren luberriketa, saroeena adibidez, eta, azkenik, ihitokien drenajea. Lehenengo kasuaz hitz egin dugu aurrez ere: luberriketatik lurra urratzera pasa ziren (hots, «de la roza al quebrante»), denboraldi baterako izaera zuten ordainketak betiko enfeiteusiez ordezkaturik. Hemen, prezioen gorakadak Udalarari ordaintzen zitzaion pentsioa devaluatu egin zuen, dirutan ordaintzea erabaki zen kasuetan behintzat, eta lurra urratzeko prozesu garesti hura gauzatzeko bitartekoak zituzten nekazarien egoera hobetu zuen. Baina herri-lurrez gain, baziren baserri batzuei erantsi edo lotutako beste sail batzuk, erosi nahiz saldu zitezkeenak, nahiz eta herritarren ustiaketarako beren gain zenbait neurri bazituzten. Kategoria horretakoak ziren saroeak; hauek oro har larreetarako edota zuhaitzak landatzeko erabiltzen ziren eta forma biribila eta erdian mugarri edo zedarri bat izaten zuten. Saroearen jabea sailarena eta zuhaitziarena izaten zen, baina ezin zuen beratu itxi, aziendari larre libre utzi behar baitzion edota herritarrek landare-ongarria bildu baitzezaketan bertan<sup>66</sup>. Francisco Antonio de Olabek esaten zuenez, hirurogeiko hamarkadarako «se ven por experiencia diaria en Vizcaya y Guipúzcoa que los dueños de los seles o de otros predios particulares incultos y abiertos, en que el ganado de los particulares solía pasturar, los han reducido a heredades o caseríos». Horixe gertatu zen 1755ean Oñatiko Olabarrieta auzoan kokatzen zen saroe batean ere, bertan Orondolaza baserria eraiki zelarik; halaxe gertatuko zen Albitxuriren saroe eztabaidagarriarekin ere<sup>67</sup>; beste baserri bat eraiki zen auzo bereko beste saroe batean eta 1764an errentan eman zen baldintzapean, izan ere, maizterrak «ez zuen lehenengo hiru urteetan errentarik ordaindu behar; aitzitik, karez betetako 125 gurdikadaz ongarritu behar zuen lurra (karez betetako gurdikada batek 35 arroa, 475,5 kilo, pisatzen zuen eta 125 gurdikadak, berriz, 54.687,5 kilo pisatuko zituen), eta lehenengo hiru urteak pasa ondoren, bederatzi urterako kontratua erabakiko zuten pertsona kristauek»<sup>68</sup>.

Presio demografikoa mendearen bigarren erdian areagotu egin zenez, herri-lurretarako joera ere indartu egin zen eta luberritzaileen, jada bertan kokatuta zeudenen eta ganaduzaleen artean istilu eta oztopo ugari sortu zen. Azken bi hauek hurrenez hurren ongarrria eta larreak falta zitzaizkielako

---

<sup>65</sup> Lasa, J. «Las luchas en torno a los seles y caseríos de Albitxuri», in *Homenaje a D. J. M. Barandiarán*, Bilbo, 1964, I. libk., 175-177. orr.

<sup>66</sup> *Ibidem*, 179. or. eta hurr.

<sup>67</sup> *Ibidem*, 175. or. eta hurr.

<sup>68</sup> *Ibidem*, 178 eta 179. orr.

kexu ageri ziren. Euskal Herriko artoaren eremuan egiten zenari jarraituz, lurra atsedetik eman gabe lantzeak ongari ugari eskatzen zuen eta ganadua, batez ere ukuilukoa, urritzen joan zen heinean, nekazariak landare-ongarria erabili behar izaten zuten —garoa eta ote zuria—; hauek animalien ohe gisa erabiltzen ziren eta gorozkiekin nahastuta usteltzen uzten zen, zelaietan zabaldu aurretik.

Aizarnatarren herri-diputatuak, 1779an, «considerando que se podía lograr ... algún adelantamiento en el cultivo de la tierra sin rozar con los Fueros propuso ... el medio de repartir tierras labradías entre aquellas familias que no las tenían». Urte horretako ekainean, luberritzeko sailak eman ziren probintziako legean ageri zenari jarraituz eta, ondorenean, laurogeita hamasei haritz landatu ziren. Zuhaitz horiek 1798an bota ziren, «aurrerapenik ekarriko ez zutela» adieraziz; Serorena baserriko maizterrak berriro luberritu nahi zituen, baldintzatzat urtero, ereiten zuen anega bakoitzeko sei zuhaitz landatuko zituela «eta hamargarrenean ezkurra edo gaztaina landatuko zituela eta ez zuela hesirik kenduko» adieraziz. Auzotar batzuk aurka izan zituen ordea, zuela hogeita zazpiren bat urte lur haiek ote zuria eta hostoak nahiz ganaduentzako larreak lortzeko aprobetxatzen baitzituzten. Udalak, honek eman baitzuen zuhaitzak botatzeko eta luberriketarako baimena, kexuka zabiltzanek ez zutela probetxu handiegirik ateratzen adierazi zuen (hots, «apenas sacaban de dho paraje un par de carros de argoma cada diez años»<sup>69</sup>). Zarautzen, Talaimendian, 1775ean urteko 30 errealeko pentsioaren truke, Udalak kontzejuaren lur-zati bat luberritu zuen eta bertan ereiteko baimena eman zuen. Horren aurka altxatu ziren bi auzotar, «por su interés particular de aprovecharse de los pastos de argoma y hoja de arboles y porque de esto careceran en labrando y reduciendo a sembradio dicho terreno, respecto de que sus caserías son el mismo monte y contiguas a las de Ibayeta». Kasu honetan, aurka altxatu zirenek Gipuzkoako Foruetako aipatutako V. kapituluko XXXVIII. titulua berehala ezartzea lortu zuten eta, beronen ildotik, luberriak eraitsi egin ziren eta, zati hartan, «gutxi gorabehera hiru laurdenetan garia ereinda zuen sail hartan», zuhaitzen mintegi bat egin zen<sup>70</sup>.

Beste batzuetan oztopoak basoekin nolabaiteko loturak zituztenen aldetik etorri ziren. Segura, Zegama, Idiazabal eta Zeraingo partzuergoko mendien zainketarako ordezkariak, 1720ko urriaren 10eko dekretuaren bidez debekatu egin zuten herri-erabilera zuten sailak luberritzea, hau da: «rozar tierra alguna en paraje contencioso de usanza... pena de perdimiento de las cabezas de ganado que se hallasen y estacas que hubiese y de ducientos reales de vellon de multa», «y sin embargo de lo cual, cometiose muchos excesos en esta parte sembrando lino, maiz y mijo, cerrando

<sup>69</sup> TPA, bigarren sekzioa, 20. neg., 36. leg.

<sup>70</sup> *Ibidem*, 18. leg.



las heredades, que hacian en grave detrimento del pasto de ganado y creacion de arboles brabios». Horregatik, erregeak, dekretu hori konfirmatzeko, Errege Gutun bat eta probisio bat bidali zituen 1748ko uztailaren 20an. Urte batzuetarako belarra izan zezaten sasitza mozten edo erretzen zuten ganaduzaleen eta egurketarien arteko mende hasierako tentsioak, mendearen erdialderako nekazarien eta egurketari haien arteko borroka bihurtu ziren. 1777an nekazariak basoei eraso egiten zieten eta berehala pizten ziren istiluak halakoetan. Idiazabalgo herri-diputatuak zuhaitz-mozketei zegokienez, hala zioen: «no eran tan crecidos como se abultan en el proceso. Dire mas a V. S., que son cortísimos y que solo se reducen a tal cual roble y algunos espinos... el delito de los rozadores ha estado en que como el labrador esta necesitado y siempre le parece poco el terreno que se le señala [para rozas] habrá pelliscado algo fuera de los señalado, pero esto, aunque mal se ha echo siempre» eta «las repúblicas que conceden la siembra en estos sitios conceden por consecuencia facultad de cerrar de estacada este terreno que no pueda quedar expuesto a que sea pasto del ganado». Antzekoak ziren Segura hiribilduko arrazoiak ere: «que los rozadores no hayan derribado sino es muy pocos árboles para extender sus siembras». Basoak babestearen aldekoek argudiatzen zutenez, hiribilduetako hainbat pertsonak (hots, «varios sujetos de ambas villas, y entre ellos muchos de los vecinos de la dicha villa de Idiazábal y capitulares de la misma») aurreko urtean bi mila zuhaitzeko mozqueta bat egitea erabaki zuten eta garai horretan izan omen zen sute bat ere: «acaeció también un incendio en dhos montes que a no favorecer los vientos se ubiera quemado todo el»<sup>71</sup>. Luberriketa hauen azkartzea, hein handi batean, 1774ko epizootiaren ondorioa izan zen, nekazariak pobretu baitzituen horrek<sup>72</sup>.

Istilu gehien, hainbat alditan aipatu dugun Gipuzkoako Foruetako V. Kapituluako XXXVIII. titulua edo antzeko arautegiak ezarri zirenean sortu ziren, berorietara jotzen baitzuten produkzio-indarren garapenak baztertu ziztuztenek. «Ereiteko luraren laurdena» babesten zuen itxitura bat suntsitu zenean, honako arauak erabili ziren, hots: «los cap<sup>s</sup> 10 y 11 del Reglamento formado en 26 de septiembre de 1738 [en el que] se prevenía que los q. con licencia de los pueblos rozasen o abrieren tierras concejiles hayan de plantar precisamente 6 arboles robles o castaños por cada fanega de sembradura, como lo ordena el Fuero en el cap. 5. tit. 38» eta, berorietan argudiatzen zenez, «se les ponga la obligación de que en el último año que han de disfrutar las tierras siembren en ella bellota o castaña mezclada y rebuelta

<sup>71</sup> *Ibidem*, 24. leg., «Expediente del Alcalde de Segura contra los que hacían rozaduras y corte de árboles en los términos de Ursuaran comunes con Idiazabal».

<sup>72</sup> Epizootiari dagozkion lekukotasunak oso argiak dira, egoera larri ugari ekarri baitzuen garai hartakoei: «Desde el año 1774, en que por peste se despoblaron de él los montes de esta valle de Oyarzun»; «el año de setenta y cuatro en el que hubo la epidemia del ganado», Hernanin. KKA, Eskusatua, 1771... (2).

con la semilla que hubieren de sembrar y no arranquen las estacas con que hubiere estado seteada la heredad para que quedando al cuidado de la república tener cerrada la tierra a lo menos dos años despues y no entrando el ganado en ella crezca el plantio con la maleza y despues de estar poblado el sitio se aprovechen los demás plantios si fueren de buena calidad para plantarlos en otras partes abonandose el valor de las estacas a su dueño»<sup>73</sup>.

Baina honelako kontraesan txikien haritik herri-lurren aldekoen eta jabego pribatuaren aldekoen artekoen borroka etorri ziren; aurrez aurre horiek 80ko hamarkadarako nabarmentzen hasi ziren eta, 1833ko gerra zibilaren aurretik, desamortizazioen ondorioz, gatazka kutsua hartuko zuten.

Ongarri urritasunaren aurrean, herriko lurretako errentariak nahiz hainbat zerbitzu emateko obligazioa zuten lur-jabeak, herri-erabilera hori baztertzen eta jabego kontzeptuari zentzu liberal-burgesa ematen saiatu ziren. Jada 1785ean, Oñatin, ikusirik «las muchas quejas que había tenido el diputado comunero por los vecinos de ella en razon de que en las Dehesas de la Villa, podian fuera de los rematantes de ellas, recojer alecho y oja que caiesen en ellas, por ser propia y privativa de los rematantes y en vista de esta representación, acordaron, que con arreglo a las condiciones, que siempre se han en las Escrituras de arriendo de Dehesas propias de la Villa, sólo debian ser privativo de los rematantes el haber y recojer el alecho de ellas y no otro qualquiera, que no tubiese permiso y licencia de ellos»<sup>74</sup>. Begi-bistakoa denez, belardiak soilik eta, beraz, larreak soilik, alokatu eta garo-bilketa herri-erabileraren barnean onartzetik, larre osoak alokatzera pasa ziren eta antzinako herri-erabilera haiek albora utzi ziren. Noski, zenbait pertsona horren guztiaren aurka altxatu zen eta landare-ongarriaren bila sartzen zen lur haietara. Aurrerantzean, belardiak alokatzeko dirua zuenak berriro beste bati alokatu ahal izango zizkion lurak edota nekazariei gari eta hostoak salduko zizkion, behar baitzituzten nekazariak. Lehen dohain zena ordaindu beharra etorri zitzaien.

Aldi berean, saroeen jabeak eta gainontzeko nekazariak ere elkarren kontra zeuden. Oñatiko konderrian bertan, abeltzaintzarako joera handiko ingurune honetan, 1785ean auzotar partikularrenak ziren hirurogeita bederatzia sarotako basa-fruituen aprobetxamenduari buruzko auzi luze bat hasi zen; horietako hemezortzi Juan Javier de Plazarenak ziren, bost don Jose Joaquin de Gomendiorenak eta hiru Rafael Ortiz de Zaraterenak eta, beraz, hiru pertsonaren kontrolpean zeuden lur horien bi heren. Kontzejaren erabakia nekazarien eta herri-erabileraren aurkakoa izan zen<sup>75</sup>.

---

<sup>73</sup> TPA, bigarren sek., 20. neg., 20. leg.

<sup>74</sup> AHN, Consejos, 2.733. leg., (1, a), 209. or.

<sup>75</sup> *Ibidem*, 249. or.

Araban, «erabiltzen ez ziren sail ugariko»<sup>76</sup> lurralde hartan, labakitu-tako inguruen hedapenak halako ezaugarri berezi batzuk izan zituen, batez ere Errioxan. Mahastien hedapen goiztiarraren ondorioz, gatazkak berrogeita hamarreko urteetan piztu ziren, horixe izan baitzen mahastien hedapenaren goren puntua. Mendearen erdialdera mahastizainek hartutako lehenengoetariko neurria ganaduari beren lurretarako sarbidea galaraztea izan zen. 1756an Biasteriko hiribilduak errege-epai betearazle bat lortu zuen La Puebla de la Barkaren, Eltziegoren eta Biasteriko ermandadeko beste zenbait herriren eta bertako ganaduzaleen aurka egin zen auzi batean, «negando a estos el derecho a que sus ganados pastasen una vez levantados los frutos en la viñas, olivares y sobre otros extremos»<sup>77</sup>. 1771n honakoa zioten ilustratuek mahastien aurka: «que usurpándose terreno a los pastos, ha decaído la cría de ganado»<sup>78</sup>. 1784an Logroñoko Errioxako udalerrri batean ageri zenez, «antes había en este distrito y pueblo de Arnedo 18.000 cabezas de ganado y aora no pueden mantenerse mas que 4.000 por privarseles la entrada de las viñas y estar ocupados y plantados muchos de los términos comunes y baldíos»<sup>79</sup>. Abeltzaintzaren aurkako borroka hartan irabazi ondoren, zerealen landaketa ere baztertu egin zuten mahastizainek. Gaztelako Kontseiluak, 1776an, herri-lurretan landutako mahatsondoak errotik ateratzeko agindua indargetu egin zuen eta mahastietarako egokiak ziren lurak zerealetarako nahiz larre gisa ezin erabil zitezkeela adierazi zuen<sup>80</sup>. Halaxe gertatu zen Haron, izan ere, bertan, udalak 1792an mahasti bihurtu ziren herri-lurak berreskuratu nahi izan zituen, nahiz eta Gaztelako Kontseiluak usurpazioak onartu<sup>81</sup>. Kontseiluari igorritako lurak urratzeko eskaerek ez zuten ezkutuan uzten horrek larreak atzeratuko zituela; 1798an don Manuel eta don Geronimo Vigue-rari zegokienez hauxe adierazten zen: «vecinos todos de esta Ciudad [Biasteri] ocupando porciones considerables de tierra en la que han plantado viñas y olibos... [han formado] ... haciendas de gran utilidad que antes solo producian hierba para ganados». Juan Antonio Martínez Azpeitiak, Manzanares (Mancha) hiribilduko abokatu, alkate eta gerrako kapitain izanak, Biasterin bizi zenak eta etxea eta ondasunak ere han zituenak, lurra lantzeko eskatutako ehun anegei zegokienez, hauxe adierazi zen: «esttan tottalmente incultas y sirven poco para Pasttos de ganado por su distancia del Pueblo aprovechandose de ellos los esttraños más que los vecinos»<sup>82</sup>.

<sup>76</sup> *Ensayo*, 201. or.

<sup>77</sup> Biasteriko Udal Artxiboa, 10. erreg., 1. zkia.

<sup>78</sup> *Extractos...*, 1771. urtea, 31. or.

<sup>79</sup> Huetz de Lemps, *op. cit.*, I. libk., 409. or.

<sup>80</sup> *Ibidem*, I. libk., 403. or.

<sup>81</sup> *Ibidem*, 1.863. leg., 25. zkia.

<sup>82</sup> AHN, Consejos, 1.924. or., 11. zkia.

Mende bukaeran egoera hori areagotu eta zailtasunak handitu egin ziren herri askotan; ondorioz, agintariek askotan usurpazioak legeztatu egin behar izan zituzten. Biasterin, 1798ko martxoaren 25ko kontzeju nagusian, «se propuso por el referido Señor Alcalde como por algunos vecinos de esta dha villa se le habian dado barias quejas de que otros sin mas titulo que su antojo se havian propasado a roturar en los Herios y tierras concejiles sin reserbar los Prados, Bosques, Desas, Riueras, Pastos, Cañadas y monttes no obstantte de allarse prohibido, por otro Concejo del año pasado de noventta y seis ... y que ... deseoso ... que el Pueblo se mantubiese con ttranquilidad attento a ser bastantte el numero de intrusos, hauia tenido por combeniente hazer junttar dho concejo; y que entterados de la cittada propuesta ttodos los concurrenttes unanimes y conformes habian Decrettado, que con arreglo a representacion hecha por la villa de Ocio, se facilitase de los Señores del Real y Supremo Consejo de Castilla la correspondiente licencia para la compartticion entre los vecinos, del monte de Motilluri, y demas Herios concegiles, excepto los Prados, Bosques, Desas, montes alttos, riberas, pastos y cañadas ... y que hasta ttantto que se lo-grase dha licencia se suspendiese el rotturarse en dhos Herios y lo mismo en sembrar lo que se alla lebandado, y que lo que esttba sembrado, usando de venignidad se recogiese por sus respectibos dueños dejandolo despues sin trabajar hasta que se consiguiese el fin que se apetecia, vajo la pena de seis ducados»<sup>83</sup>. Testu adierazgarri honek mende bukaeran gizar-teak bizi zituen tentsio-uneen eta lur-gosearen berri ematen digu. Alkateak esana gogora ekarriz, zenbait urte lehenago, 1794an, Ocion, Biasteritik gertu zegoen hiribildu hartan, lurren banaketa egin zen eta, hala, eredu hura errepikatzen ahalegintzen ziren. Erregeak urte horretako urtarrilaren 24an emandako ahalmenaren bidez, Ocioko kontzejuari eta auzotarrei bertako lurraldeetan 2.000 anega urratzeko baimena eman zitzaien. Baina 1.094 baino ez ziren banatu eta, bertan, ogia egiteko zereal mistotarako, hots, erdi eta erdi, gari eta garagarretarako, lakari-laurdeneko kanona ezarri zen hiribilduko herri-lurrentzat bigarren urtetik aurrera, behin betiko izaeraz. Ekainaren 28an egin zen banaketa, horrelaxe egin ere: «A saver a los labradores de Yunta, excepto a dn. Man<sup>l</sup> Alviz, Bernardo Velasco y Man<sup>l</sup> Davalillo, a veinte y ocho fan<sup>s</sup> y dos z<sup>s</sup> a cada uno. A los de media Yunta incluso en esta clase a dho. Manuel Davaillo, a catorce fan<sup>s</sup>, a los diez y seis de los veinte jornaleros y labradores sin Yunta, a nueve fan<sup>s</sup> y a quatro a los otros restantes. A las viudas a quatro fan<sup>s</sup> y media, a Josef de Suso, siete, al dho dn Man<sup>l</sup> de Alviz, dos a Juan Ant<sup>o</sup> Najarro, y tres a Nicolas Rodrig<sup>z</sup> Maestro de primeras letras de dha Villa»<sup>84</sup>. Beraz, Extremaduran

<sup>83</sup> *Ibidem*, 1.863. leg., 25. zkia.

<sup>84</sup> AAA, H. 92. leg., «Testimonios del total de tierras valdías repartidas en la villa de Ocio».

jasotako neurrien oso antzekoak dira; produkzio-bideren bat zutenei —uztarriak— lurra eman zitzaizkien nagusiki eta, aldi berean, uzta biltzeko beharrezkoak ziren soldatapeko langileak mantendu egin ziren.

Euskal Herrian aplikatu zen zenbait irtenbide, Iberiar penintsulako gainontzeko lurraldeetan hartu ziren edota hartzen ari ziren neurrien errepikapen hutsa izan zen. 1815etik 1817ra bitartean, hein batean Gipuzkoako jurisdikziokoa eta beste hein batean Arabako Anda hiribildukoa zen Gatzagako mendaterako maldan eta gainean, dozenaren bat baserri egiteko proiektu bat izan zen, hala, ia biztanlerik gabeko inguru haietako lapurretak eta erasoak ekiditeko. Errege Kontseiluko fiskalak proiektuari oniritzia eman zion, Sierra Morena, Alcurdia eta Ciudad Rodrigon eginikoen antzekoa baitzen. Proiektuak bost klausula zituen: 1.a, etxea, eskorta, ukuilua, baratzea eta larraina egiteko lurra emango zitzaien; 2.a, zerealak landatzeko hogeita bost anega lur edo gehiago emango zitzaizkien, hautamenerako bide zabala eskainiz; 3.a, nekazariak hamar urtetan ez zuten inolako auzo-zerga edo kontribuziorik ordaindu beharko; 4.a, garai horretan ez zuten, halaber, hamarrenik ordaindu beharko; 5.a, auzotar guztien antzera, hauek ere jurisdikzioko urak eta herri-lurra erabiltzeko aukera izango zuten. Anda herria lurra dohain emateko prest zegoen, ez, aldiz, Gatzaga, honek saldu edota errentan eman nahi baitzien. Erregea bera ere arduratu zen arazo honetaz eta Gipuzkoako Aldundiari igorritako gutun batean hala zioen: «pero temo hallar alguna pequeña dificultad en algunos particulares o comunidad por la cesion de su terreno aun quando se les compense o en otros o en dinero porque regularmente y por desgracia se suelen presentar obstáculos al plantearse las ideas y proyectos que influyen en la felicidad general del Pais» eta, amaitzeko, hauxe eskatzen zitzaion arren Aldundiari: «se digne dar su aprobacion a tan util pensamiento». Errege erreakzionario hura Fernando VII.a zen<sup>85</sup>.

Lanik neketsuena, ihitoki eta padurak lehortzea, XVIII. mendearen bukaera aldera eta XIX. mendearen lehen urteetan hasi zen. 1780an, Hondarribian nekazariak itsasoak suntsitutako halako dike batzuk berriro altxatzera animatu nahi zituzten, bai eta ihitokiak lehortzera ere, izan ere, hala, «podían rendir más de 400 fanegas de grano al año». Zenbait pertsonak, enpresari zela esanez, zeregin hura gauzatuko zuela hitz eman zuen, bai eta trukean ihitoki haiek berrogei urtez erabiltzeko eskatu ere, nahiz eta epe hori, gero, berrogeita hamabost urtera luzatu zen. Halaber, Udalarari urteko eta goldeko zilarrezko lau erreal emateko obligazioa zuten. Handik hamarren bat urtera, San Rafaelekoak —gutxi gorabehera seiren bat golde ematen zituzten hauek— eta Aingiraportukoa itxi egin ziren<sup>86</sup>. Zumaian, Martinez Kleiser-ek, besterik gabe, prozesu hau XVIII. mende bukaeran eta XIX.aren

---

<sup>85</sup> TPA, bigarren sek., 20. neg., 41. leg.

<sup>86</sup> *Ibidem*, lehenengo sek., 17. neg., 130. leg.

hasieran datatu zuen, izan ere, garai honetan «nekazaritza izugarri garatu zen padurak lehortu zirenean eta lehen ihitoki izan zirenak nekazaritza-lur bihurtu zirenean»<sup>87</sup>. Gerra zibilaren bezperan, Hondarribian berriro ageri dira partikularren eta Udalaren arteko kontratuak, lur zingiratsuak aprobetxatuz nekazaritzarako lurrak lortzeko asmoz. «Pedro José Guebara vecino de esta Ciudad recurrió a V. I. en 22 de Junio de 1831, esponiendo que la dilatada playa llamada de Sta Engracia (hoy Sn Isidoro) era una de las que se podía cerrar y reducir a tierra de cultivo con notoria utilidad y ventajas así de los fondos de V. I. como de todo el vecindario». Delako «Guebara enpresariari» bi urteren buruan ihitokia itxi zezan utzi zitzaion, eta hurrez geroztik eta hirurogei urtetan sei erreale kuarto ordainduko zituen golde-lur bakoitzeko. Epe hori amaitutakoan ihitokia berriro herriarena izango zen. Urte horretan bertan beste eskritura bat egin zen eta helburua, antzeko baldintzetan, «Salinas izeneko ihitoki baten ondoko saila ixtea zen». Sail hauez gain, 19 1/4 golde-lur, 244 postura eta 94 beso itxi ziren, bai eta sekain-lurretako hainbat otalur ere, nahiz eta ez diren berorien neurriak zehazten, baina gehiago kostatuko zitzaien orain, kanona urteko eta goldeko 15 eta 22 errealea igo baitzen; hala ere, epea mugatua zen. Gainazalaren berririk eman gabe eta Udalaren iragarki edota berririk gabe, zenbait nekazari herriarren ihitoki batzuk itxi zituzten, eta usurpazio hori legeztatu egin zen gero, 22 errealeko kanona ordaintzera behartu baziren ere. 1832an hirurogei postura eta berrogeita hamar beso itxi ziren, eta urte horretatik 1833ra bitartean herri hartako zenbait nekazari Escapachulo izeneko kontzejuaren lur-zatia, 27 golde-lurreko ihitoki hura, hesitu zuen eskriturarik eta kontribuziorik egin gabe. Nekazariak indarrean hartu ote zuten lur-zati hura? Hala dirudi, izan ere, «en el año pasado de 1835 [gerra-garaian, beraz] cerraron asi bien entre varios labradores de esta jurisdicción un trozo de terreno... contendrá el dho trozo unas diez jugadas de tierra por los que tampoco se paga cosa alguna por los cerradores, ni hay Essra en su razón»<sup>88</sup>.

Antzeko zerbaít gertatu zen Ipar Euskal Herrian. 1789ko Estatu Orokortarako eginiko «Cahiers de vœux» delakoetan aitortzen zenez: «Des lois récentes ont accordé en général aux défrichements des terres incultes, des exemptions d'impôt et dîme plus ou moins longues; il seroit de la justice et de l'intérêt du Gouvernement, que ces exemptions fussent prolongées pour le Pays Basque, et qu'à l'époque où elles cesseroient, les terres défrichées ne payassent la dîme qu'au 50<sup>eme</sup> des fruits»<sup>89</sup>.

<sup>87</sup> Kleiser Martínez, *op. cit.*, 194. or.

<sup>88</sup> TPA, lehenengo sek., 17. neg., 130. leg.

<sup>89</sup> *Cahier des vœux et instructions des basques français pour leurs députés aux Etats Généraux de 1789*. Nouvelle édition. Bayonne, 1874, 29 eta 30. orr. 1933an jada Th. Lefebvre-ek eman zuen ikuspegia bat dator gurearekin hein handian. *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*. Paris, 1933, 225, 226, 228, 211, 212, 217 eta 218. orr.

Berriki labakitutako eremuaren hedapena, zenbatzea posible izan de-  
netan, handia izan arren, ez zen %40ra iritsi. 1771-1775. urteetako eliza-  
ren erantzunetan zenbait herritan, luberritan lortutako uztak eta bestelakoak  
bereizi egin ziren<sup>90</sup>.

**Luberrietan lortutako uztaren ehunekoak produkzio guztia kontuan hartuta  
(1771-1775)**

|                                   | Garia<br>%  | Artoa<br>%  | Txakolina<br>% | Sagarra<br>% |
|-----------------------------------|-------------|-------------|----------------|--------------|
| Busturi-Axpe .....                | 17,34       | 17,17       | 62,62          | 0,00         |
| Gamiz.....                        | 7,49        | 8,58        | (a)            | 0,00         |
| Bakio (S. Pelaio eta S. Joan) ... | 10,63       | 6,44        | 17,14          | (a)          |
| Forua .....                       | 2,53        | 4,58        | (a)            | (a)          |
| Derio.....                        | 12,02       | 12,75       | 7,22           | 10,92        |
| Barakaldo .....                   | 27,90       | 21,35       | 15,39          | 53,93        |
| Sopela.....                       | 1,58        | 0,31        | 14,56          | 0,00         |
| Plentzia .....                    | 0,62        | 0,85        | 13,79          | 0,00         |
| Gorliz .....                      | 0,41        | 0,44        | 0,83           | 1,47         |
| Lemoiz.....                       | 0,15        | 0,21        | 0,00           | (a)          |
| Getxo .....                       | 7,15        | 2,49        | 0,00           | 0,00         |
| Loiu .....                        | 20,08       | 24,45       | 40,76          | 0,00         |
| Jatabe .....                      | 3,63        | 4,06        | 5,36           | 0,00         |
| Gatika + Laukiz .....             | 4,82        | 3,67        | (a)            | 0,00         |
| Urduliz.....                      | 2,01        | 1,75        | (a)            | (a)          |
| Bakio .....                       | 15,54       | 12,73       | 34,13          | 0,00         |
| Fruiz .....                       | 9,06        | 7,93        | (a)            | (a)          |
| Sondika .....                     | 18,34       | 10,88       | (a)            | (a)          |
| Eradio + Leioa .....              | 13,98       | 16,66       | 23,34          | (a)          |
| Barrika.....                      | 12,70       | 16,54       | 14,71          | 2,87         |
| Ermua.....                        | 9,38        | 4,14        | (a)            | 7,03         |
| Morga.....                        | 3,54        | 3,88        | 0,00           | 0,00         |
| <i>Guztira.....</i>               | <i>9,73</i> | <i>9,13</i> | <i>19,58</i>   | <i>7,00</i>  |

*Oharra:*

(a) Mahatsa eta sagarra lantzen ziren, baina ez zegoen produktu hauen luberririk.  
0,00 Ez zen mahatsik edota sagarrrik lantzen.

<sup>90</sup> Honako herrietan ere ba omen ziren luberriak, bereizten ez ziren arren: Nabarriz, Ar-  
teaga, Muxika-Ugarte, Kortezubi, Ibarrangelu, Natxitua, Ea, Akorda, Aulesti, Ereño, Erri-  
goiti, Durango, Iurreta, Arteaga, Zaratamo, Larrabetzu, Berango, Deustua, Arrankudiaga eta  
Zaldua.

1771-1775. urteetan, zerealen produkzio guztiaren ia %10, txakolinaren %20 eta sagarraren %7 soilik zetorren luberritu ziren sailetatik. Nahiz eta hogeita lau herri hauetan eta mahastiak zituzten udalerrri gehienetan garia eta artoa landutako luberriak izan, sagastiak zeuden hamasei parrokiatetik bostetan soilik hedatu ziren sagasti horiek eta, Derion eta, batez ere, Barakaldon izan ezik, gainontzeko hiru elizateetan ez zuen halako indarririk izan hedapen horrek. 1775ean nekazaritzaren alorreko hedapenak aurrera jarraitu zuen, noski. Vargas Ponce-k, XIX. mendearen hasieran, 1786tik aurrera sail eta mendi berri asko ireki eta luberritu zela adierazi zuen<sup>91</sup>. Eta halaxe zen gainera. 1802ko erroldako «Galdeketa Politikoiari» eman zitzaizkion erantzunetan, Mutrikuren erantzuna hauxe izan zen: «se han rozado algunas tierras incultas con provecho del pueblo que serán 11.300 posturas». Hiribilduaren azalera osoa 816.326 posturakoa izango zela baloratzen zen, eta horietatik 85.845 landuta zeuden eta 730.481 landu gabe, hau da, lehen aldiz labakitutako lurrek landutako lur guztiaren %13,16 baino ez zuten osatzen<sup>92</sup>. Orion, 342.000 posturako jurisdikzioa zuen udalerrri hartan, 31.000 lantzen ziren eta bertan adierazten zenez, «de treinta años acá [1722tik 1802ra] se havian rozado mas de 3.500 posturas de jaros y tierras incultas con utilidad»; horrek landutako lurren %11,29 luberritu zela esan nahi du<sup>93</sup>. Beraz, landutako eremuaren hedapena gutxi gorabehera %10ekoa izango zela eta gehienez ere %25era iritsiko zela ondoriozta daiteke. Hala, uzten gorakada lehengo lur-sail berreskuratuen eta urratu zirenen artean banatuko zen.

Lur-zati berriak labakitzearekin batera, onibarrak zatitu egin ziren, eta horrek ere hedapen hartan garrantzi handia izan zuen. Gauza jakina da Foruak araututako inguruetan onibarrak ez zirela oinordekoen artean banatzen; oinordekoetako bati, zaharrenari edota gurasoek izendatutako beste bati, baserriarekin jarraitzea egokitzen zitzaion eta, gainontzekoei zegokienez, edota desoinordetu egiten ziren edota diru-kantitatearen bat ematen zitzairen, nesken kasuan ezkontsarirako erabiltzen zena. Historialari eta jakintsuei, duela gutxira arte irizpide juridikoetan oinarritzen zirenez, lege zuhur hauek minifundismoaren aurkako panazea gisa jokatu zutela iruditu zitzairen. Zoritxarrez, jabego-batasuna eta ustiapen-batasuna nahastu zituzten ikusmolde horretan. Zatitu gabe eskualdatzen zen hura zen, hain zuzen ere, jabego-batasuna, baina ez zen inolako eragozpenik jabego horretan bi, hiru nahiz lau onibar edo sail lantzeko. Eta horixe izan zen mende horretan gertatu zena. Mende hasieran familia bakar baten esku zeuden ustiategiak mende bukaerarako bi, hiru edota lau familiaren esku izango ziren. Oinordekoak anaia-arrebaren bat, edota beste

---

<sup>91</sup> HEAA, 71 E, Vargas Ponce bilduma, «Estados de Vitalidad...».

<sup>92</sup> *Ibidem*, 9-22-4-4.197.

<sup>93</sup> *Ibidem*, 9-22-4-4.197.



nekazariren bat maizter hartuko zuen bere lurretan; ustiapena, beraz, zatituta zegoen, ez, aldiz, jabegoa.

1797ko su-zenbaketari eta Godoy-ren erroldari esker, 1704ko koadroaren antzeko beste bat egin ahal izan dugu. XVIII. mende amaieran, etxe bakoitzeko biztanle-kopurua 6,31ra iritsi zen eta auzotarrena, 1,45era. Biztanleria 1704an 20.361 arimakoa izatetik (= 100) 1797an 40.541 arimakoa izatera pasatu bazen (= 199), eraikinen gorakada ez zen horrenbestekoa izan: 4.943tik (= 100) 6.423ra (= 130) igo zen. Alde nabarmena dago bien artean. Beraz, gertakari honek hein batean aurrezteko modua eskaini zien, izan ere, baserriak askotan zatitu egin zirenez, dirutza itzelak eraikin berrietan gastatu beharra saihesti egin baitzuten; horrek ganadua, lanabesak nahiz lurrak erosteko ahalmen handiagoa ekarri zien. Baina zifra horiek adierazten dutena baserrien zatiketa da. Landutako lurren hedapena demografiaren ala etxe berrien eraikuntzaren haritik etorri zen? Aipatu ditugun adibideek luberriketak demografi hazkundearen tasara ez zirela iritsi adierazten dute. Eta, atal hau bukatzeko, esan beharra dago etxearen banaketa, hein batean, landutako lurren banaketaren adierazle badela. Nahiko arau orokorra dugu hori, baina ez, dena den, beti gertatuko dena. Izurtza, Larrabetzu, Xemein, Gerrikaitz, Gorozika, Fika, Berriz eta Arantzazun, eraikin-kopurua eta biztanleriarena nahiko modu parekatuan hazi ziren, nahiz eta horietako kasu batean, Arantzazun, biztanleria ia hazi ere ez zen egin (ikusi 219. orrialdeko koadroa).

## **Hedapenaren finantzaketa**

Hesiak metro batzuk harantzago eramatea edota onibarraren ondoan beste lur-zati batzuk lortzea ez dirudi gehiegi kosta zitekeenik, are gutxiago lur etze horiek luberritu behar zituenarenak zirenean. Halako kasuetan, nekazariak, ezari-ezarian labore bihurtutako herri-lur gutxi-asko zabalak erabili ahal izan zituzten. Dena den, eremu zabal bat urratu eta bertan etxea egin edota sail bat mahasti bihurtu nahi bazuten, zeregin horretarako bitarteko izugarriak, haien aukeretatik kanpo zeudenak, behar izaten zituzten, nahiz eta leku askotan, Labastidan adibidez, udala presionatu ondoren, lur-sailak oso errenta txikien truk banatu ziren. Lur-sailaren prezioari hainbat gauza erantsi behar zaizkio: mozketa-lan neketsuak, etxe bat eraikitzearen lana, lurra produzitzen hasi aurretik zenbait urtetan bizimodua atera beharra, mahastien kasuan epe hori zazpi urtera luza baitaiteke, eta hazia. Orion garbi ageri zen landu gabeko lurrak ezin zirela urratu, baldin eta berrietan baserririk egiten ez bazen. Eremu haiek ez ziren luberritzen, herri-tik urruti baitzeuden eta bertan lor zitekeen fruituak ez baitzuen laborearen heren bat ere konpentsatzen. Mende horretan proportzioan jabeen kopuruak behera egiteak eta askotan beherakada hori zifra absolutuetan gertatzeak garbi adierazten du lurrak ez zituztenek ez zituztela eskuratu. Lurraren jabeak lurren urraketa maizterraren gain utzi zuen, eta lehen an-

**Biztanle-kopurua etxeko, 1704an eta 1797an**

|                         | 1704       |           |           | 1797      |           |            |
|-------------------------|------------|-----------|-----------|-----------|-----------|------------|
|                         | Bizt. kop. | Etxe kop. | B.K./E.K. | B.K./E.K. | Etxe kop. | Bizt. kop. |
| Abadiño.....            | 828        | 190       | 4,35      | 6,02      | 238       | 1.433      |
| Ajangiz.....            | 266        | 66        | 4,03      | 7,15      | 76        | 544        |
| Amoroto.....            | 230        | 57        | 4,03      | 7,45      | 62        | 462        |
| Arantzazu.....          | 132        | 34        | 3,88      | 3,85      | 42        | 162        |
| Arbatzegi.....          | 203        | 50        | 4,06      | 7,08      | 86        | 609        |
| Arratzu.....            | 355        | 86        | 4,12      | 6,04      | 93        | 562        |
| Arteaga.....            | 360        | 88        | 4,09      | 6,43      | 120       | 772        |
| Aulesti.....            | 553        | 140       | 3,95      | 5,90      | 193       | 1.140      |
| Badaroa + Ea.....       | 130        | 38        | 3,42      | 6,24      | 41        | 256        |
| Bermeo.....             | 1.377      | 297       | 4,63      | 8,24      | 511       | 4.215      |
| Berriatua.....          | 488        | 122       | 4,00      | 7,18      | 131       | 941        |
| Berriz.....             | 672        | 175       | 3,84      | 4,25      | 231       | 983        |
| Derio.....              | 212        | 47        | 4,51      | 5,30      | 26        | 138        |
| Dima.....               | 1.000      | 248       | 4,03      | 5,91      | 292       | 1.728      |
| Ereño.....              | 247        | 66        | 3,74      | 7,34      | 63        | 463        |
| Erriagoiti.....         | 342        | 71        | 4,81      | 8,04      | 112       | 901        |
| Etxabarrri.....         | 104        | 25        | 4,16      | 6,27      | 37        | 232        |
| Etxano.....             | 230        | 53        | 4,33      | 5,46      | 79        | 432        |
| Fika.....               | 104        | 25        | 4,16      | 4,43      | 39        | 173        |
| Forua.....              | 230        | 57        | 4,03      | 7,52      | 61        | 459        |
| Galdakao.....           | 384        | 98        | 3,91      | 5,08      | 168       | 854        |
| Gamiz.....              | 303        | 65        | 4,66      | 6,64      | 59        | 392        |
| Garai.....              | 177        | 44        | 4,02      | 4,85      | 54        | 262        |
| Gatika.....             | 384        | 86        | 4,46      | 6,24      | 108       | 674        |
| Gaztelu Elexabeiti..... | 264        | 59        | 4,47      | 5,05      | 88        | 445        |
| Gernika.....            | 431        | 94        | 4,58      | 6,58      | 115       | 757        |
| Gerrikaitz.....         | 173        | 41        | 4,21      | 3,76      | 63        | 237        |
| Gizaburuaga.....        | 110        | 26        | 4,23      | 7,43      | 30        | 223        |
| Gorliz.....             | 279        | 71        | 3,92      | 9,92      | 101       | 1.002      |
| Gorozika.....           | 121        | 28        | 4,32      | 4,75      | 41        | 195        |
| Ibarrang. + Elantxobe.. | 607        | 157       | 3,81      | 6,02      | 178       | 1.073      |
| Ibarruri.....           | 282        | 65        | 4,33      | 7,34      | 58        | 426        |
| Iurre.....              | 531        | 126       | 4,21      | 5,59      | 154       | 862        |
| Ipazter.....            | 529        | 139       | 4,19      | 5,94      | 138       | 821        |
| Izurtza.....            | 175        | 40        | 4,37      | 4,85      | 48        | 233        |
| Jatabe.....             | 236        | 61        | 3,86      | 6,35      | 74        | 470        |
| Kortezubi.....          | 358        | 87        | 4,11      | 5,82      | 98        | 571        |
| Larrabetzu.....         | 481        | 118       | 4,07      | 4,43      | 172       | 763        |
| Laukiz.....             | 184        | 44        | 4,18      | 8,33      | 57        | 475        |
| Lemoiz.....             | 277        | 59        | 4,69      | 5,64      | 62        | 350        |
| Lezama.....             | 366        | 94        | 3,89      | 4,88      | 111       | 542        |
| Lumo.....               | 262        | 64        | 4,09      | 6,90      | 85        | 587        |
| Mallabia.....           | 407        | 97        | 4,19      | 5,56      | 140       | 779        |
| Mañaria.....            | 342        | 80        | 4,27      | 5,07      | 108       | 548        |
| Mendata.....            | 353        | 91        | 3,87      | 7,34      | 103       | 757        |
| Mendexa.....            | 177        | 48        | 3,68      | 5,83      | 48        | 280        |
| Meñaka.....             | 212        | 51        | 4,15      | 7,55      | 58        | 438        |
| Morga.....              | 184        | 47        | 3,91      | 6,52      | 67        | 437        |
| Mundaka.....            | 323        | 85        | 3,80      | 10,45     | 159       | 1.663      |
| Muxika.....             | 399        | 107       | 3,72      | 7,20      | 129       | 930        |
| Sukarrieta.....         | 117        | 29        | 4,03      | 6,26      | 38        | 238        |
| Ubidea.....             | 78         | 20        | 3,90      | 11,55     | 36        | 416        |
| Xemein.....             | 407        | 102       | 3,99      | 4,50      | 149       | 671        |
| Zaldua.....             | 290        | 67        | 4,32      | 5,90      | 88        | 520        |
| Zeanuri.....            | 1.000      | 242       | 4,13      | 5,38      | 338       | 1.821      |
| Ziortza.....            | 364        | 96        | 3,79      | 6,25      | 126       | 788        |
| Zornotza.....           | 731        | 178       | 4,10      | 5,95      | 241       | 1.436      |

tzuak ziren lurrek, ia inbertitu ere egin gabe, bost urteren buruan errenta ematen zioten; noski, hemen ere presio demografikoak jabeen alde jokatu zuen. Laudion, lehen aipatu dugun 1722ko auzi hartan, luberriketak gauzatzeko hainbat modu ageri da: «hauiendo hecho su primer rompimiento Fran<sup>co</sup> de Larrazaual vecino que fue de este valle, tomando a su cargo quebrantar dha porción de terreno por medio de arrendamiento que hizo de ella, por cuatro años en ducientos reales de vellón, y el costo de dho quebrante y nuebo rompimiento». Beste lur-zati bat ere ebaki eta garbitu zen jabeak, hots, Jose Antonio de Olaetak, hala aginduta, eta sei nekazarik egin zuten lan hura «por el coste de quebrantarlo y las raizes de dhos arboles libres de renta, por espacio de quatro años, y hademas por dho trabajo dio el dho D. Joseph Anttonio cien rs. de Vn.». Beste kasu bat ere izan zen: «una porzion de monte de veintte fanegas de sembradura a fin de quebrantarlo y reducirlo a tierra de pan sembrar, y hauiendose hecho la medida, pasó el dho D. Mathias a darlo en arrendamiento a diferentes vecinos de este valle para que comenzasen a labrarlo por espacio de quatro años, y sin renta alguna, en atenz<sup>on</sup> al trabajo que hauian de tener en reducir dha tierra de Monte que hera a heredad de pan sembrar»<sup>94</sup>. Berrogeiko urteez geroztik, Ziortzako abadía zenbait saroe enfiteusi bidez ematen hasi zen, nekazariak saroe horiek landu zituzten eta berorietan baserriak egin zituzten. 1740an Aranzadiko Santa Maria Madalena ermita ondoko saroea, 126 estatu erradiokoa, Pedro de Alegria eta Ana Maria de Basterrecheari eman zitzaizen, «con todos sus robledales y castaños y demás adherentes al dicho sel con las obligaciones de que los referidos hayan de hacer casa en dho sel de Legarra dentro de cuatro años primeros venideros, que hayan de pagar de canon y tributo enfiteusis en cada año perpetuamente cuatro fanegas y media de trigo y que la primera paga sea en 8 de septiembre de 1745 y asimismo hayan de pagar todos los diezmos y primicias según fueren abriendo las tierras»<sup>95</sup>. Antzeko baldintzetan luberritu ziren Galinduaga (1741), Eztenabieta (1743), Zuberuete (1743), Amollobieta (1744), Kortaguren (1748) eta Oquizmenos-ko (1777) saroeak<sup>96</sup>. 1851ra arte ez zen saroe gehiagorik luberritu, eta urte horretakoak ere kontratu enfiteutikoen bidez egingo ziren, kasu honetan dirutan ordainduz. Urte horretan antzeko baldintzetan esleitu ziren beste hiru saroe ere eta beste bat 1854an<sup>97</sup>, baina orduan dirutan ordainduko ziren. Halako klausulen bidez nekazariak lurra erosi beharrik ez zutela egia bada ere eta ia lurraren jabe bihurtzen ziren arren, aberastasun apur bat zuten nekazariak soilik egin zitzaizketen etxeak eta haiek soilik landu zezaketen lurra. Herri-lurretan

---

<sup>94</sup> Lamuzako San Pedro Parrokiako artxiboa, Laudioko bailara, «Traslado fehaciente». 27. or. atz., 28 eta 81. orr.

<sup>95</sup> Ziortzako Parrokiako artxiboa, Kartulario liburua, 191. or.

<sup>96</sup> *Ibidem*, 126, 62, 89, 137, 41 atz., 2 eta 134. orr.

<sup>97</sup> *Ibidem*, 141, 47, 130 atz. eta 134. orr.

egin ziren luberriketa handiak nekazari indartsuek, landa-inguruneetako «burgesek» baino ez zitzaizkien egin eta, askotan, gero lur-zati gehiago ematen zuten errentan. Biasteriko Juan Antonio Martinez Azpeitiak, «bajo de aquella pension y canon enfiteutico q<sup>e</sup> sea arreglado y del agrado de V.M.», «propios» zeritzaten herri-lurretako ehun anegako eremu hura lantzeko baimena eskatu zuenean, honako eskaintza egin zuen: «la suma de doscientos ducados por servicio extraordinari<sup>o</sup> pecuniario»<sup>98</sup>. Biasteriko beste aberats batek, 50 anegatik 60ra bitarteko landu gabeko lugorrietan «mahastiak, oli-bondoak eta beste zuhaitz-mota batzuk» landatzeko baimena eskatu zuen, «pagando de contado su valor regulado a juicio de Peritos»<sup>99</sup>. Ihitokien lehortzea askotan «enpresariak» egin zuten; hauek, zeregin haietan diru apur bat sartzen zuten eta Udalari oso kopuru txikia ordaintzen zioten; hortaz, «la restante cantidad que se mereciese [aipatutako saila] por arriendo había de quedar à beneficio de los empresarios para pago y reembolso de los crecidos costos que debían sufrir en el encierro y habilitacion del terreno»<sup>100</sup>.

## Errendimenduak

Produktibitatean ere nabarmentzen ziren desberdintasun klimatikoak. Oro har, artoaren eremuak gari-eremuetako errendimendua bikoiztu edota hirukoiztu egiten zuen. Honi buruzko datuak kalkuluak eginez atera dira eta exajeratu samarrak ere badira batzuetan, baina, dena den, guztiak bat datoz. 1766ko *Ensayo*-ren egile ilustratuek, bertako orrialdeetan, gariaren kasuan hiru datu eskaintzen dituzte: 1/24, 1/13 edo 14 eta 1/16 eta, dudarik gabe, lehenengoa ez da oso zuzena, gehiegizkoa baita. Bigarren zenbaketan karez ongarriztatutako lur buztintsuak zehazten dira eta hirugarrenari buruz «Gipuzkoako erdi-mailako baserri batean oinarrituta»<sup>101</sup> dagoela esaten da. 1771n Mutriken erdi-mailako lurretan errendimenduak 1/10 eta 1/12 bitartekoa izango zirela balioesten da<sup>102</sup>, eta Lazkaon mende bukaeran, 1/14, eta 1808an, Beasainen, Errezilen eta Lazkaon haziak uzta gordinaren ehuneko hamar bilduko zuela kalkulatu da<sup>103</sup>. Ziurrenik, hazi-unitateko 10 eta 14-16 bitartekoa izango zen. Aldiz, bigarren eskualdean errendimenduak askoz ere txikiagoak ziren. Tostako 1787tik 1797rako batez bestekoa (1796ko urtea falta da) 1/4,70 edota 1/5,20koa da, 1788ko uzta txar hura aparte utziz, Kontzejuaren soro batean eta lurra guztien artean landuz gainera. Sekain-lurrei zegokienez, 1810ean Cadizko Gortean eginiko kalkuluen arabera, 1/6koa zen eta Gonzalo Anes-ek Aranjuezen

<sup>98</sup> AHN, Consejos, 1.924. leg., 11. zkia.

<sup>99</sup> *Ibidem*, 1.703. leg., 21. zkia.

<sup>100</sup> TPA, lehenengo sek., 17. neg., 130. leg.

<sup>101</sup> *Ensayo...*, 39, 76-92 eta 164-166. orr.

<sup>102</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, 9-22-4-4.197.

<sup>103</sup> BN, 7.311 eskbu. eta TPA, bigarrek sek., 1. neg., 14. leg.

**Tostako errendimenduak haziko (Araba)**

|            | Uzta |   | Ereintza |        |
|------------|------|---|----------|--------|
| 1787 ..... | 486  | : | 102      | = 4,76 |
| 1788 ..... | 211  | : | 129      | = 1,64 |
| 1789 ..... | 268  | : | 46       | = 5,83 |
| 1790 ..... | 276  | : | 54       | = 5,11 |
| 1791 ..... | 681  | : | 143      | = 4,76 |
| 1792 ..... | 294  | : | 53       | = 5,55 |
| 1793 ..... | 654  | : | 132      | = 4,95 |
| 1794 ..... | 260  | : | 62       | = 4,19 |
| 1795 ..... | 520  | : | 100      | = 5,20 |
| 1796 ..... | —    |   | —        | —      |
| 1797 ..... | 648  | : | 93       | = 6,97 |
| 1798 ..... | 240  | : | 125      | = 1,92 |
| 1799 ..... | 180  | : | 54       | = 3,33 |
| 1800 ..... | 460  | : | 102      | = 4,51 |
| 1801 ..... | 453  | : | 82       | = 5,52 |
| 1803 ..... | 333  | : | 81       | = 4,11 |
| 1804 ..... | 470  | : | 120      | = 3,92 |
| 1805 ..... | —    |   | —        | —      |
| 1806 ..... | 270  | : | 60       | = 4,50 |
| 1807 ..... | 780  | : | 181      | = 4,31 |
| 1808 ..... | 331  | : | 77       | = 4,30 |
| 1809 ..... | 420  | : | 138      | = 3,04 |
| .....      | —    |   | —        | —      |
| 1812 ..... | 228  | : | 65       | = 3,51 |
| .....      | —    |   | —        | —      |
| 1818 ..... | 390  | : | 180      | = 2,17 |
| .....      | —    |   | —        | —      |
| 1823 ..... | 966  | : | 116      | = 8,33 |
| 1824 ..... | 516  | : | 104      | = 4,96 |
| 1825 ..... | 96   | : | 90       | = 1,07 |
| 1826 ..... | —    |   | —        | —      |
| 1827 ..... | 852  | : | 144      | = 5,92 |
| 1828 ..... | 575  | : | 155      | = 3,71 |
| 1829 ..... | 246  | : | 48       | = 5,13 |
| 1830 ..... | —    |   | —        | —      |
| 1831 ..... | 326  | : | 132      | = 2,47 |
| 1832 ..... | 359  | : | 48       | = 7,48 |
| 1833 ..... | 810  | : | 144      | = 5,63 |
| 1834 ..... | 635  | : | 102      | = 6,23 |
| 1835 ..... | 334  | : | 132      | = 2,53 |

1768tik 1795era bitarteko urteetarako 1/9,15eko batez bestekoa eman zuen, kontuan hartuta, gainera, haziak hautatu egiten zirela, lurra lantzeko teknikek bilakaera handia izan zutela eta lurrak ongarrizatu egiten zirela<sup>104</sup>. Tostako errendimenduek XIX. mendearen lehenengo herenean Frantzia izandakoen antz handiagoa dute: 1821etik 1825era, 1/5,62 eta 1821etik 1830era 1/5,61<sup>105</sup>, eta ez dirudi, beraz, oso baxuak zirenik. Artoari dagokionez, Mutrikuko ereindako anega bakoitzeko ageri diren «ciento o más» anegak edota Lazkaoko 200etik 300erakoak kanpoan uzten baditugu, ez baitziren ziurrenik ere hala izango, errendimendu normala haziko 24 alekoa izan zitekeela dirudi<sup>106</sup>, hau da, Frantziako XIX. mendeko lehen hereneko 29,4 eta 29,1era hurbilduko zen<sup>107</sup>. Dena den, Errezilen, 1808an 6.180 anegako uzta batean hazitarako 160 beharko zirela pentsatzen da, hau da, %2,59 eta, beraz, 1/38.

Mahastietako errendimenduak, hainbat eliza edota kaperautzari zegozkenez eta Biasteri, La Puebla de Labarka, Bilar eta Eltziegion zehar kokatutako lurretan, 1771-1775. urteetarako 53,7 pitxer (0,182 Hl.) ingurukoak izango ziren italdi bakoitzeko<sup>108</sup>.

Arto-aleak gari-alearekiko dituen errendimenduei dagokionez, handiagoak dira lehenengoarenak eta nagusitasun horri eutsi egingo zaio gainazalari dagokionez ere. Lehen aipatutako Mutrikuko 1771ko berrietan hala esaten zen: «Advirtiendo que en el terreno o heredad que se siembran seis fanegas de trigo apenas se sembrará una de maíz por lo raro que se hecha la semilla de esta especie»; eta Orioko 1802ko berrietan, berriz, hala ageri zen: «En cada 130 posturas se siembra una fanega de trigo y produce en las tierras mejores once fanegas, y la misma tierra en maíz quince». Eugenio de Garagarzak, nahiz eta gehienetan gariaren alde azaldu, XVIII. mendeko berriemaile anonimoen datuak egiaztatu zituen bere zifren bidez; 1859. urtearen inguruan ibar-lur onetan gariak hektareako berrogeita bi anegako errendimendua ematen zuen eta artoak, berriz, hirurogeikoa. Baina errealitate hau ezkutatu egiten da, Garagarzak eginikoaren ildotik, diru-balioetan emanez gero, garia artoa baino garestiagoa baita eta, askotan, garai hartan garrantzitsuena elikadurarako zuen balioa zela ahaztu egiten zaigu, are gehiago artoa autokontsumorako erabiltzen zela kontuan hartuta<sup>109</sup>. Gainera, artoak bazuen beste ezaugarri garrantzitsu bat ere: arto artean babarruna lantzen zen. Garagarza ez dator bat Orioko berriemailearekin errendimendu beherakorren gaian ere. Izan ere, harentzat artoaren produkzioarako

<sup>104</sup> Anes, G., *Las crisis agrarias...*, 192. or., 36. oharra eta 194, 195 eta 196. orr.

<sup>105</sup> *Histoire économique et sociale de la France*, II. libk., 443. or., E. Labrousse eta F. Braudel-ek zuzendua.

<sup>106</sup> *Ensayo...*, 164-166. orr. Errezileko kasuan, 1808an, hamarrenak, hasikinak eta haziak, gartan, uzta gordinaren %22,69 hartzen zuen eta, artotan, %15,08. TPA, bigarren sek., I. neg., 14. leg.

<sup>107</sup> *Histoire économique...*, 443. or.

<sup>108</sup> KKA, «Cuaderno del subsidio del arceprestazgo de Laguardia», 1771... (4)

<sup>109</sup> Garagarza, E. de, *op. cit.*, Bilbo, 1859, 4. or.

letik 2rako progresio beherakorra badago, gariaren kasuan ez dira letik 1 ½ra ere iritsiko<sup>110</sup> eta aldiz, honentzat, «una fanega de trigo... produce en las tierras mejores once fanegas, y la misma tierra en maíz quince. En las de primera calidad de la tercera suerte, ocho de trigo y doce de maíz, y en las inferiores, cuatro de trigo y nueve de maíz»; hau da, garia 100etik 36,3ra jaitsi zen eta artoa, aldiz, 100etik 60ra soilik.

|         | Garia | %    | Artoa | %   |
|---------|-------|------|-------|-----|
| a)..... | 11    | 100  | 15    | 100 |
| b)..... | 8     | 72,7 | 12    | 80  |
| c)..... | 4     | 36,3 | 9     | 60  |

a) Lurrik onenak

b) Hirugarren zorteko lehen mailako lurrak.

c) Behe-mailako lurrak.

## Ongarriak

Atsedetik ematen ez zaion eta errendimendu handia duen lurrak ongarri ugari behar izaten du. 1859an honakoa aitortzen zen: «este sistema esquilma muchísimo el terreno y exige una producción abundante de abono para subsistir como subsiste hace muchísimos años. Los materiales fecales del ganado constituyen una pequeña parte de las sustancias fertilizantes que se emplean, siendo los montes, con el desbroce, los tributarios de un sistema que concluiría muy luego con la facultad vegetativa de las tierras agrarias. No puede prescindirse totalmente de recurrir a los montes, aunque no fuera más que para sacar de ellos la hoja y el helecho indispensable para las camas»<sup>111</sup>. Beraz, ganadua/ongarriak erlazioa ez da erabatekoa.

Bi urte eta hiru uzta hartzen zituen labore-ziklo hartan, lurra, produktu berriren bat lantzen zen bakoitzean ongarrizatzen zen: garia ereiten zeneetik hiru hilabetera, abuztu erdialdera, arbia erein aurretik eta artoa erein ondoren<sup>112</sup>. Deskribapenik zorrotzena Mutrikuko hiribilduaren dokumentu batek, 1771ko «informe que se envió a instancias de D. Fco Nipho» dokumentuak, emango digu: «Los estiércoles se hacen con el alecho que se corta y recoge por Noviembre y Diciembre y argoma tierna que se siega con guadaña por el mes de Mayo y Junio y lo mas de todo ellos se introduce en los cortijos de ganado, y se benefician o curan cabando y rebolcando de quando en quando, y el resto se guarda en montones junto a las caserías para introducir en los cortijos poco a poco según se vayan humedeciendo

<sup>110</sup> *Ibidem*, 6. or.

<sup>111</sup> *Ibidem*, 8. or.

<sup>112</sup> *Ensayo...*, 76-92. orr.

por el ganado aquello que tienen debajo. Después se amontona el estiércol en el cortijo para que se sazone mejor y desde allí se lleva a la heredad.» Tomás López-en Tolosako berriemaileak ere antzeko zerbait azaldu zuen<sup>113</sup>. Orion, ote zuriari dagokionez zati bat sukalde eta labeetan eta gaintontzekoa ongarritarako erabiltzen zela aitortzen zen eta Tolosan, berriz, honakoa ageri zen: «vense cubiertos dichos montes de alecho, que recogen los labradores, y sirve para cama de ganado, siendo tambien el mejor material para hacer estiércol»<sup>114</sup>. Adibide ugari aurki daiteke honi buruz<sup>115</sup>.

Halako ongarriez gain, xvii. mendearen amaieraz geroztik karea erabiltzen hasi ziren. Euskalerrriaren Adiskideen *Ensayo* lanean esaten denez, ehunen bat urte lehenago, hau da, 1666az geroztik, hasi ziren nekazariak karea ongarritarako erabiltzen eta erabilera hori herrialde osoan zabaldua zegoen 1766rako<sup>116</sup>, Basaburuan (Nafarroa) xviii. mendearen azken urteetan sartu arren<sup>117</sup>. Baina, egia esan behar bada, mende bukaeran erabiltzen hasi zen elementu hau, hau da, karea edo marga, ez zen zehatz-mehatz ongari bat, lurra medeatzeko modu bat baizik. «Oso iragazkorak diren lurzoruetan buztina zabaltzea komeni da eta, aldiz, trinkoegiak diren lurzoruetan harea zabaltzea; dena den, zuzentzeko modurik egokiena kareztaketa egitea da, lurrari karea apur bat botaz, honekin, buztin koloidal gatzatu egiten denez, aurreko akatsak zuzentzen baitira eta, horrez gain, lurrari behar-beharrezkoa duen elikadura-printzipio bat, kaltzioa, ematen baitzaio. Buztin gehiegiko lurrak hobetzeko maiz egiten da hau, bai eta lur azidoegiak hobetzeko ere, pH-a igoarazten baitu, lur horiek alkalinizatuz eta, hala, lur horiek nitrifikatu eta nitratu kaltzikoa osatuz; gatz hori zuzenezuzenean sustraien zurgapenean aprobetxatzen da»<sup>118</sup>. Izaera zientifiko handiagoz ezagutzen ziren jada 1771rako bere bertute nagusiak: «Asi bien se abonan las tierras con cal viva por lo regular para sembrar el maiz, y se practica llevando de las caleras luego que se haya cocido y poniendo en montonzitos se esparcen estos por la heredad à tiempo que se han deshecho las Piedras à beneficio del rocío, o un poco de agua y antes de que aogue, o desvirgue y se mezcla luego con la tierra pasandole con la reja ó arado Bost-Ortza que profunda cosa de un pie; de suerte que llegando la cal a dicha sazón se executa esta mezcla por mas que este lloviendo porque de lo contrario sirve de muy poco o nada. Esta especie de abono aseguran los

<sup>113</sup> BN Eskbu. 7.311, 266. or. atz.; erantzuna 1799ko azaroaren 13an datatuta dago.

<sup>114</sup> *Diccionario R.A.H.*, II. libk., 378. or.

<sup>115</sup> Besteak beste, ikusi *Diccionario R.A.H.*-ko Vergara sarrera. II. libk., 440. or.; Karrantzua, GBEA, ETPSV, 1. zkia., 1810.

<sup>116</sup> *Ensayo...*, 37. or.

<sup>117</sup> *Diccionario R.A.H.*, I. libk., 153. or.

<sup>118</sup> Esteve Chueca, F., *Ciencias Naturales*, Alcoy, 1969, 292. or.; ikusi, halaber, D. Vicente Laffitte, «El problema de la ganadería en el País Vasco», in *II. Congreso de Estudios Vascos*, Donostia, 1920, 338. or.; bertan, azidotasunaren neutralizazioa eta hartzigarri nitrikoa martxan jartzea aztertzen dira batez ere.



labradores ser de gran utilidad ya por que deshace las tierras gredosas y arcilla, ya por que une las que son ligeras por floxas y arenosas, ya por que mantiene fresca la tierra en canicula que es cuando este Pays experimenta sequía por ser costaneras las mas de las heredades sin embargo de que llueve con alguna abundancia de 15 a 16 días o de mes à mes y se cree que de un siglo a esta parte inventaron los labradores este género de abono que va en aumento de año en año por las conocidas utilidades que experimenta pues se sabe con evidencia que de cien años a esta parte se coge duplicado grano en esta villa y su jurisdiccion en las mismas tierras que se labraban en dicho tiempo»<sup>119</sup>. Halako baieztapen harrigarrik egin ez arren, herriak berak 1802an honakoa aitortzen zuen: «la agricultura tiene adelantamientos á beneficio de la cal». Zentzu horretan, *Ensayo* liburuan lur buztintsuei buruz esaten zenez, «arcillosas estériles por si producen en el pais a beneficio de ella [karea] trece y catorce por uno; y las demás calidades logran tambien mejora, a excepción de las areniscas... pero siempre es dañoso el echarla sin tiento, porque en vez de fertilizar las tierras las abrasa y esteriliza». «En Guipúzcoa hay lugares, en que con este descubrimiento se ha multiplicado la cosecha de granos, y lo mismo se ha experimentado en los parages del Señorío de Vizcaya y Provincia de Alava donde se ha introducido». Garatutako praktiken arabera, buztin-lurretan, «ehun eta bost posturako ereindako anega bakoitzeko», karez betetako hamasei gurdikada bota behar dira, hau da, «hirurehun eta hogei kintaletik ehun libra gaztelauera». Karea egosteko ote zuria eta arbazta behar direnez, ilustratuek 1766an haren ordeza marga erabiltzea proposatu zuten, «hau ez baitzen kiskali behar»<sup>120</sup> eta gero eta landare-ongarri gehiago behar izaten zenez, halaxe gertatu zen gainera<sup>121</sup>. Dena den, 1840rako margaren erabilera hura bazterrera utzi zen<sup>122</sup>. Kareak bazuen beste funtzio bat ere, hots, «sufocar los gusanillos y simientes mal digeridas que suele haber en el estiercol y que perjudicarían al trigo» eta, horregatik, nekazariak garia ereiterakoan garia eramaten zuten saskian kare pixka bat nahastu zuten eta hala zabaltzen zituzten biak batera<sup>123</sup>. Ongarri eta medatze-modu hauetaz gain, beste hainbat ere erabili zen: ihia<sup>124</sup>, harea «para reducir a mortero y avono de las tierras sembradas»<sup>125</sup> eta, halaber, «hay algunos labradores, que para corregir lo flaco y débil de sus tierras estilan traerla de varios castañales y otros montes que tienen por de mejor calidad»<sup>126</sup>.

<sup>119</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, 9-22-4-4.197, Mutrikun.

<sup>120</sup> *Ensayo...*, 39 eta 40. orr.

<sup>121</sup> *Diccionario R.A.H.*, II. libk., 31. or., Arrasaten.

<sup>122</sup> Madoz, *Diccionario...*, XVI. libk., 379. or.

<sup>123</sup> *Ensayo...*, 81-82. orr.

<sup>124</sup> GBEA artxiboa, ETPSV, 2. zkia., 1810. urtea, Foruan.

<sup>125</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, XXXIII. alea, Irunen.

<sup>126</sup> *Ensayo...*, 32. or.

Aurrerapen hauek Bizkaira, Gipuzkoara eta Arabako iparraldera mugatuta geratu ziren. Hegoaldera egin ahala eta plubiositatea txikiagotzen zen heinean, landare-ongarriak lortzeko eta karea disolbatzeko aukera murriztu egiten zen erabat, azkenik desagertu arte. Arabako zatirik handiengan ongarriak batez ere animaliangandik lortzen ziren eta, zehazki, ardiak ziren ongarri gehien eskaintzen zietenak. Artoaren eremuan ganadua batez ere gurdi-abere gisa erabiltzen zen bitartean, hegoaldean honako abereak hazten ziren: «nekazaritzarako behar zena» eta «ongarritarako ahari-talde batzuk»<sup>127</sup>.

## Abeltzaintza

Abeltzaintzari buruzko estatistikak eta erroldak zerealei buruzkoak baino askoz ere gutxiago izan ziren eta askotan ezkutatu ere egin ziren. Bestalde, hamarrenak ordaintzen zituztenak oinarrian izanda, zaila da zenbat abelburu izango ziren kalkulatzea, jaiotzen zen abere bakoitzeko ordaintzen baitzuten eta, hazteko ala kontsumorako izango zen kontuan hartuta, kopuru bat edo beste ordaindu behar izaten baitzuten. 1812ko Gipuzkoako estatistika<sup>128</sup>, 1798ko abenduaren 16ko zirkularren erantzunak<sup>129</sup> eta 1857ko, 1864ko, 1865eko eta 1887ko erroldak<sup>130</sup> ez dira oso fidagarriak. Ganadu-feriak ugaritu egin ziren eta berorien bidez jakin genezake ganadua zer-nolako joera izan zuen. Bizkaian XVIII. mendean ziren hogeita bi feria haietatik, %43 mende horretako bigarren erdian fundatu ziren, gehienetan erregearen baimenarekin; beste zenbait bat-batean sortu zen, Morga edo Zallakoa kasu. Halaber, «harategi ugari» ireki zen «lehen halakorik ez zuten herrietan» eta horrek ere gorakada nabarmena adierazten du kostaldeko herrietan, gutxienez zerealek izan zutenaren parekoa. Oro har, nekazariak behi-idiak beren lurra lantzeko eta beta eta ikatza garraiatzeko erabiltzen zituzten eta, jada halako zereginetarako ahalmena galtzen

<sup>127</sup> *Diccionario R.A.H.*, II. libk., 287. or., Buradon Gatzagan.

<sup>128</sup> Múgica, S., *Geografía general del País Vasco-Navarro. Provincia de Guipúzcoa*. Barzelona, u.g., I. libk., 472 eta 475. orr.

<sup>129</sup> Oñatiren kasuan, AHN, Consejos, 2.733. leg. (I, a), 208. or. atz. eta Urnieta eta Debaren kasuetan, TPA, bigarren sek., 20. neg., 34. or.

<sup>130</sup> AAA, H-51. leg., 1887ko Gipuzkoari buruzko datuak zenbait desberdintasunekin argitaratu dira honako dokumentuan: *Crónica general del País Vasco-Navarro*, Madril, 1865, D. Cayetano Rosell-ek zuzendua, Bilbon birargitaratua, 1970, Gipuzkoaren deskribapeneko 11. or., eta Nicolás de Soraluce y Zubizarreta, *Historia General de Guipúzcoa*, Gasteiz, 1870, I. libk., 49. or.; lau probintzietako behi-aziendaren kopuruaren laburpena: Labayru, E., *op. cit.*, I. libk., 556. or. Dena den, arlo honetan honako oharra egin nahi dugu: Serapio Múgicak Gipuzkoako 1887ko erroldako behi-kopurua 1882. urteari esleitu zion eta 1887ko 97.908 ardi 1880ko azientzat hartu zituen. Berak argitaratutako 1908ko, 1909ko, 1910eko, 1911ko eta 1912ko datuak ere 1865. urteari hurbiltzen zaizkio, nahiz eta, oro har, nahiko behetik dauden, batez ere ardi-aziendari dagokionez.

zutenean, arto, arbi, belar eta lastoz gizendu eta «haragitarako» eta zezinatarako erabiltzen ziren<sup>131</sup>. Honekin batera, bazen haragitarako soilik hazten zen abere-hazkuntza ere, eta negozio hau abeltzaintzako partzuergoarekin, hots, gaztelaniaz «admeteria» deitzen zen harekin, oso lotuta zegoen; nekazariak, kontratu gogor honen bidez, aberats baten eskutik hainbat abelburu eskuratzen zituen eta emateko momentuan tasatu egiten ziren. Nekazariak, hasieran, bere lana baino ez zuen jarri behar eta denboralditxo batera abereak berriro tasatzen ziren; balio berri horretatik «finantzariari» aurreratutako dirua itzultzen zitzaion ganadutan, eta geratzen zena zati berdinetan banatzen zen bien artean. Martin de Basarte bilbotarrak, irabaziak eta galerak erdibana egitekotan, Erandioko auzotar bati zazpi behi eta hiru zekor eman zizkion, horietako baten erdia nekazariaren jabe-gokoa eta, zekor bat izan ezik gainontzeko guztiak 1.360 errealetan tasatu ziren. Kontratua hiru urterako egin zen eta «q<sup>e</sup> cumplidos los recordados tres años de esta admeteria o antes y quando fuere mi voluntad [jabearena] siendo necesario vender o usar de todas, o cada una de dhas cabezas o las de su producto y rendimiento haia de ser con mi intervenc<sup>on</sup> y conformidad de ambos, para que de esta suerte se puedan tasar por personas practicas, e inteligentes, y de su importe, segun ba relacionado se hara reparticion por mitad e iguales partes la ganancia q<sup>e</sup> hubiere en las citadas Bacas o Novillos, y si menos valieren, tambien ha de ser la perdida que hubiere, del cargo de ambos»<sup>132</sup>. Partzuergo-kontratu eta admeteria-kontratu baten arteko desberdintasunak har ditzagun kontuan orain. Lehenengoaren kasuan, irabaziak eta galerak erdibana egiten ziren, baina bigarren kasuan, epizootia edo istripuren bat izaten bazen, nekazariak jabeari ganaduaren balioaren erdia ordaindu behar zion; hau da, batek dirua aurreratzen zuen eta irabazien edo galeren erdia bere kontu hartzen zuen eta, besteak, ez zuen dirurik aurreratzen, baina lan guztia egiten zuen, ganaduaren elikaduraz arduratzen zen... eta galeren edota irabazien erdia beregain hartzen zuen kasuan kasu. Ikus dezagun kasu zehatz bat: Antonio de Amezagak, Begoñako auzotarrak, 1772ko uztaillean, elizate bereko auzotar batengandik, hots, Maria Aranarengandik, admeterian bi behi hartu zituen, 212 errealeko balioa zutenak. Gaixotasun batek jota bi behi horiek akabatu egin zitzaizkion «y por lo mismo tocaba y correspondia satisfacerla a dha María su mitad que es la de ciento y seis rs.». Eta, horrez gain, Antonio de Amezagak emakume horri dirutan eginiko mailegu baten ehun eta berrogeita hamar erreal zor zizkion. Bi zor horiek 1774ko ekainaren 13an

<sup>131</sup> Iturriza, J. R., *op. cit.*, I. libk., 28. or. eta GBEA, Testimonios, I. erreg. Xemeinen honakoa esaten da: «De ganado lanar y bacuno apenas se cria el preciso para abonos de tierras con su estiercol, y para ararlas: y después de envejecido y cansado dho ganado suele cebarse, y servir de carne para abasto de los vecinos y moradores de la referida Anteiglesia, y el cuero para calzado de Abarcas de los mismos.»

<sup>132</sup> BPAH, 2.947. leg., 1768. urtea.

ordaindu beharko zituen. Zorren onarpena 1773ko otsailaren 14an datatuta dago. Garai horretarako Maria de Arana delakoak admeterian eman zizkien zazpi baserritarri hogeita lau behi eta zekor bat, guztira 4.270 erreal dirutan; aipatutako 150 erreal horiez gain beste 390 hartzeko zegoen, diru-kopuru hori Basauriko beste nekazari bati aurreratu baitzion «por hacerle bien y merced», bai eta anega arto batengatik 27 erreal ere<sup>133</sup>. Sistema honen hedadura hein handian Bilboko haragi-eskaeraren arabera zen, negozio hau kapital txikiak mugiarazteko modukoa baitzen. Baina, noski, negozio hau ez zen hiribildu handien inguruan soilik ematen. Ziortzako abadiako errentariak irabaziak erdibana eginez ganaduaz arduratzeko obligazioa zuten: 1751n, «el inquilino Pedro recibió una yugada y trece cabezas más de vacas, becerras y novillos, que importaron 179 ducs. y 6 rs.»<sup>134</sup>. 1814an, Zalduondon (Araba), «las parejas de Bueyes, que puede tener dn Nicolas de Moreno tanto en esta villa como en los Pueblos comarcanos, es muy difícil de asegurar, porque en unas partes tiene la yunta propia suya y en otras solamente tiene dado al rentero cierta cantidad de dinero, afianzandose con la yugada de dho rentero; no obstante haciendo un calculo aproximativo junta el dho Moreno actualmente por este ramo de industria, como trescientas fan<sup>s</sup> de trigo». Honen garrantzia hobeto sumatuko da garai hartan Zalduondok 359 biztanle, hau da, hirurogeita hamarren bat familia zituela eta lurrek 712 anega gari emango zutela kontuan hartuta<sup>135</sup>. Elizak laster baino lehen lukurreriatzat hartu zuen negozio hau<sup>136</sup>.

Abelburu gehienak ez zeuden ukuiluratuta. Idi-parea izan ezik gainontzeko abelburuak maiatzetik azarora mendian ibiltzen ziren «eta urteko gainontzeko hilabeteetan ailorbearekin eta arbiarekin» elikatzen ziren baserrian<sup>137</sup>, gutxi gorabehera bost hilabetetan. Horixe zen mendi-inguruetako sistemarik ohikoena. Oñatin, idi, behi eta zaldi-abereak hazteko larre, arbi eta gainontzeko landareak erabiltzen ziren: «grandes pastos de que abunda el terreno, y del uso del nabo y demás vegetales referidos, que emplean durante toda la estación de invierno y parte de la primavera en el alimento de las vacas y bueyes»<sup>138</sup>. Beraz, mendiko ganadua zen nagusi eta neguko hotzak iristen zirenean etxera biltzen ziren. Izan ere, urte osoan animalia hauek ukuiluratuta edukitzeak eta, hala, ongarria gehitzeak, hirusta eta

<sup>133</sup> BPAH, 2.948 leg., 1773ko otsailak 14.

<sup>134</sup> Ziortzako Parrokiako artxiboa, Ziortzako kapitulu-mahaiko administrazioaren liburua, 1751n hasia, 240. or.

<sup>135</sup> AAA, 1813ko errolda, 35-38. leg., Zalduondoko erantzuna.

<sup>136</sup> Gasteizko Apezpiku-barrutiko artxiboa. Betolatzako Fabrika-liburua, 1670-1758. 1736ko bisita, 230. or.: «y porq. esta su merced ynformado de que muchas personas dan ganado a medias asegurando el principal sin atender a lo ilícito de semejante trato que es puramente usuario y conocida ofensa a Dios nro Señor proibe su mrd. se executen en adelante...».

<sup>137</sup> López, T., BN, 7.311 eskbu. Zerainek emandako erantzuna XVIII. mende amaieran.

<sup>138</sup> *Diccionario R.A.H.*, II. libk., 195. or.

alpalpazko larre artifizialak mantendu beharra zekarren<sup>139</sup>. Dirudienez, XIX. mendearen erdialdera Bizkaiko iparrekialdean soilik zen posibleazienda ukuiluratzea; ingurune honetan zehazki, zenbait alor hirusta-larre iraunkorak izateko erabiltzen zen, baina, oro har, ganadua oraindik ere herri-larreetan ibiltzen zen urtearen zatirik handienean<sup>140</sup>.

Gatazkek eta gerrek ekarri zituzten sarraskiak izan arren, XVIII. mendean eta XIX.aren hasieranazienda larriak gora egin bazuen ere, ez dugu pentsatu behar baserrietan aberastasun handiegirik zenik. 1747an, Eibarren, «baserritarrek oro har idi pareazaten dute euren lurra lantzeko, bai eta elkarriskaintzen dizkioten gurditxoak ere; normalean ez dute asko gehiagorik izaten eta behi, zekor eta txahalak ere izaten dituzte, eta nekazarien beraien etxeetan eta batez ere errentan dituzten baserrietan izaten dutenazienda urria besterena izaten da, irabaziaz erdibana egitekotan edota, beren kalitatearen arabera, beste zenbait konbenioren bidez hazten baitituzte»<sup>141</sup>. Oñatin, 1775eanazienda larriaren barnean guztira 3.272 abelburu zeuden idi, zekor, behi, bigantxa eta txahalen artean. 1768an gutxi gorabehera 970 auzotar zituen (4.180 biztanle: 4,34 = 970), hau da, 3,37 ustiapen bakoitzeko; honek abeltzaintzak indar handi samarra zuen ingurune hartan, nekazariak lurra lantzeko eta nekazaritzako lanetarako idi edo behi pareaz eta beste abelbururen bat izan ohi zuela adierazten du horrek. Orozkok, Bizkaiko hegoaldean, batez besteko handiagoa zuen 1792an: auzotar bakoitzeko 5,54 abelburu. Kopuru hau oso altua da, kontuan hartua «ohikoa zenerako» nahikoa ez zirela esaten zela<sup>142</sup>. Loiu 1787an auzotar aberats samar batek idi pareaz eta bi behi ernari zituen<sup>143</sup>. Lizartzan, 1803an, 156 auzotar bizi ziren gutxi gorabehera, 680 pertsona bizi ziren berrogei baserrian eta 200 behi zeuden, onibar edo baserri bakoitzeko pare bat baino gutxiago<sup>144</sup>.

---

<sup>139</sup> Oñatikoaren antzeko erantzuna dugu Usurbilgoa ere: «los montes abundan... de yerbas para mantener el mucho ganado vacuno, lanar y caballar que se cria en ellos»: Urnietan, «Los pastos son buenos, y se cría ganado de pelo y lana... nabos de que se aprovechan para mantener el ganado vacuno»; Seguran, «en los extendidos montes de S. Adrian, Alzania, Olza y Urvia, en cuyos pastos se alimenta el ganado vacuno, tan abundante en Segura, como escaso el lanar y caballar»; Zumaian, «hay algun ganado vacuno, lanar y caballar que se alimenta en los pastos de la única montaña del término llamado Indo»; Zumarragan, «ganados que se mantienen en los montes»; Zaldibian, «se cultiva con esmero la cosecha de navos para cebar el ganado, de que depende su principal subsistencia á causa de los dilatados pastos que les proporcionan su monte propio de Albizeta, el de Insausti y Aralar», Errezilen, «su principal monte es el Hernio, a cuyos pastos acuden muchos ganados»; eta Olaberrian, «se ceba bastante ganado vacuno y de cerca con nabos». *Diccionario R.A.H.*, II. libk., 362, 422, 414, 536, 534, 522, 269, 175. orr.

<sup>140</sup> *Ibidem*, I. libk., 380. or., Enkarterrietan, adibidez.

<sup>141</sup> Múgica, G. de, *Monografía histórica de la villa de Eibar*. Irun, 1910, 214. or.

<sup>142</sup> 1789an, 2.605 biztanle: 4,34 = 600 auzotar. Abelburu-kopurua ateratzeko honako dokumentuan oinarritu da: GBEA, Testimonios, I. erreg.

<sup>143</sup> BPAH, 2.961. leg., 1787ko martxoak 17.

<sup>144</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, XXXIII. libk., Lizartza.

Otxandioko hamarrenek adierazten dutenez,azienda xehea —ardiak eta ahuntzak— murriztu egin zen XVIII. mendearen azken laurdenean, baina XIX. mendearen lehenengo herenean, gatazka eta gerra ugari izan bazen ere, indartu egin zen dezente. Aldiz, urdabereak atzera egin zuen ikaragarri, azkenean elizaren kontabilitateetik desagertu zen arte, basoak bota eta luberritu egin baitziren askotan eta, ondorioz, basoetan hazi eta gizendu beharreko animalia hura murriztu egin baitzen.

### Otxandio

|                 | <i>Arkumeak +<br/>+ antxumeak<br/>(unitateak)</i> |        | <i>Urdabereak<br/>(unitateak)</i> |       | <i>Ganaduaren<br/>dirua<br/>errealetan</i> |       |
|-----------------|---|--------|-----------------------------------|-------|--|-------|
| 1730-1739 ..... | 230   | 100    | 97                                | 100   | 598  | 100   |
| 1740-1749 ..... | 204   | 88,69  | 61                                | 62,88 | 467  | 78,09 |
| 1750-1759 ..... | 239   | 103,91 | 81                                | 83,50 | 450  | 75,25 |
| 1760-1769 ..... | 267½  | 116,30 | 49                                | 50,51 | 402  | 67,22 |
| 1770-1779 ..... | 216½  | 94,13  | 15                                | 15,46 | 274  | 45,81 |
| 1780-1789 ..... | 118½  | 51,52  | 23                                | 23,71 | 270  | 45,15 |
| 1790-1799 ..... | 105½  | 45,86  | 7½                                | 7,73  | 244  | 40,80 |
| 1800-1809 ..... | 120   | 52,17  | 0                                 | —     | 217  | 36,28 |
| 1810-1819 ..... | 208   | 90,43  | —                                 | —     | —  | —     |
| 1820-1829 ..... | 295   | 128,26 | —                                 | —     | —  | —     |
| 1830-1837 ..... | 175   | 76,08  | —                                 | —     | —  | —     |

Garai honetan izan zen zenbait geldialdi ere. 1774an herrialdean epidemia larri bat hedatu zen eta epidemia honek zenbait kasutan mendietatik ganadua desagertarazi zuen<sup>145</sup>. Honen eta 1816koaren artean, hau da, 1774koaren eta Nafarroako behi-azienda sumatu zen eta Araba eta Gipuzkoan zehar hedatu zen 1816ko epizootiaren artean<sup>146</sup>, kokatzen da Independentziako Gerra. Biztanleriaren kasuan gertatu zenaren ildotik, gerraren eragina ez zen berdina izango toki guztietan: hainbat gauzaren garraioan idi eta behi-azienda asko ahuldu zen, are gehiago haragiari zegokiona, hau da, batez ere premia logistikoeak bultzatuta tropen gutiziatik babesten zuten hura. Frantziako tropek atzera egin zutenean erabili zuten bidearen bi aldeetara kokatutako Arabako herri gehienak kexu ageri ziren beren ganaduari egiten zizkieten sarraskiengatik. 1813an Arrastariako ermandadean kexu ageri ziren, izan ere «con la guerra muchos de sus vecinos se han quedado sin yugadas y tienen muchas tierras baldías; de q<sup>e</sup> en la actualidad

<sup>145</sup> KKA, 1771... (2), Oiartzunen erantzuna.

<sup>146</sup> TPA, bigarren sek., 20. neg., 43. leg.; 1818an eritasuna Aizkorriko mendietan aurkitu zen; 44. leg.

no hay el decimo de bacas, caballerías, cabras y ovejas por haverse gastado en raciones y robos de Franceses y Españoles». Lizarragan zazpi txerrikume baino ez zeudela deklaratu zuten, «pues lo demás lo ha comido la tropa», eta geratu zena frantziarrek eraman zuten apirilean; Barboan, azienda xeheari zegokionez, hogeita hamabi ahuntz eta sei txerrikume geratzen zitzaizkiela adierazi zuten, «pues los viejos se los comio la tropa francesa y demás ganado comestible a no ser la cabras dichas que fue lo que se salvo de mas de trescientas q. había»; Artatzan ez zen ardi edo ahuntz-aziendarik geratu, tropek beren errekesekin guztiak xahutzen baitzituzten eta gainontzekoa frantziarrek mendira eraman baitzuten; Langarrikan esaten zenez ere, «ha minorado mucho el ganado»; Gazeon «el ganado a minorado porque el enemigo en su retirada o fuga ygnominiosa se llevó muchas cabezas»<sup>147</sup>. Hauexek dira aipa daitezkeen adibide batzuk, baina badira askoz gehiago ere. Egia esan behar bada, badirudi sarraskiak bat-batekoak izan zirela eta zuzperraldia berehalakoa izan zela. Hipotesi honen oinarria azienda xehearen bi adierazpen izango dira, hots: «Diezmo y Primicia de frutos menores que en cada año corresponden al cav<sup>do</sup> Eclesiástico de este valle de Lodio en mitad q<sup>e</sup> percive de tales menucias, pues la otra mitad goza, como patrono el Exmo Señor Conde de Ayala» eta Biasteriko tazmia. Lehenengoan zazpi sail ageri dira, baina oraingoz hiru baino ez ditugu kontuan hartuko: arkumeak, antxumeak (biak espezieta) eta dirua, izan ere, halako ezer aipatu ez arren, jasotako diru-balioen zati baten jatorria, dirutan ordaindutako ganadua izan baitaiteke.

**Laudio, Lamuzako San Pedro: arkume eta antxumeen hamarrenak**

| Bosturtekoak          | Arkumeak        | Antxumeak       | Errealak              |
|-----------------------|-----------------|-----------------|-----------------------|
| 1800-1804 . . . . .   | 43              | 38              | 1.134                 |
| 1805-1809 . . . . .   | 18              | 21              | 873                   |
| 1810-1814 . . . . .   | 13              | 21              | 923                   |
| 1815-1819 . . . . .   | 48              | 38              | 1.302                 |
| 1820-1824 . . . . .   | 48 <sup>1</sup> | 33 <sup>1</sup> | 1.044-12 <sup>1</sup> |
| 1825-1829 . . . . .   | 32              | 21              | 1.082-25              |
| 1830-1834 . . . . .   | 21              | 33              | 961                   |
| 1835-1839 . . . . .   | 7               | 10              | 660                   |
| (1840-1844) . . . . . | (17)            | (20)            | (640)                 |

*Oharra:*

<sup>1</sup> 1820, 1823 eta 1824ko datuak baino ez dira ematen: 29 arkume eta 20 antxume; falta diren urteetako hamarrena beste hiruren antzekoa izango zela pentsatu dut eta hala ateratu ditut ondorioak, hiruko erregelaren bidez:  $3 \text{ — } 29$   
 $5 \text{ — } x = 48$ , etab.  
 1840-1844. urteetarako ikusi testua.

<sup>147</sup> AAA, 1813ko errolda, H. 35-38. orr.

Lehenengotik harrituko gaituena hauxe da: gerra aurretik azienda murrizten hasia zen. Murrizte hori ezin zaie 1808 eta 1809. urteei soilik esleitu, bosturteko horretan 4 + 2 + 5 + 4 + 3 ardi eta 6 + 4 + 6 + 3 + 2 antxume izan baitzen hurrenez hurren dagozkien urteetan. 1800-1804. urteetako maila laster lortuko da 1815etik aurrera eta maila horri eutsi egingo zaio 1825era arte. Beherapen berri bat izan zen Karlistadaren aurreko ia hamar urteetan eta horrek Independentziako Gerrak eragindakoa baino hondamendi handiagoa ekarriko zien, baina, hala ere, hurrengo bi urteetan zuzpertsu egingo zen apur bat: zazpi arkume eta zortzi antxume, eta bosturterako, beraz, hamazazpi eta hogeiz izango lirarteke hurrenez hurren. Diruaren bilakaerak horixe adierazten du.

Laudioko adibidetxo honek, hots, Burgos-Pancorbo-Orduña-Bilbo bi-deak zeharkatutako bailara honen adibideak, XIX. mendearen lehen erdian ganadua egonkortu egingo zela pentsarazten digu, gerra zibilaren ondorengo bake-urteetan ganadua gutxienez berriro ere mende hasierako kopurura iritsiko zela suposatuz gero behintzat. Mende horretako lehenengo berrogei urteetan izan ziren gatazka eta gerrak kontuan hartuta, ez da gutxi, ez horixe.

Biasteriko «Fruitu eta marabedien kontu liburuek», XVIII. mendean hamarrena ordaindu zuten arkumeei dagokionez, bi kopuru isolatu baino ez dituzte ageri: 49 1728an eta 80 1750eko hamarkadako urteren batean. Aldiz, 1810etik 1830era bitartean bada etenik gabeko sail bat.

#### Biasteri, arkumeen hamarrenak (unitateak)

|            | (a) |           | (a)             |
|------------|-----|-----------|-----------------|
| 1810 ..... | 101 | 1821..... | 109             |
| 1811 ..... | 122 | 1822..... | 80 <sup>1</sup> |
| 1812 ..... | 76  | 1823..... | 109             |
| 1813 ..... | 99  | 1824..... | 117             |
| 1814 ..... | 69  | 1825..... | 99              |
| 1815 ..... | 90  | 1826..... | 122             |
| 1816 ..... | 110 | 1827..... | 53              |
| 1817 ..... | 109 | 1828..... | 99              |
| 1818 ..... | 147 | 1829..... | 99              |
| 1819 ..... | 151 | 1830..... | 53              |
| 1820 ..... | 109 |           |                 |

*Oharra:*

(a) Arkumeak; garai guztietako hamarrenak: Biasteri + Paganos + La Puebla.

<sup>1</sup> Hamarren erdiko bakoitzeko 40 hartu zen oinarritzat.

Soilik XVIII. mendeko bi urtetan oinarrituz ezin genezake mende horretan ganaduak gora egingo zuela esan, baina kasualitatea da bi urte horietan



ko zifrak XIX. mendekoen azpitik izatea. Mahastizainek irabazitako epaiek eta nekazaritzaren hedapenak ez al zuten jurisdikzio hartako aziendaren gorakada paraleloa galarazi?

1810ean hasi eta hogeita bat urte horietako datuek Laudion sumatu duguna egiaztatzen dute: Independentziako Gerraren ondoriozko beherapena; zuzperraldia 1818-1819. urteetan; beherakada txiki bat 1826ra arte eta beherakada larriagoa hurrengo urtetik aurrera.

## Basoa

Ustiapen arrazionalari lotuta, basoak hiru funtzio zituen: eraikinetarako eta itsasontziak egiteko zuhaitz trinkoak eskaintzea; egurra ematea, ikatz bihurturik burdinola eta sutegietan erabiliko zena eta, azkenik, hainbat gauza edo osagarri eskaintzea, hala nola, gaztainak, giza elikadurarako erabiltzen baitziren (batzuetan Hamburgora esportatzen ziren), urdabereentzako ezkurra, nekazarien etxeetarako egurra eta abereen elikadurarako hosto berdea eta erdi usteldua ongarritarako.

Basoaren ustiapen metodikoa industria siderurgikoari eta ontzien eraikuntzari estuki lotzen zitzairen eta probintzia bakoitzeko Foruek eta Batzarrek bazituzten gai honetan zuhaitzietei eusteko atal eta ordenantza bereziak. Gipuzkoako Batzar Nagusiak Deban bildu ziren 1738an eta Kontzejuei «mintegiak ezartzeko hauek zuten obligazioa» eta «beren errenten hamarren bat zuhaitzak landatzeko erabiltzeko Foruak ezarritako obligazioa» gogorazi zien; hala, su bakoitzeko hamar zuhaitz landatu behar zituzten eta zeregin horretarako eman behar zuten «ontzi-lantegiatarako saltzen ziren zuhaitzen balioaren hamarrena»<sup>148</sup>. Zentzu hori jaso zuten Arabako Batzar Nagusiek ere 1749ko apirilaren 19an, eta gainera zurratzaileei «tan» edo artearen azala lortzeko berauek zuritzea debekatu egin zitzairen<sup>149</sup>. Halaber, zuhaitzien fenomeno hau zenbait urtetan erabilitako mendi-zatian, hau da, kontzejuaren lurretan, ezkurra edo beste haziren bat landatzeko luberritzaileek zuten obligazioak eta usufuktuan eta zuhaitz-landaketak zirauen bitartean auzotarrei uzten zitzaizkien kontzejuaren lurrek indartzen zuten<sup>150</sup>.

Basoak zaintzeko ardura hura, noski, legeek baino areago, prezioetan sumatzen zen egur eta ikatzaren eskaerak indartu zuen. Siderurgiaren gorakada, etxe berrien eraikuntza eta ontziteriaren fabrikazioa izan ziren arrazoi nagusiak. 1734an Araban errege-ontziak egiteko materia-

---

<sup>148</sup> Echegaray, C., *Compendio...*, Donostia, 1924, 256 eta 257. orr.

<sup>149</sup> *Cuaderno de leyes y ordenanzas con que se gobierna esta muy noble y muy leal provincia de Alava...* Gasteiz, 1761, 258. or.

<sup>150</sup> Echegaray, C., *op. cit.*, 256. or.

lak zituzten hemeretzi mendi aipatzen ziren.<sup>151</sup> Dena den, 1760. urte aldera eskaeraren eta eskaintzaren artean oreka galdu egin zen eta horrek herrien arteko gatazkak eta arrazoi handirik gabeko mozketak ekarri zituen<sup>152</sup>.

Dena dela ere, ez dugu uste XIX. mendera arte deforestazioaz hitz egin genezakeenik. 1801ean Gipuzkoako Leaburuko herrian aipatzen zenez, «hubo antes mucho bosque pero el fracaso de la guerra última, lo que se carbonea y no se repone los van desolando y tb. porque los hoy desnutridos terrenos arrebatan las lluvias tan impetuosas como continuas aqui toda la tierra vegetal y a mayor y principalmente porque rozado tanto terreno y reducido a tierras de pan llevar por la falta de abono para ella casi barren los bosques y despojandoles anualmente de la oja que dexa el arbol mientras menos abonado queda en pie menor cofia y frondosidad ostenta su cabeza»<sup>153</sup>. Gerra, birlandaketarik ez egitea eta ongarrrien eskasia lirateke, beraz, zuhaitzien atzerakadaren arrazoi nagusiak. Gainera, lehenengo biak arrazoi berari dagozkio: nekazariak zor ugari egin zuten, are gehiago gerragaraian eta, hala, zergak ordaintzeko, egurra saldu eta mendietako basoak moztu zituzten; horrez gain, kontuan hartu behar ditugu gerrak zuzenean egindako hondapenak ere. Mutrikuri buruz 1802an honakoa idatzi zen: «ha tenido en otro tiempo mejores bosques y su alguna decadencia ha consistido en el aumento de la Población y mayor consumo de leñas, y materiales, y en las talas de exercitos en tpo de la última guerra con Francia»<sup>154</sup>; Ubarrundiako ermandade arabarreko bost herriek, 1813ko erroldari emandako erantzunetan, garbi adierazi zuten frantziarrek forteak egiteko basoak suntsitu zituztenez, beren mendietatik etxerako egurra bakarrik biltzen zutela<sup>155</sup>.

XIX. mende erdialdeko idazleek gatazka eta gerrei eta desamortizazioei egozten diete errua. Serapio Mugica-k, aurreko mendeko gerrak eta XIX. mende hasierakoak aipatu ondoren, arrazoi nagusiei buruz hala dio: «Arrazoi nagusiak, zalantzarik gabe, desamortizazio-legeak eta udalek Independentziako Gerrako gastuei aurre egiteko egiaztatu behar izan zituzten onibarren salmentak izan ziren»<sup>156</sup>. *Crónica general del País Vasco-Navarro de 1865* liburuan Gipuzkoaren deskribapena egin zuenak, basoen egoera txarra honen ondorio zela adierazi zuen: «la venta de gran parte de los montazgos, durante la guerra de la Independencia, como pertenecientes a los bienes de propios, y asimismo los restantes, desde 1820 al 23, teniendo presentes los

---

<sup>151</sup> AAA, Arabako Dekretuen 31. liburua, 1731tik 1736ra bitartekoa, 58 eta 59. orr.

<sup>152</sup> Mugica, G. de, *Monografía histórica de Eibar*. Irun, 1910, 9. or., López, T., BN, 7.311. esku., Laudion.

<sup>153</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, XXXIII. libk.

<sup>154</sup> *Ibidem*, 9-22-4-4.197.

<sup>155</sup> AAA, H., 35etik 38ra.

<sup>156</sup> Múgica, S., *op. cit.*, 481. or.

daños que debe de haber causado la guerra civil»<sup>157</sup>. Egoera hura guztia Madozen hiztegian deskribatzen da: «Vendidos gran parte de los montazgos, como pertenecientes a los bienes de propios durante la guerra de la Independencia, y posteriormente en los años 1820 al 23, temieron con sobrado motivo los compradores que se anulasen las ventas y se les arrebataran los bienes que habían adquirido bajo la garantía de la ley. Este temor dio margen a talas y cortas considerables y fuera de tiempo, cuya reparación será costosa en muchos años: añádese a esto los efectos desastrosos de la última guerra civil»<sup>158</sup>.

Hainbat inguruetan, eta batez ere Araban, baso-mozketak eta unez uneko luberritzeek higadura-prozesu gogorra sortarazi zuten. 1847an Gamarra Nagusia, Arriaga, Abetxuko eta Arangiz herri arabarretan adierazi zuten, Zadorra ibaiak uholde ugari sortarazten zuen eta hainbat hondamen ekarri zien: «Las aguas en las grandes llubias o desecho repentino de niebes, se precipitan desde las montañas con extraordinaria violencia, tanto, que siendo en lo antiguo necesarias veinte y cuatro horas para conocerse la avenida en esta parte del Zadorra, se forma y remonta en el día en doce o trece horas, consistiendo esto en los descarnados que han quedado los montes y en espedición que se ha facilitado al curso de las aguas con la nueva cultura a que han dado lugar las circunstancias de la guerra, agregándose a esto que la Madre del río va rellenándose cada vez mas perdiendo proporcionalmente de su capacidad, por lo que resbalan las aguas con mas prontitud y violencia»<sup>159</sup>. Arabako Errioxan, «donde destruido el arbolado que la poblada en el siglo pasado [XVIII] como á principios del actual [XIX], se hallan reducidos en gran parte á cultivo, aprovechándose la gran cantidad de mantillos si bien actualmente [1845 inguruan] estan abandonados á causa del daño que por razón de la mucha pendiente han hecho las aguas, arrastrando la tierra vegetal»<sup>160</sup>.

Deforestazio-prozesua XVIII. mendean azken urteetan hasi zen, baina batez ere hurrengo mendean zehar gauzatu zen. Industria siderurgiko tradizionala mantendu egin bazen ere, nekazariak basoei eustea eta hauek arrazionalki ustiatzea nahi zuten. Burdinolen beherakadak baso-mozketak indartu egin zituen, are gehiago lehen ikatza eta burdina fabrikatuz nahiz beta eta elaboratutako produktuak garraiatuz bizi zirenak lanposturik gabe geratu zirenean. Hauen irtenbide bakarra sail berriak luberritzea zen; desamortizazioek, basoak suntsitu arren, «nekazaritzako beste arlo batzuen sustapen ikaragarria eragin zuten herri-basoak partikularren esku geratu zirenean; hauek sail ugari luberritu zuten, bai eta baserri berriak egin ere

---

<sup>157</sup> Dena den, zuhaitziak indartu egin zirela ere esaten duenik bada. *Op. cit.*, C. Rosell-ek zuzendua. Madril, 1865, Bilbon berrargitaratua, 1970, 15. or.

<sup>158</sup> Madoz, *Diccionario*, IX. libk., 93. or.

<sup>159</sup> AAA, H. 92. leg.

<sup>160</sup> Madoz, *Diccionario...*, X. libk., 25. or.

eta, adibide gisa, Oiartzungo kasua aipa daiteke: bertan, 1809tik 1825era bitartean 50 baserri baino gehiago altxatu ziren»<sup>161</sup>.

Antzinako oreka, ez ager-saltus oreka hura, baizik eta landutako lur-raren eta basoberaren artekoa, ongarrien, industria siderurgikoaren eta basoen artekoa, hautsi egin zen, hein handian burdinolen gainbeheraren ondorioz. XIX. mendearen lehenengo erdian eta, are gehiago, lehenengo hiru laurdenetan, oreka bilatu nahi bortitza nagusitu zen ooren gainera.

---

<sup>161</sup> Múgica, S., *op. cit.*, I. libk., 481. or.



## IX

### Barne-merkatuaren eraketa eta lurrak emandako kapitalen metaketa

Barne-merkatuaren eraketa prozesu motela da, merkataritza-ekonomiaren funtsa den lanaren gizarte-zatiketan eta nekazari-jendea txirotzean oinarritzen dena. Lanaren gizarte-zatiketak «produktuen elkartrukea dakar bai nekazaritzaren eta industriaren artean —nekazaritza-soberakina industri soberakinaren truke— bai nekazaritzaren eta industriaren barnean»<sup>1</sup>. Olagizonek eta beren soldatapekoek kontsumo-produktuen truke saltzen zuten burdina edo beren lan-indarra; Lekeitio herri arrantzalearen udal-bihitegiak ale-merkatu iraunkor gisa jokatzeko zuten urte osoan eta horien truke arrain freskoa eta gazia bidaltzen zen barnealdera. Produktu bakarrean espezializatzeak, ardoan hain zuzen ere, derrigorrez hura saldu eta zituak erostea ekarri zuen: Bastida herriak bertan kontsumitzen zen gari gehiena inportatu egin behar zuten beste herri batzuetatik. Baina mahastizaintzan ziharduten eskualdeek merkatutik eta merkaturako bizitzeaz gain, nekazari asko proletario bihurtu zituzten; Biasteriko ermandadean, 1737an, 1.125 biztanletik 406 jernalaritzat jotzen ziren eta 154 txirotzat, hau da, %36,09 eta %13,69, hurrenez hurren; erdiek, beraz, ez zuten, bere besoak izan ezik, beste bizibiderik, eta dena erosi behar zuten, arropak eta elikagaiak barne. Egoera hauek, ia gehienak, XVIII. mendeko hasierarako agertuta zeuden; hala ere, mende horretan jauzi itzel eta berri bat gertatu zen, zeinetan batez ere alde ideologikoa nabarmendu baiten —Ilustrazio mugimendua—. Demografi hazkundeak eta nekazaritzan merkataritza-ekonomia sartzeak onibarrak zatitu zituen, eta nekazari batzuek luraren jabegoa galdu egin zuten. Ustiategi txikiagoak izatean, diru-sarrera gutxiago jasotzen zituzten nekazaritzatik, hau da, beste soldata osagarri bat lortzeko eta zenbait elikagai erosteko beharra zuten. Kolono izateak bi gauza zekartzan: lur-jabe ziren

---

<sup>1</sup> Palloix, C., *L'économie mondiale capitaliste*, Paris, 1971, I. libk., 190. or.

nekazarien kargak —zergak eta hamarrenak— ez ezik, errenta ere ordaindu beharra; tamaina bereko onibarra izanda, diru-sarrera txikiagoak zituzten eta uztaren zati bat saldu egin behar zuten errenta ordaintzeko. Alderdi guztietatik begiratuta, nekazarien produkzioa gero eta gehiago nabari zen merkatuan. Hego Errioxako ardoa kontsumitzearen arrazoa Iparraldean sagardoa produzitzeari uztea izan zen. Poliki-poliki autokontsumorako produkzioa atzerantz egiten hasi zen. Horregatik, 1765ean aleen merkataritza librea eman eta tasa kendu izana ez zen kasualitatez gertatu, ezta abagune onik zegoelako ere. Hamarrenei erreparatzen badiegu, 1754, 1755, 1756 eta 1757an uzta bikainak lortu ziren. Ez zen Euskal Herrian soilik gertatu; nahikoa da gaineratik begiratzea Gonzalo Anes-ek<sup>2</sup> argitaratutako prezioen grafikoak, esaterako, 40. zenbakia (Palentzia), 41.a (Gaztela Berria), 42.a (Sevilla, Segovia, Arévalo eta Fernán Núñez) eta 43.a (Cervera), edo hamarrenei dagozkienak, nazioan ere urte oparoak izan zirela ikusteko. Ez da harrizkoa, beraz, 1756ko abuztuaren 16an eta 23an eta 1757ko azaroaren 9an aleen merkataritza librea erresuma barruan baimentzea atzerrira esportatzeko ahalmenaz, baldin eta ez bazen prezio jakin batetik pasatzen. Zalantzarik gabe, zitu ugari egoteak eta, horren ondorioz, zenbait urtetan prezioak behera egiteak eragina izan zuen gobernariaren asmoetan. Horrez gain, beste aldaketa batzuek ere eragina izan zuten aleen merkataritza askatzeko. 1753an Reinosako errepeidea bukatu zuten; 1772an Urduña ireki zen. «Gero eta errepeide gehiago egiten hasi ziren... 1749tik aurrera» eta «1767. eta 1778. urteen artean areagotu egin zen errepeidegintza»<sup>3</sup>. Sasoi berean nabarmen jaso zituzten errentak, eta honakoa diote: «lehen ogiz ordaintzen zuten Leku eta Angio askotako errenta dirutara soilik mugatu da». 1770eko maiatzaren 26ko Errege Zedulak: «lur-jabeei eta edukitzaileei lurrak askatasun osoz errentan jartzen uzten zuten»<sup>4</sup> eta horrela legeztatu egin zuten lehendik egiten hasi zirena. Gizarteak sortutako soberakinaren zati handi bat, produzitzen zutenen —nekazari eta artisauen— eskuetatik merkataritza eta landatar burgesen eskuetara pasa zen errentaren, lukurreriaren, merkataritza-zirkuituaren kontrolaren eta kredituaren bidez, lehenengoek indarrez kontra egin bazieten ere. Produktuen merkaturatzearen ondoren lurarena gertatu zen mendearen bukaran. Desamortizazioak eta desbinkulazioak lurzorua merkataritza-zirkuituan sartu zen frogak baino ez dira.

Goian azaldutakoa ukatu ezin den gertaera izan bazen ere, egia da egitura zaharraren zati bat mantendu egin zela; zerga astunenak eta feudalismo garaiko ia bakarrak, hamarrenak, XIX. mendearen erdialdera arte iraun

<sup>2</sup> Anes, G., *Las crisis agrarias en la España moderna*, Gehigarriak.

<sup>3</sup> *Ibidem*, 314 eta 315. orr.

<sup>4</sup> *Ibidem*, 277tik 289ra arteko orr.: 1752ko errenta-igoerak eragina izan zuen Zamorako *Tierra del Vino y del Pan* delakoan eta Sayagon, eta espezetan ordaindu beharrean dirutan egiteak, berriz, Ciudad Rodrigoko intendentzian.

zuen; udal-bihitegi batzuek, gainbehera joan arren, iraun zuten, eta hala-holako txakolinaren kontsumoa babes indartsu bati esker mantendu zen.

## Feriak eta merkatuak

Tradizioz, kosta aldeko probintzia biek defizita zuten aleei zegokienez; XVIII. mendeko hedapenak ez zuen egoera hori aldatu: Gipuzkoako lur-sailek «ale mota guztiak» produzitzen zituzten «aunque no la abundancia conven<sup>te</sup> para mantener su multitud por la corta extensión que tienen»<sup>5</sup>; Bizkaian, «[a causa de] lo fragoso de sus Montes no se coge trigo de calidad, ni lo suficiente para dos meses del año»<sup>6</sup>. Beharrezkoa zen, hortaz, zituak inportatzea. Araban, berriz, «siendo sobrada y superabundante para la manutención de los habitantes, se exportaban innumerables fanegas especialmente a la M. N. y M. L. Provincia de Guypuzcoa»<sup>7</sup>.

Elikagaien eskaera handitu zenetik eta, horren ondorioz, beste produktu batzuk horien truke saltzeko beharrak ere gora egin zuenetik, merkatartza-eragiketak gehitu egin ziren; feria eta merkatu gehiago izateak islatzen du gertaera hau. Feriak urtean behin egiten ziren, zenbait egun irauten zuten eta, oro har, elikagaiez gain, arropak, nekazarien lanabesak... elkartrukatzen zituzten, hau da, produktu erdigalkorrak. Merkatua, berriz, hilero, astero edo egun batean bai eta bestean ez egiten zen. Ferietan, merkatari ibiltariet kanpotik ekartzen zituzten produktuak eskualdera eta diru-kopuru garrantzizkoa mugitzen zen; merkatuaren eremua, aldiz, txikiagoa zen, baina dentsitate demografiko handiagoa adierazten zuen baita elkartrukaketa gehiago eta nekazarien autokontsumoaren murrizketa sakonagoa ere. Horregatik, lehenengo feria egiteko eskubidea lortzen zen eta gero merkatua egitekoa, eta garraiobideak hobetuz joan ziren heinean, denda agertu zen merkatuaren ordeztu; Braudel-ek dioen bezala, denda ez da merkatu iraunkorra baino. Batzuek zein besteek kredituak zekartzaten, lukurrerua gehienetan, eta kapitalen metaketa errazten zuten.

Euskal Herrian izaten ziren feria asko Behe Erdi Arokoak ziren edo XVI. mendekoak. Gipuzkoan, 1757an, 10 ziren gutxienez, eta horietako zazpi garrantzizkoak: Beasain, Bergara, Azpeitia, Ordizia, Azkoitia, Urretxu, Arrasate, Segura, Elgoibar eta Oñati. Bizkaian azienda-feriak egiteko baimena zuten Ermuan (1752), Garapen (1780), Busturi-Axpen (1779), Sopelan (1780), Getxon (1780), Gabikan (1781), Fruizen (1781), Berrizen (1781) eta Zornotzan (1782) eta, noizbehinka, errege-baimenik gabe, Zallan eta Morgan, azken hau 1780 inguru hasi zelarik<sup>8</sup>.

<sup>5</sup> López, T., BN, 7311. esku.

<sup>6</sup> AHN, Consejos, 1603. leg., 4. zkia.

<sup>7</sup> Landázuri, *Historia civil de Alava*, Gasteiz, 1798, 149. or.

<sup>8</sup> *Diccionario de la R. A. H.*, dagozkien artikuluetan.



Mendearen bigarren erdialdeanazienda-feria ugari sortu ziren bitartean, eskubide hori zuten zenbait herri merkatu bat lortu zuten; hala, bada, Elgoibarri, ordurako feria zuelarik, astean behin behi-merkatua egiteko baimena eman zitzaion 1783an eta 1799an, berriz, hilean birritan ale-merkatua egiteko; Azpeitiak, mendearen lehenengo erdialdean feria zuela, asteroko merkatua —ale,azienda eta beste zenbait gauzarena— lortu zuen 1797an<sup>9</sup>; Ordiziak, antzeko baldintzak zituela,azienda eta gari-merkatua eta beste produktu batzuenaz berriz ezartzea lortu zuen data berean<sup>10</sup>.

Merkatu berriak sortu ahala, bideak zabaltzea mesedegarri izan zitzaizen batzuetan, esaterako, Elgoibarri 1799an, baina beste zenbait azokak, berriz, porrot egin zuen, bai denden, bai beste leku baten mesederako. Bergaran, adibidez, denden mesederako gertatu zen, izan ere, mende bukaeran bi feria baitzituen: bata, Mendekostean, batez ere arropena, eta Baionako, Bilboko, Gasteizko, eta Donostiako merkatariak joaten ziren bertara, baita Kataluniakoak ere, eta bestea behi-aziendarena, larunbat batean bai eta bestean ez, Erramu egunetik Mendekostera arte egiten zutena, eta izanda zuten gainera antzinako garaietan «...mercado tres días de cada semana, pero desde que se facilitaron los caminos para Vitoria no ha quedado ni vestigio de ellos»<sup>11</sup>. Artziniegan, berriz, beste leku batzuen mesederako gertatu zen, izan ere, mende bukaeran ale eta beste espezie batzuen merkatua baitzuen igande eta asteazkenetan, eta herriak honako hau egiten zela aipatu zuen: «la venta de los frutos expresados en ciento y cincuenta fanegas mas o menos. Y aun este despacho se ha disminuido notablemente desde que se han fabricado y establecido en esta Villa de Bilbao nuevos Molinos y Ornos que surten de pan a sus habitantes y se surten de los [mercados] de Villarcayo, Medina de Pomar y ciudad de Frías»<sup>12</sup>; Urduñako mendatea irekitzeak ere eragina izan zuen horretan.

Araban, uzta handitzea eta espezializatzea izan zen bultzatzaile hantiena. Santa Kurutze Kanpezuk merkatu bat lortu zuen 1799an astero larunbatetan egiteko, «[ya] que por no haber mercado nos vemos precisados [a] trasportar para sacar su valor y mantenernos con el a los mercados de [Logroño, Vitoria, Salvatierra y Estella, que distaban, respectivamente, 6, 8, 5 y 6 leguas] de lo qe se nos sigue grandisimos daños y perjuicios ya por la larga distancia qe hai ... como por lo penoso de sus puertos»<sup>13</sup>. Garai berean, Bastidan 450 familia eta 700 behin-behineko jornalari kanpotar zirela azaltzen da, eta beste herri batzuetako alez hornitzen zirela «por carecer la expresada villa de tales producciones que no le permite la situación de su

<sup>9</sup> AHN, Consejos, 1918. leg. (2), 2842. leg. (25) eta 1747. leg. (32).

<sup>10</sup> López, T., BN, 7311. eskbu., 56. or. atz.

<sup>11</sup> *Ibidem*, 278. or. atz.

<sup>12</sup> AHN, Consejos, 1948. leg., 56. or. atz.

<sup>13</sup> *Ibidem*, 1941. leg. (22); eskariak 1794ko martxoko data du eta baimena 1799ko urriaren 30ekoa.

terreno costanero y dividido en canteras, solo apto para el excelente viñedo de que goza, por cuja circunstancia apenas cinco de sus vecinos cogen granos para alimentarse medio año en una corta porcion de tierra de pan llebar que disfrutan». «[Por todo ello] tienen q. surtirse en Haro y q. cuando el trigo escasea Haro lo recoge todo dejando sin el a los forasteros», «[y que en épocas normales] los de Haro no dejan salir sin vino a los arrieros q. traen bastimentos a su mercado, con lo q. vende su cosecha a 2 rs. mas q. los pueblos vecinos, aun siendo vino de peor calidad». 1797an fruitu eta produktu guztien merkatua astero larunbatetan izateko baimena eman zitzaien<sup>14</sup>.

Iparaldean azienden kopurua eta nekazaritzan jarduten ez zuten biztanleen kopurua handitzea izango dira arrazoirik nagusienak. Eibarrek, 1747an, honela zioen: «se coge un poco de trigo, maiz, castaña y manzana, y no siendo bastante para su consumo, se proveen en mucha parte de trigo de los lugares circunvecinos y de Alava y Castilla, y tambien de maiz de Vizcaya»; defizit honen arrazoi nagusietako bat biztanle gehienak armagintzan aritzea zen «y emplearse tambien en el carboneo de ella y fraguas muchos vecinos, experimentándose en todas las demás cosechas mucha carestía»<sup>15</sup>. 1801eanazienda-feria hileko hirugarren asteko larunbat arratsaldeetan egiteko baimena eskatu zuten, baita ale-merkatu bat urteko larunbat guztietako arratsaldeetan egiteko ere, «[porque] a los vecinos y labradores de dha villa les es sumamt. graboso, penoso y costoso la asistencia a las Ferias de los pueblos circunvecinos para la compra y venta de sus ganados, dejando para ello habandonado el cultivo de campos, y lo mismo sucede con no haber mercado de granos especialmente a los infelices que se hallan dedicados a las R<sup>es</sup> Fabricas [de armas]»<sup>16</sup>. Antzerako argudioak azaltzen zituen Azpeitiak 1796an, izan ere «ademas de trescientas caserías con sus tierras labrantes y producentes, existen nueve ferrerías para trabajar fierro y aun en la una, cementar acero y varias fraguas destinadas a la ejecución de diversas calidades de clavo»<sup>17</sup>.

Zenbaitetan merkatu berriak lehia zekarkien ingurukoei. Biztanleria azkar handitzen zen lekuetan azokek aurrera jarraitu zuten; bestelako egoera batzuetan, azoketako batek porrot egiten zuen edo irekitzeko data aldatu behar zuen. Oñatik, 1758an asteko ostiraletan merkatua eta maiatzaren 8tik 16ra bitartean feria lortu zituela, «ha experimentado —zioten 1800ean— pocos adelantamientos por no ser la estacion la mejor para el tragin en aquella provincia y tambien por celebrarse otras ferias en dicho tiempo en las inmediaciones», eta feria iraileko San Migeletara pasatzeko eskatzen zuen, merkatua hileko lehenengo egunera mugatuz<sup>18</sup>. Dulantzik astelehenero

---

<sup>14</sup> *Ibidem*, 1749. leg. (26).

<sup>15</sup> Múgica, G. de, *Monografía histórica de la villa de Eibar*. Irun, 1910, 215. or.

<sup>16</sup> AHN, Consejos, 2107. leg. (42).

<sup>17</sup> *Ibidem*, 1747. leg. (32).

<sup>18</sup> *Ibidem*, 1989. leg. (4).

izaten zuen merkatua, «pero experimentando que posteriormente se han concedido otros mercados a Pueblos inmediatos, que se celebran el martes en Salvatierra y jueves en la ciudad de Vitoria, ha decaído demasíadamente en de Alegría y no puede llenar las obligaciones y atenciones que hasta aquí con sus productos y cree prudencialmente lograr ventajas en tener el suyo el domingo de cada semana»<sup>19</sup>.

Horrelako egoerak ez ziren beti gertatu, izan ere, Errege Kontseiluak inguruetan merkatuak edo feriak zeudela ikustean ez zuen baimenik ematen. Horixe gertatu zitzaion Gordexolako bailarari. 1796an baimena eskatu zuen egokien iruditzen zitzaizkien asteko egunetan gari, garagar eta bestelako hazi-merkatua jartzeko, biztanle gehienek ogia egiten zutela eta Bilbon, Portugaleten eta Bermeon saltzen zihardutela aipatuz, «proporcionando la decente manutencion de familias con este arbitrio, por no haber otro mediante la fragosidad y esterilidad del territorio». Fiskalak ez zion baimenik eman ikusita Artziniega horren kontra zegoela, Balmasedan eta Urduñan merkatuak zeudela eta Bizkaiko behin-behineko korrejidoarek eta Arabako diputatuak bailararen kontra eginiko txostenak<sup>20</sup>. 1790ean, beste arrazoi batzuk zirela-eta, Tolosari ere ez zitzaion ekainaren 20tik uztailearen 4ra bitartean *handizkako* feriarako baimenik eman, asteroko merkatua baitzuen [«jendetza handikoa»]. Honakoa adierazi zuten: «que se acababa de conceder a Bayona de Francia el que su puerto sea absolutamente franco», «[que] no se devengan derechos de Alcabalas y otros que se pagan en las Castillas», «[y asimismo que existían otras en pueblos poco distantes, y la concesión de una feria franca] pudiera traer algunos inconvenientes para el despacho de generos por mayor», «[pues la Real Hacienda no ganaría nada y sería posible] la introducción de generos (acaso de ilícito comercio) desde el Puerto franco de Bayona para su exportacion al Reyno de Castilla, tal vez sin tocar en las Aduanas». Kontseiluaren iritzia hauxe izan zen: «que por ahora se suspenda la gracia que solicita la villa de Tolosa»<sup>21</sup>. Herri honek 1788ko irailaren 11n hauxe alegatu zuen: «que este pueblo es uno de los maiores de esta Nobilísima Provincia y en que la mayor parte del vecindario se ha mantenido y mantiene de negociaciones del comercio que se va estendiendo en tanto grado que dentro de algunos años seran muy pocos los vecinos que no le hagan». Baimena Madrilen kudeatzeko arduradunak honela zioen 1788ko urrian: «apenas se halla uno [de aquellos naturales] que en medio de la faena y cultura de sus campos, dexé de entregarse al tráfico, como el medio mas oportuno para su

---

<sup>19</sup> *Ibidem*, 2335. leg. (30).

<sup>20</sup> *Ibidem*, 1948. leg. (49).

<sup>21</sup> *Ibidem*, 1328. leg. (2). Ohartarazi nahi dugu desberdinak direla feria eta handizka saltzeko feria. Agiriak garbi uzten du Tolosak salgaiak handizka saltzea eskatzen zuela eta ez nekazariei eta bertakoei kanpoko edo beste probintzia batzuetako produktuak saltzea. Tolosak bazuen feria Erdi Arotik.

subsistencia». Testigantza horiek, XVIII. bukaeran nekazarien autokontsumoak zenbait zonatan atzera egin zuen frogetako bat dira.

### Aleen merkataritza eta jokabide monopolistak

Zituen espekulazioaren kontrako protestak, sarritan altxamendu gogorrek barne, 1765etik aurrera hasi ziren gutxi gorabehera; hala gertatzeak, oro har, erlazio estuan jartzen ditu jokabide horiek eta merkataritza libre. Eguraldiak Euskal Herrian behin eta berriro eragindako elikagaien krisi ugariak bizitu egin zituzten protestak. Hala-holako uztek horretan garrantzia izan bazuten ere, egia da arrazoietakoa bat baino ez zirela izan, eta ez funtsezkoena, hain zuzen ere.

**Biasteriko hamarren-barrutia.**  
**Gari-kopuruaren ehunekoak batez besteko mugikorrarekiko<sup>22</sup>**

| Urtea     | BBM   | Uzta  | %     |
|-----------|-------|-------|-------|
| 1686..... | 1.271 | 807   | 63,49 |
| 1714..... | 1.165 | 913   | 78,36 |
| 1719..... | 1.219 | 983   | 80,63 |
| 1728..... | 1.266 | 989   | 78,12 |
| 1733..... | 1.226 | 920   | 75,04 |
| 1788..... | 1.856 | 1.249 | 67,29 |
| 1794..... | 1.979 | 1.619 | 81,80 |
| 1802..... | 1.985 | 1.753 | 88,31 |
| 1804..... | 1.997 | 1.528 | 76,51 |

BBM = hamaika urteko batez besteko mugikorra, seigarrenean oinarritua.  
%= urte horretako uztaren ehuneko bere batez besteko mugikorrarekiko.

XVII. mendearen bukaerako eta XVIII.eko uzta txarrenei dagozkien batez besteko mugikorrei begiratuz eta, sistema bera erabilia, emaitza horiek XVIII.aren bukaerako eta XIX.aren hasierako elikagaien krisiarekin lortutakoez alderatuz, lehenengoak bigarrenak baino gogorxeagoak izan zirela ikus dezakegu, 1686ko uzta bere batez besteko mugikorraren %63 izan baitzen eta 1788koa, berriz, %67. Baina, bigarrenak gizartean izan zuen eragina handiagoa eta kexak biziagoak izan ziren, ekonomi eta gizarte-egitura eta produkzio-harremanak aldatuta baitzeuden: onibarrak txikiagoak, soldatapeko eta pobre gehiago, laburbilduz, baliabide gehiago merkatura, eta, jakina, demografi hazkundera baliabideak baino handixeagoa zen. Faktore horietxek erraztu zuten espekulazio sakona izatea gehiago zehaztu

<sup>22</sup> Datuak Biasteriko hamarren-barrutiko gariarenak dira.

beharreko deboraldi batean, 1765. urtearen eta Independentziako Gerraren artean koka daitekeen garaian. Beharbada ez da gehiegi aztertu baina protesta gogorrenak mendearen zati horretan gertatu zirela esan dezakegu gaur egun. Pentsatzekoa da merkataritza-kapitalismo bat —merkataritza zirkuituaz jabetuz plusbalioa lortzen duena— mailarik gorenean dagoen sasoiak dela, nolabaiteko autokontsumoa apurtzen eta ale-merkatua behin betiko antolatzen ari den garaia. Honekin guztiarekin ez dut hornigaien krisiak desagertu zirela esan nahi, espekulazioak irabazpide izateari utzi ziola baizik.

Mugimendu honetan parte hartu zutenak pertsonaia berberak ziren ia beti. Ez dirudi nolabaiteko garrantzia zuten merkatariek jokabide hauetan interesik zutenik, kanpotik edo Andaluziatik itsasoz kantitate handiak inportatu behar zirenean izan ezik. Euskal Herrian nekazaritza-arloko alderdirik pribilejiatuena izan zen: kleroa, hamarrenen hartzaileak eta alokatzaileak, uzta-biltzaile boteretsuak, edo errenta espezetan jasotzen zutenak, eta batez ere errotariak. Aberats berri xumeen taldetxo bat, matrikula-liburuan izenik emanda ez zuena, herrixketan zebilen. Hala, bada, Aldundiek ateratako berripaperak ez zeuden merkatariei zuzenduta, herrietan bizi ziren «ale-jabeei» baizik. Nolabaiteko garrantzia zuten merkatariek atxikituago zeuden arriskurik gabe erosten zuten udal-bihitegien eta udalen zerbitzurako esportazio-inportazioari, tokian tokiko azoketako merkataritzari baino.

Bizkaian, zituak kanpora eramaten zituzten ontziei irteten ez uztea erabaki zuten 1768ko urriaren 3an, bi arrazoi zirela eta: irailetik aurrera jaso ziren kexak Foruen kontra Jaureritik kanpo aleak ateratzeagatik eta «[por haber] llegado la codicia de muchos al extremo de comprar granos en los mercados públicos para revenderlos, de manera que ha subido a treinta y cinco ó treinta y seis reales el precio de la fanega de trigo, y á proporción el valor del maíz, en la estación del año en que debieran estar más bajos los precios»<sup>23</sup>. 1770eko Batzar Nagusiek, etxea hornitzeko behar baino ale-kopuru handiagoa zutenen aurkako neurriak hartzea erabaki zuten, soberan zutena prezio arruntean gertuen zegoen merkatuan ematera behartuz, izan ere errege-pragmatiken arabera debekatuta baitzegoen aleak prezio altuagotan saltzeko asmoz udal-bihitegietan pilatzea<sup>24</sup>. Neurri horiek guztiek ez zuten eragin praktikoa handirik izan.

1789ko maiatzaren 8an, gariaren uztaren aurreko hil luzean, honakoa onartzen zuten Bizkaiko teniente jeneralak eta diputatuak: «que mediante no haber sido bastantes las providencias tomadas por sus Señorías, para que los Tenedores de granos los repartan á precios corrientes, sin hacer estanco de ellos, se faculta, y manda, á los Fieles, y Justicias de los Pueblos de este Señorío, compelan y apremien a los Dueños de granos, para

---

<sup>23</sup> Sagarmínaga, *El gobierno y régimen foral de Vizcaya*, D. Areitio osatutako argitalpena. Bilbo, 1928, IV. libk., 456. or.

<sup>24</sup> *Ibidem*, IV. libk., 488. or. Aipatzekoa da batzuek zein azkar ahaztu zituzten 1766ko matxinadaren arrazoiak.

que reteniendo lo preciso para su alimento, y el de su familia, hasta la primera cosecha, entreguen el sobrante á dichos precios», eta hauxe aholkatu zitzaien apaizei: «al tiempo del Ofertorio de las Misas conventuales aconsejen y amonestasen á sus Feligreses Tenedores de Granos, no los oculten sino que los patenticen, y entreguen á precios corrientes»<sup>25</sup>. Garbi dago, beraz, ez direla inoiz merkatariak zalantzatan jartzen. Nekazariak bereizteko prozesuan, zorte handikoenak gainontzekoen baliabideez jabetzen hasi ziren, uzta eta prezioen gorabeherak aprobetxatuz. Juan Bautista de Ybarra Ageok Soraluze herriaren izenean egindako azalpenean argi eta garbi uzten du: 1789an ale falta izan zen eta bertakoak estuasunetan ibili ziren Bilbok Iparraldetik zituak ekarri arte eta honakoa gaineratu zuen: «que el mayor numero da Avitantes tiene necesidad de comprarlos aun de aquellos que viven en las Anteygs o. por no ser de profesión labradores, o porque aunque lo sean tienen que vender sus cortas cosechas luego de la recoleccion para pagar las rentas y satisfacer a sus acreedores de modo que en la estacion presente solo podran hallarse sobrantes, o en los arrendatarios de Diezmos, y ó en grandes cosecheros cuio numero es cortisimo respecto de todos los demas naturales y vecinos». Neurri handi batean esportatzaileak izan ziren eskasiaren errudunak, izan ere «la cosecha de Maiz fue bastante regular, y abundante en dho año; pero que su falta nacio en las grandes extracciones, que hicieron, por las ganancias que logravan con ella». Esportazio librearen aurka zegoen honako honengatik: «porque el interés individual de las personas no tiene límite y los Dezmeros y cosecheros lleuados de su intere pueden extraer quantos tienen o al Reyno de Galizia, u otras partes». Irabazia lortzeko grina hori garbi adierazten da 1798an, anega bat garik 70 erreal balio izatetik 80ra eta anega bat artok 60tik 66 erreal balio izatera heldu ziren sasoiari, Manuel de Arostegui izeneko gizon batek ez zuenean saldu nahi izan «sin embargo de los precios a que corrian»<sup>26</sup>.

Zalantzarik gabe, jokabide hauen kontrako azalpenik onena Elgoibarko zenbait biztanlek eman zuten; honakoa, hain zuzen ere: «los perjuicios q<sup>e</sup> se siguen así en esta dha villa como en otras muchas republicas con las continuas compras y acopios de granos q<sup>e</sup> hacen los molineros entre año y con especialidad en tpo. de la cosecha y rebenta de las Arinas a las Panaderas y otras personas encareciendolos pr. este medio». Eskribau batek hauxe adierazi zuen: «que los molineros de esta villa y los mas de la Prov<sup>a</sup> se emplean todo el año en comprar granos de particulares asi en el pueblo como fuera de el y con especialidad en el tiempo de Agosto, y en este reparten dinero a los caseros a cuenta de granos y como dhos Molineros en todo el año surten de Arina y luego que hacen el acopio de granos como son los unicos q<sup>e</sup> surten en lo restante del año... dan el precio que quieren a los

---

<sup>25</sup> GBEA, Granos, 1754-1793, 1. errej. zkia.

<sup>26</sup> *Ibidem*, 2. errej. zkia., 1794-1801. urteak, 551-554 orr.

granos en lo que se sigue un notorio perjuicio al comun... a que se agrega el perjuicio q<sup>e</sup> causan a los particulares q<sup>e</sup> lleban a moler trigo a sus molinos pues estando regulada la maquila en seis libras de Arina pr. fanega de trigo les llevan siete a causa de que muchos pesan el trigo y como este sea de buena calidad y de mayor peso pr. q<sup>e</sup> suelen ascender a noventa y noventa y dos libras la fanega como les han de dar la Arina correspondiente al peso del trigo les aumentan una libra mas de maquila; pero a las panaderas no les dan mas de ochenta libras de Arina por fanega; pero con la especialidad de que estas producen mas pan y de mejor calidad que las ochenta y cinco o ochenta y seis libras liquidas que dan al particular que lleba su trigo a moler por lo que muchos se ben en la precisión p<sup>a</sup> comer buen pan, de comprar la Arina de los Molineros a razón de ochenta libras la fanega... añadiendo que a los mas propietarios de corta renta les anticipan dinero entre año a cuenta del trigo por cuio motibo los particulares que necesitan hacer su prebencion a los tiempos oportunos no les puede proporcionar ejecutarla con equidad». Soraluzeko Armen Errege Fabrikako fusileri giltzak egiten zituen maisu batek honakoa esan zuen: «es constante pp<sup>co</sup> [público] y Notorio q. los Molineros de esta V<sup>a</sup> y los mas de Esta Prov<sup>a</sup> se emplean todos los años en comprar granos así en este Pueblo como fuera de el particular<sup>nte</sup> en tiempos de Agosto en q<sup>e</sup> dan dinero a los caseros a cuenta de granos, y los dhos Molineros como compran trigo así en el refdo tpo como en lo restante de el año p<sup>a</sup> surtir de Arina a las Panaderas y mucha parte del vecind<sup>o</sup> consigue bentajas en las compras de trigo y usan de la cautela de abaratar la Arina en tpo del Agosto con el fin de surtir en lo restante del año al precio mas subido q.pr ellos ponen ley pa ello, y al tpo qe hacen dhos Molineros el acopio de trigos los ponen estos en casas de su confianza y caserios hasta q.como lleba dho dan el precio q.quieren a los granos»; «que además hay otro perjuicio que causan los Molineros a los particulares que lleban a moler trigo que aunque sea este de la mejor calidad y de peso superior de noventa y dos libras y mas la fanega, siendo así que de Maquilaje deben retener al respecto de seis libras en fanega de trigo, entregan a los que ban por arina con dinero ochenta libras y aun que es regular que con estas se hace mas pan q.con la de el trigo superior q<sup>e</sup> lleban en grano entregan todo el peso que contiene el grano reteniendo el Maquilaje de siete libras siendo así que no deben llevar mas que seis».

Elgoibarren bertan hauxe esan zuen errejidoreak: «con especialidad dha compra la ejecutan en tpo de agosto repartiendo dinero a los caseros pobres p<sup>a</sup> la recoleccion de los fruttos y aun a los propietarios q<sup>e</sup> se hallan alcanzados p<sup>a</sup> el mismo fin, y en el tiempo de Agosto abaratan la Arina a las panaderas y particulares por q<sup>e</sup> tienen q<sup>e</sup> bender la jente casera y la mayor parte del trigo lo suelen dejar en casas de confianza trayendo alguna otra porcion a su casa p<sup>a</sup> continuar las ventas de Arina, y luego que pasan dos meses empiezan a encarecer la Arina de los q.se siguen un notorio perjuicio al comun de los vecindarios que continuam<sup>te</sup> se estan quejando del proceder de semejantes

jentes por el perjuicio q. causan, y ademas de dho perjuicio hacen otro a los particulares y aun a las panaderas que suelen llebar trigo a sus Molinos pues aunque la fanega del q<sup>e</sup> lleben pese noventa o noventa y dos libras solo las dan ochenta libras de Arina de buena calidad con las q<sup>e</sup> sacan mas pan y mas blanco que se las dieran ochenta y cinco y retienen seis libras pr Maquilaje segun ordenanza; pero en el trigo que lleban los particulares que tienen de peso noventa o noventa y dos libras retienen siete libras por razon de Maquilaje y aunque a estos les den ochenta y cinco libras, sacan menos pan y de peor calidad que lo que sacan las panaderas con las ochenta libras por lo que se ben precisados muchos particulares a comprarles la Arina a razon de ochenta libras del que ellos tienen comprado, y ademas suelen causar otros perjuicios con la mezcla del trigo de particulares de buena calidad con otros inferiores que ellos tienen comprado, por lo que le parece al testigo que al Molinero no se le deve permitir comprar grano ni bender arina y solo si moler el trigo que lleben las Panaderas y otros particulares a sus Molinos». Tolosako auzokide hautagarri batek honakoa zioen: «que save por haverlo visto, q<sup>e</sup> los Molineros de esta villa hacen acopio de granos con bastante abundancia, especialmente en tpo de Agosto, comprado en la Azoquea, o Alondiga publica de esta Villa, tomando por si, y por otras personas las Primicias, y Diezmos de los Pueblos circunvecinos, y los guardan hasta el tpo en q<sup>e</sup> suba el precio, q<sup>e</sup> ellos apetecen». «Que la maior porcion de trigo, q<sup>e</sup> llega a la azoquea, o Alondiga de esta Villa, compran los molineros de Villabona, Cizurquil, Asteasua, Aduna, Andoain, Urnieta, y de todos los demás Pueblos de acia la costa sin reparar en el precio, dando señales, y ajustando antes de la hora señalada para q<sup>e</sup> los forasteros comerciantes en granos no hagan compras; y q<sup>e</sup> los expresados molineros los trigos, que asi compran, llevan en carros de alquiler q<sup>e</sup> logran las mas de las veces de retorno, y con mucha equidad, y venden reducido a arina con el peso y precio, q<sup>e</sup> les acomode, a las Panaderas q<sup>e</sup> surten de pan la ciudad de San Sebastian, y otros Pueblos, y cree, q<sup>e</sup> este methodo es causa para experimentar la carestia, y escasez de granos. Que asi bien lo consta, q<sup>e</sup> muchos de los tragneros, q<sup>e</sup>, se ocupan en el comercio de granos, y algunos Molineros desde Vitoria a esta Villa, conducen en carros de alquiler, y save, q<sup>e</sup>, ademas compran partidas considerables de Diezmo y Primicias de los Pueblos de esta Provincia, y los retienen unos y otros hasta lograr el precio q<sup>e</sup> apetencen, guardando equilibrio con las cantidades, q<sup>e</sup> a su gusto puedan despachar en los mercados de esta villa.»

Beste lekuko batek, aurrekoen adierazpenak berrestez gain, ondokoa gaineratu zuen: «Que conoce a varios trajinantes o comerciantes en granos, q<sup>e</sup> conducen muchas partidas desde la ciudad de Vitoria, y otros Pueblos de Alava y esta Provincia, y quando no logran el precio, q<sup>e</sup> les acomoda, dejan para vender en tpo mas oportuno en la azoquea o alondiga de esta referida Villa, y q<sup>e</sup> su conducción la hacen en carros de alquiler».

Beste lekukotasun batzuek xehetasun gehiago eransten dituzte: errota-riek «ascendados y administradores de la Villa» bezala izendatukoei eros-



ten diete garia errotetara garraiatzen dutela «en tpos y horas en q<sup>e</sup> se pueda notar lo menos en el publico», garia Gasteiz eta Arabako beste herri batzuetatik alokatutako gurdietan ekartzen dutela eta Elgoibarren nahi duten prezioan saltzea lortzen ez badute gordetzen dutela «en la azoquea o alondiga de ella para esperar tpo mas oportuno», «[que] tratantes en granos vecinos de las Villas de Arriaran, Gudugarreta, Ormaiztegui, Anzuola, Vergara y otras» Gasteiz eta beste herritatik garia ekarri eta salgai jartzen dituztela «en la azoquea o alondiga de esta Villa las cantidades qe conceptuen suficientes para hacer valer el precio que desean, reservando lo demas en sus casas y Pueblos de transito, esperando coyuntura mas oportuna y llegando en el mercado el precio q<sup>e</sup> llenen sus deseos, ajustan con los referidos Molineros, q<sup>e</sup> intermedian de esta Villa a la Ciudad de San Sebastian, obligandosen a entregar en los dias de entre semana en sus respectivos molinos».

Horrelako gehiegikeriarik gerta ez zedin, Azkoitian, 1791ko urriaren 13an erabaki zen errotariak beren kabuz edo beste batzuen bitartez aleak erosten bazituzten berriro saltzeko lehenengo aldian salgai guztia galduko zutela eta berrehun dukateko isuna eta hogeitau eguneko kartzela-zigorra jasoko zituztela, eta berriro egiten bazuten hogeitau legora erbesteratuko zituztela hiru urtez. Eta hauxe gaineratu zen: «que por quanto los acendados y Maiorazgos de este Pais, la maior parte de sus rentas, perciben en trigo de manos de los colonos: Y por quanto tambien es regular aspiren al precio subido (que siempre que toleren los abusos de los Molineros que llebo relacionados, lograran al fin) seria conveniente y necesario, se dictase alguna providencia rigurosa y oportuna para que los acendados cosecheros, no comercien con los Molineros»<sup>27</sup>.

Espekulazio hauek guztiek sendotu eta azkartu egin zituzten nekazarien zorrak. Garia, artoa edo garragarra maileguz emanda, preziorik altuenean, bai soldadura-garaian, bai gehienetan gertatzen zen bezala ereiaroan, lurjabe txikiak eta maizterrek uztaroan itzuli behar zuten kantitate hori: bost anega 76 errealetan = 380 erreal jaso bazituzten, abuztuan, prezioak erdira jaitsita, hamar anega saldu behar zituzten maileguz hartutako 380 errealak itzultzeko. Ordaintzen ez bazuten betearazpena zetorren. Hona hemen zer zioen 1804an Haroko parrokiako fabrikako etxezainak: «que de mandamiento de V. S. y de los Señores del Ayuntamiento como compatrono de dha Fábrica» banatu zituela «pr el mes de enero de este mismo año [1804-I] a varios labradores u Horttelanos diferentes fanegas de trigo y cevada a titulo de que les pudiesen servir para la sementera obligandose a su reintegro para el dia de nuestra Señora de Agosto [1804-VIII] pasado del corriente año al precio de settenta y seis rrs. fanega de trigo y a quarentta y dos la de cevada sobre que ottorgaron solenne Essra [...] y aunque en su virtud

---

<sup>27</sup> AHN, Consejos, 1382. leg. (1), 2-15. orr.

he podido conseguir el percibo de algunas sumas a costta de muchos pasos y trabajo...restta hastta ahora [1804-XII-12] para el completto pago del importe de aquellas el abono de ochocienttos veinte rrs»<sup>28</sup>. 1805eko apirilaren 22an, olibondo eta aihen-sail bi esleitu zitzaizkion Biasteriko Udal-bihitegiari Cañas aldean «por deuda de quince robos y tres quartillos de trigo que, con inclusion de las creces correspondientes, estaban debiendo por haberlos sacado para la sementera del año 1800»<sup>29</sup>; era berean pasa ziren udal-bihitegira bi mahasti hamaika *robo* eta hiru lakariren truke, anega eta erdiko sail bat eta hiru *robado* mahasti bat lau *robo* eta bi lakariren truke, 1800eko ereinaldietarako aterata<sup>30</sup>.

## Garraibideak

1750etik aurrera ia Europa osoan bide berriak egiten hasi ziren, eta eginak zeudenak hobetzen ere bai. «L'opération Sierra Morena est contemporaine de l'opération, en France, pavé du roi»<sup>31</sup>. Euskal Herriko ilustratuek, gaiari garrantzi handia emanez, honakoa esan zuten 1766an: «El Señor Don Fernando el VI de gloriosa memoria abrió los de Guadarrama, Santander y Navarra... y el Rey nuestro Señor extendiendo sus ideas según la inmensidad de su corazón, ha hecho general por todo el Reyno esta admirable providencia»<sup>32</sup>.

Prozesu honetan bi etapa bereizi behar dira. Lehenengoa mendearen azken laurdenera arte iristen da eta ahaleginak bide nagusietan egin ziren: Urduña ireki zen, 1753an Reinosako errepidea egitearen eta zergagabetzearen ondorioz, hein handi batean<sup>33</sup>. Merkataritza handiari lotutako bideak dira; Koroak edo kontsortzioek, adibidez, Kantsulatuak, Bilboko Hiribilduak eta Bizkaiko Jaurreriak, finantzatu zituzten. Bigarrenean, berriz, 1775etik aurrerakoan, probintzietako bideak, zenbait herri bide nagusi bati lotu edo kostaldeko portuak barnealdera irekitzen zituztenak, ugaritu egin ziren.

Bilbo-Burgosko bidea, artilearen esportazioaren ardatz zena, hobetzeko egin ziren lehenengo ahaleginak xvii. mendeko laurogeiko hamarkada-koak dira. 1686tik 1690era «se ensanchó el paso de la peña vieja de Orduña y se repusieron los caminos de herradura por Ollargan a Bilbao»<sup>34</sup>.

<sup>28</sup> Haroko Parrokiako Artxiboa, orri soltetan.

<sup>29</sup> Biasteriko Udal Artxiboa, 2. errej., 15. zkia.

<sup>30</sup> *Ibidem*, 2. errej., 16 eta 17. zkia.

<sup>31</sup> Chaunu, P., *La civilisation de l'Europe classique*. Paris, 1966, 275. or.

<sup>32</sup> *Ensayo...*, 321. or.

<sup>33</sup> Palacio Atard, V., *El comercio de Castilla y el puerto de Santander en el siglo xviii*. Madrid, 1960, 50. or.

<sup>34</sup> Iturriza, J. R., *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Bilbo, 1967, I. libk., 200. or.

Ahalegin horien ostean, Balmasedatik Mesetara zihoan bidean hasi ziren lanak hogeita hamarreko hamarkadaren inguruan; hori zela eta, Gasteizko merkatariak izutu egin ziren, alde batera gelditzen baitziren. Arabako Bazar Nagusian 1733ko azaroaren 24an honakoa gertatu zen: «se presento y leio un Memor<sup>1</sup>. de el comercio de esta Ciud. de Vittoria en que ace expresión la Diminucion que à esperimttado especialmente en el ttrafico de lanas de algunos años a esta parte por auerse estraido por la [ruta] de las Encartaciones a la V<sup>a</sup> de Biluao mediante el cuidado que an ttenido y ttiene en componer los caminos de calidad que pueden ttransitar los carros asta el mismo Puentte [de San Antón de Bilbao]»<sup>35</sup>. 1737an merkatari hauek honakoa nahi zuten: «que la Prouincia abrigue la auerttura de cierto camino que ynttentan se eecute por la V<sup>a</sup> de Bilbao, para el ttransporte de las lanas en carros con la maior comodidad por la dha Villa de lo que se sigue nottoria utilidad a t toda la Prouincia»<sup>36</sup>. Ezer argitzen ez bada ere, Urduñako haitza apurtzeko lehenengo egitasmoa izango zen, edo Ekialderago zegoen beste bide batetik, beraz, Araba zeharkatuko zuen batetik, Mesetara iristeko egitasmoa izango zen.

Urduña ireki baino lehen, Bilbo-Pancorboko bidea orgaz egin zitekeen; mendatea igotzean soilik behar ziren zaldiak. Honakoa zioten Arbineko benta zeritzon bide zahar horri buruz: «sólo era para la herradura, se superaba a duras penas; y no en todas las estaciones del año». 1765etik aurrera kotxebide edo errepede bihurtu zuten; bertatik jaisten ziren «artilezko zakuz beteriko makina bat orga». Gainera, Goldechoko haitzetatik pasatzen zen beste bide bat zegoen, herrialdeko mandazainek eta orgek erabiltzen zutena<sup>37</sup>. Lan hori egiteko, Jaurerria, Bilboko Hiria eta Kontsulatua elkartu ziren; «construyeron a sus expensas desde el año de 1765 con R<sup>s</sup> facultades el nuevo camino». Errenboltsoa ardoaren eta bidesarien gaineko arielen bidez egin zuten<sup>38</sup>. Kolon de Larreategiren ustez, «7.200.000 erreal eta gehiago» balio izan zuen eta 1782tik aurrera izan zituen konponketek, berriz, 1.377.939 erreal<sup>39</sup>. Zenbaki horiek zein balio zuten kontu egin dezagun: 7.200.000 erreal 240.000 anega gari ziren, bidea egin zuten garaian anega bakoitzak 30 erreal inguru balio zuela estimatuz, eta 1771tik 1775era bitartean urteroko nekazaritzako produktu gordina 447.000 anega ziren Bizkaian, eta Gipuzkoan milioi erdira iristen zen.

Bide hori bukatu eta handik gutxira, 1772an, bigarren fasea hasi zen; zenbait zati motzagotan egin zen eta ferrabidea kotxe eta orgabide

<sup>35</sup> AAA, Arabako Dekretuen 31. Liburua, 1731-1736, 51. or.

<sup>36</sup> *Ibidem*, Arabako Dekretuen 32. Liburua, 1736-1740, 17. or.

<sup>37</sup> BN, 669 esku., «Apuntaciones históricas y geográficas de la antigüedad, nombre y privilegios de la Ciudad de Orduña», XVIII. mendeko anonimoa, 89, 90 eta 91. orriak.

<sup>38</sup> Guiard, T., *Historia de la M. N. y M. L. Villa de Bilbao*. Bilbo, 1906, III. libk., 233. or. eta hurr.

<sup>39</sup> AHN, Consejos, 3068. leg. (2).

bihurtzea ekarri zuen. Bide berriak dentsitate-mapa baten gainean jar-  
 zten baditugu, errepide berria biztanle multzo handia biltzen den lekue-  
 tatik pasatzen dela ikus dezakegu, eta hori ez zen Burgos-Bilbo bidean  
 gertatzen. Horiexek dira artilezko ateratzeen eta Bilbok inportaturiko  
 salgaiak Gaztelarantz eramatearen ondorioak. Errepide berri hau existi-  
 tzeak, zeharkatzen zituen herrien ekonomia indar zezakeen, baina bigarren  
 mailako eragina zuen horrek eta ez ziren eragin horren atzetik ibili. Aitzi-  
 tik, produktuak gehiagotan elkartrukatzen hasi ziren gune txikiak handi-  
 tzearen ondorio dira beste bide berriak. Urduñako bidea, hein handi ba-  
 tean, kanpoko eta Gaztelako eskaria indartzearen emaitza da; bestek,  
 berriz, barne-hazkundearena.

### Garraio-kostuen jaitsiera: zaldi-mandoetatik orgara

Aurrerapen ikaragarria izan zen, alde menditsuenetan behintzat, eta  
 halakoa da Euskal Herriko zatirik handiena, garraioa zaldi-mandoetatik  
 orgara pasatzea. Kostuak erdira jaitea ekarri zuen sarritan. Ez dut mendea-  
 ren azken zatiari buruzko daturik, baina Arabako 1857ko erroldak garaiko  
 aipamenak baieztatzen dituzten zenbait zifra dakartzkigu. Pentsatzekoa da  
 XVIII. mendearen bukaeratik 1857ra ez dela funtsezko aldaketarik egin;  
 nik ez dut hipotesi horren aldeko testurik topatu, eta topatu arren, Araban  
 XIX. mendearen erdialdean benetan erabilitako garraiobideak ez dira aurre-  
 ko mendearen erabilitakoen oso desberdinak:

|   | Erabilitako abere-trakzioa |                        |          |
|---|----------------------------|------------------------|----------|
|   | Idiak                      | Mandoak +<br>+ Zaldiak | Zaldiak  |
| <i>Zaldi-mandoz</i>                             |                            |                        |          |
| Zaldieria handiak..... 486                      |                            |                        |          |
| Zaldieria txikiak..... 16                       |                            |                        |          |
| <i>Ibilgailuz</i>                               |                            |                        |          |
| Gurdiak ..... 63 }<br>Orgak ..... 42 }          | 160                        | 70                     |          |
| Galerak (1) ..... 7                             |                            |                        |          |
| Dilijentziak ..... 6 }<br>Bide-kotxeak..... 6 } |                            |                        | 70<br>86 |

(1) Hiru galerak mezuak azkarrago bidaltzeko balio dute eta 30 zaldi erabiltzen dituzte;  
 nahiz eta agian zehatza izan ez, gainontzeko laurek indar eta trakzio-mota bera darabiltzatela  
 suposatuta dut, izan ere, erroldan orokorrean agertzen baitira gurdietatik, orgetatik eta lau ga-  
 leretatik tira egiten duten mando, zaldi eta idien kopuruak.

*Iturria:* AAA, Estadística de transportes terrestres, 1857. 50 eta 51. H legajoak.

Ikus daitekeenez, salgai gehienak, denak ez esatearren, idiek eta mandoek tira egindako gurdiz eta orgetan garraiatzen ziren; gutxi gorabehera bikote bat ibilgailu bakoitzeko. Bidaiariak eramateko kotxeetan soilik izaten ziren zazpi eta hamar bat zaldi ibilgailu bakoitzeko. Biasteriko auzitegi-barrutian, arroa bat zaldi-mandoz eramateak, oro har, 100 zentimo balio zuen legoa bakoitzeko, eta gurdiz, 51. Amurriokoan, gurdiz 25 eta zaldi-mandoz 50, hau da, orgaz garraiatzeak erdia balio zuen<sup>40</sup>. Hona hemen, kostu biak agertzen direla, zer dugun zenbait ermandade kontuan hartuta:

**Batez besteko prezioa zentimotan arroa eta legoa bakoitzeko<sup>41</sup>**

| Ermandadeak              | Zaldi-mandoz | Gurdiz | Zaldi-mandoz | Gurdiz |
|--------------------------|--------------|--------|--------------|--------|
| Añana . . . . .          | 75           | 36     | 100          | 48,00  |
| Aiara . . . . .          | 50           | 25     | 100          | 50,00  |
| Zigoitia . . . . .       | 25           | 25     | 100          | 100,00 |
| Kontrasta . . . . .      | 150          | 150    | 100          | 100,00 |
| Laudio . . . . .         | 21           | 12     | 100          | 57,14  |
| Agurain . . . . .        | 57           | 37     | 100          | 64,91  |
| Ubarandia . . . . .      | 50           | 12     | 100          | 24,00  |
| Urkabustaiz . . . . .    | 33           | 33     | 100          | 100,00 |
| Gaubea . . . . .         | 50           | 36     | 100          | 72,00  |
| Legutio . . . . .        | 25           | 20     | 100          | 80,00  |
| Gasteiz . . . . .        | 50           | 50     | 100          | 100,00 |
| Batez bestekoa . . . . . | 53,27        | 39,63  | 100          | 74,40  |

Nahiz eta datu hauek barrutikoak baino zehatzagoak izan, gurdiz garraiatzearen aldea mantendu egiten da<sup>42</sup>. Iritzi bera zuten XVIII. mendeko merkatariek. 1733ko gasteiztarren ustez, orgabideak izateak honakoa zekarren: «el que los cuerpos de lanas uaian sin descauezar, lo que no se a podido ni puede conseguir al presentte por el territorio de esta Provinz<sup>a</sup> por la mala Disposicion de los caminos en que no solo se alla el perjuicio de la suvida de los Porttes sino la precision de Descavezar los cuerpos de lanas para conducir a lomo. Y que siendo notoria la viveza y aplicación con que otros

<sup>40</sup> Estatistikak, hiru auzitegi-barruti hartzen dituenak, arroa bateko legoa bakoitzeko zaldi-mandoz eramanda 67 zentimo balio duela eta gurdiz, ordea, 93 azaltzen du probintziako datu orokorrak ematean. Datu hauek ez datoz bat barrutietako partzialekin —Gasteizkoa falta bada ere—, eta herrietakoekin. Beraz, huts bat izan behar du zalantzarik gabe.

<sup>41</sup> Alde batera utzi ditut garraioibide bakar baten kostua soilik agertzen ziren ermandadeak; horrela desberdintasun orografikoek konparazio faltsuak ematea saihestuko dugu.

<sup>42</sup> D. R. Ringrose-k antzeko datuak ematen ditu 1773. urtea aztertuta; Peñarandatik Madrilera Navas de San Antoniotik igaroz 17 marabedi balio zuen legoako anega bat mandoz eramateak eta orgaz, berriz, 12, eta Peñarandatik Navasera 15 eta 10, hurrenez hurren. «Transportation and economic stagnation in Eighteenth century Castile». *The Journal of Economic History*, XXVIII. libk., 1968ko martxoa, 64. or.

terrenos se an dedicado no solo a la composición de caminos sino a abrir los de nuevo a graue costa como se esperimnta en Valdigueña y Laoz afin de attaer el comercio por aquellos parages, siendo el tterritorio de esta Provincia (que media con el Señorío de Vizcaia para Biluao) ttan comodo y breve que a poca costa se pudiera poner de calidad que ttansitten las lanas en carros asta la misma ria asciendo eleccion entre los muchos caminos que ai abiertos de uno que sea el mas commodo breue y facil de componerse»<sup>43</sup>.

Ageriago uzten du Durangok Lekeitiori 1774ko irailaren lean bidalizio Oroitza-txostenak «Urkiolako San Antonioko errepidea irekitzearen erabilgarritasun handia azalduz». Bizkaiak Araba, Gaztela eta batik bat Errioxarekiko zuen mendekotasuna aitortzen zuen, azken hau baitzen «fuente principal de nuestro abasto, assi en lo que al Trigo, Cebada, Lino, Jabon, Garbanzos, Passas y otros generos, como en lo que respecta al vino [...] por cuya causa se hace precisa su conduccion à lomo, experimentando en ella recargo notable, y mucho mas por la dureza, y fragosidad del Puerto de San Antonio de Urquiola»; hau kontuan harturik, izkribuak gaineratzen zuen bidearekin abantaila handiak lor zitezkeela «aun en solo el porte de vino, y Trigo porque en la actualidad cuesta, y se carga en limpio por el de cada cantara cinco Reales [= 170 mrs] poco mas, o menos, y conducido por medio de Carros viene à costar de treinta y ocho a treinta y nueve mavedis». «En iguales terminos sale la cuenta por lo respectivo à la introduccion de granos, porque no se contentan en el dia los Conductores con quatro Reales por cada fanega de trigo, y aun por medio de Carros, y llevando porte sube el de la fanega a mas de tres Reales, y teniendo la carreta qual corresponde una jugada traherá sobre diez y seis fanegas, y queda bien pagada con Real y quartillo, aun corriendo a beneficio del Trigo el porte de lo que sacasse de acá.» Gainera Urkiola irekitzeak «gaur egun zazpi legoa malkartsu dauden tokian bide oneko bost legoa» ekarriko luke. Oroitza-txostena gehienetan bezala, abantailak gehiegikeriaz betetzen dira, baina beti ere benetako egoera baten gainean: orgaren nagusitasuna zaldieriaren aldean, zama handiagoa eraman ahal izatea bide on bate-tik txar batetik baino eta prezioa jaitea itzulerei esker<sup>44</sup>.

Garraiobide berriak irekitzeak eta zeudenak konpontzeak arazo teknikoak ekarri zituen. Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen ilustratuek hamahiru orri idatzi zituzten beren Saiakeran bideak nola egiten ziren azalduz; berri horiek honako lan hauetatik jaso zituzten: «las especies de varios Autores, y singularmente de los Señores de la Sociedad de Dublin»<sup>45</sup>. Adituak beharrekin batera eta huts egitetik ikasiz sortu ziren. Hori nabaria zen

---

<sup>43</sup> AAA, Dekretuen 31. Liburua, 51. or.

<sup>44</sup> Lekeitioiko Udal Artxiboa, 11. errejistroa.

<sup>45</sup> *Ensayo...*, 324-337 orr.

arazo tekniko latzei aurre egin behar zitzaizenean, esaterako, bidezubiak egitean. Uholdeek eramaten zituzten egurrezko zubi zahar asko harriz zaharberritu zituzten, edo bidea motzago bihurtzen zuten beste batzuk erantsi zizkieten: Zestoak 1786an «construyó otro mas arriba para comodidad de los vecinos»<sup>46</sup>; Tolosan, urte berean, zegoen zubiaz gain harrizko beste bat egin zuten Oria gainean<sup>47</sup>; Santa Kurutze Kanpezuren egoera hauxe zen: «bastante grabada a causa de haber echo barias puentes de consideración»<sup>48</sup>; Oñatin, 1774an 2.608 lerro-oineko bide baten proiektua egin zen «hasta la entrada del dho puente nuevo que restados de los 5.000 del camino viejo quedan en 2.392 pies»<sup>49</sup>. Kilometro gutxi batzuk aurrezten zuten hobekuntzak ziren, baina neguko zaparrada handien ondorioz zirkulazioa gelditzea saihesten zuten; herri bakoitzean egindako hobekuntzek bide handien trazadura osatzen zuten<sup>50</sup>. Hauetako kasu garrantzizko bat Lekeitioko eskumenean dagoen Isunzako zubia izan zen. Leku horretan hiru arku dituen egurrezko zubi bat dago, «horietako bat irekia edo altxagarria zen». 1764an honakoa pentsatuta zuten udalekoek: «tenían animo resuelto de fabricar [...] puente nuevo de piedra labrada con un arco»<sup>51</sup>, eta proiektuak idazteari ekin zioten. Lehenengoa hiru arkuak mantentzean zetzan, egitura guztia harrizkoa bazen ere, baina honakoa adierazten zen: «aunque por algun tiempo pudiera subsistir como el antiguo de madera siempre tiene el peligro de deber ser a piedra perdida y expuesto a evidente ruina con el continuo batidero del mar y avenidas. Y asi discurro —jarraitzen zuen informatzaile batek— que el unico medio seguro sin riesgo y de menos coste para lo sucesivo es de Puente de un arco». Eta horrela egiten saiatu ziren, baina makoak kendu eta gero erori egin zen 1770. eta 1771. urteen artean. Bilboko zenbait biztanlek berriro egingo zutela hitz eman zuten 1773an<sup>52</sup>.

## Bideria hobetzearen ondorioak

Urduña, Balmaseda eta Gasteizko aduanen baloreen zerrendak gorde direnez, Urduñako bide berria egin aurretik eta ondoren hain zuzen ere, bide berriak zirkulazioan izan zituen ondorio zehatzak ikus ditzakegu.

<sup>46</sup> *Diccionario R. A. H.*, I. libk., 209. or.

<sup>47</sup> López, T., BN, 7.311 eskbu., 262. or. atz.

<sup>48</sup> AHN, Consejos, 1.941. leg. (22).

<sup>49</sup> *Ibidem*, 635. leg. (6).

<sup>50</sup> 1798an Altubeko Gasteiz-Bilbo errepidea egiten ari ziren; honakoa zioten Gasteiz-Murgia zatiari buruz: «que por él y parajes que antes heran mui escabrosos y peligrosos transitaban ahora con maior seguridad y combeniencia los viajeros con coche, carruajes y caballerías». Bidea ez hondatzeko iltze irtenik ez zuten hiru hazbete lodierako uztaiak erabiltzera behartzen zuten. AAA, H. 54.

<sup>51</sup> Lekeitioko Udal Artxiboa, 50. erregistroa, 52. or.

<sup>52</sup> *Ibidem*, 11. erregistroa, 11. zkia.

**Herri horietako aduanen baloreak marabeditan**  
(Errenta orokorrak + Errege Almirantea + Arrain milioiak)<sup>53</sup>

|            | Urduña      | Balmaseda  | Gasteiz    |
|------------|-------------|------------|------------|
| 1764 ..... | 39.194.665  | 54.216.926 | 62.011.274 |
| 1765 ..... | 42.817.548  | 38.936.544 | 58.429.419 |
| 1766 ..... | 47.699.218  | 49.855.234 | 59.542.793 |
| 1767 ..... | 49.912.456  | 51.514.032 | 58.578.497 |
| 1768 ..... | 41.653.122  | 48.957.815 | 54.782.444 |
| 1769 ..... | 43.181.980  | 44.537.632 | 54.850.434 |
| 1770 ..... | 36.040.938  | 47.767.567 | 50.627.601 |
| 1771 ..... | 42.693.527  | 53.051.973 | 50.035.955 |
| 1772 ..... | 58.344.805  | 45.806.703 | 48.540.718 |
| 1773 ..... | 77.605.225  | 47.291.606 | 59.999.820 |
| 1774 ..... | 94.344.693  | 42.746.099 | 64.720.253 |
| 1775 ..... | 92.317.265  | 38.844.729 | 63.333.864 |
| 1776 ..... | 101.181.232 | 42.512.474 | 65.853.377 |
| 1777 ..... | 108.832.976 | 34.359.687 | 58.010.678 |
| 1778 ..... | 104.979.705 | 26.355.883 | 58.323.918 |
| 1779 ..... | 98.470.137  | 18.040.257 | 65.129.463 |
| 1780 ..... | 54.496.225  | 10.643.589 | 95.937.858 |

Urduña irekitzeak (1772an) batez ere probintzia mailan izan zuen eragina, edo oso zona hurbiletan. Aduanetako baloreek erakusten diguten bezala, Urduñako bidetik egiten zen trafikoak, Balmasedakotik beheraxeago zegoenak, Bilbo eta Ipar azpimesetaren artean garraiatutako salgai gehiena bereganatu zuen 1772tik aurrera eta, horren ondorioz, Enkarterrietako bidea bigarren mailan gelditu zen. Gainera, Urduñako bide berriak Debako merkataritza porrotera eramán zuen; hona hemen zenbaterainoko eragina izan zuen: «en el día es casi ninguno el comercio, a excepción del que pocos años ha empezado a hacerse por los comerciantes de Vitoria por este puerto el mas cercano a aquella Ciudad... al favor de nuevo camino de coches que han costado esta villa y las demas hasta Vergara»<sup>54</sup>. Ondorio berak nabari ziren 1802an: «mas con motivo de haberse abierto la peña de Orduña, y construídose el camino real de Bilbao, se alzó esta villa con el comercio que ántes tenia la de Deva, sin embargo que hoy, en que se hallan corrientes los caminos que á ella se dirigen, empieza á animarse un poco el comercio, siempre llevado de la mayor proximidad al centro de la península»<sup>55</sup>. Dena dela, Gipuzkoako erdiak eta ekialdeak Araba, Errioxa eta

<sup>53</sup> SAO, Dirección General de Rentas, lehenengo sorta, 2.535. leg. eta hurr.

<sup>54</sup> López, T., BN, 7.311 eskbu., Deba art.

<sup>55</sup> *Diccionario R. A. H.*, I. libk., 222 or., Deba art.



Gaztela Zaharrarekin zituzten harremanek ez zuten eraginik jasan, Gasteizko baloreetatik antzeman daitekeenaren arabera; balore horietan Gipuzkoako aduanatxoetakoak ere agertzen dira.

Trafikoa handitzeak, bide berrituen alboetan bizi zen makina bat nekazariren bizimodua aldatu zuen, nekazari-lanak utzi zituztelarik. Arrasateko hainbat biztanle garia, artoa, garragarra, zura, artilezko zakuak, fanderia eta «errepide hau irekitzeak erakarri eta eman duen merkataritza-trafikoaren salgaiak» garraiatzetik bizi ziren. Mutrikun «arraingintza hirukoiztu egin da 30 urtetik hona» eta horren arrazoia «bideak irekitzea» da. Bide berriek, trafikoak, zenbait gauza adierazi nahi dute: diru-ekonomia, salerosketa eta espekulazioak, hau da, nekazariaren bizimodua erabat aldatzea, batzuek begi onez ikusten ez zutena; Lizartzako udalak hauxe idatzi zion Vargas Ponceri 1801ean: herria «esta situado en el nuevo camino y en el lugar de sacar gran provecho de el es causa de su ruina; abandonando los labradores el trabajo de campo se meten en arriendos y se entregan a sus pequeños vicios que los destruyen»<sup>56</sup>.

### Trafikoaren gaineko eskubide feudal eza

Bidesariak eta arielak merkataritza-trafikoaren gainean ezartzea bideak hobetzearen ondorio izan zen eta ez eskubide feudalek bizirik jarraitzearena. Bizkaiak ez zuen alkabalik ordaindu behar, eta Gipuzkoakoak Joana erreginarenean garaian enkabezatu zirenez, ordutik aurrera ezin zen bere zenbatekoa aldatu. Euskal Herrian, beraz, ez zegoen ia salgaien gaineko zeharkako zergarik, Araban izan ezik. 1687ko auzi batean, Mañariko eta Otxandioko mandazainek onartu zuten Gasteizera eramaten zuten burdinak karga bakoitzeko hemeretzi kuartoko gainordaina jasaten zuela, hamazazpi alkabala modura eta bi pisuagatik; dena dela, haietako batek argitzen du «lekukoak astero bi joan-etorri eta aste askotan hiru egiten dituenez» aduanako errentariarekin akordio batera iritsi zela eta «zama bakoitzeko erreal bat» ordaintzen ziola, «eta Otxandioko mandazain eta merkataria askok ia antzeko akordioa zutela», hau da, ezarririkoa baino hamabost kuarto gutxiago ordaintzen zutela<sup>57</sup>. Urduñan burdin zama bakoitzeko bidesaria hamar marabedikoa zen<sup>58</sup>.

1763ko ekainean eta uztailan «Reinosatik» Lekeitioko udal-bihitegira ekarritako 1.117 anegagaitik 131-14 erreal ordaindu zioten Santanderreko Komentuari zerga modura; kopuru hori gariaren balio osoaren %0,36 izan zen, garraio-kostuak barne zeudela, beraz, balio handirik gabekoa.

---

<sup>56</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, XXIV eta XXXIII. libk.

<sup>57</sup> Altube, *Ensayo histórico... de Guernica*, 1913, 181-184. orr.

<sup>58</sup> GBEA, ETPSV, 3. zkia., 1810. urtea.

### Garia itsasoz garraiatzearen zergak eta kostuak

| Q          | P | Q × P  | (1)    | (2)  | (3)   | (4)  | (5)    | (6)      | Guztira   |
|------------|---|--------|--------|------|-------|------|--------|----------|-----------|
| 373 × 27 = |   | 10.071 | 43-30  | 7    | 746   | 4    | 55     | 93- 8 =  | 11.020- 4 |
| 389 × 29 = |   | 11.281 | 45-26  | 7    | 778   | 4    | 57- 7  | 97- 8 =  | 12.270- 7 |
| 355 × 34 = |   | 12.070 | 41-26  | 7    | 710   | 4    | 52- 7  | 88-25 =  | 12.973-24 |
| 1.117      |   | 33.422 | 131-14 | 21   | 2.234 | 12   | 164-14 | 279- 7 = | 36.264- 1 |
| %          |   | 92,16  | 0,36   | 0,05 | 6,16  | 0,03 | 0,47   | 0,77     | 100       |

Q = Anega-kopurua

P = Prezioa anegako, errealetan.

(1) = 4 marabedi zergatan Santanderreko Komentuari.

(2) = 7 erreal itsasontziaren beste horrenbeste tonako.

(3) = Pleita, 2 erreal anegako.

(4) = 4 erreal igorpenagatik.

(5) = 5 marabedi anegako udal-bihitegira eramateagatik.

(6) = Kuarto txiki bat anegatan udal-bihitegiko administrariari erosteagatik.

### Jabego errejimena

Euskal Herria eta, Galiziako minifundioa izan ezik, oro har Penintsulako iparraldea, lur-jabe txikien zona bezala ageri dira tradizioz. Mito hori Bowlesengandik datorkigu, hein handi batean: «Etxe hauetako gehienetan [Bizkaikoetan] jabeak berak bizi dira eta bertako ondasunak jabeek berek lantzen dituzte, zeini Etxejauna deitzen baitzaie, hau da, etxeetako jaunak, eta beren familiek antzinatik izan dituzte etxe horiek eta pentsatzekoa da beren ondorengoek ere izango dituztela, zeren gaizki ikusia baitago arbasoen etxea eta ondasunak besteri ematea»<sup>59</sup>. Eta, Labordek, idazle ingelesaren liburuan zehar bidaia asko egin zuenak, honakoa itzuli eta laburtu zuen, nekaturik hain bidaia gogorak zirela-eta: «La plupart de ces maisons et de leurs dépendances sont habitées par des propriétaires, dont les familles les possèdent depuis un temps immémorial»<sup>60</sup>.

Lurraren banaketa erabakigarria da bertatik datozen diru-sarrerak nola banatzen diren aztertzeko orduan. Errentak bikoiztu eta hirukoiztu egin daitezke mendean zehar eta prezioak gainditu ere bai; baserritar gehienak jabeak badira, ustiatzaile ez diren lur-jabeek jasotako soberakina txikia izaten da; ez da gauza bera gertatzen baserri gehienak errentan badaude. Prezioen eta errenten gorabeherak nekazari jendearengan dituzten ondorioak desberdinak dira kasu batean eta bestean. Horregatik funtsezkoa da jakitea zenbat nekazari ziren lur-jabe.

<sup>59</sup> Bowles, G., *op. cit.*, 318. or.

<sup>60</sup> Laborde, *op. cit.*, II. libk., 105. or.; frantziarraren plajio traketsaren beste froga bat da.

XVIII. mendearen hasierako iturria 1704ko su-zenbaketa da; bertan, herri askoren gainean, onibarrean zegoena jabe ala maizterra zen zehazten da. Antzeko fenomenoak gertatzen da Arabako 1733-1737ko zenbaketatik. Azken datua 1860ko errolda da eta tartean —1810— jabegoari buruzko estatistika bat dago, baina, zoritxarrez, herri gutxitan bereizten da kategoriatan eta besteak. Garbi utzi behar da kasu guztietan sailkapena pertsonen kategoriarik dagokiola eta ez dakigula ezer lur-jabeek landutako azaleraz eta errentan emanda zegoenaz; hala ere errealitatearen primeran hurbiltzen gaituzte.

### Jabegoaren banaketa biztanle bakoitzeko Bizkaian 1704an

|                            | L    | M    | ?               | G    | %L    | %M    | %?    |
|----------------------------|------|------|-----------------|------|-------|-------|-------|
| Abadiño.....               | 102  | 94   | 3               | 199  | 51,26 | 47,24 | 1,50  |
| Ajangiz.....               | 27   | 39   |                 | 66   | 40,90 | 59,10 |       |
| Amoroto.....               | 34   | 23   |                 | 57   | 59,65 | 40,35 |       |
| Apatamonasterio...         | 12   | 7    | 3               | 22   | 54,54 | 31,82 | 13,64 |
| Arantzazu.....             | 17   | 16   |                 | 33   | 51,52 | 48,48 |       |
| Arbatzegi.....             | 37   | 13   |                 | 50   | 74,00 | 26,00 |       |
| Areatza.....               | 36   | 69   | 1               | 106  | 33,96 | 65,10 | 0,94  |
| Arratzu.....               | 57   | 30   |                 | 87   | 65,52 | 34,48 |       |
| Arrazola.....              | 30   | 15   |                 | 45   | 66,67 | 33,33 |       |
| Arrieta <sup>a</sup> ..... | (31) | (14) |                 | (45) | 68,89 | 31,11 |       |
| Arrigorriaga.....          | 36   | 110  | 17              | 163  | 22,09 | 67,48 | 10,43 |
| Arteaga.....               | 63   | 25   |                 | 88   | 71,59 | 28,41 |       |
| Aulesti.....               | 87   | 47   | 5               | 139  | 62,59 | 33,81 | 3,60  |
| Bakio.....                 | 57   | 66   |                 | 123  | 46,34 | 53,66 |       |
| Barakaldo.....             | 79   | 80   | 3               | 162  | 48,77 | 49,38 | 1,85  |
| Basauri.....               | 5    | 43   | 15 <sup>b</sup> | 63   | 7,94  | 68,25 | 23,81 |
| Bedaroa + Ea.....          | 14   | 15   | 6               | 35   | 40,00 | 42,86 | 17,14 |
| Begoña.....                | 9    | 193  | 1               | 203  | 4,43  | 95,07 | 0,50  |
| Bermeo.....                | 167  | 159  | 22              | 348  | 47,99 | 45,69 | 6,23  |
| Berriatua.....             | 64   | 58   |                 | 122  | 52,46 | 47,54 |       |
| Berriz.....                | 116  | 54   | 3               | 173  | 67,05 | 31,21 | 1,74  |
| Busturia.....              | 51   | 58   |                 | 109  | 46,79 | 53,21 |       |
| Derio.....                 | 17   | 34   |                 | 51   | 33,33 | 66,67 |       |
| Deustua.....               | 19   | 97   | 8               | 124  | 15,32 | 78,23 | 6,45  |
| Dima.....                  | 135  | 109  | 3               | 247  | 54,66 | 44,13 | 1,21  |
| Durango.....               | 85   | 288  | 5               | 378  | 22,49 | 76,19 | 1,32  |
| Durangoko Axpe...          | 40   | 11   |                 | 51   | 78,43 | 21,57 |       |
| Elorrio <sup>c</sup> ..... | 185  | 106  | 2               | 293  | 63,14 | 36,18 | 0,68  |
| Ereño.....                 | 44   | 18   |                 | 62   | 70,97 | 29,03 |       |
| Ermua.....                 | 19   | 33   |                 | 52   | 36,54 | 63,46 |       |
| Errigoiti.....             | 54   | 32   |                 | 85   | 62,79 | 37,21 |       |
| Etxebarri.....             | 4    | 21   |                 | 25   | 16,00 | 84,00 |       |

|                                  | L    | M    | ? | G    | %L    | %M    | %?   |
|----------------------------------|------|------|---|------|-------|-------|------|
| Fika .....                       | 11   | 14   |   | 25   | 44,00 | 56,00 |      |
| Forua .....                      | 36   | 19   | 1 | 56   | 64,28 | 33,93 |      |
| Fruiz .....                      | 30   | 15   |   | 45   | 66,67 | 33,33 |      |
| Galdakao .....                   | 38   | 57   |   | 95   | 40,00 | 60,00 |      |
| Gamiz .....                      | 50   | 24   |   | 74   | 67,57 | 32,43 |      |
| Garai .....                      | 31   | 13   |   | 44   | 70,45 | 29,55 |      |
| Gatika .....                     | 59   | 31   |   | 90   | 65,56 | 34,33 |      |
| Gaztelu-Elexabeiti ..            | 25   | 41   |   | 66   | 37,88 | 62,12 |      |
| Gernika .....                    | 25   | 90   |   | 115  | 21,74 | 78,26 |      |
| Gerrikaitz .....                 | 30   | 11   |   | 41   | 73,17 | 26,83 |      |
| Gizaburuaga .....                | 10   | 16   |   | 26   | 38,46 | 61,54 |      |
| Gordexola .....                  | 106  | 108  | 7 | 221  | 47,96 | 48,87 | 3,17 |
| Gorliz .....                     | 60   | 7    |   | 67   | 89,55 | 10,45 |      |
| Ibarrang. + El. ....             | 115  | 42   |   | 157  | 73,25 | 26,75 |      |
| Igorre .....                     | 59   | 66   | 3 | 128  | 46,09 | 51,56 | 2,35 |
| Ipazter .....                    | 70   | 61   |   | 131  | 53,44 | 46,56 |      |
| Iurreta .....                    | 48   | 42   |   | 90   | 53,33 | 46,67 |      |
| Izurtza .....                    | 16   | 23   | 2 | 41   | 39,02 | 56,09 | 4,88 |
| Jatabe .....                     | 38   | 22   |   | 60   | 63,33 | 36,67 |      |
| Kortezubi .....                  | 54   | 31   |   | 85   | 63,53 | 36,47 |      |
| Larrabezua .....                 | 72   | 48   |   | 120  | 60,00 | 40,00 |      |
| Laukiz .....                     | 30   | 14   |   | 44   | 68,18 | 31,82 |      |
| Lekeitio .....                   | 146  | 122  |   | 268  | 54,48 | 45,52 |      |
| Lemoiz <sup>d</sup> .....        | 37   | 12   |   | 49   | 75,51 | 24,49 |      |
| Lezama .....                     | 38   | 50   |   | 88   | 43,18 | 56,82 |      |
| Lumo .....                       | 26   | 37   | 1 | 64   | 40,63 | 57,81 | 1,56 |
| Mallabia .....                   | 56   | 33   | 8 | 97   | 57,73 | 34,02 | 8,25 |
| Mañaria .....                    | 61   | 20   | 2 | 83   | 73,49 | 24,10 | 2,41 |
| Markin-Etxebarri...              | 62   | 44   | 2 | 108  | 57,41 | 40,74 | 1,85 |
| Markina .....                    | 65   | 111  | 9 | 185  | 35,14 | 60,00 | 4,86 |
| Mendata .....                    | 53   | 33   |   | 86   | 61,63 | 38,37 |      |
| Mendexa .....                    | 23   | 22   |   | 45   | 51,11 | 48,89 |      |
| Meñaka .....                     | 30   | 20   |   | 50   | 60,00 | 40,00 |      |
| Morga .....                      | 34   | 10   |   | 44   | 77,27 | 22,73 |      |
| Mundaka .....                    | 51   | 31   |   | 82   | 62,20 | 37,80 |      |
| Mungia ai .....                  | 7    | 57   | 6 | 70   | 10,00 | 81,43 | 8,57 |
| Mungia v. ....                   | 127  | 77   | 1 | 205  | 61,95 | 37,56 | 0,49 |
| Murueta .....                    | 21   | 17   |   | 38   | 55,26 | 44,74 |      |
| Muxika .....                     | 56   | 47   | 2 | 105  | 53,33 | 44,76 | 1,91 |
| Nabarriz .....                   | 58   | 8    |   | 66   | 87,88 | 12,12 |      |
| Natxitua + Ea. <sup>e</sup> .... | (35) | (13) |   | (48) | 72,92 | 27,08 |      |
| Ondarroa .....                   | 50   | 55   |   | 105  | 47,62 | 52,38 |      |
| Otxandio <sup>f</sup> .....      | 65   | 78   | 3 | 146  | 44,52 | 53,42 | 2,06 |
| Sukarrieta .....                 | 21   | 8    |   | 29   | 72,41 | 27,59 |      |
| Ubide .....                      | 13   | 5    | 1 | 19   | 68,42 | 26,32 | 5,26 |
| Urduña <sup>g</sup> .....        | 155  | 141  | 1 | 297  | 52,19 | 47,47 | 0,34 |

|                         | L   | M  | ?               | G   | %L    | %M    | %?    |
|-------------------------|-----|----|-----------------|-----|-------|-------|-------|
| Xemein . . . . .        | 56  | 39 | 5               | 100 | 56,00 | 39,00 | 5,00  |
| Zaldu . . . . .         | 38  | 25 | 4               | 67  | 56,72 | 37,31 | 5,97  |
| Zamudio . . . . .       | 54  | 78 |                 | 132 | 40,91 | 59,09 |       |
| Zaratamo . . . . .      |     | 19 | 17 <sup>h</sup> |     | 36    | 52,78 | 47,22 |
| Zeanuri . . . . .       | 163 | 89 |                 | 252 | 64,68 | 35,32 |       |
| Zeberio . . . . .       | 27  | 24 |                 | 51  | 52,94 | 47,06 |       |
| Ziortza + Bolibar . . . | 47  | 46 |                 | 93  | 50,54 | 49,46 |       |

<sup>a</sup> Su batzuk ezkutatu izateagatik erroldaren %50aren jabe eta maizterren kopurua baino ez da zehazten.

<sup>b</sup> Ziur asko, lur-jabeak.

|                         | L   | M  | ? |
|-------------------------|-----|----|---|
| Hiribildua . . . . .    | 80  | 79 | 1 |
| Hiru kofradia . . . . . | 105 | 27 | 1 |

<sup>d</sup> Mungiako hiribilduan erroldatutakoak izan ezik.

<sup>e</sup> Natxituari dagokion Eako zatia izan ezik.

<sup>f</sup> Jabe-maizter arteko erlazioa zalantzazkoa da.

|                         | L   | M   | ? |
|-------------------------|-----|-----|---|
| Hiribildua . . . . .    | 105 | 138 | 1 |
| Belandia . . . . .      | 17  | 3   |   |
| Lendoño de Arriba . . . | 5   |     |   |
| Lendoño de Abajo . . .  | 14  |     |   |
| Mendeika . . . . .      | 14  |     |   |

<sup>h</sup> Ziur asko, jabeak.

### Jabego errejimena Bizkaian 1704an (laburpena)

|  | L            | M            | ?          | Guztira      | %L           | %M           | %?          |
|--|--------------|--------------|------------|--------------|--------------|--------------|-------------|
| Busturiako 32 herri . . . .            | 1.524        | 1.091        | 15         | 2.630        | 57,95        | 41,48        | 0,57        |
| Arratiako 8 herri <sup>1</sup> . . . . | 475          | 419          | 8          | 902          | 52,66        | 46,45        | 0,89        |
| Markinako 3 herri . . . .              | 183          | 194          | 16         | 393          | 46,57        | 49,36        | 4,07        |
| Enkarterrietako herri bat              | 106          | 108          | 7          | 221          | 47,96        | 48,87        | 3,17        |
| Urduñako herri bat . . . .             | 155          | 141          | 1          | 297          | 52,19        | 47,47        | 0,34        |
| Durangoko 14 herri . . . .             | 839          | 763          | 32         | 1.634        | 51,35        | 46,69        | 1,96        |
| Uribeko 25 herri . . . . .             | 1.074        | 1.348        | 90         | 2.512        | 42,76        | 53,66        | 3,58        |
| <i>Bizkaiko 84 herri . . . . .</i>     | <i>4.356</i> | <i>4.064</i> | <i>169</i> | <i>8.589</i> | <i>50,71</i> | <i>47,32</i> | <i>1,97</i> |

<sup>1</sup> Otxandio gabe, bertako zifrak zalantzazkotzat jotzen baitituz.

L Lur-jabeak.

M Maizterrak.

? Zalantzazkoak.

%L Lur-jabeen ehunekoa.

%M Maizterren ehunekoa.

%? Zalantzazkoen ehunekoa.

### Jabego errejimena Araban 1733-1737

| Ermandadeak                 | L     | M     | J     | P   | B     | Guztira |
|-----------------------------|-------|-------|-------|-----|-------|---------|
| Agurain .....               | 27    | 93    | 111   | 12  | 66    | 309     |
| Aiara .....                 | 687   | 358   |       | 14  | 251   | 1.310   |
| Andollu .....               |       | 11    |       |     |       | 11      |
| Añana .....                 | 2     | 41    | 17    | 2   | 19    | 81      |
| Aramaio .....               | 66    | 82    | 78    | 9   | 39    | 274     |
| Arana .....                 | 49    | 86    | 15    | 2   | 32    | 184     |
| Ariniz .....                | 1     | 29    | 4     | 1   | 6     | 41      |
| Arraia-Laminoria .....      | 38    | 211   | 27    | 5   | 107   | 388     |
| Arratzu .....               | 6     | 50    | 7     | 2   | 38    | 103     |
| Artziniega .....            | 56    | 21    |       | 25  | 16    | 118     |
| Asparren .....              | 16    | 158   | 17    | 8   | 69    | 268     |
| Badayoz .....               | 10    | 109   | 20    | 1   | 45    | 185     |
| Barrundia .....             | 37    | 104   | 26    | 4   | 26    | 197     |
| Belloxin .....              |       | 5     |       |     | 1     | 6       |
| Beranturi .....             | 6     | 130   | 13    |     | 25    | 174     |
| Bergonda-Fontetxa .....     | 1     | 51    | 9     | 2   | 15    | 78      |
| Bernedo .....               | 6     | 58    | 12    | 3   | 47    | 126     |
| Biasteri .....              | 261   | 163   | 406   | 154 | 141   | 1.125   |
| Burandon Gatzaga .....      | 6     | 40    | 9     |     | 12    | 67      |
| Donemiliaga .....           | 25    | 235   | 13    | 27  | 87    | 387     |
| Erribera .....              | 19    | 357   | 3     | 27  | 144   | 550     |
| Estabelu-Aramiñon .....     | 2     | 29    | 1     | 2   | 16    | 50      |
| Ganboa .....                | 6     | 90    | 17    | 1   | 18    | 132     |
| Gasteiz, hiririk gabe ..... | 9     | 543   | 17    | 34  | 197   | 800     |
| Gaubea .....                | 6     | 366   | 47    | 17  | 43    | 479     |
| Gebara .....                | 3     | 40    | 13    | 3   | 17    | 76      |
| Iruña .....                 | 3     | 36    | 2     |     | 8     | 49      |
| Iruraitz .....              | 25    | 248   | 31    | 10  | 72    | 386     |
| Ixona .....                 | 1     | 16    | 3     |     | 1     | 21      |
| Kanpezu .....               | 42    | 172   | 46    | 25  | 46    | 331     |
| Koartango .....             | 5     | 124   | 5     | 6   | 79    | 219     |
| Labraza-Gorrebusto .....    | 16    | 13    | 8     | 5   | 6     | 48      |
| Lacozmonte .....            | 5     | 53    | 7     | 2   | 22    | 89      |
| Larrinzar .....             |       | 5     | 3     |     | 1     | 9       |
| Latxa eta Barria .....      |       | 1     |       |     |       | 1       |
| Laudio .....                | 113   | 83    |       | 18  | 56    | 270     |
| Legutio .....               | 3     | 63    | 54    | 22  | 18    | 160     |
| Martioda .....              |       | 10    |       |     | 2     | 12      |
| Mendiola .....              |       | 1     |       |     | 1     | 2       |
| Mendoza .....               | 1     | 28    | 5     | 3   | 12    | 49      |
| Morillas .....              | 2     | 34    | 7     |     | 14    | 57      |
| Okia .....                  | 1     | 6     |       |     | 2     | 9       |
| Oto Barren eta Goien .....  | 1     | 19    |       | 3   | 5     | 28      |
| Portilla .....              | 1     | 19    |       |     | 4     | 24      |
| Tierras del Conde .....     | 96    | 183   | 199   | 35  | 142   | 655     |
| Tuiu .....                  | 1     | 14    | 1     |     | 3     | 19      |
| Ubarrundia .....            | 7     | 69    | 22    | 10  | 33    | 141     |
| Urkabustaiz .....           | 13    | 64    | 90    |     | 20    | 187     |
| Zigoitia .....              | 33    | 186   | 48    | 9   | 56    | 332     |
| <i>Guztira</i> .....        | 1.714 | 4.907 | 1.413 | 503 | 2.080 | 10.617  |

**Jabego errejimena Araban 1733-1737. urtetan, ehunekotan**

| Ermandadeak                         | %L    | %M    | %J    | %P    | %B    |     |
|-------------------------------------|-------|-------|-------|-------|-------|-----|
| Agurain                             | 8,74  | 30,10 | 35,92 | 3,88  | 21,36 | 100 |
| Aiara                               | 5,83  | 48,54 | 6,80  | 1,94  | 36,89 | 100 |
| Andollu                             |       | 100   |       |       |       | 100 |
| Añana                               | 2,47  | 50,62 | 20,99 | 2,47  | 23,45 | 100 |
| Aramaio                             | 24,09 | 29,93 | 28,47 | 3,28  | 14,23 | 100 |
| Arana                               | 26,63 | 46,74 | 8,15  | 1,09  | 17,39 | 100 |
| Ariniz                              | 2,44  | 70,73 | 9,76  | 2,44  | 14,63 | 100 |
| Arraia-Laminoria                    | 9,79  | 54,38 | 6,96  | 1,29  | 27,58 | 100 |
| Arratzu                             | 52,44 | 27,33 |       | 1,07  | 19,16 | 100 |
| Artziniega                          | 47,46 | 17,79 |       | 21,19 | 13,56 | 100 |
| Asparren                            | 5,97  | 58,96 | 6,34  | 2,98  | 25,75 | 100 |
| Badayoz                             | 5,41  | 58,92 | 10,81 | 0,54  | 24,32 | 100 |
| Barrundia                           | 18,78 | 52,79 | 13,20 | 2,03  | 13,20 | 100 |
| Belloxin                            |       | 83,33 |       |       | 16,67 | 100 |
| Beranturi                           | 3,45  | 74,71 | 7,47  |       | 14,37 | 100 |
| Bergonda-Fontetxa                   | 1,28  | 65,39 | 11,54 | 2,56  | 19,23 | 100 |
| Bernedo                             | 4,76  | 46,03 | 9,53  | 2,38  | 37,30 | 100 |
| Biasteri                            | 23,20 | 14,49 | 36,09 | 13,69 | 12,53 | 100 |
| Burandon Gatzaga                    | 8,96  | 59,70 | 13,43 |       | 17,91 | 100 |
| Donemiliaga                         | 6,46  | 60,72 | 3,36  | 6,98  | 22,48 | 100 |
| Erribera                            | 3,45  | 64,91 | 0,55  | 4,91  | 26,18 | 100 |
| Estabelu-Aramiñon                   | 4,00  | 58,00 | 2,00  | 4,00  | 32,00 | 100 |
| Ganboa                              | 4,54  | 68,18 | 12,88 | 0,76  | 13,64 | 100 |
| Gasteiz, hiririk gabe               | 1,12  | 67,88 | 2,13  | 4,25  | 24,62 | 100 |
| Gaubea                              | 1,25  | 76,41 | 9,81  | 3,55  | 8,98  | 100 |
| Gebara                              | 3,95  | 52,63 | 17,10 | 3,95  | 22,37 | 100 |
| Iruña                               | 6,12  | 73,47 | 4,08  |       | 16,33 | 100 |
| Iruraitz                            | 6,48  | 64,25 | 8,03  | 2,59  | 18,65 | 100 |
| Ixona                               | 4,76  | 76,19 | 14,29 |       | 4,76  | 100 |
| Kanpezu                             | 12,69 | 51,96 | 13,90 | 7,55  | 13,90 | 100 |
| Koartango                           | 2,29  | 56,62 | 2,28  | 2,74  | 36,07 | 100 |
| Labraza-Gorrebusto                  | 33,33 | 27,08 | 16,67 | 10,42 | 12,50 | 100 |
| Lacozmote                           | 5,62  | 59,55 | 7,86  | 2,25  | 24,72 | 100 |
| Larrinzar                           |       | 55,56 | 33,33 |       | 11,11 | 100 |
| Latxa eta Barria                    |       | 100   |       |       |       | 100 |
| Laudio                              | 41,85 | 30,74 |       | 6,67  | 20,74 | 100 |
| Legutio                             | 1,87  | 39,38 | 33,75 | 13,75 | 11,25 | 100 |
| Martioda                            |       | 83,33 |       |       | 16,67 | 100 |
| Mendiola                            |       | 50,00 |       |       | 50,00 | 100 |
| Mendoza                             | 2,04  | 57,14 | 10,21 | 6,12  | 24,49 | 100 |
| Morillas                            | 3,51  | 59,65 | 12,28 |       | 24,56 | 100 |
| Okia                                | 11,11 | 66,67 |       |       | 22,22 | 100 |
| Oto Barren eta Goien                | 3,57  | 67,86 |       | 10,71 | 17,86 | 100 |
| Portilla                            | 4,16  | 79,17 |       |       | 16,67 | 100 |
| Tierras del Conde                   | 14,66 | 27,94 | 30,38 | 5,34  | 21,68 | 100 |
| Tuiu                                | 5,26  | 73,69 | 5,26  |       | 15,79 | 100 |
| Ubarrundia                          | 4,97  | 48,94 | 15,60 | 7,09  | 23,40 | 100 |
| Urkabustaiz                         | 6,95  | 34,22 | 48,13 |       | 10,70 | 100 |
| Zigoitia                            | 9,94  | 56,02 | 14,46 | 2,71  | 16,87 | 100 |
| <i>Batez bestekoa, Gasteiz gabe</i> | 16,14 | 46,22 | 13,31 | 4,74  | 19,59 | 100 |

L: Lur-jabeak; M: Maizterrak; J: Jornalariak; P: Pobreak; B: Bestelakoak

Bizkaian, guztira ehun eta hogeita zazpi herritik laurogeita lau azalzen dira laginean. Leku horietan, biztanleen %50,71, lantzen zuten lurra-  
ren jabe ziren mende hasieran; %47,32k errentan hartuta zuten eta  
sailkatzeko zaila den %1,97 gelditzen da. *Grosso modo*, finken erdiak  
lur-jabeek landuak ziren zuzenean. Oro har, ez dago desberdintasun handi-  
rik merindadeen artean, gehienez Busturiakoan lur-jabeak %57,95 zire-  
larik eta gutxienez Uriben %42,76. Badira, ordea, desberdintasun naba-  
riak tokien arabera. Bilbo inguruko eremu zabal batean oso nekazari gutxi  
ziren lurren jabe: Basauri (%7,94), Begoña (%4,43), Deustua (%15,32),  
Etxebarri (%16) eta Arrigorriaga (%22,09), eta gauza bera gertatzen  
zen zenbait hiribildutan: Durangon (%22,49), Ermuan (%36,54), Gernikan  
(%21,74), Markinan (%35,14), Mungian (%10) eta Areatzan (%33,96).  
Antzeko egoera hauek ez ziren kasualitatez gertatzen: merkataritza-jar-  
duera garrantzizkoa zen lekuetan nekazarien lur-jabegoak atzera egiten  
zuen. Probintziako beste lekuetan ehunekoak ausaz banatzen ziren, lurra  
lantzen zuten jabeen kopuru altuena honako lekuotan agertzen delarik: Ar-  
batzezin (%74), Arteagan (%71,59), Durangoko Axpen (%78,43), Ereñon  
(%70,96), Garain (%70,45), Gorkizen (%89,55), Gerrikaitzen (%73,17),  
Lemoizen (%75,51), Mañarian (%73,49), Morgan (%77,27), Nabarrizen  
(%87,88), Natxitua-Ean (%72,92), Sukarrietan (%72,41) eta Ibarangelu-  
Elantxoben (%73,25). Beraz, hala kostaldeko herrietan —batzuk arran-  
tzuan aritzen zirenak—, nola barrualdeko herrietan —gehienak nekazari-  
tzan aritzen zirenak—.

Araban, 1733 eta 1737. urteen artean, lau ermandaderi eta Gasteizko  
hiriari<sup>61</sup> dagozkion datuak agertzen ez direlarik, ondokoa dugu:

|                       | Biztanleak | %     |       | %     |
|-----------------------|------------|-------|-------|-------|
| Lur-jabeak . . . . .  | 1.714      | 16,14 | 1.714 | 25,89 |
| Maizterrak . . . . .  | 4.907      | 46,22 | 4.907 | 74,11 |
| Jornalariak . . . . . | 1.413      | 13,31 | —     | —     |
| Pobreak . . . . .     | 503        | 4,74  | 6.621 | 100   |
| Bestelakoak . . . . . | 2.080      | 19,59 |       |       |

Bizkaiarekiko desberdintasunak ikaragarriak dira oro har eta handia-  
goak konparazioa herrien artean egiten badugu. Arabako datuek ñabardu-  
ra gehiago dute eta zehazgabetasun-maila handiagoa (%19,59 «denetarik»

<sup>61</sup> Datu gehienak 1737ko zenbaketatik jasoak ditugu. Zenbaketa hori 1733koaren zuzenke-  
ta da, baina erabili dugun laburpena, gaur egun eskura dugun bakarra, 1733ko errolda berriro  
islatzea baino ez zen batzuetan. Errolda bien arteko denbora laburra denez gero, erroreak txi-  
kiak dira.



sailean sartzen da), baina ez ziren lur-jabeak, normalean artisauak edo lur-jabe edo maizter baten etxean bizi zen jendea baizik. Gauza bera gertatzen da zona batzuetako jornalariekin, esaterako, Aramaion (%28,47), edo Amurrion, Lezaman, Lantenon eta Okondon, hau da, Araban artoa lantzen zen eremuan. Etxe eta sail bateko maizterrak dira, baina, funtsean, egun-saritik bizi ziren. Horiek ez ziren Bizkaian besteengandik bereizten, maizterren taldearen barruan sartzen ziren.

Oro har, hiru zona bereiz ditzakegu:

a) Lurra lantzen duten jabe nekazariak %50 gutxi gorabehera diren eremua: Bizkaiko zatirik handiena eta Araban, Aiara, Artziniega eta Lau-dioko ermandadeak.

b) Jornalariak biztanleen %25 edo gehiago diren eremua: Aramaio, Biasteri, *Tierras del Conde*, Agurain, Legutio, Urkabustaiz eta Larrinzar. Lehenengo hirurek jabeak eta maizterrak orekan dauden talde bat osatuko lukete; aitzitik, gainontzekoek, lurra lantzen duten jabeen kopuruaren ikuspuntutik begiratuta, hirugarren zonaren antza dute oso gutxi baitira. Garbi dago Biasterin eta *Tierras del Conde*-n mahatsondoa dela biztanleriaren zati handi bat proletario eta pobre bilakatzearen arrazoia. Eremu honetan produkzio-harremanak kapitalistak dira dagoeneko. Lurra lantzen duten jabeek eta maizterrek bertatik eta kanpotik —galziarrak batez ere— hartutako soldatapeko laneskua erabiltzen dute, dirutan ordaindua dena, eta uzta gehiena saltzeko da.

c) Maizterrak gehiago diren eremua: ia Arabako gainontzeko zona, hainbat desberdintasun badira ere, lur-jabeen kopurua ia laurden bat izatera —Arana—, edo bat ere ez izatera irits baitaiteke —Andollu, Latxa eta Barria, baina batez ere Gasteiz—. Bitxia da lur-jabeak %10 baino gehiago diren ermandadea. Ogia lantzen duten zonak dira, ez dute ez artorik ez mahastirik. Muturreko adibidea, Bizkaian Bilbotik gertu zeuden elizateekin gertatzen zen legez, Gasteiz inguruko herriak dira: hiria kenduta, berrogeita hiru herritan bizi diren zortziehun biztanletik lurra lantzen zuten bederatzi jabe baino ez daude zenbatuta, hau da, %1,12. Berrito ere betetzen da araua. Hiriko kapitala gertuko nekazaritzan sakon-sakon sartu da, nekazariak lur-jabegoa galdu egin dute eta jabe batzuk hirian bizi dira eta errentak merkaturatu egiten dituzte; kasu honetan espezieetan kobratzen dituzte eta beren etxeko ateetan, gainera.

## Lur-jabegoaren bilakaera, garai honetan

1810ean lurraldean egin zen estatistikari esker, 1704an agertutako antzeko datuak lortu dira Bizkaiko hamahiru herrirentzat, eta horren bidez hazkunde-mende honetan izan diren aldaketak ikus ditzakegu. (Ikus A eta B koadroak).

### A Koadroa

| Herria                             | Lur-jabeak |      | Maizterrak |       | Lur-jabeak |        | Maizterrak |          |
|------------------------------------|------------|------|------------|-------|------------|--------|------------|----------|
|                                    | 1704       | 1810 | 1704       | 1810  | 1704       | 1810   | 1704       | 1810     |
| Arteaga .....                      | 63         | 73   | 25         | 79    | 100        | 115,87 | 100        | 316,00   |
| Bedaroa .....                      | 14         | 17   | 15         | 32    | 100        | 121,42 | 100        | 213,33   |
| Berriz .....                       | 116        | 76   | 54         | 130   | 100        | 65,51  | 100        | 240,74   |
| Elorrio, hiribildua ...            | 185        | 111  | 106        | 274   | 100        | 60,00  | 100        | 258,49   |
| Ereño .....                        | 44         | 52   | 18         | 52    | 100        | 118,18 | 100        | 288,88   |
| Forua .....                        | 36         | 40   | 19         | 66    | 100        | 111,11 | 100        | 347,36   |
| Fruiz .....                        | 30         | 19   | 15         | 35    | 100        | 63,33  | 100        | 233,33   |
| Gernika, hiribildua ..             | 25         | 38   | 90         | 161   | 100        | 152,00 | 100        | 178,88   |
| Gorliz .....                       | 60         | 74   | 7          | 130   | 100        | 123,33 | 100        | 1.857,14 |
| Ibarrangelu + Elan-<br>txobe ..... | 115        | 150  | 42         | 149   | 100        | 130,43 | 100        | 354,76   |
| Lezama .....                       | 38         | 31   | 50         | 74    | 100        | 81,57  | 100        | 148,00   |
| Xemein .....                       | 56         | 47   | 39         | 101   | 100        | 83,92  | 100        | 258,97   |
| Ziortza .....                      | 47         | 63   | 46         | 104   | 100        | 134,04 | 100        | 226,08   |
| <i>Guztira</i> .....               | 829        | 791  | 526        | 1.387 | 100        | 95,41  | 100        | 263,68   |

### B Koadroa

|                                    | Lj   | M   | ?     | Guztira | %Lj   | %M    | %?    |       |     |
|------------------------------------|------|-----|-------|---------|-------|-------|-------|-------|-----|
| Arteaga .....                      | 1704 | 63  | 25    | 0       | 88    | 71,59 | 28,41 | 0     | 100 |
|                                    | 1810 | 73  | 79    | 2       | 154   | 47,40 | 51,30 | 1,30  | 100 |
| Bedaroa .....                      | 1704 | 14  | 15    | 6       | 35    | 40,00 | 42,86 | 17,14 | 100 |
|                                    | 1810 | 17  | 32    | 1       | 50    | 34,00 | 64,00 | 2,00  | 100 |
| Berriz .....                       | 1704 | 116 | 54    | 3       | 173   | 67,05 | 31,21 | 1,74  | 100 |
|                                    | 1810 | 76  | 130   | 6       | 212   | 35,85 | 61,32 | 2,83  | 100 |
| Elorrio .....                      | 1704 | 185 | 106   | 2       | 293   | 63,14 | 36,18 | 0,68  | 100 |
|                                    | 1810 | 111 | 274   | 1       | 386   | 28,76 | 70,98 | 0,26  | 100 |
| Ereño .....                        | 1704 | 44  | 18    | 0       | 62    | 70,97 | 29,03 | 0     | 100 |
|                                    | 1810 | 52  | 52    | 0       | 104   | 50,00 | 50,00 | 0     | 100 |
| Forua .....                        | 1704 | 36  | 19    | 1       | 56    | 64,28 | 33,93 | 1,79  | 100 |
|                                    | 1810 | 40  | 66    | 1       | 107   | 37,38 | 61,68 | 0,94  | 100 |
| Fruiz .....                        | 1704 | 30  | 15    | 0       | 45    | 66,67 | 33,33 | 0     | 100 |
|                                    | 1810 | 19  | 35    | 0       | 54    | 35,19 | 64,81 | 0     | 100 |
| Gernika .....                      | 1704 | 25  | 90    | 0       | 115   | 21,74 | 78,26 | 0     | 100 |
|                                    | 1810 | 38  | 161   | 1       | 200   | 19,00 | 80,50 | 0,50  | 100 |
| Gorliz .....                       | 1704 | 60  | 7     | 0       | 67    | 89,55 | 10,45 | 0     | 100 |
|                                    | 1810 | 74  | 130   | 2       | 206   | 35,92 | 63,10 | 0,98  | 100 |
| Ibarrangelu + Elan-<br>txobe ..... | 1704 | 115 | 42    | 0       | 157   | 73,25 | 26,75 | 0     | 100 |
|                                    | 1810 | 150 | 149   | 0       | 299   | 50,17 | 49,83 | 0     | 100 |
| Lezama .....                       | 1704 | 38  | 50    | 0       | 88    | 43,18 | 56,82 | 0     | 100 |
|                                    | 1810 | 31  | 74    | 0       | 105   | 29,52 | 70,48 | 0     | 100 |
| Xemein .....                       | 1704 | 56  | 39    | 5       | 100   | 56,00 | 39,00 | 5,00  | 100 |
|                                    | 1810 | 47  | 101   | 4       | 152   | 30,92 | 66,45 | 2,63  | 100 |
| Ziortza .....                      | 1704 | 47  | 46    | 0       | 93    | 50,54 | 49,46 | 0     | 100 |
|                                    | 1810 | 63  | 104   | 2       | 169   | 37,28 | 61,54 | 1,18  | 100 |
| <i>Guztira</i> .....               | 1704 | 829 | 526   | 17      | 1.372 | 60,42 | 38,34 | 1,24  | 100 |
|                                    | 1810 | 791 | 1.387 | 20      | 2.198 | 35,99 | 63,10 | 0,91  | 100 |

Lj: Lur-jabeak

M: Maizterrak

?: Zalatanzakoak.

%Lj: Lur-jabeen ehunekoak

%M: Maizterren ehunekoak

%?: Zalatanzakoen ehunekoak.

Herri horiek 1704an 1.372 biztanle zituzten eta 1810ean, berriz, 2.198; beraz, %60 hazi ziren. Mende hasieran, lurra lantzen zuten 829 jabe zituzten (%60,42) eta 526 maizter (%38,34) eta 17 sailkatzeko zailak direnak (%1,24). Mende bat geroago honako datuak zituzten hurrenez hurren: 791 (%35,99), 1.387 (%63,10) eta 20 (%0,91). Ehunekoak alderantzizkoak direla esan daiteke. Lur-jabeen kopurua zenbaki absolutuetan txikitu egin zen, 829tik 791ra, hau da, 100etik 95,41era pasatu zen; bestalde, kolonoek gora egin zuten 526tik 1.387ra, 100etik 263,68ra, alegia. Jakina, leku guztietan ez zen bilakaera era berean gertatu. Zortzi lekutan lur-jabeen kopuru absolutua handitu egin zen, baina bostetan batez bestekoaren azpitik jaitsi zen; hala ere, ez dago salbuespenik maizterren handitze ikaragarrian.

Jabego-errejimenean izandako aldaketa hau elkarrekin erlazioatuta dagoen zenbait faktoreren ondorioz gertatu zen; hona hemen faktore horietako lau, azpimarragarriak:

a) Lur Zabala deritzon aldean eta Durangaldean, hau da, Bizkaiko zatirik handienean, —hiribilduak eta Enkarterriak salbuespen direlarik—, foru-legea dago indarrean, eta hori dela eta, seme-alabetako batek baino ezin zuen lurra jaraunspenean jaso. Teoria-mailan, beraz, amortizazioaren alde egiten da; dena dela, gainontzeko ondorengoak nahikoa berdinduta gelditzen ziren, dirua ematen baitzitzaien, hau da, ez ziren inolako jaraunspenik gabe gelditzen. Gurasoen ustiapenari jarraitzeko aukeratuak izan ez zirenek beste lanbide batzuetara jo behar zuten edo maizter gisa sartu inguruko onibarren batean nahiz anaia-arreben baserriaren zati batean. Sistema honek gizabanako bakar baten jabegoa mantentzen zuen, baina horrek ez du esan nahi onibarra zatitu gabe geratzen zenik, esaterako, Fruizen 1810ean, hogeita hamazazpi baserritan berrogeita hamalau lagun bizi ziren. Ez dugu jabegoa ustiategiarekin nahasi behar. Oinorde bakarrek sistemak jabegoaren batasuna soilik babesten du, hau da, lur-jabeen kopurua garai guztietan zehar egonkor mantentzeko joera dakar.

b) Luberritutako eremua handitzeko kontratuak hiru motatakoak izaten ziren: baserrien ondoan landu gabe zeuden beste lur-eremu batzuk luberritzea jornalarien bidez, herri-lurretik zati bat hartzea kanonpean eta kolono bati lurrak ematea zenbait urtetan errenta barkatuz, lurra landu eta batzuetan etxe bat eraikiko zuen baldintzapean: «Dn. Antonio de Ozámiz dijo que la casa que habita es del conde y según lo convenido con su administrador dn. Ramón de Irisarri, vecino de la villa de Bilbao, por escritura pública otorgada en dos de julio de mil setecientos setenta y dos en testimonio de don Manuel Antonio de Aranguren, vecino de dicha villa, reedificó a su costa dicha casa, en la que gastó cuatrocientos cincuenta y cuatro ducados; y se convinieron en cobrarlos en rentas, a razón de seis ducados anuales, cuya cobranza aún prosigue.» «El sobre dicho Antonio —Montijoko kondearen etxe bateko maizterra Arteagan— hizo un que-

brante nuevo en propiedad del conde, y lo tiene sin renta por nueve años por el trabajo y gasto que en él tuvo según lo pactado con el administrador»<sup>62</sup>. Sistema hau, nahikoa hedatua zena, lurraren jabearen aldekoa zen, izan ere, ia inbertsiorik egin gabe, produzitzen ez zuten lurak, urte batzuen buruan errenta bat emango zion onibarra bihurtzen baitzituen.

c) Hipoteka-zentsoak. Nekazariak kreditura jotzen zuten uzta txar bat izateagatik, edo ezkontsaria emateagatik, edo lur-sail bat edo lanerako abereren bat erosteagatik, eta beren ondasunak hipotekatu egiten zituzten berme gisa. Ez bazegoen uzta txarrik, merkatura eraman zitekeen soberakin txikia ondo saltzen bazen, burdinolek lana erregulartasunez ematen bazuten, mailegua urte batzuen buruan bueltatu egiten zen interes eta guzti; hala gertatzen ez bazen, nekazaria onibarra saldu beharrean zegoen hartzekodunei ordaintzeko. Ikusiko dugunez, azken hori sarritan gertatu zen 1770etik aurrera. Jabe izatetik maizter izatera pasatzen zen.

d) Onibar berri bat sortzeak nahiko inbertsio handia eskatzen zuen lurra erosi behar bazuten batik bat, izan ere, guztira behar zen diruaren bi heren inguru izan baitzitekeen, azienda, lanabesak, haziak... sartu gabe. 1796an perituek bi baserri eta bertako lurrei tasa jarri zieten Olaberrian (Gipuzkoa); hona hemen datuak, zenbat balio zuten jakin dezagun gutxi gorabehera<sup>63</sup>:

|   | Errealak  |
|---|-----------|
| <i>Katalinarena etxea:</i>                                  |           |
| Eraikina . . . . .  | 6.710     |
| 394 postura lantzeko lur . . . . .                          | 7.985-17  |
| 69½ postura ereiteko lur . . . . .                          | 1.042-17  |
| Gaztainadi eta hariztiak, zati antzuak dituztelarik . . . . | 3.936     |
| Gaztainadia . . . . .                                       | 430-17    |
|   | <hr/>     |
|   | 20.104-17 |
| <i>Zuritaín etxea:</i>                                      |           |
| Eraikina . . . . .  | 3.353-25  |
| 319 postura lantzeko lur . . . . .                          | 6.699     |
| 89 postura gaztainadi . . . . .                             | 1.068     |
|   | <hr/>     |
|   | 11.120-25 |

Erdi-mailako eta txikiko nekazariak ezin zuten hain diru-kopuru handia bildu. A zer nolako desberdintasuna lurra kanonpean eman balitz edo, egoera idealean, doan banatu balitz! Bi era horien bidez soilik lor zitzaketen nekazari batzuek lurak.

<sup>62</sup> GBEA, ETPSV, Arteagako G., 1810.

<sup>63</sup> AHN, Consejos, 1913. leg. (47).

Ez XIX. mendearen lehen erdialdeko gizarte-borrokek, ezta desamortizazioek ere ez zuten egoera aldatu, eta zerbait aldatu bazuten nekazari-jendearen aurka izan zen oro har.

#### Jabego-errejimena 1860an auzitegi-barruti bakoitzeko<sup>64</sup>

|                 | Lur-jabeak | Maizterrak | %<br>Lur-jabeak | %<br>Maizterrak |
|-----------------|------------|------------|-----------------|-----------------|
| <i>Bizkaia</i>  |            |            |                 |                 |
| Balmaseda.....  | 2.035      | 2.260      | 47,38           | 52,62           |
| Bilbo.....      | 1.715      | 3.512      | 32,81           | 67,19           |
| Durango.....    | 1.969      | 5.570      | 26,12           | 73,88           |
| Gernika.....    | 2.629      | 4.068      | 39,26           | 60,74           |
| Markina.....    | 912        | 1.276      | 41,68           | 58,32           |
|                 | 9.260      | 16.686     | 35,69           | 64,31           |
| <i>Gipuzkoa</i> |            |            |                 |                 |
| Azpeitia.....   | 1.020      | 4.374      | 18,91           | 81,09           |
| Bergara.....    | 1.524      | 3.386      | 31,04           | 68,96           |
| Donostia.....   | 1.648      | 3.346      | 33,00           | 67,00           |
| Tolosa.....     | 1.555      | 4.011      | 27,94           | 72,06           |
|                 | 5.747      | 15.117     | 27,55           | 72,45           |
| <i>Araba</i>    |            |            |                 |                 |
| Amurrio.....    | 1.154      | 2.098      | 35,49           | 64,51           |
| Biasteri.....   | 2.944      | 473        | 86,16           | 13,84           |
| Gasteiz.....    | 3.572      | 4.932      | 42,00           | 58,00           |
|                 | 7.670      | 7.503      | 50,55           | 49,45           |

Ematen du Araban soilik izan dela jabego-errejimenaren berrantolaketaren garrantzizkoa eta harrigarria, oraingoz azaldu ezin duguna.

#### Errenta feudalak: kontratu enfiteutikoak, zergak eta hamarrenak

Euskal Herriko nekazariak karga eta zerga ezberdinen mendean zeuden baina, zalantzarik gabe, hamarren eta hasikinen ondoren, lurraren errenta zen gogorrena. Jaunen jatorrizko sari gehienak desagertuta zeuden

<sup>64</sup> *Censo de la población de España, según el recuento verificado en 25 de diciembre de 1860.* Madril, 1863, 732-733, 742-743, 752-752. orr.

edo oso balio txikiko diru-kopuru bihurtu ziren. Ziortzako elizatean, 1810ean, 127 etxe eta errotatik, hogeita hamabostek (%27) baino ez zioten espezetan zor zerga bat Ziortzako abatetxeari eta bi gehiagok oso diru gutxi —bost eta lau erreal— partikular bati. Garitan ordaintzen zenez, prezioen igoerak ez zuen karga debalatu; hala ere, onibar horiek ordaintzen zuten lurraren errentarekin alderatuz, ikus daiteke gehienetan ez dela inoiz hura baino %20 handiagoa:

| (1)     |        | (2)     |        | (3)     |        |
|---------|--------|---------|--------|---------|--------|
| Errenta | Zerga  | Errenta | Zerga  | Errenta | Zerga  |
| 110     | 4      | 100     | 40     | 44      | 5      |
| 1.100   | 60     | 1.100   | 133-11 | 1.200   | 40     |
| 1.388   | 8-10   | 1.220   | 40     | 520     | 50     |
| 1.100   | 108-10 | 1.124   | 133-11 | 960     | 133-11 |
| 1.200   | 40     | 1.260   | 33-11  | 534     | 8-10   |
| 672     | 160    | 1.390   | 78-10  | 1.118   | 80     |
| 600     | 60     | 198     | 166-11 |         |        |
| 275     | 127    | 1.320   | 66-22  |         |        |
| 1.020   | 180    | 980     | 40     |         |        |
| 880     | 50     | 770     | 80     |         |        |
| 1.320   | 100    | 1.035   | 120    |         |        |
| 660     | 80     | 1.044   | 40     |         |        |
| 1.138   | 120    | 920     | 100    |         |        |
| 1.264   | 40     |         |        |         |        |
| 450     | 60     |         |        |         |        |
| 110     | 160    |         |        |         |        |
| 1.487   | 40     |         |        |         |        |
| 770     | 110    |         |        |         |        |

- (1) Lur-jabeak soilik bizi diren onibarrak.  
(2) Lur-jabeak gehi maizterrak bizi diren onibarrak  
(3) Maizterrak soilik bizi diren onibarrak.

Dena beloizko errealetan.

Ikus dezakegunez, jatorri feudala zuen kontratu enfiteutikoaren gainean beste errenta bat jarri da. Kontratu enfiteutikoa ordaintzen duena jabetzat hartzen da, lur hori saldu edo alokatu ahal baitu kanona ordaintzen jarraitzen bada; zenbaitetan onibar osoa edo zatiren bat errentan ematen du, Ziortzan gertatu zen bezala, izan ere, baserri guztietatik erdiak zergaren mende baitzeuden. Galiziako foroen antzekoa da, foreroekin eta azpifore-roekin; lehenengok, jaunari ia finkoa zen kanona ordaintzen ziotenek, lurraren prezioak gora egin zuela ikusita, «ohartu ziren oso probetxugarria zela beren onibarrak zatitu eta etekina ateratzeko moduko errentan jartzea berriro, batzuetan eurek ordaintzen zutena baino hamar edo hogeit bider

gehiago ateraz. Horrelaxe sortu zen lurretik etekina ateratzen zuten beste klase bat eta honen mende, beste kolono-mota bat: azpiforeroak»<sup>65</sup>. Euskal Herrian XVIII. mendean oraindik existitzen ziren kontratu horiek oso gutxi zirenez, ez zen inolako istilurik sortu horiengatik.

Egoera honen jatorria, sagastiak erdibanako irabazia duten partzuergo-kontratuak dira, gero garitan ordaindu beharreko zerga bihurtu zirenak. Azken hauek XIX. mendean hasieran oraindik ere indarrean daude baina hartu-eman berriak sortu dira hauen inguruan, izan ere, espezetan ordaindu beharreko kontratutik dirutan eman beharreko errentara pasatu arren, irabazia ez du goi-mailako jabeak, jaun zahar feudalak, eta kasu honetan abatetxeak, lortzen, nekazari enfiteutikoak baizik.

Dena dela, Ziortzako hogeita hamabost etheen kasua ez da normalean gertatzen zena. Abadiñon, urte berean, baserri batek soilik ordaindu behar zion urteroko pentsioa —bost anega garitan (= 200 erreal) eta hogeita hamasei erreal dirutan— Morako kondesari, elizate horretako «betiereko zentso enfiteutikoren baten jabe denari, nahiz eta zentsoa nondik datorren ez dakien; urtero bere administratzaileari ordaintzen dio»<sup>66</sup>. Baserri horrek 1.310 errealeko errenta ordaintzen zuen gehi 236 zergatan, guztira, 1.546, hau da, zerga %15,26 zen. Pentsatzekoa da, kasu batean zein bestean, Behe Erdi Aroan morroiak bizi izan zirela onibar horietan, kasu batean abatetxe-koak eta bestean Abadiñoko nagusiarenak. Elizate horretan bertan zenbait onibarrek «lanzas de mareantes» direlakoak ordaindu behar zituen. Zerga honen jatorria hainbat noblek edo nekazari askek beren jaunari, Bizkaian erregeari, hainbat soldadurekin laguntzera joan behar izatea zen. Zerbitzu hau, dirutan ematen zuten ordainketa bihurtu zen eta oraindik ere 1810ean egiten zen. Abadiñon berrogeita hamazazpi baserrik ordaintzen zuten, hots, udalerraren laurdenak baino pixka bat gutxiagok. Guztira 4.267 marabedi = 125-17 ordaintzen zuten eta 45.835 erreal 16 marabediko errenta ematen edo emango zutela uste zuten; beraz, errenta gehi «tributo de lanzas» 1.562.673 marabedi ziren eta hau, kopuru horren %0,27. Laburbilduz, Abadiñon etxe batek soilik ordaintzen zituen jaurgu jatorriko zergak, eta laurden batek baino gutxiagok jaunaren eta mendekoen arteko hitzarmen feudaletik sortutako maileguak; 1810ean azken hauek errenta eta zergaren %0,27 ziren; gainontzeko baserriek ez zituzten karga hauek ordaindu behar.

Mailegu horiek garrantzi txikikoak edo oso jende gutxik ordaindu beharrekoak ziren; aitzitik, hamarrena eta hasikinak, nekazaritzako produktu gordinaren %12,5 izatera irits zitezkeen batera hartuta<sup>67</sup>. Euskal Herriko

---

<sup>65</sup> Brenan, G., *El laberinto español*. Ruedo Ibérico, 1962, 77. or.

<sup>66</sup> GBEA, ETPSV, 1. zkia., Abadiñon.

<sup>67</sup> Kasu guztietan %10 da hamarrena eta hasikinen zenbatekoa aldatu egiten zen, Gipuzkoan eta Bizkaiko zati batean hamarrenaren laurden bat zelarik. Laudion bata zein bestea uztaren zortziren bat izaten zen eta Biasterin, 1813ko erroldari begiratura, hamarrenek eta hasikinek %12,5 osatzen zuten.

ilustratuak, beharbada exageratuz, bat zetozen Cadizko Gorteetako diputatuekin, balio handiegia zutelakoan<sup>68</sup>.

Euskal Herrian, eta batez ere kostaldeko probintzietan, jaunek kleroari eta udalei hartuta zieten zerga feudal horren zati handi bat Behe Erdi Aroan. Garai horretan berriro banatu ziren hamarrenak eta ia ez zen aldaketarik izan; gehienetan, luberrien hamarrenak soilik joan ziren Elizaren aldera. Bizkaiko hamar bikaritzatan XVIII. mendearen bigarren erdialdean zegoen egoera honako koadro honetan islatzen da.

**Nagusi laiko eta elizakoen parte-hartzea  
hamarrenak eta hasikinak kobratzean  
(errealetan)**

| Bikaritzak     | Bikaritza<br>Guztira | Nagusiak<br>Guztira | Nagusiak<br>% | Kleroa<br>% |
|----------------|----------------------|---------------------|---------------|-------------|
| Bilbo .....    | 24.044-06            | 8.829-28            | 36,72         | 63,28       |
| Bermeo .....   | 12.734-06            | 3.045-21            | 23,91         | 76,09       |
| Ondarroa.....  | 20.583-27            | 7.175-07            | 34,86         | 65,14       |
| Elorrio .....  | 96.330-18            | 50.775-07           | 52,71         | 47,29       |
| Markina.....   | 45.610-23            | 27.007-03           | 59,21         | 40,79       |
| Arratia .....  | 149.325              | 91.840              | 61,29         | 38,71       |
| Orozko.....    | 80.394-14            | 35.669-20           | 44,37         | 55,63       |
| Zornotza ..... | 37.308-16            | 11.979-33           | 32,11         | 67,89       |
| Busturia.....  | 255.738-27           | 122.212-15          | 47,79         | 52,21       |
| Durango.....   | 102.836-04           | 32.303-08           | 31,41         | 68,59       |
|                | 824.906-05           | 390.838-06          | 47,38         | 52,62       |

Ikus daitekeenez, hamarrenen eta hasikinen ia erdia nagusi laikoentzat zen, nahiz eta zati txiki bat Elizara bueltatzen zen apaizek euren parrokitan egindako zerbitzuaren eta fabrika mantetzearen ordainsari gisa.

Zerga hauek edozeinek jaso arren, nekazari guzti-guztiek ordaindu behar zituzten. Orokorrean, onuradunaren eta nekazariaren tartean hamarrenen errentaria dago; berriro ere metatzeko aukera ez zegoen nekazaritza-ustiategiaren mende, baizik eta nahiko epe luzeetan ezarritako kantidadetako finko bat urtero dirutan ordain zezakeen pertsona baten mende. Derioko hamarrenak enkantean jarri eta bederatzi urtez zeuden errentan<sup>69</sup> 1771n eta Deustuko San Pedro fabrikakoak, berriz, lau urtez 1760an<sup>70</sup>.

<sup>68</sup> *Ensayo...*, 164. or. eta hurr., eta Anes, G., *op. cit.*, 293 eta 294. orr.

<sup>69</sup> BPAH, 2947. leg., 1771ko urtarrilak 20.

<sup>70</sup> Deustuko San Pedro fabrika-liburua, 229. or. atz.



Produkzioa eta prezioak igo zirenez gero, errentatzaileak etekina atera ahal izan zuen, hasierako etapan eta batez ere kontratua luzea zenean, alde batetik, nagusien kaltetan eta, bestetik, krisi-garaietan zituak erostera behartuta zeuden produzitzaile txikien kaltetan. Gipuzkoan 1766an altxatu zirenek hamarrenen errentatzaileak espekulazioaren bidez etekinak ateratzen zituztenetarikoa zirela aipatzen dute. Kleroa ere, zerga bere kabuz jaso eta saldu egiten zuenean horretan ibiltzen zela esaten zuten; jardun horretan apezpikutzaren laguntza izaten zuten kabildoak eta administratzaileak hamarrenak errentan ez jartzera behartzen zituzten eta<sup>71</sup>. Honakoa agintzen zitzaien Deustuko apaizei 1736an behintzat: «[que] no se arrienden los diezmos pertenecientes a dha Yg<sup>a</sup> sino es que en cada un año se administren por el Mayor<sup>mo</sup> de fabrica de ella como lo prebiene la constitución sinodal de este obpdo *bendiendo en los tiempos más oportunos* según dha sinodal en maior utilidad y conbeniencia de la dha fábrica»<sup>72</sup>.

Kontrakoa idatzi ohi bada ere, nekazariak, mendearen bukaeran eta hasieran, aurre egiten zioten hamarrenak eta hasikinak ordaintzeari, batez ere produktu berriak edo lehenengo aldiz lantzen ziren lurrak zirenean. Dagoeneko ikusia dugu Laudioko kasuan zer-nolako neurriak hartu behar izan zituen kabildoak 1722an luberrietan hamarrenak ordain zituzaten. 1708an Logroñon dagoen Errioxako Haroko biztanleak uztaren zatirik txarrena ematen saiatu ziren hamarrenak ordaintzean; hona hemen adibide bat: «Gabriel Perez de Baños en nombre del Cavildo y Beneficiados de la Iglesia Paroquial de la villa de Aro como mas aya lugar digo que muchos vecinos de ella deviendo pagar los diezmos segun y como son obligados conforme se dispone por la Constitución Sinodal de este obpdo de que lo ayan de hacer de cada parua como ttanvien en lo rrespectiuo a los fruttos de vino de cada heredad es assi que en contrabencion a lo dispuesto por dha Constitucion Sinodal los dhos vecinos no ejecutan la forma rreferida de dho diezmo sino es que lo hacen de la ultima parua o de la que les parece en graue perjuicio de mis parttes por no ser de igual calidad los frutos y lo mismo deuen ejecutar en lo rrespectiue a los frutos de uino diezclado de cada heredad y asi mismo deuiendo pagar diezmos de ttodos los generos que se venden en berde no lo hacen como ttan poco de las colmenas de auejas que ay en dha uilla siendo fruto de que se deue pagar diezmo en que se siguen graues detrimentos a mis parttes como ttanuien por este medio se introducen muchas corruptelas y para ouiarlas Pido y Suppco a Vm se sirua de librar sus letras con censuras precisas contra los dhos vecinos.» Kasu honetan ere irabazia ateratzen zutenek eskumikatzeke mehatxua bota zieten honako hau ordaintzen ez zuten auzokoei: «de cada parua de trigo y cevada lo que correspondiere como tavien de ttodos

---

<sup>71</sup> *Ibidem*, 1741eko bisita, 141. or.

<sup>72</sup> *Ibidem*, 115. or. Letra etzanak gureak dira.

los demas frutos expresados en la peticion»; dena dela honek guztiak ez zuen saihestu hamarrenak ordaindu behar zituztenen eta kabildoaren arteko auzia<sup>73</sup>. 1778an berriro izan ziren irregulartasunak: «Digo que deviendo los vecinos estantes y haitantes en dha villa [de Haro] contribuir a mis partes enteramente con los diezmos de los frutos mayores y menores, que Dios nro Señor les da y cogen en sus heredades hasi de granos como de ubas antes de pagar las rentas a los Dueños de ellas y los que crian Rostrizos, pollos y ganado lanar y cabrio en la misma especie y no en dinero, como asi mismo pagar la decima de la leche, se ha experimentado la variedad o corruptela que sobre ello intentan introducir en conocido perxuicio de mis partes a que no se debe dar lugar»<sup>74</sup>. Gasteizen, laurogeiko hamarkadan «kanpo eta barruko baratzak zituztenak» «..., barazki eta fruta guztien hamarrena espezetan» ordaintzera behartu zituzten, euren aurkako auzi gatazkatsu baten eta eskumikatzeko zigorraren mehatxua jaso ondoren. Lehenengo epaia, Kalagorriko Elizbarrutiko arduradun eta bikario nagusiak eman zuena, 1785eko irailaren 26koa da, baina nekazariak ez zetozenez bat errekurtsioa jarri zuten Gaztelako Kontseilu Arruntean eta Gorenean, eta honako hau erabaki zuen 1787ko abenduaren 3an: «no haber lugar á recurso [...] mandando devolver los autos á el Ordinario de Calahorra. Repetida ante ésta la instancia del nuevo juicio sobre la executoria, y negada por auto de 10 de abril de 1788, interpusieron la apelacion, que admitida en solo un efecto, requirieron con Real Provision de Fuerza librada por la Real Chancillería de Valladolid; y vistos los autos por el Señor Presidente, y Oidores de ella, dixerón en 11 de Noviembre de 88. no hazer fuerza el Ordinario de Calahorra en no otorgar. Mejoraron la apelacion á el Metropolitano de Burgos, quien en 29 de Agosto de 1789 confirmó el auto, y procedimientos del Ordinario. Por tercera instancia apelaron ante los Señores Auditores de la Rota de la Nunciatura, quienes en 5 de Agosto de 1791 confirmaron el auto definitivo del Metropolitano, y las del Ordinario de Calahorra, y en 19 del mismo se libró la Executoria»<sup>75</sup>. Horrelako gestio konplexuetan zenbat diru gastatu behar izan zuten kalkulatz, zer-nolako erresistentzi borondatea zuten ikus genezake, baita Gasteizko merkaturan barazki eta fruta-eskariak sortu zituen interesak ere. Aipatzekoa da kabildoek, bai Harokoak bai Gasteizkoak, dirutan ez kobratzeko interesa zutela: «espezie berean eta ez dirutan» zioten lehenengoen 1778an, eta «bere espezetan» zehazten zuten bigarrenek. Herri bietan merkaturua zegoenez gero, produktuen merkaturatzearen abantailak eurentzat gorde nahi zituzten.

<sup>73</sup> Haroko Parrokiako Artxiboa, kanpoan zeinurik gabeko hainbat paper dituen sorta batean topatutako orri solteak.

<sup>74</sup> *Ibidem*, orri solteak.

<sup>75</sup> Gasteizko San Migel Parrokiako Artxiboa, U-9. leg., inprimatutako paper txikia liburu baten barruan.

Horregatik, biztanle-kopuru garrantzizkoa zuten guneeetatik gertu zeuden zonetan, lur-jabeek hainbat errenta —garia Gasteizen, txakolina Bilbon— dirutan ordaintzeari oztopoak jartzen zizkieten, are gehiago errentak epe erdirako edo luzerako egiteko ohitura bazegoen.

Prezioek gora egiteak eta nekazaritza-arloan izandako aldaketek nekazarien erresistentziaren alde egin zuten, batez ere aberatsenen alde. Hori dela eta, kleroak bere ikuspuntuan oinarritutako jurisprudentzia berri bat egiteari ekin zion agudo asko. Data eta lekurik jartzen ez dituen baina XVIII. mendeko letra duen eskuizkribu anonimo hauxe dugu beren kezken frogetako bat: «Consulta sobre los diezmos de nuevos arboles o semillas de q<sup>e</sup> no hay constumbre de pagar, y se siembran o plantan en tierras q<sup>e</sup> antes han pagado». Honela dio idatzi zuenak: «Dudase si quando en tierras diezmeras, de las que siempre se ha pagado diezmo de quanto se ha sembrado o plantado en ellas se plantan arboles o siembran semillas, de q<sup>e</sup> en el pueblo no se acostumbra pagar Diezmo deba pagarse o no.

1. Dos opiniones contrarias hallo en esta materia. Una q. defiende que quando la siembra o plantio no se haga in fraudem de los interesados o no sea tanta la extensión de dhas siembras o plantios que causa notable perjuicio a los mismos interesados, no se debe pagar quando la Iglesia no percibia diezmo de dha semilla o plantio...

2. Otra del todo contraria, es que de cualquier modo q. sea si en tierras que siempre han sido diezmeras de las semillas que se han sembrado o arboles que se han plantado en ellos debe pagarse el diezmo de lo que se sembrare, o plantare en ellas aunq. por costumbre se aya prescrito no pagar diezmos a la iglesia, ni esta lo perciba de dhas semillas o plantios.» Horren ondoren, arazoak ekarri zituzten adibide zehatzak aipatzen ditu:

a) Hainbat erretorek hamarren txikiak jasotzen zituen eta apezpikuek handienak. Handiak landatzeari utzi egin zioten eta horien ordeztu txikiak jarri zituzten eta apezpikuak, lehen handientzat zen lur-rean landatutako txikien hamarrena kobratu nahi du.

b) Kartusiar batzuek zerealen hamarrena jasotzen zuten, baina nekazariet putzu batetik ura ateraz lur-saila larre bihurtu zuten, eta belarrak, tradizioz, ez zuen hamarrenik ordaintzen.

c) Azafraila eta olibondoak sartu ziren; ordura arte sekulan erein gabeko produkzioak ziren eta zituak lantzeari utzi zioten.

Honela bukatzen du eskuizkribua idatzi zuenak: «[que] ya sea en aquellas especies de frutos en que por costumbre o prescripcion no se pagan los diezmos de ellas, ya sea en aquellas especies en que otros interesados por concordia o privilegio o costumbre o prescripción o por otro qualquier titulo tenian derecho a percibirlos en todos los referidos casos se ha visto que sembradas o plantadas estas mismas especies en tierras en que la Iglesia tiene derecho a percibir diezmos de los frutos que en ella se

cojen como frutos subrogados en aquellos, de que percibia los diezmos los debe percibir, pues por esta siembra o plantio dexa de percibir aquellos que debia percibir de dha tierra»<sup>76</sup>.

Mende bukaeran tazmien liburuak egiteko behin eta berriro eskatzearen arrazoia Elizak kontrol gogorragoa eta zehatzagoa egitean zetzan; horren froga dugu lehen hamarrenik ordaintzen ez zuten hainbat produktuk orain ordaindu beharra, esaterako lehen gutxi landu eta horregatik garrantzi txikia zuten lekadun batzuk. Mendearen azken urteetan beste auzi bat gehiago sortu zen Laudioko bailarakoen eta euren kabildoaren artean, lekaleen hamarrenak zirela eta. Oro har, lekuko gisa joan ziren nekazariak produktua salbuetsiak zirela alegatu zuten. «Babarrunen hamarrena 1724tik 1740ra ordaindu egiten zela» baieztatu zuen lekuko bakarra hamarrenen errentatzaile ohi baten alaba izan zen<sup>77</sup>.

Berrindartu egin al zen jaurgor-errejimena edo, behintzat, errejimen horretatik gelditzen zena? Valladolideko Kantzelaritzak Elizaren eta hamarrenen hartzaileen alde sistematikoki egiteak garbi adierazten du aparatu zaharrak orokorrean horrela jokatzeke zuen jarrera. Garaiari begira esan dezakegu aberats berriei noblezian sartzeko oztopoak jarri zitzaizkien sasoiarekin bat datorrela.

## Lurraren errenta

Errentak era desberdinetan ordaintzen ziren: dirutan, espezetan, edo biak konbinaturik, batzuetan jabearenazienda erdibanako irabaziaz mantentzeko betebeharrak eta guztiak.

Gipuzkoan bi alde bereiz daitezke: Goierri, mendebaldean, eta Beterri, ekialdean. Lehenengoan, honakoa zen arruntena: errenta garitan ordaintzea gehi diru-kopuru txiki bat, ehun bat erreal, etxea ordaintzeko, eta anega arto gutxi batzuk, hiru edo lau baino gehiago ez zirenak, txerrikumeak eta hegaztiak mantentzeko eskatzen zirenak. Errenta honek uztaren heren baten balioa zuen gutxi gorabehera. Normalean baserrien ondoan zegoen arboladia garrantzizkoa bazen, jabeak bertako produktuak erabiltzen zituen. Bigarrenean honakoa gertatzen zen: «la mayor parte de los inclinados sino son casi todos dan de renta la mitad de la cosecha q<sup>e</sup> cojen. No les queda pues sino la mitad [...] de q<sup>e</sup> proviene en parte el atraso de la agricultura respecto a Goyerri. Dimana tambien este atraso de q<sup>e</sup> una considerable porcion

---

<sup>76</sup> Haroko Parrokiako Artxiboa. «Consulta sobre los diezmos de nuevos arboles...» izenburua duen legajo batetik.

<sup>77</sup> Lamuzako San Pedro Parrokiako Artxiboa, Laudioko bailara: «Executoria de los señores del real y supremo consejo de Castilla obtenida por el abad y cabildo eclesiástico del Valle de Llodio en el pleito con los vecinos del mismo Valle sobre diezmos de legumbres en 22 de septiembre de 1797.»

del terreno de Berri se destina a la manzana de q<sup>e</sup> hacen sidra [...]: cosecha muy desigual; bien q<sup>e</sup> a veces es de mucho lucro. El mayor acarreto en que se ocupan los labradores de Berri por el tráfico q<sup>e</sup> ocasionan los puertos de S<sup>n</sup> Sev<sup>n</sup> y Pasages, es otra de las causas de que proviene el atraso de la agricultura. Sin embargo, los dueños de la tierra sacan igual utilidad sea q<sup>e</sup> este situada en una u otra parte; pues el tercio de Goyerri iguala sobre corta dif<sup>a</sup> a la mitad de Berri. Quiere decir q<sup>e</sup> el inclino de esta parte se queda con menos granos, y así q<sup>e</sup> es más pobre; q<sup>e</sup> no se alimenta tanto bien ni esta también ni tan aseadamte vestido como el inclino de Goyerri»<sup>78</sup>.

Bizkaian ere, espezetan ordaintzea nahiko hedatuta zegoen. Zornotzan ordainketak dirutan eta aletan batzen ziren: bi maizterrek «bien artean zati berberetan seiehun eta bost erreal eta zortzi anega gari» ematen zituzten; beste batzuek zioten «euren errenta zela eta, seiehun eta bost erreal eta lau anega arto ordaintzen zituztela urtero»; Durangon bizi zen Ambrosio Maria de Oruek zituen zazpi etxeek ehun eta lauogeita hamaika anega arto ematen zizkioten guztira<sup>79</sup>. Abadiñoko Benta-berri etxeak 660 erreal, anega bat eta erdi gari («rendim<sup>to</sup> de varias heredades sueltas») eta hogeita zazpi karga ikatz ematen zituen errentan urtero; bestalde, honakoa ere badugu: «Traña-eche-nausia con su accesoria producen anualmente 133 rs. en metálico, y 14 fanegas de trigo y 40 de maiz en grano, q<sup>e</sup> reducidos a metálico [...] hacen el total de rs. vn. 1892»<sup>80</sup>. Azkeneko hori izan zen sarriena elizate horretan. Bilbotik gertu zeuden zonetan, espezetan ordaintzeak atzera egin zuen eta dirutan ordaintzeak, berriz, aurrera, mahatsondoak zeuden lekuetan izan ezik. Erandion, alargun batek hemezortzi dukat eman zituen 1780ko Gabonetako lehenengo ordainketa gisa. Hona hemen elizate bereko beste adibide bat, urteko 400 errealetan eta bederatzi urtez errentatzen zuten Thellaechea baserria, «con condicion y pacto expreso de q<sup>e</sup> las tierras q<sup>e</sup> sembrase à maiz siempre las ha de laiar para q<sup>e</sup> nunca vaian en disminuir<sup>on</sup> à que se le ha de compeler en caso de omisión»<sup>81</sup>. Bilbon bizi zen Diego de Hormazak Maruri baserria, elizate horretan zegoena, errentan eman zion Jatabeko lagun bati bederatzi urterako 1778ko maiatzaren lehenengotik 1787ko egun bera arte urteko 42 dukat ordaintzearen truke «etxe eta baserri horretako mintegia zaintzeko baldintzaz»<sup>82</sup>. Arrigorriagan etxe berri bat hartu zen errentan bederatzi urterako eta 990 errealgatik 1773an<sup>83</sup>. Sondikan, Goiri Rementtariecheren etxea eta baserria bederatzi urterako

---

<sup>78</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, 22-2-21, eta 53-54. orr. (moderno), gutun batean egiten den Gipuzkoaren deskribapen batetik.

<sup>79</sup> GBEA, ETPSV, 1. zkia. 1810, Zornotzan.

<sup>80</sup> *Ibidem*, 1. zkia., Abadiñon.

<sup>81</sup> BPAH, 1. errej. zkia. Escrituras públicas, Juan Alejo de Amezcay eskribaua, 1776tik 1782ra, 1780ko apirilak 18 eta ekainak 18.

<sup>82</sup> *Ibidem*, 4362. leg. 1777. urtea.

<sup>83</sup> *Ibidem*, 2948. leg., 1773ko otsailak 20.

alokatu zen bertako ondasunekin 1768ko abenduaren 25etik aurrera 550 errearen truke, sei hilabetero birritan ordain zitezkeenak, eta urtean bi saggarrondo landatzeko baldintzaz<sup>84</sup>. Garai berean Joaquina de Ateca andreak, Bilbon bizi eta Belamazan Gramosa markesaren administratzailea zenak, Orozkon bizi zen Jph. de Olaetari errentan jarri zion bailara horretan zegoen hogeita hemezortzi gizalaneko lurra lantzeko alorra, «berriro luberrituta» zegoena zazpi urtez 1767ko azaroaren batetik aurrera 15 beloizko errealeko hogeita hamar zilarrezko peso eskudoren truke, urteko. Kontratu hori balio gabe utzi zuen administratzaileak gizalan-kopurua agertzen ez zen aitzakiaz eta «luberritu berriak» ziren beste lau gehiago gehitzen ziztaizkion aitzakiaz. Kontratu berriak, sei urteko balioa zuenak, berrogeita bi gizalan horien truke maizterrak 1768ko azarotik aurrera 493 erreal eta erdi emango zituela esaten zuen<sup>85</sup>.

Oso gutxitan egin zituzten partikularrek kontratu enfiteutikoak. Normalean, lurra luberritzea eta etxea eraikitzea enfiteutaren kontura egiten zen orduan. Horrelakoetan, maizterrak inbertsio handia egin behar zuen eta nahiko txikia zen betiereko errenta batekin ematen zitzaion lurra; halaxe gertatu zen Ziortzako Abatetxeak kontratu enfiteutikoan ematen zituen saroeekin, edo Bilbon bizi zen Mariano Ordoñez de Baraicuak, Getxo, Abando, Leioa eta Sondikako elizateetako patroï dibisaduna eta Asuako dorretxe infantzoiari zegokion binkulu eta maiorazgoaren jabe zenak, 1789ko urtarrilean hogeita hamahiru errealengatik Erandioko bati «betiereko zentsoaren edo enfiteusiaren bidez» eman zizkion 198 estatu lur landu eta 283 ½ landugabeekin<sup>86</sup>.

Mahastiei zegozkien kontratuek hainbat berezitasun zuten, uztaren zati bat lurraren jabearentzat zelako eta horrek, ordainetan, zenbait inbertsio egin behar zuelako. Bilboko Nicolas Luis de Landak Zurbaran de Abajo izeneko etxea eta baserria, bertako baratzak, alorrak, ogitarako lurrak, frutarbolak, mahas-parrak eta mahastiak errentan jarri zizkion Deustuko Antonio de Ugalderi 1777ko Domuru Santu egunetik 1783ko egun berera arte, urtean hirurogeita hamabost dukat ordaintzearen truke honako baldintza honetan: «la mittad de la cosecha del vino chacoli que se cojiera en las viñas y parras de la citada casería puestto en el lagar al tpo de la Bendimia». Mahastirako ongarria jabearen kontua zen, inausketak eta aitzurketak, berriz, maizterrenak eta erdibana zituzten mahastiko materialak, esaterako *barandas*, *machitos*... eta mahats-biltzean erabiltzen zituzten jornalariak; hauei, gizonezkoak baziren, egunean bost erreal ordaintzen zizkieten, emakumezkoek, ordea, lau. Azkenik, madariondo baten fruituak jabearentzat izango zirela erabaki zen<sup>87</sup>. Mahastizaintza-partzuergo honen

<sup>84</sup> *Ibidem*, 2947. leg., 1768ko martxoak 14.

<sup>85</sup> *Ibidem*, 2947. leg., 1768ko urriak 28.

<sup>86</sup> *Ibidem*, 2962. leg., 1797ko martxoak 3.

<sup>87</sup> *Ibidem*, 4362. leg., 1777.

arrazoia, uzta-biltzaileek Bilbon zuten txakolinaren salmenta-monopolioa zen, San Gregorio Naziantzokoaren Kofradiak eta Udalak sinaturiko akordioen bidez mantentzen zena.

Araban, Gasteizko inguruetan, errentak espeziatan ordaintzen ziren Bilboko antzeko arrazoiengatik: asteroko hiru merkatuek zituen salmentari laguntzen zioten eta espekulazioa zekarten. Errioxan, merkataritza-ekonomiak eremu zabala zuen alde honetan, berriz, bai ogia eta bai ardoa lantzeko lurren errentak dirutan egiten ziren.

Hiru probintzietan, kontratu-mota desberdinak epe erdirako ziren, normalean bederatzi urterako, eta batzuk hamaikarako ere egin ziren; esaterako, Gasteizko San Pedro Koruko eta Santa Klara Komentuko lur gehienak, edo Biasteriko Ramelluriko onibarrakoak. Badago salbuespenik, adibidez, Santa Klara Komentuko onibarrak; Gamizko Martin eta Juan de Axpek zeramatzen onibar hauek bederatzi urteko kontratutik, 1779tik 1787ra bitartean, bostekoa izatera (1788-1796) pasa ziren. Antzerakoa gertatu zitzaion Bilbotik gertu zegoen beste hainbat onibarrari. Garbi ikusten da inflazio itzela zegoen garai horretan lurren jabeak errenten igoera prezioenera egokitzen saiatu zirela.

## Ramelluriko etxaldea eta abeltegia

Toloñoko Aingeruen Jainkoaren Amaren Kofradiarenak ziren lur «zuriak», mahastiek eta etxeak osatzen zuten. Errentak denei zegozkien, batzuetan batera, beste batzuetan banaturik. Horregatik eta grafiko bakarra lortzeko asmoz, bien errentak gehitzea erabaki dut, batez ere kontuan hartzen badugu etxea zenbaitetan soroekin jarri zela errentan eta beste batzuetan mahastiekin batera. Horrexegatik ditu kurbak gorabehera bortitzak, izan ere, ogitarako lurren eta mahastien kontratuak ez baitira garai berean berritzen.

Oro har, onibar honek azalera bera izan zuen mendean zehar birritan izan ezik. 1731n, honakoa egin zuten etxearen eta lurren errenta kolono berari berritzean: «atendiendo a su buen proceder y avono y a la puntualidad con q. a satisfho las cantid<sup>s</sup> [...] el referido [arrendatario] se obligó a pagar quatrocientos y quarenta rs. con tal de que se le permita levantar las demas piezas erias que tiene esta S<sup>ta</sup> Casa»; honako hau baimendu zitzaion «p<sup>r</sup> dha cantt<sup>d</sup> y por tiempo de nueve años»<sup>88</sup>. Ez ziren, beraz, lur berriak gehitzen, baizik eta zehaztu gabeko garai batean soildurik utzitako onibarreko lurak landu egiten ziren; dena dela, 1724tik 1749ra finko mantendu zen errenta, ogitarako lurrei zegokienez. Beste aldaketa 1802an

---

<sup>88</sup> Biasteriko Parrokiako Artxiboa, «Libro de cuenta y decretos de los Señores Patronos diviseros de la madre de Dios de los Angeles de Toloño», 1723tik 1742ra, 123. or.

gertatu zen eta Espirbeleko mahastiko sei langile eta berrogeita hamahiru mahatsondo gehitu ziren, kolono batek atzerapenak ordaindu ezin zituenez gero hipoteka betearazi baitzuten eta horrela lortu ere eremu berri hori. Zati horren errenta 156-8 errealetan kalkulatu zuten, eta ez dut kontuan hartu.

Seriea XVII. mendearen bukaeran hasi zen. Pentsatzekoa zenez, XVIII.aren hasierako beherakada demografikoak lurren errentak jaitsarazi zituen. 1715ean aurreko mendearen bukaerako maila gainditzen du ez askogatik eta maila hau 1740 arte mantentzen da; hortik aurrera igoera etengabea izango da. Lehenengo maila 1765-1766 arte heltzen da; sasoi honetan igoera itzela da. 1782tik 1792rako kontu libururik ez dagoenez, ezin da hamarkada horretan, inflazio handia zegoenean, kokatzen den hirugarren igoera izugarria zehatz-mehatz ezarri. Errentek gora egin zuten gelditu gabe, ia hirukoiztera helduz.

| «Tierras blancas» |     | Mahastiak      |     | «Tierras blancas» + mahastiak |     |
|-------------------|-----|----------------|-----|-------------------------------|-----|
| Batez bestekoa    |     | Batez bestekoa |     | Batez bestekoa                |     |
| 1723-30 .....     | 100 | 1724-40 .....  | 100 | 1724-30 .....                 | 100 |
| Batez bestekoa    |     | Batez bestekoa |     | Batez bestekoa                |     |
| 1775-81 .....     | 280 | 1775-81 .....  | 280 | 1775-81 .....                 | 280 |

Ezinezkoa izan zaigu prezio-zerrenda segurua osatzea konparazioak egiteko. Dena dela, Arabako Errioxako Samaniego herrian zegoen Sortzez Garbiaren Kofradiak herri-sail batean landutako gariaren prezioa dugu; zitu hori urtero «abenduarien bederatzian» saltzen zen; beraz, produktu hori kalitate berekoa zen eta data berean eta leku berean jartzen zen salgai<sup>89</sup>.

Datu horien arabera ondorengo dugu:


|                                |                            |
|--------------------------------|----------------------------|
| Batez bestekoa 1723-1730 ..... | 604 marabedi anegako = 100 |
| Batez bestekoa 1774-1783 ..... | 939 marabedi anegako = 155 |

edo eta:


|                                |                              |
|--------------------------------|------------------------------|
| Batez bestekoa 1729-1736 ..... | 685 marabedi anegako = 100   |
| Batez bestekoa 1776-1783 ..... | 960 marabedi anegako = 140   |
| Batez bestekoa 1792-1800 ..... | 1.478 marabedi anegako = 216 |

<sup>89</sup> Samaniegoko Parrokiako Artxiboa. Sortzez Garbiaren Kofradiaren kontu-liburua; 1770ean honakoa zioten: «y es costumbre de dha Cofradia de vender dho trigo en dia nueve de diciembre y que se nombre nuevo abad»; argizari piztuaz errematzen zelarik.







**Ramelluri onibarrako (Biasteri) errentak:**  
**«tierras blancas» + mahastiak + etxea (1695-1818) beloizko errealetan**



**Gasteizko San Pedro Koruak errentan emandako lurak gari-aneatan**



**Gasteizko Santa Klara komentuko lurak eta etxeak,**  
**errentan emandakoak, gari-aneatan**



**Gariaren prezioa erreal-anegatan Samaniegon.  
Arabako Errioxa (1700-1800)**

Garbi azaltzen da zer-nolako egoera zaila zuten erdi- eta behe-mailako kolonoek mendearen bukaeran, eta XVIII. mendearen onuradun handiak azaltzen dira: lur-jabeak eta, antza, maizter handiak. Maizter hauek, uztaldian saltzera behartuta ez zeudenez gero, espekulatu ahal zuten eta errentaren igoera orekatzen zuten etekinak ateratzen zituzten.

Arabako Lautadako serieek, ugariagoak direnek, baina denborari dagokionez XVIII. mendearen bigarren erdialdera murriztu direnek, antzeko joera erakusten dute, espezieetan kobratzen baziren ere: lur-jabeak, prezioen igoerak ekarritako abantailak jasotzeaz gain, kolonoaren mozkinetatik irabazia ere atera zuen demografi presioak eta lurgoseak lagundurik. 1750etik 1800era espezieetan ordaindutako errentak edo berdin mantendu ziren edo gora egin zuten; behera egin bazuten, honako bi arrazoi hauengatik izan zen: aurreko maizterrak alde egitea eta alorrak egoera txarrean uztea —«se les ha bajado una [fanega] pr. estar la heredad mui mal abonada y cultivada»<sup>90</sup>, edo «adehala y año muerto» delakoa kentzea. Azken alderdi hau garrantzizkoa da, izan ere kontratuak ondoko itxura hartzen zuten mendearen erdialdean: bederatzi urteko errentaren ordezkari anega gari ordaindu behar baziren urte bat hutsean gelditzen zitzaien, hau da, lehenengo urtean eta azkenekoan 4-6 ordaintzen zen eta gainontzekoetan 9; beraz, 8 anega urteko zen batez bestekoa. Beste kasu batzuetan, urte horretaz gain edo truke, onibarraren garrantziaren arabera «adehala» edo hobari bat ematen zitzaien. Dirutan ordaindu beharreko errentek gora gogor egiten zuten garaian, hots, hirurogeiko hamarkadan, abantaila hauek kenduz joan ziren. Hala, bada, Jose Iturralkdek 18-6 anega urteko ordaindu zituen bederatzi urtez eta 1768an, kontratua berritzean, «50 rs. que tenía de adehala» kendu zituzten; Alejos Domingori 180 errealetik 164ra jaitsi zioten 1771n; Otazuko

<sup>90</sup> Gasteizko San Miguel Parrokiako Artxiboa. San Pedro Korua, Antonio González de Troconizen alorra.

Antonio Sarralderi «55 erreal kendu zaizkio lehen 100 ziren-eta»; Miñao Goienen bizi zen Vicente Diez de Betolazari, 400 errealeko hobaria zuenari, berrehunera jaitsi zioten 1784an, eta anega bat ez ezik «año muerto» delakoa ere kendu zioten; Bernardo eta Manuel Ibañez de Garayo izeneko gizonak hamalau anega ordaindu zituzten zazpi urtez eta zazpi lehenengoan eta azkenekoan, eta 1792an «se les han quitado el q<sup>e</sup> traigan primero y último siete fanegas; por q. los nueve an de ser a catorce fanegas», hau da, urtean batez beste 12-4 ordaintzetik 14 izatera pasa ziren; Beranturiko Fernando Alonsoteguirri, 1776an, «se le dieron de Adeala quarenta rs. antes se le daban ciento, se le an quitado sesenta», eta handik bederatzi urtera 48 erreal eta garraio-sariengatik beste 10 kendu zizkioten berriro. Denak Santa Klara Komentuko kolonoak ziren.

Zergen, errenten eta aleekiko espekulazioen gorakada zela-eta, maizter txikiak harrapatuta zeuden, lur-jabe txikiak baino gehiago eta, horren ondorioz, batzuetan zituzten lur-zati eskasak hipotekatu egin behar zituzten; hala gertatu zitzaion Ramelluriko kolonoari Espirbel utzi egin behar izan zuen-eta. Baina horrelakorik ez zutenean, ihes egitea zuten irtenbide bakarra. Antonio Gonzalez de Troconizi, urteko 13-4 anegako errenta zuen alor bateko kontratua zazpi urtez berritu eta gero, 1791n «errentatutakoa kendu egin zaio ezin baitu ordaindu». Prior Jacintok urtean 13-4 anegako errenta ordaintzen zion Komentuari, eta 1766an, hobari gisa zituen 100 erreal eta bi anega kendu zitzaizkion; 1776an eta 1786an badintza berberetan berritu zuen kontratua, baina 1790ean komentuar Manuel Ruiz de Garibay izeneko bati eman zizkion alorrak eta honela azaltzen dute azkenekoaren ordaintzeko modua: «dos fanegas cada un año, pues Jacinto pagaba catorce fanegas en los ocho años de el arrend<sup>o</sup> y en los restantes diez fanegas»; Priorri eta emazteari onibarra kendu egin zieten «p<sup>r</sup> haverse escapado sin pagar la renta ni rezagos q. debían». Mendearen bukaeran, Tomas de Argandoña eta honen emaztea bota egin zituzten etxetik, larrainetik, baratzetik eta hiru alorretik, «por estar ymposibilitados de pagar»<sup>91</sup>.

Ramelluriko errentek eta gorabeherek erakusten dizkigute argien prozesuaren nondik norakoak. Kolonoak bere beharrak «zein ondo betetzen dituen eta ordainketa zintzo egiten duela» aipatzen da 1731n<sup>92</sup>, eta mailegu bat ere eman zitzaion. Baina 1769rako egoerak txarrera egiten du, jabe eta kolonoaren arteko harremanek okerrera egiten dute, nahiz eta kolonoa mantentzeko gauza den; urte horretan maizterrak ez zuen ordaindu «iturrian ez zegoelako urik», eta 1771n hiru urtetan atzeratutako errentak kontuan hartu zituzten, «las quales no habia satisfecho [...] a causa de no haberse

<sup>91</sup> Gasteizko Santa Klara Komentuko Artxiboa, Kontu Liburua; bat 1772an hasten da eta bestea 1761etik 1795era arte da; gaizki zainduta daude.

<sup>92</sup> «Libro de quantas y decretos de los Señores Patronos diviseros de la madre de Dios de los Angeles de Toloño», 1723tik 1742ra, 123. or.

finalizado el pleito que por la falta de la agua estaba siguiendo con esta Santa casa [el inquilino]»<sup>93</sup>; maizterrak urteko 200 errealeko beherapena lortu zuen, 1768tik atzeranzko eragina zuelarik<sup>94</sup>. Erresistentzia hasi baino ez zen egin; kolonoak lurra ahalik eta gehien ustiatzen saiatuko dira hainbat zeregin alde batera utziz, batez ere errenta ordaintzeko epea bukatzeaz zegoenean. 1772ko irailaren 20an ondorengoa erabaki zen: «[ante] la declaración echa por Phelipe de Amurrio del estado en que se hallan por lo respectivo a sus labores las viñas [...] acordaron [los dueños...] q<sup>e</sup> Ant<sup>o</sup> Gil Amurrio arrendatario labre con perfección asta el día del Sr. Sn. Andrés próximo venidero los pedazos que tiene de por cabar y viñar y adelante heche las cabas que le faltan con arreglo a su Es<sup>ra</sup>», «[y luego se] reconozca dichas viñas y resultando lo contrario de su declaración [se] prozeda contra dho Gil Amurri o por todo rigor de dro». Data berean ogitarako sailen azpimaizterrak honakoa zioen oroitza-txostena aurkeztu zuen: «en Razon de que por lo devil de sus tierras e ynfortunios acaecidos se han minorado sus productos y que con respecto a lo pagado por sus antezesores se le minore y rebaxe su excesiva renta e yualmente que por via de empréstito se le dexen en su poder de esta presente paga quinientos reales que ha reserbado de los mil que tiene obligacion de pagar para ayuda de su mejor simentera con obligacion de satisfacerlos a proporcion en los años que le faltan de dho arriendo». Mailegua onartu egin zen eta «zientziadun eta kontzientziadun jendez» osaturiko batzorde bat izendatu zen kontratuaren baja konpontzeko<sup>95</sup>. Batzorde horrek errenta 1.000 errealetik 750era jais-tea onartu zuen, «remitiendole los excesos que en los quatro años que a estado y esta a su cargo a pagado y le tocaba pagar»<sup>96</sup>. Erabilitako argudioa bitxia zen, kontuan izanik handik urte batzuetara baztertu egin zutela guztiz: «Porque según los peritos consultados expresan, los setecientos y cinquenta rs. son el precio nral o bulgar supremo a que en cada año puede suvir y no mas el redito o renta de dha casa y heredades y sobre el precio natural supremo qualquier exceso por leve que sea es yniqua e ynjustamente llevado por el arrendador»<sup>97</sup>. Gero eta jarraitzaile gutxiago zituen teoria baten azken adierazpenak dira, jesuitek XVIII. mendearen lehenengo erdialdeatik aurrera bultzatutako burgesiaren kontrako joeraren barruan daudenak. 1773an arazoak daude kobratzeko eta 1776an mahastietako maizterrei barkatu egin zitzaizen ondo ez lantzeagatik ezarritako isuna<sup>98</sup>. Baina benetako arazoak 1780tik aurrera etorri ziren. Mahastietako maizterrak errentako 2.800 errealetik 1.034 ordaindu gabe utzi zituen;

---

<sup>93</sup> *Ibidem*, 1760tik 1774ra, 212. or. atz.

<sup>94</sup> *Ibidem*, 224. or.

<sup>95</sup> *Ibidem*, 243. or. atz.

<sup>96</sup> *Ibidem*, 254. or.

<sup>97</sup> *Ibidem*, 265. or.

<sup>98</sup> *Ibidem*, 1775etik 1781era, 42. or.

hurrengo urtean 24-17ko isuna ezarri zitzaion «mahastiak behar bezala ez zaintzeagatik»<sup>99</sup>. 1794an alorretako maizterrak ezin izan zuen errenta ordaindu eta mahastienak errentako 4.420 errealetik 2.561-17 utzi zituen zorretan<sup>100</sup>. 1800an garbi azaltzen da alorretako maizterrak 2.578-28 ordaindu gabe zuela «laurogeita hemezortziko eta laurogeita hemeretziako errenten gainerakoa atzerapenak zirela-eta»; horregatik, urte horretako irailaren 23an honakoa erabaki zuten: «en vista de la pretension de Juan de Lasheras rentero de la granja y piezas de ramelluri, en que se le tome para pago de los quatro mil ciento ochenta y ocho reales vellon que es en deber a esta S<sup>ta</sup> Casa de atrasos de rentas debengadas con inclusion de la respectiva a la cumplida en ocho de septiembre de este año una viña como de seis obreros al termino de Espirbel xurisdiccion de Labastida sin embargo de ser hipoteca expecial de un censo debido a d<sup>n</sup> Tomas de Santiago vecino de ella, mediante que de otro modo le es imposible dho pago; en su consecuencia y con consideracion a que el seguro de dho censo tiene otras varias hipotecas de bastante valor; acordaban y acordaron sus SS se le tome en el indicado pago la expresada viña a justa tasacion, con calidad de que a su eviccion seguridad y saneamiento a mas de la obligación general que ha de hacer de su persona y vienes hipoteque expecial y expresamente la casa de su habitación y demás fincas raices que posee». 1802an Espirbeleko sei langileak eta berrogeita hamahiru mahatsondoak Ramelluriko jabeenak ziren<sup>101</sup>.

Badirudi kostaldeko probintzietan ez zirela errentak hainbeste igo, baina ezin da ahaztu lur-jabeek maiz, errentaz gain, azienda berekin erdibana zaintzeko eskatzen zietela maizterrei. Hala gertatu zitzaien Durangoko Magdalenako fabrikako etxe nagusiko maizterrei, izan ere, onuradunek azienda larri eta xeheko hemezortzi buru «admeterian» emanda zituzten eta hori dirutan 53½ dukat ziren 1737an eta 152½ 1774an. Azken kopuru honek 38½ dukateko irabazi gordina ekarri zion kabildoari<sup>102</sup>. Etxe horretako eta bertako lurren errentak baxu mantendu ziren 1757 arte —374 erreal—, beharbada 1710 eta 1711. urteetan hasitako «mortalité de crise» delakoaren ondorioak eta eragin luzeak jasan zituztelarik. Aldaketak izan ziren 1769an —451 erreal—; urte horretan, gainera, aurreko maizter bakarretik bi izatera pasa ziren eta 297 eta 154 erreal ordaindu zituzten, hurrenez hurren. 1779an maizterrak berriro aldatu zituztenean, onibarraren zatiketa mantentzen jarraitu zuten. 1774rako, errentak —561 erreal— balio bikoitza baino handiagoa zuen.

---

<sup>99</sup> *Ibidem*, 1775etik 1781era, 122. or.

<sup>100</sup> *Ibidem*, 1795etik 1807ra, zenbatu gabe dago.

<sup>101</sup> *Ibidem*.

<sup>102</sup> Durangoko Udal Artxiboa. Madalenako Fabrika Liburuak, 1690etik 1727ra eta 1729tik 1793ra, 36., 215 atz. eta 216. orr.

### Magdalenako etxe nagusiko errentak

|                      | Errealak | Indizea |
|----------------------|----------|---------|
| 1701etik 1706ra..... | 291-17   | 115,21  |
| 1707tik 1710era..... | 341      | 134,78  |
| 1711tik 1712ra.....  | 242      | 95,65   |
| 1713tik 1717ra.....  | 247-17   | 97,82   |
| 1718tik 1722ra.....  | 253      | 100     |
| 1723.....            | 222      | 87,74   |
| 1724tik 1738ra.....  | 247      | 97,62   |
| 1739tik 1741era..... | 242      | 95,65   |
| 1742tik 1756ra.....  | 286      | 113,04  |
| 1757tik 1768ra.....  | 374      | 147,82  |
| 1769tik 1773ra.....  | 451      | 178,26  |
| 1774tik 1789ra.....  | 561      | 221,73  |
| 1790etik 1806ra..... | 594      | 234,78  |
| 1807tik ? arte.....  | 616      | 243,47  |

Admeteriak errenten nondik norakoan sartzen duen aldaketa eta horren garrantzia garbi agertzen dira Santa Luzia Kofradiaren ermitako etxearen kontabilitatean<sup>103</sup>.

### Santa Luzia Kofradiaren ermitako etxeko errentak

|                      | Errealak | Indizea |
|----------------------|----------|---------|
| 1716tik 1733ra.....  | 143      | 100     |
| 1734.....            | 209      | 146,15  |
| 1735etik 1740ra..... | 198      | 138,46  |
| 1741etik 1749ra..... | 220      | 153,84  |
| 1750etik 1752ra..... | 286      | 200,00  |
| 1753tik 1761era..... | 275      | 192,30  |
| 1762tik 1791ra.....  | 286      | 200,00  |

1716tik 1791ra, azken urte horretan erregularitasunez egindako kontuak bukatzen dira-eta, maizterrek abereen kopuru jakin bat jasotzen zuten—bost behi, idisko bat eta berrogeita zortzi ahuntz eta antxume, 1743an 1.533-17 errealeko balioa zuten guztira, edo lau idi, behi bat, lau idisko, hamahiru ardi eta berrogeita sei ahuntz, 2.329 erreal 1761ean—. 1822an kontuak azaltzen dira ostera: maizterrari 3.796 errealeko balioa zuen

<sup>103</sup> *Ibidem*. Santa Luzia Kofradiaren Liburuak, 1614-1776 eta 1766-1830.

azienda eman zitzaion, ateratako etekina beretzat zelarik, baina errenta 1.155 errealerara jaitsi zuten.

Lurraren errenta eta uztak merkaturatzetik —kasu honetan errentatik— datozen diru-sarrerak —hamarrenak— denboraldi motz batean —1763tik 1800era— nola aldatu diren erakusten digute Abandoko San Bizenteko Fabrikako etxe eta alorretako errentek<sup>104</sup>.

**Abandoko San Bizenteko Fabrikako etxe,  
alor eta hamarrenetako errentak**

|                          | Errenta |        | Hamarrenen 1/7ri dagokion errentaren batez bestekoa |        |
|--------------------------|---------|--------|---|--------|
|                          |         |        |   |        |
| 1763tik 1771ra . . . . . | 561     | 100    | 2.798   | 100    |
| 1772tik 1773ra . . . . . | 605     | 107,84 | 3.237   | 115,66 |
| 1774tik 1791ra . . . . . | 797     | 142,06 | 3.106   | 110,98 |
| 1794tik 1796ra . . . . . | 800     | 142,60 | 3.647   | 130,31 |
| 1797tik 1799ra . . . . . | 785     | 139,92 | 4.000   | 142,93 |
| 1800 . . . . .           | 800     | 142,60 | 4.000   | 142,93 |

1773 arte maizterrak, lukurreriapean erortzen ez bazen, uztak saltzetik lortutako diru-sarrerak besteko errenta edo txikixeagoa ordaintzen zuen, baina, 1774tik 1796ra, gehiago saldu behar izan zuen proportzioan, errentak prezioen igoera baino gehiago hazi baitziren. Soilik mendearen azken urteetan lortu zuen 1763-1771 garaiaren antzeko egoera.

Errentek gora egitea eta epeak murriztea ez ziren izan lur-jabeek hartu zituzten neurri bakarrak mende bukaerako inflazioaren kontra borrokatze-ko eta maizterren etekina gero eta gehiago gutxitzeko. Mutrikuko San Lazaro eta Madalena Ospitaleko bi etxeak<sup>105</sup> — 24 gizalan mahasti, 30 oineko sagarrondo eta 3½ anega alor, gehi gaztainondoak, hariztiak eta sastrakadiak— dirutan eman zuten errenta 1745etik 1794ra, eta urte horretatik aurrera espezieetan ordaindu zen.

Bederatzi urteko errenta —1764tik 1772ra— lau urtekoa izatera —1782tik 1785ra— pasatzea oso adierazgarria da, eta errenta dirutan ordaintzetik espezieetan egitera aldatzeak lur-jabearen diru-sarreretan oso eragin nabaria izan zuenez, ez da bestelako azalpenik behar.

<sup>104</sup> Abandoko San Bizente Parrokiako Artxiboa. Fabrika Liburua, 1763tik 1834ra.

<sup>105</sup> Mutrikuko Udal Artxiboa. San Lazaro eta Madalena Ospitaleko Kontu Liburuak, 1745, 1758tik 1850era.

### Mutrikuko San Lazaro eta Madalena Ospitaleko bi etxeetako errentak

|                       | Errenta         |                | Errenta espezietan* | Salneurria |
|-----------------------|-----------------|----------------|---------------------|------------|
|                       | <i>Errealak</i> | <i>Indizea</i> |                     |            |
| 1745etik 1763ra ..... | 473             | 100            |                     |            |
| 1764tik 1772ra .....  | 506             | 106,97         |                     |            |
| 1773tik 1781era ..... | 660             | 139,53         |                     |            |
| 1782tik 1785era ..... | 726             | 153,48         |                     |            |
| 1786tik 1789ra .....  | 748             | 158,13         |                     |            |
| 1790etik 1794ra ..... | 792             | 167,44         |                     |            |
| 1795an .....          | 1.335           | 282,24         | 24                  | 63-18      |
| 1796an .....          | 1.540           | 325,58         | 24                  | 59-8       |
| 1797an .....          | 1.664           | 351,79         | 24                  | 64         |
| 1798an .....          | 1.300           | 274,84         | 24                  | 50         |
| 1799an .....          | ?               | ?              |                     | ?          |
| 1800an .....          | 1.014           | 214,37         | 24                  | 39         |
| 1801an .....          | 1.508           | 318,81         | 24                  | 58         |
| 1802an .....          | 1.872           | 395,77         | 24                  | 72         |
| 1803an .....          | 1.768           | 373,78         | 24                  | 68         |
| 1804an .....          | 1.768           | 373,78         | 24                  | 68         |
| 1805ean .....         | 1.300           | 274,84         | 24                  | 50         |
| 1806an .....          | 1.196           | 252,85         | 24                  | 46         |

\* Anega gari.

### Nekazaritza-kreditua

Normalean, nekazariak hipotekari esker lortzen zuen «kreditua», bai lurrak, bai lanabesak, bai azienda edo, besterik gabe, bai hurrengo uzta hipotekatuz. Mailegua, kontsumorako —*soldadura*-garaian zituak aurreratzeko— edo produkziarako —azienda edo lanabesak erosteko, etxe bat eraikitzeko, aleak eriteko...— lortzen zen, eta epe motzerako izan zitekeen, oro har diru-kopuru txikiak baina oso interes handian, edo zehaztugabeko epean eta interes txikian. Azken honi zentso deitzen zaio, eta lortzeko beharrezkoa zen funts-ondasunen jabe izatea, berme moduan hipotekatu egiten baitziren.

Lehenengo motakoa izan zen Fikan bizi ziren Manuel Dobaranek eta Jose Landetak egindako kontratua; lehenengoak ehun eta hirurogeita hamazazpi erreal ordaindu behar zizkion bigarrenari 1773ko azaroaren baterako eta honakoa erantsi zuten: «cuia cantidad es y prozede a saber los nobenta y nueve rrs. de ellos, por el ymportte y monttante de tres fanegas de maiz que me hubo dado y entregado por Nabidad del año proximo pasado de mil settecientos y settenta y dos, [y el resto en dinero físico] por hacerme bien».



Berme modura bere hurrengo uztako artoak hipotekatu zituen<sup>106</sup>. Diru-kopuru xumeak ziren eta nekazaririk pobreenek hartzen zituzten, esaterako, Etxebarri elizateko Legizamon auzoan bizi zen alargun maizterra, zeinek, bere zorrak eta ondasun urriak zenbatzean, onartzen zuen lau anega arto zor zizkiela bi auzokori, bakoitzak berrogeita lau erreal balio zuelarik; urte horretarako (1773) nahiko handia zen prezioa, alegia<sup>107</sup>. Horiengandik ahalik eta probetxurik handiena ateratzen saiatzen ziren ale-espekulatzailak, hau da, merkatariak ez ezik, baita soberakinak eduki eta maileguz emandako zituak hilabete nagusietako prezioan kobratzen zuten guztiak ere. Dena dela, nekazariak ez zituzten aurrerapenak hornigaien krisialdian soilik behar izaten. Beharrak ehundaka erreal baino gehiagokoak zirenean, ezer aurrezturik ez izateak «kreditura» jotzera behartzen zituen ia beti. Hala, bada, nekazaritza-ekonomia muturreko lekuetara heltzen zen eta batez ere produkzio-tresnen gaineko mailegu-sare baten barruan sartuta zegoen guttiz. Adibidez, Loiuko Manuel de Fanok onartzen zuen bere herriko Domingo de Vizcarrari zor zizkiola «un mil y ochocientos rrs. Vn. procedentes de una yunta de Bueies de edad de seis años [...] juntamente con un carro de tabla nuevo» eta sei epetan ordaintzeko konpromisoa hartu zuen, lehenengoa Santa Kurutze egunean «catorce que se cuentan del mes de septiembre», eta horrela urtero. Berme modura ondorengoak jartzen zituen hipotekan: idiak, orga, lanabesak, etxeko alorretako arto guztia, bi arka eta azpil bat<sup>108</sup>. Beste adibide batean honakoa zioen Sondikan bizi zen Jose Uribe: «[me] obligo con mi persona y vienes havidos, y por haver a dar y pagar y que daré y pagaré llana y puntualmente y sin pleito alguno á Juan de Echevarria, vecino de la de Lujua (que se halla presente) la cantidad de un mil y cinco rrs de V<sup>on</sup> a saver los ttrescientos ttreinta y cinco rrs. de ellos, para el dia da S<sup>ta</sup> Cruz catorce que se conttaran del mes de Septtiembre del año prox<sup>mo</sup> venidero, de mil settecientos settenta y siete. Ottros trescientos treintta y cinco rrs. para otro higual dia del año inmediato de settenta y ocho y los ttrescientos ttreinta y cinco rrs. resttantes higualmente para otro higual dia del siguiente año del mil settecientos settenta y nueve, sin mas plazo ni dilacion so la pena de egecucion, cosas y daños de lo contrrario, cuia cantidad procede del importe y valor de una juntta de Bueies de color rojo de ttres a quattro años, que me los ha vendido y entregado, y se hallan en mi poder». Abere horiek eta berea zen orga ferratu bat hipotekatu zituen<sup>109</sup>.

Hamarrenen errentariak,azienda-tratulariak eta hainbat lur-jabe izaten ziren maizterren eta jabe txikien hartzekodun nagusiak. Miserian zeudenen

<sup>106</sup> BPAH, 2948. leg., 1773ko urriak 10.

<sup>107</sup> *Ibidem*, 2948. leg., 1773ko uztailak 2.

<sup>108</sup> *Ibidem*, Escrituras públicas. Juan Alejo de Amezaray eskribaua, 2961. leg., 1786ko maiatzak 2.

<sup>109</sup> *Ibidem*, 1. errej. zkia., Escrituras públicas. Juan Alejo de Amezaray, 1776tik 1782ra, 1776ko abenduak 1.

mailegu-emaileak, zalantzarik gabe. Erandion bizi zen Maria de Mota alargunak honakoa zor zion elizate horretako fruitu-hamarrenen errenta-tzaile zen bertako Martin de Amezcary jaunari 1777an: hirurehun eta hogeita hamabi erreal —senarra zena bizirik zegoenean, 1774, 1775 eta 1776ko urteetan, modu askean eman zizkion hamarrena eta graziak zirela-eta— gehi bi anega arto, bakoitzak hogeita hamar erreal balio zuelarik. Hirurehun eta laurogeita hamabi erreal ordaintzera behartu zuten aitzakiarik eta luzapenik gabe, gehi hogeit eragindako kostuengatik; fidantzan, hogeita bat gizalaneko ogitarako alorretan jaso gabe zegoen garia hipotekatzen zuen, baita Arondon zuen baserriko zazpiko beste alor bat ere<sup>110</sup>. Aipatu Amezcaryri Erandioko senar-emazte batzuek zazpiehun eta berrogeita zazpi erreal zor zizkieten, eta hiru epetan ordaindu behar zituzten: lehenengoan, ehun eta hogeit erreal 1777ko Jaunaren Jaiotzaren egunean, hirurehun eta hamahiru eta erdi 1778ko egun eta hilabete bererako eta, gainerakoa, 1779ko abenduaren hogeita bosterako aurreko urteetan euren etxean utzi zieten hamarrena zela-eta; bildu zituzten anega arto eta gari batzuek osatzen zuten kopuru hau, zeinekin errentari modura ordaindu behar baitzizkieten, bai eta beste batzuei behar-beharrezko mantenturako saldu ere<sup>111</sup>. Ascencio de Menchacak, Loion bizi eta Juan de Ugarte jaunarena zen Larrauri baserri erdiaren maizter zenak, mila hirurehun eta laurogeita hemeretzi erreal zor zituen 1772tik 1777 arte etxe, azienda eta beste akordio zilegi batzuen alokairu-modura, eta dirua eskatzean ordaintzera behartuta zegoen «aitzakiarik eta luzapenik gabe, bestela kostuak eta kalteak ordaindu behar zituen». Honako bermea eskatu zuen: zortzi anega arto, orga bat, uztarri bat, hamalau gizalaneko soro batek emango zuen uztako garia, bi arka, azpil bat, «un gruñete pequeño» eta zehazten ez diren beste ondasun batzuk<sup>112</sup>. Ia ez dago mailegu-pila hauei buruzko lekukotasunik, notari akta egin zen kasu urrietan izan ezik, eta ikusi ahal izan dugunez, horietan ez zen inoiz korritua edo interes-tasa zehaztu.

Samaniegoko Sortzez Garbiaren Kofradiak 49-12 erreal anegatan errematean atera zuen bere soroan bildutako garia 1770eko abenduaren 9an, baina kofradiakide batek 39 baino ez zituen eman nahi, izan ere «horixe baitzen gariaren balioa» etxean erabili zuenean. Uzta jaso eta gutxira prezio horretan zegoela suposatzen badugu, orduan abuztuaren 9rako, errematekoan ordaindu behar izatekotan, interes-tasa %79 izatera helduko litzateke. Ikusi dugunez, 1773ko azaroaren 1ean, ehun eta hirurogeit erreal ordainarazi zizkieten Fikako Manuel de Dobarani; erreal horietatik, laurogeita bederatzi 1772ko Gabonetan maileguz hiru anega arto hartzeagatik eman behar zituen. 1772an artoaren prezioa hogeita bi erreal ingurukoa bazen,

<sup>110</sup> *Ibidem*, 1. errej. zkia., Juan Alejo de Amezcary, 1776-1782, 1777ko otsailak 19.

<sup>111</sup> *Ibidem*, 2. errej. zkia., Juan Alejo de Amezcary, 1776-1782, 1777ko azaroak 6.

<sup>112</sup> *Ibidem*, 1. errej. zkia., Juan Alejo de Amezcary, 1776-1782, 1777ko otsailak 5.

Dobaranek korritu bezala %55 ordaindu zuen. Eta are okerrago zegoen Etxebarriko alargun gajoa, bi auzokori lau anega arto zor baitzizkien eta anega batek berrogeita lau erreal balio baitzituen 1773an! Lukurreria gordinean gaude bete-betean.

Orokorrean, epe luzerako eta interes txikiko maileguak, zentsoak alegia, ehun dukatetik gora hartzen ziren; berriro eros zitezkeen beti, eta zehaztugabeko epean ezartzen ziren; korrituak urtero ordaindu behar baziren ere, kapitala itzuli egin ahal zen mailegariak nahi zuenean, bi hilabete lehenago abisatuz gero behintzat<sup>113</sup>. Interes-tasarik arruntena urtean %3 zen, eta halaxe agertzen da agiri gehienetan eta XVIII. mendearen bukaerako eta XIX.aren hasierako lurralde-estatistiketan, nahiz eta batzuetan 2 eta 2,5eko korrituak hitzartu ziren, eta Independentziako Gerra zela-eta, %4, 4,5, 5, eta 6ra ere heldu ziren<sup>114</sup>. Kasu horiek izan ezik, ez dut lukurreriazko tasarik topatu, ezta mailegu-emaileak benetan emandako kopuruak baino handiagoak eskriturretan ohartarazten zuen kezarik ere.

### Zenbaterainoko zorra zuten nekazariek

Merkataritza-ekonomia eta nekazaritza-produktuen merkaturatzea garatzean, nekazarien zorrak ere handitu egin ziren. Egoera horren aurrean hipoteka-erregistroak sortu ziren hirurogeiko hamarkadan<sup>115</sup>. Elorrioko hiribilduak hipoteka-ofizio bat ipin zezatela eskatu zuen Durangoraino ez joateko, halaxe ezarri baitzuen 1768ko urtarrilaren 31ko errege-pragmatikak; hori eskatzeko, herrian lauhun biztanle ondasundun baino gehiago bizi zirela eta berrehun baserri baino gehiago zituen hamar edo hamaika auzoz osatuta zegoela zioten, baserri gehienak jabe haienak zirelarik, gaineratuz hamalau benefiziodunek osatutako kabildoak Jaurerriko kapitulu-mahairik aberatsenetakoa zuela eta «la mayor parte de sus rentas consistían en censos», zeinak «frecuente se redimen y buelven a imponerse»; halaber, ospitaleak 45.268 errealeko kapitala zuen berriro eros zitezkeen zentsoetan. Tabiraren aurka honako hau gehitu zuten: «no se ha negado q<sup>e</sup> la villa de Durango es de maior vecindario q<sup>e</sup> la de Elorrio», baina «esto influye poco, para q<sup>e</sup> deje de establecerse el oficio, y si el correxidore estuviera bien instruido de la calidad del vecindario de ambas, no podría negar q<sup>e</sup> para este punto es demas consideracion el de la de Elorrio, por razon de

---

<sup>113</sup> *Ibidem*, 2948. leg., 1773ko abenduak 28. Bada salbuespenik, Zaratamoko Bolibaurutia baserriko jabearena, kasu; baserria hipotekatu egin zuen sei urteren buruan eperik gabe eta aitzakiarik gabe itzuli behar zituen berrehun dukat lortzeko.

<sup>114</sup> GBEA, ETSPV, 1. zkia., Abadiño, 1810. AAA, 1813ko errolda, II, 35-38.

<sup>115</sup> Arratia, Durango, Markina eta Zornotzako merindadeek eta Lekeitioko eta Elorrioko hiribilduek «hipoteka-ofizio horiek ezartzea» lortu nahi zuten 1770ean. Gernikako Batzar Nagusiko Dekretu Liburuak, 1770eko maiatzak 19.

ser mas los propietarios de fincas y maior el num<sup>ro</sup> de censos e imposiz<sup>es</sup>.» 1774ko urriaren 24an Gaztelako Kontseiluko fiskalak eskatutakoa egiteko baimena eman zuen arrazoi hauek emanaz: «lo numeroso del vecindario de la villa, los muchos censos redimibles que hay en ella y pueblos de su jurisdiccion»<sup>116</sup>.

Baserri batean jabea eta maizter bat edo gehiago batera bizi baziren, uste dut onibar osoa zegoela zorraren pean baina soilik jabea behartuta zegoela ordaintzera, kontuan izanda ustiategi bati karga ezartzen zioten zentsoak bertako jabeak —zuzenbideari dagokionez, onibarra hipotekatu ahal zuen bakarrak— hartzen zituela, eta berak ordaindu behar zituela korrituak, 1810ean hainbat kolonok erantzundakoaren arabera<sup>117</sup>.

1810eko estatistikatik, zergapetzen zituzten zorren kopurua atera dut baserriz baserri. Emaitzak, ausaz aukeratutako lau leku hartzen dituzten koadro hauetan islatzen dira.

|                               | A      | B     | C     | D   | E   |
|-------------------------------|--------|-------|-------|-----|-----|
| <i>Forua</i>                  |        |       |       |     |     |
| Lur-jabeak.....               | 13.179 | 2.619 | 19,87 | 116 | 90  |
| Lur-jabea(k)+Maizterra(k).... | 12.976 | 1.766 | 13,60 | 90  | 56  |
| Maizterra(k).....             | 20.648 | 1.950 | 9,44  | 60  | 42  |
| <i>Fruiz</i>                  |        |       |       |     |     |
| Lur-jabea(k)+Maizterra(k).... | 9.688  | 2.574 | 26,56 | 183 | 102 |
| Maizterra(k).....             | —      | 1.520 | —     | 66  | 52  |
| <i>Bedaroa</i>                |        |       |       |     |     |
| Lur-jabeak.....               | 7.341  | 1.737 | 23,66 | 102 | 102 |
| Maizterrak.....               | 10.618 | 320   | 3,01  | 11  | 9   |
| <i>Ziortza</i>                |        |       |       |     |     |
| Lur-jabeak.....               | 23.159 | 6.437 | 27,79 | 178 | 173 |
| Lur-jabea(k)+Maizterra(k).... | 28.113 | 5.086 | 18,09 | 211 | 92  |
| Maizterrak.....               | 37.771 | 4.009 | 10,61 | 59  | 54  |

A: Lurraren errenta errealetan.

B: Zentsoen korrituak errealetan.

C: Errentaren gaineko korrituen ehunekoak.

D: Korrituak/etxeen kopurua.

E: Korrituak/familia-kopurua.

Lur-jabea(k): Jabea(k) bizi den/diren onibarrak.

Lur-jabea(k)+ maizterra(k): Jabea(k) gehi maizterra(k) bizi diren onibarrak.

Maizterra(k): Maizterra(k) soilik bizi den/diren onibarrak.

<sup>116</sup> AHN, Consejos, 581. leg. (2), 18. or atz., 57., 66., 91 atz. eta 93. orr.

<sup>117</sup> GBEA, ETPSV., 1 eta 2. zkia., 1810, Foruan eta Mungian.

Maizterrak lur-jabeari ordaintzen diona da errenta, edo bertan bizi baltz jabea, errentan emanda balego emango liokeena. Lurraren errentari buruz ari gara. Kasu guztietan, Forua alde batera uzten badugu, jabeek daramatzen finkek zor gehiago dituzte ustiatzaile ez diren jabeenak baino. Korrituak zatitzen baditugu bai baserrien kopuruen artean, bai bertan bizi diren lagunen artean, ondorio berberak ateratzen ditugu. Zentsoak lurra lantzen duten jabeek ordaindu behar dituzte batez ere.

Ziortza, Bedaroa eta Fruizen, korrituak lurra lantzen duten jabeen errentaren laurdena baino handiagoak dira. Banan-banan aztertzen baditugu, egoera larriagoa da zenbait lur-jaberentzat (ikusitu Fruiz, Bedaroa eta Foruari buruzko koadroak). Fruizen, hemeretzi lur-jabetik, batek porrot egin du, bostek lurraren errentaren %35 baino handiagoak diren interesak ordaintzen dituzte eta denek dute zorren bat; Bedarosan, hamazazpitik hiruk beren errentaren %50 baino gehiago zor dute eta bik baino ez dute zentsorik ordaindu behar; Foruan, berrogei lur-jabetik %75ek zorren bat dute, bederatzik beren diru-sarreraren %35 eman behar dute eta horietako batek, Pedro de Inchaustik, bahiturik ditu ondasunak eta beste bati, Manuel Arrinderi, gutxi falta zaio hori gerta dakion. Uzta txar bat izatean edo zerga berri bat sortzean, zorrek gora egingo dute oro har eta lur-jaberen bat bere hartzekodunen errentari bihurtuko da. Aitzitik, lurra lantzen ez duten jabeen zorra ez da hain handia; Fruizen errentan dauden hogeita bederatzik ustiategitatik zortzik soilik ordaindu behar dituzte zentsoak; Foruan, berriz, hamaseik berrogeita bost eta erditik, eta Bedarosan, bostek hogeita hamahirutik.

1799ko estatistika batek finken errenta eta ordaindu behar dituzten zentsoak zehazten ditu herriz herri. Alde batetik, nekazaritza-arlotik urtero zenbat diru joaten zen mailegu-emaeleen eskuetara azaltzen digu gutxi gorabehera, baina, bestalde, errealitatea ez du garbi islatzen, zeren korrituetako 742.186 errealek ez ziren uniformeki ezartzen errentetako 10.497.882 errealean gainean. Batez bestekoak, per capita errentek bezala, desberdintasun handiak estaltzen ditu.

### Bedaroa, 1810

|                              | A  | B  | Lj | M  | ? | Errenta | Korritua zentsoak | C     |
|------------------------------|----|----|----|----|---|---------|-------------------|-------|
| <i>Jabeak</i>                |    |    |    |    |   |         |                   |       |
| Albiz, Antonio .....         | 1  | 1  | 1  |    |   | 330     | 33                | 10,00 |
| Arambarri, Santiago .....    | 1  | 1  | 1  |    |   | 396     | 115-17            | 29,16 |
| Arrascanda, Jose .....       | 1  | 1  | 1  |    |   | 432     | 115-17            | 26,73 |
| Arrascanda, Maria .....      | 1  | 1  | 1  |    |   | 330     | 99                | 30,00 |
| Endeyza, Antonio .....       | 1  | 1  | 1  |    |   | 866     | 510-17            | 58,94 |
| Eyguren, Domingo .....       | 1  | 1  | 1  |    |   | 484     | 143               | 29,54 |
| Eyguren, Magdalena .....     | 1  | 1  | 1  |    |   | 286     |                   |       |
| Gaizca-g., Manuel .....      | 1  | 1  | 1  |    |   | 264     | 44                | 16,66 |
| Lariz, Jose .....            | 1  | 1  | 1  |    |   | 419     | 88                | 21,00 |
| Mendiola, Domingo .....      | 1  | 1  | 1  |    |   | 220     | 121               | 55,00 |
| Mendiola, Francisco .....    | 1  | 1  | 1  |    |   | 508     | 99                | 19,48 |
| Ugarriza, Pedro .....        | 1  | 1  | 1  |    |   | 550     |                   |       |
| Urteaga, Juan .....          | 1  | 1  | 1  |    |   | 484     | 264               | 54,54 |
| Zabala, Manuel Vicente ..... | 1  | 1  | 1  |    |   | 330     | 33                | 10,00 |
| Zaracondegui, Antonio .....  | 1  | 1  | 1  |    |   | 452     |                   |       |
| Zarandona, Pedro .....       | 1  | 1  | 1  |    |   | 550     |                   |       |
| Eyguren, Antonio .....       | 1  | 1  | 1  |    |   | 440     | 71-17             | 16,25 |
|                              | 17 | 17 | 17 |    |   | 7.341   | 1.737             | 23,66 |
| <i>Errentariak</i> .....     | 27 | 33 |    | 32 | 1 | 10.618  | 320               |       |

### Fruiz, 1810

|                                   | A  | B  | Lj | M  | ? | Errenta  | Korritua zentsoak     | C      |
|-----------------------------------|----|----|----|----|---|----------|-----------------------|--------|
| <i>Jabeak</i>                     |    |    |    |    |   |          |                       |        |
| Arrieta, Bautista .....           | 1  | 2  | 2  |    |   | 550      | 231                   | 42,00  |
| Gondra, Jose .....                | 1  | 2  | 2  |    |   | 630      | 107-08                | 17,11  |
| Isasi, Juan .....                 | 1  | 2  | 2  |    |   | 616      | 128                   | 20,77  |
| Legarreta, Bautista .....         | 1  | 1  | 1  |    |   | 745      | 175                   | 23,48  |
| Mallona, Antonio .....            | 1  | 2  | 2  |    |   | 765      | 231                   | 30,19  |
| Ormaeche, Francisco .....         | 1  | 1  | 1  |    |   | 330      | 128-22                | 38,96  |
| Pinuaga, Juan Jose .....          | 1  | 2  | 2  |    |   | 365      | 148-17                | 40,68  |
| Uriarte, Bautista .....           | 1  | 1  | 1  |    |   | 605      | <sup>a</sup>          | 100,00 |
| Echevarria, Martin .....          | 1  | 2  | 1  | 1  |   | 635-17   | 66                    | 10,39  |
| Gondra, Juan .....                | 1  | 2  | 1  | 1  |   | 1.100    | 41-08                 | 3,72   |
| Isasi Gojenechea, Juan .....      | 1  | 2  | 1  | 1  |   | 760      | 99                    | 13,02  |
| Lequerica, Jose .....             | 1  | 2  | 1  | 1  |   | 932      | 36-10                 | 39,05  |
| Llona, Francisco .....            | 1  | 2  | 1  | 1  |   | 960      | 313-17                | 32,65  |
| Mardaras, Domingo .....           | 1  | 2  | 1  | 1  |   | 695      | 264                   | 37,98  |
|                                   | 14 | 25 | 19 | 6  |   | 9.688-17 | 2.574-14              | 26,56  |
| <i>Errentariak bakarrik</i> ..... | 23 | 29 |    | 29 |   |          | 1.520-29 <sup>b</sup> |        |

*Oharrak:*

<sup>a</sup>: «que dha su casa por estar agoviada de deudas personales se halla en concurso».

<sup>b</sup>: 1.520-29 errealek bederatzi ustiategik baino ez dituzte ordaindu behar; gainerakoek ez dute zorrik. Zor horiek onibarraren jabeak hartu behar ditu, berak soilik hipoteka baitezake, eta ez maizterrak. Honakoa aipatzen dute etxe horietako baten gainean: «que es de advertir se alla concursada dha casa y por lo mismo con deudas de mas de diez mil rrs. de obligaciones personales». *Lotina de en medio* izeneko etxeari buruz ari dira; 579 errealeko errenta ematen duten bi maizter daude bertan, eta zentsokorrituetan 528 erreale ordaindu behar ditu.

## Forua, 1810

|                                  | A   | B   | Lj | M   | Errenta  | Korritua<br>zentsoak | C      |
|----------------------------------|-----|-----|----|-----|----------|----------------------|--------|
| <i>Jabeak</i>                    |     |     |    |     |          |                      |        |
| Arribalzaga, Antonio .....       | 2   | 2   | 1  |     | 1.038    | 99                   | 9,53   |
| Arrinde, Manuel .....            | ¼   | 1   | 1  |     | 160      | 132                  | 82,50  |
| Arrochena, J. ....               | 1   | 1   | 1  |     | 1.056    |                      |        |
| Arronategui, M. ....             | ½   | 1   | 1  |     | 550      | 241-17               | 43,90  |
| Bastegieta, J. ....              | ½   | 1   | 1  |     | 220      | 82-17                | 37,50  |
| Bastegieta, Antonio .....        | 1   | 1   | 1  |     | 440      |                      |        |
| Chertudi, Antonio .....          | 1   | 1   | 1  |     | 616      | 49-17                | 8,03   |
| Goiti, Ignacio .....             | ½   | 1   | 1  |     | 440      |                      |        |
| Gondra, Antonio .....            | 1   | 1   | 1  |     | 605      | 115-17               | 19,09  |
| Gondra, Pedro .....              | 1   | 1   | 1  |     | 677      |                      |        |
| Guarrochena, Juan .....          | ½   | 1   | 1  |     | 320      |                      |        |
| Idoyaga, I. eta A. ....          | 1   | 2   | 2  |     | 1.232    | 99                   | 8,03   |
| Idoyaga, P. ....                 | 1   | 1   | 1  |     | 300      | 82-17                | 27,50  |
| Inchausti, P. ....               | 1   | 1   | 1  |     | 100      | 132                  | 132,00 |
| Ispizua, J. A. ....              | 1   | 1   | 1  |     | 330      | 69-10                | 20,90  |
| Iturriaga, J. ....               | ½   | 1   | 1  |     | 231      | 109-30               | 47,60  |
| Iturriaga, P. ....               | ½   | 1   | 1  |     | 231      |                      |        |
| Madariaga, J. ....               | ½   | 1   | 1  |     | 220      | 99                   | 45,00  |
| Monasterio, J. ....              | 1   | 1   | 1  |     | 462      | 227-26               | 49,13  |
| Obieta, Clara .....              | ¼   | 1   | 1  |     | 160      |                      |        |
| Olaeta, Jose .....               | 1   | 1   | 1  |     | 660      | 82-17                | 12,50  |
| Olaeta, B. ....                  | ½   | 1   | 1  |     | 418      |                      |        |
| Oleaga, J. ....                  | ½   | 1   | 1  |     | 539      | 132                  | 24,48  |
| Olaeta, Juan .....               | ½   | 1   | 1  |     | 316-17   | 221-6                | 69,82  |
| Ormaechea, A. ....               | 1   | 1   | 1  |     | 905      | 198                  | 21,87  |
| Urquieta, J. J. ....             | 1   | 1   | 1  |     | 660      | 412-17               | 62,50  |
| Vidaguren, P. ....               | 1   | 1   | 1  |     | 292-22   | 33                   | 11,27  |
|                                  | 22½ | 30  | 29 |     | 13.179-5 | 2.619-4              | 19,87  |
| <hr/>                            |     |     |    |     |          |                      |        |
|                                  | A   | B   | Lj | M   | Errenta  | Korritua<br>zentsoak | C      |
| <i>Jabeak + maizterrak</i>       |     |     |    |     |          |                      |        |
| Aberasturi, J. ....              | 1   | 2   | 1  | 1   | 682      | 148-17               | 21,77  |
| Arribalzaga, Jose .....          | 1   | 2   | 1  | 1   | 640      | 115-17               | 18,04  |
| Arribalzaga, Magdalena. ....     | 2   | 5   | 1  | 4   | 1.901    |                      |        |
| Echevarria, D. ....              | 2   | 3   | 1  | 2   | 1.976    | 507-17               | 25,68  |
| Gandarias, J. ....               | 1½  | 2   | 1  | 1   | 618      | 105-30               | 17,13  |
| Goiri, Antonio .....             | 1½  | 2   | 1  | 1   | 616      | 138-20               | 22,50  |
| Oar, Antonio .....               | 3   | 5   | 1  | 4   | 2.035    | 148-17               | 7,29   |
| Ormaechea, J. ....               | 1   | 2   | 1  | 1   | 1.100    | 176-8                | 16,00  |
| Ormaechea, J. V. ....            | 3   | 4   | 1  | 3   | 1.029    | 181-17               | 17,63  |
| Uribe, Antonio .....             | 2½  | 2½  | 1  | 1½  | 1.279    | 244-7                | 19,11  |
| Zarrabe, V. ....                 | 1   | 2   | 1  | 1   | 1.100    |                      |        |
|                                  | 19½ | 31½ | 11 | 20½ | 12.976   | 1.766-14             | 13,60  |
| <i>Maizterrak bakarrik</i> ..... | 32  | 46½ |    | 45½ | 20.648   | 1.950                | 9,44   |

Horiez gain apaizaren etxea dago; bertan bizi zen bera baina ez da garbi azaltzen nor den etxeke jabea.

Ziortza, 1810

|   | A       | Lj | M | Errenta | Zorra    |           | Zergak   |
|---|---------|----|---|---------|----------|-----------|----------|
|   |         |    |   |         | Kapitala | Korrituak |          |
| <i>Lur-jabeak</i>                               |         |    |   |         |          |           |          |
| Abaitua, Jose Joaquin . . . . .                 | 1       | 1  |   | 110     | 310      | 110-10    | 4        |
| Anitua, Jose . . . . .                          | 1       | 1  |   | 440     |          |           |          |
| Ansotegui, F. Antonio . . . . .                 | 1       | 1  |   | 1.100   |          |           | 60       |
| Ansotegui, Juan Antonio . . . . .               | 1       | 1  |   | 200     |          |           |          |
| Arechabal, Juan . . . . .                       | 1 + e   | 1  |   | 1.388   | 2.080    | 694-24    | 8-10     |
| Artaechevarria, Juan . . . . .                  | 1       | 1  |   | 1.100   | 150      | 49-17     | 108-10   |
| Ascaiturrieta, J. Francisco . . . . .           | 1       | 1  |   | 154     | 450      | 148-17    |          |
| Astorquia, Domingo . . . . .                    | 1       | 1  |   | 1.200   |          |           | 40       |
| Aiarzaguena, Domingo . . . . .                  | 1       | 1  |   | 672     | 700      | 231       | 160      |
| Bergara, Cristobal . . . . .                    | 1       | 1  |   | 600     | 330      | 109       | 60       |
| Careaga, Domingo . . . . .                      | 1       | 1  |   | 275     | 8.055    | 1.998-05  | 127      |
| Celaya, Antonio . . . . .                       | 1       | 1  |   | 570     |          |           |          |
| Garro, Francisco . . . . .                      | 1       | 1  |   | 1.020   | 240      | 79-06     | 180      |
| Gastañeta, Jose . . . . .                       | 1       | 1  |   | 220     | 118      | 39        |          |
| Guerricabeitia, Cristobal . . . . .             | 1       | 1  |   | 770     |          |           |          |
| Guerricabeitia + Baster. <sup>a</sup> . . . . . | 1       | 2  |   | 880     | 3.700    | 1.221     | 50       |
| Ibaibarriaga, Jose . . . . .                    | 1       | 1  |   | 1.220   | 690      | 227-24    |          |
| Jayo, Juan . . . . .                            | 1       | 1  |   | 374     | 945      | 312       |          |
| Jayo, aita-semeak . . . . .                     | 1       | 2  |   | 1.320   | 600      | 198       | 100      |
| Larrinaga, Pedro Antonio . . . . .              | 1       | 1  |   | 300     | 50       | 16-17     |          |
| Lejarzaburu, Francisco . . . . .                | 1       | 1  |   | 660     |          |           | 80       |
| Longarte, Juan . . . . .                        | 1       | 1  |   | 1.138   | 1.400    | 462       | 120      |
| Luzar, Domingo . . . . .                        | 1       | 1  |   | 1.264   |          |           | 40       |
| Onaindia + Unamunsaga . . . . .                 | 1 + e   | 1  |   | 740     | 400      | 132       |          |
| Onaindia, Domingo . . . . .                     | 1       | 1  |   | 50      | 50       | 16-17     |          |
| Onaindia, Jose . . . . .                        | 1       | 1  |   | 500     | 400      | 132       |          |
| Onaindia, Jose . . . . .                        | 1       | 1  |   | 660     | 80       | 26-13     |          |
| Orbea, Bartolome . . . . .                      | 1       | 1  |   | 1.073   |          |           |          |
| Sangroniz, Domingo . . . . .                    | 1       | 1  |   | 450     | 300      | 165       | 60       |
| Sangroniz, Francisco . . . . .                  | e       | 1  |   | 110     |          |           | 160      |
| Uriona Barrenechea, D. . . . .                  | 1       | 1  |   | 300     |          |           |          |
| Uriona B. + Ibaibarriaga . . . . .              | 1       | 2  |   | 1.487   |          |           | 40       |
| Yrquiola, Jose . . . . .                        | 1       | 1  |   | 770     | 210      | 69-10     | 110      |
| Yrusta, Maria Antonia . . . . .                 | 1       | 1  |   | 44      |          |           |          |
|   | 3e + 33 | 37 |   | 23.159  | 21.258   | 6.437-24  | 1.507-20 |



|                                | A           | Lj | M  | Errenta | Zorra    |           | Zergak  |
|--------------------------------|-------------|----|----|---------|----------|-----------|---------|
|                                |             |    |    |         | Kapitala | Korrituak |         |
| <i>Lur-jabeak + maizterrak</i> |             |    |    |         |          |           |         |
| Apoita, Jose.....              | 2           | 1  | 1  | 1.424   | 1.730    | 570-30    |         |
| Apoita, Juan Tomas.....        | 1           | 1  | 2  | 1.472   | 100      | 33        |         |
| Aramburu, Jose.....            | 1           | 1  | 1  | 1.406   | 100      | 33        |         |
| Artagoitia, Francisco.....     | 1           | 1  | 1  | 1.400   | 1.664    | 549-04    |         |
| Basterrechea, Domingo....      | 1           | 1  | 2  | 1.100   | 150      | 49-17     | 133-11  |
| Basterrechea, Juan.....        | 1           | 1  | 1  | 1.220   | 690      | 200-06    | 40      |
| Cenarruzabeitia, Magdalena     | 1           | 1  | 2  | 1.124   | 1.390    | 458-23    | 133-11  |
| Eguren, Juan eta J. Francisco  | 1           | 2  | 1  | 1.260   |          |           | 33-11   |
| Ibaibarriaga, Francisco....    | 1           | 1  | 1  | 1.390   | 156      | 51-08     | 78-10   |
| Idoeta, Jose.....              | 1           | 1  | 1  | 1.430   | 1.690    | 557-23    |         |
| Inchaurraga, Maria.....        | 1           | 1  | 1  | 198     |          |           | 166-11  |
| Iturriaga, Domingo + Maria     | 1           | 1  | 1  | 964     | 653      | 248-16    |         |
| Laca, Jose eta semea.....      | 1           | 2  | 1  | 1.287   | 700      | 231       |         |
| Mendiolea, Jose Domingo..      | 1           | 2  | 2  | 2.112   | 1.790    | 557-24    |         |
| Olate, Josefa.....             | 1           | 1  | 1  | 1.320   | 375      | 123,28    | 66-22   |
| Onaindia, Pedro Antonio..      | 1           | 1  | 1  | 980     | 550      | 181-17    | 40      |
| Onaindia, Pedro Jose.....      | 1           | 1  | 2  | 2.431   | 1.300    | 429       |         |
| Uburuaga, Jose.....            | 1           | 1  | 1  | 770     | 120      | 39-10     | 80      |
| Uriarte, Jose Maria.....       | 1           | 1  | 1  | 1.035   | 200      | 66        | 120     |
| Uriona Barrenechea, F.V....    | 1           | 1  | 1  | 1.044   |          |           | 40      |
| Uriona Barrenechea, Juan..     | 1           | 1  | 2  | 920     | 1.173    | 387-3     | 100     |
| Urguidi, Pedro.....            | 1           | 1  | 1  | 264     | 67       | 22        |         |
| Zabala, Pedro.....             | 1           | 1  | 1  | 1.562   | 900      | 297       |         |
|                                | 24          | 26 | 29 | 28.113  | 15.498   | 5.086-5   | 1.031-8 |
| <i>Maizterrak soilik</i>       |             |    |    |         |          |           |         |
|                                | A           | Lj | M  | Errenta | Zorra    |           | Zergak  |
|                                |             |    |    |         | Kapitala | Korrituak |         |
| Abaitua, Jose Joaquin.....     | etxetxoa    |    | 1  | 44      |          |           | 5       |
| Alzaa, J. F., Markinakoa....   | 4 + e1      |    | 4  | 620     | 3.124    | 1.031-19  | 40      |
|                                |             |    |    | 363     |          |           |         |
|                                |             |    |    | 656     |          |           |         |
|                                |             |    |    | 1.200   |          |           |         |
|                                |             |    |    | 760     |          |           |         |
| Alzaga, J. A., Oñatikoa....    | 3           |    | 4  | 760     | 1.380    |           |         |
|                                |             |    |    | 110     |          |           |         |
|                                |             |    |    | 122     |          |           |         |
| Ansotegui, Benito, Markin.     | 2           |    | 2  | 198     | 1.200    |           |         |
| Ansotegui, Juan Antonio...     | 5           |    | 11 | 44      |          |           |         |
|                                | + 3 etxetxo |    |    | 154     | 5.454    | 1.200     | 50      |
|                                | + errota 1  |    |    | 44      |          |           |         |
|                                |             |    |    | 110     |          |           |         |
|                                |             |    |    | 187     |          |           |         |
|                                |             |    |    | 520     |          |           |         |
|                                |             |    |    | 1.820   | 1.200    |           | 133-11  |
|                                |             |    |    | 960     |          |           |         |
|                                |             |    |    | 1.133   |          |           |         |
| Artachevarria, F.I. ....       | 1           |    | 1  | 297     |          |           |         |
| Astarloa, Jose, oinordekoak    | 2           |    | 2  | 351     |          |           |         |
|                                |             |    |    | 154     |          |           |         |

|                                 | A                                | Lj | M            | Errenta   | Zorra    |           | Zergak |
|---------------------------------|----------------------------------|----|--------------|---|----------|-----------|--------|
|                                 |                                  |    |              |   | Kapitala | Korrituak |        |
| Valdespina markesa . . . . .    | 3                                |    | 4            | 1.005 }<br>962 }<br>863 }   |          |           |        |
| Bengoa, J.M., Gernikakoa .      | 1                                |    | 1            | 264   |          |           |        |
| Careaga, Domingo . . . . .      | 2                                |    | 2            | 652 }<br>1.506 }  |          |           |        |
| Castaños, Blas, Duran. presb.   | 1                                |    | 1            | 534   | 180      | 59-12     | 8-10   |
| Cenarruzabeitia, Magdalena      | 1                                |    | 1            | 550   | 1.666    | 550       |        |
| Markin. Agustindarren kom. .    | 1                                |    | 1            | 176   |          |           |        |
| Mutrikuko S. Agustin kom..      | 1                                |    | 2            | 680   |          |           |        |
| Markinako Merced koment.        | 2 + e1                           |    | 3            | 240 }<br>600 }<br>562 }   |          |           |        |
| Egurbide, Ramon, Markinak.      | 1                                |    | 1            | 520   |          |           |        |
| Eizaguirre, R., Zornotzakoa     | 1                                |    | 2            | 1.760   | 2.954    | 974-27    |        |
| Emparan, F., Azpeitiko . . .    | 1                                |    | 1            | 670   |          |           |        |
| Gorosabel, J., Arrasatekoa...   | etxetxoa                         |    | 1            | 77  | 40       | 13-6      |        |
| Garro, Francisco . . . . .      | 2                                |    | 2            | 486 }<br>66 }   |          |           |        |
| Laca, Jose . . . . .            | 1                                |    | 1            | 580   |          |           |        |
| Larrinaga, Pedro Antonio . .    | etxetxoa                         |    | 1            | 80  |          |           |        |
| Liceranzu, Benito . . . . .     | e1                               |    | 1            | 550   |          |           |        |
| Madariaga, Jose Antonio . .     | 1                                |    | 1            | 324   |          |           |        |
| Mendibelsua, M., Zal. . . . .   | etxetxoa                         |    | 1            | 88  |          |           |        |
| Onaindia, Domingo . . . . .     | 1                                |    | 2            | 1.118   | 2.215    | 730-32    | 90     |
| Torrezuri, Jose Antonio. . . .  | 1                                |    | 1            | 121   |          |           |        |
| Uriona Barrenechea, D.C. . . .  | 1                                |    | 2            | 1.120   |          |           |        |
| Uriona Barrenechea, F. V. . .   | 2                                |    | 2            | 532 }<br>528 }  |          |           |        |
| Uriona Barrenechea, Miguel      | etxetxoa                         |    | 1            | 66  |          |           |        |
| Yrusta, Juan Cruz . . . . .     | 4                                |    |              | 725 }<br>+ 2e }<br>+ b1 }<br>1.280 }<br>88 }<br>540 }<br>400 }<br>500 } |          |           |        |
| Jabearen izena eman gabe..      | etxetxoa                         |    | 1            | 33  |          |           |        |
| Jabearen izena eman gabe..      | 1                                |    | 2            | 570   |          |           |        |
| Elizatea. . . . .               | 2                                |    | ?            | 638   |          |           |        |
| Ziortzako kalonjeak . . . . .   | 2                                |    | ?            | ?   |          |           |        |
| Marquina, J. Joaquina . . . . . | 1                                |    | ?            | 1.060   |          |           |        |
| Artaechevarria, F. Ignacio . .  | 1                                |    | ?            | 1.100   |          |           |        |
|                                 | 52 + 6e +<br>+ b1 + 9<br>etxetxo |    | 70 +<br>+ 4? | 37.771  | 15.633   | 4.559-28  | 326-21 |

A Eraikinak

B Gelak

C Errenta gaineko zentsoen korrituen ehunekoa

Lj Lur-jabeak

M Maizterrak

? Zalantzak

e Errota

b Burdinola

Kapitala, dukatetan

Errenta, korrituak eta zergak, errealetan

## Bizkaia, errentak eta korrituak 1799an

|  |            |
|--|------------|
| Errenta partikularren produkzio osoa . . . . .                           | 10.497.882 |
| Ondasun partikularren gaineko zentsoen korrituen zenbateko osoa . . . .  | 742.186    |
| Propioen eta arielen errenten produktu osoa . . . . .                    | 1.193.314  |
| Propioen eta arielen gaineko zentsoen korrituen zenbateko osoa . . . . . | 276.634    |

%3ko interes arrunt batekin kalkulaturaz, korrituetako 1.018.820 errealak (276.634 + 742.186) zentsoetan inbertituriko kapitaletako 33.960.666 erreali dagozkio<sup>118</sup>.

### Zentso-edukitzaileak

Oso zaila da jakitea nekazaritza-arloan non zeuden kredituen jabeak eta kapitala non metatzen zen. Horretarako beharrezkoa izango litzateke herri ugari —hamar eta hogeit bitartean— aztertuko luketen ikerketak egitea; geografiari dagokionez, zona berekoak izan beharko lukete eta, lehenengo, herriz herri mailegu-emaileen zerrenda egin beharko litzateke eta, gero, zerrendak elkartu ea baten batek kredituak herri desberdinetan zabaldu dituen ikusteko. Zeregin hori lan honen helburuetatik kanpo dago; dena dela, hiru elizate hartuta —Busturi-Axpe, Abadiño eta Ziortza 1810ean— saiakera bat egin dut. Nekazarien aitortpenetatik mailegu-emailearen izena eta utzitako zenbatekoa atera ditut; gero herri bakoitzaren fitxak berriro sailkatu ditut horien izenaren arabera.

#### Abadiño

| Mailegu-emaileak              | Dukatak | %      |   |
|-------------------------------|---------|--------|---|
| Eliz kabildoak . . . . .      | 12.290½ | 14,58  | } |
| Komentuak . . . . .           | 663     | 0,79   |   |
| Eliz fabrikak . . . . .       | 290     | 0,34   |   |
| Kaperautzak . . . . .         | 16.985  | 20,15  |   |
| Obra elizkoiak, etab. . . . . | 996     | 1,18   |   |
| Partikular laikoak . . . . .  | 27.158½ | 54,83  | } |
| Izena zehaztu gabe . . . . .  | 19.065  |        |   |
| Ospitaleak . . . . .          | 6.858   | 8,13   |   |
| <i>Guztira</i> . . . . .      | 84.306  | 100,00 |   |

<sup>118</sup> GBEA, ETC, 1. zkia., 1799tik 1828ra.

### Busturi-Axpe

| Mailegu-emaileak             | Dukatak | %      |         |
|------------------------------|---------|--------|---------|
| Eliz kabildoak . . . . .     | 5.661   | 28,40  | } 66,91 |
| Komentuak . . . . .          | 5.415   | 27,17  |         |
| Kaperautzak . . . . .        | 1.120   | 5,62   |         |
| Kofradiak . . . . .          | 400     | 2,01   |         |
| Zenbait komunitate . . . . . | 500     | 2,51   |         |
| Eliz fabrikak . . . . .      | 140     | 0,70   |         |
| Obra elizkoia . . . . .      | 100     | 0,50   |         |
| Partikular laikoak . . . . . | 5.563   | 27,92  |         |
| Udalak . . . . .             | 500     | 2,51   |         |
| Ospitaleak . . . . .         | 530     | 2,66   |         |
| <i>Guztira</i> . . . . .     | 19.929  | 100,00 |         |

### Ziortza

| Mailegu-emaileak                              | Dukatak | %       |         |
|---|---------|---------|---------|
| Partikular laikoak . . . . .                  | 28.471  | 56,17   | } 72,04 |
| Izena zehaztu gabe . . . . .                  | 8.045   | 15,87   |         |
| Kaperautzak . . . . .                         | 4.546   | 8,96    | } 35,74 |
| Komentuak . . . . .                           | 310     | } 26,78 |         |
| Ziortzako Kolejiala . . . . .                 | 2.695   |         |         |
| Ziortzako abatetxea . . . . .                 | 400     |         |         |
| Eliz kabildoak . . . . .                      | 3.939   |         |         |
| Onuradunak . . . . .                          | 485     |         |         |
| Eliz fabrikak . . . . .                       | 220     |         |         |
| Ermitak . . . . .                             | 225     |         |         |
| Obra elizkoiak . . . . .                      | 695½    |         |         |
| Kofradia . . . . .                            | 50      |         |         |
| Binkulua . . . . .                            | 100     |         | } 1,18  |
| Elorrio, lehen hezkuntzako maisutza . . . . . | 500     |         |         |
| <i>Guztira</i> . . . . .                      | 50.681½ |         |         |

*Iturria:* GBEA, ETPSV, I. zkia. 1810, herri bakoitzekoan.

Kredituaren garrantzizko zati bat partikular laikoen eskuetan zegoen —Abadiño, %54,83; Ziortza, %72,04; Busturia, %27,92— eta zati txikiagoa eliz kabildoena eta komentuenena zen. Gaztelan ez zen halakorik gertatzen, izan ere han kleroak zentsoen %73 zuen<sup>119</sup>; baina errealitatean, klero

<sup>119</sup> Vilar, P., «Structure de la société espagnole vers 1750», in *Mélanges à la mémoire de Jean Sarrailh*, Paris, 1967, II. libk., 428. or.

erregeladun eta sekularraren kutxek jasotzen zituzten eliza obren, kaperautzen, kofradien... korrituak. Beraz, beren ehunekoak gora egiten du laikoen baina baino pixka bat txikiagoa izatera helduz.

Lehenengo begiratuan Elizak, edo berari atxikitako fundazioek, zordunek porrot egitetik zetozen lurren zati proportzionala izan beharko lukete. Nahikoa da Abadiño, Forua eta Ziortzako lur-jabeen zerrenda gainetik begiratzea kleroak oso onibar gutxi zuela ikusteko. Euskal Herrian Eliza, gehienez ere, lur-jabe txiki bat zen. Ez dakit zergatik baina nekazari bat saltzera behartuta zegoen bakoitzean, Elizako onuradunak, eskuratzen zituzten ondasunak diru bihurtzen saiatzen ziren eta diru hori zentso berri batean inbertitzen zuten berriro. Batzuetan, kaperautzei edo obra elizkoiei zegozkien kapitaletan batez ere, horrelaxe gertatzen zen fundazioaren estatutuetan hala ezarrita zegoelako<sup>120</sup>.

Egoera honen ondorio ideologiko eta politikoak garrantzizkoak izan ziren. Ez zaio Euskal Herriko kleroari «errentatzaile eta jabe» izatearen kritikarik egingo. Kleroaren jokaera horrek laikoan lur-metaketa erraztu zuen eta hauek, nahiz eta zentsorik izan ez, beherago azalduko dugun mekanismoaren bidez, heren bateko beherapenez erosi ahal zioten onibarra zorretan zegoen nekazariari eta gero hartzekodunei ordaindu, batez ere azken hauek asko baziren eta ez bazuten beren ondasunetatik hurrun zegoen lur-zati bat izateko interesik.

Zentso-edukitzaile laikoan artean ez zegoen noble tituludunik, jakina. Dagoeneko ikusi ditugun Erandioko adibideetan merkatari bilbotarrak zeuden, baina gehienak nekazariak berak dira. Ziortzako kasuan, bertan bizi ziren jabe nekazariak maileguz emandako diru-kopurua eta bertan bizi baina jabe gisa agertzen ez diren pertsonen emandakoa kalkulatu ditut. Lehenengoek, hamar guztira, 5.212 dukat eman zituzten maileguz, baina era berean 8.660 zor zituzten; beraz, urtean korritutan 1.137 erreale zituzten kontra, batez besteko interesa %3koa zelarik. Beren lurren errenta 15.508 errealetan ebaluatzen zenez, beren egoera ez zen txarra. Talde honetako pertsona garrantzizkoena Juan Antonio de Ansotegui zen: berrehun errealeko errentako etxe batean bizi zen eta bost etxe, hiru etxetxo eta errota bat zituen bertan; urtean 4.972 erreale jasotzen zituen bere hamaika maizterrengandik; 5.454 dukat eta 1.200 erreale zor zituen korritutan eta 3.018 dukat emanda zituen maileguz, horietako 2.818 %2an. Kapare txikia edo landatar burgesa? Errentatzailea edo benetako «enpresaria»? Diru-kopuru handiagoa, 8.358 dukat, eman zituzten maileguz 1810eko estatistikan lur-jabe gisa agertzen ez diren herriko hamaika lagunek. Ez dakit zorrik zuten, izan ere, ondasun higiezinik ez zuten, ez dira agirian azaltzen. Maileguen gainontzekoa, 1.901 dukat, kanpotarrenak ziren; hauetako batzuk herriko onibarraren baten jabeak ziren, Zornotzako Ramon de

---

<sup>120</sup> BPAH, Escrituras públicas, 4362. leg.

Eizaguirre esaterako: 1.760 errealeko errenta eta korritutan 974-27 erreal zituen etxe baten jabea zen eta ilobek, bere oinordekoek, 2.654 dukat emanak zituzten maileguz.

Laburbilduz, herriko ehun eta hirurogeita bederatzi lagunetik, hogeita batek baino ez zieten beren auzokoei dirua maileguz eman, eta, beste batzuek kreditua inguruko herrietan eman ahal izan zutenez, gehienez ere berrogeik —jabeak edo maizterrak izan zitezkeen— kontrolatzen bide zituzten zentsoak. Aurreikus zitekeenez, nekazaritzaren mundua nahikoa bereizita zegoen, eta ez zuen lurraren jabegoak soilik bereizten.

### Zentsoa, interes-tasa eta betearazpena

Mailegariak ezin zuenean ezarritako epeetan dirua itzuli edo, gehienetan gertatzen zen bezala, mailegu ugari hartzeagatik korrituen zenbatekoa finken diru-sarrerak baino handiagoa zenean, saldu beharra izaten zuen: lehenengo, landugabeko lurrak, eta egoerak onera egiten ez bazuen, onibarreko gainontzekoa; jabe izatetik maizter soilak izatera pasatzen ziren horrela. 1783an, esaterako, Erandioko bizilagun batek 2.600 estatuko estrepadi bat saldu zion Joan de Veitiari 3.467 errealen truke eta diru hori Loiuko bi lagunekin zituen zorrak ordaintzeko erabili zuen<sup>121</sup>. Urte batzuk geroago herriko beste bizilagun batek 2.350 estatu zituen landugabeko otadiko «marguina» bat saldu zuen zorrak kitatzeko «en atencion a que estoy ajusttado y convenido con el nominado dn Pedro de Ardanaz [bilbotarra] y su compañero [beste leku batean *socio* bezala izendatzen duen Vicente] Vengoa, del comercio de la citta-da villa de Bilbao de venderles y enagenarles por precio de dhos mil ciento settenta y cinco rs. vn. que me ttienen entregados antes de aora»<sup>122</sup>.

Salmenta hauek errealtatea estali egiten zuten, ez baita kontatzen zein baldintzatan egiten zituzten. Hipoteka-zentsoen kasuan, lukurreria ez zen interes-tasan —nahiko txikia zena— egiten, pentsatzekoa den bezala, betearazpenaren baldintzetan baizik. Dagoeneko ikusi dugu Ardanazek eta Bengoak 2.350 estatu lortu zituztela 1786an; lau urte geroago, otadia saldu zuen nekazari berak ogitarako alor bat eta «marguina» delakoaren gainerakoa saldu behar izan zituen. Landutako lur horrek muga egiten zuen hegoekialdean Ardanazek eta Bilboko kideak «Derioko elizatean bizi zen Antonio de Lañari erositako» ondasunekin. Alor hori hesi batez inguratuta zegoen eta 1.998 errealeko 666 estatu zituen eta otadiak, berriz, 1.299 errealeko 2.598 estatu; biak gehitzen baditugu 3.297 erreal dira eta guztira honakoa dute: «y vajados à estos un mil y treintta y tres por la tercera parte segun constumbre de este Noble Señorío queda el importe

<sup>121</sup> *Ibidem*, 2961. leg., 1783ko martxoak 10.

<sup>122</sup> *Ibidem*, 2961. leg., 1786ko martxoak 22.

liquido de ambos terrenos en» 2.264 errealetan, senar-emazte emaileek izendatutako peritoaren tasazioaren arabera, Alcalá de Henaresko Gorteen egindako Errege Ordenamenduari uko egiten ziotelarik, hots, «que tratta de lo que se compra vende o permuta por mas ó menos de la metad de su justo precio», eta hauxe gaineratzen zuten: «en el interin que la tomen nos constituimos por sus inquilinos y tenedores precarios»<sup>123</sup>. 1783an, Erandioko senar-emazte batzuek adierazi zuten bata eta bestea zirela jabeak «en propiedad y posesión y virtud de justos y legitimos títulos de la casa y casseria nombrada erraza herdicoa y sus pertenecidos, que con estos es notoria en esta dha Anteiglesia: que fuera de las cargas y responsabilidades con que se les dono a los dhos marido y muxer otorgantes la citada cassa y pertenecidos por la adversidad de los tiempos escazes continua de frutos y otros motibos hauian contraido varias deudas y obligaciones. Que estas no hauian podido redimir y pagar por la gravedad de las responsabilidades y siguiendo el Ynfortunio se les hauia hecho insoportables de tal manera que rodeado molestado y oprimido de los acrehedores se uieron precisados dhos conyuges otorgantes de suplicarle (como le suplicaron) al significado D<sup>n</sup> Fran<sup>co</sup> M<sup>l</sup> de Ugarte para que les diese y entregase hasta en cantidas de quatro mil setecientos y setenta y dos rrs. de moneda de vellon y dho D<sup>n</sup> Fran<sup>co</sup> M<sup>l</sup> les dio y entrego a los susos dhos la citada cantidad. Que por no tener con que reintegrarle esta al suso dho le hauian tambien suplicado para que a tasacion de personas inteligentes y con baja de tercera parte segun es permitido en este Noble Señorío de Vizcaia les comprase la citada casa de Erraza herdicoa y sus pertenecidos, honores y preminencias, exceptuando la sepultura que la toca en la Iglesia Parroquial de esta misma republica y avia venido a ello dho D<sup>n</sup> Fran<sup>co</sup> M<sup>l</sup> de Ugarte». Peritoek 15.074 beloizko erreal eta hiru kuartoetan tasatu zituzten lurra eta eraikinak, honakoa gehituz: «que rebatiendo la tercera parte quedan en diez mil quarenta y tres rrs. y medio de la misma moneda». 8.802 errealeko zorra zuten eta ordaindu ondoren 1.241-17 (10.043 ken 8.802 = 1.241-17) geratu zitzaizkien<sup>124</sup>. Elizate bereko beste etxe bat, Lucas de Uretarena, 30.960-17 errealetan (etxea 7.940 + ogitarako alorretako 5.045 estatu 16.425-17 + landugabeko lurretako 6.594 estatu 6.595) tasatu zuten eta «A la expresada cantidad se le hara la vaja, en que combengan los interesados». 1796ko irailaren 25eko eskrituraren arabera, 20.640-15 errealetan saldu zitzaizkion etxe eta onibar horiek jabearen koinatu zen Diego de Iturraderi, eta honakoa adierazten da: «cuia cantidad sobre de dhos un mil y quinientos ducados que se ha de obligar a pagar a dicho Icaza y su muger, confesó [el dueño] tener recuido con mucho exceso del referido S<sup>or</sup> don Diego antes de aora en varias ocasiones». Alcalá de Henaresko Gorteen hartutako

<sup>123</sup> *Ibidem*, 2962. leg., 1790eko urtarrilak 26.

<sup>124</sup> *Ibidem*, 2961. leg., 1783ko uztailak 6.

errege-ordenamenduari uko egiten zion hark eta hauxe gaineratu zuen: 1.500 dukaten jatorria ordaindu gabeko ezkontsari bat zela, hain zuzen ere «por los infortunios y esterilidades de los tiempos», eta bere koinatuarengana jotzen zuela «[por] no haver sugeto que le desempeñase por el deplorable estado de los negocios y decadencia resultada de la guerra con francia»<sup>125</sup>.

Nire ustez, adibideak adierazgarriak dira eta ez dute azalpenik behar. Nekazaria, ondasunak saltzerakoan, kapitala zutenen mende zegoen gutiz, eta hauek prezio normalari %33,33ko beherapena eginda eros zitzaizkiren onibarrak. Hipoteka-zentsoaren asmoa, demografi hazkunde indartsua eta errenta handiak zeuden sasoi horretan, agian, lur-jabegoa lortzea zen, interesak jasotzea baino areago.

### **Nekazariak zorrak izatearen zergatiak**

Erraza Herdicoa baserriaren jabeek, eguraldi txarra, denbora luzez fruitu-eskasia izatea eta zehaztu gabeko beste zergati batzuk jotzen zituzten beren zorren kausatzat, eta Lucas de Uretaren etxeak ere antzerako faktoreak aipatzen ditu; hots, batzuek zein besteek hornigaien krisiei leporatzen diete errua eta, zalantzarik gabe, horietxek eta gerra-arazoak izan ziren arrazoirik nagusienak<sup>126</sup>. Erdi- eta behe-mailako nekazariak, jarraian izandako uzta txarretan eta prezioak oso goian zeudenean, ezin zuten ezer saldu eta, gainera, aleak erosi behar zituzten. Aitzitik, uzta ona eta soberakina izatean, derrigorrezkoa zitzaizen soberakin hori prezio baxuetan saltzea, Ernest Labrousseren betiko eskemaren arabera. Espekulazioan sartzeko aukerak hutsalak ziren. Mendearen bukaerako krisiek, gehi Frantziaren kontrako gerrak eta zergen handitzeak oso kalte handiak eragingo dizkiete.

Gainera, krisi horiek onibar txikiagoetan ere —eta beraz, erreserba gutxiago zituztenetan— eragina izan zuten. 1704an 4,11 bizilagun zeuden etxe bakoitzeko eta 1797an 6,31; eta susmatzekoa da ustiategiak ez zirela handiagoak bihurtu, aitzitik, txikitu egin zirela. Azter dezagun Bedaroan hamazazpi jabe bizi ziren hamazazpi finkek eta hogeita hamahiru maizter bizi ziren hogeita bostek emandako lurraren errenta. Ikus daitekeenez, lehenengoek 431 errealeko etekina ateratzen zuten batez beste, eta bigarrenek 321lekoa baino ez. Ziortzan, lur-jabeak ziren hogeita hamazazpi familia bizi ziren hogeita hamasei ustiategik 625 erreal ematen zituzten eta 502, berriz, jabeak eta maizterrak ziren berrogeita hamasei laguneko hogeitalau finkek. Garbi dago zenbat eta bizilagun gehiago egon onibar bakoitzean,

<sup>125</sup> *Ibidem*, 2962. leg., 1796ko irailak 25.

<sup>126</sup> Ziortzako Parrokiako Artxiboa, Fabrika Liburua, 1602an hasia, liburuaren bukaeran erantsitako orriak, zenbakirik gabekoak. Ziortzako fabrikako administratzaileak honakoa zioen 1810ean: «que no se han podido cobrar los réditos de los censos [...] por los tiempos calamitosos».



orduan eta txikiagoa izango dela etxearen diru-sarrera eta, beraz, egoera larriagoa izango dute.

|                               | Errenta<br>Familiak | Etxe-<br>kopurua | Familia-<br>kopurua | Familiak<br>Etxeak |
|-------------------------------|---------------------|------------------|---------------------|--------------------|
| <i>Bedaroa</i>                |                     |                  |                     |                    |
| Lur-jabeak .....              | 431                 | 17               | 17                  | 1                  |
| Maizterrak .....              | 321                 | 27               | 33                  | 1,22               |
| <i>Ziortza</i>                |                     |                  |                     |                    |
| Lur-jabeak .....              | 625                 | 36               | 37                  | 1,02               |
| Lur-jabeak + maizterrak ..... | 502                 | 24               | 56                  | 2,33               |

Zor guztien jatorriak ez ziren kontsumo-kredituak. Domingo de Careaga hiru etxe zituen, horietako bat berria, eta 8.055 dukat zor zizkion bere administratzaileari %3ko interesean; garbi dago kreditua etxe berria erakitzeke eskatu zuela. Magdalena de Cenarruzabeitiaren Aspeeko etxe berriari buruz honakoa zioten: «rinde anual<sup>nte</sup> quinientos cicuenta rs. para Mrn. de Guenechea Mro Cantero y carpintero vez<sup>o</sup> de la cofradia de Ilunzar, jurisdiccion de la Villa de Marq<sup>na</sup> y q<sup>e</sup> fabricó dha casa para cobrar en renta de lo q<sup>e</sup> ella produce, y le restan pra total cobro de su haver, seis años de rentas»<sup>127</sup>. Miguel Malaxechevarriak, Murelagako elizatean 1810ean Juan Irbali errentan emandako etxe bat zuenak, honakoa zor zion Bilboko auzokide zen Magdalena de Iturrioz: «vale y medio de seiscientos pesos, y el otro de trescientos a interés de cuatro por ciento, los mismos que empleó en pagar varias opciones de tierras que están agregadas a la misma casa»<sup>128</sup>.

Beste batzuetan ezkontsariak ordaintzeko egiten ziren zorrak: «El referido Josef de Butron administrador de la casa de Lejarragaerdicoa expuso que su producto anual era de quatrocientos sesenta y dos rs.», eta berrehun zor zituela, zentso baituragarrietako zor finkoko bostehun dukateko kapitalenak, hartu zituenak «por razon de Dote»<sup>129</sup>. Agustin de Ibarrak, Abadiñoko elizateko Ibarraiascoa baserriaren jabeak, bere baserriaren kontra eta bere bi anaien —Pedro Antonio eta Cenon— alde ondorengoa zuela adierazten zuen: «doscientos ducados al seis por ciento doce ducados que hacen en cada un año rs. vellón 132 y es grabemen p<sup>a</sup> entregarles de sus dotes, y en el interin dho redito»<sup>130</sup>. Zor-mota hau etxean geratzen zen anaiaren emazteak ekarritako ezkontsariak konpentsatzen zuen. Testamentua

<sup>127</sup> GBEA, ETPSV, Ziortza, 1810.

<sup>128</sup> *Ibidem*, 2. zkia., 1810. urtea, Murelaga.

<sup>129</sup> *Ibidem*, 1. zkia., 1810. urtea, Libano de Arrieta.

<sup>130</sup> *Ibidem*, 1. zkia., 1810. urtea, Abadiñon.

ezartzeko unea zela eta, normalean oinordeko izendatutako semea edo alaba ezkontzean, aitak gainerako seme-alabei zegokien zatia erabakitzen zuen. Oso era desberdinak zeuden, ezer ez jasotzea nahiz ezkontsari gisa kopuru bat jasotzea gerta zitekeen. Beraza abizeneko baten alargunak, Erandion bizi zenak, oinordeko unibertsal bakarra izendatu zuten lehen semearen ezkontza-hitzarmena gauzatzean, bere ondasunen erdia —etxe nagusi bat eta honen ondoan zeuden hiru— eman zion, eta gainerakoarekin bera gelditu zen usufuktudun gisa; horrez gain, lehenengo ezkontzako «anaia-arreba guztiei ehun dukateko pentsioa» emateko agindu zion «laguntza eskatetik at» uzten zituelarik, eta bigarren ezkontzakoak, hiru alaba, bi ezkongabeak eta bestea ezkondua, banatu egin zituen «con un Arbol, su tierra y raiz de treinta y cuatro mrs». Emaztegaiak, bestalde, zazpiehun dukat jarri zituen, berrehun arropatan, beste berrehun espezetian hitzarmena sinatzean eta gainerako hirurehunak urteko hiru epetan<sup>131</sup>. Beste kontratu batean, senargaiak Arrigorriagan zegoen Uturrizar baserria «bertako ondasun ugari eta guzti» eraman zuen baina ehun eta berrogeita zortzi dukat eman behar zizkion anaia bati, laurhun arreba bati eta Bilboko Joaquin de Urculluri zentso bat —ez zekiena zenbatekoa zen— zor zion. Emaztegaiak, berriz, 1.000 dukat eman zituen, horietako 500 ezkontza-egunean ordainduko zituelarik eta gainerakoa bi urteren buruan; horrez gain, 300 dukat arreo modura, senargaiak aukeratutako txahal bat eta sei ardi beren arkume eta guzti jarri zituen<sup>132</sup>. Ikus daitekeenez, emaztegaiak jartzen zuen ezkontsariak berdindu eta gainditu egiten zuen jaraunspena jasoko ez zuten anaia-arrebei eman beharreko dirua. Dena dela, batzuetan diru hori ematearen gehi beste hainbat zor izatearen ondorioz, gurasoak edo oinordekoa onibarra besterendu beharrean izaten ziren, eta dagoeneko halako adibideak ikusi ditugu.

Kausa hauetako batzuk ez ezik, elkartrukeak azkartzea eta autokontsumoak atzera egitea ere garrantzizko zergatitzat jo zituzten sasoi horretako lekukoek. Larramendik, luxuak gora egitea, sagardoak behera, ardo gehiagoko kontsumitzea eta «etxeak suntsitzen dituen» seniparteak aipatu zituen mendearen erdialdera<sup>133</sup>, eta mendearen bukaeran, Iturrizak nabarmendu zituen errioxar ardoaren sartzea, «consumo exorbitante respecto de los tiempos pasados», eta sagardien gainbehera, «por cuya causa se han vendido infinitas caserías y haciendas, y otros están empeñados»<sup>134</sup>. Tomás Lópezen berriemaile batek honela idatzi zion 1795ean: «No ay ferias [en Maruri], ni Mercados, que deberia haber; sino las que inventan y establecen los taberneros de cada Pueblo, en que dominan porque fian el vino, que se consume y con que se destruyen los que le beben, quando lo han de pagar

<sup>131</sup> BPAH, 2961. leg., 1783ko irailak 12 eta abenduak 29.

<sup>132</sup> *Ibidem*, 2948. leg., 1772ko urriak 5.

<sup>133</sup> Larramendi, M., *op. cit.*, 199-201. orr.

<sup>134</sup> Iturriza, J.R., *op. cit.*, I. libk., 72. or.

por medio de escribanos, y Ministros de Justicia, que son ya tantos como el resto de los hombres»<sup>135</sup>. Dirudienez usadiozko gertakaria zena, garai guztietako nekazaritzari oso lotua zegoena, kezka larriak sortzen hasi zen hirurogeiko hamarkadatik aurrera<sup>136</sup>.

Normalean, lehenengo, inguruko lurrak galtzen ziren, gero ogitarako lurrak eta, azkenik, etxea bera. Juan Bautista Callek, Aulestiko elizatean zegoen Labakoa izeneko etxeko bizilagunetako batek, ondokoa adierazi zuen: «que aunque había sido dueño de dha casa por sus infortunios había tenido que poner en manos de la justicia para hacer pago a sus acreedores, y que le quedó sólo para si una poca porcion aunque ocupa la mitad de dha casa»<sup>137</sup>. Antonio de Celayak, Zenigagoitiako jabeak, honakoa eman zuen aditzera: baserri horretako hartzekodunen lehiaketa antolatu ondoren eta aurrez izan zen graduazio-epaiaren arabera zorrak ordaindu ondoren, etxearen armazoa eta alorretako bi puska geratzen zitzaizkiola eta hauetatik ehun eta hirurogeita sei errealeko etekina ateratzen zituela urtero. Horrez gain, zenbait alor zeramatzan errentan: Benito de Ansoteguiarena ehun eta hirurogeita sei errealetan urtean, beste bat Domingo de Olabariarena ehun eta berrogeita hamalau errealetan, Agustin de Madariagaren bat hogeita hamalautan eta beste bat zeinak «rinde quarenta rs., y los demás Acrehedores hicieron sus occiones en Montes terrenos eriales, q<sup>e</sup> no les producen renta ni util alguna»<sup>138</sup>.

Garaikideek, ikusi dugunez, sagarrondoak botatzeari eta Errioxako ardoa gehiago kontsumitzeari leporatzen zizkieten zorrak; ondorioak kausatzat jotzen zituzten. Handituz zihoan biztanleria mantentzeko, beharrezkoa zen lur gehiago lantzea; baserriarrek sagastiak ogitarako lur bihurtu behar izan zituzten baita Hegoaldetik ardoa inportatu ere, hau da, merkataritzan apur bat gehiago sartu behar izan zuten. Prozesu hori finken zatiketarekin batera gertatu zen eta, Truebak esan zuen bezala, burdingintzaren hasierako gainbeherarekin, hots, sektore horri atxikitako lanpostuen beherakadarekin —garraioa, ikazkintza etab...—, nahiz eta merkataritza-elkartrukeak gora egiteak konpentsa zezakeen neurri batean behintzat. Egitura berri honek, krisiekiko sentikorrago bihurtzen zuen nekazaritza-ekonomia, krisiak mendearen hasierakoak baino gogorragoak izan ez baziren ere.

---

<sup>135</sup> B. N., Tomás López, Maruriko erantzuna, 1795eko uztailaren 1eko data.

<sup>136</sup> Truebak, 1797ko estatistika bat aztertzen ari zela, honela bukatu zuen: «Llamará la atención de los que lean este capitulito el gran número de censos que pesaban, al terminar el último siglo, sobre la propiedad de Montellano y cuya imposición creo fuese relativamente moderna. Yo sospecho que a esta imposición contribuyeron principalmente la escasez de cosechas, la decadencia de la industria ferrera, la carestía de alimentos de primera necesidad y las muchas enfermedades epidémicas en las personas y los ganados que angustiaron a Montellano en los últimos veinte años de aquel siglo.» Trueba, A., *Datos para la historia de Vizcaya*. Lugo, 1900, 453-454. orr.

<sup>137</sup> GBEA, ETPSV, 2. zkia., 1810. urtea, Aulestin.

<sup>138</sup> *Ibidem*, 2. zkia., 1810. urtea, Ziortzan.

## Zentsoak eta ondareen sorrera

Lekeitioko domingotar mojen komentuak ez zuen baserri bakar bat ere Bedaroko elizatean 1704an; mende bat geroago, 1810ean, bost zituen. Baina utz diezaiegun garai horretako lekukoei hitz egiten, izan ere, ia zehaztasun guztiak aipatuz azalduko baitigute prozesua. 1761ean, Lekeitioko benefiziodunetako batek, kabildo osoaren izenean, protesta egin zuen bere hamarren-barrutian —Hiribildua, Bedaroa, Mendexa, Amoroto eta Gizaburuaga— erregeak ez bat, baiziketa bost etxe salbuetsi edo eskusatua aukeratzen zituelako; horren ondorioz, ezin zen bere mailari zegokion begiruneaz bizi eta honakoa gaineratzen zuen: «y más teniendo a los Padres [jesuitas] de dicho colegio de esta villa émulos y pretendientes de los [diezmos] que me quedan!». 1750 inguruan, Jesusen Lagundiak bere baserrietan hamarrenen moduan «hogeitik bat soilik ordaintzea» lortu zuen erregearen deklarazio baten bidez. Jesuitek onibar gehiago hartzen bazituzten, kabildoak jasotzen zuen hamarrena txikiagoa zen. Horregatik, azalpena, hasieran errege-fiskoaren aurrean egindako kexa zena, jesuiten kontrako eraso basati bihurtu zen. Hona hemen zer zeukan lortuta konpaniak sortu zenetik, 1690ean gutxi gorabehera, XVIII. mendearen erdialdera arte: «doce caserías en propiedad sólo dentro de mi dezmatorio —jarraitzen zuen benefiziodunak— y me veo expuesto a que ampliando o extendiendo la inteligencia de dicha declaración real aun para las que en lo sucesivo adquiriesen me dejen con sola la mitad del diezmo de cuantas caserías obtengo, y por consiguiente en la precisión de haber de resumir un número muy considerable dentro de un siglo; porque juegan con tal mañosidad en la adquisición, como es público y notorio, que en viendo a algún casero empeñado, y especialmente siendo de este mi dezmatorio, le alargan y dan todo el dinero necesario a censo, en cuyo principal, que suele ser de monta, y réditos devengados, si es descuidado dicho casero en satisfacer anualmente, vienen a alzarse con toda la casería; y con esta idea tienen prendadas hoy dos caserías en dicha aneja de Mendeja, la una con mil y seiscientos ducados de principal, y algunos réditos devengados a pique de darse sus aforamientos dentro de breves días para apropiarse, y la segunda, con setecientos ducados de principal y un tributo de siete cestas de manzana con novecientos ducados de principal. Y en la aneja sobre dicha de Amoroto otra con novecientos ducados de principal. Y fundo este temor en la reflexión de que habiendo sido bastante tenues los fondos de dicha su fundación, en cuyo tiempo sólo tenían cuatro caserías, y aun estas en prendas, en tan breve tiempo han adquirido hasta las doce ya referidas en propiedad, aumentando por este medio a saber las rentas de las casas y su medio diezmo fondos tan considerables y administrados con su notoria economía y habilidad [que] claramente se hecha de ver los progresos que se puedan temer hagan en la adquisición de más casas que a mi diezman; pues igualmente es cierto que aunque se les proporcionen compras de casa útiles

(como al presente sucede) se escusan de hacerlas, cuando son de fuera de mi dezmatario»<sup>139</sup>.

Sistema honek eta emariak, Loiolako Errege Kolejioak, erbesteratua izan aurretik, zer-nolako ondasunak zituen eta nola zeuden sakabanatuta azaltzen digute. 1769ko martxoaren 27ko Errege Zedularen arabera, Jesusen Lagundikoei hartutako ondasunen enkantea egin zen 1771n eta, hori zela-eta, Kolejio horren ondasun guztien azterketa orokorra egin zen. Ikus daitekeenez, ondasunak Gipuzkoa osoan zeuden sakabanatuta, eta zerrenda hori izan ez balute, oso zaila izango zen horiek aurkitzea. Egoera horretan zeuden garrantzizko ondasunak zituzten maiorazko edo lur-jabe txiki asko, adibidez, berrogeita sei-berrogeita hamar baserri inguru zituen Loiolakoak.

### Gipuzkoako Loiolako Errege Kolejioaren ondasunak

| Herria                   | A                | B        | C        | D         | E        | F        | Balio orokorra   |               |
|--------------------------|------------------|----------|----------|-----------|----------|----------|------------------|---------------|
|                          |                  |          |          |           |          |          | Balioa           | Errenta       |
| Azpeitia . . . . .       | 4                | 1        |          |           | 2        |          | 328.017          | 3.517         |
| Azkoitia . . . . .       | 8½               |          | 1        |           |          |          | 442.842          | 5.458         |
| Albistur . . . . .       | 2                |          |          |           |          |          | 118.115          | 1.708         |
| Andoain . . . . .        | 2                |          |          |           |          |          | 67.874           | 1.114         |
| Zumaia . . . . .         | 8                |          |          | 1         |          | 1        | 589.779          | 7.392         |
| Getaria . . . . .        | 2                |          |          |           |          |          | 134.691          | 1.323         |
| Deba . . . . .           | 10               |          |          | 2         | 1        |          | 472.849          | 5.495         |
| Mutriku . . . . .        | 9 edo 5          |          |          | ½         |          |          | 110.322          | 1.627         |
| Oiartzun . . . . .       | 2½               |          |          |           |          |          | 91.378           | 1.354         |
| Errenteria . . . . .     |                  |          |          |           |          |          | 18.905           | 000           |
| Irun . . . . .           | 1                |          |          |           |          |          | 43.225           | 767           |
| Eibar . . . . .          |                  |          |          |           |          |          | 9.498            | 144           |
| Bilbo . . . . .          | 1                |          |          |           |          |          | 39.450           | 1.338         |
| <i>Guztira . . . . .</i> | <i>50 edo 46</i> | <i>1</i> | <i>1</i> | <i>3½</i> | <i>3</i> | <i>1</i> | <i>2.466.948</i> | <i>31.241</i> |

- A Etxeak edo baserriak                      D Errotak  
 B Forjak    E Ostatuak  
 C Etxetxoak                                        F Teileriak

*Oharrak:*

- a) Azken batuketan zifra partzialetan ageri ez diren marabediak ere barne daude.  
 b) Oiartzunen eta Eibarren mendiak edo alorrak dira; gainerako leketan ez dira mendiak eta lur solteak zehaztu, baina beren balioa eta errenta barne daude azken batuketan.

*Iturria:* HEA Artxiboa, Vargas Ponce bilduma.

<sup>139</sup> KKA, Lekeitioko hamarrenen zerrenda batetik. 1661-1662. urteetan sailkatu zuten baina bere data egokia 1761 da.

Zein da zentsoen esanahia? Lur-jabeen eta maizterren kontsumoa antzekoa zela pentsatzen badugu, lehenengo finken balizko errenta, hau da, lurraren errenta, aurreztu edo hobekuntzetan inberti zitekeen kapitalaren balio berekoa da. Zentsoak, arazo larriagoen seinale adierazgarrienak, bereganatu egiten zuen soberakinaren zati handi bat eta horren ondorioz, lurra lantzen zuten jabe nekazarien metaketa eragotzi egiten zuen. Lurrak emandako kapitalak metatzeko modu berezi batera gerturatzen gaituzte zentsoek.

## Lurraren sarrera merkataritza-zirkuituan

Euskal Herrian desamortizazioak azaltzearen eragilea udal-zorra izan zen, izan ere oso handia baitzen gerra-gatazken ondorioz. Gainera ez dugu ahaztu behar funtsean udal-finantzek porrot egitea ez zela bizilagun askoren ekonomi eskasiaren seinale baino izan<sup>140</sup>. Hornigaien krisietan aleak merkaturako prezioaren azpitik saldu baziren eta udalak diferentzia bere gain hartu bazuen, «herri xeheak» zerealen prezioak ezin zituelako ordaindu izan zen<sup>141</sup>. Oso antzeko mekanismoa erabili zen gerra-zergak emateko orduan. Zailtasun hauetaz kapitala zutenak baliatu ziren: dirua maileguz eman eta gero lurretan jaso zuten. Horrela, herri-fruituen probetxamendua, errentan emanez, banakako jabegora pasa zen bezala, herri-lurrak eta *propioak* ere partikularren eskuetara pasatu ziren. Halaxe sartu ziren merkaturatzen, horixe esan nahi baitu dasamortizazio hitzak, merkataritza-zirkuitutik at zeuden lurren merkaturatzea<sup>142</sup>.

---

<sup>140</sup> Ikusi «La desamortización en Vascongadas», Emiliano Fernández de Pinedok 1972ko maiatzaren 12an Bartzelonako Ekonomi Historiako I. Mahainguruan aurkeztutako hitzaldia.

<sup>141</sup> «La M. N. y M. L. Provincia de Guipuzcoa con el mayor respeto haze presente a V. A. [el rey] que es bien notoria la extraordinaria escasez y carestia de granos padecida en aquella Provincia en el año de 1788 y parte del de 1790... Fue en efecto tan grande la indigencia, que para evitar las funestas resultas de un hambre general en los Pueblos, se vieron estos en la precision de nombrar a sus capitulares u otros particulares comisionados para que saliendo fuera de Guipúzcoa hiciesen ciertos acopios de granos a fin de repartirlo y venderlo a pequeñas porciones entre los vecinos, supliendo los gastos y el importe de sus compras de los caudales de Propios y Arbitrios, o tomando à cuenta de estos en calidad de prestamo las cantidades necesarias: y como los precios eran tan subidos que ni se han conocido iguales, ni podian los pobres vecinos satisfacerlos por entero con la cota de gastos ocasionados en el acopio se vieron muchos de los Ayuntamientos precedido el más reflexivo examen y acuerdo, en la precision de hacer repartimientos y bentas por menor con alguna equidad y rebaja... de forma que por una consecuencia precisa de esta deliberación prudente en aquellas circunstancias, vinieron à quedar grabados los fondos de Propios y Arbitrios de diferentes Pueblos con gastos y desfalcos de consideración...». 1791. urtea. «Recurso al Consejo para que mande a la Contaduría de Propios que admita en quenta las partidas que daten los Pueblos, expedida para socorrer la carestía de Pan de los Pueblos». TPA, lehenengo sekzioa, 17. neg., 43. leg.

<sup>142</sup> Prozesu hau XIX. mendearen lehenengo erdialdean maila gorenetara iritsi zen. Euskal Herrian, lurrak Independentziako Gerran saldu ziren gehien.

Ez da harritzekoa besterendutako lurak hartzekodunen edo erosteko interesa zuten «kapitalisten» eskuetara joatea, zorrak ordaintzeko saldu baitziren<sup>143</sup>. Hona hemen Arrasaten, besteak beste, Independentziako Gerran gertatutako adibide bat: «sus alcades se vieron en la forzosa precisión de exigir de sus vecinos y comunidades los artículos de subsistencias indispensables a cubrir las graves urgencias». Zehaztasun handirik eman barik, badirudi bizilagun batzuek aurrerapenak eman zituztela eta honakoa gertatu zen: «se vio la villa en imposibilidad absoluta de pagar las deudas y además arruinado el vecindario con dhos adelantos se escusaba a pagar las contribuciones». «Con el fin pues de evitar en alguna manera el clamor de los acrehedores y recaudar sin retraso las contribuciones determinó la villa en los años 1810 y 1811 el que se liquidasen cuentas con aquellos nombrando al efecto una comisión y q<sup>e</sup> todas las propiedades de ella se vendiesen precedida regulación de Peritos admitiendose en pago las cédulas de haver q<sup>e</sup> diese dha comisión contra ella y en efecto se enagenaron las fincas q<sup>e</sup> se expresaron en esta razón de la manera suso dicha». Hiribilduak 550 bizilagun zituen 1810 inguruan eta erosleak, agertutakoaren arabera, hogeita zazpi izan ziren. Denak bertako bizilagunak zirela pentsatzen badugu, sinesgaitza izan arren, biztanleriaren %5ek baino gutxiagok lortu zituzten lur desamortizatuak. Hogeita zazpi lagun horietatik, bik —%7,4k— %48,36 erosi zuten. Azkoitian, 840 bizilagun zituen hiribilduan, erosleak ehun eta hogeita zazpi izan ziren. Kasurik baikorrenean —denak herriko bizilagunak izatean— %15ek soilik lortu zuen zerbait. Beizaman, Evaristo de Echagüek (53.977-6 erreal), Pedro de Arreguik (84.420-25) eta Juan Bautista de Boloquik beste mintegidun batzuekin batera (153.858-5) 290.256-12 erreal ordaindu zituzten eta besterendutakoaren balioa 325.687-19 errealekoa izan zen<sup>144</sup>.

Desamortizazio zibilek protesta eta haserre ugari sortarazi zituzten gorde diren testigantza idatzien arabera. Horietako luze eta argienetarikoa bat Juan Antonio de Estensoro jaunak, Olaberriako bikarioak, 1813an Pro-bintziari idatzi ziona da<sup>145</sup>:

«Muy Señor mío: apesar de no tener la mayor satisfacion para cansar la atención de V. S., aunq<sup>e</sup> le considero sumam<sup>te</sup> ocupado, con todo, como con el dilatar los remedios la enfermedad se hace incurable, me parece q<sup>e</sup>

<sup>143</sup> Dokumentazioak batzuetan argi eta garbi azaltzen du. Tolosan bizi zen Hipolito Ozaetak irin-erota bat erosi zuen Alegian 42.000 erreal eskura emanez eta 49.000 zentsotan ordainduz; Martin Sorronek, hiribildu berekoa, lurak erosi zituen 24.000 erreal dirutan eta 33.000 zentsotan ordainduz. Azpeitian, besterendutakoaren truke ordaindutako 539.260 errealetik, 159.632 hiribilduaren kontrako zorretan izan ziren, emandako maileguengatik. Deban, 2.749.288-26 errealetik 595.906-26 zentsoetatik atera zituzten. TPA, bigarren sekzioa, 17. neg., 80. leg.

<sup>144</sup> TPA, lehenengo sekzioa, 17. neg., 80 eta 80 bis leg.

<sup>145</sup> Hogeitazero geroago «Memorial incompleto de Churruca» idazkiak antzerako protesta eta argudioak jaso zituen. «El memorial incompleto de Churruca: un exponente de los antagonismos rurales pocos años antes del estallido de la primera guerra carlista», E. Fernández de Pinedo, *Revista de Occidente*, 1973ko azaroa.

faltaria à mi dever si no le hiciese à V. S. un pequeño vosquejo del desfalco que han padecido los propios de este concejo en estos siete años pasados y lo q<sup>e</sup> padecieran en adelante si V. S. como madre piadosa no pone pronto remedio a tantos males.

Señor, supongo que en muchos pueblos especialm<sup>te</sup> en los pequeños tres o quatro Zorriprestus, Bati Alcatas, prepotentes caciques se han hecho estos años pasados Marqueses de repente, indianos sin q<sup>e</sup> ninguna flota se les haya venido de la America con lo q<sup>e</sup> han usurpado, apropiado, o robado de los bienes consejiles fingiendo que haveres de las villas entendiendose con algunos escribanos y agrimensores peores que ellos y Albuetes de ellos.

Supongo tambien que estos mismos no contentos con lo que se han usurpado de los propios, han pasado a robar al propietario y ultimamente a los colonos como hacian en las contribuciones del gobierno intruso, voluntarios, vadajes [bagajes] etctera muchos de estos como hombres de superior gerarquia nunca han servido de vadajes, antes bien algunos tomaban dineros, de lo q<sup>e</sup> otros pagaban ocultando al gobierno intruso o disminuyendo el num<sup>o</sup> de yugadas de buies y bacas lo mismo hacian en las contribuciones ellos han ocultado del estado territorial muchas piezas suias o de otros amigos, con lo q<sup>e</sup> se libertaban de pagar ellos, y si el gobierno intruso exigia v.g. cinco por ciento de este modo robaban para comer y beber opiparamente.

En las raciones de voluntarios sin embargo que ellos nunca ponian nada ni pagaban, à los demás exigian con mucho imperio y con eceso su quota mensual aun de esto robaban el eceso, y en demas si los voluntarios no exigian carne viva o aunq<sup>e</sup> exigiesen ellos embiaban muerta y para comer y beber el tripa barru y el pellejo y alguna buena tajada de lo mejor. Si los voluntarios pedian vino, de una carga [carga] v.g. se sacaban puros dos arrobas y en su lugar se introducía agua y todo lo pagaba el pobre.

Del num<sup>o</sup> de estos arriba dhos son, pues, dos vecinos consejantes de este pueblo Manuel de Olanan, y Pedro de Garmendia, quienes unidos con otro que fue municipal, hace tres o quatro años Hemeterio Celedonio de Estensoro cometieron la maldad o monopodio siguiente.

No se en que epoca tomó el concejo de Olaverria de las monjas de Segura, creo q<sup>e</sup> seis cientos ducados à censo, de modo q<sup>e</sup> el concejo pagaba de reditos diez y ocho ducados anuales. Estos dos hombres como son hace años los adbitros del pueblo, despotas o bati alcatas que hicieron, aunq<sup>e</sup> sea contra el pueblo y contra el bien comun, nosotros obligemonos cada uno seis ducados anuales à pagar a las monjas, para esto tomaron los tres a yguales partes el importe de diez y ocho mil y mas rs. de montazgo de lo mas selecto de tierras consejiles castañales robledales etcetera privando a los pobre labradores del usufructo. Viendo esta maldad tan perjudicial al pueblo y al labrador, no pude menos de exponer al concejo de Provincia intrusa, quien comisiono informar en el Liz<sup>do</sup> Arizpusu, de cuyas resultas el concejo de provincia los trato de hombres de mala fe y de malos administradores en fin anuló quanto en el particular hicieron entre otras mu-



chas cosas mas estos no haciendo caso de los decretos de la Provincia han seguido y siguen en el día usufrutuando, y lo que es mas sin q<sup>e</sup> haian pagado un marabedi de contribuciones pues entre otras piezas las ocultaron en el estado territorial.

En esta misma época Jose Antonio de Olanan el tercer adbitro ò beti Alcate de este pueblo usurpó vendió y compró o se tomo en una venta y compra clandestina, el importe de seis o siete mil rs. de tierras labradas y montazgo de tierras concejiles privando a otras casas del usufructo, se dio queja al gobierno intruso, informo Aizpuru, en su vista anuló quanto se havia echo en el particular, mas este indiano de repente sigue usufrutuando como si fuera suyo todo y aun cada año ba añadiendo a estas tierras un pedazo del común, en una palabra este hombre haora quince años nada tenia y en el día es el dueño de tos los bienes concejiles y todo privando a otras casas q<sup>e</sup> de immemorial tpo los usufrutuaban. El ha labrado casa nueva con maderamenes del concejo, creo q<sup>e</sup> no los ha pagado, estos tres pleni-potenciarios suelen labrar caleras a pares con leña propia del Concejo. Mas el tercero les ecede a los primeros ha echado à perder ha arrancado o cortado mas arboles utiles y propios del Concejo, que pelos tiene en su cabeza ha vendido, ha dado a los arrieros por vino, y à los zapateros por zapatos la leña del Concejo en fin esta robando a rienda suelta, y assi se ha echo indiano sin q<sup>e</sup> le haia venido plata de Yndias.

Ha estas mismas horas handan proyectando Pedro de Garmendia y José Antonio de Olanan con otro q<sup>e</sup> ha sido Alcalde hace un año otra maldad o monopolio mayor q<sup>e</sup> el primero pues piensan tomar o robar el importe de quarenta y ocho mil y mas reales de montazgo de tierras concejiles sin hacer caso del modo que la Provincia manda enagenar las tierras concejiles, estos dicen son primero q<sup>e</sup> los propietarios que a estos se les dará en otra parte menos ventajosa.

Que ellos en los años q<sup>e</sup> han sido Alcaldes del gobierno intruso han tomado de los particulares varias reses, granos, vinos, etcetera para suministros y que les estan deviendo y les amenazan con execucion. Y asi q<sup>e</sup> el uno tiene q<sup>e</sup> haver tantos mil el otro mas. El otro menos y q<sup>e</sup> se vendan y ellos tomaran a trueq<sup>e</sup> de sus cuentas del gran Capitan los montazgos dhos y sino tomaran ellos el dinero y los propietarios q<sup>e</sup> se esten con las zedulas endosables para otra ocasion.

Todo lo qual devo prevenir à V.S. à fin de que informandose reserbadamente administre justicia q<sup>e</sup> pido y juro ser verdad quanto expongo para el bien comun. Dios gue à V. S. m<sup>s</sup> a<sup>s</sup>. Olaverria y quince de oct<sup>o</sup> de 1813. de V. S. serv<sup>or</sup> y capp<sup>n</sup>.

Dn Juan Antonio de Estensoro<sup>146</sup>».

---

<sup>146</sup> TPA, Apéndices, 1. leg.

# X

## Industria: 1700-1850

Nekazaritzari dagokionez, gure eskualdea elkorra zen, burdingintzari eta honen esportazioari esker oreka ez-egonkorra mantentzen zuelarik. Burdingintza basogintzaren eta eskualdeko garraioaren zati handi baten euskarria zen. Egurgileak, ikazkinak, zurginak, itzainak, meatzariak, marinelak, marrageroak, olagizonak... ia denak nekazariak ziren eta «saison morte» delakoa osatzeko soldata gehigarria lortu ohi zuten: «pues aun los herreros de q. abunda [Gipuzkoako hiribildua den Alegiari buruz ari da] se meten al cultivo y beneficio de la tierra y al contrario los labradores en ejercicio de herreros faltandoles q. hacer en sus oficios»<sup>1</sup>. Horien gainean, horiei lana eraginez, merkatariak, errentariak eta burdinolen jabeak zeuden, garaiko formularen arabera.

### **Nekazaritzako eskaria eta produktibitatea**

Honakoa zioen 1767ko ekainaren 25ean Sierra Morena birpopulatze-ko agertu zen Errege Zedulako berrogeigarren artikulua: «Será proporcionado a cada familia un pico, una azada, un hacha, un martillo, un arado, una hoz y los otros utensilios de este género que el superintendente juzgue convenientes, examinando primeramente si es más a propósito fabricarlas en las colonias mismas por los obreros que en ellas se encuentren, o si conviene mejor hacerlas venir ya completamente fabricadas de Vizcaya, de Barcelona o de cualquier otra parte del reino en la que se pudieran hallar»<sup>2</sup>. Eta halaxe zen; burdingintzako produktuen eskari nagusia

---

<sup>1</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, XV. libk.

<sup>2</sup> Peyron, Juan F., *Nuevo viaje a España en 1772-73*. Aguilar, 1962, 820. or.

nekazaritzatik zetorren. Lur-sail landuak eta produkzioa hedatzeak lanabes gehiago behar izatea ekarri zuen. Baina lur-sail landu gehiagok eraikuntza berriak ere ekarri zituzten eta honekin batera, iltzeak, burdineria, balaustreak... eta, azkenik, orgak eta hauentzako burdinazko haginak eta animalientzako ferrak. 1799 eta 1803ko industri eroldetako erantzunak gaintik irakurriz, sutegi eta martinete gehienak eginkizun hauetarako erabiltzen zirela ikus daiteke. 1799an bi martinete zeuden Zallan eta horietako bat zartaginak, burdintzaliak, parrilak, palak eta danbolinak egiteko erabiltzen zen; Areatzako zazpi sutegiek 9.500 arroa ateratzen zituzten burdinerian, Zaldukoek 280 arroa balkoi eta burdinesitan, Abandokoek 900 ferretan, Otxandioko lauogeita biek 10.400 kintal burdinerian eta 3.900 ferratzeko iltzetan eta Ubideko hamalau 6.240 arroa espezie berean; Elorrioren aizkorak, burdinesiak eta balkoiak egiten zituzten; Morgan honakoa: «se hallan dos herreros labradores que en tiempos desocupados se ejercitan a hacer layas, azadas, ejes, clavos, componerlos, y otras cortas menudencias necesarias para la labranza de los habitantes»; Zeanurin, berriz, «zenbait sutegi» zeuden eta bertako maisu eta ofizialek sarrailak, giltzak, zurgin-iltzeak, orga-xaflak, garrantzi txikiko beste hainbat lanabes, eta hirurohun eta hirurogeita lau arroa «de clavo de herrar caballerías mular y menores» egiten zituzten<sup>3</sup>. 1803an, «ferratzeko iltzeak egiteko sei lantegi» zeuden Zeanurin; Barakaldon, berriz, bi fanderia «donde se corta el fierro en varias proporciones para reducirlo con facilidad a clavos, cabillas y otros usos»; eta hona hemen beste zenbait herritako adibideak: Etxabarrin, martinete batek bi mila kintal lantzen zituen iltze eta kabiletan; Durangoko bi olek «plancha o chapa para usos de cocina» egiten zuten, «fundiendo hierro viejo la una y la otra tiraba varillaje»; Mallabian «laramienta para labranza», eta Gernikan lanabesak «con el hierro que compran a los ferrones»<sup>4</sup>; Oñatin burdina mozten zuen fanderia bat zegoen, «para fabricar clavos y herraje... y para hacer flejes o aros de hierro para pipería»<sup>5</sup>... Produktu hauetatik gain beste batzuk ere egiten ziren: Hernanin eta Tolosan egiten ziren Erregearen ontzietarako

---

<sup>3</sup> «Testimonios que remiten los pueblos del estado o razón de la cantidad de frutos que se recogieron en su territorio el año pasado de 1799, con distinción de las especies que expresa la Real Orden de su razón, así bien de los efectos manufacturados en ellos, con separación de las varias calidades del fierro, herraje, clavazón, curtidos y demás.» GBEA, Testimonios de frutos y manufacturas, 1800eko Errege Aginduaren arabera.

<sup>4</sup> «Para evacuar cierto informe reservado pedido por la superioridad, es preciso que con toda reserva me diga Vmd. dentro de ocho días perentorios qué fábricas y establecimientos industriales hay en ese pueblo: el producto anual de sus elaboraciones; sus respectivos precios; la cantidad de materiales, ingredientes, y simples nacionales, y extranjeros que consumen.» Bizkaia, 1802ko abenduak 13. Erantzunak 1803ko urtarrilekoak dira. GBEA, Frutos y manufacturas, 1800.

<sup>5</sup> López T., BN, 7311. esku., 217. or.

aingurak<sup>6</sup>, Eibar, Elgoibar, Arrasate eta Ermuko Errege Fabriketako suarmak<sup>7</sup> eta Tolosako arma zuriak<sup>8</sup>; jarduera guztiek lotura estua dute ontzigintza eta armadarekin.

Baina, egia esan, burdingintza-produkzioaren zati txiki bat baino ez zen toki horietan manufakturatzen. Benetako burdinolek honakoa produzitzen zuten: «fierro por mayor, como tocho, cavilla, cuadro, planchuela, verjajón y otras clases»<sup>9</sup>. Produktu erdilandu hauek esportatu eta Gaztelako lurraldeetara eramaten ziren beste hainbat tresna bukaturrekin batera<sup>10</sup>. Bi merkatu hauek —probintziakoa eta Gaztelakoa— ez ezik, koloniak ere baziren. Datu zehatzik ez badago ere, Euskal Herrian egiten zen burdinaren heren bat Amerikara bildaltzen omen zen. «La flota que en este año de 1720 salió para Nueva España llevó 39.870 quintales de hierro en barras y artefactos, siendo la mayor parte de esta industria procedente del Señorío de Bizcaya y de la provincia de Guipúzcoa. El hierro y herraje del país basco era muy solicitado, no sólo por los pueblos de España, y puede decirse que no había flota ni embarcación que fuese a las Antillas y no los llevase»<sup>11</sup>. Hala, bada, eskualdeko merkatu estuaz gain, eskaria Amerikatik, Penintsulatik eta atzeritik ere bazetorren. Baina erresumako barnealde- ra, Indietara eta Portugalera produktu manufakturuak —hala nola ferrak, iltzeak, balazta-sortak, balkoiak, golde-muturrak, armak...— bidaltzen ziren bitartean, Alemaniara, Ingalaterrara eta Frantziara barratan esportatzen zen burdina<sup>12</sup>.

Dena dela, nekazaritza eta industriaren sektoreen arteko erlazioa ez zen soilik produktu manufakturatuen eskaria eta eskaintza izatea. Nekazaritzaren produktibitateak nahikoa altua behar zuen izan, alde batetik,

---

<sup>6</sup> 1791ko errolda; *Diccionario de la R.A.H.*, II. libk., 380-381. orr.

<sup>7</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 59. leg; *Ensayo...*, 189. or.

<sup>8</sup> *Diccionario de la R.A.H.*, II. libk., 380-381. orr., T. López, BN, 7.311. eskbu., 265. or.

<sup>9</sup> 1791ko errolda, Andoainen.

<sup>10</sup> Valladolidek Bizkaitik ateratzen zituen «sus fierros, ya en barras, planchas y en herrages que excede lo que saca por tales provisiones a lo que gasta [Vizcaya] de estas Fabricas [de Valladolid]». Nipho, Fco. Mariano, *Descripción natural, política y económica de todos los pueblos de España*. Madril, 1771, IV. libk., 148. or.

<sup>11</sup> Labayru, E., *op. cit.*, VI. libk., 120. or.

<sup>12</sup> Zoritzarrez, Guiardek ez du burdina gordinaren eta manufakturuaren arteko desberdintasun kuantitatiboa egiten, baina nahikoa da bere datu kualitatiboak gainetik irakurtzea egoeraz jabetzeko; aipatutako herrialdeetariko batera esportaturiko produkturen bat denean «burdina» esaten du, eta Portugaleko kasuan, berriz, «burdina, ferrak, iltzeak... kinkilak, armak, etab.». Ondorio hori ateratzen du zeharka Sánchez Ramosek; honakoa dio 1778ko urriaren 12ko «Reglamento y Aranceles reales para el comercio libre de España en Indias» aztertzean: «Lo que más destaca en este Reglamento es el trato diferencial entre los productos acabados españoles y extranjeros. En cambio, no está tan acentuado en los productos semipreparados. Lo que, a su vez constituye otra demostración de la inferioridad de nuestra industria transformadora». *La economía siderúrgica española*, I. libk., 76 eta 77. orr.

bere biztanleria aktiboaren zati bat alde batera utzi ahal izateko, eta bes-tetik, hori elikatzeko soberakina ateratzeko: «La Agricultura sólo puede contribuir —zioten ilustratuek— a esta subsistencia de la Industria y Artes con el exceso o sobrante de sus frutos, y producciones que la quedan después de haber provisto a sus clientes»<sup>13</sup>. Dena dela, honakoa ere esaten dute: «para fomentar un país las Artes dentro de sus límites no basta que tenga abundancia de frutos, es menester a más de esto darlos a un precio moderado, a el que no menos que la abundancia misma contribuye el modo con que los cultiva y coge el labrador»<sup>14</sup>. Beraz, produktibitate handitzen ahalegindu behar ziren artisauei erarik merkeenean jaten emateko asmoz. Eta honela bukatzen dute: «En efecto para que un país sea dichoso no hay más de dos medios, o emplear a un precio moderado todos sus frutos dentro de sus límites, o conducirlos con conveniencia fuera. En el primer caso se llenará de artesanos [...] introducirá la Industria y se poblará de habitantes; y en el segundo logrará las mismas ventajas por la proporción que ofrece el comercio. Para prueba de esto mírese a Cataluña, que sin embargo de ser una de las provincias más gravadas de impuestos en España, es en el día la más rica, la más poblada, y en una palabra, la más feliz; porque la aplicación y la industria de sus habitantes ha sabido florecer a un mismo tiempo a la Agricultura y las Artes, que dándose mutuamente las manos ha facilitado sus recíprocos progresos»<sup>15</sup>.

## Eskaintza

XVIII. mendearen bukaeran eta XIX.aren hasieran egindako erroldek ematen dizkigute datu fidagarri kuantitatibo bakarrak. Lantegi eta produkzio kantitateari buruzko zenbakiak urriak eta zalantzazkoak dira XVIII.aren hasierarako. Nahikoa iturri heterogeneo hauek laburbilduz, ondokoa dugu:

---

<sup>13</sup> *Ensayo...*, 160. or.

<sup>14</sup> *Ibidem*, 163. or.

<sup>15</sup> *Ibidem*, 166, 168, 169 eta 186. orr.

## Burdinolen kopurua

| Bizkaia             | Gipuzkoa          | Araba             |
|---------------------|-------------------|-------------------|
| 1687 (1) ..... 147  | 1775 (2) ..... 75 | 1775 (3) ..... 13 |
| 1766 (2) ..... 162  | 1776 (4) ..... 94 |                   |
| 1784 (5) ..... 141  | 1789 (6) ..... 75 |                   |
| 1792 (7) ..... 142  |                   |                   |
| 1794 (8) ..... 146  |                   |                   |
| 1795 (9) ..... 142  |                   |                   |
| 1796 (10) ..... 145 |                   |                   |
| 1796 (11) ..... 143 |                   |                   |
| 1797 (12) ..... 154 |                   |                   |
| 1799 (13) ..... 142 |                   |                   |

- (1): Guiard, T., *H.M.N. y M.L. Villa de Bilbao*. Bilbo, 1905, II. liburukia, 514. or., 1687ko urriaren 20an Batar Nagusiak hartutako Dekretuaren arabera.
- (2): Múgica, Serapio, *Geografía General del País Vasco-Navarro*, I. libk., 490. or. Bartzelona u.g. 75 burdinola + 22 martinete + 6 altzairu-lantegi ematen dizkio Gipuzkoari.
- (3): Labayru, *op. cit.*, I. libk., 575. or.
- (4): Múgica, S., *op. cit.*, I. libk., 490. or.
- (5): Iturriza, *op. cit.*, I. libk., 79. or.; Kolon de Larreategik 1786rako ematen du zifra hori. AHN. Consejos 3068 (2).
- (6): Múgica, S., *op. cit.*, I. libk., 490. or.
- (7): Guiard, T., *op. cit.*, II. libk., 496-497. orr.
- (8): López, T., BN, 7311. eskbu.
- (9): Guiard, T., *Consulado*, II. libk., 558-559. orr.
- (10): GBEA Burdinolak, 1796ko eskuz idatzitako orriak.
- (11): GBEA 1796ko su-zenbaketa.
- (12): GBEA Burdinolak, 1797ko eskuz idatzitako orriak.
- (13): *Censo de la riqueza territorial e industrial de España*, 91. or.

1775 inguruan, berrehun eta hogeita bederatzita burdinola zeuden, zenbait martineterekin batera, beharbada berrogei bat. Horrez gain, baziren hamabi bat «altzairu-fabrika» ere eta Bizkaiko datuei begiratuta, konturatuko gara mendeen zehar kopuru hori funtsean ez zela aldatu. Baina burdinolen kopurua ez dator bat produkzioarekin. Lekeitioko kronista anonimo batek honela zioen: «llegarían a nueve mil quintales los que se labran en toda la ría que desagua en este puerto [y] en ella hay siete ferrerías en estas 12 fraguas»<sup>16</sup>, hau da, 1.285 kintal unitateko. Pedro Bernardo de Villarreak 1736an egindako kalkuluen arabera, burdinola batek 250 arroa lantzen ziztuen astero; demagun zazpi edo zortzi hilabetez lan egiten zuela —«azarotik... (hilabete horretan hasten da urtero) hurrengo San Joanetara»<sup>17</sup>,

<sup>16</sup> Anonimoa, *La Villa de Lequeitio...*, 17. or.

<sup>17</sup> GBEA, *Censo de Frutos y manufacturas*, 1799, Zeanuriren erantzuna. Zeanurin, hone-laxe zehazten zen 1803an: «por espacio de siete meses a corta diferencia en cada labranza». GBEA, 1803ko errolda.

1.250 kintal ditugu lehenengo kasuan eta 1.458 inguru bigarreanean, zifra sinesgarriak. 1687ko urriaren 20ko Batzar Nagusiaren arabera, 1.500 kintal ematen zituen burdinola bakoitzak<sup>18</sup> eta 147 zeuden, hau da, guztira 220.500 kintaleko produkzioa. Baina pentsatzekoa da zifra hau puztuta dagoela Jaurerriak eta Gipuzkoako Probintziak «betaren ateratze librea» delakoaren gainean zuten auzia zela eta<sup>19</sup>.

Ikus daitekeenez, 1750. urtea baino lehenagoko zifra urriak 1.250 eta 1.500 kintalen artean dabilta burdinola bakoitzeko. Aitzitik, mendearen bigarren erdialdeari buruzko balorazioak ugariagoak dira eta aurrekoak baino askoz txikiagoak dira. Gipuzkoako hiru burdinolak 1.458 kintal lortu zituzten 1766an; 1767an, berriz, 1.808 eta 1771an, 1.474, hau da, 486, 603 eta 491 kintal lantegi bakoitzeko, hurrenez hurren<sup>20</sup>; Tomás Lópezek 1794rako emandako zifrak 800 (gutxienez) eta 1.135 (gehienez) kintalen artekoak dira<sup>21</sup>; 1799an, Bizkaiko ehun burdinolatako zifren arabera, batez besteko produkzioa 735 kintalekoa zen<sup>22</sup>, eta leku batean soilik, Igorren, gainditzen ziren 1.000 kintalak. Garbi dago, beraz, olen kopuruak ez digula zehatz-mehatz neurtzen produkzioaren joera. Kalkulu orokorrek ez dute arazoa konpontzen, 1678koa izan ezik, gainerakoak XVIII. mendearen azken herenean kokatzen baitira, burdinaren manufakturak arazoak izaten hasi zirenean, hain zuzen ere.

Hala ere, XVII.aren bukaeraren eta 1770. urtearen artean produkzioak gora egin zuela ematen du. Guiardek emandako zifrek, hain seguruak ez izan arren, burdin barrak eta burdina manufakturatua nahasturik ematen baititu, goranzko joera azaltzen dute data hori arte: 1733an 57.474 kintal esportatu ziren; 1737an, 81.670; 1750ean, 90.802, eta 1769an, berriz, 106.496. 1773an Araban zeuden hamahiru burdinoletako batzuk eraiki ziren datak aztertuz ateratzen dira ondorio horiek: Araia, Maeztu, Legutio, Oleta, Laencontrada, Abornikano, Bilanane, Laudio, Okendo, Ziorruga, Berganza, Amurrio eta Luxaondokoetaz ari gara, hain zuzen<sup>23</sup>. 1726ko apirilaren 28an, Gasteizen bizi zen Tomas Angel de Velascok Zuiako ermandadeko Lukianon burdinola bat eraikitze baimena eskatu zuen eta eman, eman zioten, nahiz eta Aiara, Laudio, Agurain, Artziniega eta Badayozeko prokuradore nagusiak aurka egon. Hilabete batzuk geroago, azaroaren 25ean, eskaera bera egin zuten Abornikanoko bizila-

---

<sup>18</sup> Guiard, T., *Historia de la Muy Noble y Muy Leal Villa de Bilbao*, Bilbo, 1905, II. libk., 514. or.

<sup>19</sup> SAO, Secretaría de Estado, 4161. leg.

<sup>20</sup> TPA, bigarren sekzioa, 23. neg., 41. leg.

<sup>21</sup> López, T., B.N., 7311 eskbu.

Turtzioz, 3-3.400; Lemoa, 1-1.000; Jatabe, 1-600etik 700era; Gatika, 2-1.000; Gordexola, 5-3.500; Dima, 5-5.000; Lemoa, 6-5.000; Berriatua, 2-1.600; Guenes, 2-1.500.

<sup>22</sup> GBEA, 1791ko errolda.

<sup>23</sup> Labayru, E., *op. cit.*, I. libk., 575. or.

gunek eta, zenbait ezezko jaso ondoren, 1729ko apirilaren 22ko Batzar Nagusiak baimena eman zion Mendijur izeneko bati. Urte berean baime-  
na eman zitzaion Diego Ladron de Guevarari Legutioko eskumenean ze-  
goen Bostibaietan bat eraiki zezan, lehenago beste bat izan zela argu-  
diatuz. Auzi gogorra izan eta gero, Araia herriak beste bat egin zuen  
1754an eskatu ondoren, eta Bilananen dagoen Baraonako etxe eta dorrea-  
ren jabeak bertan burdinola egiteko baimena —1766ko maiatzaren 7ko  
Arabako Batzar Nagusiak emana— mantentzearen aldeko epaia 1769an  
Errege Kontseiluak ematea lortu zuen. Laburbilduz, 1726 eta 1773. ur-  
teen artean, probintzia horretan zeuden hamahiru burdinoletarik bost  
eraiki ziren, ia-ia %40, alegia, eta hori eskaria eta produkzioa gogor he-  
datu izanaren seinale da<sup>24</sup>.

«Remate de Ynpuesto de la bena q. sale Por mar Para fuera de Viz<sup>a</sup> de  
8 mrs. en cada quintal de 155 lib<sup>s</sup>» delakoari esker, produkzioaren joera  
ikus dezakegu, batez ere itsasotik Somorrostroko meaz hornitzen ziren Gi-  
puzkoako burdinolena. Zerga baten alokairuaz ari garenez, lortutako da-  
tuak ez datoz bat errealitatearekin, txikiagoak dira, alegia. Baina arazorik  
handiena seriea, kronologiari dagokionez, oso luzea ez izatean datza.  
Dena dela, horrela izateak Guaiardek emandako eta Arabako datu urriak  
ere sendotu egiten ditu: XVIII. mendean zehar izandako hazkundera.

#### Urtean Bizkaitik kanpora itsasoz esportatutako beta, alokairuen bidez<sup>25</sup>

|                 | Kintal<br>Matxoak | Tm.    |
|-----------------|-------------------|--------|
| 1640-1648 ..... | 139.965           | 10.329 |
| 1763-1765 ..... | 240.125           | 17.721 |
| 1765-1767 ..... | 246.500           | 18.191 |
| 1773-1775 ..... | 250.750           | 18.505 |
| 1775-1777 ..... | 205.062           | 15.133 |
| 1779-1781 ..... | 183.812           | 13.565 |
| 1781-1783 ..... | 223.125           | 16.466 |
| 1783-1785 ..... | 255.000           | 18.819 |
| 1785-1787 ..... | 255.000           | 18.819 |
| 1787-1789 ..... | 318.750           | 23.523 |
| 1790-1791 ..... | 261.375           | 19.289 |
| 1792-1794 ..... | 229.500           | 16.937 |

<sup>24</sup> AHN, Consejos, 454. leg. (3).

<sup>25</sup> GBEA, Escrituras del Señorío de Vizcaya, 21-44. zkia., 1740-1765, 1773-1785, 1775-1799.  
urteak. BAA, «Impuesto a la Bena». Cargos (1640tik 1648ra). Isabel Vergniory-ri zor diot az-  
ken iturri hau aurkitu izana.



Hazkunde hau hirurogeiko hamarkadaren bukaeran hasi zen arazoak izaten, testu kualitatiboez fidatzen bagara. Euskal Herriko olagizonek, Indietan atzerriko burdina sartzea debekatzen zuen 1702ko apirilaren 29ko Errege Zedulaz geroztik ez zituzten beren merkatu nagusiak arriskuan ikusten. 1766tik aurrera, ilustratuek, teoriarik behintzat, kezkatuak ikusten zuten ikatzaren prezioak gora egitea eta honela zioten: «pues al paso que su precio ha ido subiendo desde tres reales en carga hasta seis, ocho y aun mas, ha ido también subiendo el fierro desde sesenta reales el quintal, hasta ochenta, ochenta y cinco noventa y más allá, sin que por este aumento de precio saquen más utilidad los propietarios, cuando al contrario el País halla mayor dificultad para hacer su comercio»<sup>26</sup>. Haien ustez, arazoetako batzuen arrazoiak honakoak ziren: basogintzarako zeuden herri-lurren ustiapen txarra<sup>27</sup>, eta burdinolak, herriaren lurretatik egurra jaso nahi bazuten, tiratzaile motakoak izatera behartzen zituzten legeak, izan ere horrela ez ziren inoiz martinete bihurtzen eta, horren ondorioz, ikatz asko kontsumitzen zuten «ola eta sutegi gehiago egitea» saihesten zen<sup>28</sup>. Bestalde, beharrezkoa zen produktu manufakturatua esportatzea; hona hemen horren arrazoia: «[pues] cuanto mas se exercite la industria en el, tanto mas sube su valor, y por consiguiente el de su extracción. El fierro tocho o bruto reducido a planchuela o barras gana: empleado en los martinetes de cuadradillo, gavillería, etcétera, adquiere mayor estimación: pasando a la fragua del cerragero o el clavetero, sube aun considerablemente mas: y llegado a la oficina del cuchillero, y las fábricas de quinquillería y otras obras delicadas, toma un precio, que se equivoca con el de otros metales superiores». Baina errealtatea ondorengoa zen: «los cuchillos, tigeras, agujas y otras cosas delicadas que nos traen de venta los extranjeros, son por lo mayor parte fabricadas con el fierro o acero de nuestro País [...] que compramos nuestro propio fierro o acero cuarenta y nueve a cincuenta veces más caro de lo que se lo vendimos»<sup>29</sup>. Irtenbidea atzerriko maisuak hona ekartzea edo hemengo ofizialak bertara bidaltzean zetzan<sup>30</sup>. Produkzio-kostu altu horiek eta portugaldarren eta frantsesen nolabaiteko protekzionismoak, kantaurialdeko burdinak merkatuak banan-banan galtzea ekarri zuten, lehenengo «Iparraldeko Nazioen» mesederako, batez ere Suediako burdingintzaren mesedean, eta gero Ingalaterrako burdinaren mesederako. 1767ko otsailean, atzerriko burdina hainbat zedula hautsiz Amerikan sartzeak Euskal Herriko probintzietan sortarazten zituen kalteen

---

<sup>26</sup> *Ensayo...*, 191. or.

<sup>27</sup> *Ibidem*, 192 eta 193. orr.

<sup>28</sup> *Ibidem*, 194 eta 195. orr.

<sup>29</sup> *Ibidem*, 181-184. orr.

<sup>30</sup> *Ibidem*, 197. or.

azalpena bidali zion Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak erregeari; geroago kalte horiek handitu zirela azaldu zioten: «con el empeño de los Portugueses en arrancar de las Provincias a costa de cuantiosas ofertas y recompensas los mejores oficiales ferrones para el manejo de las nuevas fábricas que iban erigiendo en sus dominios...» «Atajados a favor de la soberana piedad de V. M. los males q<sup>e</sup> se tenian de parte de los portugueses solo aflige en el día [1775] los q<sup>e</sup> causan la insaciable avaricia de las Naciones del Norte con la fraudulenta introducción de su fierro en las Américas de V. M.

Pero este mal, señor, es ya insoportable: es general el estancamiento del fierro... ni la Amiga Francia recibe ya Ancoras con que la ha surtido hasta ahora la España, imponiendo pesadas contribuciones a su entrada por fomentar sus nuevos establecimientos...»<sup>31</sup>.

Beste oroitza-txostenak, Ibarra-ko olagizona zen Pedro de Allanguire-nak, aipatutako kekez gain portugaldarrek kantaurialdeko burdinaren gaineko zerga berriak ezarri zituztela aipatu eta ondokoa gaineratu zuen: «[la] resulta que se experimenta ya en el día a furia de estos antecedentes es una considerable decadencia en la labranza y cre el suplicante que [a] estas y [a] otras causas sera ia crecido el numero de ferrerias que sean germado en Guipúzcoa de quarenta años a esta parte». Hiru konponbide eman zituen: mendiak mantentzeko arauak gauzatzea, atzerriko burdina Espainian eta Amerikan sartzea saihestea eta, «que en los montes concejiles sean preferidas para los carbones las ferrerías sitas dentro de la propia jurisdicción spre que paguen el precio justo y corriente en las inmediaciones»<sup>32</sup>.

Protesta hauek zirela eta, 1776ko maiatzaren 28an berrezarri egin zen Gipuzkoa, Araba, eta Bizkaiko probintzien eta Oñatiko hiribilduaren alde luzatutako 1702ko apirilaren 29ko Errege Zedula. Zedula horren arabera, bertako burdinoletan egiten ziren burdinei eta ez atzerrikoei Amerikara bidaltzeko baimena ematen zitzaien eta burdina horiek ezagut zitzaten, jabeek euren artean erabakitako markak jartzeko esaten zen<sup>33</sup>. Kolonien monopolioa indartzeko ahaleginekin batera hainbat hobekuntza tekniko izan zen. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak Suediara

<sup>31</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 76. leg.

<sup>32</sup> *Ibidem*; ez du datarik baina nire kalkuluen arabera 1774 eta 1775 artekoa da.

<sup>33</sup> 1775ean honakoa luzatu zuen Carlos III.ak euskal olagizonen eskakizunei erantzunez: «una real cédula prohibiendo la introducción del fierro de Suecia o de otro Reyno en los dominios de S. M. por razón de que los Suecos vendían a 70 reales quintal, quando los nuestros no podían dar a menos de 80, para poderse costear: y parece que hizo bastante efecto dicha prohibición, pues al tiempo q. esto escribo vale en Bilbao cien reales el quintal y mucho más valdrá en La Coruña, Sevilla...». Guiard, T., *Historia del Consulado...*, II. libk., 565. or., oharrean. Betaren esportazioari buruzko datuak ez datoz bat XVIII.aren azken herenean burdingintzan krisia izan zen ideiarekin. Aipatu neurri protekzionistek aldeko eraginak izango zituzten, beraz.

bidali zuen bazkideetako bat Euskal Herrian hango fabrikazioa imitatu ahal izateko. Bazkide honen txostenetako bat Bilbon 1772an egin zen Batzar Nagusiaren laburpenean argitaratu zen: «En nuestro País ni en las [ferrerías] de Francia que vi hacia los Pirineos no se sabe cuasi nada de lo que se llama *trabajo en grande* de las minas de fierro...» «... por que no hay comparación entre ellas [Suediakoak] y las nuestras. Estas de acá [Suediakoak] son cada una como un pequeño estado o provincia, tienen 6 a 8 leguas muy grandes de jurisdicción en circuito... están rodeadas de bosques inmensos, por lo qual ignoran la economía del agua y del carbón; y finalmente cada una de ellas emplea a lo menos 500 personas, que aloja y mantiene y hace vivir enriqueciendo al estado y al propietario»<sup>34</sup>.

Lehia honi aurre egiteko ahaleginak era desberdinetakoak izan ziren, baina garrantzizkoenak, aipatu neurri protekzionistez gain, hobekuntza teknikoak izan ziren. Mendearen bukaeran, Arandako markesak Alemaniatic ekarritako hainbat langilez osatutako lantegi berria, fanderia bat jarri zuen Erreterian. «24 orduro 50-60 kintal burdina luzatu eta ebakitzen zuen» eta Espainian ez zen horrelakorik ezagutzen ordura arte. Honako ezaugarriak zituen: «[es la única] en su especie de doble, llamada así porque tiene dos hornos de reverbero, de los que siempre arde uno, y pueden duplicarse las operaciones»<sup>35</sup>. Bazituen, gainera «diversas ruedas grandes y pequeñas dentro de ella y fuera sobre el agua y con cilindros y cortantes hiende, corta, ensancha, alarga y adelgaza el fierro, cobre, etc. ...»<sup>36</sup>. Gerxeago, Egeako dukeak beste bat eraiki zuen Debako udalean zegoen Iraeta auzoan<sup>37</sup> eta mendea bukatu baino lehen beste bat egin zen Oñatin<sup>38</sup>. Bizkaian, 1803an gutxienez, bi ziren Barakaldon eta honakoa zioten horiei buruz: «donde se corta el fierro en varias proporciones para reducirlo con facilidades a clavos, cabillas y otros usos»<sup>39</sup>. Beste aurrerapen bat altzairu zementatua egitea izan zen. Bergaran hasi ziren egiten «por las continuas experiencias de Dn. Jph. Angel de Aranguren. También se logró que la platina se hiciese maleable por M. Chavaneau»<sup>40</sup>. Baina aurrerapen horiek ez zuten arazo nagusia konpontzen, hots, egur-ikatzaren kostu altua. Lehenengo saiakerak sutegi-hauspoetan egin ziren: haize-ematea handituz erregaiaren gastua txikitu eta konponketak aurreztu nahi zituzten<sup>41</sup>; baina aukera garbi zegoen 1783an: «El

<sup>34</sup> *Extractos de las Juntas Generales celebradas por la S. B. A. P. en Bilbao. 1772*, 34 eta 36. orr.

<sup>35</sup> *Diccionario de la R.A.H.*, II. libk., 270. or.

<sup>36</sup> T. López, BN, 7311. eskbu., 235. or. atz.

<sup>37</sup> *Ibidem*, 168. or.

<sup>38</sup> *Ibidem*, 217. or.

<sup>39</sup> GBEA, Frutos y manufacturas..., 1803koa.

<sup>40</sup> T. López, BN, 7311. eskbu., 218. or.

<sup>41</sup> *Extractos...*, 42 eta 43. orr.

mejor hallazgo del mundo sería para la Provincia de Guipúzcoa y el País Bascongado una abundante Mina de carbon de piedra. Un prodigioso numero de ferrerías, fraguas y caleras van desolando rapidamente toda la leña de los montes y se escasea en el dia desta materia tan sensiblemente que a poco que suba el precio del carbón (lo que debe suceder sin remedio alguno) no podrán sacar cuenta en la labranza del fierro: o hemos de abandonar pues las ferrerías y fraguas o hemos de buscar algunas buenas minas de carbón de piedra»<sup>42</sup>. 1804an harrikatzen meatzeak topatzeko saiakerak egiten jarraitzen zuten<sup>43</sup>. Bizkaian, arazo larri hura ikusita, Asturiasko ikatza inportatzea erabaki zuten. 1793an Portugaleten bizi zen Jose de Ventura Salcedo auzitan zebilen Bilboko Kontsulatuarekin Gijonetik —Langreoko meategietatik hain zuzen ere— zetozen hiru harrikatzen ontzien hustuketa zela-eta. Ontziek 400, 500 eta 700 kintal zeramatzen hurrenez hurren<sup>44</sup>. Baina harrikatza, burdinoletan sistema zaharraren bidez totxo edo barratan utzitako burdina berriro berotzeko baino ez zen erabiltzen. Bizkaiko «lau mila kintal burdina» egiten zituzten Barakaldoko bi fanderiek «hiru mila eta bostehun kintal harrikatzen kontsumitzen zituzten, batzuetan Asturiaskoa eta beste batzuetan Ingalaterrakoa zena»<sup>45</sup>. Gauza bera gertatzen zen honako honekin: «el carvon de piedra en el lugar de las Rozas [Gaubeako artzapez-barrutian] de que lo usan muchos herreros en sus fraguas»<sup>46</sup>. Kokearen bidez burdina urtzeko metodoa ez zen ezaguna eta gero, XIX.aren lehenengo hereanean, ikusiko dugunez, ez ziren hura erabiltzen saiatu ere egin, zeren garai horretarako arazoa ez zetzan egur-ikatza garestia izatean, eskaririk ez izatean baizik.

## Burdingintza tradizionalaren gainbehera

Bai burdinolen kopuruari bai eta beren produkzioari buruzko estatistikak, eta batez ere kalkuluak, ugariagoak dira XIX. mendearen lehenengo erdialdean. Zifra guztiak biribilduak daude baina, hala ere, bat datoz denak beheranzko joeran.

Ondorio berberak atera daitezke itsasoz esportaturiko betaren gaineko zergaren alokairua aztertuz edo Bilboko erreterian pisatzen zen kintal burdina bakoitzaren gaineko bi marabediko produktuarena aztertuz.

<sup>42</sup> «Memorial de Dn. Joachin de Maquibar, vezº de Vergara sobre la subscripción de 40.000 rs. para el descubrimiento y trabajos de Minas de carbón de piedra en el territorio de la Provª». Aldundia, 1783ko martxoak 17. TPA, bigarren sekzioa, 20. neg., 27. leg.

<sup>43</sup> TPA, bigarren sekzioa, 20. neg., 38. leg.

<sup>44</sup> AHN, Consejos, 157. leg., 34. zkia.

<sup>45</sup> GBEA, *Frutos y manufacturas...*, 1803, Barakaldon.

<sup>46</sup> T. López, Araba, Araiak sinatutako erantzuna, 1796ko urriak 17.

Burdinolen kopurua eta produkzioa kintal matxo eta tonatan<sup>47</sup>

|                  | Bizkaia |         |        |                 | Gipuzkoa |           |       |                   | Araba |        |       |
|------------------|---------|---------|--------|-----------------|----------|-----------|-------|-------------------|-------|--------|-------|
|                  | (a)     | (b)     | (c)    |                 | (a)      | (b)       | (c)   |                   | (a)   | (b)    | (c)   |
| 1777 (1) . . . . |         | 140.000 | 10.332 | 1775 (10) . . . | 75       | c. 75.000 | 5.535 | 1775 . . . . .    | 13    |        |       |
| 1784 (2) . . . . |         | 85.000  | 6.273  |                 |          |           |       |                   |       |        |       |
| 1786 (3) . . . . | 141     | 90.000  | 6.642  |                 |          |           |       |                   |       |        |       |
| 1792 (4) . . . . |         | 95.000  | 7.011  |                 |          |           |       |                   |       |        |       |
| 1799 (5) . . . . | (140)   | 102.900 | 7.594  |                 |          |           |       |                   |       |        |       |
| 1826 (6) . . . . | 117     | 45.000  | 3.321  |                 |          |           |       |                   |       |        |       |
| 1833 (7) . . . . | 100     | 49.032  | 3.618  |                 |          |           |       |                   |       |        |       |
| 1846 (8) . . . . | 99      | 45.161  | 3.333  | 1846 (11) . . . | 58       | 54.000    | 3.985 | 1845 (13) . . . . | 13/14 | 16.000 | 1.181 |
| 1848 (9) . . . . | 110     | 73.480  | 5.423  | 1860 (12) . . . | 31       |           |       | 1861 (14) . . . . | 3     |        |       |

Oharrak:

(a): Burdinolen kopurua; (b): Produkzioa kintal matxotan; (c): Produkzioa tonatan; kintal matxo bat = 0,738 Qm. = 0,0738 Tm.

<sup>47</sup> (1) Guiard, T., *Historia del Consulado...*, II. libk., 556. or.

(2) Iturriza, J. R., *op. cit.*, I. libk., 79. or.

(3) AHN, Consejos, 3068 leg. (2), Kolon de Larreategi korrejidorearen azalpena.

(4) Guiard, T., *Historia de la M.N. y M. L. Villa de Bilbao*, II. libk., 496 eta 497. orr.

(5) *Censo de la riqueza territorial...*; aipatutako 100 burdinolen produkzioa 73.500 kintalekoa zen. 140 baino gehiago zeudela kalkulatzeko badugu, produkzio osoa 102.900 kintalekoa izango da.

(6) Miñano, *Diccionario...*, Bizkaia art., industria.

(7) *Guía del Ministerio de la Gobernación del Reino*. Madrid, 1836, 644. or.; Gerra Zibila hasi aurretiko egoera islatzen du.

(8) Madoz, *Diccionario...*, XVI. libk., 381. or.

(9) 1848ko industri errolda, *Gaceta de Madrid* delakoan jaso, 1849ko uztailearen 29koa.

(10) Nik egindako kalkulua, burdinola bakoitzaren produkzioa mila kintalekoa zelakoan.

(11) Madoz, *Diccionario*, IX. libk., 97. or.; kintalak 155 librakoak dira.

(12) Múgica, S., *Geografía general del País Vasco-Navarro*, I. libk., 490. or., Bartzelona, datarik gabe.

(13) Madoz, *Diccionario*, I. libk., 204. or., 25.000 kintal ematen ditu; ez da zehazten kintalak 100 edo 155 librakoak diren; pentsatzekoa da 100ekoak direla; hala balitz, gainerako zifrekin konpara daitekeen benetako produkzioa 16.000 kintalekoa izango litzateke. Madozek onartzen du Frantziarekiko gerra hasi aurretik, hau da, XIX. mendearen hasieran, zeuden burdinola batzuk desagertuta zeudela. Hamahiru olako zifra, beraz, oso altua da.

(14) AAA, 50. H. 1861eko industri errolda.

### Urtean Bizkaitik kanpora itsasoz esportatutako beta, alokairuen bidez

|                | Kintal<br>Matxo | TM.    | Indizea |
|----------------|-----------------|--------|---------|
| 1781-1791..... | 262.650         | 19.383 | 100     |
| 1815-1818..... | 152.388         | 11.246 | 58      |
| 1817-1821..... | 149.560         | 11.037 | 57      |
| 1825.....      | 223.040         | 16.460 | 85      |

### Bi marabediko produktuaren alokairua urtean<sup>48</sup>

|                |       |                |       |
|----------------|-------|----------------|-------|
| 1765-1766..... | 4.000 | 1791-1794..... | 3.150 |
| 1773-1774..... | 3.950 | 1815-1818..... | 1.917 |
| 1775-1778..... | 4.786 | 1817-1821..... | 2.030 |
| 1779-1782..... | 5.176 | 1824.....      | 1.733 |
| 1783-1786..... | 5.000 | 1825.....      | 2.000 |
| 1787-1790..... | 3.500 |                |       |

Produkzioaren beherakada nabarmen hau, une berean gertatzen ari zen hainbat arrazoiengatik izan zen, baina eskariak behera egitea izan zen garrantzizkoena. Arazo teknikoak baziren, zalantzarik gabe, baina zertarako sartu berrikuntzak, 1829an egur-ikatzaren prezioak Pirinioetako burdinola frantsesetan «Gipuzkoako edozein tokitan bikoitza baino gehiago» balio bazuen? 1830ean eta egoera hori zela, Sustapen Batzarraren ustez, burdina fabrikatzeko «katalana» zeritzon aspaldiko metodoa hobetu behar zen, baina hori egiteak ez zuen esan nahi labe garaien metodoa baztertu behar zenik, kontuan hartuz «la baratez del carbón del Pais o el precio moderado q. conserva en el día (aunque más a causa de falta de empleo q. por la abundancia de montazgos)...»<sup>49</sup>. Denak ez zetozen bat iritzi honekin. Bizkaiko burdingintzako interes batzuek atzerriko teknikak bereganatzea hartzen zuten irtenbide bakartzat 1827an: «no hay otro camino para salir del estado de abatimiento en que va cayendo por instantes la industria vizcaína...». «Lo que la Vizcaya será siempre o de vera ser; y lo que la Vizcaya tiene que imitar y envidiar es ese rincón de Westfalia. Ducado de Berg»<sup>50</sup>.

Nagusiki hiru faktorek osatzen dute eskariak behera egitearen arrazoa: Amerikako merkatua galtzeak, atzerriko burdinaren lehiak eta Euskal

<sup>48</sup> GBEA, E., ETC, 1. zkia., 1799tik 1828ra, eta Bizkaiko Jaurreriko Idazkiak, 21 eta 44. zkia.

<sup>49</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 133. leg.

<sup>50</sup> GBEA, Ferrerías, Gregorio González Azaolaren eskuizkribua: «Memoria segunda sobre importancia y urgencia de mejorar la elaboración del hierro en Vizcaya», Santanderren, 1827ko martxoak 18.

Herriko geldialdi ekonomikoak. 1830eko oroitzatxostenetako batek hone-laburbiltzen zituen arazoak: «Es bien notorio q. la decadencia de esta industria en el Pais es originada principalmente y se cuenta el principio de ella, desde q. se interrumpieron y cortaron las comunicaciones directas de comercio de la Peninsula con sus colonias; a cuyo favor, antes de la insurreccion de estas, se hacia el comercio exclusivo del fierro.» Horrez gain: «...mientras los extranjeros han hido mejorando y perfeccionando el arte difícil de hacer el buen fierro, y de hacerlo con economía, señaladamente durante estos veinte a treinta años, nuestras ferrerías han quedado cuasi en el mismo estado en que se hallaban...».

Eragozpen hauekin batera barneko eskaria ere txikitzea gertatu zen: Errege-flotaren eskaerak «han ido cesando [y] se han disminuido aun mucho los encargos y demandas particulares de errage, clavo y otras formas de fierro de martinete, a causa sin duda de la disminucion de consumos en la Peninsula, y esta disminucion de consumos a resulta de la de numerario q. se observa tan generalmente. Tambien debe haber contribuido a ello el establecimiento de manufacturas que han ido estendiendose de estas diferentes clases de ferrateria en las Provincias contribuyentes, asi como el de algunas ferrerías, y no ha influido poco sin duda la introducción de fierro extranjero mas barato que el nuestro, y mejor en algunas de las diferentes clases...»<sup>51</sup>.

Aduanak barnealdean zeudenez, erraz sartzen zen atzerriko burdina Euskal Herrian eta Gaztelako merkatuan, nahiz eta 1816ko uztailaren 2ko Errege Ordenak aginduta zenbait zerga ezartzen zitzaion «a instancia de los Diputados de las tres provincias hermanas y de los dueños de las veinte y dos ferrerías establecidas en las montañas de Navarra»<sup>52</sup>. Ingalaterra-ko burdina Nerbioi ibaiaren portuetan deskargatzen zen 1830 eta 1833an, «mendi eta burdinolen jabeen eta burdinaren arloan trafikatzailak zirenen» protesten kontra<sup>53</sup>. Bestalde, Asturiasen eta Andaluzian burdinolak agertzea benetako mehatxutzat hartzen zuten Bizkaian 1830ean, «izan ere gure industria erabat murriztuko baitute»<sup>54</sup>.

Dena dela, burdinari lotutako sektore guztiak ez zeuden gainbeheran. Independentziako Gerra bukatu eta handik gutxira hasitako deflazioak eta lanaldia handitzeak etekinak ekarri zizkien honako hauei: «[a la] cerrageria y otros articulos en la Villa de Mondragon y pueblos inmediatos y en la de Eybar tambien de la misma clase. A fuerza del trabajo prolongado de dia y de noche a que se sujetan los mas de sus operarios, consiguen vender al interior del Reyno sus manufacturas y de la disminucion grande del numerario.

<sup>51</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 133. leg.

<sup>52</sup> *Ibidem*, 136. leg.

<sup>53</sup> GBEA, Fierro extranjero, expedientes, memoriales y documentos varios; 1830etik 1843ra.

<sup>54</sup> Muruaga, Domingo de, *Necesidad de implantar viñas en Vizcaya*, Bilbo, 1830, 12. or.

Esta misma disminucion les proporciona barata en las primeras materias del carbon y fierro, como en los comestibles y demas necesario a la vida...». «De poco tiempo aca ha tomado cierto incremento la elaboracion de calderas de chapa de fierro, sartenes, y algun otro utensilio de cocina en Urrestilla. Los hacen en martinete; y parece segun noticias tienen bastante despacho y prospera esta manufactura extendiendose su estimacion aun a Francia, donde se introduce algo por contrabando. En el ramo de armas de fuego y bayonetas se trabaja tambien bastante de cuenta de la Real Fabrica, en Placencia, Eybar y algunos pueblos inmediatos y en Tolosa y Alegría»<sup>55</sup>. Ikus daitekeenez, kanpoko lehiak ez zituen industria tradizionala eraldatzailearen sektore batzuk harrapatu. Baina goiko azalpenak garbi adierazten digu nolako eragin desberdina izan zuen deflazioak artisau, nekazari eta mendi eta burdinolen jabeengan, eta horixe da garrantzizkoena. Nekazaritzako produktuen eta lehengaien prezioek, burdina elaboratua eta ikatza kasu, behera egiteak etekina eman zien lehenengoei eta gainerakoei, berriz, kalte handiak. Neurri handi batean, beheraldiak gero 1833an elkarren kontra egongo diren jarrera politikoak determinatzen zituen.

Horrez gain, alde batetik Amerikako merkatua galtzeak, burdingintzako interesen irtenbide bakarra barneko eta Penintsulako merkatuaren protekzioa izatea ekarri zuen<sup>56</sup>. «Dificil es, o por expresarnos con exactitud, es imposible que el [hierro] que se forge o funda en España pueda competir con el hierro extranjero en baratura. Cada quintal de 100 libras consume cinco quintales de carbón de piedra. Faltando como falta este recurso en nuestro país se echa mano de carbón de leña o se emplea en la misma operación para sacar igual cantidad de metal cinco y media cargas. De manera que la diferencia de costo del combustible está en la proporción de uno a tres. Dirásenos que mientras se descubran maderos de carbón en el suelo vascongado, donde hay fundadas esperanzas de hallarlos, podemos valernos del de Asturias, pero aun con él hay suma desigualdad en el costo, y si a esto se agrega la superioridad de hornos, de máquinas, de inteligencia por parte de los operarios británicos a quienes hemos tomado por tipo en nuestras comparaciones, naturalmente se inferirá que mientras el arancel no sea nuestro escudo no podemos ni pensar siquiera en sostener nunca la concurrencia con ellos»<sup>57</sup>.

---

<sup>55</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 133. leg.

<sup>56</sup> Gipuzkoan 1847an berrogeita hamazortzi burdinola zeuden eta horietatik hogeita hamalauk hornitzen zuten merkatu nazionala eta gainerako hogeita lauek, neurri batean behintzat, Kuba eta kolonia ohiak: «...la mayor parte de los artículos de las ferrerías de los ríos Vidasoa, Oyarzun, Urumea y Oria se transportan en la misma forma de planchuela, o en la de caudradillo y machetes a La Habana y otros puntos de América en buques que salen de San Sebastián. Los artículos de las ferrerías de los ríos Urola y Deva transformándose en el país mismo en clavazón de toda especie, en herraduras, cerraduras y armas de fuego, se exportan a lo interior del reino». Madoz, *Diccionario*, IX. libk., 97. or.

<sup>57</sup> *Exposición elevada por la Comisión de Ferrones de Vizcaya*. Bilbo, 1843, 8-9. orr.



Joaquín de Aldamarrek benetako eragozpenak adierazi zituen 1850ean, arazo teknikoen eta muga-zergazkoen gainetik: «La baratura de este metal está en razón directa de la abundancia y bajo precio del mineral, del combustible, de la mano de obra y de la cantidad o escala de fabricación. La cantidad de fabricación es consecuencia de los consumos. Los consumos lo son de las necesidades de la civilización de los pueblo y del tráfico comercial.» Amerikako koloniak galtzeaz gain barnealdeko eskaria ere urritu egin zen eta horren ondorioz, honakoa jazo zen: «siendo muy reducidos los [consumos] de la marina, nulos los de caminos de hierro y grandes artefactos en edificios, en máquinas, en industrias y objetos de lujo; grande el atraso en otras aplicaciones, cuando todavía la mayor parte de los transportes internos de la Península se hacen con caballerías de cargas o con carros, cuyos ejes, cuyas llantas de rueda, o ambos mecanismos de frotación, son de madera»<sup>58</sup>. Kolonietako merkaturak baldin, herrialde osoak hazi egin behar zuen burdingintzako industria modernoa antolatu ahal izateko.

## Beste manufaktura batzuk

XVIII. mendean Amerikako koloniek merkataritzan aritzeak eta barnealdeko eskariak gora egiteak portu inguruetan bi industria mota, gariaren eho-keta eta larruen zurraketa alegia, azaltzea erraztu zuten. Horrelako establezimenduen garapenak merkataritzakapitala industri kapital izatera pasatzea zekarren neurri handian eta garapen horrek aurrera egiteko oztupoak izan zituen, batetik, Santanderko portuari Amerikako merkataritzarako ahalmena eman ziotelako 1778an eta, bestetik, Euskal Herriko produktu manufakturatuei, Gaztelan sartzeko, atzeritartasun-zerga ezarri ziotelako 1779az geroztik. Gertakari horren aurrean, merkataria eta industriari bilbotarren erreakzioa, establezimenduak probintzia salbuetsietatik at eramatea izan zen, batez ere Santanderreko inguruetara<sup>59</sup>. Larruak zurratzeari dagokionez, gehienetan Amerikatik inportaturiko larruak erabiltzen zituzten. Arrigorriagako zurrategiak kolonietako 2.000 larru zurratzen zituen<sup>60</sup>; Balmasedakoak, berriz: «cueros de este pais y de Montevideo por mitades»<sup>61</sup>; Beasaingo artisauek: «cueros de Indias y Cordoban y badana de Aragon»<sup>62</sup>. Usurbilgoa Buenos Aires eta Montevideoko larruez hornitzen zen Caracasko Konpainiaren edo Donostiako merkatarien bitartez; Donostiako biak Buenos Airesko larruez eta gutxiago Venezuela edo Caracaskoetz<sup>63</sup>. Bilbo Amerikarekin zuzeneko

<sup>58</sup> Aldamar, Joaquín, *Opinión...* Madril, 1850, 3., 4 eta 13. orr.

<sup>59</sup> Palacio Atard, *op. cit.*, 143 eta 144. orr.

<sup>60</sup> GBEA, Frutos y Manufacturas 1803, Arrigorriagan.

<sup>61</sup> *Ibidem*, Balmasedan.

<sup>62</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 77. leg.

<sup>63</sup> AHN, Consejos, 3068. leg., 2. zkia.

merkataritzarik gabe gelditu zenez, garraio-kostuek gora egin zuten. Kolon de Larreategiren ustez, 1778an hasi zen manufaktura horien gainbehera: «De ocho años a esta parte [1786] se han disminuido estas tenerías en más de la mitad: en la jurisdicción de Balmaseda también había otros seis o siete pequeños curtimientos para la construcción de zapatos, que allí hacían para introducirlos en Castilla y otras partes del Reyno pero hoy día casi están arruinadas»<sup>64</sup>. Berak zenbatutako hamazazpitik hamalau Nerbioi ibaiaren inguruetan zeuden eta hiru desagertuta zeuden 1803an<sup>65</sup>. Lantegien kopurua jaistearekin batera produkzioak behera egin zuen: 1786an 42.200 larru inguru erabiltzen ziren zolak egiteko; 1826an, berriz, 10.000 ingurura jaitsi ziren, nahiz eta zurrategiek 20.000 eta 22.000 bitarteko produkzioa izateko ahalmena eduki eta orain lehengai guztia eskualdetik etorri<sup>66</sup>.

Gipuzkoako estatistikak ez dira aurrekoak bezain zehatzak, ez baita ia inoiz zurrategien kopurua hartu, eta bai, ordea, zehaztasun kualitatibo ugari. 1775eko zerrenda baten arabera, Tolosan, Azpeitian, Arrasaten, Hernanin, Usurbilen eta Donostian zurrategiak zeuden eta Azpeitian, Elgoibarren, Oñatin, Zumarragan, Seguran, Beasainen eta Bergaran, berriz, tailer txikiak. Hornitzen zuten merkatua eskualdekoa zen. Tolosan urtero egiten zituzten mila zolderiek hiribildua hornitzen zuten batez ere eta «gainerakoa inguruko herrietan» saltzen zen; Usurbilgo zurrategiak probintzia, Gasteiz eta Oñati hornitzen zituen, sorta batzuk Bilbon, Iruñean eta Nafarroako Latasan saltzen zituelarik; Donostiako bi zurrategietan egindako 2.000 pieza zola bertako eta Gipuzkoako herrietako maisuek erosten zituzten, baina, dena dela, Nafarroara, Arabara, Asturiasera edo Galiziarara ere bildaltzen ziren sorta batzuk<sup>67</sup>. Aitzitik, 1833an gutxienez hiru Tolosan, hiru Donostian eta bi Bergaran zeudela idatzi zuten. 1775eko datuen aldean, gutxienez bi zurrategi gehiago daude Tolosan eta bat

<sup>64</sup> AHN, Consejos, 3068. (2) leg. 1786ko zerrendak ez ditu Balmasedako 6 edo 7ak aipatzen. Hauek 1803an ere 10.000 pare zapata egiten zituzten. Censo de Frutos y manufacturas de 1803; Labordek, *op. cit.*, berriro ere errepikatzen du 1786ko kopurua 1808ko datuetan:

|                   | 1786 | 1803 |              |
|-------------------|------|------|--------------|
| Abando.....       | 6    | 4    |              |
| Begoña.....       | 4    | 4    |              |
| Arrigorriaga..... | 1    | 1    |              |
| Irauregi.....     | 1    | —    |              |
| Erandio.....      | 3    | 3    |              |
| Barakaldo.....    | 1    | 2    | abandonatuak |
| Durango.....      | 1    | —    |              |

<sup>65</sup> 1786, Kolon de Larreategiren aipatutako zerrenda; 1826, Miñanoren *Diccionario*. Madril, 1826, Bizkaia artikulua, «becerrillos, cueros de cabra».

<sup>66</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 77. leg.

<sup>67</sup> GBEA, Frutos y manufacturas. Madril, 1803, 38. or.

Donostian. Tolosakoan, XVIII. mendean, gutxi gorabehera 350 eta 400 larru inguru zurratzen ziren osorik, eta 1828an, aldiz, 2.700 idi, txahal eta behi-larru gehi 2.500 ahuntz eta ardi-larru, eta 1833an, lehenengoan 2.265 larru eta bigarrenen 1.560.

Manufakturaren sektorearen barruan garrantzi txikikoa zen. Bizkaiko hamazazpi zurrategiek «gutxi gorabehera 219 gizon eta beharrezko gauzetan emakume-pila bat» erabiltzen zituzten 1786an. Guztira hiru probintzietan, laurehun familia, bostehun asko jota.

Lantegi horiez gain, gauza gutxi zegoen. Kostaldeko probintzietan zenbait soka eta kalamu-tailer, ontzigintzarekin zerikusia zutenak, eta barru aldetik, lihozko mihiseak eta marragak egiten zituztenak: 654 langile Gipuzkoan, 1799an argitaratutako *Censo de Frutos y Manufacturas* delakoaren arabera, 26 Larrabetzun, artilezko mihise arrunteko 22.000 kana egiten zituztenak, eta kopuru zehaztugabea Orozkon, bertako mihiseko 6.000 kana produzitzen zituena. Beherantza zihoan nekazaritza-artistautza eta Frantziak eta Ingalaterrak hornitzen zuten hein handi batean: «Pocos países hacen tanto uso de la ropa blanca como el nuestro —zioten 1766an Euskal-erriaren Adiskideek—; pero con todo eso no se trabaja otro lienzo que el que llamamos casero, y alguna mantelería ordinaria: todas las demás especies, como lienzos de mar, crudos, retortas, creas, roanes, etc. de que gusta mucho la gente común en tocas, pañuelos etc. se trae de Francia [...] los paños más finos nos vienen de Francia e Inglaterra...»<sup>68</sup>. Laburbilduz, burdinak izan ezik, gainerako produkzioek ez zuten garrantzirik. Geroago ikusiko dugunez, 1770az geroztik egin ziren saiakeren patua porrota baino ez zen, alde batetik, Euskal Herria libreganbioko zona zelako eta, bestetik, Koroaren zerga-politikarengatik, izan ere, pixkanaka probintzia salbuetsien eta Gaztelako merkatuaren artean traba gehiago jartzen baitzituen.

## Foruak, protekzionismoa eta industrializazioa

Mende bukaerako ilustratu gehienek antzematen zituzten nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako hazkudearen mugak. Ohizkanpoko lekukoa izan zen Jovellanosen ustez «fabrika gehiago eraikitzea» zen dena ez gelditzeko zegoen aukera bakarra. Printzerriko egoera, arrazoi asko zirela eta, Bizkaiko eta Gipuzkoakoaren antzekoa zen: «En algunos concejos de Asturias sobran muchos brazos, y ya la agricultura no puede ocuparlos. La industria pudiera muy bien darles acogida; pero en esta parte es grande el atraso»<sup>69</sup>.

<sup>68</sup> *Ensayo...*, 201, 202 eta 203. orr.

<sup>69</sup> Jovellanos, G. M., *Obras de...*, Biblioteca de Autores Españoles, I. libk., Madril, 1952, 297 eta 292. orr.

Demografi hazkundera zela eta, produktu erdigalkorren eskaria hornitzeko sorturiko lantegi batzuk ireki ziren. Manufaktura hauek urteetan segitzea zailagoa izan zen burdinolek irautea baino. Foruen arabera, aduanek barnealdean egon behar zuten, hau da, lehorreko portuak deiturikoetan: Balmaseda, Urduña eta Gasteizen; beraz, Euskal Herria libreganbioko zona zen. Gaztelan sartzean baino ez ziren ordaindu behar aduana-zergak. Pribilejio hauen funtsa, hornigai gehienak inportatu behar zituen eskualdearen pobrezian zetzan. Zenbait natur abantailak eta batez ere Amerikan zuen monopolioak orekatzen zuten atzerriko burdingintzako produktuek euskal burdingintzan eragin zezaketen lehia. Egoera hau bi arrazoiengatik aldatu zen, bata ekonomikoa eta bestea politikoa. Alde batetik, atzerriko teknikoak kostuen prezioetan eragina izan zuen eta kolonietan, independentzia lortu aurretik, kontrabandoa egotea erraztu zuen, eta bestetik, euskal produktuek ez zuten inolako pribilejiorik izan koloniek burujabetasuna lortu ondoren. Bestalde, Borboien politikaren eta 1779az geroztik Errege Ogasunaren beharren ondorioz Euskal Herriko eta Nafarroako industriaren produktuei atzerriko zergak ezarri zitzaizkien, bai Gaztelan sartzean bai Amerikako merkataritzan<sup>70</sup>. Horren ondoren, beste Errege Agindu batzuk agertu ziren 1780an, 1782an eta 1783an, antzerako helburuak zituztelarik. Eta euskal artisauek horren kontrakoa lortu nahi zuten hain zuzen ere Errege Agindu horiek agertu aurretik! Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, Azkoitian ante eta sarrio-larruen manufaktura bat jarri zutela eta, 1772ko txosten batean zioen ahalegin horiek alferrikakoak izango zirela arrazoi honengatik: «[debido a lo] subido de los jornales por lo caro de los alimentos [hasta que se logre] de la piedad del Rey nuestro Señor algunas franquicias, que equilibren el exceso que nos llevan los extranjeros en industria y baratez de mano de obra». Hori zela eta, haxe adierazi zuten: «[la] necesidad de implorar la Real clemencia, solicitando esención de derechos, así para estas manufacturas, como para las de cuchillos etc.; pues no permitiendo el precio de los bastimientos etc. el que los géneros manufacturados en estas Provincias compitan en baratura con los extranjeros, siendo igual la exacción de derechos; sin la rebaja correspondiente de estos a favor de nuestras fábricas, será poco menos que inasequible la sólida planificación de ellos, y aun la permanencia de los ya establecidos...»<sup>71</sup>.

Argudio horiek azaldu zituen Ramon Castrok; Hernaniko gizon honek olio, olio-hondarrak, eta Cadiz eta Sevillako portuetatik ekarritako beste fruitu batzuk erabiliz xaboi egiteko fabrika bat eraiki zuen. Bere produktuek kalitatea eta prezio lehiakorra bazuten ere, frantziarrek eskualdeko merkatutik kanpo uzten zituzten hiru arrazoigatik: artikulua zorretan

<sup>70</sup> Palacio Atard, *op. cit.*, 143. or., eta Carrera y Pujal, *Historia de la economía española*. Bartzelona, 1947, V. libk., 28. or., eta Egaña, *Memoria*, 216. or.

<sup>71</sup> *Extractos...*, 88. or.

ematea, Euskal Herrian sartzean muga-saririk ordaindu behar ez izatea eta Castoren xaboiek Frantzian sartzean, aldiz, zergak ordaintzea. Castrok beste gauza bat ere eskatzen zuen: Baionan egiten zena, hau da, espainiarrei udal-zerga modura hamabi erreal ordainaraztea, Donostian ere Frantziatik ekarritako xaboiekin egitea<sup>72</sup>. 1775ean zurrategien kopuruei buruz Tolosan emandako erantzunean, produktuak Gaztelara eta Nafarroara eramatean zerga-salbuespena izateko edo hauek txikitzeo eskatzen zuten, horrela, Frantzia eta Ingalaterrako fabriken esportazioak saihestuko ziren eta<sup>73</sup>.

1778az geroztik eskaturiko zerga berriek hiru ondorio ekarri zituzten: Bilboko irin-fabrikak eta zurrategiak Santanderrera eramatea edo gainbehera egitea<sup>74</sup>, Bergarako aizto-fabrikek eta sarraildegiek porrot egitea «gaur egun 50 familia baino gehiago pobrezia larrian gelditu direlarik, eta horietako asko atzerriratu beharrean daude miseriak jota ez hiltzeko»<sup>75</sup>, eta Arabako burdinolak egoera larrian jartzea<sup>76</sup>.

Egoera hori zuten oinarri foruen kontra zeudenek. XIX. mendearen hasierako ilustratuek azken hariraino eraman zuten hirurogeita hamarrek hamarkadako Euskalerraren Adiskideen Elkartekoen jarrera —«vale más vestirse con la márraga de Anzuola, por los beneficios que reparte, que no del paño de Abbeville»—. Vargas Poncek ez du zalantzarik egingo foruei eraso egiteko eta horiek kentzeko aldarrikatzean, behintzat horien alderdi batzuk: «sobrando tantos brazos y emigrando de Guipúzcoa [tanta gente] ...¿porque no da el paso natural hacia la Industria y Comercio...?» «Y porque no pasa a serlo [industrian eta merkataritzan indartsu] quando todo le convida a ello? ...No por otro motivo absolutam<sup>te</sup> que porque goza de unos privilegios particulares que concedidos graciosamente por los Reyes en épocas no muy remotas ella [Probintziak, alegia] denomina Fueros. Mientras subsistan, Guipúzcoa no puede ser tan feliz como debe ser. Con ellos no puede mejorar su constitución; sin ellos puede duplicar su vecindario y multiplicar asombrosamente su felicidad»<sup>77</sup>.

---

<sup>72</sup> AHN, Consejos, 726 (52) leg., 1-11. orr.

<sup>73</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 77. leg.

<sup>74</sup> Begoñan: «... hay cuatro fábricas de curtidos, pero su producto anual es incalculable o casi ninguno, porque se hallan en un estado de deteriorización por estar recargadas sus manufacturas con unos derechos insoportables de extranjería, y no estar comprendidas en las demás franquicias de que gozan iguales fábricas del reino»; Barakaldoko bie buruz hauxe diote: «hace quince o más días que se hallan abandonadas por el recargo de derechos...»; Erandioko biak hondatuta zeuden atzerritartasun-zerga ezarri zitzaielako. 1803ko *Censo de Frutos y Manufacturas*-i egindako erantzuna.

<sup>75</sup> T. López, 7311. esku.; erantzuna XVIII. mendearen bukaerakoa da. *Diccionario de la R.A.H.*, II. libk., 440. or.

<sup>76</sup> *Censo de Frutos y Manufacturas*. Madril, 1803, 1 eta 2. orr.

<sup>77</sup> Vargas Poncek foruen kontra botatako esaldiak «Prólogo a sus Estados de vitalidad...» idatzian agertzen dira. Abaltzisketari dagokionez honakoa esan zuen: «y careciendo de los infinitos modos de subsistir que proporciona la industria por lo que se oponen a que se planifiquen los Fueros, se quedan célibes todos los hombres en la edad más robusta para mutiplicarse

XIX. mendearen hasieran, bai burdina produzitzen zutenak eta bai gainerakoak protekzionistak ziren erabat eta Gaztelako eta kolonietako merkatuak zergarik gabekoak izatea nahi zuten. Honako galderari: «Si las primeras materias que de fuera del Pueblo consumen las fábricas se podrian producir en otras mas inmediatas, ó en el mismo y qual sería el modo de conseguirlo» hauxe erantzun zion Mutrikuko herriak: «Las suelas, cordones, becerrillos, alambre, lanas y xarcia se podrian producir en este pueblo y en otros inmediatos y el modo de conseguirlo sería proporcionando S. M. salida franca a Castilla y a la América, recargando por otra parte al extranjero estas mismas materias al tiempo de la introduccion». Horrela, «las fábricas de herrería y armas son susceptibles de gran fomento», eta gainera, suzko armetan bazuten aukera gehiagorik: «competir y acaso exceder a las extranjeras en calidad y precio»<sup>78</sup>.

Independentziako Gerraren ostean eta batez ere hogeiko hamarkadan, fabrikatzaileen eta artisauen kexak areagotu egin ziren. Bizkaiko Aldundiak atzerriko burdina sartzea debekatzeko zuten Errege Zedulak betetzeko dekretua eman zuen 1814an<sup>79</sup> eta hurrengo urtean azkoitiarrak Donostiatik eta Bilbotik atzerriko burdina inportatzeaz kexu ziren<sup>80</sup>.

Gipuzkoako eta beste probintzia batzuetako diputatuen asmoa atzerriko burdina Espainiara esportatzea guztiz debekatzea zen, baina 1816ko uztailaren 2ko Aginduak Gaztelako kintaletan 52 erreale eta 8 marabediko zergak kobratzea onartu zuen soilik, garai hartako salneurriaren gaineko %40 edo 60 gutxi gorabehera. Dena dela, Ramón López Dorigak Juan Bautista de Alzaga Gipuzkoako diputatuari bidalitako gutunean azaldu zuenez, ez zuten honakoa kontuan hartu: «q<sup>e</sup> podia introducirse p<sup>r</sup> Bilbao y S<sup>n</sup> Sebastian donde no hai aduanas p<sup>a</sup> q<sup>e</sup> se pueda cobrar dho derecho». Zerga hau ordaintzen ez zuten, Euskal Herrian egiten zena baino merkeago eman zezaketela gaineratu zuen «eta gero Asturias, Galizia edo Andaluziara eramaten zuten bertakoa bailitzan». Gutun hori aipatuz, Gipuzkoako olagizonek honakoa idatzi zuten 1817ko otsailaren 10ean: «Esta es la causa por que nuestras ferrierías que trabagan excelente fierro... y por lo mismo algo mas caro... se hallan en tal decadencia» eta Penintsulako portuetan atzerriko burdina, altzairua eta iltzeak sartzea erabat debekatuta egoteko eskatzen zuten, arrazoi

---

y emigrar (ordinariamente a las Indias...) quantos no pueden remplazar la suspirada vacante de uno de los colonos agricultores». Bere ustez, kostaldeko biztanleria ez zen gehiago handitu «bertako nekazaritzak ezin duelako aurrera egin; eta foruengatik ezin dutelako merkataritzan eta nabigazioan jardun ». Errenteriako kasuan honakoa azpimarratu zuen berriro: «eta [nekazaritarik] ez duten herriek eta Foruek industriarik eta merkataritarik ez izatera behartzen dituzten herriek gainbehera egiten dute eta miseria gorrian daude». HEAA, E 71, behin baino gehiagotan aipatutako «Estados de vitalidad» idatzian. Ikus daitekeenez, foruen kontrako erasoa ez zettorren jada kanpotik, eta ez zen zerga-arrazoiengatik ere egiten.

<sup>78</sup> HEAA, Vargas Ponce Bilduma, 1802ko errolda.

<sup>79</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 104. leg.

<sup>80</sup> *Ibidem*, 106. leg.

honengatik: «no basta el recargo de derechos para que uno u otro comerciante de Bilbao o de otro Puerto de las Provincias exemptas, deje de introducirlo, arruinando así la principal industria del Pais». Aipatu dugun Ramón López Doriga Santanderko merkatari famatua zen eta Reinosako burdinola baten jabea ere bai. Berak eta beste bazkide batek 500 kintal burdina zuten Bilbon. 1816ko udan kintal bakoitza 124 eta 125 errealetan saltzen zuten bertean, 1817ko otsailean 100 errealetan eskaintzen zuten. Eta ondokoa gaineratu zuen: «Zer egingo dugu itsasontzi ingelesa etorri eta 80 edo 90 errealetan saltzen duenean?». Aipaturiko balandra ingeles horrek burdinazko produktuak eta loza lehorreratu zituen hiriburuan<sup>81</sup>. 1824an, Tolosako Jose Maria Echevarria «loza fineko» fabrika baten ugazabak ondorengoa idatzi zuen: «Este obstaculo... que desde luego va a destruir esta fábrica totalmente y el de los exorbitantes dros que por su manufactura se exigen en las aduanas del Ebro, al paso que las de los fabricantes extranjeros se introducen por la costa libremente e inundan el Pais...»<sup>82</sup>. Tolosa, Donostia eta Hondarrabiko zapatagileak Frantzia eta beste herrialde batzuetan egindako zapatak sartzeaz kexu ziren eta horrela zioten: «y es indudable que si la España cerrase del todo sus puertas a este destructor trafico extranjero... sería por si sola capaz de ir volviendo poco a poco a aquel grado de poder y felicidad»<sup>83</sup>. Leintz Gatzagako herria protestekin bat etorri zen hurrengo urtearen hasieran: «No puedo menos de poner en la consideración de V. S. que la mucha sal que se introduce en los Puertos maritimos de su distrito extendiéndose a toda la Provincia, por un precio mui inferior del que se puede trabajar en estas fabricas hara indispensablemente la ruina de ellas. Se conoce ya su decadencia en tal grado que no se trabaja la cuarta parte q<sup>e</sup> ahora tres o cuatro años». Atzerriko gatzari zerga jartzea iradokitzen zuten, fabrika hauen prezioa oreka zedin<sup>84</sup>. Urte berean, kapelak egiten zituzten Tolosako bik, Frantziako lehia zela-eta, honakoa erregutu zioten Probintziari: «se sirva disponer que en adelante no se introduzca para el surtido de su territorio sombrero de fabrica extranjera» eta beste azalpen batean, zeharka aipatzen dira foru-legeak: «que las solicitudes que hacen son verdaderas y nada opuestas a los fueros, buenos usos y costumbres...»<sup>85</sup>; esku artean izandako agirien artean foruak aipatzen diren lehenengoa aldia dugu hori. 1828an, Donostiako zurrategien gainbehera, atzerritik itsasoz nahiz lehorrez sartutakoari leporatzen zioten, eta gerra zibila hasi zen urte berean, larruzko produktuak saltzerakoan Nafarroan eta erresumako beste lekuetan eskatzen ziren zerga gogorrak aipatu zituzten Tolosan<sup>86</sup>.

---

<sup>81</sup> *Ibidem*, 106. leg.

<sup>82</sup> *Ibidem*, 114. leg.

<sup>83</sup> *Ibidem*, 117. leg.

<sup>84</sup> *Ibidem*, 120. leg.

<sup>85</sup> *Ibidem*, 121. leg.

<sup>86</sup> *Ibidem*, 127. leg.

## Merkataritza-kapitalismotik industri kapitalismora

Merkataritza-kapitaletik industrialera pasatzeko lehenengo urrats serioak XVIII. mendearen azken herenean izan ziren, zurragingintzan eta irin-fabriketan egindako inbertsioei esker. Burdingintzaren produkzioa etekin handiak ematen zituen aurrerapen-sistemaren mende zegoela, merkatariek ez zuten burdinolak sustatzeko erakarpenik izan. Zeregin hori jende gorenaren esku gelditu zen: Arandako markesak eraiki zuen lehenengo fandearia; Iraetakoa Egeako kondeak, eta Bergaran altzairu zementatua egiteko labea Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen babesari esker ibili zen.

XVIII. mendean merkatarik gutxi inbertitu zuen manufakturetan, handizkako merkatarik soilik kontuan hartzen baditugu behintzat. 1795ean Kontratazio Epaitegiak aipaturiko 183 merkatarietatik lauk baino ez ziharduten zuzenean produkzioan: Pedro Benito de Zubiagak Balmasedan gal-darak egiteko martineterako kobrea jasotzen zuen eta bertako jabea zen; Nicolas de Morueta y Lequerica zurrategi baten jabea zen eta Iparraldeko salgaiekin negoziatzen zuen aldi berean; Jose de Gallatabeitia iltzeak eta barra biribilak egiteko martinete baten edo biren jabea zen Enkarterrietan eta txikizka saltzen zituen, eta azkenik *Ardanaz, hijo y Bengoa*, zalantzarik gabe pertsonaiarik interesgarrienak. Iparraldetik ekartzen zituzten produktuak, artilea ontziratzen zuten eta gainera, zurrategi bat zuten urte horretan. 1778an Pedro de Ardanaz iringile-lanetan ari zela aipatzen zuten, eta garai berean (1789tik 1793ra) konpainia horrek, *Ardanaz, hijo y Bengoa* izenekoak, bi ontzi zituen: Hamburgera nabigatzen zuen 200 tonakoa eta Santander, Malaga eta Londresera zihoan 100ekoa. Horrez gain, Vicente de Bengoa 60 tonako ontzi baten jabea zen. Seguruenik kabotaje-lanetarako erabiltzen zuen, Donibane Lohitzunera eta Gijonera joaten baitzen. Merkatarik hauek 1786an Loiuako lurerekin espekulatzen ere ibili ziren<sup>87</sup>.

Saio hauek, Gipuzkoan egin ziren beste batzuekin batera —Donostian 1777an jarri zuten zapi eta mihiseen fabrikak<sup>88</sup>—, porrot egin zuten. Oreak tradizionalaren ahalbide guztiak agortu eta inportazio libreari lotutako interesek gainbehera egin arte, ez zitzaion industrializazioaren bi-deari ekin.

1841. urtearen bukaeran, aduanak kostaldera eramatea erabaki zen betiko; biztanleria estualditik irteten hasi zen eta egoeraren norabidea aldatu egin zen: berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadak 1849tik 1896 arte izan zen Kondratieff-en zikloaren A zatian sartu ziren. Giro egoki horretan, burdingintza astun eta modernoa eta hain etorkizun bikaina izan ez

<sup>87</sup> Ikusi *Barne-merkatuaren eraketa* kapitulua, «Zentsoa, interes-tasa eta betearazpena» atala. Gainerako datuak: Guiard, *Consulado...*, II. libk., 437-438, 521-526, 557 eta 562. orr.

<sup>88</sup> Gorosabel, P. de, *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*. Bilbo, 1967, I. libk., 382. or.



zuen industria arina eratzeko lehenengo urrats erabakigarriak eta aldi berean traketsak hasi ziren ematen; horrela, lehen libreganbioari esker inportatzen ziren produktuez horni zitezkeen probintziak.

Karlistada bukatu ondoren, Bilboko Merkataritza Batzordearen nahiak hauxek ziren oraindik ere: «[mantener] nuestros venerados Fueros y la inapreciable libertad de comercio exterior que en ellos se consigna», eta aldi berean, «impedir el reprobado tráfico a que muy recientemente se ha dado principio de naturalizar el fierro extranjero con el culpable objeto de arruinar nuestra industria fabril y privar a la nación de los ingresos que la corresponden en el adeudo al traspasar la línea de las aduanas»<sup>89</sup>.

Aduanak lekuz aldatzeak ondorio latza ekarri zion inportazio eta esportazioaren trafikoari. Bilbon eragin txarra izan zuen saltoki txikietan, eta «boteretsuenek», berriz, zenbait abantaila lortu zuten koloniekkin eta Amerikako kolonia ohiekin izandako salerosketetan<sup>90</sup>. Gasteizko merkataritzak, atzerriko produktuen inportazioarekin loturik zegoenak, «norabidea aldatu eta bertako kapitalak beste inbertsio batzuetan sartu» behar izan zuen, garai hartako idazle batek dioenaren arabera<sup>91</sup>.

Dena dela, oro har, neurri hori industria berpiztearekin erlazionatu zuten: Madozen berriemaile bizkaitarraren ustez, ondorengoek zuten garrantzi berezia: «los famosos establecimientos industriales que se han planteado no hace muchos años, lo mismo que en Guipúzcoa, a consecuencia de la traslación de las aduanas a la frontera»<sup>92</sup>. Gipuzkoari zegokionez, honela zioen Gorosabelek: «que cuasi todas las fábricas de su territorio datan desde el año 1842 en adelante, es decir, después del establecimiento de las aduanas en la frontera francesa y puertos marítimos»<sup>93</sup>.

Arabako 1861eko industri erroldaren bidez zenbait zehaztasun ikus ditzakegu. Oso ugariak ez diren datuen artean sarritan aipatzen du probintzian zeuden «fabrika» batzuk noiz sortu ziren. Aldez aurretik esan beharra dago fabrika titulu arranditsuaren pean benetako artisau-lantegiak zeudela, sarritan langile bakarra zutelarik. «Pattar-fabrikak» herriko lagun batek ardoa distilatzen jarduten zuen alanbikeak ziren. Suposa daitekeen bezala, egin berri ziren establezimenduen data gehiago daude aspaldiko urteetan eraikitakoenak baino; hala, bada, guztira 89 ziren eta horietatik 1840. urtean baino lehen egindako 13 eraikin besterik ez da agertzen. Horiek alde batera utzita, ikus dezakegu 76 «fabrikatatik» 14 1840tik 1844ra eraiki

---

<sup>89</sup> GBEA, Fierro extranjero, expedientes, memoriales... 1830etik 1843ra arteko urteak; Bilbon, 1840ko apirilak 10.

<sup>90</sup> Madoz, *Diccionario*, XVI. libk., 386. or.

<sup>91</sup> *Ibidem*, I. libk., 204. or.

<sup>92</sup> *Ibidem*, XVI. libk., 381. or.

<sup>93</sup> Gorosabel, *op. cit.*, 383. or.; antzerakoa zioen Madozek Gipuzkoako industriari buruz mintzatzean, IX. libk., 96. or. Aipatzekoa da bi idazle horiek liberalak zirela ideologiari dagokionez.

zirela, 12 1845etik 1849ra, 15 1850etik 1854ra, 33 1855etik 1859ra eta 2 1860tik 1861eko ekainaren 30era. Beraz, aduanak lekuz aldatzearen ondorioak berandu azaldu ziren barnealdeko probintzian.

74 establezimenduetatik (76 ken 1860tik 1861era eraikitako biak), 38 elikaduraren zerbitzuari lotuta zeuden (errotak, txokolate, irin, pattar-fabrikak...), 16 jantziei edo etxerako tresneriari lotuta (buztigintza, kapelak, ehunak...), 8 eraikuntzari lotuta (kola, kare hidraulikoa, asfaltoa, teilak... egiteko fabrikak) eta 12 era batean edo bestean burdingintzari lotuta (galdategiak, burdinazko oheak egiteko fabrikak, burdinolak...). Hiru establezimenduk soilik merezi zuten «fabrika» izena izatea. Bi burdingintzan aritzen ziren eta bestea irin-lanetan. Garrantzizkoena Asparreneko udalean zegoen burdinola zen. 1848an ireki zuten eta 1858an *Urigoitia y Compañía*ren esku gelditu zen. 2.000.000 errealeko kapitala zuen eta 50 zaldipotentiako indar eragilea bide zuen gurpil hidraulikoa erabili ohi zuen. Egur-ikatza, harrikatza eta betak ziren bertako lehengaiak, eta egunean laurogeita hamar bat langile ibiltzen ziren. Bigarrena Araiako udalean zegoen kokatuta. 1772an sortu eta 1857 arte «antzinako erara» zebilela zehaztu zuten eta handik aurrera, berriz, «era modernora» funtzionatu zuen. 1.200.000 errealeko kapitala zuen eta ur-indarrezko 30 eta lurrinezko 40 zaldipotentiako indar eragilea erabili ohi zituen; udan, azkeneko horien bidez egiten zioten aurre ur-eskasiari. Lehenengoak erabiltzen zituen lehengai berdinez baliatzen zen eta langileen kopurua aldatu egiten zen urte-sasoiazen arabera; erregai-garraiatazailak alde batera utzita, 40 eta 100 bitartekoa izaten zen. Irin-fabrika Arratzun zegoen. 1851n sorturiko fabrika horrek 75.000 errealeko kapitala eta 11 langile zituen. Aipatze-koa da 1858an 75.000 errealeko kapitala eta bederatzi langile zituela sortutako asfalto fabrika txiki batek bi zaldipotentiako lurrin-makina bat erabitzen zuela. Dena dela, Araba osoan guztira 42 zaldipotentzia zuen bi lurrin-makina zeuden<sup>94</sup>.

XVIII. mendearen bukaeran zeuden 13 burdinoletatik, hiru bakarrik zebiltzan hurrengo mendearen erdialdean, batek era tradizionalen lan egiten zuelarik eta beste biak, berriz, guztiz aldatuta zeudelarik. Oraindik martxan jarraitzen zuen ola Urionakoa zen. 1771n eraikitako honek 400.000 errealeko balio zituen eta lau langilek egiten zuten lan bertan. Burdinola tradizionalen eta modernoaren arteko aldeak handiak ziren. XVIII. mendeko zortziek 32 langile bakarrik behar zituzten guztira; 1861eko bietan 160k ziharduten.

Aduanen lekualdaketak merkataritzan sorturiko oztopoek, merkataritza-kapitalak industrian inbertitzea zuzpertzuten antza, batez ere kostaldeko probintzietan. Epalzatarrak, «Ingalaterratik ekarritako ehun eta ju-teen inportazioan eta banaketan» aritzen ziren merkatarik garrantzitsuak,

---

<sup>94</sup> AAA, H. 50.

akziodunak ziren Boluetako Santa Anan (1841), Bilboko Bankuan (1857) eta Bilbo-Tutera Trenbide konpainian<sup>95</sup>. Kolonietatik ateratako dirua<sup>96</sup> eta aldatzen ari zen industria tradizionalaren interesak ere azaldu ziren: 1827an Povaleko burdinolaren jabe zen Ibarra familiak labe garai bat erosi zuen Guriezon 1848an. Ibarra eta konpainiak, Gipuzkoako kapitalista-talde batekin batera, *Fábrica de Hierro de Vera-Iraeta* izeneko sozietate bat sortu zuen 1855ean Zestoa eta Berako burdinola zaharrak ustiatzeko asmoz<sup>97</sup>. Bilboko Bankua sortu eta handik hiru urtera Aurrezki Kutxa eratzea onartu zen Errege Agindu baten bidez, eta *Sociedad de Crédito Vasco* 1862ko urtarrilaren 7an jarri zuten abian<sup>98</sup>.

Burdingintzaren sektorea aldatzearekin eta banku-sistema bat ezartzearekin batera beste zenbait industria ugaritu egin zen. 1842an jarraiko paperaren lehenengo fabrika ezarri zuten Brunet, Tantonat eta Guardaminok Tolosan. *La Esperanza* izeneko fabrika honetan makineria eta teknikariak frantsesak ziren eta inberturiko kapitala xume samarra izan zen: 1.888.230 erreal. 63 gizonezko, 61 emakumezko eta 14 neska aritzen ziren lanean<sup>99</sup>. Jarraian lan egiten zuen beste makina bat jarri zuen Iruran *Lauro, Echezarreta y Compañías* 1850ean, eta 1856an, Txaramako edo Araxeseko paper-fabrika antolatu zen<sup>100</sup>. 1845 eta 1846 bitartean oihal finen fabrika bat eraiki zuten Tolosako eskumenean<sup>101</sup>. Data horien inguruan honako fabrikak eraiki zituzten: Begoñan «del Montón» izeneko mihise-fabrika<sup>102</sup>, Abandon Ibaizabalgo *Nuestra Señora de la Piedad* izeneko kristal-fabrika, alanbre, tatxet eta puntapax-fabrika bat eta azukrea errefinatzeko beste bat. Horiek guztiak, lehen atzeritik hornituriko eskualdeko eskaria asetzen jardun zutenetariko batzuk dira.

Gorosabelek idatzi eta 1862an argitaratutako *Diccionario* liburuko berrien bidez, Gipuzkoan sorturiko industri mota eta datak zertxobait gehixeago zehaztu ahal dira: Alegiako jarraiko paperaren fabrika «eraiki berria» zen, Tolosakoak, berriz, bat 1842koa (*La Esperanza*), beste bat 1855-1858 bitartekoa, eta 1817an sorturikoa orduantxe berritu zuten; horrela, papera eskuz egitetik jarraian egitera pasatu zen, eta herri berean, kartoia eta zatar-papera ekoizten zituen fabrika batek urte gutxi bide zituen. Ehungintzari dagokionez, Lasartekoa 1846an eraiki zuten; Bergarakoa urte horretan bertan; Andoaingoa, handitzat jotzen zutena, 1857-1858. urteetan, eta

---

<sup>95</sup> *Un siglo del Banco de Bilbao*. Bilbo, 1957, 555 eta 559. orr.; Delmas, *Guía del Señorío de Vizcaya*, 36. or.

<sup>96</sup> *Un siglo...*, 555 eta 559. orr.

<sup>97</sup> Sánchez Ramos, *La economía siderúrgica española*, I. libk., 141. or.

<sup>98</sup> Delmas, *op. cit.*, 38. or.

<sup>99</sup> *Un siglo...*, 458. or. eta Gorosabel, *op. cit.*, I. libk., 381. or.

<sup>100</sup> *Un siglo...*, 459. or.

<sup>101</sup> Gorosabel, *op. cit.*, I. libk., 381. or.

<sup>102</sup> Madoz, *Diccionario*, XVI. libk., 381. or.; Gorosabel, *op. cit.*, 381. or., datu ugari dakar baina ez oso zehatzak.

Billabonakoa, 1858-1860 bitartean. Laurek erabiltzen zuten kotoia. Horiez gain bazeuden beste bi: Tolosako artilezko oihal eta ehun-fabrika (1845-1846) eta Pascual Madozen lihozko lentzeria, mahaizapiak eta beste hainbat ehun egiten zituen. Azkeneko hau orduan ireki zuten eta 100 langile zituen. Tolosan zegoen alanbre eta puntapax-fabrika 1842koa zen, eta Beasainen «era modernoko labe garaiak dituen fabrika handi bat ... egin berri dute». Eibarko armagintza tradizionalak errebolberrak egiten zituen ordu-rako, hots, «sei tiroko pistolak». Honakoa ateratzen zaigu bere datu desberdinak eta ziurrenik zehaztugabeak laburbilduz:

### Gipuzkoako establezimenduak edo fabrikak 1860 aldera

| <i>Metalurgia</i> (1)  |   | <i>Ehungintza</i>          |   |
|------------------------|---|----------------------------|---|
| Galdatzeko.....        | 2 | Kotoizko ehunak .....      | 4 |
| Burdinurtzeko .....    | 3 | Lihozko ehunak .....       | 5 |
| Xafla .....            | 2 | Artilezko ehunak .....     | 1 |
| Alanbrea.....          | 1 | Txapelak .....             | 4 |
| Armak.....             | 2 |                            |   |
| Kobrea .....           | 2 | <i>Paper-fabrikak</i>      |   |
| Kobrezko galdarak..... | 1 | Jarraikoak .....           | 5 |
|                        |   | Eskuz .....                | 2 |
|                        |   | Kartoia eta zatar-papera.. | 1 |

(1) Burdinolak alde batera utzita.

Nolabaiteko garrantzia zuten fabrika horiei ondokoak gehitu behar zaizkie: hamabi zurrategi, bertako antrazita-meatze txikiak ustiatzen zituzten kare hidraulikoa egiten zuten hamaika, zortzi poxpolu-fabrika, kandela eta xaboi-fabrika bat, orrazi-fabrika bat, bi irin-fabrika, bost eskabete-fabrika, garagardo-fabrika bat, gatz arrunta egiten zuen bat eta hainbat sarrailategi eta orga-fabrika.

Ikus daitekeenez, indutrializatzeko lehenengo saioak, nahiz eta industria astunean nahikoa oinarritu, arinera ere jo zuen; horrela, ideia tradizionala ñabartzen hasten da.

1840 eta 1860. urteetako denboraldia oso erabakigarria izan zen. Burdinola tradizionalak desagertzen edo aldatzen hasi ziren bitartean, labe garaiak agertu ziren, egur-ikatza erabiltzen bazuten ere. Interes industrialak sortzen hasi ziren, eta 1875etik aurrera eta batez ere 1880az geroztik, meatzaritzako esportazioak sorturiko kapital ugari jaso zuten interes horiek.

Euskal Herriko merkatariak Gaztelan ehungintza garrantzitsua ez izateaz baliatu ziren. Iberoamerikako burgesia «erosleen» antza zuten nolabaite, hau da, lehengaiak esportatu eta produktu manufakturuak inportatzen zituzten. Dena dela, zona osoaren eginkizun bakarra eta nagusia ez

zen atzerriko eta Gaztelako bitarteko lana egitea. Pertsona asko nekazari-tzatik eta abeltzaintzatik bizi ez izateak, edo burdina lantzetik diru-sarrera garrantzizkoa lortzeak, bai zuzenean edo bai zeharka, industria modernoa sortzeko aldeko zenbait baldintza ekarri zuen: lanesku ugari, gaitua gainera. Ez ditugu honako bi alderdi hauek ere gutxietsi behar: finantza-azpiegitura egotea —izan ere, Bilboko merkatari bat baino gehiago aritu zen bankari-lanetan eta XVIII. mendetik aurrera aseguru-etxeak zeuden— eta komunikabideen sarea —bertan gogor inbertitzeko ahaleginak egin zituzten mende horren bigarren erdialdeaz gero—. Birmoldaketa beharrezkoa izan zen bai artilea eta burdina esportatetik bizi izan ziren kapitaldunentzat, ezin baitziren produktu horiek lehian sartu, bai herrialdeko biztanle guztientzat, hau da, artisauentzat eta hainbat nekazari eta jende gorenentzat.

XIX. mendeko azken laurdenean izandako meatzaritzako esportazioa erabakigarria eta hasierako kapital-metaketa osagaia izan zela uste dutenek, garrantzi handiagoa duten beste hainbat alderdi ahazten dute. Azpi-garatutako herri askok lehengaiak esportatu egin dituzte eta esportatzen dituzte; Espainiako beste zona batzuetan ere mineralak esportatu egin ziren baina ez zen horrelako industriarik sortu. Bestalde, Gipuzkoan ez zen eginkizun horretatik ateratako kapitalik izan eta, hala ere, industrializatu egin zen probintzia. Bere garrantzia izan zuen, adibidez, atzerrikoekin elkarlanean minerala esportatzen zuten pertsona berberak burdingintza-fabrikak izateak, baita meatzaritzako esportazioa hedatzean Bizkaiko burdina eta altzairua hedatzeak ere. 1880an, 49.547 tona, eta 1900ean, berriz, 365.506; barne-eskariak gora egitearen emaitza dugu hau.

Esportazioaren gorakada baino lehen interes industrialik izan ez baltz, nekez pasatuko zen metaketatik inbertsiora.

## XI

### Gizarte-estruktura, klase eta gatazkak

Euskal Herriko historian zehar, eta batez ere Bizkaikoan, kontraesanak izan bide ziren baserri eta hiri-munduen artean: 1718ko matxinada, 1804ko Zamakolada eta Karlistadak, aztertzen ari garen garaiko hiru kasu esaterako. Nahikoa eskema sinplista horrek une bakoitzaren benetako kontraesanak ezkutatu egiten ditu, izan ere, lehenengo gatazkan Bilbo inguruko nekazariak jende gorenaren kontra egin baitzuten, bigarrenean, berriz, burgesek eta nekazariak Zamakola zeritzon landa-kaparearen egitasmoen aurka jo baitzuten eta hirugarrenean, jende gorena eta nekazariak hirietako burgesiaren aurka borrokatu baitziren.

Arazo hauek ezin dira azaldu aldeaz aurretik Euskal Herriko gizartearen egitura aztertzen ez badugu.

#### **Hiriak, hiribilduak eta baserri-mundua<sup>1</sup>**

Euskal Herrian, hiri izena jaso zezaketen hiru aglomerazio bakarrak Bilbo, Donostia eta Gasteiz ziren. Demografiari begiratzen badiogu, barnealdeko probintzietako hiriburuen aldean, herri handiak zirela ematen zuten. 1787an, Bilbok 9.611 biztanle zituen; Donostiak, 11.494, eta Gasteizek, 6.302.

Mende eta Erdiko hazkundeak ia ez zuen aldatu probintzia bakoitzak zuen partaidetza. 1857ko Gasteizko kasua alde batera utzita, ehun eta berrogeita hamar urtetan ehunekoak ez ziren asko aldatu. Ez zen urbanizazio-prozesurik

---

<sup>1</sup> Nahiz eta Bilbo juridikoki hiribildua izan, nahiago izan dut hiritzat jo, azalpena garbiago egiteko asmoz. Bizkaian hiribilduak deritzoten herriek merkatua izateko baimena dute, bertan zenbat bizi diren berdin delarik, eta Gaztelako legearen eta fundazio-agirien arabera gobernatzen dira. Alderdi juridiko honen bidez bereizten ziren hiribilduak eta Foruak gobernatzen zuten Infantzoigoia edo Lur Zabala.

gertatu, izan ere, Euskal Herriko hiriak merkataritzaguneak ziren eta ez industriaguneak, eta oso jarduera administratibo urria zuten. Salgaiak inportatu eta esportatu egiten zituzten, baina ez zituzten produzitzen.

**Bilbo, Donostia eta Gasteizko ehunekoak,  
probintzia bakoitzaren biztanleriari dagokionez**

|            | Bilbo | Donostia | Gasteiz |            |
|------------|-------|----------|---------|------------|
| 1704 ..... | 8,84  | —        | —       | ..... 1704 |
| 1745 ..... | 9,73  | —        | 9,12    | ..... 1747 |
| 1787 ..... | 8,28  | 9,52     | 8,80    | ..... 1787 |
| 1857 ..... | 11,16 | 10,16    | 16,15   | ..... 1857 |

Burdinolak herrietan zehar zeuden sakabanatuta eta produktu bukatuen kontratazioa portuetan soilik biltzen zen: Bilbon eta Donostian. Gainera, aduanak barnealdean zeudenez eta libreganbioko zona zenez, salgai erdigalkorren industriak, ehungintza esaterako, ez ziren errotu. Durangoko oihalgintzako gremioa XVIII. menderako iraganaren irudi lausoa zen. Bilbo, Donostia eta Gasteizko merkataria neurri handi batean «herrialde azpigaratuen» egitura ekonomiko eta soziala mantentzeari esker bizi ziren: lehengaiak —Gaztelako artilea— edo produktu erdilanduak —burdin barrak— esportatuz eta kolonietako produktuak eta produktu bukatuak —tresnak eta batez ere ehunak— inportatuz.

Goian azaldutakoa garbi ikusten da Gasteizko biztanleak 1747an sektoreka nola banatzen ziren aztertuz gero. Arabako hiriburua hiruretan barrualdekoena zen; hortaz, bera zegoen lehengaietatik —artiletik— gertuen eta kanpoko lehiatik babestuen, distantzia zela bide. Bilbok edo Donostiak baino baldintza hobek zituen kontuan hartzeko moduko ehungintza gara zedin. Gauzak horrela, biztanleriaren %3,28 baino ez zen horretan aritzen: 1.099 auzotarretatik 36.

Merkataritza eta bestelakoak atalik heterogeneoena da zalantzarik gabe eta komenigarria da azaltzea salerosleak (24), merkataria (27), negozio-gizonak (2) eta tratulariak (8) hirurogeita bat zirela guztira, %5,50 alegia. Pobreak, lanbidedunak eta gabekoak, berrehun eta hamabi ziren, %19,29, biztanleen bostena, eta horietatik erdiek baino gehiagok, ehun eta hogeita bik alegia, ez zuten lanbide zehatzik.

Laburbilduz, Gasteizek ez zuen bere probintziako baserri-munduarekin lotura handirik. Kopuru aldetik nolabaiteko garrantzia zuten artisau bakarrak honakoak ziren: zapatagileak —hogeita hamazazpi, zapatagile adabatzaille bat kenduta—, ferratzaileak —hogeita hiru— eta jostunak —berrogeita sei, eta horietatik bi soilik hartzen ziren maisutzat eta beste asko pobreak ziren edo beste lanbide batzuk zituzten—. Lehenengok eta azkenekok soilik

hornitu behar zuten hirietatik ez ezik baserri-mundutik ere zetorren eskaria; ferratzaileak garraioari lotuta zeuden. Aitzitik, inguruetako lurrek alez eta haragiz hornitzen zuten hiria. Ez Gasteizek, ez Bilbok, ez Donostiak ez zuten hartzen baserri-munduko lanesku sobera, eta bertarutzen zirenak artisau edo jornalari-lanetan aritzen ziren. Baserriei saltzen zizkieten manufakturak inportaturiko produktuak izaten ziren.

**Gasteiz: 1747<sup>2</sup>**

| Sektoreak                         | Auzotarrak | %      |
|-----------------------------------|------------|--------|
| Nekazaritza .....                 | 167        | 15,19  |
| Eraikuntza .....                  | 83         | 7,55   |
| Ekipamendua .....                 | 204        | 18,56  |
| Garraioa, elikagaigintza.....     | 104        | 9,45   |
| Ehungintza.....                   | 36         | 3,28   |
| Merkataritza eta bestelakoak..... | 505        | 45,97  |
|                                   | 1.099      | 100,00 |

Nekazaritza = moztalea, baratzezaina, nekazaria...

Eraikuntza = igeltseroa, arkitektoa, pintorea...

Ekipamendua = zahagigilea, sokagilea, zurratzailea, inprimatzailea, garbitzailea...

Garraioa eta elikagaigintza = mandazaina, gozogina, dendaria...

Merkataritza eta bestelakoak = aduanaria, bizargina, mezularia, zaindaria, negozio-gizona, merkataria, lanbiderik gabekoa, ...

Egoera horren ordez, sektore transformatzaileak —artisauek, batez ere olagizonek, ferratzaileek, arma eta lanabes-egileek— garrantzi handia zuten Bizkaiko eta Gipuzkoako hiribildu xumeetan eta Arabako baten batean. Batzuetan, populazioaren %50 edo gehiago izatera heltzen ziren. Demografiari buruzko kapituluan ikusi genuen bezala, Arrasaten, fabrikatzaileak eta artisauak auzotarren %45,32 ziren; Soroluzen, %51,57; Tolosan, %38,10; Ordizian, %22,34; Eibarren, %47,10, eta Hondarribin, %53,29 marinelekin batera. Aramaioko bailarako Ibarren, 204 auzotar aktibotatik 72 ferratzaileak ziren 1813an<sup>3</sup>. Aitzitik, burdingintzak ia garrantzirik ez zuen hegoaldeko hiribilduetan, eta artisauen garrantzia ere oso txikia zen. Bastidan, Independentziako Gerra bukatu ondoren, hirurogeita hiru lagunek ez zuten nekazaritzan edo abeltzaintzan lan egiten eta, hamasei elizgizonak alde

<sup>2</sup> L. Henryk *Manuel de démographie historique* liburuan, 48. orrialdean, aditzera emandako sailkapenari jarraitu diot. Sailkapen horren arabera, auzotar-kopurua ez dator bat errolda demografikoekin, han emakume alarguna biztanle erdiaren berdina baita eta hemen emakume alargun ostalaria emakume ostalari baten berdina baita.

<sup>3</sup> AAA, 1813ko errolda, H. 5.



batera uzten baditugu, berrogeita zazpi gelditzen ziren, hau da, 204 pertsona familiakoak barne; 1.418 arima zituen herrian %14,58 ziren.

Laburbilduz esan dezakegu Euskal Herriko hiru hiri nagusiek kontsumitu, erosi eta saldu egiten zutela, merkaturatzea eta kredituaren zati bat euren mende zituztela, baina ez zutela produzitzen. Bizkaiko eta Gipuzkoako hiribildu gehienek produzitu, erosi eta saldu egiten zuten; bertako enbriatzen merkaturatzea hiriko merkatarien mende zegoen eta produktu enbriatzen produzitzen nekazaritza-merkaturako eta batez ere esportaziorako. Baserrietan ekoizten zuten artoa kontsumitzen zuten; krisialdian nekazari pobreenek zituak erosten zituzten, normalean gari, azienda eta lan-indar apur bat saltzen bazuten ere.

### Landatar gorenak

«Los hidalgos y caballeros, por más de ilustre sangre que sean, si tienen poco y pueden poco, téngase por dicho que los han de tener en poco.»

Guevara, Toledo, 1526

«Desengañémonos, señores; la constitución quiere nobleza rica, mantenida del producto de sus patrimonios; no pendiente de ajeno arbitrio; ni librada sobre la aplicación y el trabajo.»

«A fin de convencer esta verdad, hablaremos según las ideas de nuestro siglo, y subdividiremos la nobleza, no en aquellas clases que la antigua constitución señaló dentro de ella, sino en las que la opinión y la misma riqueza las divide.»

Jovellanos, 1784

Zuzenbidearen ikuspuntutik begiratuta, Bizkaiko, Gipuzkoako eta, neurri txikiago batean, Arabako biztanle gehienak nobletzat hartzen ziren. Hori zela eta, Euskal Herriko idazleak eta, bereziki, Larramendi, estamentu honetaz mintzatzean, odol-noblezia —guztiena eta jarauntsia— eta erositakoa —«y en esto no son ni pueden ser iguales todos»<sup>4</sup>—, bereizi beharrean zeuden. Garbi dago, beraz, ez zaizkigula baliagarriak izango, gizartearen ikuspegiari dagokionez, estamentuen irizpideak eta beharrezkoa zaigula sailkapen klasistara jotzea. Aberastasunaren aniztasunak bizimodu desberdina ez ezik, botere politikora heltzeko hainbat muga ere ezartzen zuen. «Aunque todos sean nobles —aipatu zuen gure jesuitak 1754an— no todos pueden entrar en los cargos honoríficos de la república; para eso, además, son menester los millares que llaman, esto es, tanta hacienda, que sirva de seguridad a la república para sanearse de los daños que puede causarle un

---

<sup>4</sup> Larramendi, M., *op. cit.*, 170, 171, 172 eta 173. orr.

mal cargo habiente»<sup>5</sup>. Izan ere, arreta horien pean sistema zentsitarioaren antzeko bat ezkututzen zen. Carmelo Echegarayren hitzetan: «En Rentería era menester que no sólo los elegibles sino también los electores tuvieran en bienes raíces situados en la Villa, 100.000 maravedís. Esta condición se refiere a los que habían de elegir Alcalde, y a los que podían ser nombrados para ese cargo. Para ser Regidor bastaba la mitad. En Elgoibar sólo eran electores y elegibles los vecinos que gozasen de 500 ducados en bienes raíces. Las ordenanzas de Tolosa distinguían entre electores de cabeza entera y electores de media cabeza. Los primeros debían tener en el término jurisdiccional de la Villa 60.000 maravedís de bienes raíces; los segundos eran los que tenían esa cantidad, al menos en bienes propios. Estos últimos eran sólo electores, pero no elegibles. Los que no contaban con 30.000 maravedís no podían figurar, ni como electores ni como elegibles»<sup>6</sup>.

Maizterrak eta artisauak bazterturik gelditzen ziren errealitatean. Lazkaon, XVIII. mendearen bukaeran, alkate, errejidore, sindiko eta diruzainlanak auzokide-hautagaien esku zeuden, hau da, udala osatu eta etxeen jabe zirenen esku; pertsonero eta herri-diputatu karguak bakarrik izan zitzakeen edozein biztanlek<sup>7</sup>. Bizkaian, Su-zenbaketen liburuetan ikus dezakegu ea auzotar guztiek udal-karguak betetzeko hauteskunderetan parte hartzen zuten. Abadiñon honakoa esan zuen fielak: «que todos los dueños de las casas expresadas en esta numeración, así menores como mayores, son sorteados para puestos de fieles y otros empleos onoríficos de la dha anteiglesia de forma que los de las casas menores que no pagan tanto, como los dueños de las casas mayores, corren con la misma igualdad de dhos oficios». Apatamonasterion ondokoa dugu: «[de las veinte fogueras dicisiete] entran a gozar y ejercer los oficios de fieles, y demas onoríficos de la dha anteiglesia y son fogueras enteras, y los demás que se hallan en dha jurisdicción son casas pequeñas que no entran en dhos oficios y cargos por ser cortas y de pocos pertenecidos...». Arrazolan su osoek bakarrik parte har zezaketan ohorezko karguetan eta su erdikoek, berriz, ez: «los dueños de estas no son sorteados, ni admitidos a oficios de fieles, ni a otro alguno de dha Anteiglesia, según la costumbre en que se halla»; horrela, hogeita hamar lagun zozketatzen zituzten, baina lehenago hamabost kanpoan utzita zeuden. Antzeko egoera zuten Axpen. Berrizen eta Izurzan eskubide berak zituzten guztiek baina honakoa zioten: «son preferidos los de fogueras mayores por causa de que contribuyen mas, y porque esto es lo que se a observado según declara dho Regidor». Garain, su erdi eta laurdeneko etxe batzuk baztertu egiten zituzten. Mallabin, bost «etxetxok»

---

<sup>5</sup> *Ibidem*, 170. or.

<sup>6</sup> Echegaray, *Compendio...*, 132 eta 133. orr.

<sup>7</sup> López, T., BN, 7311. eskbu., 204. or. atz.

ez zutela eskubiderik baina beste guztiek, bai su handikoek bai txikikoek, bazutela eman zuten aditzera. Denak berdinak ziren Arrankudiagan, Alonsotegin, Basaurin eta Begoñan. Loiun, bertako zazpi errotetako bizilagunek ez zituzten suak osatzen, ez zuten errepublikan enplegurik lortzen, eta ez zuten erreptideak konpontzeko zergarik ordaintzen.

Ikus daitekeenez, egoera desberdinak zeuden. Dena dela, su osoko eta erdiko etxeek botoa eman ahal izateak ez du erabat argi uzten bertako bizilagunen maila. Hori guztia adibide hauetatik ondoriozta daiteke: «Dn. Francisco de Meñaca por las casas que tiene en este Valle, y su pte. patrona y *fogueras adquiridas*, doce fogueras en todo»; «Dn. Josef Ramón de Aldama tiene cinco fogueras, por las casas de Ugalde, Zubibarria, Isasi abajo, y también vota con media foguera que tiene la casa de Iturrondo propia de Domingo de Veá, hacen en todo cinco y media fogueras»<sup>8</sup>. Honelaxe aukeratu zituzten Zeberio haraneko sei onuradunak: Ugaoko hiribilduko alkateak, sindikoak eta bi errejidoreek boto bana zuten eta bertako biztanleek *bakoitzaren boto-kopurua zuen su bestekoa zen*<sup>9</sup>. Horrela, su handi edo txikiko etxe batzuetako bizilagunek jabeak izan behar zuten botoa emateko eskubidea izan zezaten.

Baina, horrez gain, herrietako karguetan egoteak ez zuen esan nahi probintziako gobernuan zuzenean parte hartuko zenik. Batzarrei buruzko definiziorik zehatzena Larramendik egin zuen Gipuzkoaz ari zela: «siendo su gobierno aristocrático mixto de democracia»<sup>10</sup>, hots, Batzarrek jende gorenen «demokrazia» irudikatzen zuten eta horietxek kontrolatzen zuten botere politikoa eta administratiboa probintzi eta herri-mailan.

Garai hartan jauntxo zeritzen horien aberastasunak iturri desberdinak zituen, baina lurrak ziren oinarri nagusia. Oinetxe batzuek burdinolak eta errotak zituzten; beren nagusitasun feudaleko hondarrak ziren horiek, baina leinu gutxiri zetorkion benetan bere aberastasuna Erdi Arotik. Pixka bat aztertuz, berehala agertzen zen merkatari bat, edo Amerikan aberastutako bat edo burokrata bat. Dena dela, eta batez ere azkeneko kasuan, baserri-errenten bidez finantzatzen zuten eskola unibertsitario batean karrera egitea eta kargua erostea. Nekazaritzatik burokraziara berriro nekazaritzara itzultzeko. Hona hemen hainbat adibide.

Testamentuek, ezkontide bat hil ondorengo inbentarioek edo ezkontza-hitzarmenek ondasun guztiak uzten dizkigute agerian eta horixe dugu dokumentu hauen abantaila. Vicente Tristan de Aboitis y Meceta bilbotarrak 1777ko urriaren 16an egin zuen testamentua. Amaren partetik, maiorazkoa eta ondorengo funts-ondasunak jaraunsi zituen: Etxebarrin zegoen Ejetiaga etxea eta baserria, bertako estrepa (ogitarako alor,

<sup>8</sup> GBEA, 1704ko Su-zenbaketa, Zeberion, patroien atala. Letra etzanak gureak dira.

<sup>9</sup> *Diccionario de la R.A.H.*, Zeberion. Letra etzanak gureak dira.

<sup>10</sup> HEAA, «Conferencias curiosas, políticas, legales y morales sobre los Fueros de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa», 182. or., argitaragabea, 9-13-6-687.

mendi eta guzti), Begoñako Madariaga etxea eta baserria (mahasti, alor eta guzti), Sondikako bi baserri bertako estrepa eta mendiekin, eta Deustuko Leusarra dorrea. Horrez gain, bazituen beste binkulu txiki batzuk, bat Bilbon, etxe bat eta erdik osatua, eta bestea Begoñan, baserri bat. Maiorazkotik at zeuden beste funts-ondasun hauen jabe zen: Zaratamon etxea, baserria eta errota, Arrigorriagan bi etxe Lonboko burdinolari atxikiak, «horrez gain bi alor», zuzenean gobernatzen zituenak, elizate horretan beste bi etxe eta baserriak, zehaztugabeko leku batean lau etxe eta baserriak, dorretxe bat, bi ostatu, mendi bat eta erreta zegoen etxe bat. Ondasun hauetako batzuk hipotekan zituen 12.666 errealean berme moduan %3ko interesean Bilboko baten alde eta 60.000 errealean bermean interes berean Gasteizko biztanle baten alde. Diru-kopuru horiez gain, 49.216 erreal ere zor zizkion hainbat pertsonari. Laburbilduz, zazpi etxe eta erdi bertako ondasun eta guzti, dorretxe bat eta bi burdinola zituen binkulaturik eta binkulatu gabe hamar etxe eta atxikitakoak, etxe erre bat, dorretxe bat, errota bat, bi ostatu eta mendi bat, maiorazkoaren ondasunek askeek beste balio zutelarik gutxi gorabehera. Vicente Tristanek berak zuzentzen zituen burdinolak, maiordomo baten bitartez, eta alor batzuk<sup>11</sup>. Horixe dugu nekazaritzatik eta bere burdinolen ustiapenetik bakarrik bizi zen behe-mailako bizkaitar jauntxo baten ohiko adibidea.

F. Antonio Gomez de la Torreren aberastasuna desberdina zen. Nekazaritzatik eta ondasun higiezinetatik lorturiko diru-sarrerak ez ziren garrantzizkoak. Bere ondasunen tasazioan espreski esaten ez bada ere, Begoñan bizi eta 1747an Jaurerriko sindiko prokuradore izandako kapare hau bere eskribautzatik bizi izan zen batez ere. 1724an Josefa Ventura de Zabala y Fuicarekin ezkondu zen eta zazpi seme-alaba izan zituzten. Horietako bi presbitero izan ziren. 1770ean, bera hil eta emazteak testamentua egin zuen eta 1792an bien ondasunen tasazioa egin zen:

|   | Errealak                 |
|---|--------------------------|
| Denetarik (1).....                                | 10.587                   |
| Somera kaleko etxea .....                         | 91.370-17                |
| Zubiateko etxe nagusia eta txikia Baranbion. .... | { 75.526-25<br>16.163-12 |
| Begoñako etxea .....                              | 81.883-17                |
| Eskribautza .....                                 | 22.000                   |
| Etxeen errentak .....                             | 6.353-13                 |
| <i>Guztira</i> .....                              | 303.884-16               |

(1) Eskudirua, liburuak, zilarra, altzariak eta arropa.

<sup>11</sup> BPAH, F<sup>co</sup> X. de Recondo eskribaua, 1777, 4362. leg.

34.428-17 errealeko zorrak zituen<sup>12</sup>. Bigarren seme honek, bere familiari esker notaritza bat lortu zuen eta horrela, oso ugariak ez ziren bere ondasunak eta emaztearenak osatu ahal izan zituen. Bizkaiko aristokraziari lotuta egon zen eta hauen interesen ordezkari izan zen Gernikako Batzarretan sindiko prokuradore moduan.

Lurra eta burokrazia, baina honakoa ere bai: lurrak eta onibarren gaineko, Estatuaren errenten gaineko eta hainbat enpresa paraestataletan egindako inbertsioen gaineko zentsoak.

Don F. Antonio Porcel y Manrique, Villa Alegreko markesak ziren don Juan Fernando Porcel y Porcelen eta Atanasia Bárbara Manrique y Zaldibarren semea zen. Maria Vicente de Musaurieta Urbina Ugaz y Bertendonarekin ezkondu zen. Hau Bilbon bizi ziren don Juan Jose de Musaurieta y Egüa Ugaz y Bertendona eta María Luisa de Urbina y Zurbano andrearen alaba zen. F. Antonio Granadako goi-mailako nobleziaren familia bateko bigarren semea zen. Euskal Herriarekin hainbat lotura zuen, izan ere, bere amaren bigarren deitura Zaldibar baitzen eta Ugaz eta Bertendonako maiorazkoen oinordekoarekin ezkondu baitzen. Ezkontza-hitzarmena 1753ko urriaren 12an gauzatu zen. Data horretan honakoak ziren bere ondasunak: Granadako erresuman zegoen Santa Fen 60.000 erreale balio zuten 130 istingadi eta Granadako hirian bost etxe. Horietatik eta 130 istingadietatik errentak baino ez zituen jasotzen eta hildakoan, bere osabak sorturiko binkulu batera pasatu behar zuten. Bere istingadiak anaiari, Villa Alegreko markesari, saldu zizkion 11.000 errealetan eta upategia eta lanabesak ere bai. Hauek guztiak 50.000 errealetan eman zizkion, nahiz eta 1759an 53.000 errealetan baloratuak izan. Amaren aldetik hainbat ondasun jaso zuen, besteak beste: Illorako hiribildutik gertu zegoen kortijo bat (22.000 erreale) eta 208.127-7 erreale zenbait zentsotan eta bestelakoetan. 359.199 erreale jarri zituen guztira —114.000 gehi amarengandik jasotako 245.199-13—. Emazteak 208.563-8 erreale jarri zituen honela banaturik: 20.305 erreale senipartean, 26.919 erreale oparitan, arropatan etab., 4.200 erreale zehaztu gabeak eta 157.139-8 errealetan baloraturiko jaraunspen bat, zatirik handiena seguraski ondasun higiezinena: lurrak eta baserriak. Francisco Porcelek jarauntsitako 208.127-7 errealak zertan jaso zituen ez zen zehaztu, baina emaztea hildakoan egin zen ondasun-tasazioari esker jakin dezakegu gutxi gorabehera:

---

| Errealak |  |
|----------|--|
| 10.031-2 | ... eskudirua.   |
| 100.000  | ... bere aldeko zergak Madrilgo Bost Gremio Nagusietan, 6.999 zenbakia zuelarik. 1793ko otsailaren 9ko data. |

---

<sup>12</sup> *Ibidem*, José Domingo de Arrien eskribaua, 2982. leg.

| Errealak  |  |
|-----------|--|
| ?         | ... bere aldeko jesapen-akzio bat, 2.829 zenbakiduna; 1795eko abuztuaren 2an Errege Dekretuaren bidez sorturiko 240 milioiko jesapena osatzen zuten 24.000 akzioetako bat; akzioaren data 1795eko irailaren 2a da. |
| 262-13    | ... Francisco Antonioren dirua, Gasteizen bizi zen Matías López Marañoñek kontuaren bidez egiaztatu zuenaren arabera.  |
| 26.960-32 | ... Ribadaviako kondearen kontrako bi zentso. 1776ko ekainaren 28ko data.  |
| 408       | ... Gabriel Real de Asúak zor zizkion.   |
| 151       | ... Monte baserriko maizterrak zor zizkion.  |
| 119-14    | ... Erriberako lehenengo baserriko maizterrak zor zizkion.   |
| 30        | ... zilarrezko bi txanpon frantses.  |
| ?         | ... inprimaturik zeuden hiru zozketa-zedula.   |
| 5.033-14  | ... Alaba María Antoniak zor zizkion ematen zizkion jakiengatik.   |
| 220       | ... mahasti baten errentaren erdia.  |

Horrez gain honakoa ere bazuen: «rentas vitalicias de Andalucia que no se ponen en el Imbentario por no haver llegado la cuenta», baita Ribadaviako kondearen estatuen kontrako zentsoen korrituak —Valladoliden kobratzen zirenak—, liburuak, arropa etab. ere. Bere ondasunak 173.159-7 errealetan kalkulatzen ziren guztira; gehienak Bost Gremioetan egindako zentso eta inbertsioek osatzen zituzten<sup>13</sup>.

Errenta eta zentsoen nahasketa hau sarritan izaten zen noblezia txikian. Francisco José de Salas Monasteriok, Mexikon jaio eta kapitaina zenak, Bizkaiko eta Madrileko ondasunez osaturiko maiorazkoa jarauntsi zuen:

|   | Kapitala  | Errenta  |
|---|-----------|----------|
| <i>Bizkaian:</i>                                    |           |          |
| Molinar etxea Karrantzan.....                       | 1.728.490 | 800      |
| Etxea Balmasedan .....                              | 50.000    | 600      |
| Zentsoa %2,5ean .....                               | 4.000     | 100      |
| Zentsoa %3an .....                                  | 20.000    | 600      |
| <i>Madrilen:</i>                                    |           |          |
| Madrilgo hiribilduaren kontrako efektua 2,5ean .... | 49.500    | 1.237-16 |
| Madrilgo hiribilduaren kontrako efektua 2,5ean .... | 50.000    | 1.250    |
| Madrilgo hiribilduaren kontrako efektua 2,5ean .... | 25.000    | 625      |
| Etxe baten gaineko zentsoa %3an.....                | 17.635    | 529      |
| Etxe baten gaineko zentsoa %3an.....                | 60.800    | 1.824    |
|   | 2.005.425 | 7.565-16 |

<sup>13</sup> *Ibidem*, José Domingo de Arrien eskribaua. Bilbo, 1796. urtea, 2982. leg.

Gure kaparearen egoera nahiko larria zen 1801ean. Bere ondasun higiezi-  
nen errentagarritasuna oso txikia zen, bere ustez, onibarrak «kanpoko pertso-  
nek gobernatzen dituztelako» eta horren ondorioz «ez dute behar adina produ-  
zitzen». Maiorazkoa lortzeko auziak eta Frantziako gerran kapitain modura  
izandako gastuak zirela kausa, 50.000 errealeko zorrak zituen eta gero hauxe  
egin zuen: «reconvenido por sus acreedores, deseoso de satisfacerles puntual-  
mente en cuanto permitan sus facultades, no teniendo otros posibles que las  
rentas de su Mayorazgo se las cedió todas». Egoera horren aurrean ondokoa  
erabaki zuen: «poner en venta todas las fincas y demás correspondientes al  
Mayorazgo con arreglo a lo prebenido en las R<sup>es</sup> ultimas disposiciones»<sup>14</sup>.

Ondoen azterturiko kaparea Bilboko Domingo Martin de Gortazar y  
Güendica da. Manuel Basas Fernándezek miaturiko familia kapare tipiko  
bateko —dorretxea, lurrak, mendiak, baserriak eta burdinola baten zati  
bat— bigarren seme honek Calatravako abitua lortu zuen 1705ean eta Peru-  
ko Guayleseko korrejidore kargua erosi zuen bost urterako, urte berean «es-  
kura eman zituen zilarrezko 2.000 peso edo ezkuturen» truke. Burokrata ho-  
nek, beraz, lurrek eta burdinak familiari emandako diru-sarrerrei esker,  
hezkuntza zaindua jaso zuen, abitu bat lortu ahal izan zuen eta diru-kopuru  
garrantzizko baten truke kargu ofizial bat erosi ahal izan zuen. Indietan En-  
karterrietako familia bateko emakume batekin ezkondu zen eta 44.952 peso  
jarri zituen emaztegaiak ezkontsarian. Kaparearen arabera, urte horretan,  
1713an, Perura «landutako urrezko eta zilarrezko bitxietan 500 dukat zitue-  
la» heldu eta handik 7 urtera 85.000 peso zituen guztira. 1721ean Espainia-  
ra itzuli eta Bizkaiko diputatu nagusia izatera heldu zen. 1725etik 1736ra  
bere ondasunetan izandako inbertsioa beste hainbat indianok egin zutenaren  
parekoa izan zen: familiaren eredia errepikatzen saiatu zen.

|                                 | Errealak  |           | Portzentaia |         |         |         |        |         |       |
|---------------------------------|---|-----------|-------------|---------|---------|---------|--------|---------|-------|
| Baserriak .....                 | <table style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr><td style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black;">32.680</td></tr> <tr><td style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black;">58.865</td></tr> <tr><td style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black;">67.666</td></tr> <tr><td style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black;">39.377</td></tr> <tr><td style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black;">39.770</td></tr> <tr><td style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black;">36.903</td></tr> </table> | 32.680    | 58.865      | 67.666  | 39.377  | 39.770  | 36.903 | 275.261 | 14,56 |
| 32.680                          |   |           |             |         |         |         |        |         |       |
| 58.865                          |   |           |             |         |         |         |        |         |       |
| 67.666                          |   |           |             |         |         |         |        |         |       |
| 39.377                          |   |           |             |         |         |         |        |         |       |
| 39.770                          |   |           |             |         |         |         |        |         |       |
| 36.903                          |   |           |             |         |         |         |        |         |       |
| Etxeak edo orubeak Bilbon ..... | <table style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr><td style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black;">107.478</td></tr> <tr><td style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black;">76.525</td></tr> <tr><td style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black;">157.516</td></tr> <tr><td style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black;">459.466</td></tr> </table>  | 107.478   | 76.525      | 157.516 | 459.466 | 800.985 | 42,38  |         |       |
| 107.478                         |   |           |             |         |         |         |        |         |       |
| 76.525                          |   |           |             |         |         |         |        |         |       |
| 157.516                         |   |           |             |         |         |         |        |         |       |
| 459.466                         |   |           |             |         |         |         |        |         |       |
| Burdinola eta errota.....       | 644.026   | 644.026   | 34,08       |         |         |         |        |         |       |
| Lurrak eta mendiak .....        | 169.745   | 169.745   | 8,98        |         |         |         |        |         |       |
| <i>Guztira</i> .....            |   | 1.890.017 | 100         |         |         |         |        |         |       |

<sup>14</sup> AHN, Consejos, 2041 (4).

Funtsean, bere ondasunak honela zeuden osatuta: baserriak eta bertako onibarrak (%14,56), burdinola eta bertako errota (%34,08), etxeak Bilbon (%42,38) eta mendiak (%8,98).

Honakoak ziren datu hauen arabera Gortázarrek jasotako errentak:

|                             | Errealak | %     |
|-----------------------------|----------|-------|
| Hirietako onibarrak.....    | 15.687   | 51,98 |
| Baserrietako onibarrak..... | 3.995    | 13,24 |
| Bediako burdinola.....      | 6.000    | 19,88 |
| Landare-ikatzak.....        | 4.500    | 14,90 |
|                             | 30.182   | 100   |

Zatirik handiena, erdia baino gehiago, hirietako onibarren errentak ziren. Gure kapareak etorkizun handiko sektore batean jarri zituen bere ondasun gehienak, Manuel Basasek aditzera eman zuen bezala<sup>15</sup>.

Euskal Herriko kapareen errenten egiturak hauen jarrera eta interes asko ulertzen lagutzen digu. Ez da harritzekoa Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen arduren gunea nekazaritza eta burdingintza izatea. Adiskideen Elkartearen oinarria, haiek beraiek azaldu zuten bezala, «hiru Probintzietako Nobleziaren zatirik handienak»<sup>16</sup> osatzen zuen, baina errentetatik bizi ezin zen noblezia zen. Inbertsioak kalkulatu eta banatzen zituen, eta burdingintzan esku hartzen zuen. Ondasun labur samarrak izateak zelatan egon beharreko administratzaile izatera behartu zituen. Elkarreak ematea pentsatzen zituen lehenengo sariak bi oroitza-txosteni buruzkoak izango ziren: bata «Qual de las tres especies de Fuelles, o Barquines de Ferrerías conocidas hasta aquí es la mejor?», eta bestea «el modo mas varato y económico de trillar el trigo»<sup>17</sup>.

XVIII. mendeko hazkundeak modu desberdinetan eragin zien. Etekinak eman zizkien bai hirietako eta lurretako errentak gora egiteak bai eta gariaren —errenta asko espezie honetan kobratzen baitzuten— eta ikatzaren prezioa handitzeak ere. Arlo horietatik ateratako diru-sarrerak prezioen gorakadekin batera ibili ziren eta batzuetan prezio horiek ere gainditu egin zituzten, eta seguraski nekazaritza-produktuak / industria-produktuak elkartruke-erlazioan ere irabazi egin zuten, batez ere inportaturiko ehun eta kolonia-produktuei zegokienez. Euren bizimodua oso luxuzkoa izan ez bazen, mendeko irabazleen multzoan sartu ziren. Baina dagoeneko ikusi dugunez, diru-sarrera guztiak ez zituzten nekazaritzatik edo basogintzatik jasotzen. Zor publikoan edo pribatuan %2,5 edo 3an inbertitu zutenek

<sup>15</sup> Basas, Manuel «Vida y Fortuna de los Gortázar, caballeros ilustrados de Bilbao en el siglo XVIII». *Anuario de Historia económica y social*, 1. zenbakia, 424. or. eta hurr.

<sup>16</sup> *Ensayo...*, hasierako orrialde zenbatugabeak.

<sup>17</sup> *Ibidem*.



errenta segurua zuten, baina atzeragarria, batik bat mendearen bigarren erdialdetik aurrera eta are gehiago azken aldiko inflazioarekin. Horrez gain, Francisco Jose de Salas-i gertatu zitzaion bezala, konponketak eginez eta beste lur-sail batzuk luberrituz euren onibarrak aberastu ez zituztenek, berehala porrot egin eta beren ondasunak galdu egin zituzten.

Zentsoak zituztenen egoera ekonomikoak txarrera egin zuen XVIII. mendean zehar. Ez da gauza bera zentsotan 1.000 dukatek %3an ematen duten interesetik bizitzea edo balio eta etekin bereko ondasun higiezinak emandako errentatik bizitzea. Korrituaren erosahalmena, 30 dukat, desberdina zen 1723-1730 aldera —gariak anega bakoitzeko 640 marabedi balio zuenean— eta 1774-1783 aldera —948 marabedi balio zuenean, eta are gehiago beranduago—. Antzerakoa gertatu zitzaion kapitalari. Aitzitik, nekazaritzan inbertituriko 1.000 dukaten balioa aldaezin ez mantentzeaz gain, handitu ere egin zen, behintzat prezioak adina, eta lurraren errenta 1.000 dukatekoa baino handiagoa izan zen zalantzarik gabe. Ez gara egoera teorikoez ari. Benetako errealitate desatsegina izan zen mende bukaeran zentsoak eta juroak zituztenentzat, batez ere zorretan zeuden nekazarien lurra lortzeko erabili ez bazituzten. Hurrengo atalekoa bada ere, Biasteriko Eliza batuen kabildoak eta benefiziodunek 1783an emandako testigantzak berretsi egiten du gure azterketa teorikoa, zenbait ñabarduraz osatuz —1705eko otsailaren 12ko Errege Pragmatika, esaterako—. Honakoa jazotzen zen eliza horietan: «se hallan fundados muchos y diferentes aniversarios cantados y rezados... los mas de ellos por la limosna de once a doce [rs] y otros de a quince, y el que mas diez y seis rs. vellon, y en las citadas Yglesias se hallan tambien fundadas otras muchas misas cantadas con ministros y sin estos... y por cada una de las primeras tan solamente se paga la limosna de once a doce rs. algunas trece, diez y seis, y tal cual quince rs., una en cada Iglesia a veinte y dos rs... siendo de notar el que mas de dhas fundaciones son muy antiguas y de los siglos pasados y principios de este, que muchas de ellas se fundaron sobre capitales censales que hasta la real Pragmática de doce de febrero del año de mil setecientos cinco en que los réditos se bajaron y redujeron a tres por ciento redituaban a cinco cual todo mas por menor resulta de los respectivos testimonios que con la solemnidad necesaria presento y juro y, muchas de dichas fundaciones que solamente constan de las tablas a razon que hay en dichas Iglesias se hicieron sobre capitales censales... De todo lo cual se deja claramente conocer ya la rebaja y notable disminucion que han padecido los capitales censales en sus réditos y por lo mismo haber decaido muy mucho las limosnas de dichas fundaciones especialmente anteriores a dicha real pragmática del año de mil setecientos y cinco que aun cuando de esta disminución y rebaja se prescindiese era muy tenue e improporcionada la limosna de dichas misas y aniversarios asignadas en dichas fundaciones sucediendo lo mismo con las de las fundaciones hechas despues de dicha pragmática atendidos el presentaneo estado de las cosas, el subido precio de todo lo necesario para la vida humana que por la injuria de los tiempos y su mutación

han subido a un excesivo precio y se necesita mas que doble para la decente manutención y demas necesidades de las personas eccas... y hacen estas circunstancias y cada una de ellas desproporcionada la carga del cumplimiento de dichas fundaciones con la limosna y estipendio tan tenue como el que tienen asignadas, e influyen a la reducción de dichas cargas a una justa prudente equidad...»<sup>18</sup>.

Burdingintzaren egoera zailaren erruz, kolonien galerarekin batera, diru-sarrerak murriztuko zaizkie horietako batzuei, baina klase horretakoei oro har, Independentziako Gerra bukatu eta handik urte gutxira nekazaritzan izandako prezioen beherakadak eragingo die krisia. Beharrezkoa da, eta ez du inork zalantzan jartzen, monografia gehiago eta zehatzagoak egitea, baina Euskal Herriko behe-nobleziaren alderdi batek gerraren alde eta liberalen aurkako jarrera izatearen gakoak honako hauetan dautza: diru-sararren egiturari, XVIII. mendearen bukaerako inflazioari, Independentziako Gerraren hondamendietan eta geroako beharaldian.

## Kleroa

Klero erregeladuna eta klero sekularra, eta honen barruan erretoreak eta benefiziodunak. Ideologiari dagokionez, kleroak osatzen zuen taldeak normalean nekazari-nobleekin bat egiteak ez du esan nahi talde hori homogeneoa zenik. Hasteko, beren diru-sararren jatorria desberdina zen.

Klero erregeladuna lekaide edo lekaiemeen komentu txikiek osatzen zuten eta bertako errenten egitura ez zen beti bera izaten. 1801ean, Lekeitioko domingotarren diru-sarrerak bost partidatik jasotzen zituzten batik bat: a) jatorri feudaleko zergen hondarrak, adibidez, *lanzas mareantes* izenekoak eta burdinoletarako eta errotetarako ur-zergak; b) juroak, batez ere XVI. eta XVII. mendeetakoak; c) emariak; d) etxe, mahasti eta lurren errentak; e) hipoteka-zentsoak.

Lehenengo hirurek %11,56 baino ez zuten hartzen; zentso-korrituek eta lurren errentek gainerakoa hartzen zuten ia erdibana<sup>19</sup>:

| Diru-sarrerak errealetan |          | %     |
|--------------------------|----------|-------|
| a)                       | 483-28   | 4,66  |
| b)                       | 534-8    | 5,16  |
| c)                       | 181      | 1,74  |
| d)                       | 4.695-17 | 45,30 |
| e)                       | 4.471-19 | 43,14 |
| 10.366-19                |          | 100   |

<sup>18</sup> Biasteriko Parrokiako Artxiboa, lehenengo errej., 22. zkia.

<sup>19</sup> Lekeitioko Udal Artxiboa. Lekeitioko Santo Domingo Komentuaren funts-ondasunen liburua.

Mutrikuko Santa Katalina komentuak, San Agustinen ordenakoa zenak, ondoko diru-sarrerak zituen 1779an: 11.617-11 erreal zentso eta juroen korritutan eta 8.542-2 erreal etxe, baserri eta alorren errentatan; guztira, 20.159-13; euren gastuak 17.723 errealekoak izaten ziren<sup>20</sup>. Alegiako Santa Klara komentuak 1771 eta 1775 bitartean 9.771 erreal jasotzen zituen zentsoen urteroko korritutan eta 250 anega gari (5.500 erreal inguru) etxe, baratze eta alorren errentatan. Aguraingo ordena bereko monasterioak 6.784 erreal jasotzen zituen urtero zentsoen 22.320 dukateko korritutan eta 150 anega gari (3.300 erreal inguru) hamar etxe eta alorren errentan.

Hauxe zen zistertar ordenakoa zen Arabako Barriako monasterioaren ondarea<sup>21</sup>:

|  | Errealak  | %     |
|--|-----------|-------|
| Errentak gari-aletan .....             | 14.000-17 | 83,20 |
| Errentak garagar-aletan .....          |           |       |
| Juroa garitan: 170 anega .....         |           |       |
| Dirutan kobratzen diren errentak . . . | 165       | 5,52  |
| Etheen errenta .....                   | 165       |       |
| Mutrikuko errenta .....                | 600       |       |
| Zentsoetako korrituak .....            | 1.379-14  | 10,09 |
| Juroetako korrituak .....              | 318-6     |       |
| Argizaria eta larruak .....            | 200       | 1,19  |
| <i>Guztira</i> .....                   |           | 100   |

Ez da beharrezkoa berriz azpimarratzea. Aipatu ditugun Lekeitio, Mutriku, Alegia eta Aguraingo monasterioen diru-sarreraren %55 eta 66 bitartekoa atzeragarria zen XVIII. mendean. Barriakoa bakarrik izan zen salbuespen bikaina.

Klero sekularraren barruan, desberdintasunak sakonagoak ziren. Dagoeneko ikusita dugu hamarrenen erdia gutxi gorabehera ez zuela Elizak jasotzen. Eta hamarrena kabildoen oinarrizko diru-sarrera zen. Hamarrena jasotzen zutenei prezioen gorakadak ez zien batere kalterik egin eta horrez gain, nahikoa irabazi atera zituzten, espekulatuz ere bai. Ziortzako kalonjeek, ugariak diren adibideetako bat aipatzearren, honakoak jasotzen zituzten: elizate horretako hamarrena eta hasikina, zenbait etxetako zergak garitan, lau maizterren errenta, zezinarako bi idi eta bi ahari, mendi batzuetako produktuak etab...<sup>22</sup>. Baina Ziortzako kalonjeak klero seku-

<sup>20</sup> AKK, Subsidio, 1779. urtea, Mutrikun.

<sup>21</sup> *Ibidem*, Egirazko Artzapez-barrutiko Subsidioan dauden paper solteak, 1771... (15).

<sup>22</sup> Ziortzako Parrokiako Artxiboa, Ziortzako kapitulu-mahaiko liburua, 1807an hasia, 340. or.

larraren zati bat baino ez ziren. Dimako presbitero erretore zen Santiago Zamakolak hauxe idatzi zion Tomás Lópezi 1795eko urtarrilaren 24an: «Hay mucha abundancia de Beneficiados y capellanes en cada pueblo de Vizcaya pero demasiada escasez de Párrocos dotados con una competente renta Ecc<sup>ca</sup>; porque los beneficiados son los que regularmente llevan la renta principal, dexando para el párroco una renta mui tenue y por lo mismo nadie quiere aceptar el ministerio pastoral»<sup>23</sup>. Santiagoren senide zen Joan Antonio Zamakolak gai bera azpimarratu zuen XIX. mendean hasieran: «Los beneficiados de Bizcaya están muy poco dotados y sufren hartos trabajos, porque los patronos se utilizan de la mayor parte de las rentas del diezmo. Por eso son perdonables los abusos que se han introducido en las iglesias a título de religión para arrancar las limosnas a los fieles, a fin de mantenerse con la decencia que les corresponde»<sup>24</sup>.

Gertakari hauek begi-bistako errealitatea ziren XVIII. mendean. 1761ean, Ermuan honela erantzun zuten benefiziadunek eskusatua ordaintzerakoan: «que su renta no alcanza para la congrua sustentación de los ministros»; Mañarian: «de suerte que el importe de las cargas beneficiales ... excede al valor de los frutos decimales»; Busturi-Axpeko elizgizonek euren etxetako lurra landu egiten zituzten mahaikideen eta jornalarien bitartez, «irabazi hauek oso txikiak ziren-eta»; Ipiñan: «los frutos y rentas de dicho beneficio se reducen a 45 ducados de Vn que rinden anualmente 1.500 ducados de capital impuestos al 3 % sobre diferentes hipotecas»; Durangon: «sino fuera por las limosnas que ofrece el Pueblo y las que han remitido muchos hijos de esta villa que han hecho fortuna en Indias, no tuvieran el preciso adorno para las funciones»<sup>25</sup>.

Joan Antonio Zamakolak azaldu eta frogatu zuen bezala, kleroak hain kongrua urria jasotzean, nekazariak ordainarazpen osagarri batzuk egitera behartzen zituen. Bolibar eta Ziortzako benefiziadunen arteko auzi batean, honakoa erantzun zuen lekuko batek, eliztarrek jaietan ogia debotzioagatik edo beharturik eskaintzen zuten galdetu ziotenean: «que consideraba obligatorio en los Parroquianos la continuación en la ofrenda de pan», eta beste batek hauxe esan zuen: «que a los dueños de las casas se les precisa hacer ofrenda en los días festivos, lo que pactan en las Escrituras de arriendos»<sup>26</sup>.

Hala, bada, hamarrenen inorenganatzeak kleroa pobretzen bazuen, nekazarien baldintza materialetara gerturatuz zihoazen, eta pentsatzekoa zen

<sup>23</sup> López, T., BN, 7311. eskbu, Diman.

<sup>24</sup> Zamácola, J. A. de, *Historia de las naciones bascas*. Bilbo, 1898; lehenengo argitaraldia Auch, 1818, 366. or.

<sup>25</sup> KKA, 1661ean sailkatutako eskusatua, data zuzena 1761 bada ere, herri bakoitzean.

<sup>26</sup> Ziortzako Parrokiako Artxiboa, Hamarren eta zergen kitapena, 1741. urtea, 13. or. atz.

nekazariak begi onez ikusten zutela; dena dela, kleroaren egoera ekonomiko kaskarrak berak ziren nekazariak ordainarazpen berriak egitera behar-tzearen arrazoiak.

Hamarrenak inorenganatzeak eta patronatu batzuk laikoen esku ego-teak ideologiari zegozkion beste ondorio batzuk ere bazituen. Jende gore-naren familietako bigarren seme batzuk elizari atxiki zitzaizkion familiak zituen onuretako bat lortzeko asmoz. Sarritan kleroaren eta jauntxoan ar-teko lotura senitartekoa izaten zen. Ondokoa esan zuten goian aipatutako auzian: «preguntado este testigo por el propio SS<sup>no</sup> si sabía que en el Se-ñorío de Vizcaya, y en especial en la Puebla de Bolibar y Aulestia eran patronos de sus parroquianos personas poderosas y en ellas eran Benefi-ciados hijos y parientes de estas... respondió [que] tenía algunos de los Patronos por poderosos respeto de ser Grandes de España de primera cla-se, a otros por ricos, por poseer grandes mayorazgos y a otros por de me-dianas conveniencias; y que aunque algunos tienen parientes beneficiados no dejarían por eso de pedirles mayor congrua si se les debiese legítima-mente»<sup>27</sup>.

Herri eta hirietan, kleroa erlijiozko gaiez ez ezik, batzuetan eta batik bat etika eta ohitura onez ere arduratzen zen. Bere gain hartzen zuen pulpitutik errege-aginduak eta pragmatikak irakurtzea. Jarduera hauek XVIII. mendean zehar era monotonoan egin baziren, mende horren bukaeran Elizak morali-zatzeko zuen jarrera areagotu egin zen nonbait. Gero eta kontrakoago zuen giroaren aurrean izandako erreakzioa ote? Zaila da erantzuten herriei dago-kienez, baina oso bistakoa da hirietan.

Herrietan XVIII. mendearen azkeneko hamarkadan gero eta sarriago egin zituzten jaia gorde beharreko egunetan lan egitearen eta elizkizu-netara ez joatearen aurkako ohartarazpenak: «Y porq. en los días festi-bos como dedicados a Dios nuestro Señor no se puede trabajar y estar SSI informado de que se quebranta tan saludable preceptto se deja de santificar la fiesta y de asistir a la parroquia a las funciones que se cele-bran en ella, y a la explicación del Ebangelio enttregandose algunos fe-ligreses a portear leña y a cargar carretas y conducir efectos...»<sup>28</sup>. Zior-tzan, 1793an, honakoa adierazteko esan zitzaaien apaizei: «que avisen frecuentemente en sus sermones y pláticas la estrecha obligación que tienen todos los fieles de santificar las fiestas y abstenerse de todo tra-bajo servil en ellas y que celen sobre que asi se cumpla multando a los contraventores en la cantidad que les pareciese conveniente, valiéndose para su exacción de la Justicia secular... haciéndose cargo de que su Divi-na Magestad castiga el quebrantamiento de la santificación de fiestas con carestías y necesidades enviandolas sobre los pueblos en que se toleran

---

<sup>27</sup> *Ibidem*, Hamarren eta zergen kitapena, 15. or.

<sup>28</sup> Deustuko San Pedroko fabrika-liburua, 1791ko bisita.

semejantes excesos»<sup>29</sup>. Kristautasunetik aldentzearen edo behintzat axo-  
lagabe agertzearen seinale ote? Zalantzarik gabe, burgesia merkataritza-  
guneetan Elizaren irakaskuntzatik urrundu egin zen, erlijio-kontue-  
tan ez bazen ere, moral-kontuetan bai behintzat. Zamakolak ondokoa  
jaso zuen: «los curas y frailes tenían hace pocos años demasiado ascen-  
diente sobre los bilbainos y dirigían las operaciones de éstos de tal ma-  
nera, que apenas se celebraba una función ni una diversión de desahogo  
de las gentes, sin que se consultase a estos eclesiásticos el modo con  
que habían de ejecutarse; pero hoy [1818] no necesitan los bilbainos  
más que de sus propias luces y talentos para gobernarse con acierto»<sup>30</sup>.  
1790ean, Bilbon komediak antzetzearen kontra egindako sermoi gogor  
bat zela-eta, Udalak erantzun are gogorragoa bota zuen. Honela azaldu  
zuten: «[el sermón] causó en el Auditorio, que fue mucho concurso, y se  
componía de toda clase de gentes, un gran terror, y muchos escrúpulos  
en los tímidos, y menos instruidos, y escandalo en los que como mas  
advertidos alcanzan à distinguir lo bueno, y lo malo y no ignoran, que a  
dhos Predicadores hà animado para sus declaraciones un zelo indiscreto,  
y el conocimiento, que tienen de su dominación en la mayor parte de los  
vecinos de éste Pueblo, y con mas especialidad en el sexo femenino...».  
Sermoilariak, berriz, hauxe idatzi zion Kontseiluko gobernadore zen  
Campomanes kondeari, bere burua zurituz: «Sin duda se dio por offendi-  
do el Magistrado de que hablase de las comedias como ilícitas; de lo que  
resultó, que informandole sinistramente algunos individuos de Ayunta-  
miento al Señor Cavallero Corregidor de que yo huviese propasado los  
limites de mi Evangelico ministerio, pasó a proveer auto contra mi, en  
que mandaba al Alcalde y Juez Ordinario de esta Villa, hiciese informa-  
ción con quatro Regidores y Sindico Procurador sobre el hecho con el  
fin de remitir al Consejo lo que resultase»<sup>31</sup>. Apaizaren aurkako proze-  
suari hasiera ematen saiatu izana, zenbait eremutan nagusi zen pentsae-  
raren adierazgarri da.

Ekonomiari zegokionez, XVIII. mendea, oro har, ona izan zen Eliza-  
rentzat, hein handian zor publiko eta pribatuaren tituluetatik lortutako  
diru-sarrerak zituzten komentu txiki eta ugariantzat izan ezik. Oparota-  
sun horrek, ordea, kalte egin bide zion ideologikoki. Baina Argien Men-  
deko kleroa ez da mende bukaerako eta XIX.aren hasierako kleroa. Kon-  
bentzio eta Independentziako Gerrek oso eragin gogorra izan zuten  
Elizaren oinarri materialean behintzat. Nafarroako kleroak, frantsesen lehe-  
nengo inbasioaren aurrean, «opariak dohainik» eman zituen eta honakoa  
ere eman zuen: «la plata de las Iglesias... de un modo que puede formar

<sup>29</sup> Ziortzako fabrika-liburua, 1602an hasia, 327. or.

<sup>30</sup> Zamácola, J. A. de, *op. cit.*, 469. or.

<sup>31</sup> AHN, Consejos, 2216. leg., 8. zkia.

época en los anales de la religión», «sin contar un notable número de eclesiásticos seculares y regulares, y otros de fuero privilegiado, que quisieron tener parte en una empresa de tanto honor», frantsesei aurka egitea, alegia<sup>32</sup>. 1794ko abuztuaren 1eko Gipuzkoaren inbasioa Inpedentziako Gerra izango zenaren aurrerapen txiki bat izan zen: armadek eragindako hondamena, hainbat zerga, jazarpenak, kleroaren militantzia... Ondoko azalpenak klero sekularrak jasandako kalte guztiak aipatzen ditu; zalantzarik gabe, exajeratu egiten dute, beste zerga bat ordaintzetik ihes egin nahi baitute; dena dela, oso garbi islatzen du kleroak gertakarien aurrean zuen ikuspegia: «Ya desde que empezaron à concurrir tropas de V. M. à Guipúzcoa, y mucho mas despues que empezó la guerra ultima con los franceses, empezó à sentir el estado Eclesiastico del Arciprestazgo maior notables perjuicios, que sufrió gustosos porque cedian en beneficio publico, y servicio a V. M.: ya desde entonces fueron ocupados para quarteles hospitales y almacenes muchos de sus edificios, hermitas, combentos y caserios inutilizándose y destruiendose todas o la maior parte de sus obras interiores, según lo exigiese la calidad del destino que se les daba ya muchos de los campos contiguos, y cercanos a los cuarteles, hospitales y almacenes dejaron de ser, como eran, heredades fructíferas de que las iglesias percibían diezmo y primicia cuando menos, reducidas después a plazas y corrales por el continuo pisoteo de los soldados y por el incesante tránsito de carros y acémilas; ya entonces ocuparon una considerable porción de tierra de labor nuevos caminos, y las fortificaciones de campaña no sin perjuicio notable del clero y sus rentas...»

Frantsesek 1794ko abuztuaren 1ean Gipuzkoa indarrez hartu zutenean, honakoa egin behar izan zuen kleroak: «... tuvieron que salir de sus casas y pueblos con tanto atropellamiento y precipitación que hubo de ellos quienes echaron a correr medio desnudos, unos sin sombrero, otros sin capa, capote, ni manteo, y todos los más sin más dinero que el que llevaban en el bolsillo al tiempo de saber la entrada de los enemigos en el país: las comunidades de religiosas despavoridas, asustadas y a quienes el mismo espanto y sobresalto embargaba el desahogo natural de las lágrimas tan propio de la ocasión y de su sexo salieron en la mayor confusión de sus conventos y sin excepción de las enfermas y de las más ancianas buscaron todas su salud por montes, por selvas, por caminos los más quebrados y ásperos, todas a pie sin prevención alguna de viveres y abandonadas a la caridad y hospitalidad de bienhechores piadosos que con la común fuga hechan de menos no pocas veces. Con los religiosos sucedió lo mismo; y en una palabra Señor, el estado Eclesiástico secular y Regular de ambos sexos del Arciprestazgo mayor abandonó y perdió todos sus bienes

---

<sup>32</sup> *Cuadernos de las leyes y agravios...* Iruñea, 1797, 329. or.

y los de sus iglesias... Las iglesias fueron por la mayor parte saqueadas, profanadas, violadas; las alhajas de plata, los vasos y ornamentos sagrados y todos los efectos de algún valor robados; los mismos templos materiales destruidos en mucha parte... los retablos y los altares destinados al fuego de los cuarteles enemigos: las casas de los eclesiásticos de ambos estados entregadas al pillage, sus muebles, sus ropas, sus libros, sus granos, sus ganados, cuanto tenían todo fue presa de la rapacidad insaciable del soldado francés: las rentas decimales y primiciales, los réditos de censos, los depósitos y cajas de caudales propios y no propios de los eclesiásticos pero que paraban en manos de estos, sus bienes y rentas patrimoniales, y hasta sus acciones y dros todo fue confiscado y embargado por los enemigos; y en fin cuanto puede dictar la codicia y el odio en el más alto grado contra la religión y sus ministros tanto fue ejecutado con la mayor impiedad por los enemigos».

«... y es que habiendo vuelto los párrocos y algunos otros eclesiásticos a sus iglesias pasado el primer sobresalto, movidos del celo de las almas de sus feligreses principalmente y fiados también en las lisongeras promesas del libre y público ejercicio de nra sagrada religión y de la seguridad de las personas y propiedades que publicaban los enemigos en sus proclamas, fueron repentinamente presos y arrebatados a la ciudadela de Bayona con el mayor ignominio y rigor hechos el juguete y la irrisión del sacrilego e irreligioso soldado y de un inmenso populacho que salía a verlos en su tránsito por los pueblos de Francia situados entre aquella ciudad y la Frontera de España...»

«... El representante del pueblo Francés, que expidió la orden del arresto, la expresa atribuyendo à los Eclesiasticos el alboroto cierto ò supuesto de la ciudad de San Sebastian, y otros pueblos de esta Provincia contra los Franceses à principios de Septiembre de 1794, y à que los mismos inspiraban à los Paisanos la aversión y el orror à las maximas de los Franceses, y se empeñaban en fortificar en sus corazones las de la Verdadera Religion y fidelidad y amor à V. M., y al antiguo gobierno. Mientras los eclesiasticos estuvieron cruelmente oprimidos y como gustando las angustias de una muerte violenta en publico cadalso en Baiona, se acaba de consumir la empezada obra del saqueo y pillaje de sus propiedades, efectos, muebles, acciones, y otros, y de quanto se avia podido reservar de la rapiña enemiga à las Casas de Dios hasta entonces; de suerte que vueltos despues de quarenta y mas dias à sus Casas y à sus pueblos y hallando aquellas y las Iglesias saqueadas, maltratadas, y ocupadas por los enemigos, y prohibida la Administración de los Sacramentos y el culto divino, ò se hubieron de huir en la primera ocasión favorable à territorio hasta entonces no ocupado por los enemigos, o hubieron de esconderse en lo mas espeso de los bosques vecinos, y profundas cuevas, de donde el celo de las almas de los feligreses enfermos los sacaba entre mil peligros. El pueblo de Guipúzcoa felizmente el mas



constante en las maximas de la verdadera religión afligido hasta el extremo à vista de tan impías novedades, decaído de ánimo y absorto parecia tener embargadas todas sus facultades naturales de alma y cuerpo, è intimamente persuadido del ningun remedio à tantos males, contrajo una apatia, que ni le permitía atender el cultivo de los campos, ni al trabajo de sus talleres, ni aun casi al sustento propio: la palidez de los rostros, y la languidez de sus acciones naturales manifestaba la inercia general de sus facultades: asi es que principalmente por esta causa y tambien por que los enemigos los empleaban por fuerza en conducciones de viveres, de municiones, de enfermos, y de otros varios trabajos, que ò no les pagaban, ò lo hacian en moneda de papel embilecido enteramente por falta de estimación, la siembra y demas faenas del campo se hicieron de un modo, que no pudiese hacer concebir esperanzas si no de mui corta cosecha en el inmediato año de 95: las mismas causas y las considerables perdidas que generalmente se experimentaron por todas las clases de ciudadanos, atrasaron à los Censualistas, à los inquilinos, y a los deudores para la paga de los réditos, renta y deudas en el siguiente e inmediatos años; por manera que sobre las incalculadas perdidas que padecieron las Iglesias, y el Estado Eclesiastico, en el año 1794, fueron tambien muy Considerables las que tubieron en el de 95: continuaran todavía en los sucesivos...»

«... y sin contar con lo que ha padecido el estado Eclesiastico Regular, resulta que solo las Iglesias, y estado Eclesiastico Secular han tenido con motivo de la imbasión de los Franceses en 1794 la perdida de 5 y medio millones de reales...»<sup>33</sup>.

Eta, hala ere, beharrezkoa da berriro ere zehaztea. Hamarrenak jasotzen zituen klero sekularrentzat gerra-urteak bikainak izan ziren, eta horren arrazoia ez datza uztak onak izatean. Zergapeko kleroaren kexuen eta kontabilitatearen artean hain txikia ez den diferentzia bat dago. (Ikusi 375. eta 449. orrialdeetako koadroak).

Diruari dagokionez, mendearen lehenengo sei urteak eta 1811, 1812 eta 1813 onak izan ziren. Independentziako Gerra bukatutakoan, ale-saltzaile guztien diru-sarrerek eta, hortaz, hamarrenak eta errentak espezieetan jasotzen zituztenen sarrerek ere, behera egitea ezin zaio leporatu elizaren lurren salmentari, prezioen beherakadari baizik, Gerra Karlista aztertzean ikusiko dugun bezala. Gure ustez, nahitaezkoa da klero erregeladunaren eta sekularraren egoera bereiztea, batez ere beren diru-sarreraren egitura desberdinaren arabera<sup>34</sup>.

---

<sup>33</sup> KKA, Excusado 1796, zati soltea.

<sup>34</sup> Katalunia eta Mallorcako komentuen arazo ekonomikoak eta horien ondorio ideologikoak aztertzeko, ikusi Fontana, J., *La quiebra de la monarquía absoluta, 1814-1820*. Bartzelona, 1971, 145-198. orr.

**Deustuko San Pedro elizako fabrikak jasotako hamarrenak**  
(Indizeak 1800. urteko balioekiko (=100) adierazita daude)

|            | Artoa |                | Garia + artoa + txakolina |                |
|------------|-------|----------------|---------------------------|----------------|
|            | Uzta  | Balioa erreal. | Indizea                   | Balioa erreal. |
| 1800 ..... | 100   | 100            | 100                       | 9.538          |
| 1801 ..... | 150   | 160            | 126                       | 12.050         |
| 1802 ..... | 137   | 146            | 110                       | 10.508         |
| 1803 ..... | 75    | 101            | 100                       | 9.561          |
| 1804 ..... | 134   | 78             | 119                       | 11.371         |
| 1805 ..... | 138   | 96             | 110                       | 10.567         |
| 1806 ..... | 69    | 59             | 74                        | 7.150          |
| 1807 ..... | 91    | 72             | 74                        | 7.093          |
| 1808 ..... | 47    | 41             | 74                        | 7.136          |
| 1809 ..... | 82    | 76             | 71                        | 6.817          |
| 1810 ..... | 75    | 62             | 75                        | 7.210          |
| 1811 ..... | 113   | 150            | 122                       | 11.652         |
| 1812 ..... | 89    | 119            | 128                       | 12.214         |
| 1813 ..... | 65    | 126            | 131                       | 12.504         |
| 1814 ..... | 100   | 79             | 97                        | 9.258          |
| 1815 ..... | 97    | 81             | 72                        | 6.916          |
| 1816 ..... | 74    | 92             | 65                        | 6.282          |
| 1817 ..... | 104   | 92             | 69                        | 6.665          |
| 1818 ..... | 120   | 52             | 56                        | 5.389          |
| 1819 ..... | 83    | 37             | 56                        | 5.389          |
| 1820 ..... | 86    | 58             | 54                        | 5.245          |

**Ziortzako Ama Birjinaren Fabrikak jasotako hamarrenak**  
Balioa, gari + arto errealetan

|            |       |            |       |
|------------|-------|------------|-------|
| 1798 ..... | 8.083 | 1805 ..... | 9.095 |
| 1799 ..... | 2.436 | 1806 ..... | 5.434 |
| 1800 ..... | 4.913 | 1807 ..... | 5.669 |
| 1801 ..... | 5.291 | 1808 ..... | 6.018 |
| 1802 ..... | 8.204 | 1809 ..... | 6.321 |
| 1803 ..... | 8.210 |            |       |
| 1804 ..... | 9.192 | 1812 ..... | 9.993 |

## Nekazariak

Euskal Herriko nekazari gehienak euskaraz mintzo ziren<sup>35</sup>. Eskolaga-beak ziren gehienak eta eurei buruzko dokumentuek, gutxi izateaz gain, benetako egoera eman beharrean, kronistek zuten ikuspegia edo zabaldu nahi zutena islatzen dute. Matxinadetan agertuko dira euren aldarrikapen bortitzak, eta euren klase-kontzientzia nahastua ere bai.

Zailak dira sailkatzen nekazari-jendearen barruan dauden baldintza material desberdinak. Zalantzarik gabe, nekazari arrunta ez da Peru Abar-kan idealizaturik azaltzen dena. Benetako egoeretatik gertuago egongo gara inbentario, testamentu eta ezkontza-hitzarmenen bidez, baina esan beharra dago testamentua zerbait uzteko zuenak egiten zuela. Ondasun txikiak zituztenak ez dira ia inoiz azaltzen, notariaren aurrean zorren onarpena egitean ez bada behintzat.

Nekazarien artean, lurraren jabegoa ez da muga zorrotza, baina bai nahiko adierazgarria. Hori dela eta, lehenengo talde bat bereiz dezakegu, lantzen duten lurren jabeen taldea. Hauek ezkontza-hitzarmenetan agertzen dira batik bat. Normalean, senargaiak etxea eta onibarra jartzen zituen, eta emaztegaiak, berriz, ezkontsaria dirutan, maiz zenbait epetan ordaintzen zena. Iturriar baserriko oinordekoak —148 dukat eman behar zizkion anaia bati, 400 dukat arreba bati eta zentso bat ere, zenbatekoa zen aitortu ez bazen ere— emaztea izango zuenarengandik 1.000 dukat, erdia ezkontza egitean eta gainerakoa handik bi urtera, eta abere batzuk jaso zituen ezkontsari gisa; emaztegaiaren arreoari 300 dukateko balioa eman zioten<sup>36</sup>. Manuel de Beraza y Zarragak, bere amaren lehen ezkontzako seme zaharrena zenak, hiru etxeren erdia —bat nagusia eta beste biak honen ondoan zeudenak— jaso zuen amarengandik emarian, eta gainerakoa amak gorde zuen «bere buruaren mantenurako kongrua moduan». Eskritura horietan jaraunspenetik kanpo utzi zituen bere bigarren ezkontzako alabak, eta Manuelen anaiei eta arrebari ehuna dukat eman zizkien. Emaztegaiak 700 dukat jarri zituen honela: berrehun ostilamenduan, berrehun espezietan akta sinatzean eta gainerakoa hiru urtetan, epe berdinetan banaturik<sup>37</sup>. Loiuko Domingo de Vizcarraren eta Deustuko Maria Joaquina de Larraondoren senideek egindako ezkontza-hitzarmenean, senargaiak 28.350 errealeko balioa zuten ondasunak jarri zituen, horien artean, guztiaren tasazioari begiratuta nahiko txikia izan behar zuen baserri bat, eta emaztegaiak 1.000 dukat dirutan eta 500 ostilamenduan. Emaztegaia

---

<sup>35</sup> 1772ko abenduaren 13an, igandean, José de Iturralde idazki bat argitara eman eta azaldu zuen urte horretan egindako bisita zela-eta, eliztarrei «komentuko mezako eskaintzaren testuingurua euskaraz azaldu zielarik», Ziortzako Fabrika Liburua, 1602an hasia, 195. or.

<sup>36</sup> BPAH, 1772ko urriak 5, 2948. leg.

<sup>37</sup> *Ibidem*, 1783ko irailak 12 eta 1783ko abenduak 29, 2961. leg.

Loiuko benefiziodun baten eta «Bilboko merkataria zen Don Juan Bautista de Larraondoren» arreba zen<sup>38</sup>.

Bi kasuetan, emaztegaiak eramandako ezkontsari handiarekin alderatzen badugu, harritzekoa da gurasoen baserria jaraunsten ez zuten anai-arrebei emandako diruaren kopuru txikia. Kapital txikien metaketaren ikuspuntutik begiratuta, emaztegaiaren ezkontsariak bigarren semeei emandako diruak baino garrantzi handiagoa du, nonbait.

Familiarteko onibarra ez denez baserri kapitalista bihurtzen beste baserri batzuk bereganatuz eta soldatapeko laneskua erabiliz, kapital-metaketa oso mugatua da nekazaritzan. Horretarako gehien erabili zen bidea lantzeko eremua zabaltzea eta baserri nagusian edo honen ondokoetan maizterrak onartzea izan zen. Maizterrei errenta eskatzen zitzaizen eta, espezetan ematen bazuten, espekula zezaketen maximo ziklikoak aprobe txatuz. Nahikoa hedatua egon bide zen beste modu bat azienda-admeteria izan zen. Dagoeneko ikusita dugu negozio horrek hirietako kapital txikiak erakarri zituela. Nekazaritza-guneetako alde pribilejiatuak maiz erabili zuen modu hori. Berrero ere, aberastasun txikiak lukurreriaren bidez egin ziren. Leioako Francisca de Zesuna alargunak bere seme-alabetako bati Munsienako etxea eman zion baina honako baldintzapean: «con reserva de la mitad del usufructo». Ondasun horiez gain, guztira 7.043 erreal eta erdi emanda zituen maileguz, diru gehiena admeterian utzitako idiena zen<sup>39</sup>. Kopuru hori garrantzizkoa bazen ere, ez zen ohizkanpoko. Loiuko biztanle batek 1778an testamentua egitean honako ondasunak zituela aitortu zuen: etxean hiru mando, hiru zaldi, idi-uztarri bat eta orga bat, admeterian lau idi eta txekor bat; Somorrostroko hiru biztanlek, Sondikako batek eta Abantoko beste batek 3.740 erreal zor zizkieten «kreditu guztien jatorria azienda zelarik», halaber, bere herriko biztanle batek 23 anega artu zor zizkion, beste bik hainbat dirutako zorra zuten berarekin, zorren jatorria zehazten ez delarik, eta Erandioko batek 60 errealeko 26 dobloi, «y sin embargo de que por ellos estoy notificado al concurso que tiene formado en el ttral [tribunal] del Señor Alcalde del fuero de esta dha merindad». Honakoaren jabe ere bazela aitortu zuen: «otras cantidades de rr<sup>s</sup> en difeferentes sugettos y devo tambien algunas otras...». Hil zenean, emazteak berrero egin zuen ondasunen inbentarioa, oraingoan balioa dirutan zehaztuz. Ez da ez lurrik ez etxerik agertzen, baina horren arrazoia onibarrak oinordekoari emanda izatea izan daiteke. Dena dela, gizonak zuzenean gobernatutako lurrek ez zuten asko izan behar, jaso gabe zegoen garia hamazortzi anegatan neurtzen baitzen. Ondasunek eta kredituek 13.734 erreal balio zuten guztira, altzariak eta arropa kontuan hartu gabe. Diru-kopuru horretatik, 7.632 erreal zor zizkieten azienda-ordainketen

<sup>38</sup> *Ibidem*, 1788ko urtarrilak 21, 2961. leg.

<sup>39</sup> *Ibidem*, 1780ko maiatzak 13, 2960. leg.

ondarrak zirela eta. Emaztearen esanetan, eurek zorrak egitearen arrazoiak ondokoak ziren: alabaren ezkontza, senarraren gaixotasuna eta beronen hileta, erositakoazienda eta Bilboko dendari bati erositako zenbait «genero»<sup>40</sup>. Erandioko Juan de Llonaren kasuan badakigu ez zuela ondasun higiezinik, herri bereko Pedro Francisco de Urazandiren maizterra baitzen Rentería la Vieja etxean. Etxean zituen ondasunak honakoak ziren: bi idi, orga bat, bi txerrieme, hamahiru anega gari eta berrogei anega arto jaso gabe; abereen eta orgaren balioa 180 dukatekoa zen. Bere onibarra apala zen, izan ere, Gipuzkoako baserritar arrunt batek hogeita hamabi anega gari eta berrogeita zortzi anega arto ateratzen baitzituen eta Elorrioko hirurogei baserriren batez bestekoa Gipuzkoakoa baino handiagoa baitzen. Kolono hau ezin zen aberastu bere onibarraren soberakin urriak salduz, zeren jabeari zor zion errenta 660 errealekoa zen. Juan de Llonaazienda-tratuan, zerealen espekulazioan, garraioan eta olagizonekin tratuan aritu zen. Gutxienez 10.077 erreal zor zizkioten guztira, Leioan, Loium, Somorrostron, Barakaldon, Santurtzin, Laukarizen, Portugaleten eta Nozedalen banaturik. Emandako maileguen artean, hamabi anega arto eta hamar anega gari azpimarratuko genituzke: batzuk zein besteak 37 errealetan eman zituen, hau da, garbi dago lukurreriazko mailegua dela, batez ere artoaren kasuan. Hori guztia ez ezik, «hainbat olagizonekin ordaindu gabeko kontu batzuk» ere bazituela aitortu zuen, eta zor ziotena bere zirriborroetan zegoen jasota. Bere zor bakarrak aipatu errenta hori eta «Bilboko dendaria zen Francisca de Larrinagari hogeita hamar bat peso» ziren<sup>41</sup>.

Adibide horien bidez, baserrietako sektore abantailatua ikusi dugu. Ezin gara nekazaritza-burgesiak mintzatu. Beren ondasunak eta maniobra-ahalmena urriak ziren ale-biltzaile, hamarrenen errentari eta errotarien aldean. Baina talde dinamikoa zen, interesgarria, lurra familiartean ustiatzeko sistema batean, garrantzizko lur-jabea izan gabe, inguruko lanaren zati bat hartu eta metatu ahal dela erakusten baitu.

Sistema honek, jakina, kontrako aldea ere bazuen. Erandioko Juan de Ugarte, Chiri gaitzizenez, Ugartebeascoa etxearen jabea zen, nahiz eta etxetxo deitzea hobeto egongo litzatekeen, aitzak 5.000 errealetan erosi baitzuen. Ugartegoicoa dorretxearen erdia eta bertako ondasunak, mendiak, estrepak etab. ere berarenak ziren, Mungia eta Erandioko kabildoei zor zien berrogeita hamar dukateko pentsioa ordaindu behar zelarik. Zentso horrez gain, gutxienez 4.625 erreal zor zituen, idiak zirela-eta kopuru nabarmengarria. Berari, berriz, 846 erreal baino pixka bat gehiago zor zioten, aziendagatik ere bai<sup>42</sup>. Bilboko Manuel de Molinedoren maizter bat Louko baserri txiki batean bizi zen eta «hogeita bi dukat eta

---

<sup>40</sup> *Ibidem*, 1778ko uztailak 21, 2960. leg.

<sup>41</sup> *Ibidem*, 1780ko urriak 7, 2960. leg.

<sup>42</sup> *Ibidem*, 1779ko urriak 15, 2960. leg.

lau oiloren» errenta ordaintzen zuen, 262 errealeko baliokidea. Honako ondasunak zituen: zaldi bat, mandeme bat, bi txerrieme, bi behi, orga bat, golde batzuk, ardatz bat, eskopeta bat, hainbat lanabes (hiru pare laia, aizkora bat, sega bat, hiru aitzur, kako bat eta «ocexo» bat), bere uz-tako hainbat anega gari eta anega arto batzuk, ongarría, karea, egurra eta etxeko ostilamendua. Eskudirutan 2.040 erreale zituen eta 589-17 zor zizkioten, baina berak 3.149-8 errealeko zorra zuen, errenta barne<sup>43</sup>. Leioa-ko Clara de Zárragak ez zuen bere azienda ere. Bere altzarien eta arropen jabe izateaz gain, ferratutako orga bat, uztarri bat, golde batzuk, lantzeko ardatz bat —16 errealeko balioa zuena—, pala bat, bi aitzur eta laia bat zituen. Bera bizi zen etxearen erdian jasotako gariak hamabi anega osatzen zuen (= 336 erreale) eta hogeita hamalau gizalanetan ereindako artoak hogeita hamar anega (= 540 erreale). Bere zor handienak 4.781 errealekoak ziren, beste hainbat txikiz gain<sup>44</sup>.

### Artisauak eta arrantzaleak

Gehienetan lan-jarduera ez zegoen gremioetako oztopoei lotuta. Arrantzaleek bakarrik izan behar zuten kofradia bateko partaide arrantza-le-lanetan aritzeko. Gainerako artisauak ez zuten horrelako baldintzarik bete behar eta maisuek ikastunak zituzten euren aukeren arabera. Mutri-kun, 1802an, honako galdera honi: «Si se requieren algunas formalidades para que los maestros favricantes y artesanos admitan aprendices y si estos deben tener edad, o circunstancias de gastos mandados por ordenanza o por constumbre», ondokoa erantzun zioten: «Es arbitraria la admisión de los aprendices en la edad y tiempo en los tejidos de lienzo; en las manufacturas de hierro; en la platería, cubertería, cestería, zapatería, carpintería, calería y fabrica de ansuelos». Amugintza eta saskigintza ikasteak urtebe-te irauten zuen, mahai-tresnak egiten ikasteak hiru, zilargintzak, zurgin-tzak, hargintzak, zapatagintzak eta errementeritzak lau eta bost urte. Ez zegoen lanbideetarako azterketarik «eta diotenez, ikastunek edo ofizialek euren kasa lan egiten dute komeni bazaie». Manufakturak eta tresnak ez zitzaizkien inolako ikuskatzaileri edo mandatariri aurkeztu ere egiten<sup>45</sup>. Gremio-egiturak «Eibar, Elgoibar, Arrasate eta Ermuako herrietan zeuden Armen Errege Fabrikak» deiturikoetan bakarrik zuen nolabaiteko garrantzia. Leku horietan lau gremio zeuden<sup>46</sup>. Sistema batek zein besteak ez zuten saihesten ikastunak, ofizialak eta maisuak merkataria- ren pean egotea.

<sup>43</sup> *Ibidem*, 1781ko urriak 30, 2960. leg.

<sup>44</sup> *Ibidem*, 1779ko abuztuak 4, 2960. leg.

<sup>45</sup> HEAA, Vargas Ponce bilduma, Mutrikuren erantzuna 1802ko erroldari, XXIV. al.

<sup>46</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 59. leg.

1737an, Goierriko burdinolak, bertan olagizonen gremiorik ez zegoenez, burdina Gasteizen honako baldintzan saldu beharraz kexatzen ziren: «al precio que quieren los compradores de aquella ciudad, siendo el que dan, especialmente de tres años a esta parte, menos de lo que le cuesta al ferrón»<sup>47</sup>. Honako iritzia zuen XVIII. mendearen erdialdean predikatzen zuen Calatayud jesuitak: «pecan gravemente los Comerciantes de Bilbao, y otras partes en lo que llaman socorrer Ferrones: Ferrones llaman a los dueños de las herrerías: a estos les anticipan para hacer su hierro los diez mil, o veinte mil reales por medio año con la condición, que el quintal de hierro, que tiene 108 libras, y en la lengua del agua, o rentería a dinero fresco vale v. gr. sesenta reales, se los haian de dar tres reales mas barato por razon de anticipar la paga. Lo primero viene a corresponder la ganancia de diez por ciento al cabo de año por solo anticipar la paga. Lo segundo: reciben algunas libras mas de peso en cada quintal de lo que dan a sus corresponsales extranjeros, esto es en perjuicio de los Ferrones, ora sea por cohecho del repesador, ora por otro motivo injusto. Lo tercero: el mismo hierro, que a dinero fresco lo compran en la rentería a sesenta, y por anticipar la paga a cincuenta y siete se lo encajan a los corresponsales, cuando de por junto se lo remiten dos mil quintales a setenta reales v. g. el quintal...». Calatayuden kalkuluen arabera, hauxe irabazten zuen merkataria-riak: «en quintal lo menos diez, o doze reales y los Ferrones siempre agobiados...»<sup>48</sup>.

Antzerako kexa zuten 1735ean Soraluzeko Errege Fabriketako maisuek: «Dicen que ha llegado a su noticia que Don Juan Antonio de Azpiazu ha hecho asiento y obligación de entregar a S. M. (...) cantidad de Armas de las que se hacen en dhas Reales fábricas. Y que por cuanto ha años que se experimenta que los nuevos Asentistas y Comisionistas que llegan a hacer trabajar en dhas Fábricas han solicitado el que se les trabaje por precios menores y forma mas dificultosa que antes, y por la grave necesidad en que han hallado a los Maestros y oficiales de ellos, los han reducido a travaxar a precios y forma tales que no les es posible sacar el jornal y aun sin pagarles con la devida puntualidad». Urte berean, errege-zerbitzurako fusil, karabina eta pistolen giltzak egiten zituzten gremioko maisuek hauxe eman zuten aditzera: «se hallaron fabricados al pie de 4.000 llaves de fusiles en poder de diferentes mercaderes que las compraron a menos precio en ocasión que dhos Maestros no tenían el menor despacho de sus obras los cuales dhos mercaderes ofrecieron a dho Irumberri a razón de 12 rs. de vellón y en efecto se les entregaron a este precio en notable perjuicio de los suplicantes, pues los suso dichos dandolos a 10 rs. de vn. con todo eso ganaban respecto del corto precio que pagaron a los dhos suplicantes.

---

<sup>47</sup> *Ibidem*, bigarren sekzioa, 23. neg., 34. leg.

<sup>48</sup> P. Calatayud, *Doctrinas prácticas...*, I. libk., XV. tratatua, II. liburua, 206. or.

Y es así que dho Irunberri se ha querido atener a dho precio que compró a los referidos Mercaderes siendo corriente hasta el dicho tpo a 15<sup>1/2</sup> Rs. de vellón cada una...». Demagun merkatariek 4.000 fusil-giltzak 10 errealetan erosi zituztela, nahiz eta azalpenaren arabera prezio hori baino txikiagoa eman zuten. Merkatariek maisuen eta Irunberriko errege-mandatarien artean bitartekari-lanak egiteagatik, eta ziur aski artisauei dirua aurrera-tzeagatik, gutxienez %20ko irabazia lortu zuten.

Arazo hori gertatuz geroztik, kapitulazio bat egin zuten honakoa adierazten zuena: «[que los asentistas no sujetasen] a trabajar a jornal a los maestros y oficiales que por tales estan asentados y matriculados en los libros de la Real Fábrica» eta ikatzez, kanoi-gurdiz eta beste hainbat gauzaz hornitzeko beharrezkoa zuten dirua aurreratzeko, eta dirutan, edo garitan ofizialek hala nahi bazuten, eta garaiz ordaintzeko<sup>49</sup>. Ez da argitzen hornitzaile horiek onartu zuten, baina artisauen eskaerak kontraesanak zituen: haien kredituen mende zeudela onartzen bazuten nekez utziko zioten soldatapeko izateari.

1802an Mutrikuko berriemaileak errealtatea egiaztatu baino ez zuen egin: «El sobreprecio de las manufacturas de este Pueblo consiste en que las primeras materias vienen por segundas y terceras manos: en que se dan a fiado a los oficiales con usura por la escasez de moneda para las compras reuniéndose para ello las causas referidas»<sup>50</sup>.

#### Errege-armadarako itsas jendearen kopurua (1794)<sup>51</sup>

|                   |    |                       |     |
|-------------------|----|-----------------------|-----|
| Ondarroa .....    | 60 | Arteaga .....         | 8   |
| Mendexa .....     | 12 | Bermeo .....          | 174 |
| Lekeitio .....    | 96 | Plentzia .....        | 128 |
| Ipazter .....     | 5  | Bilbo .....           | 52  |
| Bedaroa .....     | 16 | Getxo .....           | 58  |
| Natxitua .....    | 27 | Portugalete .....     | 40  |
| Ibarrangelu ..... | 48 | Deustua .....         | 24  |
| Mundaka .....     | 90 | Abanto .....          | 13  |
| Busturia .....    | 10 | Barakaldo .....       | 7   |
| Sukarrieta .....  | 16 | Leioa .....           | 3   |
|                   |    | 3 eta 4 Kontzejuak .. | 118 |

<sup>49</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 49. leg.

<sup>50</sup> HEAA, Vargas Ponce Bilduma, 1802ko errolda.

<sup>51</sup> Lekeitioko Arrantzaleen Kofradiako Artxiboa. Lekeitioko marinelen eskriturak, errejis-tro eta zenbakirik gabe: «Harreglo de la numeración de gente de mar de los puertos y aldeaños de este M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya que de conformidad de los respectivos infraescritos se forma para que rija en las distribuciones sucesivas de las marinerías de leva y servicios para Real Armada». Gernika, 1794ko maiatzak 8.



Legedia liberalak irabazi arte, arrantzaleek bakarrik egin zioten ihes merkatarien nagusitasunari, eta kasu zehatz honetan, eskabetxe-fabrikatzaileari, izan ere, arrainaren salmenta-prezioa arrantza-aldi bakoitza baino lehen erabakitzen baitzen, mandazainek barnealdeko herrietarako hartzen zituzten arrain-sorta txikietan izan ezik.

Dirudienez, marinelen kopuruak ez zuen garrantzi handirik izan biztanle guztiei dagokienez. 1794an Errege Armadarako zerbitzuak eta erreklutatzeak banatzeko egin zen Jaureriko itsas jendearen kopurua zehaztean, 1.005 lagun ziren guztira; auzotar osotzat jotzen baditugu, arrantzatik eta itsas garraiotik 4.362 pertsona bizi zirela ematen du gutxi gorabehera. 1797an Bizkaiak 111.603 biztanle zituen, beraz, %3,90 ziren (ikus 381. or. koadroa).

Imajina daitekeenez, arrantzaleen kopurua marinelen guztiena baino txikiagoa zen. Kairik garrantzizkoenak Ondarroa, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka eta Bermeo ziren. Bakoitzak zuen garrantzia 1810ean zituen txalupen kopuruak azaltzen digu<sup>52</sup> :

|                          | Txalupak |
|--------------------------|----------|
| Ondarroa . . . . .       | 15       |
| Lekeitio . . . . .       | 22       |
| Ea . . . . .             | 6        |
| Elantxobe . . . . .      | 15       |
| Mundaka . . . . .        | 18       |
| Bermeo . . . . .         | 34       |
| <i>Guztira</i> . . . . . | 110      |

Artisauen egoera nahiko estua zen. Euren produktuek herriko merkaturak gainditzen zutenean merkatariaren mende gelditzen ziren. Aitzitik, tokiko merkaturako bakarrik produzitzen bazuten, ezin ziren beren lanbidetik bizi. Egoera horretan zeuden Arabako burdingitzarekin harremanik ez zuten artisauak. Dulantzín, 1813an 566 biztanle zituen Arabako herrian, honakoa ohartarazi zuten: ofizioak «*están mezclados con la labranza que la ejercen por sí o sus familias y sin ella no podrán subsistir*». Herri horretan, nekazaria ez zen auzotar bakoitzari kalkulaturiko irabaziak zehazten zaizkigu. Honakoa dugu, diru-sarrera handienetatik txikienetara sailkatu-rik<sup>53</sup>:

<sup>52</sup> *Ibidem*, Lekeitioko Marinelen Kofradiako Eskriturak.

<sup>53</sup> AAA, 1813ko errolda, Dulantzín, H.5.

|                                      | Zkia. | Errealak |
|--------------------------------------|-------|----------|
| Botikaria . . . . .                  | 1     | 920      |
| Sendagilea . . . . .                 | 1     | 880      |
| Maisua . . . . .                     | 1     | 800      |
| Errotaria . . . . .                  | 1     | 800      |
| Ostalaria . . . . .                  | 1     | 700      |
| Harakina . . . . .                   | 1     | 700      |
| Zirujauak . . . . .                  | 2     | 680      |
| Ardo eta pattar-saltzailea . . . . . | 1     | 650      |
| Mandazainak . . . . .                | 2     | 575      |
| Dendariak . . . . .                  | 4     | 405      |
| Albaitaria . . . . .                 | 1     | 400      |
| Okinak . . . . .                     | 5     | 360      |
| Ehulea . . . . .                     | 1     | 300      |
| Arotzak . . . . .                    | 3     | 250      |
| Jostunak . . . . .                   | 2     | 250      |
| Zapatagilea . . . . .                | 1     | 250      |

Artisauak adiera hertsian ulerturik —ehulea, arotzak, jostunak eta zapatagilea— azkeneko leketan daude, eta lehenengoetan medikuntzarekin loturiko lanbideak ditugu eta, nola ez, errotaria, harakina eta ardo-saltzailea —eta, dakigun bezala, kontsumitzaileek ez zuten pertsonaia horiei buruzko oso iritzi ona—, eta harrigarria bada ere, maisua.

## Burgesak

Burgestzat merkatariak, industriariak eta lanbide liberalak —abokatuak, sendagileak...— bakarrik hartzen baditugu, bistan dago klase horren oinarri soziala urria dela. XVIII. mendeko Espainian ideologia liberalaren (eta ez dut uste beharrezkoa denik ideologia hura liberal-burgesa zela gehitzea) aldekoak ez ziren merkatariak eta industriariak bakarrik izan; azkeneko hauek gainera oso gutxi ziren. Jovellanos, ideologo liberala, landatar gorenak deituriko klasekoa zen. Bere gutunetan aipatzen zuenaren arabera, burdinola bat gobernatzen zuen, baserri dezente zuen eta, bere zoritxarrerako, errege-baleetan ordainduriko soldata ofizial bat jasotzen zuen<sup>54</sup>. Espainiako liberalismoaren ordezkari bikainenetako batek lurra eta nekazaritza-erreforma bere kezken muina izatea ez da kasualitatea. Liberalismoaren alde zegoen asko, lurrak zituen edo eduki nahi zituen landa eta hirietako burgesia zen. Soberakinak ziztutelako aleekin espekulatu ahal zutenak ziren; beren lurren errenten gora-

<sup>54</sup> Ikusi 1799ko otsailaren 23 eta 28ko eta apirilaren 10eko gutunak, baita 1800eko maiatzaren 17ko eta abuztuaren 27koak ere, *Biblioteca de Autores Españoles*. Madril, 1952, I. libk., 333, 334 eta 345. orr.

kada izugarritik irabaziak jaso zituztenak ziren. 1756ko abuztuaren 16 eta 23an, 1757ko azaroaren 9an, 1765eko uztailaren 11n eta 1770eko maiatzaren 26an hartutako neurriek lur-jabeei etekinak ekarri zizkieten, batez ere lur-sail handietakoei, nobleak izan edo ez. Baina nekazaritzako prezioek eta batik bat demografi presioak lurraren balioa ere igoarazi egin zuten. Jovellanosek eta ilustratuek horren errua amortizazioei leporatu zieten bakarrik, baina zuzenago izango litzateke faktore horri eta luberritzeak garestiak izateagatik zegoen lur-eskaintza mugatuari leporatzea. Dena dela, interesgarriena prozesuaren ondorioak dira, egotzi zitzaizkion arrazoiak edozein izanda ere: salerosketan zeuden lurak garestiak ziren. «Pero es el caso —idatzi zion Jovellanosek Antonio Ponz-i— que como esta carestía no sea un efecto del aumento de sus productos o de su mayor estimación, resulta que el rédito de la propiedad esté siempre en una horrible desproporción con su capital, pudiendo asegurarse que en Asturias todas las propiedades de terrazgos podrán escasamente producir el uno por ciento de su valor actual»<sup>55</sup>. Beste modu batean esanda, kapital zati bat ondasun higiezinetan inbertitu nahi zuen burgesak %1eko etekina ateratzen zuen. Beharrezkoa zen, beraz, lur asko jartzea salerosketa librean, hauen prezioa jaitsi zedin eta inbertsioak errentagarriagoak izan zitezen: desamortizatu eta desbinkulatu egin behar zen, nahiz eta azkeneko honek gure asturiarrari beldurra eragin: «Dios le libre á usted de los extremos en materia de reformas»<sup>56</sup>.

Hala, bada, iraultza burgesean, edo gehiago erreforma burgesetan, interesaturiko oinarri soziala merkatariak, abokatuak eta industriariak baino zabalagoa zen.

Hiri-burgesia Bilbon, Donostian eta Gasteizen biltzen zen, eta batez ere merkatariak osatzen zuten talde hori, baina ez horiek bakarrik. Bilbotarren aberastasuna nola zegoen osatuta «El calculo aproximativo del capital en masa de Bilbao» delakoan azaltzen da eta honela neurtzen zen:

|                           |   |   |
|---------------------------|---|---|
| « 10 millones en géneros. |   |   |
| 8                         | » | » navíos.   |
| 4                         | » | » fábricas que hay en este Señorío y fuera de él. |
| 8                         | » | » dinero.   |
| 40                        | » | » papel moneda y créditos contra el Estado.       |
| 15                        | » | » haveres en America.                             |
| 30                        | » | » idem en el Estrangero.                          |
| 3                         | » | » idem en España.                                 |

118 millones reales.

Bilbao, 16 de Mayo de 1810»<sup>57</sup>.

<sup>55</sup> *Ibidem*, 290. or.

<sup>56</sup> *Ibidem*, 291. or.

<sup>57</sup> GBEA, ETPSV, 1. zkia. 1810. urtea, Bilbon.

Harrigarria da zenbat diru-paper eta zor publiko zuten. Horrexegatik zuen hiri-burgesiak titulu horiek balioa berriz hartzeko eta lurrak erosteko horiek erabiltzeko ahalmena izateko interesa. Atzerriarekin zituen merkataritza-harremanak nagusi zirela ere azaltzen da. Horien atzetik, urruti, koloniek zituztenak daude eta azkenik, oso urriak, Espainiarekin zituztenak. Bilbo ez zen Cadiz, eta seguraski Santander ere ez. Kolonietako merkataritza Bilboko jardueretako bat zen, baina ez garrantzizkoena, izan ere, Indietako herriekin merkataritza zuzena izateko gaiturik ez baitzegoen. Fabriketan inbertituriko diru-kopurua azpimarratzekoa da. Koroak jarritako eragozpenak gorabehera, merkataritza-kapitala jarduera transformatzaileetan inbertitzen ari zen zuzenean. Ez da zehazten, baina itsasadarreko ertzetan eta Santanderren jarritako zurrategiek eta irin-fabrikek izan behar dute. Notari-protokoloek merkatarien eta zurraketen arteko lotura azaltzen dute. Domingo de Ibarra «Bilboko hiribildu nobleko auzotarrak eta merkataria» 1772an zurrategiak zituen Abando-ko elizatean eta Ibarzabal auzoan, eta Mungiako bizilagun batzuei arbol- en azala erosten zien aurrerakin-sistemaren bidez<sup>58</sup>. Beste pertsona bat, —zein maila sozialetakoa zen ez badakigu ere, merkataria edo lur-jabea izan behar zuena, izan ere, Gernikako 1760ko uztailaren 23ko Batzar Nagusietan ahaldu izan baitzen—, manufaktura horietako batzuen jabe ere bazen.

Garrantzizkoagoak izan bide ziren burges bilbotarrek lurarekin zituzten loturak. Nicolas de Arriquirar 1714an jaio eta Kontsulatuko priore izan zen birritan. Horrez gain, Adiskideen Elkartean parte hartu zuen gogotsu, eta nekazaritzari buruzko bi tratatu idatzi zituen: *Beneficio de tierras incultas* eta *Labor del ganado vacuno*<sup>59</sup>. Sebastian de Loizaga Kontratazio Etxeko kontsula ez ezik, Gernikako hiribilduko ahaldu izan zen 1765eko uztailaren 28ko Merindadeen batzarrean, eta horrek esan nahi du bazuela baserri-munduarekin nolabaiteko erlazioa. Bilbon bizi zen Andres de Echezarraga merkataria zen eta Begoñan gutxienez baserri bat zuen<sup>60</sup>.

Hala ere, lurraren eta merkataritzaren arteko harremanak adibide horietan islatzen dena baino aberatsagoak ziren. Erandioko Manuel de Barrena y Artech y Zarra, Francisco de Barrena y Artecheren eta Josefa de Zarraren seme zaharrena zen. Aitak bere familiaren etxea, Arriagas auzoan zegoena, eman zion, «la qual en aquel tiempo hauia sido una casa regular de sólo una bibienda y de poca montta con las heredades que la ttocaban y correspondían». Gero inguruetan zeuden ogitarako zenbait lur erosi eta bateratu egin zituen eta honakoa kontatzen digu:

---

<sup>58</sup> BPAH, 1772ko maiatzak 13, 2948. leg.

<sup>59</sup> Rodríguez Ferrer, Miguel, *Los Vascongados...*, 150. or.

<sup>60</sup> BPAH, 1768ko uztailak 29, 2947. leg.

«haviendo deseado querer ttener la cittada casa mediante ser nattiba con algun lusimientto dettermine apearla y mande hazer la que en el día se halla en el mismo sittio y paraje haviendo hecho poner el excudo de Armas que la pertteneze como ttanvien dos cuadranttes y dha casa se compone de quatro bibiendas con sus cortujos correspondientes y ttoda la porttalada y restto de ella enlosado haviendo costteado y pagado de mi propio caudal adquirido con mi industria y trauajo». Laburbilduz, lurretan inbertitu, lantzeko eremua eta etxea handitu eta lau maizter hartu zituen. Larri zebiltzan nekazariei kapitala uzten ere jardun zuen, onibar gehiago lortzeko asmoz. Horrela lortu zuen Erandion zegoen Goycocoa etxea, «la qual me fue aplicada en el concurso... formado por Jpha de Zarraga, viuda de Anttonio de Samarripa ambos difunttos cuiu caseria se me aplicó con diferenttes perttenecidos de pan sembrar y monttes, y para agregar a ella compre ttamvien otras varias porsiones de tterrenos peganttes a ella». Hainbat abelburu zuen admeterian utzita eta elikagaien sektorean inbertsioak egin zituen, Algortako portuan zegoen etxe eta lonja baten jabea baitzen, «que sirbe para la limpieza y Beneficio de la Sardina que se coge». Bakarrik edo, sarriago egiten zuen bezala, beste merkatari batekin edo batzuekin «erdibana» elkaturik negoziatzen zuen honako produktuokin: ikatza burdinoletarako, Caracasko kakaoa, gatza, Cadizera bidalitako burdinazko aihotzak eta zehazten ez diren beste produktu batzuk<sup>61</sup>. Bi ezaugarri zituzten bere negozioek: goranzko sektoreetan —lurrak eta kontsumoa— egindako inbertsioak, eta arriskuen dibertsifikatzea, zenbait produktuekin eta merkatari desberdinekin tratuan arituz. Oinordeko gisa bere aberastasunaren jatorria lurra zela ukazina izan arren, merkataritzatik ateratako etekin batzuk berriro nekazaritzan inbertitu zituela ere egia da.

Bilbon jaio eta bizi izan zen Roque Francisco de Belloqui, bertako Manuel de Belloqui eta Nicolasa de Echevarrisarraren semea zena, bigarren semearen eta merkatari hutsaren irudia da. 1774an Maria Josefa de Isla y Villarrekin ezkondu eta gurasoek 11.140-8 erreal eman zizkioten, benetan honakoa eman ziotela esaten badigu ere: «tres mill y seiscientos reales vellon, y no los treinta y siete doblones de a ocho y el resto o exceso adquirí con mi industria y ttrabajo sin que persona alguna huviese ttenido, ni ttenga la menos parte, ni interés en ello». 1790eko urriaren 14an hil zen eta emazteak haren ondasunen inbentarioa egin zuen:

---

<sup>61</sup> *Ibidem*, 1778ko maiatzak 3, 4363. leg.

|  | Errealak    | %     |
|--|-------------|-------|
| Salerosketarako salgaiak . . . . .         | 543.305-16  | 53,52 |
| Arropa zuria . . . . .                     | 4.374       | }     |
| Koloretako arropa . . . . .                | 7.046-26    |       |
| Alargunaren eguneroko arropa . . . . .     | 1.662       |       |
| Sukaldeko tresneria . . . . .              | 2.275       |       |
| Altzariak . . . . .                        | 8.467-7     |       |
| Zilar landua . . . . .                     | 4.974-3     |       |
| Bitxiak diamantezkoak, urrezkoak . . . . . | 1.530       |       |
| Liburuak . . . . .                         | 509         |       |
| Hartzeko arruntak . . . . .                | 247.833-18  | 24,41 |
| Zalantzazko hartzekoak . . . . .           | 125.528-9   | 12,36 |
| Dirua, letrak, errege-txartelak . . . . .  | 67.610-29   | 6,66  |
| <i>Guztira</i> . . . . .                   | 1.015.116-6 | 100   |

Zorrak ordaindu ondoren eta zalantzazko hartzekoak kontuan hartu gabe, 326.540-15 gelditu zitzaizkion alargunari.

Roque Francisco de Belloqui kontsumorako produktuekin eta oihalekin aritzen zen salerosketan: «Virginia nueva», «trucherón de Bascos viejo», «trucheron marchante nuevo no tan seco», «pezcado frezcal», «Noruega marchante», argizari-sorta handi samarra zuriketarako (543.305 errealetatik 104.310), Holandako lihoa, kanela, kakaoa, azukrea, marragak, Milinquineko baieta etab. Bere ondasun higiezinak hutsalak ziren eta familiaren ostilamendua nahiko garrantzizkoa. Nahiz eta goi-mailako merkataria izan ez, ertainekoa bazen. Bere ondasunaren jatorria ez bide zen lurra eta, edozein zela ere, ez zen oso garrantzizkoa: 3.600 erreal; eta gero ere ez zuen ezer jarauntsi, izan ere, aita bizirik baitzegoen 1789an, hau da, aitak 8.000 erreal maileguan eman eta ondasunetatik itzuliko zizkiola agindu zion urtean. Bere kapitalaren oinarria emaztearen ezkontsarian zetzan eta horren jatorria ezezaguna zaigu. Gizonak, ezkondu zirenean, 21.590-18 erreal jarri zituen: horietatik 11.143-18 eskudirutan eta gainerakoa arropa eta beste tresna batzuetan. Emazteak, berriz, 53.000 erreal jarri zituen: 9.000 ostilamenduan eta 44.000 eskudirutan<sup>62</sup>. 1790ean zituen ondasun handiak, beraz, urte horretatik ezkondu zen urtera (1774ra) bitartean lortu zituen. Zalantzarik gabe, lehen 11.000 erreal baino apur bat gehiagorekin eskuraezinak zitzaizkion negoziociei ekiteko aukera eman zion ezkontsariak.

Esku artean izan ditudan ezkontza-hitzarmenetan sarritan gertatzen da hori. Artisauak diru-kopuru txikiak jartzen zituzten eta horien kasuan ere, emazteen ezkontsaria senarrena baino handiagoa izaten zen, eta batzuetan

<sup>62</sup> *Ibidem*, 1796. urtea, 2982. leg.

aski handiagoa. Jose de Orbe jostunak 70 erreal jarri zituen arropatan eta lanbideko tresnetan, eta Maria Josefa de Ibarreche emazteak 4.525-17 ondatsun eta bitxitan eta 3.914-04 dirutan, 8.439-31 guztira<sup>63</sup>. Beste adibide batean, senargaiaren gurasoek 1.746 erreal eman zizkioten bitxi eta arropatan «para en cuenta y parte de pago de legitimas Patterna y Matterna que le tocaron y pueden tocar y corresponder en qualquier manera», eta senargaiak «bere negozio eta lanarekin lorturiko» 903-18 jarri zuen eskudirutan<sup>64</sup>. Emaztegaiari, familiak 9.129-8 errealetako ezkontsaria eman zion, 2.230 dirutan eta gainerakoa arropan.

Bilboko burgesiaren negozio-kopuruaren bilakaera Urduñan eta Balmasedan ordaindutako zergak (errenta orokorrak) azterturik ikus daiteke. Inportatu eta esportatutako balio teoriko gutxi gorabeherako eta finko baten gaineko zergak ziren eta ondo islatzen dute salgaien mugimendua (baina merkataritza-balantza ez), laurogeiko hamarkadara arte gutxi gorabeherako balio teoriko hori ez baitzen aldatu (urtez urteko zehaztasunak aztertzeke, ikus 389. orrialdeko grafikoa).

**Urteroko errenta orokorren zergak,  
almirante eta arrainik gabe (Urduña + Balmaseda)<sup>65</sup>**

|                 | Be. mrb.    | Indizea |
|-----------------|-------------|---------|
| 1723-1733 ..... | 67.168.688  | 100     |
| 1740-1749 ..... | 77.701.388  | 115,7   |
| 1750-1759 ..... | 90.297.544  | 134,4   |
| 1760-1769 ..... | 78.073.776  | 116,2   |
| 1770-1779 ..... | 108.480.681 | 161,5   |


1722-1733tik 1770-1779ra, elkartrukaturako produktu-kopurua %61,5 igo zen; ehuneko horrek nahiko garbi islatzen du Bilboko merkataritzaren aberastasun osoaren hazkundea, suposatzen badugu etekin-tasa ez zela mendean zehar asko aldatu, hori beti horrela izan ez bazen ere.

Gaztelako demografiari ziurrenik gertatu zitzaion bezala, XVIII. mendean lehenengo erdialdea ez zen oso ona izan, horko merkatuaren mende baitzegoen Bilboko merkataritza; irabazi handiak bigarren erdialdean lortu ziren. Guztiz argigarria da bigarren erdialde horretako ziklo hedakor zabal biak eta hirurogeieko krisia, nekazaritzan izandako ziklo eta krisiekin batera gertatu izana. 1745etik 1757ra izandako aurrerapausoa nekazaritzan eta merkataritzan gertatu zen; Esquilacheren mutina baino lehenagoko hornigaiaren krisiek eragina izan zuten merkataritzan eta geroko

<sup>63</sup> *Ibidem*, 1796. urtea, 2982. leg.

<sup>64</sup> *Ibidem*, 1769ko abuztuak 28, 2947. leg.

<sup>65</sup> SAO, Dirección General de Rentas, lehenengo sorta, 2506-2565. leg.



**Urduña (U) eta Balmasedako (B) aduanak**  
 Errenta Orokorrak (Errege Almirante eta Arrain milioirik gabe),  
 beloizko marabeditan

zuzperraldiak elkartrukeak jasoarazi zituen. Errenta orokorren zergen kurba Gasteizko unibertsitateko eta kolejiako hamarrenen kurbaren gainean jar-tzen badugu, paralelotasun ukaezinak ikus ditzakegu, nekazaritzak merkataritzan zuen eraginaren seinale. Aitzitik, krisialdietako prezioen kurbak korrelazio negatiboa emango liguke: prezio altuak, merkataritza-jardueraren beherakada. E. Labroussek aspaldi argi utzi zuen mekanismo ezaguna dugu.

Landatar burgesen taldea askoz heterogeneoagoa zen eta neurri batean eratzen ari zen. Klase honen oinarrian urtaro hilean negozio txikietan ziharduten nekazariak zeuden eta, zoritxarrez, estatistikek ez zituzten beste nekazariengandik bereizi. Salbuespen gutxietako bat Aranako ermandakoa dugu: 1814an zenbait lagun —bederatzi— aipatzen zen merkataritza eta industriaren ataletan, euren lanbidea zehaztu gabe, eta horrez



gain, nekazaritzan ere lan egiten zutela adierazten zen. Gehienez 5.000 erreal eta gutxienez 1.250 zituztela eta euren kapitaletatik batez beste %8ko etekinak ateratzen zituztela uste zuten<sup>66</sup>. Gipuzkoan, dagoeneko ikusita dugu errotari espekulatzaileen kasua, eta horiekin batera jarri behar ditugu saroedunak eta herri-larreen errentatzaileak. Horiek guztiek interes handia zuten legedia liberalak irabaz zezan. Burgesia honen definitziorik onenetako bat Gaubea, Koartango eta Morillaseko ermandadeetako «antzinako nobleek» utzi ziguten 1815ean: «rematantes de suministros para los Franceses, compradores de obras pías y sus secuaces»<sup>67</sup>, edo beste era batean esanda, ale-pilatzaileak, ideologiari dagokionez liberalak, antiklerikalak eta desamortizazioan interesatuak. Haiek gabe ez dago azaltzerik iraultza burgesak Espainian izan zuen ibilbide bihurria.

## Hazkundera eta gizarte-aldaketak

«Lurralde haietan zehar [Bizkaia eta Gipuzkoa], Homerok deskribatzen duen mendera eta ohituren garaira itzuli nintzela iruditu zitzaidan: eta apaltasunaren, sendotasunaren, eta benetako alaitasunaren bila dabilenak mendi hartan topatuko ditu, eta ikusiko du, bertako lagunak, oro har, aberatsenak ez badira ere, funtsean zoriontsuenak direla, herria gehien maite dutenak, eta boteretsuen mende gutxien daudenak. Bizkaian garrantzizkoenak eta aberatsenak bizilagunei zieten begirunea eta berdintasun-tratua miretsi nituen...»

BOWLES. *Introducción...*, 321. or.

«Preguntado diga si quando el Alcalde de Salinas dio orn. al confesante para que con sus quatro Bueies bolviese a su casa se quejó el confesante y dijo que aquello era handar contra la sangre de los pobres y que así lo disponían los magnates de esta Provincia sin attender a las obligaciones de los labradores.»

Azpeitia, Gipuzkoako Errege-kartzela, 1755eko maiatzak 6. AHN, Consejos, 214. (3) leg.

XVIII. mendeko hazkundera desberdintasunak eta gizarte-tirabira arindu beharrean, areagotu egin zituen. 1766ko matxinada arazoaren lehenengo seinalea izan zen, hirurogeita hamarreko hamarkadan gero eta errepresiozkoagoak ziren neurriak hartzen hasi ziren eta mailarik gorenera iritsi ziren mendearen bukaeran, 1799an, Francisco de Arangurenak lapurrak eta gaizkileak, hau da, lurrik gabe eta zorrez lepo egindako nekazariak, eta lanik gabeko artisauak zigortzeko proposatu zuen Araudia onartu zenean.

<sup>66</sup> Kapitalak 5.000, 5.000, 3.750, 4.350, 3.750, 2.500, 1.900 eta 1.250 dira. AAA, 1813ko errolda, H. 5.

<sup>67</sup> AHN, Consejos, 3314. leg., 232. zkia.

Herriaren altxamenduei, Esquilacheren mutinaren antzekoei, «matxinada» deitzen zaie Euskal Herrian; Guiardek hitz hori ondo interpretatu zuten: «vale tanto como jacquerie, y no sería aventurado el suponerle una filiación análoga»<sup>68</sup>.

### 1718ko matxinada. Gertakariak

Borboien etorrerak zentralismoa aregotzea ekarri zuten nolabait. Ordu-ra arte ohikoa izan zenaren aurrean, honakoa lortu nahi izan zen 1714an: «que en lo sucesivo fuese el Corregidor y no el Síndico del Señorío quien había de dar el uso a las cédulas y despachos reales, en contrario de lo que siempre se había practicado» eta korrejidoreak ondokoa egiteko proposamena egin zuten: «[que] tomara la residencia a los oficiales del Señorío y a los alcaldes y capitulares de Bilbao... rompiendo la costumbre seguida»<sup>69</sup>. Garai horretan Carlos Mirail tabakoen errentako faktore nagusi izendatu zuten, produktu horren kontrabandoa salatzeke asmoz. Urte batzuk lehenago, Bilboko zenbait merkatari iruzur egiteaz akusatu zuten, tabakoa Cadiz, Sevilla, Santa María eta San Lucarretik bakarrik sar baitzitezkeen<sup>70</sup>. Miraili bere eginkizunetatik at zeuden lanak egitea egotzi zioten, magistratu-kargua balu bezala jokatu baitzuen eta Korrejidorea honakoa izendatu baitzuen: «juez subdelegado del superintendente general del ramo [hots, tabakoarena] y con apelación exclusiva ante la Junta de la renta de tabacos». 1714ko martxoaren 16an Gernikan egin zen batzarrean bildutako batzuek Mirail bertara eramateko eskatu zuten oihuka, urkatzeko asmotan. Korrejidorearen kontrako biraoak ere entzun ziren. Iskanbila hasi zutenak ez ziren lasaitu denen artean ondokoa erabaki zuten arte: «que en nombre de la Junta se diese orden al alcalde de Bilbao para poner preso a Mirail en su casa con cuatro guardas...»<sup>71</sup>.

Zentralizazio eta probintziako erresistentzia prozesu honen barruan kokatzen dira 1717ko abuztuaren 31n aduana guztiak arrantza-portuetan edo Portugal eta Frantziako mugetan jartzeko agintzen zuten Errege Dekretua, eta horrek eragindako matxinada.

Dekretua Jaurerriari aditzera eman ondoren, honek neurri horren kontrako arrazoiak adierazteko honela bukatu zuten oroitza-txosten bat bidali zuten: «con la expresión de que padecería sin queja la pérdida del comercio de lanas primeramente que empañar su honor», merkatariak izan zezaketen jarrera zehazki aipatuz. Merkatariak egotzi ezin bazitzaizkien ere,

<sup>68</sup> Guiard, T., *Historia de la M. N. y M. L. Villa de Bilbao*, Bilbo, 1905, III. libk., 16. or., oin-oharra.

<sup>69</sup> *Ibidem*, 7. or.

<sup>70</sup> *Ibidem*, 6 eta 7. orr.

<sup>71</sup> *Ibidem*, 9. or., eta Sagarmínaga, *op. cit.*, III. libk., 150. or.

honakoa zioten ideia batzuk zabaldu ziren: «que el mudar las aduanas no era contrario al Fuero, que si se protestaba de ello su majestad en represalia, pasaría el comercio de Bilbao a Santander...»<sup>72</sup>. Hamabost urte baino gehiago baziren, 1701. urtean hain zuzen ere, Santander saiatu zela ingelesek Bilborekin zuten salerosketa bere portura pasatzen eta, lortu ez zutenez, %2ko igoera ezarri zion Bilbotik Santanderrera, flotetara aldatzeko, patatxetan eramaten ziren burdinen gaineko zergari<sup>73</sup>.

Protestak gorabehera, aduanak 1718an kostaldean jarri zituzten, lehenengo Gipuzkoan eta gero, martxoaren 19an, Jaurerrian. Zenbait ordezkari bizkaitarrek Gorteetan izan zuen jarrera anbigua izan zen nonbait. Labayruk, gehiago zehaztu gabe, honakoa onartu zuen: «en Madrid se trató de dar alguna compensación a Bizcaya» aduana-aldaketa zela-eta<sup>74</sup>.

1718ko abuztuaren zerga-biltzaileetako bat hil egin zuten Bilbon, eta Bermeon eta Algortan aduanetako zaindarien lan egiten zuten ontzietan su eman zitzaizkien<sup>75</sup>. Bitartean, ezkutuan egiten zituzten bilerak herrietan. Honako zurrumurruek bezalakoak zebiltzan: «[que] los del gobierno del Señorío y Bilbao aflojarían en la defensa de la libertad por los cuantiosos intereses que poseían y que eran capaces de vender el solar por grangearse en algo»<sup>76</sup>.

Irailaren 4an nekazari-pila sartu ziren Bilbon Deustua, Arrigorriaga eta inguruko elizateetatik etorrita. Begoñakoak ere, «goiz hartan batzarra eta errepublikaren bilera eliza ondoko hariztian izan zituztenak», hauekin elkartu ziren<sup>77</sup>. Baserritarrek korrejidorearen bila ari ziren sartutako aldaketak indargabetzen zituen agiri bat sina ziezaien, baina ezezkoa eman zien. Gero Jaurerriko diputatua zen Enrique de Aranaren etxera joan ziren; honek, jakinaren gainean zegoela, ihes egin zuen teilatutik. Topatu ez zutenez, arpilatu egin zuten etxea. Handik Bargas markesaren eta Santiagoren ordenako zalduna zen Nicolas de Echevarriaren etxeetara joan ziren eta bertako gauzak kalera bota eta erre egin zituzten. Gauza bera egin zuten Domingo de Gondra, Lorenzo de Sierralta, Antonio Ventura de Larriva, Manuel de Bolívar eta Diego de Allenderen etxeetan<sup>78</sup>. Domingo de Zalduaren atzetik joan ziren eta, ukaldika, «Aberriari traizio egindakoen» izenak zituen papel bat aitortu eta sinarazi zioten. Enrique de Aranaren osaba eta administratzailea zen Francisco de Sarraga apaiza atxilotu eta Begoñara eraman zuten. Zuhaitz batean lotu ondoren, «Aduanen errua nork zuen euren aitorraraztea» nahi zuten, «zalantzarik gabe bazekielako nortzuk ziren aberriaren arerioak».

---

<sup>72</sup> *Ibidem*, 10. or., eta Labayru, *op. cit.*, VI. libk., 85. or. Dekretuak artile eta beste salgai batzuen salerosketa Bilbotik Santanderrera pasatzeko mehatxua egin zuen.

<sup>73</sup> *Ibidem*, 5 eta 6. orr.

<sup>74</sup> Labayru, *op. cit.*, VI. libk., 91. or.

<sup>75</sup> Guiard, *op. cit.*, III. libk., 15. or.

<sup>76</sup> *Ibidem*, 15. or.

<sup>77</sup> *Ibidem*, 19 eta 24. orr.

<sup>78</sup> *Ibidem*, 25. or.

Hurrengo egunean, Abando, Begoña, Deustua, Galdakao, Arrigorriaga, Basauri, Lezama, Etxabarri, Erandio, Sondika eta «itsasertzeko beste» elizateetako nekazariak itzuli ziren Bilbora. Korrejidoreak baietza eman behar izan zien proposatu zizkioten dekretu guztiei: batzuek aduanak indargabetzen zituzten eta beste batzuk «beraien nahira tinkoaz egindako paperak» ziren, eta pertsona askoren heriotza aldarrikatuz joan ziren, batez ere Domingo de Zalduak sinaturiko paperean agertzen zirena.

Egun horretan, Santiagoren zalduna eta Enrique de Aranaren osaba zen Jose de Castaños eta Jaurerriko sindiko nagusia zen Antonio de Jaureguibeitia iraindu zituzten, eta Arana diputatua hil zuten, matxinatuen ustez, «Aduanak ezartzean eragin handikoa izan baitzen». Fernando de Barrenechea, Juan Antonio de Jaureguibeitia, Juan Jose de Jusue, Martin de Ugarte eta Antonio de Alzagaren etxeetan sartu eta erre egin zituzten, baita Frantziako kontsul-lanak egiten zituela aldarrikatzen zuen Juan Carlos Capdeville frantsesarena ere. Domingotarren hospizioari eraso eta lapurtu egin zuten; bertan aurkitu eta hil egin zituzten Agredako zalduna zen Miguel de Orovio, Bargas markesaren alaba batekin ezkontzeko Bilbora etorria zena, eta Zaindarien Errondako idazkaria zen Juan Angel Garcia de Antesana, eta hauen ostatu ziren etxeei su eman zieten. Gauean honakoak erre zituzten Bilboko inguruetan: Begoñako Patroiaren jauregia, Arana diputatuak Abandon zuen atsedendietarako landetxea, eta Jose Ignacio de Castaños y Leguizamonenak ziren Legizamon dorretxea eta oinetxea; gizon hori, horiez gain, Zalla, Guenes eta Galdameseko binkulu, maiorzago eta patronatuen jabe zen.

Hilaren seian, mendietan baserritarrek osaturiko tropa asko ikusten baziren ere, elizate batzuk bakarrik jaitsi ziren hirira, baina ez zen ia ezer larrikerik gertatu. Izan ere, atzean geratutako batzuk preso hartu zituzten korrejidorearen aginduz.

Gertakarien garaiko kontakizun anonimoak<sup>79</sup> nabarmen uzten ditu bi gauza: Bilboko biztanleen pasibotasuna hilaren 4an eta 5ean nekazarien matxinadaren aurrean, neutraltasun hori hauen aldekotzat jo behar dugularik,

---

<sup>79</sup> xx. mendearen hasieran Juan Carlos de Gortazarrena zen eskuizkribu bat da eta Guiardek osorik argitaratu zuen *Historia de la... Villa de Bilbaon*, III. libk., 24. or., eta hurr. Villabaso inprimategiari utzi eta «Euskal-Erria» aldizkarian, 1882ko bigarren sei hilekoan kaleratu zuten eta Labayruk, *op. cit.*, VI. libk., 92. or. eta hurrengoetan, iturririk zehaztu gabe; osatu gabe ematen du. Desberdintasun txikiak daude batzuen eta besteen artean, Guiardek esandakoak baino gehiago gainera. Alfonso Otazuk «*El igualitarismo*» vasco: mito y realidad liburuan 226. or. eta hurrengoetan «Diario de lo que ha subcedido en Biluao desde el Domingo 4 de septiembre de 1718, asta oy dia Viernes 9 de septiembre» kaleratzen du. TPAn dago. Argitaratuta dauden kontakizunen aldean, ia ez du desberdintasunik azaltzen, baina harrigarria den zehaztasun berri bat gaineratzen du: «a los Patronos, dicen, no les han de dar ningún diezmo». Izan al zuen matxinadak jauntxoek kontrako jarrerarik? Edo, sinesgarriagoa deritzoguna, nekazariak gorenaren aurka (batzuek gainera, Bilboko patroiak esaterako, hamarrenak jasotzen zituzten) hartutako errepresalia izan ote zen aduanen arazoan amore eman zutelako?

eta erasotako gorenen alde klero erregeladunak izandako jarrera argia eta irmoa.

Matxinada hasi zenean, Enrique de Aranak teilatuetatik ihes egitean honakoa gertatu zen: bere auzokideek «no le querían admitir porque temían que en cualquier [casa] habían de buscarle [altxatuek], y que peligrarían sus dueños»; hilaren lauan bertan korrejidoreak eta alkateak mandatariak bidali zituzten asmo honekin: «a recoger alguna gente para oponerse a los ejecutores de tantas ruinas y destrozos», baina «aparecieron muy pocos, porque cada uno pensando que su casa era la amenazada, trataba, o de ponerse a salvo, o de cerrarse en ella, conque por este medio fue imposible atajarlo, porque la Justicia se halló temerosa, sola, desamparada y sin fuerzas». Korrejidorearen beste ahalegin batean: «pidiendo favor, ayuda al rey, y a la justicia... se le incorporaron tan pocos que hubo de volver» Jesuiten Kolejiora, ezkutatu zen lekura hain zuzen ere. Jesusen Lagundia Txit Santuarekin irten zenean matxinatuak baretzeko asmoz, «laiko gutxi» lagundu ziela aipatzen dute. Iluntzean, honetan ibili ziren: «el alcalde anduvo a lo que dicen por si y sus ministros por las casas avisando a los vecinos que se previniesen de armas para el día siguiente, pero fue vana esta diligencia sin saber hasta ahora la verdadera causa que la frustró». Hilaren bostean biztanle batzuk bakarrik hornitu ziren, nahiz eta hilaren seian bilbotarrek «euren etxeak, biziak eta ondasunak defendatzeko armak» hartu zituzten, beharbada beldur zirelako ez ote zen hiri osoa erreko, edo gertakarien itxurak ikaraturik —ordurako hiru hildako zeuden—. Dena dela, esan beharra dago kontakizunak badituela kontraesanak, izan ere bilbotarrek armak hartu zituzten, baina horrek ez zuen saihestu nekazari-errepublikaren bat hirira sartzea, nahiz eta «euren zain nola zeuden ikusita, aurrera jarraitu zuen lotsagabekeriarik egin gabe». Ematen duenez, egun horretan biztanleriak ez ziren nekazariei kontra gogor egin.

Egun gogorretan biztanleriak jarrera neutrala hartu zuen bitartean, klero erregeladuna hasiera-hasieratik irten zen kalera nekazariak geldiarazteko, arrakasta handirik lortu ez bazuen ere. Alkatea eta korrejidorea jesuiten komentuan babestu ziren; hauetxek izan ziren lehenengoak Txit Santua ateratzen «ea horrela suteak gelditzea lortzen zuten». Ordu erdiz gelditzea lortu zuten, gero atzera egin behar izan baitzuten mehatxuengatik eta gehiegikeriengatik. Horien ostean, agustindarrak agertu ziren «eta gauza bera gertatu zitzaien». Frantziskotarrek bakarrik lortu zuten honakoa: «consiguieron de ellos que no quemasen las lonjas de Don Diego de Allende, engañándoles con piadosa astucia que se reservaban [bertan zeuden salgaiak] para misas y limosnas». Hilaren 5ean, matxinatuak hirira bueltatzean, «elizgizonak, erlijiosoak, zaldun asko... azaldu ziren baretzeko asmotan». Agustindarrek Carlos de Zalduendo hartu zuten zauriturik eta honakoa gertatu zela zabaldu zuten: «que había muerto ya y para disimularlo mejor le abrieron la sepultura y cantaron sobre ella los religiosos un responso, y con esta industria, muy mal herido, le transportaron dentro

del convento salvándole la vida». Juan Carlos Capdeville frantsesak «elizgizonen jantziaz moztururik» lortu zuen ihes egitea.

Oro har, mehatxupear sentitzen zirenetako asko komentuetan babestu ziren: «erlijiosoen komunitateak jendez beterik eta segurtasun handirik gabe zeuden». Hori zela eta, eraso egin zioten matxinatuek domingotarren hospizioari, «barruan zeuden batzuek leihoetatik salto eginez ihes egin zutelarik», eta miatu egin zuten Gizakundearen komentua; bertan aurkitu zituzten merkatariren batek ezkutaturiko hamabi zaku tabakohauts.

Lehenengo astinaldiak pasaturik, honakoak egin zituzten Bilbon nekazarien inbasioa berriro gerta ez zedin: Holandako pinuen zurez egindako lubakiak jarri ziren hiriko sarbideetan, harrizko parapeto bat eraiki zuten Merced komentu pareko harresietan «artilleria jartzeko», xede berberarekin ireki zitzaizkion kanoi-zuloak «San Juanen Plaza txikiko» harresiari, hamasei egunetan zentinelak jarri ziren «Santiago eta San Antonio Abaden kanpandorretan [hirirantz] zetorren nekazari-multzoa ikusteko asmoz», eta «nekazarien mugimenduen berri emango zuten espioiei» ordaindu zitzairen. Jakina, «Jaurerriko lasaitasunaren aldeko erreguteak» ere egin zituzten bost astetan<sup>80</sup>.

Nekazariak hiribilduari eraso ez bazioten ere, geldiarazten zituzten «las balijas para reconocer las cartas y representaciones al gobierno, [pues proseguían] en el tema de que en Bilbao estaba la traición».

Probintzian, Portugalete, Somorrostroko haraneko Hiru Kontzejuetako biztanleen laguntzaz<sup>81</sup>, bertako auzotar batzuen aurka altxatu zen zenbait etxe errez. Gernikan zenbait elizartetako matxinatuak, Busturi eta Mundakakoak esaterako, sartu ziren hilaren 9an, korrejidorearen tenientea buruzagi moduan indarrez eramanez. Miguel de Castaños diputatuaren bila ibili ziren eta ez zuten aurkitu, baina haren etxeko altzariak erre zituzten, baita Montefuerte kondeen binkulua zen Meceta etxeetakoak ere. Santa Klara komentuan sartu ziren bertan babestutakoaren bila ziurraski. Hurrengo egunean Bermeora joan ziren. Ordurako bertako biztanleek euren kabuz preso hartuta zeuzkaten ondokoak: Bilboko bigarren alkate izandako Martín Antonio de Escoiquiz, emaztea, Juan Tomas anaia, Gregorio de Esterripa, oinaztaren bandoko lehen errejidorea zena eta Martín Antonio de Escoiquizen alaba batekin ezkondata zegoena, babeslekuko faluako kabo zen Fernando de Olazabal, eta bertako zaindaria zen Juan Tomas de Goicoechea. Aipaturiko seiak hil egin zituzten alfanjeen kolpez hilaren hamarrean. Hamahiruan Lekeitiorantz joan ziren, baina inguruetan gelditu ziren peskizatan<sup>82</sup>.

---

<sup>80</sup> AHN, Consejos, 22. leg., 9. zkia.

<sup>81</sup> *Ibidem*, Consejos, 35. leg., 2. zkia.

<sup>82</sup> Iturriza, *op. cit.*, II. libk., 73. or.

Gipuzkoan, urriaren 15ean ehun bat gizon bildu ziren armaturik Bergaran, baina alkateak lasaitzea lortu zuen<sup>83</sup>. Dena dela, azaroaren hasieran berriro agertu ziren tentsioak. Elgetan, alkateak ihesi irten behar izan zuen eta Bergaran Joaquin Ignacio de Morua y Vidaurreren etxean babestu zen. Errudunak nortzuk izan ziren ikertzeko gestioetan, matxinadan «herriko ia guztiak egon zirela egun horretan» aitortu zuen alkateak. Bergarako Udalak berehala jakinarazi zizkion Probintziari azaroaren 5ean gertatutakoak, jakina, herrikoa ez zen jendeari errua botatzen saiatuz: «me ha hecho firmar la violencia unos decretos ajenos a todo gusto y razón y faltando a la promesa de paz han quemado las casas de Dn. Joaquín Ignacio de Morua y Vidaurre y la de D. Juan Antonio de Recalde maltratando o demoliendo juntamente las de Dn. Alejandro de Aguirre y Amasa y don José de Unce-ta y siendo hecho hasta lo de la casa de Recalde ejecutado por la gente de Mondragón y Valle real de Léniz». Gero honakoa gaineratu zuen: «la gente mucha que bajó de la villa de Elgueta y su jurisdicción»<sup>84</sup> gehitu zitzaizela ere. Ihesi joan ziren bergaratarren artean Rocaverdeko markesa eta Bilbokoa zen Juan Antonio de Recalde zeuden. Lehenengo Gipuzkoako Aldundiak bidali zuen lehenago Madrilera aduanen arazoa konpontzera<sup>85</sup>. Biak Otxandion atxilotu eta hil egin zituzten.

Soraluzen, azaroaren seiko gutun baten arabera, egun horretan Bergara eta Elgetako hirurehun bat gizon sartu ziren armaturik goizeko hamarrak eta hamaikak bitartean. Agintariei dei egin zieten Gatzagako eta komeni ziren beste lekuetako mugetara joateko eta Probintzia eta Foruak defendatzeko beharrezkoa zena egiteko. Jende gorenak Elgoibar eta Eibarrera 60-70 bat gizon bidaltzea onartu zuen «Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara zenbait biztanle garrantzitsuk jasandako kalteak saihesteko» asmoz<sup>86</sup>.

Azaroaren 11n, erresistentzia txikiena ere topatu gabe, errege-soldaduak sartu ziren Balmasedatik Blas de Laya mariskalaren agintearen pean. Bilbon geratu eta ez dirudi 1719ko hasiera arte sakabanatu zirenik Jaurerrian zehar. Soldadu pila bat geratu zen urte bereko lehenengo hilabeteetan Abadiñon eta Berrizen<sup>87</sup>. Ezezagunak zaizkigun arrazoiengatik, desertzio ugari izan ziren okupazio-armadan. Ventura de Cueto koronelak Bizkaiko Foru Aldundiari igorritako gutun batean errua «al paisanaje como amparador de los fugitivos» botatzen zion. Martxoaren batean ofizio bat bidali zuen herrietara, ihes egindakoei lagundu eta babesten zituenentzat zigor zorrotzak mehatxatzen zituena. Ekainaren 25ean berriro esan zen iheslariak hartu eta Bilbora eramateko<sup>88</sup>.

---

<sup>83</sup> Zumalde, I., *Vergara*. Donostia, 1970, 33. or.

<sup>84</sup> AHN, Consejos, 66. leg., 9. zkia.

<sup>85</sup> Zumalde, I., *op. cit.*, 33. or.

<sup>86</sup> AHN, Consejos, 66. leg., 9. zkia.

<sup>87</sup> Carrandi, F. Amador, *Catálogo de los manuscritos...* Bilbo, 1922, 22. or.

<sup>88</sup> Labayru, *op. cit.*, VI. libk., 108 eta 110. orr.

## Pertsonaiak

Agiri batek ere ez du zalantzan jartzen, eta askok baieztatu egiten dute, matxinatuak nekazariak izan zirela orokorrean, eta Bizkaian, batez ere, Bilbotik edo kostaldetik gertu zeuden elizateetakoak ziren.

Denak azaltzeko asmorik izan gabe, garai hartako testuek, une batean ala bestean, matxinadan nahastuta egon ziren honako lekuak aipatzen dituzte: Abando, Deustua, Begoña, Arrigorriaga, Galdakao, Basauri, Lezama, Etxebarri, Erandio, Sondika, Portugalete, Hiru Kontzejuak, Busturia, Mundaka, Algorta, Sukarrieta, Murueta, Forua, Bermeo, Barakaldo, Berango, Loiu, Ugao, Zamudio, Mungia eta Otxandio Bizkaian<sup>89</sup>; Elgeta, Bergara, Gatzaga, Eskoriatza eta inguruak, Aretxabaleta eta Arrasate Gipuzkoan<sup>90</sup>. Jaurerrian mugitu ez ziren errepublikaren artean Durango eta bere merindadea, Lekeitio, Arratiako merindadea, Orozkoko harana eta Enkarterriak zeuden<sup>91</sup>. Lekeitio izan ezik, gainerakoak barnealdean daude.

Sinatu gabe dagoen garai hartako kontakizunak zioenaren arabera, matxinatuak «aldeanos» eta «paisanos» ziren batik bat, baita «gente», «gentío» edo «pueblo amotinado y furioso» ere<sup>92</sup>. Enrique de Arana diputatua hartu zutenetik bakarrik esaten zaizkie mesprezuzko izenak: «chusma infame y cochina» eta «malhechores»<sup>93</sup>. Oro har, pluraleko hirugarren pertsonaren bidez aipatzen zitzairen: haiek... Bergaran 1725eko azaroaren 27ko data jarri zitzaion gutunean bakarrik deitu zitzairen *matxinatuak* («machinos») espreski<sup>94</sup>.

Geroago egin ziren epaiketei esker matxinatu gipuzkoarren gizarte-mailari buruzko zer edo zer badakigu. Matxinadan egin zituzten kalteak ordaintzera behartuta zeudela-eta, honakoak aipatu zituzten Bergaran, 1726ko otsailaren 4an: bere baserriko jabe zen Juan de Gorosarri buruzagi nagusia eta bere bi semeak; Arrasateko herriari altxa zedin gutun bat idatzi zion Antonio de Hereinozo —hau, lur etaazienda asko zuen etxe baten jabe zen—; Larrinon bizi eta bere baserriko jabe zen Juan de Bengoa, Alejandro de Agirreren balkoia apurtzeagatik; Bedoñan bizi ziren Juan de Padilla eta Juan de Arrasti —haiek baserrietako jabeak ziren—; Aretxabaletako Mateo de Uribe, maizterra eta pobrea zena; Aretxabaletako danbolinjolea, pobrea ere bai; Elgetako jendearen buruzagi zen Juan Ortiz de Orbesagasta; Elgetako Agustin de Echevarria, bere baserriko jabe zena; Elgetako Domingo de Egocheaga, bere etxeko jabea ere bai; eta Pablo de Lasarte —baina berari buruz ez da ezer zehazten—. Arrasaten burdinoletako

<sup>89</sup> Guiard, T., *op. cit.*, III. libk., 45. or.

<sup>90</sup> AHN, Consejos, 66. leg., 9. zkia.

<sup>91</sup> Guiard, T., *op. cit.*, III. libk., 45. or.

<sup>92</sup> *Ibidem*, 26, 26, 27, 29, 30, 31, 32, 36 eta 37. orr.; «aldeanos» lau bider agertzen da eta «paisanos» bi.

<sup>93</sup> *Ibidem*, 32 eta 33. orr.

<sup>94</sup> AHN, Consejos, 66. leg., 9. zkia.



ofizial pobre bati eta Manuel de Cenicaren etxea hartu zuten bi laguni egotzi zioten errua, eta ez zuten bi horien ondasunen berri. Gatzagan hogeita bat lagun zigortu zituzten; Eskoriatzan eta inguruetan, hemeretzi, eta Aretxabaletan, sei. Elgetan ezin izan zen jakin nortzuek egin zizkieten kalteak «pertsonei eta zein etxetan, egun horretan herritar gehienak ibili baziren ere»<sup>95</sup>. Guztira, hirurogeita hiru laguni ezarri zizkieten diru-zigorrak Gipuzkoan. Horiei buruz gutxi dakigu, baina esan dezakegu jabe nekazariak zirela oro har, eta bat burdinoletako ofiziala. Portugaleteko sindikoa kenduta, ez zen «kalitatezko pertsona» bat bera ere egon matxinatuekin.

Bestalde, matxinatuek «Aberriari traizio egindako pertsonatzat» edo soilik «traidoretzat» jo zituzten harrapatu nahi zituztenak, eta matxinatuekin zihoazen eta horien gogoia berotzen zuten emakumeek «pikarotzat» jo zituzten<sup>96</sup>. Ikuspuntu ekonomiko eta sozialari dagokienez, ez dago zalantzarik jende goren zela esateko: batzuk Bilbon bizi ziren, beste batzuk baserrialdeetan, batzuek noblezia-titulu garrantzizkoak edo Jaurerriko gobernuan kargu nagusiak zituzten, esaterako Bargas eta Rocaverde markesek, Enrique de Arana eta Miguel de Castañosek, Bizkaiko diputatu nagusiek; Nicolas de Echevarriak, «indianoak», eta Jose de Castañosek, Santiagoren ordeneko zaldunek; Juan Antonio de Jaureguibeitiak, Jaurerriko sindiko nagusiak; Gernikan erre zituzten Meceta etxeak Montefuerte kondeenak ziren; Martin Antonio de Escoiquiz Bilboko bigarren alkatea izan zen eta Gregorio de Esterripa oinaztarren bandoko lehenengo errejidorea. Zenbait merkatariren atzetik ere ibili ziren, esaterako, Diego de Allenderen lonjak erre egin nahi izan zituzten —Kontsulatuaren epaileetako bat izan zen Diego hau 1700etik 1725era—, edo Antonio de Alzaga, eta Juan Antonio de Jaureguibeitia aipaturiko sindikoa ere bai. Epaile horien artean, Francisco de Larrea eta Pedro de Recalde ere bazeuden eta horiei zenbait kalte egin zieten matxinatuek<sup>97</sup>. Allende eta Jaureguibeitia artilea esportatzen aritzen ziren, beste zenbait negozioen artean, eta lehenengoak kakaoa inportatzen zuten.

## Zergatiak

Hona hemen Guiarden iritzia: «[el] encendido sentimiento contra Bilbao y sus hombres [fue la causa de] los lamentables tumultos de septiembre de 1718, y en la machinada jugaron más la poquedad de entendimiento

---

<sup>95</sup> *Ibidem*.

<sup>96</sup> Guiard, T., *op. cit.*, III. libk., 26, 35 eta 34. orr.

<sup>97</sup> Batzuetan deitura bat bakarrik agertzen denez, ez dugu merkatariak ziren ziurtasun osoa, kointzidentzia izan zitekeelako; bestalde, horien izenak Guiarden liburuan lortu ditut: *El Consulado...*, II. libk., 511-519 orr., epailetza 1700etik 1725ra. Bertan hauteskunde-aktetan aipatutakoak bakarrik agertzen ziren eta baliteke, beraz, kaltetuen artean merkatariren bat gehiago egotea. Kalteak ordainduko zitzaizkien zerrenda Labayru, *op. cit.*, VI. libk., 142. orrialdean agertzen da.

de los aldeanos y la furia de sus pasiones, concitadas con perfidia para este efecto por quien tuviera la acción en ello, que no la defensa del Fuero o la exaltación de sus principios de libertad». Pentsaera jakin baten interpretazio tipikoa dugu; horren ustez, masen «irrazionalismoa» gutxiengo batek sutu egin zuen eta horretaz baliatu zen nahi zuen helburuetara eramateko, matxinatuen nahigabea justifikatzen zuen oinarri objektiborik ez baitzegoen.

Sagarminagak aipatu zuen orokorrean oharkabean pasatutako alderdi bat, baina 1804an berriro azalduko dena. Honek eginiko kontakizuna jauntxoaren gorenaren eta merkatarien arteko gatazkak azpimarratuz hasten da: «en Bilbao reinaba mucho la envidia», «los Mayorazgos tienen mucha emulación con los mercaderes», «que los mercaderes vivían mejor y con más conveniencia que los mayorazgos, y que esto no se podía sufrir». Errege-gobernua erabiliz, hiriko merkatarietara kalte egiteko jende gorenaren saialdi bat izan zen, baina aurreikusitako ondorioak baino gogorragoak ekarri zituen. Honakoa dio bere kontakizunak: maiorazkoak elkartu ziren eta «princiaron a disponer de los empleos, dándose el juzgado de contrabando a uno de su clase, que era sin duda Don Lorenzo de Sierralta, y hasta escribieron a Madrid que los géneros de comercio entraban en Bilbao con perjuicio de las rentas reales, en vista de lo cual se resolvió enviar a Bilbao un administrador de aduana, con guardas de a pie y a caballo, que molestaron con sus extorsiones al vecindario». Horiek eta tabako-kontrabandoagatik sorturiko gatazkek eragina izan zuten jendearen gogo-aldartean eta «Gasteizen paper zigilatua jarri zutela eta Bizkaian ere Aduanak ezarriko zituzten zurrumurrua zabaldu zen»<sup>98</sup>. Gertaera eta zurrumurru hauek guztiak demografia eta nekazaritzaren ikuspuntutik oso gogorra zen harkada batean gertatu ziren.

Nekazarietara Jaurerriko gobernuan karguak zituen jende gorenari — diputatuei, sindikoari — eraso egiteak edo ziurraski maiorazkoa zen Martin Antonio de Escoiquiz Bilboko bigarren alkate ohia hiltzeak, eta Juan Jose de Larragoiti y Larragoiti lehenengo alkate eta merkatariari, berriz, bereziki kalterik ez egiteak honako hipotesia egiaztatzen du: zuzenean edo zeharka neurriaren arduraduna jende gorenari izan zela. Nekazarietara behintzat hala uste izan zuten.

Guiardek argitaratutakoaren arabera, eta horrexerri jarraitu diogu, 1718ko irailaren 14an begoñatarrek Begoñako gurutze geldiarenean aduanen mintzatu ziren eta ondorengoaz ere bai: «[el] modo con que se había de extinguir esta nueva planta contraria a sus fueros»; matxinadan Francisco de Sarraga, «Aduanen errua izan zuena, eta horixe zen aztertutako gaia»

---

<sup>98</sup> Sagarminaga, *op. cit.*, III. libk., 207. or., Guiard, *Villa...*, III. libk., 66. or. eta hurr., eta Lafarga, Adolfo, *Aportación a la historia social y política de Vizcaya. Siglos XVI-XIX*. Bilbo, 1971, 64. or. eta hurr., bertan azaltzen du matxinadaren kontakizun interesgarri bat.

behartzen saiatu ziren, eta Korrejidoreari sinarazi zizkioten paperen artean aduanak indargabetzen zituztenak zeuden. Gatzaren altxamenduan gertatutakoa ez bazen gertatu behintzat —gatzaren salmenta Errege Ogasunaren esku uztea erreboltaren arrazoietakoa bat izan zen, baina ez bakarria<sup>99</sup>— orduan, guztiaren arabera, badirudi aduanak kostaldera eramatea kausa nagusia izan zela.

Noski, baziren nonbait neurriaren erantzuleak Jaurrerian. Baserritarrek ez zuten inoiz horren zalantzarik izan, bai, Sagarminagak aditzera ematen zuen bezala, jauntxoek talde bat azpijokoen bidez horrela ezartzen lagundu zutelako, bai 1717ko abuztuaren 31ko dekretuak zioenaren kontra —hots, bizkaitarrek zuten salerosketa-askatasunei mugak ezartzearen kontra— gogor egin ez zutelako. Beharbada honakoa gertatu zen, 1631 eta 1634 bitartean bezala: batetik, jende gorenak, botere zentralarekin harreman onak zituenak, agian ez zuen kargu ofizial onak ematen zizkionari kontra egiteko interesik, eta bestetik, merkatariak beldur ziren ez ote zieten artilearen salerosketa Santanderrera aldatuko.

Jaurerriko nekazari askok aduanen kontrako jarrera izateak oinarri ekonomikoak zituen. Produktuak arrantza-portuetan lehorreratzean aduana-zergak ezartzen zitzaizkien hala bizkaitarren kontsumorako inportatutakoei nola Gaztelara eramatekoei. Hortaz, zeharkako zergen gehitzea suposatu zuen Jaurerriko biztanleentzat. Horregatik leporatu zioten ondokoa matxinatuek Enrique de Aranari: «les quería hacer pecheros»<sup>100</sup>. Garbi zegoen, eta matxinadak agerian jarri zuen, arrantza-portuetako eta kostaldeketik gertuen zeuden nekazaritzaguneetako lagunek pentsatu zutela neurriaren ondorio handienak jasango zituztela, horiek behar baitzituzten gehien zitu, bakailao, arropa eta beste hainbat produktu. Horregatik logikoa da Durangoko merindadeetan, Arratian, Orozkoko haranean eta Enkarterrien ekialdean matxinadarik ez izatea: barnealdean zeuden eta aletan nolabaiteko buruaskitasuna zuten —Orozko—, edo Arabak —Arratia eta Durango— eta Burgosek —Enkarterriak—hornitzen zituzten zituz.

Bergaran eta inguruko zenbait herritan eta Otxandion izandako jarrera bortitzaren funtsa, errege-soldaduen etorreraren aurrean eginiko erresistentzia izan zen, berandu altxatu baitziren —azaroaren hasieran—. Horregatik esaten zen Gatzagak mugara joan behar zela Probintzia eta foruak defendatzera.

---

<sup>99</sup> 1718ko hasieran, 1716ko ekainetik aurrera egindako hitzarmen-liburuak erre zirenez —honen berri ez du kontakizun batek ere ematen—, ez dugu jakiterik, zeharka behintzat, ea beste aldarrikapenik izan zuten. Labayru, *op. cit.*, VI. libk., 84. or. Ia mende bat beranduago, *Paseos por Bilbao, o cartas familiares sobre esta Villa*, Bilbo, datarik gabe, baina c. 1800eko liburua-aren egileak matxinadaren inguruan honakoa dio frogarik eman gabe: «Un motín de las aldeas de Vizcaya contra los propietarios...», eta ideia hori ezin da baztertu Bilboko inguruetako elizateetan zegoen maizterren gehiengo nabarmena zela-eta.

<sup>100</sup> Guiard, *op. cit.*, III. libk., 31 eta 32. orr.

## Ondorioak

Zigortzea eta amore ematea izan zen Koroaren prozedura, 1634an bezala, Bizkaiko jauntxoek jarrerarekin bat etorrita zalantzarik gabe. Jende gorena irailaren 6an, asteartean, hasia zen matxinatuak hiltzen: «ikasle, artista, gramatiko [konpainia bat] bere kapitain eta kaperauarekin» Abandoko elizatean ibili zen eta gizon bat harrapatu eta garrotez hil zuten. Labayruren kontakizunean ez da *zehaztasun* hori aipatzen eta honakoa esan zuen elezuriz hilaren 6an atxilotutako nekazariari buruz: «se les hubiera ajusticiado, si la sazón del tiempo lo permitiese»<sup>101</sup>. 1719ko urtarrilean hamasei lagun garrotez hil zituzten Bilboko kartzelan, eta gorpuei burua moztu zieten Plaza Zaharrean<sup>102</sup>. Rocaverde markesaren eta Juan Antonio de Recalderen hilketengatik, Eskoriatzako lagun bat eta Otxandioko bost hil zituzten; Bilbo eta inguruko gertakariengatik, Abandoko hiru, Barakaldoko bat, Galdakaoko bat eta Lezamako beste bat; Bermeoko heriotzengatik, Muruetako bi lagun eta Busturiako beste bat, eta Portugaleten gertatutakoarengatik, sindiko bat<sup>103</sup>. Jaurerriko zenbait herritan eta hirian bertan jarri zituzten hildakoen buruak. Beste batzuei kartzela-zigorra ezarri zitzairen eta matxinada izandako herriek, hogeita hamalau bat, kalteak eta kostuak ordaindu behar izan zituzten. Gipuzkoako gorenen ustez, errepre-sioa ez zen nahikoa izan. Urte asko pasa eta gero, 1755ean, honakoa idatzi zuten Bergaran: «Estos delictos... [los de 1718] quedaron impunes, por causa de la guerra declarada el año inmediato por la Francia... Esta falta de castigo de aquellos delictos fue haciendo tan insolentes y atrevidos a los plebeios que formaron aquella sedizion y a los demás de su clase, que desde entonces han ido procurando deprimir la estimacion y respeto de la Nobleza y aun la autoridad de la Justicia Real...»<sup>104</sup>.

Hilabete berean argitara eman zuten aduanen inguruko Errege Agindu bat. Haren arabera, aduanak kostaldean mantendu behar ziren, baina ez zitzairen zergarik ezarriko bertakoek kontsumorako inportatu behar zituzten produktuei —kakao, azukre, tabako eta Indietako beste batzuei izan ezik, horien deskargua debekatuta baitzegoen— eta tabakoaren salerosketari<sup>105</sup>. Gero, 1722ko abenduaren 16an erabaki zen dekretu batek, 1723ko urtarrilaren 1etik aurrera aduanak barnealdera berriro eramateko agindu zuen<sup>106</sup>. Hurrengo urteko hitzarmen baten bidez, Jaurerrian libre sartu eta

<sup>101</sup> *Ibidem*, III. libk., 37. or. Lafarga, A., *op. cit.*, 69. or.

<sup>102</sup> Labayru, *op. cit.*, VI. libk., 110. or. Sagarmínaga, *op. cit.*, III. libk., 208. or.

<sup>103</sup> Labayru, *op. cit.*, VI. libk., 110. or.

<sup>104</sup> AHN, Consejos, 214. leg., Bergarako herriak Diego de Rojas y Contrerasi idatziriko gutuna, 1755eko apirilak 27.

<sup>105</sup> Errege Aginduaren data 1718ko abenduak 31 zen, baina 1719ko urtarrilaren 6an zabaldu zuten Bilbon; Labayru, *op. cit.*, VI. libk., 106. or.

<sup>106</sup> Guiard, T., *op. cit.*, III. libk., 59. or.

saleros zitezkeen bertakoen kontsumorako lehendik debekatuta zeuden produktuak: tabakoa, kakaoa, azukrea...<sup>107</sup>. Indultua geroago eman zuten; 1726ko abenduaren 22ko data zuen.

1718ko matxinada eta gatzaren altxamendua antzekoak izan ziren zenbait alderditan. Azken honen aurretik, lehengokoan gertatu zen bezala, gaizki ezagutu, baina ukaezinak diren tirabirak izan ziren, adibidez, 1714ko martxoaren 16ko Batzarrekoa. Zergen presio zuzenak edota zeharkakoak piztarazi zuen matxinada bietan. Bi astinaldi horiek agerian utzi zituzten gorenaren eta nekazarien arteko tirabirak, gorenek Koroarekin zituzten loturak, nekazariak probintziako gobernuarekiko zuten mesfidantza... Jakina, desberdintasunak ere baziren, batez ere matxinadan bilbotarrak ez zirela 1631-1634koan bezain gogotsu aritu. Dena dela, 1718koa iraganetik gertuago dago 1766 edo 1804kotik baino.

Matxinada horren eta 1766koaren artean bi gorabehera baino ez dira aipatzen: 1739an iskanbila bat izan zen Azpeitian bizimoduaren garestitzea zela kausa<sup>108</sup> eta 1755ean matxinada-saialdi bat Bergaran eta inguruetan azienda esportatzeko debekua zela-eta. Batzar Nagusian erabakitakoaren arabera, Gipuzkoako Aldundiak probintziatik azienda ateratzea debekatu zuen 1754ko abuztuaren 20an. Martxoaren 21ean honakoa zioen gutun bat bidali zien Aldundiak Segura, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga, Idiazabal, Zegama, Ormaiztegi, Ataun, Ordizia eta Berastegiko alkateei: «reconozco que se continua este fraude —ganadu ateraketa— de que proviene la grande carestia que se experimenta y también de que el ganado que se trae de Francia sirve de capa para extraer con el del Pais». Agindu hauek atera bazituzten ere, Segura, Bergara eta Arrasateko alkateak kexu ziren, izan ere, ziotenaren arabera, azienda gizendua esportatzen jarraitzen baitzen eta hainbat alkatek —horien izenak ez zituzten aipatu — baimen ugari ematen baitzituzten horretarako. Egoera horren aurrean, ondokoa eskatu zion Aldundiak korrejidoreari: «se sirva tomar las mas estrechas providencias que contengan este desorden». Korrejidoreak ikertzeko eta errudunak atxilotzeko ahalmena eman zion bere auzitegiko eskribau bati eta honek, martxoaren 31tik aurrera lau lagun atxilotu zituen Eskoriatzan, beste lau Arrasaten eta zortzi Aretxabaletan; Bergarako alkateak, bere aldetik, zenbait zituen preso baina ez zizkion eman. Apirilaren 11n, kostuak ordainduta, aske utzi zituzten denak eta egun horretan bertan honakoa agertu zen: «un papel sedicioso fixado en el Porttico de San Pedro de la Villa de Bergara» «que conmobia e incitaba a los vecinos de Bergara [...], Mondragón, Arechavaleta, Escoriaza y Salinas a que salgan sus habitantes prevenidos de armas de fuego en tumulto para con la violencia usar de la libertad del paso de ganado...». Aldundia

<sup>107</sup> *Ibidem*, op. cit., III. libk., 61. or.

<sup>108</sup> Odrozola, Imanol Elías, *Azpeitia y sus hombres*. Donostia, 1970, 41. or.

izutu egin zen 1718ko matxinadako herri berberak zirelako eta atxiloketak egiteari ekin zion. Manuel de Larrañaga Arizpe, paskinaren idaztean eta altxamenduan sartuta zegoena, honakoa esateaz akusatu zuten: «que ninguno podía ya valerse de su hacienda, y que antes que se madurasen las huvas sucedería algo como antes, aludiendo en esta expresion a la machinada que hubo el año de 1718»; Gatzagako alkateak Juan Ibañez de Aguirianori, ateratzeko asmoa zuen lau idiekin etxera itzultzeko agindu zionean kexatu izana leporatu zioten; ondokoa esan zuela adierazi zuten: «[que] aquello hera handar contra la sangre de los pobres y que asi lo disponían los magnates de esta Provincia sin attender a las obligaciones de los labradores»; berak, noski, ukatu egin zuen.

1718ko matxinadaren oroitzapenak bizirik zirauen nekazari eta jauntxoen artean gertatu eta handik hogeita hamazazpi urtera, eta orduko gertakarietan bezala, jauntxoen eta nekazarien arteko tirabira agertu zen.

Aretxabaletan ondokoei bahitu zitzaizkien ondasunak: Esteban de Echevarria Manriqueri, bere baserria; Juan Manuel de Lizarralde Iregui baserriko jabeari; Martin de Bengoa Iturrioz baserriko jabeari; Felix de Ibarluce Arenaza Garaiko baserriko jabeari; Jose de Herrasti Añabarrieta etxeko maizterrari; Pedro Simon Urrutiari, Urtichi, Mendiarech, Flores, Barrutia eta Galartzako Santa Lutziako baserriak binkulaturik zituenari; eta Miguel de Zubia Jauregiko etxe erdiaren maizterrari. Errentari biak kenduta, besteek altzari xumeak zituzten orokorrean, baina nolabaiteko ongizatearen seinale zirenak: mahaiak, armairuak, arkak eta oheak. Berriro ditugu lur-sail txikien jabe ziren lau nekazari, bi errentari eta nekazari moduan lan egiten zuen maila txikiko maiorazko bat. Bergaran, hamaika nekazariri bahitu zizkieten ondasunak; horietatik ziur dakigu lau maizterrak zirena eta beste bat jabea. Gainerakoeiazienda, zituak eta altzairuak konfiskatu zitzaizkien. Ez zaigu zehazten zein egoeratan zeuden baina seguraski hauexek ere maizterrak izango ziren<sup>109</sup>.

## 1766ko matxinada. Atarikoak

Orokorrean, berrogeita hamarreko uztak onak edo oso onak izan ziren alderdi guztietatik begiratuta, hamarrenek eta prezioen beherakadak erakusten duten bezala. Hamarkada horretako bukaeran 1766 arte iraun zuen beherako zikloa hasi zen. Biasterin, 1765eko gari-uzta, 1766ko prezio altuen erruduna, oso txarra izan zen; Otxandion, 1760, 1761, 1762 eta 1763ko gari-produkzioa ezin txarragoa izan zen, eta erdipurdikoa 1764 eta 1765ekoa; Arespalditzan, 1763an, bai gariarena, bai artoarena txarra baino

---

<sup>109</sup> AHN, Consejos, 214. leg. (3).

txarragoa izan zen, baina ez hurrengo bi urtekoak, arruntak baino hobeak izan baitziren; Gasteizen uzta txarrak 1762, 1763 eta 1764an izan ziren, pixka bat hobea 1765ean, eta 1766koa berrogeita hamarreko hamarkada-koak bezain ona izan zen. Beraz, Euskal Herrian prezioen eta uzta txarren arteko erlazioa ez zegoen mekanikoki loturik nonbait. Aleak biltegiari gordetzeak, espekulazioak eta erreserbak bukatzeak garrantzizko funtzioa izan zuten. Jesuiten kontakizunak krisiaren alderdi hauek nabarmenduko ditu.

Matxinadaren aurretiko urteetan espekulazio handia izan zen. 1764an 500 anega arto baino gehiago eramán zituzten Azpeitira nekazarien eta jende ofizialaren lasaitasunerako, baina «herri xehea» honetaz kexatzen zen: «que de un mismo genero de trigo que se entrega a los Molineros estos vuelven la harina correspondiente con desigualdad y calidad», eta horren ondorioz udalak debekatu egin zien errotariei «irina saltzea... Herriaren bidezko kexaren jatorria izateagatik»<sup>110</sup>. 1766ko urtarrilean 15 ontzako ogia lau kuarto eta erdian saltzen zen «kontuan izanda gariak zuen prezioa» eta labezainek behar baino gehiago kobratzen zuten erretzeagatik. Olioak ere gora egin zuen eta haragi-hornidurarako eskaintzailerik aurkeztu ez zenez gero, eskaintza bakarra onartu behar izan zuten, libra bakoitza zazpi kuartotan. Apirilaren 2an Udal-bihitegiak 48 anega 37 errealetan saltzea erabaki zuen eta honakoa eskatu zien ohiko ale-saltzaileei: «se sirvan decir que cantidad tienen actualmente para este efecto». Handik bost egunera, Udal-bihitegiak 60 anega gari erosi berriak jarri zituen salgai Azpeitian 38 errealetan eta hilaren bederatzian Donostiara jo zuten 200 anega gari eskatzeko<sup>111</sup>. Gorabehera hauek izan ziren bitartean, ale-tasa kendu eta aleen salerosketa librea utziko zuen Errege Pragmatika irakurri zen.

Azkoitian, 1765eko urtarrilaren 13ko udalak onartu zuen ogi-ontzetan iruzur ugari egiten zela «por no llegar a las diez y seis destinadas la libra de pan con pretexto de correr el precio del grano muy caro y ser el precio de esta tres cuartos». Urte horretan, ekainaldean, maistrak, gutunak eramaten zituzten Azpeitiko langileek bezala, kexa hau zuen: «exiguo estipendio [debido a la] carestía de bastimentos»<sup>112</sup>. Garai berean protestak izan ziren esportazio librearen eta zeharkako zergen gorakadaren aurka.

1765ean Donostiako uzta-biltzaileek sagardoa oztoporik gabe atera nahi zuten hiritik, aurreko urteko uztak 17.000 kargak gainditu zituela argudiatuz. Asmo horien kontra zeudenek bi argudio zituzten: sagardoa ateratzeko justiziari baimena eskatu behar zitzaiola zioen 1690eko ordenantza eta ateratzea onartzeak pobreak kaltetuko zituela, egun batetik bestera

---

<sup>110</sup> Azpeitiko Udal Artxiboa, 1754ko abenduaren 27tik 1764ko abenduaren 26rako akta-liburua, 409. or.

<sup>111</sup> *Ibidem*, 1765eko urtarrilaren 1etik 1770eko abenduaren 31rako akta-liburua, 19, 20, 47, 53, 58, 59, 60 eta 62. orr.

<sup>112</sup> *Ibidem*, 6. or. atz.

erosten baitzuten eta sagarrek produzitzen ez zuten urtean, bi urtetan behin, garesti ordaintzen baitzuten, beste batzuk, uzta ugaria zegoenean, prezio baxuak ordainduta bi urtetarako hornitzen ziren bitartean. Modu zuzenean ez bazen ere, kleroaren kontra ere jo zuten zegokion hamarrena landu gabe saltzen zuen-eta, baina hamarrenen errentariak ziren erasotakoak «horrela erosten dutenek irabazi eta etekin ikaragarriak lortzen dute» eta. Sagardo-biltzaileen erantzuna, Foruak eta Donostiako Ordenantzen 6. kapituluak ateratzeko baimena ematen zutela izan zen eta lortu ezean, hauxe egingo zutela esan zuten: «se retraeran del cuidado y cultivo de sus manzanales y destinaran las tierras a otros fines, que les sean más útiles y favorables»<sup>113</sup>. Matxinadaren urte berean, Portugaleteko lagun batek, Jorge Cotarrok, honakoa leporatu zien kapitularrei: «de muchos años a esta parte an impuesto anualmente crezidas exorbitantes sisas en los vinos foraneos de pasto comun y generosos, 30 rs. vn. en cada barrica de aguardiente de Francia, de q. hay mucho consumo por ser Puerto de mar y obligar al Probededor de carnes a pagar un tanto de adeala anualmente y 50 ducados por dejarle pastar ganado en la sierra de Pando...», ardo-zahagi bakoitzaren pisua bi kuartotan kobratzen zutela, 1744az geroztik aipatzen zituen hainbat leku eta lur publikoak saldu zituztela, dena errege-baimenik gabe, eta azkenik, udalbatzak irekiak izan zitezela eskatzen zuen biztanle guztiak joan ahal izateko «ohikoa eta ohitura izan den bezala». Lekukoek lur-salmentak berretsi zituzten, nahiz eta garrantzia kendu gaiari; honakoa esan zuten: «[eran] unos pedazos de montes o peñascos cargados de zarza y maleza»<sup>114</sup>.

Portugaleten, orduan ere, mahastiak landu eta txakolina egiten zen. Biltzaileek, normalean kontzeju-karguak izaten zituztenek, zeharkako zergak euren ardoak babesteko erabiltzen zituzten, kanpotik zetozenei zerga ezarriz. Kontsumitzaileek ordaintzen zituzten euren mahatsondo ez-lehiakorrak. Zergen inguruko desberdintasun horiek gaizki ikusita zeuden eta, horren aurka azal ez zitezen, udalbatza ateak itxita biltzen zen.

Protesta hauetako asko matxinatuen eskaeretan zeuden: hornigaien krisiak agerian utzi zuen herritarrek lehendik egindako aldarrikapen guztiak, eta 1766ko maiatzaren 5ean erabakitako autoak kontuan hartu zituen neurri batean.

Herri hauek hartu zuten parte matxinadan: Gipuzkoan Azkoitia, Azpeitia, Elgoibar, Deba, Mutriku, Ataun, Beasain, Eibar, Getaria, Hernani, Arrasate, Soraluze, Ordizia eta Zarautzek; Bizkaian Berriatua, Ereño, Naxitua eta Ondarruko inguruko herriek, behintzat. Vilarrek besteren bat gehitzen du, baina gure dokumentazioan ez dira aipatzen; Irun esaterako<sup>115</sup>.

<sup>113</sup> AHN, Consejos, 401. leg. (6), 27 eta 109. orr.

<sup>114</sup> *Ibidem*, 558. leg., 18. zkia., 2, 60 atz. eta 89. orr.

<sup>115</sup> Vilar, P., «El motín de Esquilache», *Revista de Occidente*, 107. zkia., 1972ko otsaila, 238. or.



Geografiari dagokionez, Gipuzkoako iparmendebaldean eta Bizkaiko mugan zeuden herrietan izan zuen eragina matxinadak, baina adierazgarriena, matxinadan esku hartu zuten herrien nekazaritza-errenta eta bertako egitura sozioprofesionala aztertzea da (ikus beheko koadroa).

|                | «N»PCEG | B/km <sup>2</sup> | Biztanleak |
|----------------|---------|-------------------|------------|
| Ataun .....    | 122     | 32                | 1.941      |
| Azkoitia ..... | 121     | 69                | 3.864      |
| Azpeitia ..... | 134     | 55                | 3.910      |
| Beasain .....  | 193     | 44                | 1.106      |
| Deba .....     | 125     | 47                | 2.482      |
| Eibar .....    | 111     | 34                | 2.053      |
| Elgoibar ..... | 110     | 46                | 2.680      |
| Getaria .....  | 73      | 109               | 1.227      |
| Hernani .....  | 85      | 53                | 2.254      |
| Arrasate ..... | 83      | 74                | 2.303      |
| Mutriku .....  | 119     | 52                | 1.810      |
| Soraluze ..... | 109     | 96                | 1.356      |
| Ordizia .....  | 129     | 120               | 691        |
| Zarautz .....  | 122     | 100               | 1.496      |
| Gipuzkoa ..... | 120     | 60                |            |

«N»PCEG = «Nekazaritzako» per capita errenta gordina, errealetan.

Gipuzkoako herriei dagokienez, matxinadan garrantzi handiena izan zutenetik, hau da, hamalautik, erdiek nekazaritzako per capita gordina probintziaren batez bestekoa baino baxuagoa zuten eta bostena probintziakoa baino altuxeagoa zen. Zona hori, beraz, ale urrikoa zen edo hala moduz autohornitzen zen. Ikuspuntu sozioprofesionaletik begiratuta, lau arrantza edo kabotaje-portuak ziren: Deba, Getaria, Mutriku eta Zarautz, eta burdinolak Azkoitian, Beasainen, Hernanin, Elgoibarren eta Arrasaten zeuden; azken bi leku hauetan eta Eibarren Armen Errege-fabrika zegoen. Gogoratzekoa da artisauak, fabrikatzaileak eta beren familiakoek Arrasaten %45 osatzen zutela, Soraluzen %51 eta Eibarren %47.

Zona horren ezaugarriak zehaztuz, ale urrikoa zela eta biztanleetako asko arrantzatik edo burdingintzatik —armaginak, olagizonak, ikazkinak, orgagileak...— bizi zirela esan dezakegu. Jaten zituzten zituak Arabatik eta batik bat itsasotik jasotzen zituzten. Nekazaritza-produktuen prezioek gora egiteak eragin gogorra izan zuen soldata batetik bizi eta ia janari guztia erosi behar zuen jendearengan eta nekazari txikiengan, izan ere baliabide batzuk nekazaritzatik eta beste batzuk ikazkintzatik eta garraiaketatik atera behar baitzituzten. Hortaz, Labroussek deskribatutako eneredu-ko krisia dugu hau.

## Gertakariak

Zalantzarik gabe kontakizunik onena eta inpartzialena «Relacion de las cosas q. pasaron el año de 1766 en el Pleito de la Immunidad del Atrio de este R<sup>l</sup>. Col<sup>o</sup> de Loyola» delakotik aterako dugu: «En esta Provincia de Guipuzcoa el año de 1766 llegaron a valer los granos de manera, q. los pobres Oficiales de todas clases apenas alcanzaban con su trabajo para poder comer un poco de pan, o maiz. Subio el trigo a 40 rs. la fanega, y la de maiz se vendía a 30, y como el jornal diario no pasaba de quatro, o cinco rs., y muchos de ellos se hallaban cargados de bastante familia, y los años antecedentes havian sido tambien poco felices, llegaron a verse muy apurados. No era esto lo q. unicam<sup>te</sup> les afligía, sino q. iendo a comprar con el dicho precio una fanega de trigo, o maiz, los q. tenian los granos reservados con deseo de hacer, q. valiesen mas, respondian, q. no los tenian, y al mismo tiempo estaban despachando granos para la marítima. Todo esto sabian, y veian los pobres, y no hallaban modo de remediarlo. Sabialo tambien el S<sup>r</sup>. Vicario de Azcoitia D<sup>n</sup>. Carlos de Olascoaga, i el domingo 13 de abril predicó en su Parroquia con fervor, exhortando a aquellos feligreses q. tenian granos, para que no los extragesen fuera del Lugar por la necesidad, q. en el se padecia. No obstante esto el dia sg<sup>te</sup> 14 de Abril vinieron unas caballerias de fuera, a llevar granos, y al tiempo q. salian del lugar, viendolas unos Zapateros i Herreros, las detuvieron, y comenzaron a gritar *Alto Alto*. Estaban en la inteligencia, de q. con ocasion del Tumulto q. havia precedido en Madrid, el rei havia prohibido la extraccion de granos. Y assi juntandose sucesivamente mucha gente a los gritos de los primeros, cogieron las Caballerias, las llevaron a la Casa donde havian cargado, les mandaron descargar, y volvieron el dinero a los compradores. Repicaron despues las Campanas, y se junto mucha gente de los caserios. Llegaron tambien los Caballeros, y preguntandoles, q. pretendian, respondieron, el q. se abaratassen los granos. Pusose la fanega de trigo a 30 rs., y a 20 la de Maiz. Con esto se aquieto la gente, y volvieron a comer a sus casas. Por la tarde uno de los primeros q. se commovieron en Azcoitia escribió una carta a algunos Amigos de Azpeitia dandoles cuenta de lo q. havia pasado, y diciendo, q. estaban satisfechos y quietos. En Azpeitia noticiosos los Caballeros de esse alboroto, quisieron prevenirse, para q. los de Azcoitia no fuesen a alborotar el lugar. Llamaron a varios caseros de confianza, les dieron armas para defensa de la Villa, y de beber mui bien. Al anochecer sabiendo, q. los de Azcoitia estaban quietos, los quisieron embiar a sus casas. Los caseros preguntaron porq. motivo los havian llamado, y sabido, dixeron q. no eran de peor condición q. los de Azcoitia, y se alborotaron por el mismo motivo, pidiendo tambien la rebaja de granos. Dilatose la resolucion hasta el dia sg<sup>te</sup>., y con esto crecio el Alboroto.

Esta misma tarde el Alcalde de la Villa de Azpeitia, D. Vicente de Bazabal embio un recado al P. R<sup>f</sup> de esse Col<sup>o</sup> de Loiola Juan Bap<sup>ta</sup> Mendi-

zabal con un regidor suplicandole, q. le embiase los Oficiales q. trabajaban en la Obra, para defender la Villa. Convocó el P. R<sup>r</sup> los Oficiales delante del Regidor, y les propuso, lo q. le encargaba el Alcalde, y q. assi fuesen a tomar las armas para defender la Villa. Algun otro Oficial respondió entre dientes, q. todos eran interesados en la rebaja de granos. Con esto los dejó el P. R<sup>r</sup>. Es de notar, q. los Oficiales de la Obra de este Colegio no asistieron al alboroto de Azcoitia, ni al de Azpeitia, porq. el primero fue por la mañana, y el segundo por la tarde antes q. los Oficiales saliesen de su trabajo, y no obstante se oía hablar a varios, como si el Taller de Loiola hubiera sido el primer movil del Alboroto y los oficiales, q. en el trabajaban huviesen sido los primeros, q. se alteraron, siendo assi, q. no asistieron a su principio, ni hubo razon, ni prueba en los Autos, q. se formaron, para probar q. huviesen concurrido a algunos de los Concilios, q. se suponía aver auido en Azcoitia.

Acia las 7 de la noche comenzó a venir acia el Col<sup>o</sup> un gran tropel de gente con su tambor, y pífano de Azpeitia, Urrestilla i caseríos comarcanos. Juntos todos marcharon derechos a Azcoitia, para juntarse con los de aquella Villa, y volver a Azpeitia todos a conseguir la rebaja de granos. Llegados a Azcoitia alborotaron otra vez la gente q. ya estaba sosegada. Hablaron de quemar casas, i otras varias boverias, pero a nadie hicieron mal, y assi ni hubo quemas, heridas ni robos, q. suelen acompañar a los alborotos. Unicamente golpearon varias puertas, y cataron poco respeto a algunos Caballeros. Pero no debe causar admiracion esto en una gente, q. bebía vino en abundancia teniendo los Señores cuidado de esto. Despues de aver estado voveando i amenazando a varios, volvieron todos juntos a Azpeitia. En esta Villa pasaron la noche del mismo modo, q. en Azcoitia, amenazando, y hablando mucho, y no egecutando nada de lo q. amenazaban. Sacaron al Primiciero de Azpeitia de su Casa en Camisa, i no obstante averles disparado una escopeta, q. no prendió, no le hicieron mal alguno. Aqui egercitaron tambien la paciencia de varios Caballeros, pero sin hacerles mal alguno. El día siguiente 15 de Abril, se ajustaron las cosas, puso el trigo a 26 rs. la fanega, i la de maíz a 16. hasta Agosto. No havia dormido la gente la noche antecedente, y havia bebido vino en abundancia sin comer cosa de provecho, y assi comenzaron a entablar otras pretensiones disparatadas sobre diezmos i otras cosas. Quebraron las medidas q. se usaban aun contra el decreto del Consejo. Havia en estas dos Villas una medida grande para recibir los granos de las rentas, i otra medida menor para venderlos. Recogieron pues qtas medidas pudieron, i las quebraron todas, y pusieron una medida igual para tomar, y dar, lo qual aprobó o determino de nuevo el Consejo de Castilla. Ajustadas assi las cosas vinieron en accion de gracias con Procesion a la Iglesia de Loiola la Justicia, y Cabildo de la Villa de Azpeitia con una gran porcion de Machino; se cantó el Te Deum, volvieron tambien en Procesion, y emplearon lo restante del día en beber, danzar, y bobear sin hacer daño a nadie. En otros

varios lugares de la Provincia hubo también sus alborotos, pero todo se redujo a bobear, y hacer capitulaciones disparatadas propias de gente bien bebida, sin q. huviere auido en toda ella incendio, robo, muerte, ni herida alguna. Esta es en substancia la famosa Machinada o Alboroto de la Provincia de Guipuzcoa el año de 1766, q. metio tanto ruido en Madrid, y en otras partes de España»<sup>116</sup>.

---

<sup>116</sup> Loiolako artxiboa, lehenengo apalategia, bosgarren apala. Interesgarria den beste bertsi bat «Carta del padre Atanasio Esterripa al padre Isidro López» izenburua duen gutunean dugu: «Llegó ya en Guipuzcoa el precio de la cosecha hasta no llegar el jornalero a ganar con su trabajo para solo pan. hera ya cosa muy barata el edificar, porque con poco trigo, se pagaban muchos jornales. No acertaban ya los tasadores a regular Haciendas por la consideración del valor de los granos tan subido que consideraban como redito para su principal. No parecia ya sino que S. M. determinó por precio infimo el que sus piadosas paternas entrañas nunca permitirian por supremo. Los que tenian algun caudal solicitavan vendedores de Haciendas, siendo seguro el redito en la estimacion de la cosecha. No faltava comprador a pagar sin tasacion el principal que correspondia al redito q<sup>e</sup> producía. Los jornales se regularon al ofizial y peon al tiempo que se estimaba en Guipuzcoa a 22 rs el trigo, y el maiz a 12 rs estos parece heran los precios que los Alarifes tenian presentes para toda regulacion, y por eso los precios establecidos, y recibidos comunm<sup>te</sup> no llegaban oy a darles pan. Ya los Aranzeles de escribanos y Boticarios no daban lo necesario para su porte [azkeneko esaldi hau zirriborratuta dago orijinallean].

Vehia la plebe que se tomaban providencias para abaratar la baca, que todos la han de comprar; pero que nada se prohibenciaba sobre la tasa del Pan. todo subia menos el jornal: he aqui la piedra del escandalo. Ya renobaban la descompuesta memoria de las dos medidas: la grande para recibir rentas, y la pequeña para la venta de las cosechas. Antiguam<sup>te</sup> en Guipuzcoa hera comun la medida grande, o de Mar, sin que hubiese otra medida; pero por ser la menor la de Castilla, y estar Guipuzcoa a sus Leyes, pesos, y medidas, se extablecio la pequeña, y se reserbó la grande para percibir rentas, pudiendose hacer la reducion; pero temiendo incombenientes en hacer novedad en rentas. No se admitió en S<sup>n</sup> Sebastian y los Puertos la medida menor por los motibos justos que tienen sin duda para ello.

La extracción de Granos de unos Lugares, donde no llega la cosecha propia para su mantenimiento<sup>10</sup>, hera otra piedra de excandalo para la plebe; y de un caso particular de estos tubo principio la comoción de Azcoytia el día 14 de Abril. Aquietose el mismo día a influxos del S<sup>r</sup> d<sup>n</sup> Mrn de Arizaga, y de otros cavalleros y sacerdotes de gran aceptacion en el pueblo. Pasó la noticia a la Ciudad, o villa de Azpeytia, y alli se armaron. Como en medio de ambas villas esta la Santa Casa, y Colegio real de Loyola adonde de ambas dichas villas y otras asiste mucha gente a travajar; Pasó la villa de Azpeytia un recado al P<sup>e</sup> Rector de dho Rl. Colegio por medio de un regidor para que mandase a sus operarios fuesen a tomar las armas. Estaban ya sus animos irritados por unos mensageros que dejaron la noticia de que decia Azpeytia no le dava cuidado aunque biniese toda Azcoytia, y como hauia de ambas villas entre ellos, y todos deseosos que se confirmase lo capitulado en Azcoytia que hera vajar el pan, y el maiz, respondieron no hirian no hirian a defenderles. Pero esto, como consta de algunos testigos, hera decir no defenderian como ni capitulasen lo que en Azcoytia; pero que combinando en sus capitulaciones, estaban prontos a defender la villa de muertes y de incendios.

Juntos los de ambas villas alborotaron una y otra. Amenazaban muertes, amagaban incendios, pero un pueblo alborotado se reducía al consejo de un sacerdote, o caballero de comun aceptacion. No parecia sino que tenian capitulado echarlo a voces, segun que siendo de noche, y bien bebidos, no trataban ni davan fuego. Amanecio el día 15 y como se capitularon los precios del trigo a 26 rs y a 16 del maiz: que se suprimiese la medida menor; que no se extragese grano, fueron de Azpeytia en procesion a su Paysano el Glorioso S<sup>n</sup> Ignacio de Lo-

Jesuitek gertakarien inguruan egindako bertsioan, txikitu egin zuten matxinadaren garrantzia, baina, lerro batzuk beherago onartzen den beza-la, matxinada horrek jende gorena beldurtu egin zuen zalantzarik gabe: «pero los caballeros, i gentes q. tenian q. perder estaban amedrantedos, i temerosos de cosas maiores, porq. la gente comun estaba orgullosa, i lo mandaba, o queria mandarlo todo a su gusto».

Matxinada Azkoitian eta Azpeitian hasi zen; azken herri honetan Errejimentua eta kleroa honako erabaki hauek hartzera behartu zituzten apirilaren 15ean: «que se fijaba en 26 reales el precio de la fanega de trigo, y en 16 el de la maíz, entendiéndose por fanega la mayor antigua. Que se suprimieran todas las medidas nuevas. Que se uniera a Azcoitia para pedir la igualación de todas las pesas de las alhóndigas y ferrerías en la primera Junta General. Que sin poner en almoneda, la primicia sea administrada por la villa. Que tanto en la villa como en Urrestilla, el aguardiente, la mistela, el aceite y el abadejo se vendan como antiguamente. Que no se extraiga grano de la cosecha de la villa. Que en jurisdicción de la villa pueda libremente ser cortada la argoma para abono de tierras. Que las tallas se examinen de corte a corte»<sup>117</sup>. Probintziak zituen prezioak merketzea

---

yola, donde se cantó el *tedeum*. Esta mañana entró nueva gente de refresco de la poblaciones de Urrestilla y Beyzama. Estos no contentos con lo echo, proponian sus capitulos particulares, y muchos perjudiciales al comun. Llegaron a Azpeytia y alli exercitaron la paciencia del S<sup>r</sup> Correxidor y demas señores con sus necedades; pero guiando el S<sup>r</sup> Corre<sup>x</sup> una danza con infinidad de gente de todas clases, dibirtio a los necios que se pagaban de berse admitidos en una misma Danza. Muy de dia se retiro la gente, pero no faltó los dias siguientes en el casco mismo del lugar, quien llebado de su mala crianza, y del vino que se daba de balde exercitarse a los buenos Caballeros. Llegó finalmente a los ocho días el fin de la cosecha que se recogió a la Alondiga: Alborotose de nuevo la gente al ber que se vendia el trigo de Mar a 35 rs haviendo aun mucho trigo en varias casas particulares. Les parecía traycion y querian representar a la villa, diciendo estaban prontos a pagar a coste y porte el trigo de Mar, pero que primero se havian de vender a 26 los trigos que se ocultaban. No tubieron quien les escribiese, y llegó algun recado verbal, que se cuenta de muchos modos. Estubieron los caballeros en consternación hasta que llegó la tropa de S<sup>n</sup> Sebastian que estaba llamada sin este nuevo incidente. Esta hizo etc.

Para poner el trigo a 35 rs. se dividieron los señores en pareceres. No faltó quien como en Tolosa propuso que los trigos del Mar se vendiesen a los 26 rs y que el exceso se partiese la mitad a la republica misma, y la otra por repartimiento a los vezinos. tampoco faltó quien propuso que los trigos que tenian en sus casa de diesen a los pobres a 26 rs. y comiesen los acomodados que vendian, del trigo del Mar; pero prebalez<sup>o</sup> el de 35 rs alegando ser mal exemplar. Por ultimo se expone el motibo del tumulto con un sermon que dijo un zapatero (que lo hizo varias vezes en otros asuntos como Bufon en Azcoytia) publicamente: Que el ahujero de la abaricia hera antiguam<sup>te</sup> muy pequeño, y que pocos cahian por el en el Infierno: que estos ultimos años se abrio mucho, y cahian infinitos, y que entre ocho herremos, y tres zapateros cerraron aora del todo el tal ahujero, con abaratar el pan, y suprimir la medida.»

SAO, Gracia y Justicia, 777. leg.

<sup>117</sup> Múgica, G. de, *Monografía histórica de la villa de Eibar*. Irun, 1910, 33. or., 1. oharra.

onartu zuen<sup>118</sup>, baina horrela ere ezin izan zituzten matxinatuak baretu. Hilaren 15eko iluntzean, Elgoibarren lehertu zen matxinada: etxeetako bihitegiak arakatu egin zituzten, atek bota eta apaizak eta aitoren semeak denen aurretik ibiltzera behartu zituzten, jendetzarekin nahas ez zitezen eta jendeari aurrera jarraitzeko asmoa ken ez ziezaioten; hurrengo egunean bakarrik jaitsi ziren inguruetako nekazariak. Udal berrian bildurik, jauntxoek zenbait kapitulazio sinatu behar izan zuten eta ordenantza zaharrak erre<sup>119</sup>. 17an bertan hasi ziren istiluak kostaldeko portuetan eta, Mutrikun, udala eta elizaren kabildoa hainbat erabaki hartzera behartu zituzten. Erabaki horiek Azpeitian sinaturiko aldarrikapenei beste berri batzuk erantsi zizkieten:

- Aleen prezioa jaistea.
- Zituen neurriak murriztea.
- Kleroak sakramentuak emateagatik zergarik ez jasotzea.
- Hasikina enkantean ez ateratzea, «horren administratzaileari %10 ordainduz».
- Kontzejuko gaztainaren hamarrena eta txerri-taldearena ez ordaintzea.
- Apaiz batek ere bi kaperautza baino gehiago ez izatea.
- Erretoreak zortzi erreal bakarrik jasotzea ezkondeia emateagatik eta senar-emazteei laguntzeagatik.
- Benefiziodunak astean zehar eguneko edo gaueko edozein ordutan irtetea hiltzorian zeudenei laguntza ematera<sup>120</sup>.

---

<sup>118</sup> AHN, Consejos, 535. leg., 11. zkia., «Autos formados en el Consejo sobre el exmero del Ayuntamiento y vecinos de Elgoibar en la Provincia de Guipúzcoa en reprimir el levantamiento repentino que los sorprendió de los turbulentos sediciosos». Probintziak hilaren 17an hauxe erabaki zuen: «[por una] Orden circular que en su distrito se vendiese el trigo a veinte y seis Reales, y a diez y seis el maíz», baina horrela ere ezin izan zituzten matxinatuak baretu. «[Según la] Relación Individual y Justificable en lo necesario de lo que me pasó el día diez y siete de Abril del año arriba dicho [1766] A mi Pedro Ignazio de Garagarza vecino de la villa de Elboybar Dueño y Poseesor de la casa solar de mi apellido y vínculo, el día dicho. En la sala conzejil de la Espresa villa [el tumulto se produjo] en la calle [por falta de] Biberes comestibles [y] de leña para fogatas del vecindario común». Matxinatuak hurrengo egunean elkartu ziren Kontzeju Aretoan eta Muskiritxu mendiko «sutarako herri-lurretako egurrari» buruz eztabaidatu zuten eta herri-lurretako egurra egitea askea egin nahi zuten urte gutxi batzuk lehenago bezala. Jesús Arpalen hitzetan, Pedro Ignacioren bere lurretan «beharrezko guztia» zuela eta ez zuela guztien ongia zaintzen leporatu zitzaion. Dokumentua Jesús Arpal Pobladorrek utzi dit atsegin handiz, *Los Garagarza*, litzentziatura-tesi mekanografiatua, 78 eta 79. orr. Ikus daitekeenez, hornigaiaren krisiari esker aldarrikapen eta tirabira ugari gelditu ziren agerian, bestela inoiz ezagutuko ez genituzkeenak. Nahiko garbi dago aberatsek arbolak hazten utzi eta basoa epe luzean ustiatu nahi zutela etxe, ontzi eta abarretako zureria egiteko, eta pobreek egunero egurretarako. Zehaztasun interesgarri gehiago izateko, ikusi Arpal Poblador, Jesús, *Los Garagarza de Elgóibar*, Donostia, 1973, 73. or eta hurr.

<sup>119</sup> Vilar, P., *ibidem*, 240. or.

<sup>120</sup> Camino y Orella, J. A., *op. cit.*, I. libk., 315. or.

Zerrenda hori ez dago guztiz osatuta. Apirilaren 25eko data zuen Arrasateko gutun batek eskakizun gehiago gaineratu eta beste batzuk zehaztu egiten zituen: «Que no se pague el Diezmo de la Castaña y manzana, q<sup>e</sup> del trigo y maiz se aparte primero lo que se siembra, que los Clérigos no salgan de casa despues de ave maría, que si algun Clerigo caiese en pecado de fragilidad, le capen a la 3<sup>a</sup> publicamente, y han echo firmar este Capitulo a los Clerigos de Deba.

Que a la moza q<sup>e</sup> cayese una bez, solo se le den 30 Ducados, a la 2<sup>a</sup> nada, y a la 3<sup>a</sup> a Zaragoza. Que al que tiene dos Capellanias, se le quite la una»<sup>121</sup>.

Apirilaren 18an Elgoibar, Altzola eta Mendaroko 600 gizon armatu baino gehiagok jo zuten Bergararantz; Soroluzetik pasatzean «herritik eta Errege Fabrikatik indarrez hartu zituzten armez hornituriko 150 soroluzetar elkartu ziren haiekin». Hauen ihes egiteak eta Bergarakoen irteerak ihesean jarri zituzten matxinatuak. Bergarar batzuk, 150 soroluzetarrak eta Antzuolako konpainia bat ihes egindakoen atzetik ibili ziren gaueko hamarrak eta hamaikak bitartean. Espedizioa hurrengo goizeko ordu batean iritsi zen Soroluzera eta Gipuzkoako herri asko askatu zituen, baita Araba eta Bizkaikoak ere<sup>122</sup>, gertaerak nolabait moldatzen dituen Bergarako bertsoaren arabera. Urte horretako apirilaren 22ko notari-akta baten arabera, hilaren 18ko arratsaldeko hiru eta erdiak aldera Soroluzeko bi errejidore iritsi ziren Bergarara «a dar parte... de que los Amotinados de Elgoibar estaban en dha villa de Placencia y que estos traían por fuera y delante de ellos a varios vecinos de ella, pero que aseguraban que dhos vecinos de Placencia, aunque venían armados entrarían en paz y no cometerían extorsión, ni ostilidad alguna en esta expresada villa», eta halaxe izan zen, soroluzetarrak bake-bakean sartu ziren Bergaran eta bertako enparantzan honakoa egin zuten: «tendieron al suelo sus armas y vanderas victoreando a esta noble villa de Vergara». Baina Elgoibartarrek atzera egitearen eta Bergarako Udalaren jarreraren benetako kausak ez ziren oso garbi azaltzen. Matxinadaren ostean, Gipuzkoako komandante nagusiak, «Elgoibarrera itzultzean», Bergarako jatorrizko kapitulazioak aurkitu zituen honela: «puestas en forma auténtica al pie de un traslado concertado de las de Motrico por vía de adherencia a ella». Kapitulazio horiek errejidore batek, alkateordeak eta hiru elizgizon bergararrek sinatuta zeuden, alkatearen iritziz «[como] engaño artificioso para lograr la tranquilidad pública que se solicitaba»<sup>123</sup>. Herriak Probintziari apirilaren 22an idatzitako gutunak zehaztaper gutxi ematen ditu: «Resistime a dar entrada —Elgoibarko

<sup>121</sup> SAO, Gracia y Justicia, 1009. leg., 574. or., eta 567. or. ere bai.

<sup>122</sup> AHN, Consejos, 533. leg., 11. zkia., 9. or., Bergaran argitaratutako inprimaki batetik jasoa; gertakariak bere iritziaren arabera kontatzen ditu.

<sup>123</sup> TPA, lehenengo sekzioa, seigarren neg., 24. leg.

eta Mendaroko bailarako altxatuei, alegia— por dirigir sus pretensiones contra el estado eclesiástico, y temer no me vexassen, y hicieron fuga todos ellos en tropa, a excepción de trece, que he hecho prisioneros y los tengo asegurados...»<sup>124</sup>.

Eibarren «giroa lasaitu egin zen garia eta artoa Probintziak jarritako prezioan salduko zirela esanda» eta matxinadak iraun zuen bitartean, beste zenbait gertakariren artean, Martín de Rementería parrokiako apaizaren etxeari harriak bota zizkieten eibartarrek<sup>125</sup>.

Ataunen, hilaren 19an, Juan Antonio de Maizek, «tratulari eta merkataria, Beasainen bizi eta [bertako] hamarren batzuen errentatzailea zenak», Udalak eskatuta, «etxean zituen hamarrenetako» 130 anega arto eta 30 anega gari eman zituen eta herriko «jende behartsuari» saldu zizkieten tasan<sup>126</sup>. Eta probidentzia horrekin lasai eta bare geratu ziren, eta ez da inolako egonezinik sortu hemengo herritarren artean, idatzi zuen Udalak zini-koki, errentatzaile-merkatariari egindako presioa aipatu gabe<sup>127</sup>. Irunen neurri zaharreko gari anega 30 errealetan eta arto anega 20tan saldu zituzten matxinatuak bertara joango ote ziren beldur; Amezketan nahikoa izan ziren hiru matxinatu Probintziaren 17ko zirkularrarekin garia 26 errealetan sal zezaten; Astigarragako kapitularrek honakoa egin zuten: «intimaron [al perceptor] para que los maices que tenía a diezmo, no [los] extragese y [los] diesse a los de este pueblo... a los precios vajos, que en Azpeitia se habian señalado»<sup>128</sup>. Getarian, hilaren 20an, hauxe gertatu zen: «[penetró] una muchedumbre de hombres armados de escopetas, palos y otras armas (en numero de mas de 400 de solos forasteros, de los lugares de Zumaya, Deva, Motrico, Zestona y sus jurisdicciones)» eta hurrengo egunean, goizean irten ziren. Beste hainbat lekutan bezala, udalari, bikarioari eta gainerako benefiziiodunei kapituluak sinarazi zizkieten. Gaizki tratatu bide zuten Manuel de Agote errejidorea «que de resulta se halla en cama, [acusándole de que] las medidas grandes de los granos se achicaron por el hallandose con la vara»<sup>129</sup>. Ataunen honakoa gertatu zen: «luego que se tomo la providencia de prohibir qualquiera extracción de granos y que el trigo se vendiese a veinte y seis rs. y el maíz a diez y seis por cada fanega... quedaron tranquilos y sosegados», baina arrazoi horregatik bildu zen udalbatzan «me insinuaron —idatzi zuen alkateak— dhos mis individuos, se hallavan descontentos por haverse achicado las medidas

---

<sup>124</sup> *Ibidem*.

<sup>125</sup> Mújica, G. de, *op. cit.*, 32 eta 33. orr.

<sup>126</sup> TPA, I. sekzioa, 6. neg., 24. leg., Ataungo herriak Probintziari urriaren 5ean idatzitako gutuna, aipatu Maizek tasaren eta merkatuko prezioaren arteko diferentzia —36 erreal garia eta 33 artoa— eskatzen zuena.

<sup>127</sup> *Ibidem*, Ataungo herriak apirilaren 19an Probintziari idatzitako gutuna.

<sup>128</sup> *Ibidem*.

<sup>129</sup> *Ibidem*, Getariako herriak apirilaren 22an Probintziari idatzitako gutuna.



del vino y deseavan se arreglasen a los padrones que antes se usavan en mi distrito»<sup>130</sup>.

Araban, hutsala izan bide zen altxamendua: P. Vilarren ustez, Gasteizen zenbait mehatxu izan zen, eta Aramaion «se empezó a alborotar la gente ruin pidiendo que se abaratase el trigo». Dena dela, adibide esanguratsuenetakoa bat Arabako herri batekoa dugu, hots, Aguraingoa. Matxinadarik izan ez bazuten ere, gertu ibili ziren. Lekukoen arabera, Ignacio Perez de Albeniz izenekoak, hara kasualitatea!, errementaria bera, honakoa esan zuen antza: «que si viniesen a esta villa los tumultados o machinos que el saldría con mucho gusto a recibirlos». Istiluak gerta ez zitezten, gauero zaintza-lanak egiten hasi ziren: «todas las noches en los Portales de la villa, los que aun de dia estan cerrados a excepción de dos pero estos tambien se cierran de noche». Tentsioa handia izan omen zen zenbait egunetan, batez ere hiru paskin jarri zirenetik, lehenengoa alkateari zuzendua, bigarrena korrejidoreari eta hirugarrena prokuradoreari. Beraz, ia denentzat izan zen.

«Nadie lo quite. Señor Alcalde, Vmd como Hombre prudente procura no dar lugar, a que se pase hacer ninguna demostración pues consiste en Vmd. Y sera lo primero poner el Pan a un precio moderado, tambien el vino, y carne, que asi encargo el Señor Regidor, donde no lo pagara Vmd como el. Y mas no dejar salir trigo de la Villa, pues asi, y no de otro modo estará Vmd bien, y nombrar compañero al rejidor, pues es chocho. Lo mas que se encarga a Vmd, es, que se ponga tasa al trigo, pues a no poner, será quemadas muchas casas de este Pueblo y desgracias.»

«Señor Regidor, Vmd no hace caso de poner el Pan barato, asi da Vmd ocasion, a que se le haga un corto servicio, a mas digo, que el vino se bebe muy caro asi no sera bueno, el que por hacer ricos al chanfuntre de el Gallego, y al burro de Geromo lo paguemos los del Pueblo, y como Vmd les deje llevar mas trigo a Logroño, sera Vmd bien castigado, ni menos a otro ninguno, quenta con eso, porque no savemos a comer cuernos, que tengo noticias, que Vmd ha dicho que los Pobres coman cuernos. A mas la carne manda Vmd bajar a lo rematado, que si pierde, no hubiera tomado, y si le tiene Vmd afecto, sobre Vmd la bolsa. Esto sera no tardando, por que sino me enojare con otros a una, valga y no firmo. etc. Nadie lo quite en tanto que se lea, tampoco a Navarra nada, ni grano pues no conviene.»

«Señor Procurador quisie el que Vmd estubiese en el Pueblo para decirle a Vmd cosas tocantes a Provincia, pero creo ya llegara a noticias de Vmd el que haga por que no salga de esta Provincia Trigo a Navarra. La machinada no sera aora despues sera.»

---

<sup>130</sup> *Ibidem*, Ataungo herriak apirilaren 19an idatzitako gutuna.

Ez zuten jakin nork jarri zituen paskinak, dena dela Pérez de Albéniz izenekoak alde egin zuen herritik, eta ondasunak bahitu egin zizkioten, nahiz eta, emazteak, lehenago, neskame baten laguntzaz, asko ezkutatu zituen<sup>131</sup>.

## Errepresioa

Jesuiten ustez, beldurrak «zaldunei eta zer bait gal zezaketenei eragin zien, Donostiako komandanteari gudaroste bat bidal zezan, jendea baretzeko alegia».

Apirilaren 22ko arratsaldeko hiruretan matxinatuen atzetik joateko prest zegoen armada txikia honakoek osatu zuten: «hasta mil paisanos armados con trescientos soldados del Regimiento de Irlanda», gehienak donostiarrak gehi Errenteriako hiribilduko jendea, Oiartzungo bailarakoak eta Irungo unibertsitatekoak. Egun berean, Oñatitik matxinatuen kontra jotzeko eta behar zen lekura joateko prest zeuden 400 lagun armatu zedula idatzi zuten. «Milizia hiritar» honek, horrela deritzote gutun batean, ez zuen inolako erresistentziarik aurkitu, eta Inmunitatearen Auziaren arabera, Azpeitira heldu zen hilaren 24an «gizon armaturik topatu gabe». Loiolan ia ofizial eta peoi guztiak —hirurogeita hamalau— atxilotu zituzten eta probintzia osoan hirurehun lagun baino gehiago sartu zituzten kartzelan.

Gero, Koroaren eta Iberniako bi batailoi banatu ziren probintzian zehar. Ekainean, Iberniako bigarren batailoiak utziriko bi piketeei granadari-konpainia bat eta talde bereko hiru pikete gehitu zitzaizkien; «horien laguntzaz Justizia ondo administratuko da», aipatu zuten. Abenduan probintzia «baretasun eta lasaitasun osoan» zegoela oharrazari zuten.

Bitartean, maiatzaren 13ko ezohiko Aldundiak honakoa agintzen zuten hamar artikuluko dekretatu zituen: tasa kentzea, prezioan eta ale-salerosketan askatasuna berriro izatea, herriek egindako kapitulazioak baliogabetzea, aleetan zeuden neurri desberdinak kentzea, «justizien kontra, probidentzien kontra mintzatuko zen edozein emakume» mehatxatu zuten eta, azkenik, «que por ahora no se celebre ningún Aiuntam<sup>10</sup> Gral y que en ninguno de ellos se admita sujeto alguno, en quien no concurren las cualidades prevenidas por el fuero; esto es que se hallen en posesión de su Idalguía, y tenga los millares prevenidos por las ordenanzas»<sup>132</sup>.

Aldi berean epaiketei ekin zieten. Matxinaden autoak aztertzeko kontseiluak komisari izendaturiko Benito Antonio de Barreda probintziako

<sup>131</sup> AHN, Consejos, 429. leg., 17. zkia.

<sup>132</sup> Mutrikuko Udal Artxiboa; gutunak, Errege Aginduak eta despatxuak, 1747tik 1768ra, 418. or.

korrejidoreak eta Manuel Antonio de Arriolak honakoa proposatu zioten Errege Kontseiluari: «dos puntos para la mas pronta dezision de estas causas, el primero el que se les conceda destinar a el servicio de armas, o Presidios, a las personas menos visibles en el tumulto, y hacer condenaciones pecuniarias rematando las causas, despues de las confesiones, escusando justificazi3n m3s prolija y sin mas formalidad y el segundo que importar3a mucho que con Ynformes secretos, jurados y pedidos a Personas fidedignas y de su mayor confianza, pudiesen destinar a el servicio de armas o Presidios a toda Persona mal entretenida, ociosa, y perjudicial en las Republicas, sin mas proceso o auto, ante ess<sup>no</sup> que el de la condena, executandose esta, siendo proveido de conformidad, por ambos». Eta Probintziak ere ekainaren 22ko gutunean gomendatu egiten zituen bi puntu horiek. Ekainaren 30ean, Kontseiluak eskatutakoa eman zien... Eta jesuiten iritziaren arabera «presoei isun handiak ezarri zizkieten eta beste batzuk miliziarari bidali zituzten eta beste hainbat erbesteratu»<sup>133</sup>.

Zigor hauek, jende gorenak ezarri nahi izan zituenen aldean ez ziren hain gogorrak izan; ez zuten matxinadaren berri zuen Arandako kondearen jarrera zalantzan jarri: «mandar3 castigar con pena capital a los capataces»; izan ere, ondokoa egin nahi zieten, buruzagitzat jotzen zituzten Azkoitian eta Azpeitian harrapatutakoei: «los quieren ajusticiar all3 mismo, para lo qual dicen que han de formar consejo de Guerra a lo militar, cuio comandante es d<sup>n</sup> Man<sup>l</sup> de Arriola, que lo ha nombrado la Provincia, de las milicias de ella»<sup>134</sup>. Mata jesuitak aita Vitoriari idatzitako gutun batean zioenaren arabera, «jende gorenak» probintziatik alde egiteko mehatxua egin zuen, ezartzen ez bazen jendeak eskarmentua hartzeko moduko zigorririk<sup>135</sup>.

## Protagonistak

1766ko matxinada, Izu Handiaren eredia al da? Nekazarien interesei buruz ari al gara batik bat, P. Vilarrek dioen bezala? Zalantzan jartzekoa da; 1766 ez da 1789. «Menu peuples des villes et des campagnes» gosetia eta alderraia eta lapurrenganako beldurra falta dira eta batez ere izu handiaren ezaugarri bera: «que ces alarmes se propagent tr3s loin et avec une grande promptitude au lieu de rester locales»<sup>136</sup>. Egia da matxinadak zenbait herritan izan zuela eragina, baina hori 1718an ere gertatu zen. Matxinadaren gunetik urrunen zeuden lekuetaraino 25 kilometro baino ez zeuden

<sup>133</sup> Oin-oharrik gabeko testuen jatorria: «Relaci3n de las cosas que pasaron el a3o de 1766...» edo TPA, lehenengo sekzioa, 6. neg., 24. leg.

<sup>134</sup> SAO, Gracia y Justicia, 1009. leg., 572 eta 580. orr.

<sup>135</sup> *Ibidem*, 777. leg. (2).

<sup>136</sup> Lefebvre, G., *La grande peur de 1789*. Paris, 1970, 161. or.

zuzen joanda, 40 bat kilometro errepidetik. Eskualde batzuetan bakarrik jazotako gertakaria izan zen. Matxinatuek ia ez zuten beste altxamendu batzuei buruzko aipamenik egiten, Madrilgo eta Zaragozakoari buruz esaterako.

1766rako ez dugu ezta 1755erako genuen erruztatuen zerrenda labur bat ere<sup>137</sup>. Bestalde, matxinatuek zein interes defendatu zuten beren eskaerei esker jakin dezakegu gutxi gorabehera. Denek, aleen prezioa jaisteko edo, beste modu batean esanda, tasa jaisteko eskatu zuten. Baina labur ditzagun zertxobait erreklamazioak. Hauetan kontsumitzaileen eta erosleen interesak, hau da, artisaunenak batik bat, islatzen dira, baina baita baserritarrenak («q. del trigo y maiz se aparte primero lo que se siembra») eta behe-mailako nekazarienak, erdi-mailako nekazarienak, erdi-mailako egurgileenak eta erdi-mailako jornalarienak ere: tasa ezartzea, neurri zaharrak uztea, hasikinak enkantean ez ateratzea denak batzuen eskuetan pila ez zitezen, bertako uztako aleak ez ateratzea eta hainbat hornigairen prezioak jaistea. Kasu batean bakarrik azaltzen dira zuzenean olagizonek merkatarien aurrean zituzten interesak: burdinoletako pisu guztiak berdintzea; Calatayud aitik honakoa gaitzetsia zien ordurako bilbotarrei: «Que usan de un peso para recibir y comprar y de otro inferior, e infiel para dar... el quintal que reciben de ciento y cuatro libras, y algo de caída, que sube hasta ciento y diez, y al corresponsal le encajan el quintal con cien libras solo»<sup>138</sup>. Hirugarren eskakizun-mota pobreen interesekoa zen oro har, baina batez ere nekazari pobreena: kontzejuko gaztainaren hamarrena ez ematea (pobreen ogia), ezta txerrikumeena ere, udalerriko ote zuria mozteko askatasuna izatea, elizgizonei gutxi edo ezer ez ordaintzea eginkizun batzuen trukean: ezkondeiak, ezkontzak... Bi benefizio baino gehiago metatzeko debekuak zentzu bera zuen: apaizen irabaziak hobeto banatzea eliz saririk gabekoek sakramentu batzuk emateagatik dirurik jaso ez zezaten. Kleroari ez zioten hamarrenak eta hasikinak jasotzen zituztelako bakarrik eraso egin.

Kleroaren eta jauntxoentzatetik ibili ziren eta kapitulazioak batera sinatzera behartu zituzten mehatxupean. Matxinatuen jokoerak nabarian utzi zituen haien lotura estuak.

---

<sup>137</sup> Atxilotuek aurkeztutako lekukoen itaunketak matxinadan gehien bat artisauek hartu zutela parte defendatzen duen ideia baieztatzen du: «Al primer Capítulo dijo, que todos y cada uno de los reos que se hallan presos, por cuios Procuradores es presentado, son cristianos viejos, limpios de toda mala raza, hijosdalgo notorios de sangre, originarios de esta M. N. y M. L. Provincia, oficiales, carpinteros, canteros, herreros, zapateros y de otras labores, quietos y pacíficos y que han bibido con el sudor de su trabajo y sin causar notta, ni escándalo en sus respectivos pueblos, frecuentando los Santos Sacramentos y que no han sido procesados por donde el testigo sepa por muerte, incendio, tumulto, latrocinio, ni otro delito digno de sebero castigo». Beste lekuko batek, nekazariak aipatu zituen bukaeran: «oficiales, carpinteros, canteros, herreros, zapateros, sombrereros y de otras labores, y labradores». Dokumentua Alfonso Otazur utzi dit eta AHN, Consejos direlakoetan dago.

<sup>138</sup> P. Calatayud, *op. cit.*, I. libk., 219. or.

Klasearteko borroka? Paskinek eta idatzitako eskaerek interes argiak eta koherenteak azaltzen dituzte. Elkarren aurka zeudenek muga garbiak zituzten: jende gorena eta kleroa artisau eta nekazari pobreen aurka. Behe-mailako merkatarien —«el chanfuntre del Gallego» eta «el burro de Gero-mo» delakoak—, goi-mailakoen —gari-ateratzaileak— eta udalaren arteko loturak hinki-hankarik gabe salatu zituzten.

Juan Manuel de Zaldua y Munguiak, Donostian agertutako paskinaren kopia bidaltzean, honakoa zioen: «se añaden voces bagas de que contra capitulares, vecinos y negociantes, handa la jente bulgar, de los lugares bezinos, con quejas de la carestía de vastimentos, en tono de Amotinarse»<sup>139</sup>; izan ere, merkatariiek, errotariak eta gainerakoek espekulatu ahal izatearen arrazoiak hauexek ziren: hamarrenak errentan ematen zirela eta gorenek, errenta espezieetan jaso eta aldi berean alkate zirenek —Peñaflorida Azkoitiko izan zen 1765ean—, dena pilatu eta merkatariari saltzen zietela eta ezikusiarrena egiten zutela<sup>140</sup>. Artisauak eta maizterrek eurek ereindako garia kanpora zeramatela ikusten zuten eta, hamarrenaren edo errentaren bitartez, jauntxoak eta elizgizonen eskuetara pasatu eta horiengandik trafikatzaileei ematen zitzaizela. Agintariak berehala amore eman zutelako, ez ziren gutxi izan geldi egon ziren udalerrak. Donostiarrek, errepresioaren buru izan zirenek, hilaren 15ean, hau da, probintzian 17an ateratako zirkularra baino nahiko lehenago, zera dekretatu zuten, garia 35 errealetan saltzea eta sagardoarekin berdindu egin zuten bi kuarto pitxer lau kuartora merkatuz eta ogi egosia hiru kuarto eta erdi librako, «[quedando el municipio] al saneamiento y responsabilidad de la vaja echa en el trigo y pan a los comerciantes y posaderos». Berdin jarraitzen zuen guztiak; orain amore eman eta gero kobratu<sup>141</sup>. Talde menderatzailearen klase-kontzientzia askoz garbiagoa zen; nahikoa da irakurtzea Bergarako Udalak, bere iritziaren arabera, gertakarien gorabeherak deskribatzeko asmoz Fleignies kondeari bidali eta zabaldutako azalpen inprimatua, gorenek sistema barruan zein funtzio zuten bazekitela ikusteko: ezarritako ordena mantentzea. Bergararrek honela prestatu zuten defentsa: «ocupando las primeras filas los Caballeros del lugar», «Los Caballeros de Mondragón y los de Bergara, deseosos de señalarse en el servicio de la Patria, resolvieron perseguir a los tumultosos...»,

---

<sup>139</sup> TPA, lehenengo sekzioa, seigarren neg., 24. leg., apirilaren 15eko data duen Donostia-ko gutuna.

<sup>140</sup> Alegian, Udalak honakoa egin zuen: «[retuvo] los maizes del diezmo del barrio de Bedayo pertenecientes al marqués de Legarra que se hallaban en mi territorio y las cortas porciones que tenían el Rector y los dos Beneficiados de mi parroquia. Hasta el 12 de Mayo se vendió, a regañadientes, por todas partes, a la tasa». TPA, lehenengo sekzioa, seigarren neg., 24. leg.

<sup>141</sup> Behin baino gehiagotan aipatutako 24. legajoan honakoa azaltzen da: «Razón de los granos que por esta M. N. Ciudad [de San Sebastián] se han remitido a las Villas y Lugares de esta Provincia en atencion a la necesidad con que se allaban segun expresan sus cartas que se citarán abaxo, y importe de la diferencia que hubo de remitirles de 30 reales fanega a lo que efectivamente valian, asi como tiene satisfecha esta Ciudad a sus dueños».

«La mayor recompensa para los Nobles es tener ocasiones y motivos en que obstar lo generoso de sus espíritus»<sup>142</sup>.

Gatazkak bi esparru edo bi interes argi eta garbi mugatu izanak ez du esanahi matxinadan, batik bat hasieran, ilustratuen kontrakoek esku hartu ez zutenik. Donostian idatzitako paskina ez zuten nekazariak egin, izan ere, horientzat ez baitzen oso garrantzitsua izango Frantziak eta Italiak «Donostiako eta probintzia osoko salerosketa guztia kendu izana, eta oraintsu Espainiako lanpostu gehienak». Gainera, horixe dugu Esquilache-ren mutin madrildarra aipatzen duen idazki bakarra<sup>143</sup>. Elgoibarko Miguel de Arriola Azcarateri ezarri zitzaizkion zigorrak eta isunak, Afrikan lau urteko kartzela-zigorra eta 2.000 peso, matxinatuen artean aberats gutxi batzuk bazeudela egiaztatzen dute. Miguelen emazteak, Josefa Antonia de Muguruza y Zabalak, ondorengoa eman zuen aditzera: egia zela «que llebo quantiosa dote a dho matrimonio y que es de familia conocida y que su hermanos, marido y Padres han sido Alcaldes» eta maiorazkoak zituela. Zigorra jaso zuenak, halaber, onartu zuen bazuela «muchu hacienda y dependencias de que cuidar»<sup>144</sup>.

Vilarren hitzekin bukatuko dugu: «“iraultza burgesari”, despotismo ilustratuaren erara hartuta, benetan eraso bazioten ... 1766an, ondo defendatu zuen bere burua»<sup>145</sup>, herri xehearen aurrean behintzat, eta batik bat.

## Herri xehearen diputatuak eta pertsoneroak

Desfourneaux-ek adierazi zuen bezala, eta P. Vilarrek arestian gogorarazi, Esquilache-ren matxinadaren ondorioetako bat herri-diputatuen eta pertsoneroen karguak sortzea izan zen. Gipuzkoako gorenek, jakina, oztopo ugari jarri zituzten herriak aukeratutako pertsonaia berri hauek onartzeko. Probintziak neurri hori foruen kontrakoa zela uste zuen, baina Kontseiluak «1767ko maiatzaren 16an hartutako ebazpenaren bidez aurreko erabakia berretsi zuen...» eta Gipuzkoako urte bereko Batzarrek «Gipuzkoako herri guztietan obeditu eta bete behar zela erabaki zuten»<sup>146</sup>. Horrek guztiak hornigaien inguruan iruzurrak gertatu zirela onartzea zekarren, «por mala administración o régimen de los concejales». Egia da euren eginkizunak kontsumo-arazoetarako zirela bakarrik,

---

<sup>142</sup> AHN, Consejos, 533. leg., 1. zkia., 4, 11 eta 13. orr.

<sup>143</sup> Paskinaren kopia osoa liburu honetan ikus daiteke: Otazu, Alfonso, *El «igualitarismo» vasco: mito o realidad*. Donostia, 1973, 267. or.

<sup>144</sup> TPA, lehenengo sekzioa, seigarren neg. 24. leg., 1766ko irailaren 24ko data duen gutuna.

<sup>145</sup> Vilar, P., «El motín de Esquilache y las crisis del antiguo régimen», *Revista de Occidente*, 1972ko otsaila, 107. zkia., 226. or.

<sup>146</sup> Echegaray, C., *Compendio...*, 141. or.

baina dagoeneko ikusita dugu aberasteko modu bat hautamenen manipularioa eta hornigaien errematea zela. Neurri eraginkorra izan al zen? Hori zalantzazkoagoa da. Pertsonaia horien egoera guztiz desatsegina izan zen kontzejuan. Portugaleten 1770eko otsailaren 2an egin zen udalbatzan, herri-diputatuak eta sindiko pertsoneroa erremateei kargarik jartzearen kontra zeuden, kapitularrek bestela biztanle bakoitzak zerga ordaindu beharko lukeela argudiatu zutelarik. Arratsaldean, irekia izan zen kontzejuan, «herriaren etsai nagusienak» izatea leporatu zieten herri-diputatuei eta sindikoari eta, horregatik, zigorra jaso behar zutela esan zuten. «Herria suntsitu nahi zutela eta hobe zela zeuden lekutik kendu, eta balkoitik behera botatzeara...» oihukatu zieten. Lasaxeagoa zen beste pertsona bat, «gizonak ez zirela» esanez, «haiei besotik heldu eta kalera arrastraka ateratzearen» aldekoa zen<sup>147</sup>. 1786an, Bilboko herri-diputatuak, indiano aberatsa zena antza, erremate baten kontra jarri zen eta horren ondorioz, udalbatza osoa bere etsai bihurtu zen. Urte horretako apirilaren 18an honakoa idatzi zion Gizakundearen Hospizioko prioreari: «Mui señor mio. Ayer al medio dia, como expuse a V. P. a hora de las dos de la tarde, me informo el Sr Regidor d. Ignacio de Landaburu que el R. P. Predicador de ese Sto Ospicio fr. N. Ollero havia producido en uno de sus sermones predicados la proxima pasada quaresma en la Iglesia Matriz del Sr S<sup>t</sup>tiago de esta Villa, la sig<sup>te</sup> proposicion: “Unos hombre viles, ayer desconozidos, y sin camisa en el dia con 400.000 p<sup>s</sup> [pesos] save Dios como los han ganado en la America y colocados al frente de los honores publicos, en lugar de agradecer al Pueblo sus honores, siguen recursos vien extraños por lo que se hacen contemptibles y despreciables” y que advirtiendole que ella se dirigia acia mi persona, puse en noticia de V. P. para que hecho cargo del agravio indecoroso que havia causado a un Concejal de su Comunidad proveyese del remedio conveniente». Jakina, predikariak ukatu egin zuen, baina txostenak Errege Kontseilu Gorenera bidali ziren. Udaletxean bertan, Domingo Ignacio de Mendieta errejidoreak hauxe ezarri zion pertsoneroari: «[el] proverbio del capítulo 30, parrafo 3, n.<sup>os</sup> 21 a 23 de los de Salomon», eta pertsoneroak Galdakaon noble infantzoi jaio zela eta ez ziola Mendieta horri odol-garbitasunean amore emango esateaz gain, hauxe erantzun zuen: «Verdad es que mi Padre hera tan corto Propietario en Galdacano, que fui alimentado con Borona (Pan de Mayz), pero ni esto hace al caso para aplicarme por dicitario un lugar de la Sagrada Ec<sup>ta</sup> ni es vien visto traerlo a consecuencia en el Ayum<sup>to</sup> por un Concejal, tan impertinente»<sup>148</sup>.

<sup>147</sup> AHN, Consejos, 29222. leg., 14. zkia.

<sup>148</sup> *Ibidem*, Consejos, 1340. leg. Honakoa zioten Bibliako aipaturako bersetek: «Hiru gauza dira herrialde bat dardararazten dutenak, baita laugarren bat ere jasan ezin duena: errege bilakatzen den esklabua, jakia sobera duen txoroa, ezkontzea lortzen duen emakume zarpaila eta etxeakoandre bihurtzen den neskamea.»

## Izu Handirantz

«Que por diferentes repúblicas del Reino [de Navarra] se nos han hecho presentes los gravísimos inconvenientes, y perjuicios que sienten de que sus asuntos y negocios se ventilen y resuelvan en Concejos, como lo han tenido de costumbre; porque por los alborotos que regularmente ocurren no se vota con libertad, se falta al respeto debido a los del Ayuntamiento, y el número mayor, que suele ser de gente popular, vence y deja sin efecto los dictámenes de los más instruidos y que con cabal conocimiento atienden a la conveniencia y utilidad común: por cuyo motivo y el de no poder sufrir en algunas ocasiones la insolencia de algunos concurrentes dejan de acudir a los concejos, quedando estos reducidos en diferentes pueblos a la gente de la ínfima clase, y a veces a la voluntad de algunos de los vecinos, que por medios nada decentes se constituyen cabeza de todos...»

*Cuaderno de las leyes y agravios reparados...*, 1795. urtea.

Mendearen bukaera aldera iristen garen heinean, gizarte-tirabira areagotu egin zen, eskekoen eta delitu-kopurua handitu egin zen. 1766 eta 1804 bitartean ez zen herri-astinaldi bat ere izan, baina batean hemen, bestean han, batzuetan hornigaien espekulazioa zela —eta, beste batzuetan lur-banaketak edo ongarri falta zela— eta, tokian tokiko iskanbilak izaten ziren. Aberatsak, elizgizonak eta zinegotziak batzuetan ez ziren udalbatza irekietara joaten ausartzen. Egoera horren aurrean, krisi ezkutu eta luze horren aurrean, talde menderatzaileak, foruen legeei kasurik egin gabe, alfer eta gaizkileen kontrako lege latzak eman zituen.

Txikizkako salerosketa libre, tasarik gabea, herrietan iskanbilak izatearen ohiko arrazoietakoa bat izan zen. Egoeren arabera, kontsumitzaileak salerosketa askea izatearen edo tasaren aldekoak izan ziren. Beti beteko den legea egiteko asmorik gabe, esan daiteke produkzio eta salmenta urria edo monopolioa eta, beraz, espekulazioa zegoen lekuetan, herri-pertsoneroak sistema zaharraren aldekoak zirela —adibidez sagardoa Donostian—; aitzitik, produktu eta saltzaile ugari zegoen lekuetan, librearen alde zeuden —ardoa Gasteizen— eta, jakina, alkatea eta hornigaien errematatzailea nolabait elkartuta zeuden lekuetan ere bai.

Donostian, 1773ko abenduaren 11ko udalbatzan, herri-diputatuak «representó a sus mercedes q. se le han quejado varias personas de q. la sidra aguada se vende a seis cuartos el azumbre y la pura a ocho siendo asi q. el año último pasado hubo menos cosecha q. al presente y se vendió a los mismos seis cuartos la sidra pura y q. de este exceso se queja agriamente el pueblo... por lo q. suplico a la ciudad se sirviese tomar resolución q. hallare por conveniente teniendo presente la Real Provisión del año pasado de mil setecientos sesenta y cinco —merkataritza-askatasunarena— y el fuero de esta Prov<sup>a</sup> de Guipúzcoa —tasa—». 1765eko uztailaren 15eko Errege Pragmatikan eta 1767ko ekainaren 16ko Zedulan oinarriturik, gal-



detutako batek, uste zuenaren arabera, sagardo hutsari —aberatsek edaten zutenari— zegokionez, Foruen kontrako Errege Aginduak jarri behar ziren indarrean, baina ursagardoari —pobreek edaten zutenari— zegokionez, berriz, Foruen lehenengo kapituluko hogeita batgarren titulua errespetatu behar zen. Beste batzuk Errege Kontseiluari ea sagardo hutsa tasa zitekeen eta ordenantzek agintzen zutenari jaramonik egin gabe, ea ursagardoari urik ez botatzerik bazegoen galdetzearen aldekoak ziren<sup>149</sup>. Urte berean, hiri horretan haragi-horniduran zegoen espekulazioari buruzko oroitza-txosten bat bidali zioten Kontseiluari. Donostiako «haragi-horniduran zegoen errematatzaile-urritasuna» ikusita, hiriak berak administratu behar zuen arlo hori. Bat-bateko urritasuna eta prezioen gorakada saihesteko «ordezko hornigaiak» erosten zituzten zuhur; orduan, «quando se considera no haver ya peligro suele a cosa vista acudir un solo postor, y con cortta baxa del precio del a que venden los administradores, se lleva el rematte, la provision, junto con el importe del repuestto, y a pocos dias empieza la quexa del comun de carezer de la notable benttaxa que de la administracion lograba en la buena calidad y bondad de carnes, mucho mas apreciable y util que la corta baxa que el tal Postor haze de un quarto u ochavo en libra...». Agiri horren bukaeran, eskaintzaile onargarririk ez zegoenean haragi-horniduraren administraziora jotzeko eskatzen zen<sup>150</sup>.

Gasteizen, «duela urte gutxi arte», hamabi tabernatan bakarrik saltzen zen ardoa, eta bi errejidorek zehazten zuten prezioa zenbait ezaugarri aintzat hartuz: kalitatea, jatorrizko prezioa, garagarrarena, udal-zergen errekarua eta tabernariarentzako pegarreko hamabi marabediko ordainketa. Geroxeago «garraio salneurri finkoa» ezarri eta erabaki zen «sacar este a remate y que corriese bajo del pie a que se rematase dho porte para que con consideracion a el, a la calidad del genero y recargo de dros asignasen de la que se hubiese de vender por menor en las tabernas». 1784an, udaletxeak otsailaren 1etik aurrera hauxe betetzea erabaki zuen: «se diese libertad a quantos quisiesen para conducir y vender sin postura el vino clarete y a los precios a que los mismos conductores gustasen... bien que dho permiso o concesion fue con la reserva de suprimir la libertad siempre q<sup>c</sup> la ciudad reconociese no corresponder los efectos de su deseo». Neurri horien aldekoak herri-diputatuak eta prokuradore sindiko eta pertsoneroak ziren. Salmenta librea ezarri eta handik hilabete eta erdira «honen alde kaltegarria nabaritzen hasi zen» eta errejidore batek «ardoaren salneurriekin herri xehea jasaten ari zen kalte latzak» aipatu zituen martxoaren 18an. Errejidore horrek eta beste batzuek, otsailaren 1ean hartutako neurria kentzeko eskatu zuten berriro apirilaren 3an eta uztailaren 14an. Hona hemen horretarako ematen zituzten argudioetako bat: «por

---

<sup>149</sup> *Ibidem*, Consejos, 401. leg. (6), 20. orrialdea eta hurr.

<sup>150</sup> *Ibidem*, Consejos, 621. leg. (6).


este metodo hacen los arrieros y taberneros maiores ganancias encareciéndose por ellos el género». Kapitularren artean zeuden desadostasunak zirela-eta, «persona inpartzialez» osaturiko batzorde bat eratu zuten. Salmenta librearen alde atera zen, aurkakoez emandako kalkuluak ez zirela ziruditen bezain seguruak argudiatuz, alderantziz, kontuan hartzeko hainbat eragozpen azaltzen zituztela esan zuten, hala nola, garagarraren prezioak gora egin zuela azken hilabeteetan eta gainera «ohizkanpoko negua izan zela elurteengatik batez ere Errioxan» eta hala ere jendea horniturik egon zela<sup>151</sup>.

Eztabaidak udaletxearen barruan herriak parte hartu gabe izan ziren bitartean, bi taldeen arteko tirabirak aldeko eta kontrako argudioak ematean zeutzan, agiriei begiratzeko badiegu. Baina kontzejua irekia zenean, edo gehiegikeriak oso gogorak zirela-eta Errege Kontseilura jotzen zenean, tirabirak eta borrokak indarkeriaz beterik agertzen ziren.


1787an, Biasteriko biztanleak bertako ostalariaren kexu ziren eta haien ustez, gizon horrek Andres Garcia Almarza alkate nagusiaren «partzialtasuna eta babesa» zituen. Ostalari horrek, Miguel de Ayala izenekoak, «ardoaren artekaritza eta harategien hornidura» zituen eta ardo txarra eta haragi txarra ematen zituen. Herri-diputatua eta prokuradore sindiko nagusia honela zeuden 1786an: «intimidados de que con la sombra y proteccion de D<sup>n</sup> Manuel Gonzalez de Sn Pedro, Alcalde Mayor que a la sazón se hallaba de esta villa nada podia remediar...». Hauxe egin zuen prokuradore horrek, bi erlijiosoekin egon ondoren —«[dos] RR<sup>mos</sup> Religiosos de los mejores teólogos y canonistas de las Ordenes de S<sup>n</sup> Fran<sup>co</sup> y del Carmen descalzo» alegia—, Kontseiluko Gobernadorearengana jo zuen eta honek, ikerketa bat egin ondoren, erabaki zuen Miguel de Ayala «no pudiese ser corredor de los vinos de esta villa, directe o indirecte, ni Abastecedor de sus carnicerías...». Hala ere, Miguel de Ayalak, epaia eman zuteneko dataz geroztik, hau da, 1787az geroztik, harategien hornitzaile gisa jarraitu zuen lehengo moduan: «dando un Abasto de infima calidad y a precios mas superiores de toda la rioja, y sin embargo ninguno reclama del mal Abasto de carnes cerciorados de la estrecha amistad y publico trato que tiene el referido Alcalde mayor d<sup>n</sup> Andres Garcia Almarza, con el insinuado Miguel de Ayala, persuadidos al mismo tiempo de que deue de hauer entre los dos alguna inteligencia en el Abasto de carnes y acopio de muchos millares de cantaras de vino que ha comprado en estos años pasados, y en el presente dho Ayala; El mismo juicio se formó del Alcalde anterior a el actual que lo fue d<sup>n</sup> Manuel Antonio Gonzalez de S<sup>n</sup> Pedro, de que no podía menos de tener con el Expresado Miguel de Ayala sociedad en las compras y venttas de vinos que acopiaba este y aun el de

---


<sup>151</sup> *Ibidem*, Consejos, 1162. leg. (3), bigarren testigantza, 59, 60, 61, 63, 64, 65, 67, 72 eta 74. orr.




**Valladolideko Kantzelaritzaren Krimen Epaimahaiek  
1792tik otsailaren 1799ra arte epaitutako delituak**



**Euskal Herria. 1718ko matxinadan parte hartu zuten elizateak eta herriak**



**Euskal Herria. 1766ko matxinadan parte hartu zuten elizateak eta herriak**



**Bizkaia. Zamakoladan parte hartu zuten elizateak eta herriak (1804)**

provision de carnes, pues era tan intima la amistad que se profesaban los dos comiendo y veuiendo juntos que era de admirar... y concluido este el trino de Alcalde, tubo con dho Miguel de Ayala sus desavenencias sobre la sociedad que los dos hauian tenido, y ajustadas las quenttas de dha sociedad alcanzó el insinuado Miguel de Ayala el recordado dn Manuel Gonz de S<sup>n</sup> Pedro en la cantidad de catorze mill rs. de vellon...». Justiziarren eta burges berriaren arteko kolusio-salaketak ez ziren horrela bukatu. Ayala izenekoak Gipuzkoako errotariak gariarekin egiten zuten gauza bera egiten zuten ardoarekin: «usa de artificioso arbitrio de encarecer el vino con la mira de que se ausenten los Arrieros, y no concurran consiguiendo con este injusto medio el que los vecinos que tienen necesidad de venderlo para sus urgencias se lo vendan a el, y a su Eleccion a precio mas bajo de que se sigue la suspension y retraso de la ventta de la cosecha de los demas, y acopiando para si muchas cubas de vino que compra si buelben los Arrieros boluntariamente, o combocados rebende con preferencia a todos los que ha comprado logrando asi una excesiba y reprobada ganancia, y con esta regatonia y reventa se aumenta y crece la suspension de la venta de los demas cosecheros del vecindario perdiendose mucho vino que se debia vender a su deuido tiempo, de cuios superiores daños y perjuicios de la mayor consideracion se sigue la ruina de los Haciendados y sus casas...»<sup>152</sup>.

Guenesen, Enkarterrietako herrian, kontzejuak irekiak ziren eta deitzen ziren «a ynstancia de los syndicos, y de mandatto judicial de los Alcaldes y por edictos fijados a las puertas de las iglesias, con expresion de los puntos y mediacion de dia festivo para otro, a no atravesarse assumpto q<sup>e</sup> no permita dilacion, por q<sup>e</sup> en estos se les llama por el Ministro y por casas». Beraz, herri osoa joaten zen eta aztertuko ziren gaiak alde zuretik zehaztuta zeuden. 1779ko martxoaren 25eko kontzejura biztanle gutxi joan zen eta horregatik utzi zuten iganderako, hilaren 28rako. Lekukoetako baten arabera, Sodupeko eliz atarian neskatala abandonatu bat agertu zelako deitu zieten. Hilaren 28an «normalean baino biztanle gehiago agertu zen» eta proposaturiko gaiak aztertutakoan, 25ean kontzejua 28ra aldatzeko eskatu zutenek hauxe aztertzeko eskaera egin zuten: «que se tratase de otro punto diverso y no contenido en la convocatoria y de entrada de vino forano y establecimiento de taberna de este género...». Antza denez, «kanpoko ardoa ez sartzeari buruzko» auzia aztertzeko zuten eta alkateordeak ez zuten deialdian gai horretaz mintzatzeko baimenik eman. Eztabaidan bi talde agertu ziren argi eta garbi, eta dokumentuek «aberatsak» eta «pobreak» esaten diete taldeei. Aberatsen artean elizgizonak, Juan Antonio de Lejarza izeneko bat eta Manuel Joseph de Romarate, «kontzeju honetako burua edo buruetako bat, bai bere leinu gorenagatik, bai bere ondasun

---

<sup>152</sup> *Ibidem*, Consejos, 1478. leg. (14).

ugariengatik eta errentengatik...» zeuden. Euren jarduera «filantropi-koen» artean honakoak zituzten: «pobreei laguntzea» eta kontzejuari dirua maileguan ematea inolako interesik gabe; kontzejuak garai hartan 200 dukat zor zizkion. Guenesko sindiko prokuradore nagusiaren hitzen arabera, «ahalmenik gabeko edo gutxiko lagunek, artisauek eta lanbide xumekoek» osatzen zuten «pobreen» bandoa; mespresuzko definizio hori ez zen egia haien ahalmen politikoari zegokionez, baina haien egoera ekonomiko eta sozialari zegokionez, berriz, egia zen: Jartu, buruzagi nagusia, bere baserriaren jabea eta arotza zen; Manuel de Ibarra, maizterra, ostalaria, tabernaria eta lanbidez ferratzailea eta albaitaria zen; Juan Manuel Martinez de Norzak, Francisco Hurtado de Sarachok eta Francisco Antonio de Sarachagak baserria zuten eta azkena bere zamari-taldeaz baliatzen zen; Juan Angel de la Presa bere baserriaren jabe ez ezik, ferratzailea eta forjaria zen, eta ondokoa gaineratu zuen: «y que aunq<sup>e</sup> en los demas vecinos del bando de estos muchos de ellos tienen caseria muchos mas no...». Hauek ere, beraz, nekazari pobreak dira, erdi laborariak, erdi artisauek. Besteen artean, berriro ere, jende gorena eta elizgizonak ditugu.

Udalbatza irekian honakoa esan zuten «pobreek»: «que se habia de tratar antes sobre si en tiempo q<sup>e</sup> dura el vino chacolí o patrimonial de este Concejo habia de poder todo vecino entrar y beber vino forano..., era forzoso tratar y acordarse también en razon de entrada de vino forano, taberna de este género y otras cosas pendientes en este tribunal y que se defendiese de cuerpo común dho asunto para q<sup>e</sup> fuesen tanto los ricos como los pobres iguales en poder beber vino forano durante el chacolí o patrimonial de este Concejo...», «que se defendiese no haver distincion de persona o vecinos en la yntroducción de bino clarete en este Concejo, no siendo en taberna, mediante la queja dada en este tribunal...», «que se tratase de cierto pleito promobido ante su mrzd, en razon de entrada de bino forano y en q<sup>e</sup> se hallava lexo la vara del Alc<sup>e</sup> y la vecindad, porque se la queria tributar...». Aipatutako Jartuk hauxe ere lortu nahi zuen: «[que se castigase al que] habia propalado si havia sido un ato de borrachos o borrachera lo que en el concejo anterior se habia hablado» eta «que se tratase y acordase también sobre cierta causa pendiente ante su mrzd, sobre q<sup>e</sup> no se introduzcan binos foranos durante la del Patrimonio pues querian hacerseles pecheros con otras cosas...». Bilerak bukaera istilutsua izan zuen, Romarate eta aberatsek gaiaz mintzatzeko asmorik agertzen ez baitzuten.

Ez dugu pentsatu behar istiluaren jatorria honako bi gertakari hauek bakarrik izan zirenik: Errioxako ardoa txakolinaren salmentaren garaiaren sartzeta edo ez sartzeta, eta handizka erosten zutenek eta txikizka kontsumitzen zutenek ordaindu beharreko zergen arteko aldea. Horixe dugu urte batzuk zirela biztanleen iritziak banatu zituzten desadostasun ugarietako bat. Ondokoa esan zuen istiluaren ostean itaunketa egin zioten batek: «que el testigo en treinta y dos años q<sup>e</sup> hace reside en este Concejo ha visto celebrarse los Ayuntamientos con maior quietud, llebando generalmente las

personas mas principales la voz o voto en ellos, mirando siempre al bien común hasta de seis a ocho años a esta parte q<sup>e</sup> ha notado bastante discordia en ellas». Beste baten iritziz nekazariiek zuten errua: «que aunque nada instruidas quieren seguir por sus designios sin oír ni permitir se lleve a efecto lo que proponen dn Manuel Joseph de Romarate y algunos otros caballeros». Pobreak 1779an justizi ofizioetarako hauteskundeak baliogabetzen saiatu ziren, eta bigarren aukeraketa egin zen; 1777an errematua izan zen kontzejuko janari-dendaren eskaintza egin ondoren, honetan ari ziren pobreak: «estaban tratando sobre si habia de subsistir dha Abacería o la havian de quitar expresando era contra la libertad de los vizcainos...». Hurrengo udalbatzan, Jartuk eta Ibarrek kentzea lortu zuten.

Urte horietan Guenesen zegoen giroa gatazkatsua izan zen oso, zenbait jauntxo kontzeju irekietara joaten ere ausartzen ez zelarik; adibidez, Juan Antonio de Lejarzak nahiago zuen isuna ordaindu. Exajeratuz edo ez, aberatsek hilketa bortitz baten mehatxua ikusten zuten euren inguruan. Ondokoa idatzi zuen dagoeneko aipatu dugun Guenesko sindiko prokuradore nagusi zen Marcos de la Puentek: «que se ha difundido la voz de haber quien ha propalado q<sup>e</sup> si no le costase mas que un cuarto mataria a cierto ecc<sup>co</sup> que es el que por si, su Cavildo y demás adheribles ha promovido en este tribunal el arreglo y cumplimiento de Ordenanza en el uso de vino forano, y desordenes y excesos introducidos y hay solo dos años que subcedió una muerte de un casero honrado en aquel Concejo, y despojado, violenta y de dificil averiguacion, atribuida a quienes tienen deudo con algunos de los tales motores del alboroto: que por todo lo expuesto se halla inquieta y turbada la República, amedrentados y en gran temor los principales sujetos de ella, y hasta los mismos señores Ecc<sup>cos</sup>, y aquellos sin querer ni atreverse concurrir a los Concejos pagado por no lo hacer ni arriesgarse gustosos la pena pecunaria q<sup>e</sup> se impone aun de veinte rs.».

Istiluaren ondorioz, kontzeju irekia itxia bihurtu zuten, oso indartsua ez zen aurreko demokrazia ezabatu zutelarik. Istiluak ikusita eta bozkatu eta onartu zen Gaztelako Kontseilu Goreneko agindu bat zela-eta, honakoa onartu zen 1779ko azaroaren 21ean Guenesen egin zen udalbatza publikoan: «que en lo sucesivo se reduzcan los concejos que celebren a la justicia, Reximiento, procurador Síndico y quatro personas de cada una de las quatro cuadrillas de q<sup>e</sup> se compone este Concejo que se haian de nombrar segun dho plan, por la justicia, Reximiento y pror Sindico, y cada un Rexidor en su cuadrilla conforme a Ordenanza...»<sup>153</sup>. Erabaki berberak hartu ziren Nafarroan eta, zalantzarik gabe, beste leku batzuetan ere bai. Alesbes, Milagro, Uxue, Lerin, Zare eta Ablitasen bertako batzarrak ho-geikoak izatera murrizteko eskatu zuten 1780an eta 1781ean, eta gaineratu

---

<sup>153</sup> *Ibidem*, Consejos, 734. leg. (8), «urte honetako martxoaren 28an kontzeju honetan egin zen udalbatza irekian izandako istiluaren inguruan», 1779, 2-64. orr.

zuten kontzeju irekiek eragindako kalteak ohikoak eta orokorrak bilakatzen ari zirela «no solo en las republicas, que ultimamente nos los exponen sino también en todas las del reino de mediana poblacion...», beraz «hemos considerado que esos y otros males que resultan de los concejos, pueden cortarse de raíz substituyendolos en veintenas en los pueblos de algun vecindario, para que por estas se traten y resuelvan solamente aquellas cosas que se practican en Concejo... Todos los pueblos de el reino [Nafarroakoa, noski] que compongan el número de cien vecinos, y resuelven sus negocios en Concejo, los determinen por veintena»<sup>154</sup>.

Euskal Herriko herri txikietan burgesia sortu zenean, hornigaien erremateak edo janariekin egindako monopolio eta espekulazioak zirela-eta, eta zenbait gorenen aberastasunak kontzejuan izandako nagusitasunaren bidez biribildu zirenean, ezinikusi eta gorrotoz beteriko giroa nagusitzen joan zen. Aberasteko aukerak hain zeuden lotuta botere politikoari non ezinezkoa baitzen salatzaileen aurkako borroka eta, kasurik baketsuenean, agintarien kontrako salaketak bereiztea. Horrexegatik erre zituzten 1766ko matxinadan udal-ordenantzak, horrexegatik atzeman nahi zituzten batzarretako alkateak, errejadoreak eta prokuradoreak.

1766ko krisia, hein handian, egoeraren araberako gertakari bat izan bazen, 1770etik aurrera, janari-urritasunaren arrazoiak produkzio-sistemak demografiaren erritmoari jarraitzeko izan zituen zailtasunak izan ziren. Lurraren ustiapena areagotu egin zen, baita produktu gordina banatzean zeuden desberdintasunak ere.

Ocion 1794an 1.094 anega lur banatu ziren eta Bastidan 1798an antzeko gauza egiteko asmoa izan zuten, baina banatzeko egin ziren lehenengo saialdiak 1775ean izan ziren eta ez ziren giro baketsuan egin. 1774ko uztailaren 24ko arratsaldean, Aguraingo Udalekoak «nekazariekin, luberritzaileekin, jornalariekin eta artisauekin [bildu ziren] lurrak banatzean bat etortzeko batzordeko epaileak eman zuen auto bat jakinarazteko asmoz», baina errenta bat ordain zezaten nahi zuten. Antza, nekazariak «ezkutuko batzarrak» eginak zituzten lurrei «pentsioa jartzeari gogor egiteko», eta banaketaren egunean nekazariak eta jornalariak istilua sortu zuten. Hiru biztanle eta egoiliar bat atxilotu zituzten herrian, euren ondasunak bahitu zituztelarik, eta beste hamar bizilaguni «euren etxea kartzelatzat jo zezatela» agindu zitzaizen eta denei ondorengoa jakinarazi zieten: «no se juntasen en cuadrillas que pasasen del numº de cinco en dhas sus casas con otros labradores, braceros y jornaleros y artistas de esta villa»<sup>155</sup>.

---

<sup>154</sup> «Cuaderno de las leyes y agravios reparados de los años 1794, 1795, 1796 y 1797». Iruñea, 1797, 15. orrialdea eta hurr.

<sup>155</sup> AHN, Consejos, 617. leg. (2), «Expediente formado a representación del theniente de Alcalde de la villa de Salvatierra dn. Manuel de Bustamante», 5, 6, 7 eta 10. orr.

Alde hezeko arazoa gero eta ongarri gehiago behar zutela izan zen, batak bat onibarren zatiketa kontuan hartuta. Batzuetan nekazarien beraien artean lehertu zen gatazka, beste zenbaitetan nekazarien eta herri-larreen saroadun eta maizterren artean.

1766ko abenduaren 21eko Errege-zedula batek ohartarazi zuenaren arabera, eliz komunitate sekular eta erregeladunek kokaturik ez zeuden lekuetan ez zituzten auzotasun-eskubideak izango, nahiz eta bertan etxeak etxezain, administratzaile eta guzti eduki, basailu legoen kalterako. Errege Agindu hau honakoei jakinarazi zieten: «a los Inquilinos de las casas y caserías que en esta referida villa tienen y poseen los conventos de Monjas de Santa Clara de la villa de Zarauz [baserri bat] y a los de los Monjes del Antiguo de la ciudad de San Sebastian [beste baserri bat] y a los del convento y monjas de Santa Clara de la Villa de Tolosa [beste baserri bat] y a los de la casa y casería que posee el cavildo Ecc<sup>co</sup> de la villa de Azpeitia y [a] los referidos [lau] inquilinos se les prohibió de los aprovechamientos concejiles de Argoma, Alechos con que se fabrica el estiércol para el abono de tierras de pan llevar». 1785ean, Errege Agindua promulgatu eta handik hemeretzi urtera, hauen protestak Kontseilura iritsi ziren, izan ere «de esta privacion les resulta grave perjuicio en su labranza»<sup>156</sup>.

Oñatin, herri-erabileren eta jabego absolutuaren aldekoen gatazka 1770 aldean hasi zen eta 1798an lehertu zen. 1771ko dekretu batek ondokoa agintzen zuen: «que la oja y alecho de los seles o Dehesas de la Villa sea propio de los Arrendadores con exclusion de los demas vecinos». Handik hamalau urtera, 1785eko otsailaren 19an, gai bera aztertu zen honakoa zioen hitzarmen batean: «q<sup>e</sup> se determinó fuese privativo de los Arrendadores de Dehesas y seles de sus Propios el aprovechamiento de la oja, y Alecho q<sup>e</sup> produgesen»; 1771ko dekretua betetzeko erresistentzia izan zen seinale dugu hori. Mendearen bukaeran ongarri-beharra oso premiazkoa izan zenez, nekazariak Kontseilu Gorenera jo zuten kexak azaltzera. 1798an, biztanle batzuek saroe pribatuetan zeuden txabolak lekuz aldatzeko eskatu zuten udaletxean, eta saroeak libre uzteko ere bai, denek bazka, hostoak eta garoak ustia zitzaten. Eskaera hori zela-eta, Gasteizko Segurola eta Imaz abokatuei galdegin zieten eta hauek herri erabileraren alde agertu ziren. Udalbatzaren gehiengoak epaia onartu egin zuen 1798ko irailaren 22an. Kontseiluko fiskala iritzi berekoa izan zen. Hurrengo hilabeteaz arazoaren 23ko data zuten kontrako bi eskaera iritsi ziren Errege Kontseilura. Oñatiko biztanle batek, Fernando de Ascambiren eta ezkontideen izenean, errejidore nagusiak, diputatuek, sindiko prokuradore nagusiak eta udaletxeko beste hainbat kidek eskatu zuten baimen ofiziala «para que los dueños de dichos terrenos, llamados selistas, dejasen libres, para que todos los vecinos disfrutasen por de común aprovechamiento

---

<sup>156</sup> *Ibidem*, Consejos, 1110. leg. (16), 1, 2 eta 7. orr.



sus pastos, hoja y helecho». Bestalde, Felipe Antonio de Sarriak eta Jose Joaquin de Gomendiok, euren izenean eta beste batzuen ordezkari gisa, kontrakoa eskatu zuten, hain zuzen ere, euren saroeen jabego pribatua izateko eskubidea onartzeko. Azaroaren 28an, Oñatiko auzoetako ehun eta hogeita lau lagun bat etorri ziren Fernando de Ascambi eta ezkontideen nahiarekin, ahalordeak besteen prokuradoreari eman ziotelarik. Ados jartzeko egin ziren bileretan aitzakia ona topatu zuen Joaquin Maria de Plaza alkateak, sarloedun garrantzitsuenetako baten semea zenak, Berezano auzoko biztanleen kontrako kausa jartzeko «kanpai hotsen pean eta nagusiek propio deiturik elkartzeagatik», «bilera horiek bai lege nagusiaren bai herri honetako ordenantzaren kontrakoak direla» alegatu zuelarik. Nekazariak ahalordea emateko elkartu zirela esan zuten eta alkateak gaia artxiba zezala eskatu zioten Kontseiluari, baina Kontseiluak «horretarako arrazoirik ez zegoela» adierazi zuen. Alkatearen epaiak, 1800eko abenduaren 5ean emandakoak, ondokoa zioen: «declaró a Juan Luis de Arrazola, Agustín de Balenzategui y Jose Antonio de Urrutia por autores de Juntas o Congresos de vecinos celebrados en los barrios de Olabarrieta, Berezano y Zañartu, y de consiguiente por incursos con arreglo al espíritu terminante del capítulo veinte y cinco de las Ordenanzas de esa Villa... en la pena de cinquenta ducados de vellon a cada uno de los tres, como tales infractores de la lei». Kontseiluaren iritziz, «epaia zuzena eta bidezkoa zen». 1801eko apirilaren 20an, ehun eta hogeita zortzi lagunek Auzitegi Gorenera jo zuten gertakarien inguruan zuten bertsioa emateko eta zigortuei isunetan eta kostuetan ordaindutakoa itzultzeko eskatzeko. Madrilen 1801eko irailaren 10ean hartu eta Kontseiluak onartutako errege-ebazpenak ezezkoa eman zion eskaerari zati guztietan eta, «ordezkaritza iraingarri» hura zela-eta, bere nahigabea azaltzen zuen, baina hala ere honakoa gaineratu zuen: «por ahora se suspende tomar la providencia a que se han hecho acreedores». Urte eta hilabete bereko 24an udaletxean irakurri zen «Errege Zedularen testua» bi hizkuntzatan aditzera emanez: «en castellano y lengua vulgar bazcongada». 1801eko apirilaren 20ko agiriaren behealdean agertzen ziren nekazariak, eurek sinatuta edo, ez zekitelako —sarriago gertatu zena—, euren izenean besteren batek sinatu zielarik, esan zuten «ez direla deituak izan, eta aipatutako Ordezkaritzan ez dutela parte hartu».

Sarloedunek euren jabego pribatua frogatzeko eraman zituzten legezko eta ohiturazko frogak ahul samarrak izan ziren: 1300 eta 1465eko data zuten saroe baten erosketa-kontratu bi, 1771ko Dekretua eta 1785eko hitzarrena. Aitzitik, azken urteetako eguneroko praktika konbentzigarriagoa zen: saroeetan eraikitako baserriak, hogeita bi baino gehiago, horietatik bost arestian, Oñatiko kondearen jarrera, bereak ziren batzuk itxi egin baitzituen, «gutxiri jarri dielarik hesia», eta batez ere bere argudio ideologikoak: «porque solo el verdadero dueño es el que save cuidarlos —saroe-tako arbolak— y fomentarlos, y como el común no atiende mas que à la urgencia, ò al capricho del momento, es la mano asoladora, que los ani-

quila para el día de mañana: esta verdad la prueba el estado de los Montes comunes...»<sup>157</sup>. Nazioko lehenengo auzitegiak saroedunen aldeko epaia eman zuen 1804an<sup>158</sup>.

Jabego absolutuaren alde eta herri-erabileraren aurkako jarrera hori auzitegietan nahiko zabaldua zegoen. Eltziegion 1754 eta 1755erako debekatuta zegoen aziendak edozein urte-sasoitan mahastietara sartzea, eta Valladolideko Auzitegiko eta Kantzelaritzako lehendakariak eta epaileek ezezkoa eman zioten 1790ean honakoa zioen abeltzainen eskaera bati: «entrar los ganados lanares en las viñas de su término alzado el fruto»<sup>159</sup>.

## Behe-mailako maizterrak edo eskekoak

Dagoeneko aipatuta dugu barne-merkatuaren eraketari buruzko kapitulu lurraren errenta aztertzen duen atalean, mendearen bukaera aldean maizter askok ezin izan zituztela errenten gorakada eta aleen espekulazioa jasan, eta zorrez beterik, egun batean onibarra utzi eta ihes egiten zutela, adibidez, Antonio González de Trocóniz-ek 1790ean.

Demografi presioak eta lur-eskaintza mugatuak lur-jabe handien mende jarri zituzten maizterrak, eta batez ere behe-mailakoak. Errealitate hori Bizkaiko lurralde-estatistika egin behar zutenek egiaztatu zuten 1810ean. Bautista Iturriozena zen Macalena etxeko maizterrak honakoa esan zuen: «que dha casa producía de renta anualmente treinta y un ducados pero fue à resultas de que su dueño se aprovechó de la ocasión de no tener el exponente donde habitar; por cuyo motivo dhos Señores comisionados teniendo presente todas las circunstancias referidas graduan la renta de la citada casa en veinte ducados anuales», hau da, benetan ordaindutakoa baino heren bat gutxiago. Hauxe esan zuten Antonio Abenabar bizi baina Pedro Corpiónena zen Ibatiao «etxetxoari» buruz: «tenía renta excesiva [308 erreal] por los pocos pertenecidos que tenía y graduaron por lo sucesivo veinte ducados». Antzera baloratu zuten Perlana etxeko maizter zen Francisco Abaituak ematen zuen errenta edo Jeronimo Abenabarrek ordaintzen zuena; lehenengoak 214-17 erreal ematen zituen eta haiek, zuzenki, 154tan baloratu zuten, eta bigarrenak, 264 erreal ematen zituen, baina «urtean hoge dukatekin ordaintzen zela» esan zuten. Denak Murelagako elizateko adibideak dira<sup>160</sup>.

---

<sup>157</sup> *Ibidem*, Consejos, 2.733. leg. Argudio honek errealtatea estali egiten du: pobreek egurra behar zuten etxerako eta aberatsek arbolak haztea nahi zuten ontzietarako, etxeak eraikitzeko etab.

<sup>158</sup> Lasa, José J., «Las luchas en torno a los seles y caserío de Albitxuri», *Homenaje a D. J. M. Barandiarán*.

<sup>159</sup> AHN, Consejos, 1124. leg. (23), 95 eta 109. orr., 23. zenbakia duten lau espedienteetako batean, 558. zenbakia goiburuan duenean.

<sup>160</sup> GBEA, ETPSV, 2. zkia., 1810. urtea, Murelagan.

Gipuzkoan, epai bati esker, maizterren eta lur-jabeen interesak aurka nola jarri ziren ikus dezakegu. Tolosako Ozaeta izeneko batek bere maizterra bidali egin nahi zuen eta ondokoa eskatu zuen: «A S.M. RL. Orden p<sup>a</sup> poder disponer libremente de su casería llamada de Ochotegui y sus pertenecidos, sin embargo de la executoria ganada por su inquilino F<sup>co</sup> Irarzaual, y que la RL. resolucion fuese y entendiese general a lo menos para toda la Provincia de Guipúzcoa y en beneficio de los dueños de tierras y caserías apetece una regla fija p<sup>a</sup> disponer libremente de sus haciendas, precediendo el desaucio oportuno de los colonos...». Hauen interesak Azpeitiko Odriozola apaizak azaldu zituen: «despues de referir los abusos q<sup>e</sup> se cometian y los perjuicios q<sup>e</sup> causaban los propietarios a los colonos despojandolos arbitrariamente de los arrenda<sup>mtos</sup>, pide que no se permitan absolutamente q. los propietarios despojen a los arrendatarios de tierras aunque haya cumplido los contratos con arreglo en todo a lo prevenido en la Rl. cedula de 6 de diciembre de 1794». Azalpen gehiago ematen ez digula, apaizak kontra egin zienetako bat San Millán markesa zen, Gipuzkoako lur-jabe handia bera. Probintziako diputatu nagusia maizterrak botatzearen aldekoa zen 1807an eta, jakina, maizterrek baserria utzi ahal izatearen aldekoa ere bai, baldin eta jabeak eta maizterrak urtebeteko aurrerapenaz ematen bazuten abisua. Kontseiluko fiskala ere horren alde zegoen eta Probintziako hurrengo Batzarretan ezarpen orokorreko arau bat onarrezatela proposatu zuen<sup>161</sup>. Ez dut uste gehiegi luzatu behar dugunik azaltzen Ozaetaren, Diputatu Nagusiaren eta Fiskalaren egitasmoak maizterra lurjabearen eskuetan uzten zuela, nekazaritza-onibarra etengabeko deskapitalizaziora zeramala eta maizterra bizimodu miserablara. Hornigaien krisialdia, espekulazioa eta maizterren irabaziaren itotzea izan ziren eskeko eta lapurren kopuruak gora egitearen arrazoi.

### **Pobre koitaduak!**

1773an, «Eliza-immunitatea eta aterpe santua» gorde eta zainduko zizuten eliza-kopuru mugatu bat ezarri zuten geldiarazteko «la frecuencia de los delitos y excesos que se cometen en ofensa de la Magestad divina, quietud pública y tranquilidad de los Vasallos, por la facilidad con que los Reos y Malhechores se libertan de la Justicia tomando asilo en qualquier lugar sagrado». Euskal Herrian, eliza bat baino gehiago zeuden lekuetan bat utzi zen: Bilbon Santiago; Gasteizen La Colegial; Urduñan Santa Maria... «Y en las demas Villas, Anteiglesias, Lugares, Barrios y Aldeas de nuestro Obispado, señalamos la unica Iglesia Parroquial que hay en ellas respective». Propio utzi zituzten alde batera monasterioak, komentuak,

---

<sup>161</sup> AHN, Consejos, 2.418. leg. (11).

ermitak eta ospitaleak<sup>162</sup>. Neurri horien aurretik, Gipuzkoan eskean ibiltzea zigortzen zuen 1772ko Batzarretako erabaki bat atera zuten<sup>163</sup> eta neurrien ostean, zalapartak eta iskanbila publikoak sortzen zituztenei buruzko Errege Pragmatika agertu zen, 1774ko uztailaren 12an Durangoko merindadeko Batzarrean irakurria izan zena<sup>164</sup>. Pobreak, gaizkileak eta gizartearekin bat ez zetozenak zigorrak jasotzen hasi ziren. Antzeko hiru aurpegi zituen pertsonaia bera ziren. Sisternes fiskalak Katalunian ere bazirela zioen 1774an<sup>165</sup>, eta Errege Aginduek Espainia osoan zeudela. Per capita errenta garbiaren geldialdiaren hiru zaldizkoak ziren.

Konbentzio frantsesaren kontrako gerra izan zen arte itxaron beharko da fenomeno horrek une hartako ordena kolokan jartzeko. Bizkaiko lehenengo behin betiko Kontsultari izan zen Francisco de Aranguren y Sobradok ondorengoa zioen bere araudi drakoniarraren hitzaurrean: «es notorio, que à resultas de haber sido este Señorío y sus inmediaciones uno de los teatros principales de la última guerra con la Francia, se inundó de ladrones y mal hechos: estos han cometido y cometen frecuentes insultos en los caminos y fuera de ellos: allanan en medio del día las casas y han tenido y tienen sobresaltada a la gente». Gauez eta bideetan lapurtzeaz gain, herrietan «tiro eginez», bizilagunak irainduz eta atek botaz sartzen ausartu ziren. Francisco de Aranguren y Sobradoren ustez, epaiketak hain luzeak izatea —«askotan sei urte eta gehiago irauten baitute»— eta zigorrak oso zorrotzak ez izatea zen gaiztakeria horien jatorria. Araudi berriarekin hogeita hamar eguneko epean emango litzaieke irizpena kausei eta epaia apelaezina izango litzateke. Zigorrak hain sistema bizkorraren neurrikoak ziren: lapurtutako ondasunak jaso edo gordetzeagatik «Afrikan hamar urteko kartzela-zigor itxia» izango litzateke gaztigua. Heriotza-zigorra honakoetan ezarriko lukete: «à los hurtos y robos atroces ó qualificados, y à aquellos que constituyen al robador en la clase de ladrón conocido, o famoso...». Erregeak hauxe dioen 7. artikulua kenduz bigundu egin zuen araudia: «se habla de imponer la pena capital por los indicios y congeturas que son bastantes à imponer la cuestión de tormento, y no queriendo S.M... que cuando se trata de la pena más grave, se juzgue por congeturas è indicios; ni para ello se tome en boca la palabra tormento, cosas tan ajenas del verdadero conocimiento que hoy día se tiene de la justicia en jurisprudencia criminal; ha mandado borrar todo entero dicho artículo...». Euskal Herriko jende gorena, jabegoaren gaiari zegokionez, azkar ahazten zen mendearen argiez. Eta aldaketa hori eginda, onartu egin zuten Araudia<sup>166</sup>.

<sup>162</sup> KKA, 1772-1777; Kalagorri, 1773ko apirilak 20.

<sup>163</sup> Echegaray, C., *Compendio...*, 244. or.

<sup>164</sup> Carrandi, Amador F., *Catálogo de los manuscritos...*, 127. or.

<sup>165</sup> Vilar, P., *La Catalogne dans l'Espagne moderne*, I. libk., 105 eta 106. orr.

<sup>166</sup> BDA, Araudi inprimatua.

Gipuzkoak, antzeko arazoak zituela, «Lurralde hau lapur eta gaizkilez garbitzeko» erabaki eta indarrean jarri zituen «probidentzia eraginkorrak» azaldu zizkion Erregeari 1799an, izan ere, azken gerraren ostean, lur mal-  
kar eta menditsuan babesturik, horrelako jendez beteta baitzegoen. Antza  
denez, neurri horiek ez ziren oso eraginkorrak izan, ermandadetako alka-  
teak, justizia agudo administratzeko, berriro ezar zitzatela eskatu zuten-  
eta. Beren eskaera indartzeko, Valladolideko Kantzelaritzaren Krimen  
Epaimahaietako Ganbara-eskribauek egiaztatutako zerrenda bat gaineratu  
zuten; bertan zehazten ziren 1792tik 1799ko hasiera bitartean egindako  
delituak, lekua, erruztatze-data, objektua, eta, normalean, epaiaren data.

Berrogeita bederatzai aipatzen zituen:

|                      |                     |                                   |    |
|----------------------|---------------------|-----------------------------------|----|
| 1792.....            | 9                   | Lapurretak, ebasketak edo litxa-  |    |
| 1793.....            | 6                   | rrieriak .....                    | 26 |
| 1794.....            | 1                   | Jokoa .....                       | 1  |
| 1795.....            | ez da ezer zehazten | Zauriak .....                     | 4  |
| 1796.....            | 4                   | Irainak .....                     | 1  |
| 1797.....            | 17                  | Mozkorraldia eta iskanbila ...    | 1  |
| 1798.....            | 10                  | Bizimodu txarra eta alferkeria .. | 6  |
| 1799.....            | 2 (otsailera arte)  | Justiziari desmen-egitea.....     | 2  |
| <i>Guztira</i> ..... | 49                  | Hilketa.....                      | 5  |
|                      |                     | Debekatutako armak erabiltzea..   | 1  |
|                      |                     | Kartzelatik ihes egitea .....     | 2  |
|                      |                     | <i>Guztira</i> .....              | 49 |

Zerrendan, egiten ziren arau-hauste gutxi batzuk bakarrik azaltzen dira. Frantziaren kontrako gerran eta ondoko urteetan ia ez dira aipatzen, izan ere gatazkak eta horrek zekarren nahasketak estali egiten baitzituzten operazio militarren itxurapean arpilatzeak eta lapurretak.

Jabegoaren kontrako atentatuak, egindako delituen %50 baino gehiago ziren: abereak ebasten zituzten, behi-azienda batez ere, eta zilarrezko hainbat gauza, batzuetan elizetatik hartuz. Nahiko kasutan, 10 guztira, pertsona batek baino gehiagok egin zituen: batean zortzi emakume zeuden sartuta eta beste batean lau gizon, banda txiki bat. Prostituzio-kasu bakarra aipatu zuten. Hilketa-kopurua altua zen, %10, gizartea tirabira gatazka-  
tsuek aztoratzen zuten seinale; gertatu zireneko datak —1792, 1796, 1797  
eta 1798an bi— ikusita, ezin zaizkio gerrari leporatu<sup>167</sup>.

<sup>167</sup> Honakoa idatzi zuten 1796an Arespalditzan (Araba): «Las cuadrillas de los malhechores y ladrones q<sup>e</sup> tenían consternado a este Pais, asaltaban y robaban las casas de muchos de sus havitantes, dieron motivo a que se reforzase y asegurase con varias cerraduras la puerta principal de esta Iglesia Parrochial... y evitar por este medio q<sup>e</sup> fuese despojada y robada de las buenas y grandes lamparas, vasos sagrados, y otras alhajas (todo de plata), q<sup>e</sup> tiene...». Arespalditzako Santa Maria Fabrikako kontu-liburua, 1740an hasia, 173. or.

Bowlesek dioenari jarraitu bagenio, delitu horietako asko gipuzkoarrak ez ziren eskekoei leporatu ahal genien, izan ere, haren ustez, bertan zeuden pobreak kanpotarrak baitziren —«eta eskeko ugari badaude ere... harritzekoa da atzeritarra ez dena»<sup>168</sup>—. Iritzi hori ez dute berresten erruztatuen deiturek, jatorriak edo bizi ziren tokiek: gehienak gipuzkoarrak ziren; horiez gain, bi frantses, nafar, arabar edo bizkaitarren bat eta Gaspar Rodrigo izena zuen Muchamieleko bat aipatu zituzten<sup>169</sup>. Galdakaotar bi, santandertar bat, mallabitar bat, leitzar bat, tolosar bat eta zornotzar bat zeuden Biboko kartzelan 1793an «alfer gisa... delitu arinengatik». Zazpi lagun horiei, «delitu arinengatik» berrogeita hamalau urteko zigorra ezarri zieten guztira armadako «armen zerbitzuan», batez beste zazpi urte eta berderatzi hilabete. Horien artean ere ez zegoen Gaztelako probintzietako gaizkilerik, santandertarra izan ezik<sup>170</sup>.

Zigortutako gehienak lan iraunkorra topatzeko aukerarik ez zuen jendea zen. Delituetak asko, ebasketak baino, litxarreriak ziren; kasu batean bakarrik lapurtu zuten etxe eta denda bat apurtuz, eta bat ere ez zen bide-lapurreta izan. Horrek ez du esan nahi lapur profesionalik izan ez zenik: Gordexolan «gaizkile eta bide-lapur ugari zebilen» garaia zela zioten 1797an<sup>171</sup>, baina gehienak ez ziren horrelakoak. Botereak bazuen egoera horren berri: 1803ko urriaren 3ko Errege Aginduak garbi azaltzen zuen hornigaien krisialdiaren, langabeziaren eta delituen arteko lotura: «porque deseando prevenir las malas consecuencias que traerá al bien público y particular la falta de ocupación de los muchos trabajadores y jornaleros, que la esterilidad del presente año ha de dejar abandonados a la miseria sin poder adquirir el sustento para si, y sus familiares por otro medio que el de la limosna siendo de temer que no alcanzando esta p<sup>a</sup> socorrer a todos, se precipiten muchos a cometer excesos y delitos...». Gipuzkoako korrejidoreak hainbat eraikin publiko egitea —Donostiako kartzela, bide batez bi mandatu egingo ziren horrela—, errepide batzuk eta zubiak konpontzea... proposatu zuen, baina Fiskalak erantzun zion neguko hilabeterik gogorrenetan «obras de policia y limpieza» eskaini behar zitzaizkiela<sup>172</sup>. Garai bertsuan honakoa zioten Andoainen: «los montes de la villa están muy deteriorados en el día por las muchas talas q. hacen los propios habitantes p<sup>t</sup> cuando menos la mitad de la gente de la calle vive solamt. con este ramo, por la poca ocupacion q. hay para tanta gente sin oficio»<sup>173</sup>.

<sup>168</sup> Bowles, G., *op. cit.*, 321. or.

<sup>169</sup> AHN, Estado, 201. leg. (8).

<sup>170</sup> *Ibidem*, Consejos, 1.603. leg. (3).

<sup>171</sup> *Ibidem*, Consejos, 1.948. leg. (49), 54. or. atz.

<sup>172</sup> AHN, Consejos, 2.457. leg. (4)

<sup>173</sup> HEAA, Vargas Ponce Bilduma, XV. libk. Mende-bukaeran izan zen prezio-gorakadak soldatapeko gehienei estuasun larriak ekarri zizkien. Deustun 1795ean istinkariek eta arotzek egin zuten greba garai hartako gizarte-tirabiretako adierazgarri bat dugu. Guiard, T., *Villa*, III. libk., 534. or., oharrean, eta Mauleón Isla, *op. cit.*, 209. or. ere bai.

Independentziako Gerrak, bere erara eta modu iragankorrean, produkzio-sistemaren arazoak *konpondu* zituen; zegoeneko produkzio-sistema hori bere mugetara iritsia zen eta ezin zuen baliabideak baino azkarrago hazten ari zen pertsona-kopurua elikatu.

### Talde menderatzailearen barruko kontraesanak

Miguel de Ibarra Bilboko herri-diputatuak 1786an azaldu zuenez, nolabaiteko garrantzia zuten hirien udalak «beti gertatzen zen bezala Maiorazkoen eta Merkatarien bi partiduek» osatzen zituzten<sup>174</sup>. Bi talde horiek eta landatar gorenak Batzarrak ere osatzen zituzten batik bat Bizkaian eta Gipuzkoan. Euren interesak aurkakoak ez baziren ere, ez ziren beti bat etortzen, eta sarritan izaten ziren elkarren arteko tirabirak eta gaitzespenak. Landatar goren batzuek ez zuten begi onez ikusten Bilboko hiribildua Jaurerriko gobernuan hartzen ari zen nagusitasuna. Jose de Zabala y Mirandaren oroitza-txostenak, 1746ko urtarrilaren 20an Kontseilura bidali zuenak, garbi adierazten du landatar gorenak, nahiz eta itxuraz «su pobreak» defendatu, hiribilduko merkataritzari eta ingurukoei hainbat gauza leporatzen zieten: «Los próceres hijos de la de Bilbao han conseguido con diversos Artificios abrogar para sí y sus confederados, todos los empleos de el Señorío, y residencia de sus diputaciones, y regimientos en aquella Villa»; «[el Señorío] fue gobernado por hijos de sus infanzonas anteyglesias con general alivio de ellas, y sin los gravámenes, ni empeños que se experimentan desde que se redujeron los empleos al arvitrio de los de Bilbao». «[No] se conocieron las disputas ocurridas en Tavaco y Cacao, de el Marañon que sufre a sus expensas después de la unión de Bilbao por particulares fines, y intereses de sus individuos comerciantes»; «[con la unión se] ha grangeado el Señorío la desgracia de haver perdido su antiguo esplendor, de hallarse abatido, pobre y cargado de empeños». Gaitzespen horiekin eta beste batzuekin merkatariek Batzar Nagusietatik kendu egin nahi zituzten: «Que el Prior de el consulado de Bilbao, ninguno de su Consules no puedan concurrir a juntas de Guernica ni de Merindades, respecto a no tener voto el comercio». «Que la Villa de Bilbao no pueda diputar mas que tres personas a Juntas de Guernica ni de Merindades y que ningún individuo de la primera Villa, pueda concurrir con voto de otra comunidad de el Señorío.» Lehenengo aipaturikoak, bistan denez, merkatariek baziren, ez ziren bakarrak izan. «Bilboko jabe ospetsuen gobernutza despota» ere salatzen zuten. Ingurukoak ziren: mahasti eta etxeen jabeak, Ibarrek 'maiorazko' deiturikoak<sup>175</sup>.

Merkatariek eta mahasti eta etxeen jabeek parte hartzen zuten Bilboko kontzejuan. Haien arteko loturak estuak ziren eta mendea joan ahala indartuz

<sup>174</sup> AHN, Consejos, 1.340. leg.

<sup>175</sup> José Zabala y Mirandaren oroitza-txostena.

joan ziren. Haien artean batzuetan sortutako desadostasunak oinarrizkoak ez izateaz gain, haien interesak hiribilduko gainerako biztanleen kalterako, jakina, bat etortzen zirela ere azaltzen dute.

1755ean eta 1756an bi auzi izan ziren Bilboko hamarrenen biltegiko jabe oinordekoeen San Gregorio Naziontzokoaren kofradiaren eta udalaren artean. Kofradiaren atzean hirian txakoli-salmentaren monopolioa zuten mahastien jabeen interesak zeuden. Bi kexa zituzten: alde batetik, kanpoko ardoa lizentziarekin eta «viedo» garaian, legeen aurka bazen ere, alkatearen baimenarekin sartzen zela Bilbon eta bestetik, epaile-aukeraketarako ez zirela ordenantzak betetzen, izan ere, hautagaiak honako baldintza hauek bete behar zituztela baitzioen hamabigarren kapituluak: hogeita bost urte beteak eta funts-ondasunetan 1.000 dukat eduki behar zituzten, aitoren semeak, Bilbon jaiotakoak, edo hamar urteko auzotasuna izan behar zuten «zozketatuak izan baino lehen», ezin ziren lanbide mekanikoe-tan eta janariak txikizka edo hornigaiak saltzen ibili, ezin zuten zorrik izan hiribilduarekin, eta honen eta Kontsulatuaren artean zegoen auzia zela kausa, ezin zen Kontsulatuan hitza zuen merkatari bat ere onartu; gure kasu honetarako hain adierazgarriak ez diren beste gaitzespen batzuk ere aipatzen zituen. Mahastien jabeen estrategia garbia izan zen: euren txakolinaren salmentaren monopolioa defendatzea kontzejuko kapitular merkatari batzuei kontra eginez. Kontzejuak hauxe esan zuen gai horren inguruan: «que aun durante la cosecha y venta de chacolies de dichos propietarios a estado y se halla esta noble villa [en la posesión] de la introduzion y reparticion de vinos foranos expecialmente de el clarete de la Rioja, para el Alimento gasto y consumo de los vecinos e yndividuos que no lo quieren para vender». Hau da, aberatsek, aldez aurretik alkatearen baimena izanda, Errioxako ardoa eros zezaketen handizka eta euren kontsumorako, «viedo» delakoa kontuan hartu gabe; pobreek, txikizka erosten zutenek, txakolina kontsumitu behar zuten derrigor, uzta bukatu arte. «Viedo» garaian txakolina Errioxako ardoa baino merkeago —8 marabedi gutxiago— saltzen zutela ere ez dute aipatzen, jakitea interesgarria bada ere, baina Errioxakoari zerga handiak —«tanto quanto excede este excede el [precio] del vino chacolí»— ezarri zizkiotenean, honakoa esan zuten: «que es lo mismo que pagar otra igual sisa en el, a favor de los proceres cosecheros»<sup>176</sup>. Kofradiaren bigarren akusazioa ez zegoen gaizki bideratuta. Zerrendan aipatzen zirenen artean hauetxek zeuden: Manuel del Río y Zaballa, errejidorea bera, funts-ondasunetan 1.000 dukat ez izateagatik; Jose de Bengoechea, janaria txikizka saltzeagatik eta ondasun higiezinetan 1.000 dukatak ez izateagatik; Andres de la Plaza, arrazoi berberengatik eta gainera prebostutza-eskubidea berreskuratzearen ardura zuelako; Marcos de Collano errejidorea, hiribilduko auzotasunik ez izateagatik, ezta

---

<sup>176</sup> *Ibidem.*



funts-ondasunetan 1.000 dukatak ere; Andres de Barrutieta, arrazoi berberengatik eta hornigaiak txikizka saltzeagatik eta, azkenik, Antonio de Gori, zotz eginda alkateorde izandakoa, orduan Kontratazioaren Etxeko kontsula izateagatik. Akusazio gehienei kontra egin ahal izan zitzaien, funts-ondasunetan 1.000 dukat ez izateari izan ezik. Jose de Bengoecheak eta Marcos de Sollanok onartu egin behar izan zuten dukat horiek ez izatearena, baina «dirutan, ondasunetan, altzaritan eta salgaitan diru-kopuru hori baino gehiago zutela» esan zuten. Bestalde, Manuel del Río y Zavalak Gasteizen zenbait etxe eta Allende el puente auzoan, Bilboko eskumenean, beste batzuk zituela esan zuten.

Lehenengo auziari dagokionez, Jaurerriko epaile nagusiak arrazoia eman zien mahastien jabeei 1759ko otsailaren 12an, baina hiribilduak errekurtsioa aurkeztu zuen Valladolideko Kantzelaritzan, eta 1760ko martxoaren 7ko epaian epaile nagusiaren erabakia baliogabetu egin zuten eta kofradiakideei hauxe agindu zitzaien: «que no impidiesen, en tiempo de viedo a los vecinos particulares de esta dha villa, entrar por mayor el vino forano que necesitan para el surtimiento de sus casas», horretarako alkatearen baimena zutelarik. Erabaki horrek erraztu zuen Ordenantzen bigarren atalari buruzko akordioa, «en cuanto previene que los electos para los oficios de Alcaldes y Reg<sup>tes</sup> de dha villa hallan de tener mil Duc<sup>s</sup> de Haz<sup>da</sup> y si requiriese abono de dha suma precisamente ha de ser raíz con otras cosas que comprende». Jabeek, zenbaitek baldintza horiek betetzen ez zituztela frogaturik, hauxe eskaini zioten hiribilduari: «desistir del actual litigio y demas pendientes contra ella con tal de q. se les aumentase la postura y precio de sus vinos en tiempo de viedo y franca...». «Do ut des» akordio batera iritsi ziren beraz, ardoaren salmenta-ordenantzak aldatuz eta 1.000 dukatak funts-ondasunetan ez ezik, ondasun higigarrietan ere onartuz<sup>177</sup>.

Harreman hauek, prezioen eta neurrien inguruko desadostasun batzuk gorabehera, indartu egin ziren urteetan zehar. Ez zen gauza bera gertatu jauntxoek eta hiribilduaren arteko tirabirekin, hiribilduaren taldean maiorzakoak, mahasti eta etxeen jabeak eta merkatariak zeudelarik.

## Zamakolada

Preguntado un aldeano por D. José Antonio Capetillo «q<sup>e</sup> con q<sup>e</sup> orden venia p<sup>a</sup> llevarles preso, respondió q<sup>e</sup> no tenia mas orden q<sup>e</sup> aquel, presentando el Fusil». 1804.

AHN, Consejos, 11.871. leg., 1. zkia., 141. or. atz.

1804ko altxamenduak nekazarien eta gorenen artean aspalditik zeuden kontraesanak bildu zituen, eta lehenengo karlistada iragartzen zuen, izan

---

<sup>177</sup> AHN, Consejos, 278. leg. (4).

ere, horien eta Bilboko hiribilduaren arteko haserrea bateraezin bihurtu zen lehenengo aldia baitzen.

Zamakoladaren historialaria Camilo de Villabaso izan zen; gainera *Memoria confidencial y justificativa del Sr. D. José M.<sup>a</sup> de Murga* argitaratu zuen, istiluaren lekuko aparta izan zena hain zuten<sup>178</sup>. Villabasok, Murgaren esanen jarraitzailea besterik ez bada ere, merezimendu bat izan zuen, hau da, matxinadaren alderdi bat ohartarazi zigun, Murgak, bere burua neutralizat jotzen zuenak, kontatu nahi izan ez zuena. Villabaso Jaurrerian nagusi zen haserreaz jabetuta zegoen; Zamakoladaren aurretik, bazeuden «lapurrak harrapatzeko salbagoardia-konpainia ospetsuak», Aranguren aholkulariaren ekimenari esker eraturakoak —dagoeneko aipatuta dugu «bere izena duen ordenantza famatu eta drakoniarra»—. «La aplicación durísima de la ley de vagos y mal entretenidos —zioen Villabasok— que quiso implantar en el Señorío, con gran desconocimiento del estado social del país..., levantó una protesta indignada y un tolle tolle general que hubiera podido arrastrar à esta tierra pacífica y obediente à extremos por demás graves, si no hubieran sobrevenido à luego una serie de acontecimientos que sirvieron de derivación al mal humor que conmovía y agitaba à los vizcainos»<sup>179</sup>. Desbideratzeko baino sua piztarazteko balio izan zuten gertakariak gorenen eta Bilboko hiribilduaren arteko istiluak izan ziren.

Arrazoi desberdinak izan ziren elkarren artean gorrotoa izateko, eta arrazoi horiek jende arruntari ere erasan zioten. Jose Maria de Murgaren ustez, «la amenidad y conveniencia del pueblo [burgesen alegia] y no sé qué idea gigantesca del poder del Consulado, infunden generalmente à los bilbainos una presunción infundada y frívola que dá mucho en rostro à los labradores y ferrones. Estos si han hallado en un mal comerciante doblez y espíritu de monopolio, creen fácilmente que aquél es el carácter de los habitantes de Bilbao...». Laburbilduz, aspalditik genekien gauza da. Horrez gain, Bilboko eskribauek Batzarren dekretuetan egiten zuten estilo-zuzenketa dugu, eta batez ere zergen banaketa<sup>180</sup>. «Las imposiciones de arbitrios para la Caja de Guerra, hechas en el año de 96, salieron á gusto de la Villa y del Consulado», eta horrek elizateen haserrea ekarri zuen. 1798. urtearen hasieran elizate horietako hiruk, Dima, Ubide eta Otxandiokoak, 1796an onartu ziren zergen ordez beste batzuk eskatu zituzten, «merkataritza-arloko iritzi nagusiaren kontra», haiak mantentzea nahi baitzuten. Murgaren ustez, horiek eta elizateek ordaintzen zituztenen arteko aldea gehiegizkoa zen. Hori dela-eta, 1798ko Batzarretan aztertu behar zuten gai garrantzizkoena zerga horien subrogazioa zen. Merkatarien erresistentziak amore eman zuen 1798ko Errege Aginduari esker; agindu horrek

---

<sup>178</sup> Villabaso, Camilo de, *La cuestión del Puerto de la Paz y la Zamacolada*, Bilbo, 1887.

<sup>179</sup> *Ibidem*, 38. or.

<sup>180</sup> *Ibidem*, 6. or.

Kontsulatuko Kutxaren liburuak berriro aztertuko zirela esaten zuen, eta «como esto repugnaba tanto á los comerciantes, dixeron que querían más bien consentir los nuevos arbitrios». Tirabira horiekin batera honakoak ere izan ziren: Jose de Zuricaldayri Bizkaiko zerga garestienetako batean egin zioten beherapenak eragindakoa, nahiz eta Bilboko «merkataritz handi eta txikia» aurka egon; Castro Jaurerrian berriro sartzea eta Durangoko bidea irekitzea —Hiribildua neurri horien aurka zegoen—, eta gainera Jaurerriak, frantsesen inbasioaren garaian jarritako diru-kopurua zela-eta, Bilbori zor ziona, eta, bestalde, Hiribilduak, zergak zirela-eta, Kutxei zor ziena. Azkenean akordio bat lortu zuten «zertxobait hiribilduaren aldekoa izan zelarik». Baina Koroari beste diru-kopuru bat ematerakoan, berriro azaldu ziren eztabaidak; Kontsulatuak eta Bilboko Udalak zerga berriak merkataritzari porrota eragingo ziola argudiatu zuten.

Gauzak horrela zeudela, «Abandoko portuaren birgaitzeari buruzko» Errege Agindua 1801eko abenduaren 31n atera zuten, Murgaren ustez «Bilboko etxeen jabeen kontrako [eraso] zuzena» zena. Jabeek, hiribilduak eta Kontsulatuak aurka egin zioten aginduari, baina 1802ko Batzarretan mantendu egin zen Errege Agindua, Kontsulatuaren barrutiari buruzko gaia bakarrik utzi zutelarik argitzeke<sup>181</sup>. Abandoko portuak, Bakearen portuak, kalte egingo zien Bilbori eta Kontsulatuari, honek ezin izango baitzuen han lehorreratzten zutenaren gaineko zergarik eskatu eta etxeen jabeek euren errentak —«orain prezio altuan kobratzen dituztenak», matxinadako lekuko baten arabera— galduko zituztelako, denbora pasa ahala merkataritza eta etxeak elizatera eramango zituztela ikusten baitzuten<sup>182</sup>.

Zamakolak, proiektuaren egile eta hiribilduaren kontrako gorenen buruak, arrakasta lortu zuen Kontsulatuaren barrutiari zegokionez eta harrera ikaragarria egin zioten. Baina Gaztelako Kontseiluaren oniritziaren ordainetan, soldadutzari buruzko plan bat egin bide zuen. Honakoa esan zuen Murgak gai horren inguruan: «No hallé en él lo que se había dicho de milicias, pero desde luego me pensé que el comandante, la instrucción, los alardes y la uniformidad procurada en lo posible daban asidero para que los que se hubiesen empeñado en que eran milicias, ó los que lo quisiesen persuadir porfiasen largamente contra quien dixera lo contrario»<sup>183</sup>.

## Altxamendua

Begoña eta Abandoko biztanleak matxinatu ziren lehenengo; abuztuaren 16an jaitsi ziren hiribildura Zamakola, korrejidorea, kontsultaria, diputatu nagusiak eta Zamakolaren jarraitzale guztiak hil zitezela oihukatuz.

---

<sup>181</sup> *Ibidem*, 6-29. orr.

<sup>182</sup> AHN, Consejos, 11.871. leg. (1), 119 eta 120. orr.

<sup>183</sup> Villabaso, C. de, *op. cit.*, 35, 36, 38, 39, 40, 45 eta 50. orr.

Deustua eta Barakaldokoak horiekin elkartu ziren egun horretan. Hilaren 17an Begoñakoek bertako fiela zen Jose Nicolas de Batiz atzeman zuten «planaren berri emateari uko egiteagatik edo Gernikan hura onesteagatik». Bilboko Udalak, inguruetakoa nekazarien jarrera ikusita, gaueko errondak bikoiztu egin zituen, «konfidantza handiko pertsonen osatuz» eta biztanle guztien artean kapitularrak zainduz «asmo gaiztoko pertsonen lasaitasunetik atera ez zitzaten». Matxinatuak, Abandon gordeta zituzten armez horniturik, Abendañoren bila joan ziren San Frantzisko komentura. Zamakola ordurako alde eginda zegoen Dimarantz «bide galduetatik zehar». Abandokoek korrejidorea, diputatuak eta aipaturiko Abendaño harrapatu zituzten. Begoñakoek gutxi gorabehera honakoa zioen paper bat egin zuten: «[soldadutzaren] plana ez zela burutuko eta bertan behera geldituko zela ziurtatzeko Batzar Nagusia egingo zutela handik egun gutxira». Barakaldokoek Aranguren kontsultaria topatu zuten, «altxamendu haietan bere kontra joko zutelako errezeloz» ihes egin zuena, nahiz eta Zamakolaren kontrakoa izan, eta Sestaon eta Portugaleteko inguruetan gehiegikeriak egin ziren<sup>184</sup>. Arrankudiagan bizi eta bertako tabernaria zen Miguel de Escalzak Bilbon bizi zen Jose Antonio de Aguirre iraindu eta jo egin zuen Urduñan, honakoa esanez: «[los alborotadores] hacian vien en aquello, para q<sup>e</sup> lo pagasen los traydores, y q<sup>e</sup> a esttos hera menester cortarles el pescuezo»<sup>185</sup>. Deustuko herriak Gernikan elizate horretako ahalduna zen Francisco Lemonauriaren kontra jo zuen, errejidoreek, Vargas markesak eta Nicolas de Guendicak herria baretzeko ahaleginak egin arren.

Urte horretako irailaren 15ean honakoa zioen paskin bat agertu zen Areetako Belardiko jaspezko zutabeetan:

«Si la Deputación no hase armar a todos los pueblos del Señorío al instante afin de que de ninguno de los modos entre la tropa se va a insendiar todas las propiedades dando principio en bilbao que ardera en bibas llamas, pues ya es tiempo de que V. S. S. no nos engañen mas, bajo este su puesto veremos si V. S. S. dan las ordenes conducentes para el efecto, de lo que aemos responsables a V. S. S. y a todos los que se ausenten por no coger la arma por defensa de nuestros fueros. Pena de la vida el que quitase esta orden sea quien fuere, pues sabremos por fuersa.»

Maisu adituak eta guzti erabiliz nork idatzi zuen jakiteko ahaleginak egin bazituzten ere, ez zuten asmatu<sup>186</sup>.

Matxinatuek nahi bezala, Batzarra bildu egin zen baina hauxe gertatu zen: «se presentó tan concurrida de infanzones de abarcas y garrote, que los mas ancianos decian no haber visto cosa igual sino quando se trató del primer servicio de gente despues que los franceses penetraron

---

<sup>184</sup> *Ibidem.*

<sup>185</sup> AHN, Consejos, 11.871 (4).

<sup>186</sup> *Ibidem*, Consejos, 11.871. leg. (3), 1. or.

en Guipúzcoa»<sup>187</sup>. Lekuko batek zioenaren arabera, Batzar hori soldadutzaren plana aztertzeko asmotan egin zen, «[y] que siendo esto el punto de q<sup>e</sup> parece q<sup>e</sup> solo debia tratarse, se amañó nombrar nuevo gobierno despojando de sus empleos à los q<sup>e</sup> en la Diputacion los obtenian legitimamente; y en seguida no tan solo abolieron dho Plan, sino q<sup>e</sup> rebocaron los mas de los acuerdos anteriores respectibos al establecimiento del nuevo Puerto de la Paz»<sup>188</sup>. Soldadutzaren planaren truke milioi errealeko dohaina eskaini zuten. Batzarrean zeudela, ondokoa zioen Godoyren gutun bat iritsi zitzaien: «que un servicio militar era uno de los obsequios que habia pensado el Señorío en correspondencia á las especiales mercedes que tenia recibidas de S. M. y señaladamente la de habilitacion del Puerto de Abando». Murgaren hitzen arabera, gutun horrek soldadutzaren eskaintza portua gaitzearen ondorio zela zioen ideia indartzen zuela ulertu zuten<sup>189</sup>.

Batzarrak herriaren iritziak ezagutzen zituela ziurtatzeko, elizate matxinatuek oinezko posta-zerbitzua antolatu zuten, eta horren bidez dekretuak jasotzen zituzten. Iluntzean elkaturik, irakurri egiten zituzten, eta ados etorri ala ez, «eskerrak edo zuzenketak ematen zizkioten Batzarrari». Bilboko Udalak, inguruko elizateetan jendaurrean irakurtzen ziren dekretuak beretzat gorde zituenez, bertako biztanleek «oihuka eta kolpeka» Udaletxeetako harmailetan informazioa ematera behartu zituzten<sup>190</sup>. Matxinatuei gehitu zitzaien bilbotar jendea emakumeek eta mutikoez osaturiko jendaila zela esan zuen Murgak<sup>191</sup>.

Gero egin zen ikerketa judizialean, lekuko guztiak bat etorri ziren «jendea soldadutzaren inguruan egin omen zen planagatik aztoratuta zebilela» esatean. Dena dela, erruztatuen artean honakoak zeuden: «casi todos los vecinos visibles, acaudalados y de luces que por aquel tiempo existían en Bilbao, figurando à la cabeza del catálogo los principales mayorazgos, comerciantes y hombres de letras». Ondasunak kendu zizkieten, baina 1805eko ekainerako bahitura kendu eta Filipinetako eta Ceutako espetxeetara eta Ferroleko armategira bidali zituzten zigorra betetzera<sup>192</sup>. Aberatsak diru-zigorrak ordainduz libratu ziren<sup>193</sup>, eta Urquijo ministro ohia eta Mazarredo itsas armadako kapitain jenerala Bizkaitik kanpo erbesterratu zituzten<sup>194</sup>.

Zamakoladari buruzko interpretazio zuzenena dagoeneko aipatu dugun Juan Antonio de Aguirrerena da antza. Merkatariak eta Bilboko etheen jabeak, nekazariak jende gorenaren aurka soldadutzagatik egindako altxamenduaz

---

<sup>187</sup> Villabaso, *op. cit.*, 58. or.

<sup>188</sup> AHN, Consejos, 11.871. leg. (1), 119. or. atz.

<sup>189</sup> Villabaso, C. de, *op. cit.*, 61. or.

<sup>190</sup> *Ibidem*, 63. or.

<sup>191</sup> *Ibidem*, 67. or.

<sup>192</sup> AHN, Consejos, 11.871. leg. (2).

<sup>193</sup> Villabaso, *op. cit.*, 67. or.

<sup>194</sup> Zamácola, J. A., *Historia de las naciones bascas*. Bilbo, 1898, 299. or.

baliatu ziren Abandoko portuaren gaitzea deuseztatzeko, aldez aurretik nekazarien haserrea piztu zutela baztertu gabe. Baina hauek bazuten beste «akui-lu» baten beharra ez izateko adina arrazoi.

## Zamakoladako pertsonaiak

Murga eta Villabasori esker, matxinatuek jarraitutako edo zalantzan jarritako zenbait goren garrantzitsuren biografia laburra lor dezakegu.

Simon Zamakola, dimarra eta Arratiako merindadeko foru-alkatea izandakoa, dugu «interesak Bilbon kokaturik ez zituzten goi-mailako pertsonen eta maiorazkoen gehiengoaren» buru. Altxamenduaren aurreko Batzarretan «dozena erdi herriren ahalordeak zeramatzan». Francisco de Aranguren y Sobrado, maiorazkoko familiakidea eta hala-moduzko ondasunen jabe zena, bere lanbidetik eta merkataritza eta finantza-kontuetan egindako espekulazioetatik bizi zen. Zamakolaren jarraitzaile sendo hau Bizkaiko kontsultari bakarra izateaz gain, Jaurerriari dirutza eman zion maileguz baldintza bikainetan —mailegua onartu zuen batzordekidea izan zen— eta 1799ko legedia drakoniarra idatzi zuen. 1808ko uztailaren 7an hil zen «Baionako Biltzarrean Jaurerriko diputatu izateko karguari, behin eta berriro eskaini bazioten ere, ezetz esan eta handik egun gutxira». Jose Maria de Orbe y Elio, 1737an sortu zuten markesgo baten oinordekoa bera, Bilboren kontrakoa zen eta Zamakolari Madrilera egin zuen laugarren bidaia erabakigarri hartan lagundu egin zion. Karlos erregegaiaren ministro unibertsala izan zen. Nicolas Ventura de Eguia Durangaldeko maiorazko bateko ondorengoa zen eta «estatuari eta baita bere klasearen nagusitasunari ere erasaten zioten berrikuntzen eta aldaketen etsai zen». Honen anaia bat «bere karreraren bukaeran Urgelen erregeordealdiko» buru izandako «jeneral ospetsua, erregezale handia» izan zen, eta semea, berriz, bigarren gerran armada karlistaren buru. Ez zen Zamakolaren jarraitzaile sutsua izan. Jose Agustin Ibañez de la Renteria, xviii. mendean Kontseilu Gorenetan, Itsasoz Bestaldeko Gobernuan eta Elizan karguak izan zituen familia goren batekoa zena, soldadutzaren gaien nahastuta zegoen eta ihes egitea lortu zuen. Pedro de Abendaño, maiorazkoa eta 1802an diputatua izandakoa, Zamakolaren kontrakoa bazen ere, atzeman egin zuten matxinatuek. Nicolas de Batiz Begoñako fiela eta Zamakolaren aldekoa elizate horretako lur-jabe handia izan bide zen; «hain zen boteretsua» non inor ez zen hark zioena ezeztatzen ausartzen. Domingo de Mazarredo, Zamakolazalea, «jarrera erreformista eta berritzailea» zuena eta Marinako kapitain jenerala zena, erregeak Jaurerriatik erbesterratu egin zuen. Jose Maria de Murga, ondasun ugari zuen aspaldiko familiakoa, 1800ean Bilboko errejidorea ez ezik, oinaztarren lehen diputatu nagusia eta Hirurtekoan Bilboko alkatea ere izan zen.

Ikus daitekeenez, jende gorena izan zen, asko Arratiako foru-alkatearen aldekoak, eta hauetako bik karlismoarekin harreman estuak izan zituzten.

Errepresioa gorabehera, oraindik ere 1807an urduritasunak jarraitu egiten zuten Bizkaian. Urte horretako irailaren 11ko egunsentian, beste paskin bat agertu zen Bilboko Areetako belardiko zutabeetan:

«Diputados, Sindico y Consultor, para desenrredar buestro proieto vil es preciso llamar a Junta gral. al instante sino quereis ser bictimas de nuestro furor en compañia del Capitan del Puerto, alcalde Maior, Renteria y otros muchos traidores que aun no estan olvidados. Si el S<sup>or</sup> Gobernador se opusiese a cosa tan justa (sera por el catolico Almirante) comunicad por vereda a todo el Señorio sus pretensiones asta el punto mas reserbado: desechad sus viles amenazas, fiad en la Justicia que nos asiste y sepa el mundo todo el cumplimiento de vuestra obligacion: Este es el honor la onrra y la estimacion del hombre: cuenta con el pase no bastaran restricciones ni proxtas que satisfagan al Pais por que en el dia no se trata de otra cosa que de engañar con promesas y no cumplirlas (beanselas Ordenes del Almirante).»

Mungiako abokatua zen Pedro Antonio de Bentades atxilotu zuten idazkeran susmoa hartuta, baina froga eza zela-eta, askatu egin zuten<sup>195</sup>.

### **Antzinako nobleak modernoek aurka**

Bizkaian burgesak eta jauntxoak elkarren aurka egoteak nekazarien altxamenduari lagundu bazion, Arabako herrietan, ordea, antzinako nobleen eta noble bihurtu nahi zuten burges nekazarien arteko borroka ilunagoa izan zen, baina hura bezain gogorra. 1724az geroztik kenduta zeuden «moneda forera» eta soldadutzaren zerbitzuak, «para cuyos repartimientos se hacian principalmente vecindarios y padrones con distinción de estados». Zenbake-ten bukatzeak eta, batez ere, herri xeheko hainbat pertsona aberasteak, hauek noblezian sartzea bultzatu zuen: «Suele ser facil a los poderosos y ricos —zioten— el hacer a su voluntad y arbitrio las provanzas...». Valladoliden 1775eko otsailaren 4an Errege Xedapen bat egin zuten Biasteri, Mainueta, Uribarri Gaubea eta Biasteriko ermandadeko gainerako herriei zuzendua; bertan azaltzen zuten, 1774an Mainuetako kapareak honetaz kezku ziren: «se hallaban intrusos en el estado N[oble; apurtua dago] después del año de setecientos y tres», eta horregatik erregeak errolda bereizgarriak egiteko xedapena eman zuen. Samaniegon 1775eko apirilaren 27an eta maiatzaren 11n egin ziren, baita 1792an, 1815ean eta 1816an ere<sup>196</sup>.

Andan, 1766-1767 inguruan, gastuen kontu-liburuan apuntatutako 50 edo 60 noble izatetik 173ra pasa ziren, «noble gehiago baitzeuden

---

<sup>195</sup> AHN, Consejos, 2.870. leg. (3).

<sup>196</sup> Samaniegoko Parrokiako Artxiboa, «Padrones con distinción de estados en esta Villa» paper solteak.

modernoengatik»<sup>197</sup>. Koartangoko aspaldiko nobleek, edo antzinako nobleek —horrela deitzen baitzioten euren buruari, «nobles rancios»—, modernoak San Vitoren Batzarrean onartzeko jarri zuten erresistentziak 1833an ere oraindik zirauen auzia ekarri zuen. Modernoak 1770ean gutxi gorabehera hasi ziren noble bihurtzeko eginahaletan, eta Probintziak onartu bazituen ere, Valladolideko Kantzelaritzak kaparetasun-kidetzeak aztertzeke utzi zituen, eta horri eusten zioten antzinakoek. Erresistentzia horiek, gizartegatazken gorakada eta honen ondorengo errepresioa aldi berean gertatu ziren. Garai horretan ari zen Eliza ere temati tazmia-liburuak sortzekotan eta produktu guztien hamarrena kobratzekotan.

Arabán, forua oso-osorik 1800 eta 1801. urteetan egindako Errege Agindu bati esker berriro indarrean jarri zenetik, hainbat kargu —alkate arrunta, ermandade-alkatea eta prokuradoreak eta Batzar Nagusietan ermandade-ordezkarriak— zaldun nobleentzat eta kapareentzat bakarrik izan ziren. Antzinakoen eta modernoan arteko auzian, honakoa azaldu zuen antzinakoen lekuko batek: «que antes de 1801 se nombraban dos Alcaldes Ordinarios por los dos estados [noble y general], que la Alcaldia de Hermandad alternaba entre ambos, y cada uno de ellos nombraba su Procurador Provincial p<sup>a</sup> la asistencia a Juntas grales alavesas, p<sup>o</sup> despues de dho año no vio, oyó ni entendió se hubiese dado un solo egemplar de nombrar a ninguno de los hombres buenos para regentar los tales empleos por estar como estaban escluidos de su goce»<sup>198</sup>.

Baztertutako noble moderno edo noblegai hauek herrietako liberalak ziren, noski. Udal-agintera heltzeko bide berritzaileak porrot egin zuenez, inbasio frantsesaz baliatu ziren hainbat kargu hartzeko: «en tiempo del gobierno intruso á la sombra de nuestros enemigos —zioten antzinakoek— lograron el ser instalados en alg<sup>s</sup> de los empleos pertenecientes á los nobles»<sup>199</sup>. Dirudienez, Fernando VII.aren erreakzioak ez zien eragin handirik egin: hauxe zioten 1815ean Erregeari egindako kexetan Gaubea, Koartango eta Morillasko ermandadeetako prokuradoreek aurreko urteko azaroko Batzarretan izandako irregulartasunei buruz, eta horien artean euren postuak kentzeari buruz: «debe llamar la atención que estos despojos y attentados escandalosos han sido hechos por remattantes de suministros para los Franceses, compradores de obras pias y sus secuaces»<sup>200</sup>.

1818an, Lekeitioko Udalak txakolinaren salmentari buruzko ordenantza berritzeko egin zuen saialdian, kalteturiko uzta-biltzaileek herri txikietako burgesen ezaugarriak islatu zituzten paskin batean. Horrelakoxea zen alkatea, paskinaren arabera: «gran filosofo y moralista en las leyes opuestas

---

<sup>197</sup> AHN, Consejos, 3.965. leg. (2).

<sup>198</sup> *Ibidem*, Consejos, 3.965. leg. (2).

<sup>199</sup> *Ibidem*.

<sup>200</sup> *Ibidem*, Consejos, 3.314. leg. (32).



a las Dibinas y humanas leies», «defensor a los Guachinangos rebueltos contra la Corona de nuestro amado monarca Fern<sup>do</sup> Septimo» eta «amante de leyes modernas»<sup>201</sup>.

### **Legedia liberala, nekazariak eta arrantzaleak**

Nekazariak eta abeltzainek, liberalismoa nagusitu zenerako ezagutu eta jasanda zituzten legedia burgesaren ondorioak: errentek gora egiten zuten kontratua berritzen zen bakoitzean; egia da, hala ere, oraindik, 1808 arte gutxienez, ez zitzaiola maizterrari etxea utziarazten urtebete lehenago abisua emanda; gero eta herri-erabilera gutxiago zegoen eta kontzejuen lurrak saldu egiten ziren, gutxinaka-gutxinaka Independentziako Gerra arte eta handik aurrera gehiago. Nekazari gehienei, eta batez ere behartsuenei, desabantailak bakarrik zekarzkieen liberalismoak. Euskal Herriko artisauei ez zien ez onerako ez kalterako erasaten; armaginek izan ezik, besteek ez zuten ez gremiorik ez lan-trabarik, eta baziren zenbait gizaldi merkataritzakapitalismoaren mende zeudela. Arrantzaleak bakarrik zeuden hortik kanpo, eta horiengandik jasoko dugu kofradiaren ordenantzen babesetik merkataria-riaren —edo, kasu honetan, industriari hasi berri baten— nagusitasunera pasatzeak zein ondorio zekarren azaltzen duen adibiderik argiena.

Napoleonen soldaduek Iberiako penintsula indarrez hartzeaz gain, legedia liberala ezarri zuten, sarritan ahazten den gauza bada ere. 1808ko urtarrilaren 29ko oroitza-txosten batean, Lekeitioko marinelen kofradiak arraina nola saltzen zen azaltzen du: atunaren edo bisiguaren arrantza-aldiaren aurretik, egunean sobera geratutako arrain horiek atera eta enkan-tean jartzen zituzten, hau da, mandazainek Gazteletako herrietara eramateko erosi ez zuten arraina, negoziatu eta eskabetxerako igortzeko. Horrela, alde aurretik zekiten bazela hondarrak erosteko norbait, eta «con este conocimiento las lanchas aprovechan y hacen útiles todos los días, que en lo demás dejarían de salir en muchísimos y mas cuando se pesca con abundancia en continuados días sin interrupción». Arrainaren salmenta asko harrapatzen zuten egunetan ziurtaturik izan ezean, mandazainei saldu ondoren, sobera geratutakoa «harrapatutako lekura bota beharko zen».

Gobernu frantsesak, Jaurerrian zegoela, 1810eko apirilaren 31ko dekretuan salerosketa librea agindu zuenean, Ondarru, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka eta Bermeoko marinelen kofradiako arrantzaleak horren kontra jarri ziren. Kontserba-egileen mende egongo zirela erabat esan nahi zuen erabaki horrek, izan ere, arrantza ugari eta oso prezio txikietan zegoenean bakarrik erosiko zuten, azken finean, mandazainek eraman beharrekoa erosi eta gero, eurek izango baitzirelako erosle bakarrak. Horregatik hauxe egin

---

<sup>201</sup> *Ibidem*, Consejos, 3.418. leg. (17).

behar zela defendatzen zuten: «sacar y poner en candela... y con anticipacion de las respectivas costeras de atun y besugo las sobras diarias y otro genero de pesca para negociaci3n y giro de escabeches»<sup>202</sup>.

Arrantzaleak eta, jakina, nekazariak, zergatik jarri ziren frantsesen aurka, inbaditzaile izateagatik edota liberalak izateagatik? Erraz banatu ezin diren bi alderdi direla uste dut.

## **Lehenengo Gerra Karlista Gorenak nekazari-jendea erakartzeko egindako saiialdiak**

XVIII. mendeko gatazketan zegoen kontraesan handiena bi talderen artekoa zen: alde batetik jauntxoak, merkatariak eta espekulatzaileak, eta bestetik nekazariak eta artisauak; bigarren mailako istilu bat ere bazegoen jauntxoen eta burgesen artean, antagonikoa ez bazen ere. Abandoko portua bideratzeko saiialdia, talde menderatzailearen barruan gizarte-krisiaren garaian izandako tirabiren ondorio izan zen. Denbora laburrean matxinatua eta burgesak bat etorri ziren jauntxoen proiektuei aurre egiteko: lehenengoak, soldadutzaren plana zela-eta; bigarrenak, Bakearen portua zela-eta. Zamakolada oso adierazgarria da, bigarren mailako antagonismoa areagotu eta aurkakotasunak berriro antolatu ziren lehenengo seinalea baita.

Independentziako Gerraren ostean, Arabako herri txikietan antzinako nobleek edo jende gorenak modernoek edo landatar burgesen aurka egin zuten bitartean, Bizkaian eta Gipuzkoan jauntxoek, nekazariak bereganatzeko eta merkatariari kalte egiteko neurriak hartzen ziharduten, eta artisauak merkatarien eta manufaktura-egileen jarreraren eragina jasotzen ari ziren.

Gaztelako Errege Kontseilu Gorenak 1815eko irailaren 16an onartutako Legeak honakoa egiteko baimena ematen zien Bizkaiko alkateei eta fielei: «conocer y determinar en juicio verbal de las reclamaciones que no pasen de cien reales». Jaurerrian, laurogeita hamar elizateetako fielek auzo-eskumena baino ez zuten. Gorenaren ustez, elizateetako biztanle asko eta asko «diru gabe gelditzen zen edozein erreklamazio judizialengatik, garrantzi txikiakoa bazen ere, bere etxeetatik urrunduta behar izatean». Gainerako hogeita hamaika lekuetan —hiribilduetan—, alkateek eskumen arrunta zuten eta hauxe ere nabaria zen: «se palpaban graves inconvenientes de someter a la ritualidad ordinaria de los juicios las demandas de menor cuantía». Aipaturiko legeak gutxitu egin zituen kalte handi eta hondatzaile horiek.

Gernikan 1825eko maiatzaren 28an egindako Batzar Nagusian honakoa eskatu zioten erregeari: «que se dignase ampliar la cantidad de que pueda y deba conocerse en juicio berval, sin ulterior recurso», eta hori

---

<sup>202</sup> Lekeitioko Arrantzaleen Kofradiako Artxiboa. Lekeitioko Marinelen Kofradiako Eskriturak, 1754tik 1857ra, 9. errejistroa, 17. zkia.

zela-eta erregutu zioten baimena emateko «a todos los Jueces, Alcaldes y Fieles del domicilio de los respectivos demandados en este vuestro Señorio, para que puedan y deban precisamente conocer y decidir en juicio verbal sin ulterior recurso de apelacion, nulidad, restitucion ni otro remedio alguno de toda queja criminal sobre palabras y hechos libianos que no merezcan pena corporal y de todas las reclamaciones y demandas que no pasen de cuatrocientos reales vellon, siempre que no procedan de arrendamientos, censos reservatibos, consignativos o enfiteuticos y de cualquier especie de derechos perpetuos».

Nekazarietzat hain egokia zen neurri hau gibel-asmoz egin zuten. Lehenengo protestak epaileek egin zituzten, diru-sarrera gutxiago izango zutela ikusi zutenean, izan ere, auzi txiki ugari beren eskumenetik at gelditzen baitziren. Uribe, Busturia eta Zornotzako merindadeetako foru-alkateak, hots, Agustin de Bentades, Modesto de Elordui eta Ignacio de Zabala, hurrenez hurren, Foruen kontrakoa zela argudiatuz, aurka jarri eta zera gaineratu zuten, Batzarraren proposamena «nekazarien behar gutxietara egokitutako» diru-aurrerapen txikiak ematen zizkietenen kalterako zela eta «onibarren eta zentso sendoen jabe ziren aberatsei», ordea, ez ziela kalterik egingo, auzitegi arruntetara jo baitzezaketen. Hau da, Batzarraren proposamenak nekazariari kontsumo-ondasunen mailegu-emaileen aurrean —aipatu ere egiten ez direnak— laguntzen bazien, ez zien lur, zentso eta enfiteusien jabe zen jende gorenaren interesei kalte egiten.

Merioaren tenientea eta korrejidorearen auzitegiko aguazilak eta errege-eskribauak eta zenbakikoak ere aurka zeuden foru-alkateen antzeko diru-arrazoiengatik.

Baina espekulatuzaileak eta merkatariak izan ziren benetako kaltetuak, foru-alkateek aipatu nahi ez bazituzten ere, eta zalantzarik gabe, haien kontra egin zen Batzarraren proposamena. Hauek, erregearen aurrean protesta egitean, ondorengo azaldu zuten: «han solido confiar a los Labradores y Marineros los efectos de su comercio reducidos al vestuario y á las primeras necesidades del hombre hasta que beneficiando sus cosechas proporcionasen en dinero para satisfacer el importe de lo que han acostumbrado llevar». Noski, hainbat kobrantzatan teniente korrejidorengana, Foru-alkateengana eta gainerako epaileen justiziara jo behar izaten zuten. Ez zuten inpartzialtzat jotzen herrietako fiela, zordunaren elizatean bizi zelako eta ziur aski nekazari bat gehiago zelako ia gehienetan.

Korrejidoreak kaltetuen jarrera azaldu eta «berrikuntza atzera botatzearen» aldekoa zen eta, gehitu zuen, «aun la atribucion relativa a los 100 reales no tenga efecto alguno sino en los casos que juzgasen conveniente fiar a los fieles, el Corregidor y Teniente Gral». Erregeak epaile-taldeari eta merkatariari eman zien arrazoia eta ez zen proiektua onartu<sup>203</sup>.

---

<sup>203</sup> AHN, Consejos, 3.703. leg. (4).

## Egoera ekonomikoa eta errentak

Fernando VII.aren erregealdian nekazaritza-produktuen prezioak jaitsi egin ziren. Nekazaritza-produktuek merkaturatze-maila handiagoa zutenez, are gehiago nabarmendu zen beherakada. Gizartearen ikuspuntuari dagokionez, espezieetan kobratutako errenta edo uztaren zatirik handiena saldu ohi zituzten familiak eta ustiategiak izan ziren kaltetuenak, esaterako behe-mailako jauntxo asko. Noski, ez zien etekinik ekarri nekazarien ekonomiari —gero eta parte-hartze handiagoa zuten merkatuan, eta, gainera, aleen prezioa jaitsiriko proportzio berean igo ziren zituzten zorren korritua ere—.

Bestalde, produkzioak ez zuen gora egin; aitzitik, gelditu egin zen, eta ezin izan zuen, hortaz, prezioen jaitsialdia berdindu.

Lekeitioko fabrikak jasotako fruitu guztien hamarrenaren erremateei esker, nekazariak eta jauntxoak —hauen aberastasuna espezieetan kobratutako lur-errentek osatua— zituzten ustiategiaren diru-sarrerak nola aldatu ziren jakin dezakegu gutxi gorabehera.

### Lekeitioko fabrikako fruitu guztien erremateak

|           | Errealak | Indizea |            | Errealak | Indizea |
|-----------|----------|---------|------------|----------|---------|
| 1786..... | 12.265   | 100     | 1811 ..... | 19.147   | 156     |
| 1787..... | 12.265   | 100     | 1812 ..... | 23.582   | 192     |
| 1788..... | 12.265   | 100     | 1813 ..... | 22.651   | 184     |
| 1789..... | 12.265   | 100     | 1814 ..... | 16.506   | 134     |
| 1790..... | 12.265   | 100     | 1815 ..... | 15.834   | 129     |
| 1791..... | 12.265   | 100     | 1816 ..... | 11.565   | 94      |
| 1792..... | 11.275   | 91      | 1817 ..... | 11.797   | 96      |
| 1793..... | 11.275   | 91      | 1818 ..... | 15.220   | 124     |
| 1794..... | 11.275   | 91      | 1819 ..... | 12.000   | 97      |
| 1795..... | 11.275   | 91      | 1820 ..... | 11.000   | 89      |
| 1796..... | 11.275   | 91      | .....      |          |         |
| 1797..... | 11.275   | 91      | 1823 ..... | 12.627   | 102     |
| 1798..... | 13.860   | 113     | 1824 ..... | 13.093   | 106     |
| 1799..... | 13.860   | 113     | 1825 ..... | 13.962   | 113     |
| 1800..... | 13.860   | 113     | 1826 ..... | 11.567   | 94      |
| 1801..... | 13.860   | 113     | 1827 ..... | 11.011   | 89      |
| 1802..... | 13.860   | 113     | 1828 ..... | 9.700    | 79      |
| 1803..... | 13.860   | 113     | 1829 ..... | 8.640    | 70      |
| 1804..... | 17.808   | 145     | 1830 ..... | 7.980    | 65      |
| 1805..... | 13.339   | 108     | 1831 ..... | 8.100    | 66      |
| 1806..... | 13.002   | 106     | 1832 ..... | 7.980    | 65      |
| 1807..... | 13.002   | 106     | 1833 ..... | 9.679    | 78      |
| 1808..... | 14.052   | 114     | .....      |          |         |
| 1809..... | 10.682   | 87      | 1836 ..... | 6.100    | 49      |
| 1810..... | 12.022   | 98      | 1837 ..... | 11.100   | 90      |

Diru-sarrerak egonkor mantendu ziren XVIII. mendearen bukaeratik Independentziako Gerraren hasiera arte. Guda, ordea, oparoaldia izan zen, prezio altuak eta espekulazioa batera izan zirenean. Gerra bukatu ondoren beharaldia izan zen; 1823an, 1824an eta 1825ean geldiarazi bazen ere, hurrengo urteetan areagotu egin zen: 1829, 1830, 1831 eta 1832. urteak ezin txarragoak izan ziren.

Errentek, espezieta jasoek, hamarrenen erremateak berresten dituzte. Bidecoa baserrian urtean sei anega gari ordaindu zituzten errenta gisa 1787tik 1850era arte eta kantitate hori San Lazaro Ospitaleko administrazioaileak saldu egiten zuen; bere kontuen arabera honakoa dugu<sup>204</sup>:

|           | Errenta dirutan |        |           | Errenta dirutan |       |
|-----------|-----------------|--------|-----------|-----------------|-------|
| 1800..... | 234             |        | 1826..... | 216             | 58,22 |
| 1801..... | 348             |        | 1827..... | 204             | 54,98 |
| 1802..... | 432             | } 100  | 1828..... | 216             | 58,22 |
| 1803..... | 432             |        | 1829..... | 198             | 53,36 |
| 1804..... | 408             |        | 1830..... | 198             | 53,36 |
| 1805..... | 300             |        | 80,86     | 1831.....       | 216   |
| 1806..... | 276             | 74,39  | 1832..... | 234             | 63,07 |
| 1807..... | 276             | 74,39  | 1833..... | 192             | 51,75 |
| 1808..... | 300             | 80,86  | 1834..... | 186             | 50,13 |
| 1809..... | 312             | 84,09  | 1835..... | 192             | 51,75 |
| 1810..... | 300             | 80,86  | 1836..... | 366             | 98,65 |
| 1811..... | 348             | 93,80  | 1837..... | 276             | 74,39 |
| 1812..... | ?               |        | 1838..... | 324             | 87,33 |
| 1813..... | 540             | 145,55 | 1839..... | 240             | 64,69 |
| 1814..... | ?               |        | 1840..... | 216             | 58,24 |
| 1815..... | 405             | 109,16 | 1841..... | 216             | 58,22 |
| 1816..... | 381             | 85,71  | 1842..... | 228             | 61,45 |
| 1817..... | 318             | 85,71  | 1843..... | 228             | 61,45 |
| 1818..... | 264             | 71,15  | 1844..... | 228             | 61,45 |
| 1819..... | 204             | 54,98  | 1845..... | 234             | 63,07 |
| 1820..... | 216             | 58,22  | 1846..... | 264             | 71,15 |
| 1821..... | 204             | 54,98  | 1847..... | 300             | 80,86 |
| 1822..... | 216             | 58,22  | 1848..... | 240             | 64,69 |
| 1823..... | 216             | 58,22  | 1849..... | 216             | 58,22 |
| 1824..... | 228             | 61,45  | 1850..... | 186             | 50,13 |
| 1825..... | 204             | 54,98  |           |                 |       |

Egoera horrek ez zien alde onik ekarri ez nekazariei —beren errenta, hots, sei anega gari, ez zen aldatu— ezta lur-jabeei ere —beren diru-sarrerak izugarri txikiagotzen hasi ziren, batez ere 1817tik aurrera—. Baina errenta

<sup>204</sup> Mutrikuko Udal Artxiboa. Mutrikuko San Lazaro eta Magdalena Ospitaleetako kontu-liburuak.

dirutan ordaindu behar zuten maizterrak ibili ziren okerren; errenta, demografi hazkundearen ondorio zen onibarren eskari zabalaren eta lurren eskaintza mugatuaren arabera izaten zen. Abandoko San Bizente fabrikako etxearen eta alorren errentak aztertzen baditugu, ikus dezakegu XIX. mendearen lehenengo herenean XVIII. bukaerako urteetako maila berean mantendu zirela eta gainetik ere ibili zirela<sup>205</sup>. Hamarrenen erremateen bidez, errentaren eta nekazaritza-produktuen merkaturatzetik lortutako diru-sarreren mugimendua azter dezakegu:

|            | Errenta         |                | Erremateak        |                |
|------------|-----------------|----------------|-------------------|----------------|
|            | <i>Errealak</i> | <i>Indizea</i> | <i>Hamarrenak</i> | <i>Indizea</i> |
| 1800 ..... | 800             | 100            | 4.000             | 100            |
| 1801 ..... | 800             | 100            | 4.050             | 101,25         |
| 1802 ..... | 800             | 100            | 3.700             | 92,50          |
| 1803 ..... | 800             | 100            | 3.000             | 75,00          |
| 1804 ..... | 800             | 100            | 2.800             | 70,00          |
| 1805 ..... | 800             | 100            | 2.900             | 72,50          |
| 1806 ..... | 800             | 100            | 2.500             | 62,50          |
| 1807 ..... | 800             | 100            | 2.700             | 67,50          |
| 1808 ..... | 800             | 100            | 2.000             | 50,00          |
| 1809 ..... | 800             | 100            | 2.100             | 52,50          |
| 1810 ..... | 800             | 100            | 1.800             | 45,00          |
| 1811 ..... | 800             | 100            | 1.700             | 42,50          |
| 1812 ..... | 800             | 100            | 1.600             | 40,00          |
| 1813 ..... | 800             | 100            | 1.900             | 47,50          |
| 1814 ..... | 800             | 100            | 2.600             | 65,00          |
| 1815 ..... | 800             | 100            | 2.700             | 67,50          |
| 1816 ..... | 800             | 100            | 1.500             | 37,50          |
| 1817 ..... | 800             | 100            | 2.000             | 50,00          |
| 1818 ..... | 800             | 100            | 2.300             | 57,50          |
| 1819 ..... | 800             | 100            | 2.234             | 55,85          |
| 1820 ..... | 800             | 100            | 2.300             | 57,50          |
| 1821 ..... | 800             | 100            | 2.308             | 57,70          |
| 1822 ..... | 800             | 100            | 2.000             | 50,00          |
| 1823 ..... | 800             | 100            | 2.100             | 52,50          |
| 1824 ..... | 800             | 100            | 2.300             | 57,50          |
| 1825 ..... | 800             | 100            | 2.400             | 60,00          |
| 1826 ..... | 800             | 100            | 2.200             | 55,00          |
| 1827 ..... | 800             | 100            | 1.900             | 47,50          |
| 1828 ..... | 800             | 100            | 2.800             | 70,00          |
| 1829 ..... | 800             | 100            | 2.000             | 50,00          |
| 1830 ..... | 800             | 100            | 2.000             | 50,00          |
| 1831 ..... | 800             | 100            | 2.000             | 50,00          |
| 1832 ..... | 800             | 100            | 2.840             | 71,00          |
| 1833 ..... | 800             | 100            | 2.525             | 63,12          |

<sup>205</sup> Abandoko San Bizente Parrokiako Artxiboa. 1763tik 1834ra bitarteko fabrika-liburua.

Nekazaritzatik lortutako diru-sarrerak jaisteaz gain, burdingintzaren krisialdian sartu eta kolonia gehienak galdu egin ziren. Tolosako eskakizun batek, datarik ez izan arren 1830 inguruan idatzi eta Gipuzkoako Batzar Nagusiari zuzenduak, azaltzen zuenez, Amerikako eskariak burdinolen eta artisauen jarduerari laguntzen zien eta horren ondorioz, ikatzerako egurra ateratzen zeneko mendien oparotasuna mantentzen zuen. Mendien jabeek hauxe egiten zuten: «cifraban en los productos de este artículo una parte de las rentas que mantenían el brillo y el decoro de las familias patricias, que por su parte dedicaban sus devesos y sus cuidados al buen gobierno de la Provincia». Hau da, burdingintzaren gainbeherak eragin txarra izan zuen jauntxoek diru-sarreretan, baina nekazarien sarre-  
retan ere bai, industria oparoa izan zenean «pertsonea eta familia ugari... esne-mamitan bizi ziren», eta horren ondorioz, «behar-beharrezko janari-  
truke prezio onak» ordaintzen zituzten eta horrela «nekazarien klase errespetagarriak nekazaritza-lanen ahaleginengatik saria» lortzen zuen. Nekazaritza-prezioen beheraldia ez zitzaion euskal industriaren krisialdi-  
ri zor, baina interesgarria da bi gauza ikustea: zailtasunek nola erasan zie-  
ten landatar gorenei eta nekazariei eta, batez ere, garaiko agiri batek nola  
egozten dizkien oinarri berdinak. Horrek, Napoleonen inbasioak, kolonien  
independentziak eta atzeritarrekin zuten merkataritza zuzenak, eta gober-  
nuaren neurriek —euskal produktuei, Gaztelan sartzean, atzerrikoak baili-  
ran, zergak ezarriz— eragin zituzten: industriari-talde osoaren miseria, «el  
envilecimiento de los frutos agrícolas, las escaseces del labrador y por ul-  
timo la notable rebaja en las rentas de las familias nobiliarias de la Pro-  
vincia»<sup>206</sup>.

Beraz, berriro ezarri behar zen industria. Ogasun Ministerioak 1830eko  
ekainaren 30ean ateratako Errege Agindu batek honakoa agintzen zuen:  
«que se comunique a las Diputaciones de esas Provincias basconga-  
das... que cada una de ellas embie luego a la corte su comisionado...  
con vistas a tratar de aumentar y mejorar la industria y el comercio sin  
menos cabar los Fueros particulares que S. M. ha prometido y se com-  
place conservarles...». Batzar Nagusiek Gipuzkoan aukeratutako orde-  
zkariei instrukzio batzuk eman zizkieten eta horien 5. atala interesatzen  
zaigu:

«En el caso de que se le hiciesen por la superioridad indicaciones  
opuestas a los fueros y nativas exenciones consignadas en ellos, [Gipuz-  
koako ordezkariak] elevará a la soberana consideración que... no puede  
conformarse con ninguna medida contraria a los citados fueros y que de  
semejantes indicaciones dará parte a la Provincia para obtener sus instruc-  
ciones»<sup>207</sup>. Beraz, Foruen arazoarekin egiten dugu topo.

<sup>206</sup> TPA, bigarren sekzioa, 21. neg., 133. leg.

<sup>207</sup> *Ibidem*, bigarren sekzioa, 21. neg., 132 eta 133. leg.

## Foruen aldeko gerra?

«Son los feudos, no los fueros, los que la han provocado y sostienen... los feudos con su fanatismo auxiliar y su numerosa comitiva de pretensiones retrógadas...»

ANONIMOA. Madril, 1834

«Esaten digute Iparraldeko probintziak ez direla Karlosen alde borrokan ari, beren pribilegioengatik baizik. Hori ez da horrela...»

HENNINGSSEN. 1836

Zer esan nahi zuten foruek? Ekonomiaren ikuspuntutik begiratuta, beharbada zerga-karga arinagoa edukitzea, zergak dohainari esker ordaintzen baitziren, baina batez ere aduanak barnealdean izatea. Ikuspuntu sozialari eta politikoari dagokienez, jauntxoak probintzietako Batzarren bidez nagusitasuna izatea. Herriarentzat, soldadutzarik ez izatea adierazten zuen. Liberalismoa pribilejio horien guztien kontrakoa zen, sistema ekonomiko, sozial eta politiko zaharrekoak ziren aldetik. Antzinako Errejimenaren eta berriaren arteko borrokan, foruak eta foruzaleak lehenengoaren aldekoak ziren. Horrek ez du esan nahi nekazariak eta gorenak foruen alde altxatu zirenik. Batzuk zein besteak errejimen zaharraren alde borrokatu ziren; foru-legedia errejimen horren beste atal bat zen, eta agian garrantzikoena ez. Erregegaiak horren gainean zuen jarrera oso esanguratsua da.

Karlismoa foru-sistemaren alde sortu balitz, Don Karlosek egindako lehenengo gauza Foruak berrestea izango zen, jendea bereganatzeko asmoz. Begibistakoa da hori. Bada, Bizkaikoak 1834ko irailean berretsi zituen eta Arabakoak 1836ko martxoan, gatazka lehertu eta handik hogeita bederatzi hilabetera:

«El Señor Encargado de la Secretaría de gracia y justicia con esta fecha me dice lo que sigue=Ecsmo Señor=Habiendo acudido al Rey N. S. la Diputación de la Provincia de Alava, manifestando los servicios prestados por los habitantes de la misma Justa Causa, y la necesidad de que el país siga rigiéndose por sus antiguos fueros; S. M. me ha tenido a bien confirmar los Fueros y privilegios de la indicada Provincia de Alava en los mismos términos y extensión que los confirmaron sus Augustos Padre y Hermano los Señores Don Carlos 4.º y Don Fernando 7.º últimos predecesores de S. M.=Y de Real orden lo traslado á V. S. para su conocimiento=Dios güe á V. S. muchos años. Real de Durango 22 de Marzo de 1836=Villemar»<sup>208</sup>.

---

<sup>208</sup> AAA, 41. H., «Reales ordenes generales [carlistas] correspondientes al año de 1836», eta Artola, M., *Memorias de tiempos de Isabel II*. Madril, 1966, XII. or.



Garai hartako zenbait idazlek ere karlistak Foruen alde borrokatzen ziren ideia errefusatu zuten. Hona zer zioen 1834an idazle anonimo batek: «Hay tal vez quien cree que las armas, que en aquellos paises se han empleado en combatir al Gobierno legítimo, han sido movidas y se sostienen por el temor a perder los fueros, queriendo deducir de aquí que se les debe en castigo privar de ellos». Honakoa gaineratu zuen Euskal Herriko mugimendu iraultzaileari buruz: «no hay nada absolutamente de fueros... ni aun han servido ni sirven de pretexto». «El que inculpa a los fueros por aquella lucha, o no habla de buena fe, o ve poco en política, o no conoce el mundo ni vale para gobernarlo. Aquella revolución desde el principio fue combate de doctrinas y cada vez ha demostrado más claramente este carácter. En las demás provincias, en que se han descubierto más o menos iguales pretensiones, ¿hay por ventura fueros? ¿Es forista Merino? ¿Lo son Carnices, Cuesta, Cuevillas, Basilio? ¿Lo eran los refugiados de Portugal? Los Guardias arrojados de su cuerpo que tanto lo provocaron e impelieron ¿lo eran? ¿Lo son en fin los hombres, que se han apoderado del movimiento revolucionario en aquellos paises, desertando en la mayor parte de las banderas de la lealtad? ¿Han sido éstos en algún tiempo más celosos por los fueros, que el inmenso número de caballeros y personas de fortuna, de educación y de más antigua representación en el país, que andan todas proscritas, acogidas en los asilos de los puntos guarnacidos, consumiendo sus caudales, sacrificando las más dulces afecciones de la vida pública y privada, y sufriendo en sus propiedades abandonadas el robo, el incendio y todos los desastres de una persecución espantosa?»<sup>209</sup>.

Iritzi berekoa izan zen C. F. Henningsen ingelesa: «Kazetariak sarritan esan dute jendaurrean, matxinatuak arrakasta eta ausardia handiz borrokatzen direla, ez Karlos V.aren alde, edo erregezaletasunarekin zerikusirik duten sentimenduengatik, euren foru eta eskubideen alde baizik. Horrek guztiz onargarria eta horrela izan dela ematen du; hala ere, gehienentzat ez zen zinez beren grina edo gogo handiarentzako pizgarria, nahiz eta probintziak pribilegioak murrizturik ikusteko zorian egon. Orain armaturik borrokatzen direnen artean, hogeitik batek ere ez daki zer esan nahi duen foru hitzak, nahiz eta entzuna izan.

Gai honen inguruan berririk izan nahi nuenean, makina bat aldiz galdetu behar izan nien soldaduei erantzun egoki samarra jaso aurretik, eta zeren alde borrokatzen ziren galdetzean, “Karlos V.aren alde” edo “Erregearen alde” erantzuten zidaten beti»<sup>210</sup>.

---

<sup>209</sup> Anonimoa, *Observaciones sobre la necesidad de examinar el régimen administrativo de las Provincias Vascongadas, para fallar con acierto en esta materia*. Madril, 1834, 18 eta 20. orr.

<sup>210</sup> Henningsen, C. F., *Campaña de doce meses en Navarra y las Provincias Vascongadas con el General Zumalacárregui*, 1836an argitaratutako liburu ingelesetik itzulua. Madril. 1935, 57. or.

Bilbon gordetako liberalek urrunago jo zuten: altxamenduaren eta Foruen defentsaren arteko erlazioa ukatzeaz gain, foru-sistema mantentzearen aldekoak ziren 1837an: «No fue origen de la guerra el deseo, que podía animar a los Vascongados, de defender esos mismos fueros. Si ese deseo tuvo alguna influencia en el levantamiento de éstas provincias en Octubre de 1833 en favor de Dn. Carlos, existió solamente en algunos jefes que por instinto o por previsión, conocieron quizá que en el nuevo reinado llegaría el momento en que esos fueros fuesen atacados. Pero a medida que la guerra se hizo más encarnizada, más impotente, y que la marcha imperiosa de los acontecimientos cambió completamente en España el sistema de gobierno, haciéndola pasar de manos del despotismo al régimen constitucional, ese deseo se extendió por todas las clases y cundió entre aquellos mismos que defendían el trono de S. M. la Reina D.<sup>a</sup> Isabel II. Así lo comprueban las diferentes exposiciones hechas por estas autoridades al gobierno y la que éste vecindario [Bilbokoak] dirigió al congreso en 10 de junio de 1837 en que ... no pedía otra recompensa en premio de sus sacrificios y de su lealtad»<sup>211</sup>.

Beste idazle batzuek, ordea Alberto Listak esaterako, hauxe uste zuten: «gran parte, acaso la mayor, de los naturales de aquellas provincias que militan en las banderas del pretendiente, han tenido por motivo, o tomado por pretexto de su rebelión, la defensa de sus fueros»<sup>212</sup>.

Dena dela, Karlos erregegaiak Jaureerrian eta Araban foruak hain berandu berrestea eta Henningsenen eta Bizkaiko Aldundi isabeldarraren testigantza aski froga sendoak dira foruak defendatzeko gerra baten tesia zalantzan jartzeko behintzat.

## Aduanak

Industria siderurgikoa lehiakorra izan zen bitartean eta, batez ere, kolonietako merkatu eskusiboa izan zuen bitartean, kostaldeko probintziek merkataritza-balantza orekatu zuten. Burdinaren eta zerbitzuen esportazioari esker beste produktu batzuk inportatzeko aukera zegoen. Uzta eskasak zeuden urteetan zituak inportatzen zituzten eta, horrez gain, beste zenbait hornigai ere bai: bakailoa edo kolonietako produktuak eta ehunak. Aduanak barnealdean zeudenez, produktu horiek guztiak zergak ordaindu gabe sartu ohi ziren. 1802an, Mutrikuk honakoa adierazi zuen: «los habitantes de este Pueblo se visten generalmente con generos extranjeros y

---

<sup>211</sup> *Colección de proclamas... que dirige la Diputación de Vizcaya a los habitantes del Señorío*. Bilbo, 1839, 18. or.

<sup>212</sup> Lista, A., «De los fueros de las provincias vascongadas». *Revista de Madrid*. Madrid, 1838, II. libk., 3. or.

a excepcion de los labradores y alguno que otro de los que no lo son que visten Paños pardos de Castilla». Horiek, artzain, nekazaritzako morroi eta berorien familiekin batera, biztanleriaren erdia ziren ia; beraz, biztanleriaren %50 kanpotik ekarritako oihalekin jantzen zen<sup>213</sup>. Jakina, jauntxoak jantzi guztiak eta luxuzko elikagai asko inportatzen zituen: azukrea, txokolatea... Aduanak kostaldean jartzeak euskaldun askok kontsumitzen zituzten produktuen prezioaren igoera suposatzen zuen eta, gainera, eurek saltzen zituzten aleen prezioa beherantz zihoan.

Merkatarien, manufaktura-lanetan aritzen zirenen eta artisauen ikuspuntuak oso desberdinak ziren; industriari buruzko kapituluan ikusitakoa gogora ekarriz, azkeneko bi taldeak protekzionistak ziren. Olagizonentzat kompetentzia ingelesa izugarria zen eta protekzionismoak ez zien artisauetara batera kalterik egiten; gainera, azken hauei aleen prezioaren beherakada mesedegarri gertatu zitzaizen kontsumitzaile gisa, baina beraien merkatua Gaztela zen eta zerga garestiek traba egiten zieten.

Merkatariek ere industria siderurgikoaren krisiaren eragina sumatu zuten: esportatzen zuten produktu nagusietako bat galdu zuten eta, horrez gain, Independentziako Gerra amaitu ondoren artilearen esportazioak behera egin zuen. Euren funtzio bakarra eskualdeko merkatu txikiarentzat eta Gaztelentzat produktuak inportatzea zen. Hauentzat berdin-berdin zen zergak Bilbon ala Urduñan, Gasteizen edo Balmasedan ordaintzea. Bestalde, merkataria batzuek, lehen aipatutako Dorigak esate baterako, interesak zituzten industrian. Burdina inportatzen zuten eta salaketa gogorrak jasan zituzten merkataria gutxi batzuek baino ezin zuten elkartrukkeen degradazioa axolagabekeriaz ikusi.

Donostiako burgesen jarrera garbia zen: Gipuzkoak zituen merkataritzako eta industriako oztupo ugariak zirela-eta, «no quedaba mas remedio sino obtener del Gobierno la españolización si se sufre decir así, de nuestra industria y comercio». Donostiak, 1832ko uztailaren 2an, Batzar Nagusiaren aurrean nahi hori adierazi zuen eta, donostiarren esanetan, begi onez hartu zuten: Donostian aduana bat jartzea zen helburua, bertan, hasieran behinik behin, Gaztelarantz zihoazen produktuek zergak ordain zituzten. Baina Azkoitian, abuztuaren 18an bildutako Batzar partikularrak eskaera atzera bota zuen eta onartezina, ezegokia eta lotsagabea zela adierazi zuen. Azkoitiko batzordearen jarrera, kontsumitzaile zen errentadun batena zen eta honi kalte egingo zion inportazioak eteteak: «Cerrada la frontera sufrirá pérdidas el pequeño comercio, extendido por todo el país, porque su ganancia es proporcionada al consumo y se consume en proporciones de la baratura». Aitzitik, Donostiako merkatariek merkatu nazionala zuten buruan: farfailak, oihalak, kotoizko salgaiak eta beste produktu asko Katalunian lor zitzaiketela erantzun

---

<sup>213</sup> HEAA, Vargas Ponce Bilduma, XXIV. al.

zuten, hots, «[en] la rica e industriosa Cataluña», «a precios sumamente bajos»<sup>214</sup>.

Baina Donostiako zinegotziek eta merkatariak ez zituzten euren jarrerak bakarrik defendatzen. Hauen jokaera bat zetorren Bernabe Antonio de Egañak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak XVIII. mendearen bigarren zatian agertutakoarekin: industriaren garapena izango zen nekazaritza-inguruetan sortutako gehiegizko hazkundera bideratzeko modua. Hauen jarrera nekazaritza-inguruko nobleziaren eta foruen aurka zihoan eta, bide horretatik, nekazariak aduanen aldaketa euren onurarako izango zela konbentzitu nahi zituzten. Demografiaren presioa horren handia izango ez balitz, zioten, «los propietarios de la tierra no impondrían la ley a los miserables trabajadores...»; «... pero todavía estaría mas repartida la tierra si el regimen foral no hubiera impedido los vínculos y las acumulaciones perpetuas, tan multiplicadas en esta Provincia, que no habrá otra en donde haya sido mas general esa funesta manía de pequeños mayorazgos, que no ha podido satisfacerse sino imponiendo censos para salvar las legítimas y pagar las dotes de los hermanos del primogénito, con lo cual se ha añadido al mal de los vínculos el daño inseparable de los censos, más abundantes aquí que en ninguna parte»<sup>215</sup>. Puntu hau garrantzitsua da. Jauntxo batzuek, behe-mailakoek hain zuzen ere, zor ugari zuten. Zenbait baserriz osatutako maiorazkoak zituzten eta prezioak jaitsi zirenean euren errentek ere behera egin zuten, gehiago saldu beharra baitzuten (eta ezinezkoa zen) lehenagoko diru-sarrera berdinak lortzeko. Ez zen gauza bera 1.000 dukateko ezkontsaria ordaintzea anega bat garik 70 edo 80 erreal balio zituenean eta 50 baino balio ez zituenean. Baina, aldi berean, ordaindu behar izaten zituzten zentsoak gero eta handiagoak ziren, deflazioaren erruz. Arrazoi horiengatik guztiengatik gizarte-talde honetan egonezina sortzen ari zen, egoera ekonomikoa tamalgarria baitzen.

Donostiarren ustez, epe luzean, aduanak kostaldean jartzea ez zen nekazarien kalterako izango: «Y de todos modos el labrador sería el que menos perdiera, porque con la salida de una parte de la población a la industria y comercio, se disminuiría la concurrencia en los arrendamientos de tierras, lo que le proporcionaría la triple utilidad de obtener los frutos mas baratos, de venderlos más caros y de facilitarle ocupación para sí y para sus hijos en otros trabajos, sin recibir la dura ley del propietario de la tierra»<sup>216</sup>. Epea luzeagia zen.

---

<sup>214</sup> TPA, bigarren sekzioa, 22. neg., 136. leg. *Memoria justificativa de lo que tiene espuesto y pedido la Ciudad de San Sebastián para el fomento de la industria y comercio de Guipúzcoa, publicada por el acuerdo del Ayuntamiento General de vecinos concejantes y Junta de Comercio de la misma ciudad.* 1832. urtea. 71. or.

<sup>215</sup> *Ibidem*, 33 eta 34. orr.

<sup>216</sup> *Ibidem*, 49. or.

Bilboko merkatarien interesak Victor Luis de Gamindek azaldu zituen gerran zeudenean argitaratutako liburuxka interesgarri batean: «Los géneros comprendidos en tarifa al franquear los límites de Vizcaya, tropiezan para el adeudo con las mismas formalidades que en cualquier punto de España; luego tampoco en esto disfrutamos de predilección. Nuestra ventaja está pues en el consumo interior; pero ¿convendrá ningún comerciante por reducidos que sean sus negocios en que le basta para enriquecerse con el gasto de ciento veinte mil habitantes, cuando la sencillez de los moradores de la provincia hace que se desconozca en ella los artículos de lujo? Habrá quien diga que esta libertad se estiende a las cuatro ecseñas; mas mientras que en ellas ecsistan las poblaciones comerciales de Pamplona, Vitoria, San Sebastián y otras subalternas, quedará reducido Bilbao a las atenciones de la suya, que no la surtirá esclusivamente porque también hay villas más pequeñas que se entretienen en el tráfico. Está por lo tanto demostrado que son pocos los consumidores, y muy insignificante la utilidad que reporta el comercio en cualquiera de los dos conceptos espresados. En cuanto al ... [tabaco] ... siendo ... prohibido en el Reino, y libre sólo dentro del círculo privilegiado, es muy corta la satisfacción que nos queda; pues se reduce casi a la miserable de fumarlo mas barato, y de comprarlo en un puesto que se llama tienda y no estanco»<sup>217</sup>. «El único perjuicio de que podía resentirse el comercio llegado el caso de la nivelación de las provincias de la Monarquía, sería el del consumo del pais (lo que por cierto es de poca importancia)»<sup>218</sup>. «Pero —berak azaltzen du— la esencia de los argumentos [karlismoaren aldeko gorenenez ari da] consiste en sostener que a consecuencia de la igualdad, necesitaría el tendero dos capitales: uno destinado a la compra y otro al pago de derechos; y que perecería el comercio en pequeño». Jauntxoei denda txikiak defendatzea interesatzen zitzaien. Gamindek, lerro batzuk beherago, dendari horiek zer saltzen zuten azalduko du: «bacalao, géneros de lienzo, efectos de lana, o modas», hau da, probintziako merkatuak eta jauntxoek eskuratzen zituzten produktuak.

Orain arte esandakoa laburtuz, aduanak kostaldean jarriz gero, nekazaritzako produktuen salmentatik bizi ziren kontsumitzaileek erosten zituzten produktuak garestitu egingo ziren eta salmentetan, berriz, ez zuten berehalako ordainik jasoko<sup>219</sup>; bestalde, merkatari handiei gehiago interesatzen zitzaien merkatu nazionala probintziakoa baino.

---

<sup>217</sup> Gaminde, Víctor Luis de, *Intereses de Bilbao excaamen de lo perjudicial que seria la permanencia del sistema foral en el siglo XIX al comercio é industria del pais y a los liberales de Vizcaya*. Bilbo, Adolfo Depout-en inprimategia. Iraila, 1839, 4 eta 5. orr. José María de Areilzari eskertu behar diogu liburuxka hori begiratzeko aukera ematea.

<sup>218</sup> *Ibidem*, 7. or.

<sup>219</sup> Alberto Listak, lehenago aipatutako artikuluan honela dio: «sería casi imposible vivir al labriego vizcaíno, atendida la ingratitud de su terreno, si no tuviese libres de todos derechos las materias que sirven para su alimento, abrigo y vestido», II. libk., 17. or.

## Desamortizazioen ondorio politiko eta ekonomikoak

Lurrak saltzen hasi zirenean, herrietako aberats batzuek —goren zaharrek, nekazaritza-inguruetakoko burgesek edo espekulatuzaileek (errotariak adibidez)— erosi zituzten. Jakina, erosleen artean ez zeuden zorrez jositako maiorazko txikiak. Herri-ondasunak desamortizatzerakoan, ordura arte izan zuten hainbat herri-erabilera desagertu ohi zen, batez ere egurra eta ongarria lortzeko aukera. Lurrak erosi ez zituzten onibarren jabeek, handik aurrera, ordura arte legezkoa eta dohainekoa zena lortzeko eskubidea galdu zuten. Egoera hori saihesteko, zenbait udalerrik, lurrak inorenganatu zituenean bi baldintza ezarri zituen: lurra salduko zuen, baina, alde batetik, herri-erabilerak errespetatu egin beharko ziren eta, bestetik, udalerriak aurrerago dirua izanez gero, inorenganatuak lurrak berreskuratzeko eskubidea izango zuen, saltzerakoan jaso zen dirua gehi egindako hobekuntzak, egin baldin baziren, ordainduz. Lehenengo baldintzak jabego absolutua izateko eskubidea mugatzen zuen. Erosleek, egoera politikoa gero eta gehiago euren interesen aldekoa zela ohartu zirenean, erresumako auzitegiatar jo zuten eta hauek jabegoaren zentzu burgesaren aldeko epaia eman zuten. Herri-lurretako ongarrien desagertpenak eragina izan zuen errendimenduetan eta, beraz, joera horrek nekazari gehienak eta baserriak zituzten maiorazko batzuk ere kaltetu zituen, erosketan parte hartzeko aukerarik izan ez zutenak alegia.

Hau ez da hipotesi hutsa; Mutrikuko maiorazko zen Julian de Churrucaren oroitza-txostenaren oinarritzko argumentua da eta dokumentu hau, 1830eko azaroaren 11ko datarekin, Gipuzkoako Batzar Nagusira bidali zen.

Ikuspuntu ideologikotik begiratuta, oroitza-txostena altxor bat da, Don Karlosen jarraitzaile batzuen pentsakera erakusten baitigu: ilustrazioaren arrastorik ez; iturri nagusiak Testamentu Zaharra eta Berria izan ziren. Erdi Aroan gaudela dirudi, mugimendu milenarista baten baitan. Non geratu ote dira Burke eta De Bonald! Baina, hala ere, liberalismoaren aurkakoa zen argi eta garbi.

Ideologia ez da faktore baztergarria, baina, oraingoan, ideia horiek bultzatu zituen oinarri materiala, hau da, karlismoaren ideologiaren benetako euskarria, ikustea interesatzen zaigu. Azalpenaren meritu nagusia, une horretako aldarrikapenak justifikatzeko testu sakratuetara jotzea da, aldarrikapen horiek esplizituki adierazten direlarik, gainera.

Debak, beste herri askok bezalaxe, herri-ondasun ugari saldu zuen Independentziako Gerran eta beste toki askotan bezala, bertan ere espekulazioa izan zen eta ondasunak metatu ziren: «Los peritos encargados hicieron lo que quisieron, ocultando á los pobres labradores sus intenciones, y el uno de ellos se adjudico treinta y un mil posturas de terrenos concegiles por otros tantos reales, cuya monstruosa adquisición pasó así. De otras monstruosidades parecidas á esta, hay otras muchas en las ventas y enagenacio-

nes de los terrenos concegiles de la villa de Deva»<sup>220</sup>. Churruca horren baserri bat «fue reintegrada de la parte de sus contribuciones en un terreno concegil del pertenecido de su coto». Baina lur-sail txiki horretatik —571 postura— ateratzen zituen ongarriak «apenas alcanzarán a cultivar una fanega de sembrado de las nueve o diez que tiene esta casería». Hala, bada, lehenago herri-lurrak ziren eta orain partikularrak ziren beste lur-sail batzuk luberritu behar izaten zituen. 1830 inguruan, lur-jabeak, garai batean kontzejuenak ziren ondasunak herri-aprobetxamendurako ez erabiltzea lortzen ari ziren. Baltasar de Mancidorrek herri-ondasunak erosi zituen eta Churrucaekin auzitan zegoen; epai betearazle bat irabazia zuen Valladolideko Kantzelaritza eta erabaki horrek Sabañerrekako kolonoei bere jabegoko lurretan ongarria jasotzen jarraitzea debekatu zien. Churrucak, 1831ko Batzarrek erabakiren bat hartu arte epai betearazle horrek foru-baimena ez jasotzeko eskatu zuen. Ez zen kasu bakarra izan: izan ere, «otras caserías de la misma villa de Deva se hallan en el mismo caso»<sup>221</sup>.

Prezioen beherakadak aspaldidanik zeuden kontraesanak areagotu zituen. Diru-sarrerak mantentzeko produkzioa handitu behar zen eta horretarako ongarri gehiago behar ziren, saltzeko nahiz uzta hobeak lortzeko. Herri-ondasunak erosi zituztenek probetxu handiena atera nahi izan zieten eta hauen interesak ez zetozen bat erosi ezin izan zituztenekin, hots, gehingoarekin. Horra hor beste arrazoi bat liberalismoaren aurka. Kolonoak ezin zituen herri-ondasunak bere ustiapenenerako erabili eta horrek sortu zizkion zailtasunek eragina izan zuten lurzoruairen prezioan eta, beraz, maiorazko txikien diru-sarreretan.

## Gerra

1833an hasi zen altxamendua eta Euskal Herrian 1839ko Bergarako besarkadara arte iraun zuen. Sei urtez luzatu ziren, beraz, operazio militarrik. Urte horietan hain zuzen Independentziako Gerra garaian jaiotako belaunaldia familia osatzeko adinean zegoen. Horrek badu halako garrantzi berezi bat. Lehenengo, garbi adierazten digu 1808tik 1812ra izan zen jaiotza-tasaren beherakadak eragindako belaunaldi huts hura, edota horren larria ez zela izan, edota haur eta gazteen heriotza-tasaren beherakadaren bidez berdin-du egin zela. Bigarrenik, kontuan hartu behar dugu belaunaldi honek ez zuela gerrarik ezagutu eta, beraz, borroka egiteko halako traumarik ez zuten

---

<sup>220</sup> TPA, bigarren sekzioa, 20. neg., 62. leg., «Memorial incompleto de D. Julian de Churruca», ikusi *Revista de Occidente*, 128. zkia., «El memorial incompleto de D. Julián de Churruca. Un exponente de los antagonismos rurales pocos años antes del estallido de la primera guerra carlista», 197-211. orr. E. Fdez. de Pinedo.

<sup>221</sup> *Ibidem*.

gizon-emakumeak ziren. Azkenik, frantziarren aurka borroka egin zutenen eta belaunaldi berriaren artean zegoen adin-tartea ez zen horren handia eta, hala, haien esperientziak baliagarri izan zitezkeen hauentzat. Zumalakarregiren kasua, eta aurrez aurre bestaldeko bandoan izan zuen beste gizon batena, Minarena, nahikoa ohikoak dira. Zumalakarregi Ormaiztegiko izen oneko familia batekoa zen eta, beste hainbat bigarren semek eginikoaren ildotik, honek ere karrera militarra hautatu zuen. Minaren tropetan kapitain ibili zen eta 1820ko konstituzio-garaian ordezkari-lanak egin zituen. Fernando VII.a itzuli zenean, koronel izendatu zuten lehenengo eta, geroxeago, berriz, errejimentu bateko buru izan zen, baina 1833an kendu egin zuten kargu horretatik, Cruz ministroak<sup>222</sup> nolabaiteko garbiketa egin baitzuen garai hartan. Nekazari karlistek, beraz, gerriletan eta tropa erregularren zuzendaritzan adituak ziren militar-taldea izan zuten buru eta horietako bat zen Zumalakarregi. Baina goazen poliki-poliki. Zazpi Urteko Gerran bi ideologia izan ziren aurrez aurre, baina, dena den, berauen azpian interes ugari ezkututzen ziren. Ikus dezagun orain zein ziren liberalak eta zein karlistak.

1836an frantsesez argitaratu zuen idazle batek, Isabel II.aren aldekoen barnean «la noblesse presque entière», merkataritza, fabrikatzaileak, lur-jabe garrantzitsuak eta hirietako biztanleriaren zati bat sartzen zituen, bai eta kleroa ere: «Une partie du haut clergé ne demandait pas mieux non plus que de voir s'établir un régime progressif, mais régulier, les uns par sympathie, les autres parce qu'ils comprenaient les chances de ruine que pourrait entraîner pour eux une résistance outrée»<sup>223</sup>. Sailkapena zuzena iruditu zaiagu. Baina noblezia dioenean lur-jabeek ari dela ulertu behar dugu. Horiexek lirateke Espainian burgesiaren iraultzak prosiar izaera hartzearen onuradun eta erantzule handienak: 1837ko Gorteek jaunen eskubideez hala diote: «Jaunen eskubideek, eskumen-eskubideekin loturik ez zeuden lekue-tan, jabeagoak sorturiko errenta moduan beraz, jauntxoak lur-jabe bihurtarazi zituzten»<sup>224</sup>. Henningsen-ek 1836an zioenez, «Espainian ideia liberalak aberatsen esku zeuden»<sup>225</sup>. Euskal Herrian, ziurrenik ere, liberalak izango ziren nekazaritza-eremuak utzi eta Donostian, Bilbon eta Gasteizen kokatu ziren lur-jabe, jende goren eta herri-lurren erosle asko; horiexek izango baitziren, inolaz ere, «herrialdean interesik handienak zituztenak»<sup>226</sup>. 1836ko uztailaren 9ko Errege Aginduak, Don Karlosen koartel nagusitik zetorren agindu hark, garbi adierazten zuen lur-jabe askok ihes egin zuela:

<sup>222</sup> Anonimoa, *Essai historique sur les Provinces Basques et sur la guerre dont elles sont le théâtre*. Bordele, 1836, 199. or., 1. oharra. Badirudi ideia liberalak izan zituela garai batean. Honen anaia oso liberala zen eta Burgosko entzutegiko lehendakari nagusi izatera iritsi zen.

<sup>223</sup> *Essai historique...*, op. cit., 65. or.

<sup>224</sup> Artola, M., *Los orígenes de la España contemporánea*. Madril, 1959, I. libk., 479. or.

<sup>225</sup> Henningsen, op. cit., 12. or.

<sup>226</sup> Anonimoa, *Observaciones sobre la necesidad...*, 20. or.



«Los bienes que pertenecen a dueños ausentes de estas provincias comprometidos en la usurpación revolucionaria». Gainera, lur-jabe garrantzitsuak izango ziren, «lurralde-eskubideez» baliatzeko eta administratzaile bat beren esku izateko aukera baitzuten<sup>227</sup>. Merkatarien eta industriarien jarrera zein zen argi eta garbi nabarmentzen zen aspalditik. Hauei artisauek eta siderurgiaren arloko langile bakarren batzuk gaineratu behar zaizkie. Bigarren sektore indartsua zuten hiribilduak karlisten esku berandu geratu ziren. Ordiziak, Tolosak, Bergarak, Eibarrek, Durangok eta Otxandio 1835eko maiatzera arte eutsi zioten eta Balmasedak eta Plentziak, berriz, urte horretako apirilera eta maiatzera arte<sup>228</sup>.

Karlisten artean, oinarria nekazariak osatzen zuten eta agintarien taldea, berriz, maila txikiko eta erdi-mailako maiorazkoek. Bi talde hauen loturagune nagusiak liberalen aurkako ideiak ziren, bai eta arrazoi ekonomikoak —desamortizazioak, aduanak...— eta, zenbait jauntxori zegokionez, politikoak ere. Kleroa falta zaigu, klero makiaveliko, galdu, aztoratu hura, altxamendua finantzatu zuen apaizjende hura. Baina liberalek beren propaganda egiteko osatu zuten ikuspegi hori sakonki aztertzea komeni da. Goi-kleroa ez zen inoiz Don Karlosen alde agertu argi eta garbi, nahiz eta, agian, hark irabaztea nahi zuen. Behe-kleroa, batez ere herrietako apaizek osatutakoa eta, are gehiago, monjeak, sutsuagoak ziren inolaz ere. Dena den, 1836ko kronikari anonimoa nahiko eszeptiko ageri da gai honetan: «Le clergé était resté généralement passif dans ce mouvement. Les franciscains de Bilbao, quelques curés de paroisse avaient fourni de l'argent; mais la masse du clergé était restée inerte, quoique le mouvement eût été fait au nom de Don Carlos et de la religion»<sup>229</sup>. Kleroa arlo honetan zerikusia izan bazuen ere, karlismoa nekazariak eta Euskal Herriko nekazaritza-eremuetako jauntxo zenbaitek eman zioten babesak errotu zuten. Azken hauen laguntzarik gabe, hauen esperientzia militarrik gabe, aginterako zuten ahalmen hura gabe, nekazarien altxamendu hura ez zen matxinada bat baino izango. Baina, aldi berean, jendetzaren bultzada hura gabe, maiorazkoen protesta jauregi-errebolta bat izango zen soilik. Espedizio karlistek Ebro ibaia gurutzatu zutenean eta aldeko baldintza objektiboak zituzten lekuetatik urrundu zirenean, porrot egin zuten. Baina, dena den, Don Karlosen aldeko nobleen helburu nagusia agintea lortzea zenez, Madril hartzea behar-beharrezkoa zuten. Oinarri soziala tokian tokikoa izanik ere, karlismoaren ideologiak izaera nazionala zuen, nazionala, zentzu espainiarrean: «Il est à remarquer que dans les proclamations nombreuses qui ont circulé dans ces provinces, il n'a pas même

---

<sup>227</sup> AAA, H. 41. legajoa, «Reales ordenes [Carlistas] generales correspondientes al año de 1836».

<sup>228</sup> Oyarzun, R., *Historia del carlismo*. Madril, 1969, 62, 63 eta 85. orr.

<sup>229</sup> *Essai historique...*, 77 eta 78. orr.

été fait une alusion aux fueros et aux circonstances locales; tout, au contraire, respirait un esprit remarquable de nationalité et de monarchie dans un sens tout espagnol»<sup>230</sup>. Gerra amaieran, bilbotarrek soilik sumatu zuten karlismoa nazionalismo bihurtuko ote zen beldur hura: «¿Será prudente destruir [la esperanza de acabar el conflicto respetando los Fueros] y exponerse así a que esta guerra desastrosa se prolongue indefinidamente, tomando quizá un carácter de nacionalidad que hasta ahora no ha tenido...?»<sup>231</sup>.

Altxamenduak bere alde abantaila batzuk ere izan zituen, batzuk geografikoak, beste batzuk administrazioaren alorrekoak. Euria maiz egiten zuen eskualde menditsu hura, baso eta zuhaitzi ugariko inguru hura, ez zen oso inguru egokia gudaroste jendetsu eta erregularrentzat. Zailtasun logistikoak ere ez ziren gutxi lurraldearen gorabeherak medio, baina batez ere jendetza haren etsaigoak egiten zuen zaila zeregin hura. Bestalde, Euskal Herriko probintzia haietan habitat trinko eta sakabanatua zen nagusi. Beraz, nahiko zaila zen biztanleria kontrolatzea. Aldiz, karlistentzat ingurune hurà ezaguna eta beren aldekoa zen eta, nekazariak ematen zizkieten datuei esker, bazekiten aurrez zuten gudarosteak zer egin behar zuen. «Ingurune hori zeharkatu behar duten gizonak, batez ere soldadu erregularren ekipajea eraman behar badute, akiturik gelditzen dira ibilaldi motzenetan ere, eta bertakoak, berriz, basoetatik eta sakanetatik zehar joaten dira zuzen-zuzen azeria edo otsoa bezala, eta inoren aurretik pasatzen badira, ezin izango ditu harrapatu. Zenbait lekutan hain dago estalirik ingurunea non inbaditzaile-talde batek ez baitaki non egon daitezkeen. Etsaiek euren zelatariak eta gerrillak dituzte, eta inbaditzaileek ezin dituzte gizonak bereizi ingurua azter dezaten, talde nagusitik ehundaka yard urruntzean, hiltzeko arriskua baitute»<sup>232</sup>. Administrazioaren arloan, udal-erakundeek eta probintzi batzarrek, hasieratik haien bandora aldatu zirelako edota beren eskuetan laster erori zirelako, erraztu egin zuten zergak kobratzeko bidea, janariak lortzeko aukera eta soldaduak erreklutatzea. Azpiegitura osoa zuten beren esku. Baina hori guztia ezinezkoa zatekeen herriak bene-benetan parte hartu izan ez balu. Horrexegatik moldatu zen karlisten gudaroste txiki hura horren erraz.

Zumalakarregiren taktiken eta estrategien deskribapenik ederrenetarikoa Henningsenek utzi diguna da eta, militariki, iraultza-gerrei buruzko teorikoek idatzi dutenaren ondoan ere paregabea da. Hasieran, nekazariak osatu zituzten gudaroste karlistak kopuruz txikiagoak ziren eta ez ziren armada liberaleko soldaduak bezain saiatuak. Hori kontuan hartuta, Zumalakarregik ezusteko ekintzetan eta suntsitzea helburu zuten ekintzetan oinarritutako

---

<sup>230</sup> *Ibidem*, 78. or.

<sup>231</sup> *Colección de proclamas...* Bilbo, 1839ko abuztuak 29.

<sup>232</sup> Henningsen, *op. cit.*, 43. or.

gerra bideratu zuen, hala, «maila handiagoko ekintzetan ohitu zitezten», «eta gal ez zezaketen lekuetan borroka zitezten»; beren buruarengan konfiantza sendoagoa izango zuten horrela. «Bere helburua ez zen egoerari eustea eta gertakariak nola garatzen ziren zaintzea (Minak frantsesen kontrako gerran hartutako plana izan zena) bakarrik izan, Gobernuaren gudarosteei bide azkar baten bitartez irabazi eta suntsitu nahi zituen eta erregea Madrileran eraman nahi zuen, honen alde borrokatzen baitzen»<sup>233</sup>. Beraz, Henningsenek zioenez, kontua ez zen soilik etsaia estuasunetan jartzea, etsaia ahultzea. Etsaia suntsitu egin behar zen eta, aldi berean, Madril hartuko zuen armada bat prestatu behar zen. Estrategia ezin hobea izan zen: gerrilletatik armadara pasatu behar zuten, gerrilla bera oinarritzat hartuta. Zumalakarregik, beste biderik ikusi ez zuen bitartean, gerrillari gisa egin zuen borroka, baina, gero, gudaroste erregular bateko jeneral bihurtu zen. Ez zen Minak Independentziako Gerran bizi izan zuen kasu bera, honek ez baitzuen, gure ustez, soldadu-partidetatik armadarako pauso hura ematerik lortu; Castañosen kasua ere desberdina izan zen, honek partidei lekua uzten zien armada bat baitzuen.

Karlistadak argi eta garbi adierazten du iraultzaren aurkako «iraultza-gerra» posible dela. Horrekin hauxe esan nahi dugu, hots: gudaroste erregularren mugimendu-gerra bihurtzen den gerrillen gerra, ez-iraultzailea izatea gerta daiteke. Izaera iraultzailea helburuek emango diote, eta karlisten agintariek lortu nahi zituzten helburuak ez ziren iraultzaileak. Ez dira, beraz, baldintza objektiboak —beheraldi ekonomikoa, nekazarien zordun-keta— eta subjektiboak —atzera begira bizi ziren buruzagiak— nahastu behar.

### **Klaseen arteko borroka?**

Esan dugu karlisten bandoa nekazariak eta jauntxoak osatzen zutela. Lehenengoak borrokarako gizonak ziren eta bigarrenak, berriz, ideologia eta koadroez arduratzen ziren. Ohi bezala, buru zen taldearen idealez eta helburuez hitz egiten duten dokumentuak asko dira eta ez, aldiz, euskal nekazari karlistek zer pentsatzen zuten adierazten dutenak. Erlijioa eta erregearen alde egin al zuten hauek borroka? Nahiko modu sinplean idatzita dagoen Churruca maiorazkoaren oroitza-txostenean ez dira ez bata eta ez bestea aipatzen. Aldiz, Ezekiel, Isaias eta Esdrasen testuak nahiz Apokalipsiko eta San Pedroren testuak maiz ageri dira. Idazle hauen erreferentzia eta erabilera nahiko adierazgarria da: «sed adhuc expetamus novos caelos, et novam terram in quibus justitia habitat», «Dominus autem Israel nolunt audire te quia nolunt audire me. Omnis quippe domus Israel

---

<sup>233</sup> *Ibidem*, 129 eta 130. orr.

atríta fronte est, et duro corde», «excecavit oculos eorum, et induravit cor eorum: ut non videant oculis, et non inteligant corde, et convertantur, et sanem eos». Zenbait kasutan aipamenak askoz zuzenagoak dira eta, batzuetan, latinezko esaldiaren ondoan berak emandako interpretazioa idatzi zuen: «ve tibi Aegypten et Siria (los triposos Bascongados). Precingite vos saccis et ciliciis, et plangite filios vestros, et dolete: quoniam aporinquavit contrito vestra». Gerra lehertu baino ia hiru urte lehenago idatzitako oharatarazpena. «¿Habr pues indiferencia para tolerar por ms tiempo los desrdenes indicados?»<sup>234</sup>. Aberatsei buruzko mesprezuzko aipamenak ere badira: «la clase de los propietarios paseantes entre los cuales hierven el lujo y la avaricia y otros vicios» edota «¿por ventura valen menos estas familias [nekazarietak] que las de los Marqueses, Condes y Duques? Yo dir que valen mas». Profeten aipuek eta gatzeleraz idatzitako esaldiek aberatsen aurkako pentsamendu sendoa adierazten dute.

Gerra-garaian hartu ziren neurriek ere horixe adierazten digute. *Essai historique sur les Provinces Basques...* liburuaren egileak 1836. urtea baino lehen, urte horretan argitaratu baitzen liburua, horixe egiaztatzen digu: «des contributions taient imposees aux riches sous des peines terribles; et ceux qui rsistaient, ainsi que les voyageurs trangers, taient emprisonnes et ranonnes, tandis que les ouvriers, les muletiers, etc., passaient partout librement»<sup>235</sup>. Eibarrek, errenditu zenean, «Bergaran kokatuta zegoen Aldundi karlistari, atzeratutako zergen ordainetan, 7.400 erreal eman behar izan zizkion. Horretarako maileguetara jo zuen eta jabeei %21eko zerga ezarri zitzairen eta kolonoei %7koa»<sup>236</sup>. Ikusi zeinen desberdin jokatu zen jabeekin edota errentariekin.

Aberatsen aurkako joera horren lekukorik garbiena Hondarríbiko dokumentu bat dugu. 1838an lehortutako ihitoki batzuk babesten zituzten hesi batzuk suntsitu egin zituzten marea biziek eta udalak konpontzeko asmoa hartu zuen. Baina, alkateak zioenez, «kapitalista» bakar batek ere ez zituen bere ondasunak ekintza haietan jokatuko, «solamente los labradores son los que cargaran con los juncales y como esta clase por cualesquiera vicisitudes, que corriera la guerra civil jams experimentar perjuicio alguno como se ha tocado de lleno durante la dominacin de los carlistas que si bien han causado daos de cuanta en los que estaban por cuenta de

<sup>234</sup> Esaldi horien itzulpena gutxi gorabehera honakoa litzateke: «Baina oraindik justiziaren bizileku izango diren zeru berrien eta lur berriaren itzaropena dugu». «Hala ere, Israelgo gizon-emakumeek ez dizute entzun nahi, ez baitate niri entzun nahi. Israelgo gizon-emakume guztiak itxuraz umilak dira, baina baita bihotz gogorrekoak ere.» «Haien begiak itsutu zituen eta bihotza gogortu zien, begiekin ikus ez dezaten eta bihotzaren bidez senti ez dezaten eta, konbertitu ondoren, senda ditzan». «Zorigaitzekoak zuek, Egipto eta Siria! (Euskaldun tripon-tziak). Zaku eta zilizioekin estutu zaitzete eta egin negar zuen seme-alabengatik eta mindu zaitzete: iritsi da zuen miseria eta nekeen garaia.»

<sup>235</sup> *Essai historique...*, 7. or.

<sup>236</sup> Celaya Olabari, P., *Eibar. Sntesis de monografa histrica*. Donostia, 1970, 21. or.

algun particular o particulares siempre ha mirado y han respetado lo que han considerado de un inmediato interés de aquellos [baserritarrak] dejándolo como han dejado intacto, que es bien evidente, que la situación presente no les había [de] retraer, para presentarse á porfia y tomar sobre sí las contingencias que tarde o nunca llegarán á causarles los trastornos que á los Capitalistas á quienes se les mira con cierto daño en toda revolución política...»<sup>237</sup>.

Adibide hauek oso adierazgarriak izan arren, oso gutxi dira eta ezin da atera berrietan oinarrituz behin-betiko ondoriorik. Baina gerra hura ez al zen, bada, liberalen aurka? Eta Henningsenek zioenaren ildotik, Espainian ideia liberalak ez al zituzten, bada, aberatsek barnerratu?

Laburtuz: XVIII. mendeko hazkundeak eta Independentziako Gerraren ondorengo beheraldiak gizartea berrantolatu zuten. Onura gehienak lur-jabe handiek eta erdi-mailakoek atera zituzten —kondeak, markesak..., goi-mailako aberatsak—, bai eta nekazaritza-inguruetakoko burgesiak ere —errotariak, espekulatzailak, saroedunak, herrietako dendari txikiak...—, desamortizazioen bidez lur-sail handiak lortu baitzituzten. Liberalen taldea hauek osatzen zuten merkatariekin eta manufaktura-lanak egiten zituztenekin batera. Gal-tzaileak nekazariak —errentek, zergek eta lukurreriak zapal dutako taldea zen hau— eta sistema berrian sartzeko gaitasunik izan ez zuen edota ezin sartu izan zuen nobleziaren zati bat izan ziren. Prezioen beherakadak, herri-lurren pribatizazioak eta aduanak kostara aldatzeko proiektuek larriagotu egin zituzten lehendik, Independentziako Gerraren garaitik gutxienez, nabarmentzen ziren aurkakotasunak, nahiz eta frantziarren aurkako gerra hark ezkutu-tuan gorde izan zituen. P. Vilarrek ohartarazi zigun jada 1808tik 1812rako, gerra hura ez zela soilik atzerriarren aurkako mugimendua izan; barne-ara-zoak eta aldatzeko itxaropena ere adierazten zituen<sup>238</sup>. Baina, noski, borrokan zebiltzan espainiar haien guztien pentsamenduak ez ziren berdinak. Batzuen ustez, XVIII. mendean egindakoari jarraipena eman behar zitzaion, Frantzia imitatu behar zen berari aurre eginez, beste zenbaitentzat, ordea, tradizioari eutsi behar zitzaion, indibidualismo ekonomikoaren aurkako Erdi Aroko joera hartara itzuli beharra zegoen. 1833an, aurka egiteko atzerriko etsairik ez zutenez, bakoitzaren jarrerak argiago ikusi ahal izan ziren eta anbiguotasunak alde batera utzi ahal izan ziren.

---

<sup>237</sup> TPA, lehenengo sekzioa, 17. neg., 130. leg., 1838ko irailaren 15eko Hondarribiko Udaren lagapena.

<sup>238</sup> Vilar, P., *Histoire de l'Espagne*. Paris, 1971, 50. or.

## Ondorioak

xvii. mendeko beheraldian gerora —batzuk azkarrago eta beste batzuk motelago— areagotuko ziren diferentziak sortu ziren. Kostaldeko probintziek nekazaritzan eta abeltzaintzan aldaketa sakona jasan zuten artoa sartu zenean, eta atzerriko produktu siderurgikoen konpetentziari nola hala eutsi zioten. Horren ondorioz, kostaldeko biztanleria xviii. mendearen hasiera arte xvi. mendearen bukaeran lortutako mailan mantendu zen gutxi gorabehera. Beraz, abiapuntuak desberdinak izan ziren barnealdean eta kostaldean. xviii. mendean gertatutako demografiaren hazkundeari esker, Arabak xvi. mendean lortutako kopuruak berreskuratu zituen eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, xvii. mendean egonkortutako hazkundeak jarraitu zuen.

Badirudi xix. mendearen lehenengo erdian diferentziak murriztu egin zirela. Ez da hori egia osoa, gerra-gatazkek demografi aldaketa estaliko baitute. Jada J. Nadalek<sup>1</sup>, Palamosko demografiaren bilakaera aztertu zuenean, 1801 eta 1805 artean haurren heriotza-tasak nabarmen behera egin zuela adierazi zuen, tasa %239,3koa izatetik %155ekoa izatera igaro baitzen. Plentzian beherakada hori lehenago gertatu zen: xviii. mendeko hirurogeita hamarreko eta, batez ere, laurogeiko hamarkadetan, eta Durangon, laurogeiko hamarkadan. Haurren heriotza-tasaren aldaketa horrek azalduko du garai horretan gertatutako biztanleriaren hazkundearen garapena, biztanleria zibilak behin eta berriro eta zuzen-zuzenean partida, gerra eta gerrilletan parte hartu behar izan zuen arren.

Nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorea eta demografia ez ziren modu berean aldatu eta gerra-gatazkek, nolabait, demografiaren erronka konpondu zuten. xviii. mendean nekazaritzan gertatu zen hedapenak aurreko mendeko ondarea jaso eta areagotu zuen, baina artoa sartu zenean izandako

---

<sup>1</sup> Nadal, J., «Demografía y economía en el origen de la Cataluña moderna. Un ejemplo local: Palamós (1705-1839)». *Estudios de Historia Moderna*. Bartzelona, 1960, VI. libk.

aldaketa garrantzitsua ez zen errepikatu. Ogia egiteko zerealen beharra, Errioxako mahastiaren garapena eta garraiobideen hobetzea aurrerapauso handiak izan ziren eta sagastiak eta zereal pobreak atzean geratu ziren; hala ere, produktu gordinak gora egiteko arrazoi nagusia luberritutako lur-eremua zabaltzea izan zen. Inguru guztietan hedatu ziren urraketei eta luberriei esker, produkzioa kontsumotik nahiko hurbil egon zen. Patatari esker gainazal-unitateko elikadura-ahalmena handitu egin zen, baina handitze hori 1850. urtetik aurrera baino ezingo da kontuan hartu.

Etxe berri bat izateko behar-beharrezkoa zen jaraunstea edo lur-sail bat lantzea. Ia Euskal Herri osoan oinordeko bakarraren sistema zen nagusi eta, beraz, lur-jabe izateko aukera gutxi zegoen gurasoek aukeratutako semeak edo alabak ez zirenen kasuetan. Teorikoki, baserri bat luberritu eta eraiki zitekeen, baina horretarako lurra eta dirua izatea nahitaezkoa zen. Eta nekazari gehienek ez zuten ez lurrik eta ez dirurik. Demografi presioa gogortu eta lurzorua prezioak etengabe gora egin zuen heinean, lur-jabeak gero eta egoera hobea zuen errentamenduaren iraupena eta, batez ere, ordaindu beharrezkoa ezartzeko. Errenten gorakada ikaragarriak, aleen prezioarena baino askoz ere handiagoak, oso argi islatzen du egoera hori eta garbi dago mende honetan probetxu gehien atera zutenak lur-jabeak izan zirela.

Ardanaz, Bengoa, Manuel de Barrena —honek gurasoen etxea eraitsi eta lau maizterrentzako lekua zuen baserri bat eraiki zuen— eta beste hainbat burgesek lurrak erosi zituztenean euren asmoa ez zen laboreak arrazionalizatu eta hobetzea. Errenten gorakada aprobetxatu nahi zuten. Baina errentamenduak igotzerakoan lurra prezioak ere gora egin zuenez, merke lortzeko bideren bat bilatu beharra zuten.

Demografiaren hazkundearekin batera lurra urratzea eta baserriak eraikitzea oso garestia zenez, onibarrak zatitu egin behar izan ziren. Baserri zaharrari luberritutako eremu berri batzuk gehituko zitzaizkion eta beste maizter bat sartuko zen. Industria siderurgikoak lanpostuak sortu zituen bitartean, laborari bakoitzak landu zezakeen gainazalaren murrizketa ez zen horren larria izan. Burdinolen gainbehera, soberakinen beherakadak areagotutako hornigaiaren krisiak, espekulazioa, ezkontsarien ordainketa eta beste zenbait arazoren erruz, lur-jabe ziren nekazariak zorrak egin zituzten eta zorren berme gisa euren ondasun higiezinak hipotekatu behar izan zituzten. Euren egoerak hobera egiten ez bazuen saldu egin behar izaten zituzten. Baina euren lurrak saldu behar izaten zituztenean, erosteko kapitala zutenek erosten zituzten, noski, eta hauek euren baldintzak ezartzen zituzten: tasatutako prezioa baino heren bat merkeago erosten zituzten.

Merkatuko prezioaren azpitik lurrak lortzeko modu hori motela zen. Onibarrak erosi nahi zituzten landa-inguruetakoko burgesek edo merkatari-tzan aritzen ziren burgesek prezioaren beherakada orokorra lortu behar zuten, inbertitutako diruak eta interesak, hau da, errentak, erlazio egokia izan zezaten. Beraz, desamortizatu eta desbinkulatu beharra zegoen, lurrak mer-

katuratu behar ziren eta hauek kleroarenak, herri-lurrak nahiz maiorazkoenak izan zitezkeen. Horrez gain, lur horiek tasatutako prezioa baino merkeago eros baldin bazitezkeen, hobeto, eta horixe gertatu zen lur-sail handietan.

Burgesiaren interesik handiena lurra salgaia bihurtzea zen. Burgesiak ez zuen egoera hori sortu, baina egoera horretaz baliatu zen bere onurarako. Gerren eta gatazken erruz batez ere, zergak gero eta handiagoak ziren eta maizago ordaindu behar izaten zituzten zorrez gainezka zeuden nekazariak. Euren eginbearrei aurre egiteko zailtasun handiak zituzten eta onibarrekin egin zuten bezalaxe, herri-ondasunak ere hipotekatu behar izan zituzten. Era berean, laborariei dirua mailegatu zietenek zergak ordaintzeko dirua ere aurreratu zuten eta, dirutan ordaindu ezin zutenek, lurra jaso zituzten maileguen truk. Hala, bada, herritarren arteko desberdintasun ekonomikoak eta sozialak handituz joan ziren.

Beraz, nekazari errentariak eta ugazaba txiki edo erdi-mailakoak ez zuten ondasunak pilatzeko edo biltzeko aukerarik eta lur-jabeak, hamarrenak jasotzen edo errentan ematen zituztenak eta, kredituak ematen zituztelako edo merkataritzan boterea zutelako, espekulatzeko ahalmena zutenak izan ziren ondasunak metatu zituztenak. Behin baino gehiagotan pertsona berberak izan ziren horiek guztiak.

Biztanleriaren eta, beraz, eskaeraren hazkundera eta prezioen eta errenten gorakadari esker merkatariek indar handia hartu zuten, jende go-renaren diru-sarrerak handitu egin ziren eta nekazaritza-inguruetan burgesia berri bat nabarmendu zen. Aldi berean, aldaketa horiek kritikatu zituztenak ere sortu ziren. Larramendi eta Calatayud, XVIII. mendean erdialdean, eta San Martin, mende bukaeran, izan ziren nekazaritzan nahiz merkataritzan gertatzen ari ziren aldaketa horien eta burgesiaren aurkako ordezkari ideologikoak. Baina XVIII. mendean, boterean zegoen taldearen eta une horretan sortzen ari zenaren kontraesanak istilu teorikoetan geratu ziren. Jauntxoak eta nekazarien arteko liskarrak, aldiz, larriagoak izan ziren eta horixe adierazten dute 1718, 1755 eta 1766ko matxinadek.

Mende bukaerako inflazioak, Frantziako Konbentzioaren aurkako gerrak, Independentziako Gerrak eta beranduagoko deflazioak egoera aldatu zuten.

Kleroak, Argien Mendean jada ideologikoki kritikak jaso zituen eta orduan bere ondasunak eta errentak larri kaltetu ziren. Frantsesek elizak eta komentuak arpilatu eta suntsitu zituzten. Lurren truk zergak, juroak eta errentak jasotzetik bizi ziren maiorazkoen eta erakunde erlijiosoen kalterako, lehenengo biak devaluatu egin ziren, XVIII. mendeko prezioen igoeren erruz, eta errentek ere behera egin zuten 1815. urtetik aurrera.

Desamortizazioek egonezina sortu zuten nekazarien artean, ongarrria eta larreak dohain lortzeko aukerak urritu baitzitzaizkien. Kontzejuen lurra erosi ezin izan zituzten maiorazkoak beldur ziren euren baserrietako errentengatik eta nekazarien alde agertu ziren eta erosleei aurre egin zieten. Churrucak 1830ean egindako argudiaketa Independentziako Gerraren on-



doren egina zuen Gipuzkoako lur-jabe anonimo batek: «si se verificasen absolutamente las ventas de estos terrenos agregados a los caseríos para su aprovechamiento, se germinarían muchos y la agricultura decaería considerablemente o tendrían los dueños que desprenderse de ellos *al precio que un especulador ambicioso les quisiese ofrecer* que siempre sería con mengua de la propiedad *porque no todos los dueños y se puede asegurar que muy raros se hallan con facultades para comprar tierras de la extensión necesaria*»<sup>2</sup>.

Ekonomiaren bilakaerak kaltetutako talde horiek liberalismoaren aurkako jarrera irrazionalak hartzen hasi ziren. Karlismoa izango da desadostasun horren adierazpen armatua.

Baina gerran ez ziren nekazaritzaren munduko arazoak bakarrik ebatzi. Koroak XVIII. mendeko azkeneko laurdenetik aurrera hartu zituen neurriek eta aduanetako kontrol faltak kontsumo-ondasunen industria eratzeko lehenengo ahaleginak porrotera eramane zituzten: larruak, mihiseak, irinak... Era berean, Ingalaterrako aurrerakuntza teknikoek Euskal Herriko burdina merkatutik baztertu zuten. Amerikako koloniak galdu ziren, deflazioa zegoen eta artilearen esportazioa bertan behera geratu zen eta, horren guztia- ren ondorioz, merkataritzako kapitalak bide berriak urratu behar izan zituen. Industria eta merkataritza-interesek merkatu nazionala babesteko eskatu zuten eta aduanak kostaldera eramane nahi zituzten; aldaketa horrek inportatutako produktuen —zituak, bakailaoa, ehunak...— prezioen igoera ekarri zuen eta kontsumitzaileek euren desadostasuna erakutsi zuten.

Gerra zibilean arazo sozio-politikoaz gain, eskualdearen etorkizuna ere konpondu zen. Aduanak kostaldean kokatu zirenean, esportazioari eta inportazioari ezarritako oztopoek, alde batetik, euren dirua beste nonbait inbertitzera bultzatu zituzten merkataria eta, bestetik, lantegi berrien ezarpena bultzatu zuten, burdinola tradizionalen aldaketa motela ekarri zuten eta kontsumo-industriaren sorrera ere bultzatu zuten. Hala, bada, betaren esportazioaren aurreko industri interesak sortu ziren, 1875etik aurrera mearen salmenta eta burdinaren produkzioa batera garatuko dituztelarik.

---

<sup>2</sup> TPA, lehenengo atala, 17. neg., 72. leg. Letra etzanak gureak dira.

# Iturriak

## Gehien erabilitako laburdurak

|      |  |
|------|--|
| AHN  | Artxibo Historiko Nazionala. Madril.               |
| BN   | Biblioteca Nazionala. Madril.                      |
| HEAA | Historiaren Errege Akademiako Artxiboa. Madril.    |
| EJB  | Errege Jauregiko Biblioteca. Madril.               |
| SAO  | Simancas-eko Artxibo Orokorra. Simancas.           |
| NMA  | Nekazaritza Ministeritzako Artxiboa. Madril.       |
| GBEA | Gernikako Batzar Etxeko Artxiboa. Gernika.         |
| TPA  | Tolosako Probintzi Artxiboa. Tolosa <sup>1</sup> . |
| AAA  | Arabako Aldundiaren Artxiboa. Gasteiz.             |
| NAA  | Nafarroako Aldundiaren Artxiboa. Iruñea.           |
| BAA  | Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa. Bilbo.              |
| BPAH | Bizkaiko Probintzi Artxibo Historikoa. Bilbo.      |
| KKA  | Kalagorriko Katedralaren Artxiboa. Kalagorri.      |
| GAA  | Gasteizko Apezpikutzaren Artxiboa. Gasteiz.        |

## Argitaratu gabeko iturriak

### *Erabilitako artxiboak*

#### 1. Nazio-mailako artxiboak:

- 1.1. AHN
- 1.2. BN
- 1.3. HEAA
- 1.4. EJB
- 1.5. SAO
- 1.6. NMA

---

<sup>1</sup> Gaur egun Gipuzkoako Artxibo Nagusia deitzen bazaio ere, egilearen garaiko izendapena errespetatzea erabaki dugu (itzulpenaren koordinatzailearen oharra).

2. Probintzia eta apezpikutzetako artxiboak:
  - 2.1. GBEA
  - 2.2. TPA
  - 2.3. AAA
  - 2.4. NAA
  - 2.5. BAA
  - 2.6. BPAH
  - 2.7. KKA
  - 2.8. GAA
  
3. Udal artxiboak:
  - 3.1. Lekeitioko Arrantzaleen Kofradiaren Artxiboa.
  - 3.2. Lekeitioko Udal Artxiboa.
  - 3.3. Biasteriko Udal Artxiboa.
  - 3.4. Gasteizko Udal Artxiboa.
  - 3.5. Azkoitiko Udal Artxiboa.
  - 3.6. Azpeitiko Udal Artxiboa.
  
4. Parrokietako artxiboak:
  - 4.1. Ziortzako Kolejiatako artxiboa.
  - 4.2. Lamuzako San Pedro parrokiako artxiboa. Laudio.
  - 4.3. Balmasedako parrokiako artxiboa.
  - 4.4. Oioneko parrokiako artxiboa.
  - 4.5. Deustuko San Pedro parrokiako artxiboa.
  - 4.6. Haroko parrokiako artxiboa.
  - 4.7. Samaniegoko parrokiako artxiboa.
  - 4.8. Lekeitioko parrokiako artxiboa.
  - 4.9. Plentziako parrokiako artxiboa.
  - 4.10. Biasteriko San Juan parrokiako artxiboa.
  - 4.11. Biasteriko San Martin parrokiako artxiboa.
  - 4.12. Beasaingo parrokiako artxiboa.
  - 4.13. Bastidako parrokiako artxiboa.
  - 4.14. Gasteizko San Migel parrokiako artxiboa.
  - 4.15. Gasteizko Katedraleko artxiboa.
  - 4.16. Gasteizko Santa Klara komentuko artxiboa.
  - 4.17. Gasteizko Madalena komentuko artxiboa.
  - 4.18. Gordexola eta Irazagorriako parrokiako artxiboa.
  - 4.19. Durangoko parrokiako artxiboa.
  - 4.20. Arespalditzako parrokiako artxiboa.
  - 4.21. Otxandioko parrokiako artxiboa.
  - 4.22. Bilboko Santiago parrokiako artxiboa.

#### 1.1. *Artxibo Historiko Nazionala.*

##### Ezabatutako Kontseiluen Atala.

xviii. mendeko hazkundeak eragindako gizarte-gatazken gorabeherez jabetzeko iturri nagusi eta ezinbestekoa dugu. Espainia osoko dokumentazioa du, baina hetero-geneoki sailkatua. Egin beharreko lehenengo gauza matrikula-liburuak direlakoak be-

giratzea da (E. 2681, 1717tik 1759. urtera; E. 2682, 1760tik 1772ra; E. 2683, 1778tik 1784ra; E. 2684, 1785etik 1789ra; E. 2685, 1790etik 1795era; E. 2686, 1796tik 1800era; E. 2687, 1801etik 1803ra; E. 2688, 1804tik 1807ra; E. 2689, 1808tik 1814ra; E. 2690, 1814tik 1815era; E. 2691, 1816. urtea; E. 2692, 1817; E. 2694, «Matrícula de los expedientes que se hallaron en la Escribanía de Gobierno al tiempo de la extinción de los Consejos y tribunales ocurrida en 12 de marzo de 1820 con motivo de la pira de la Constitución»; E. 2696, 1823, 1824 eta 1825. urteak; E. 2697, 1827tik 1830era; E. 2698, 1831tik 1834ra). Erabilitako legajoen zerrendaketa luzee-gia eta erabilgarritasun gutxikoa izango litzateke; gainera horietako batzuk oin-oharretan ikus daitezke.

### 1.2. *Biblioteca Nacionala.*

Eskuizkribuen atala.

7311. legajoa. Gehienetan euskal parrokoek Tomás López-en galdeketei idatzitako erantzunak dira. Enkarterriak deskribatzen dituen Iturrizaren eskuizkribu bat ere badago.

6691. legajoa. Urduñako antzinitate, izen eta pribilegioei buruzko ohar historiko eta geografikoak.

2274. legajoa. Espainiako auzotarren zerrenda orokorra.

### 1.3. *Historiaren Errege Akademiako Artxiboa.*

Arandarena deituriko populazioaren errolda: «Pueblos del Arzobispado de... divididos por parroquias y copiados de los que existen en la Secretaría de la Presidencia de Castilla para uso de la Real Academia de la Historia. Puestos en orden alfabético por Don José de Guevara Vasconcelos. Año de 1773.»

Kalagorriko Apezpikutza:

Liburukiak: A-F, 9, 6137.  
G-O, 9, 6138.  
P-Z, 9, 6139.

Burgosko Apezpikutza:

Liburukiak: A-E, 9, 6133.  
F-R, 9, 6134.  
S-Z, 9, 6135.

Iruñako Apezpikutza:

Liburukiak: A-E, 9, 6158.  
F-M, 9, 6159.  
N-Z, 9, 6160.

Santanderko Apezpikutza:

Liburukiak: A-L, 9, 6169.  
M-Z, 9, 6170

Floridablancarena deituriko populazio-errolda (1786-1787).

Bizkaiko probintzia, 9-6256.  
Gipuzkoako probintzia, 9-6227.  
Arabako probintzia, 9-9179.

Vargas Ponce bilduma: Erdi Arotik XIX. mendearen hasiera arteko datu heterogeneoen multzoa, Gipuzkoari buruz batik bat. 6, 14, 15, 19, 21, 22, 24, 25, 26, 28, 30, 33, 34, 42 eta 49. liburuak.

Larramendi, «Conferencias curiosas, políticas, legales y morales sobre los Fueros de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa», argitaragabeko eskuizkribua, 9-13-6-687.

#### 1.4. *Errege Jauregiko Biblioteka.*

«Plan del número de personas que había en Vizcaya el año de 1787», II, 2441. Bizkaiko Aldundiaren Idazkaritzak igorritako kopia bat da.

#### 1.5. *Simancas-ko Artxibo Orokorra.*

##### *Ogasun Idazkaritza eta Superintendentzia.*

Gasteizko eta Kantabriako Aduanak 1728tik 1799ra, 1366. legajotik 1383ra.

Kantabriako eta Nafarroako Aduanak 1717tik 1765era, 2369. leg.

Probintzia Askeen Errenta orokorrak, 1728tik 1799ra, 1192-1212. leg.

Probintzia Askeen tabakoaren Errentak, 1731tik 1779ra, 1808-1809. leg.

Probintzia Askeetako gatzagak, 1761etik 1795era, 2027. leg.

Probintzia Askeen ordezkagiria, 1756tik 1799ra, 2234. leg.

Bideak: Euskal Herriko eta Nafarroakoei buruzko gertakari eta espedienteak, 1751-1765, 920. leg.

##### *Errenten Zuzendaritza Orokorra*

Aduana-negozioei buruz, 1799-1800, 700. legajotik 1237.era.

Bilboko Kontsulatua, gertakariak eta espedienteak, 1774-1799, 875. legajotik 900.era.

Bilboko Kontsulatua, Kontuak, 1704-1836, 210. legajotik 253.era.

Urduña, 1035. legajotik 1044.era.

##### *Kontuen Epaimahai Gorena*

Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat foru, 1564tik 1806ra, 4880. legajotik 4942.era.

##### *Estatu Idazkaritza*

Bizkaiko burdina, 1652tik 1700era, 4161. leg.

##### *Itsas Idazkaritza*

Bizkaiko mendiak, 1723-1783, 552. legajotik 580.era.

#### 1.6. *Nekazaritza Ministeritzako Artxiboa.*

Probintzia bakoitzeko zerealen kontsumoa eta hornigaien izakinei buruzko txostenak, 1855, 6. (22) leg.

Probintzia bakoitzean azkeneko bosturtekoan eta batez ere azkeneko urtean ekoiztutako batezbesteko ardo-kantitatea. 79. (2) leg.

Euskal probintzietako abeltzaintza eta nekazaritza-produkzioa, 1883-1884. urteak, 258. (1) leg.

#### 2.1. *Gernikako Batzar Etxeko Artxiboa.*

Bizkaiko probintzi artxiboaren zati bat dugu. Informazio ugari, baina ez dago berdin banatua. Hau dela eta, ia ez dago XVI, XVII eta XVIII. mendearen hasierako do-

kumenturik. Berriki egindako sailkapena hala modukoa da eta gaur egungo ikerlariarentzat ulergaitzak diren irizpideekin idatzia.

Kultu eta kleroa, 8, 9, 10, 11, 28... erregistroak.

Jaurerriko Herrietako Lurralde Estatistikak, 12 eta 16. errej.

Burdinolak, 1 eta 2. errej.

1704, 1745, 1796ko su-zenbaketak.

Aleak.

Hornigaien Batzarra.

Errotariak, 1. errej.

Bederatziena eta eskusatua. 1808tik 1841era arteko kontuak.

Polizia. 1825eko Bilbo eta Lekeitioko populazio-errola.

## 2.2. Tolosako Gipuzkoako Probintzi Artxiboa [gaur egun Gipuzkoako Artxibo Nagusia].

Lehenengo atala, 17. neg., 52, 55, 66, 70, 72, 75, 80, 81, 82, 83, 88, 93, 94, 97, 99, 102, 104, 112, 114, 120, 124, 128, 129. leg.

Bigarren atala, 20. neg., 14, 18, 24, 26, 35, 36, 40, 41, 45, 49, 52, 54, 62. leg.

Bigarren atala, 21. neg., 49, 54, 55, 56, 58, 65, 72, 77, 78, 94, 99, 104, 106, 121, 127, 132, 133, 136, 142, 145, 147, 149, 150, 151, 152. leg.

Bigarren atala, 22. neg., 58, 59, 108, 120, 126, 127, 136, 141, 143, 147, 152. leg.

Bigarren atala, 23. neg., 24, 37, 46, 48, 54, 59, 68, 75, 79, 86. leg.

Gipuzkoako Batzar Nagusi eta Aldundien erregistroak, XVIII. mendea eta XIX. mendearen lehenengo herena.

## 2.3. Arabako Aldundiaren Probintzi Artxibo Historikoa.

Sailkapena burutu gabe dago, batez ere Erdi Arotik XVIII. mendera arte. Dokumentazio erabilgarri gehiena XVIII. mendearen atal batekoa eta XIX.eko da.

Legajoak: H. 174-175, H. 160, H. 5, H. 7, H. 8, H. 9, H. 35-36-37 eta 38, H. 42, H. 43, H. 50, H. 51, H. 53, H. 54, H. 70-71, H. 83, 84, 85, H. 92, H. 112, H. 113.

Arabako Probintziaren Dekretu Liburuak, batez ere 19 (1680-1688), 28 (1719-1724), 31 (1731-1736), 32. (1736-1740) zenbakiak.

## 2.4. Nafarroako Aldundiaren Artxiboa.

Gareseko oroitza-txostena, 1833.

## 2.5. Bizkaiko Probintzi Artxibo Historikoa.

Eskribautzak:

Achútegui, Manuel, 1767tik 1815era, 2947. legajotik 2959.era.

Amezcaray, Juan Alejo, 1776tik 1831ra, 2960. legajotik 2965.era.

## 2.6. Kalagorriko Katedralaren Artxiboa.

3641, 1741. urtea. Erret Zedula baten lekualdatze baimendua, zeinetan Kalagorriko apezpikutzan zeuden Eliz Bisitariei agintzen baitzaie euren bisitaldietan arimaren izpirituari dagokionaz bakarrik arduratzeko, Elorrio eta Busturiako Azpeko hiribilduetan, eliz parrokia horietako hamarren, kopuru eta ondasunen banaketan sartu gabe.

3800, 1764. urtea. Markina eta Ondarroako parrokiatara bisita, zeinetan, itunak hautsiz, Ozkabarteko bisitariak ere bisita egin baitzuen.

3875, 1771-1775. urteak. Bilbo. «Aditamento al expediente para la aberiguación de las rentas eclesiásticas de la Vicaría de Bilbao para el repartimiento del subsidio y excusado en orden a las que pertenecen a las comunidades de ella.»

3876, 1771-1775. urteak. Bilbo. Bilboko bikariorza errenten balioaren laburpena, subsidioarentzako ohikoak barne.

3877, 1771-1775. urteak. Bilboko bikariorza. Subsidiorako ekintza.

3878, 1771-1775. urteak. Bilboko bikariorza. Eskusatutako ekintza.

3879, 1771-1775. urteak. Bilboko bikariorza. Eskusatutaren zenbatekoen kitapena.

3880, 1771-1775. urteak. Zigoitiako artzapez-barrutia. Subsidioa.

3886, 1771-1775. urteak. Tabirako Durangoko bikariorza. Subsidioa.

3887, 1771-1775. urteak. Durangoko bikariorza. Eskusatutaren zenbatekoen kitapena.

3888, 1771-1775. urteak. Markinako bikariorza. Eskusatutaren zenbatekoen kitapena.

3889, 1771-1775. urteak. Markinako bikariorza. Erregearen aldeko eskusatutaren graziaren koaderno, Markinako hiribildua.

3890, 1771-1775. urteak. Arratiako bikariorza. Lemoa, Dima... elizateetako eskusatua.

3891, 1771-1775. urteak. Arratiako bikariorza. Hamarrenen eta hasikinen balioak. Eskusatua.

3893, 1771-1775. urteak. Elorrioko bikariorza. Balioen kitapena. Eskusatua.

3894, 1771-1775. urteak. Elorrioko eskusatua. Elorrioko bikariorza eta atxikietatik.

3899, 1771-1775. urteak. Lekeitioko bikariorza. Eskusatutaren zenbatekoen kitapena.

3909, 1771-1775. urteak. Bermeoko eskusatua. Bermeoko bikariorzako zenbatekoen kitapena, mandatariaren jatorrizko koaderno.

3910, 1771-1775. urteak. Bermeoko bikariorzaren subsidioa. Bermeoko Santa Maria eta Santa Eufemia subsidiorako; errenten ikerketa...

3919, 1771-1775. urteak. Busturiako bikariorza. Eskusatutarentzako. Ziortzako Kolejiata eta Parrokiako eta Busturia, Arrazu, Mendozako... bikariorza osoko hamarren guztien kitapena.

3920, 1771-1775. urteak. Busturiako bikariorza. Ziortzako Kolejiata eta Parrokiako eliz errenten miaketa, subsidioaren ordainketarako. Koaderno honi itsasitako gehigarrian Abadearen Dignitateari, kanonikatoei eta Ziortzako Kolejio eta Parrokia Elizari dagozkien errenta eta zergen kitapena agertzen da.

Idem idem Busturia, Albiz, Arteaga, Ibarrangeluako... bikariorzari dagokionez.

3921, 1771-1775. urteak. Busturiako bikariorzak. Hamarren eta hasikinen balioak, eta Ziortzako Kolejiatarenak.

3922, 1771-1775. urteak. Ondarroa. Ondarroako hiribilduko eskusatutaren graziaren koadernoak.

3923, 1771-1775. urteak. Id. id.

3924, 1771-1775. urteak. Ondarroako bikariorza. Eskusatutaren balioen kitapena.

3925, 1771-1775. urteak. Bizkaiko Jaurerriko subsidio-ordainketari buruzko papera.

3926, 1771-1775. urteak. Zornotzako bikariorza. Eskusatutarentzako errege-zer-garentzako hamarren eta hasikinen balioak.

- 3927, 1771-1775. urteak. Zornotzako bikarriotza. Subsidioarentzako errenten laburpena.
- 3928, 1771-1775. urteak. Zornotza eta Arratiako bikarriotzen eskusatu eta subsidioaren ganean egindako ekintza, Bilbo hiribilduko benefizioduna, bertako eta bere partiduko bikarioa eta ekintza honetarako ordezkari gisa bidalia izan zen Nicolas de Landazurik egina.
- 3934, 1771-1775. urteak. Urduñako artzapez-barrutia. Artzapez-barruti honetako eskusatuaren balioen kitapena.
- 3935, 1771-1775. urteak. Urduñako bikarriotzaren artzapez-barrutiko eskusatuaren koaderno.
- 3936, 1771-1775. urteak. Urduñako bikarriotza eta artzapez-barrutiko subsidioaren koaderno.
- 3937, 1771-1775. urteak. Orozkoko eskusatua. Orozkoko bikarriotzako balioen kitapena.
- 3938, 1771-1775. urteak. Orozkoko bikarriotza. Eskusatua. Artzapeza.
- 3939, 1771-1775. urteak. Orozkoko bikarriotza. Subsidioa.
- 3944, 1771-1775. urteak. Lekeitioko kapituluaren eskusatua.
- 3951, 1771-1775. urteak. Kalagorri, Ozkabarte eta apezpikutza dignitatearen E. S.-arentzako hamarren eta hasikinen balioen laburpena, subsidio eta eskusatuarentzako.
- 3954, 1771-1775. urteak. Uribe, Larrabetzu, Plentziako... bikarriotza, eskusatua.
- 4027, 1771-1775. urteak. Uribeko bikarriotza. Subsidioari ordaintzen dioten errenten laburpena.
- 4028, 1771-1775. urteak. Bilbo. Bilboko bikarriotzako subsidiorako errenten laburpena, erregeladunak barne.
- 4029, 1779. urtea. Bilbo. Bikarriotza honetako laburpena. Seminarioa. Erregeladunak, kaperautzak eta hauen kitapenak barne.
- 4030, 1779. urtea. Zigoitiako artzapez-barrutia. Subsidioaren balioen kitapena.
- 4032, 1779. urtea. Arratiako bikarriotza. Subsidioarentzako errenten estraktoa.
- 4033, 1779. urtea. Arratiako bikarriotza. Subsidioarentzako errenten laburpena.
- 4034, 1779. urtea. Durango eta Tabira. Subsidioa. Beronen errenten laburpena.
- 4036, 1779. urtea. Zornotzako bikarriotza. Subsidioarentzako errenten laburpena.
- 4037, 1779. urtea. Markina. Subsidioa. Bikarriotza honetako errenten laburpena.
- 4039, 1779. urtea. Urduñako artzapez-barrutia. Subsidioa ordaintzeko erabiltzen diren balioen laburpena.
- 4041, 1779. urtea. Orozkoko subsidioa. Orozkoko bikarriotzako balioen laburpena, Aiarako leku batzuk sartzen direlarik.
- 4042, 1779. urtea. Elorrioko bikarriotza. Subsidioa ordaintzeko erabiltzen diren balioen laburpena.
- 4043, 1779. urtea. Durangoko artzapez-barrutia. Seminarioa. Durangoko bikarriotzako balioen kitapena. Erregeladunak eta kaperautzak barne.
- 4044, 1779. urtea. Zornotza, Seminarioa. Zornotzako bikarriotzako balioen kitapena, kaperautzak barne.
- 4046, 1779. urtea. Lekeitioko bikarriotza. Subsidioaren balioak.
- 4054, 1779-1780. urteak. Durangoko artzapez-barrutia. Durangoko Tabirako bikarriotza. Subsidioa eta eskusatua.
- 4084, 1784. urtea. Larrabetzu. Larrabetzuko elizaren eraikuntza bukatu zelarik, berau bedeinkatzeko eskubidea eskatzen da.



4110, 1788-1792. urteak. Uribeko bikarriotzako subsidio eta eskusatuen balioen kitapena.

4111, 1788-1792. urteak. Uribeko bikarriotza. Larrabetzu. Subsidio eta esku-satua.

4128, 1792. urtea. B[erorren] M[aiestatea]ren Erret Zedula harrikatzeko meategiak lantzeko arauak zehaztuz: gai honen merkataritza libre aimentzen da eta bere salerosketa eta atzerriratzea garatzeko zenbait grazia banatzen da.

4154, 1794. urtea. 1794ko fruituen kontu orokorrak.

Gipuzkoa eta Arabarako antzeko azalpen bat dago. Signaturak sinplifikatzeko, herriak bikarriotza bezala laburtzen ditut, eta berauek dauden hamabost legajo-sortetan, zeinek mila folio baino gehiago baitituzte eta honela aipatuko baititugu: 1771-1775 (1), 1771-1775 (2)...

1771-1775 (1): Kuartango, Camero Nuevo, Done Miliaga, Naxera.

1771-1775 (2): Hondarribia, Kuartango.

1771-1775 (3): Leintz, Logroño, Oñati, Bergara, Biana.

1771-1775 (4): Armentia, Biasteri, Leintz.

1771-1775 (5): Agreda, Almazan, Done Miliaga, Naxera, Elorrio.

1771-1775 (6): Arratia, Markina, Arnedo, Durango.

1771-1775 (7): Berberiego-Biana, Bilbo, Zigoitia, Arnedoko bailara.

1771-1775 (8): Bermeo, Ganboa, Camero Viejo, Naxerako Santa María de la Real-eko monasterioa eta bere mendekoak, Biana.

1771-1775 (9): Erribera, Kanpezu, Yanguas.

1771-1775 (10): Busturia, Erribera, San Miguel del Monte-ko monasterioa.

1771-1775 (11): Valbanerako monasterioa, Logroño, Gipuzkoako Klero Noblea.

1771-1775 (12): Errioxa, Uribe.

1771-1775 (13): Orozko, Lekeitio, Urduña, Aiara, Ozkabarte, Armentia.

1771-1775 (14): Armentia, Lekeitio, Naxera, Herrerako monasterioa, Casa la Reinalako komentua, Haroko komentua, Cañas-ko komentua, Busturia, Ondarroa, Zornotza, Elgoibar, Trebiño, Lekeitio.

1771-1775 (15): Trellako monasterioa, Naxera, Egilaz, Naxerako Santa María de la Real-eko monasterioa, urteurrenen Kartaboia.

1779: Durango, Markina, Erribera, Urduña, Aiara, Orozko, Elorrio, Durango, Zornotza, Ozkabarte, Lekeitio, Kalagorri, Armentia, Leintz, Berberiego, Gipuzkoako Kleroa, Oñati, Durango, Arratia, Camero Viejo, Kanpezu, Yanguas, Mutriku, Errioxa, Uribe, Arnedo, Bilbo, Zigoitia, Arratiako bikarriotzetako subsidioa.

1778-1779: Naxera, Egilaz, Busturia, Camero Nuevo-ko bikarriotzetako subsidioa.

1661-1662: parrokia batzuetako hamarrenak ditu, baina 1756-1761ekoak eta ez xvii. mendekoak.

1658-1661: Idem Bizkaiko bikarriotza batzuetakoak, baina 1756-1761ekoak.

## 2.7. Gasteizko Apezpikutzako Artxiboa

Tazmia-liburuak: Langraitz Oka (1666tik 1814ra), Villanañe (1778tik 1841era), eta Dulantzi (1784tik 1844ra).

Erruki Kutzak: Gauna (1596tik 1877ra), Ulibarri-Jauregi (1631-1632; 1806-1862); Tosta (1681-1833); Villanañe (1714-1771, 1778-1824, 1825-1834).

## 2.8. *Lekeitioko Arrantzaleen Kofradiako Artxiboa*

Iturrizak XVIII. mendean antolatutako artxiboa; gaur egun, tamalez, dokumentazio gehiena galdu da.

Eskriturak (1754tik 1857ra), 9. Errejistroa, 17. zkia.

## 3.2. *Lekeitioko Udal Artxiboa*

Oso ondo kontserbatua eta zaindua.

1631. urtea, 10. errejistroa, 55. zenbakia.

1685. urtea, 9. errejistroa, 13. zenbakia.

1675. urtea, 36. errejistroa, 11. zenbakia.

1678. urtea, 10. errejistroa, 55. zenbakia.

1643. urtea, 34. errejistroa, 1. zenbakia.

## 3.3. *Biasteriko Udal Artxiboa*

18. errejistroa, 11. zenbakia. Biasterin eta bere eskumeneko lekuetan 1689 eta 1695ean bizi ziren frantsesen estatistika.

19. errejistroa, 3. zenbakia. 1857an jasotako ardo-pegarrak.

19. errejistroa, 8. zenbakia. 1822ko espedientea, hiribilduaren zorrekina eta 74.863 errealetan tasatutako La Paul zelaiaren salmentarekin.

25. errejistroa, 2. zenbakia. Biasteriko 1775eko auzotarren errolda, zeinetan franko infanzoiak, elizgizonak edo estaturik aitortzen ez zutenak desberdintzen baitziren.

25. errejistroa, 14. zenbakia. Biasteriko barruti guzti-guztien planoak, lur bakoi-tzean egiten diren labore egokienak zehaztuz.

25. errejistroa, 27. zenbakia. Udal-aletegiaren kontu-liburua, 1718tik 1733ra.

7. errejistroa, 3. zenbakia. Nuestra Señora del Pilarreko Ospitaleko Ogasun Liburua.

## 3.4. *Gasteizko Udal Artxiboa.*

Gasteizko Udalaren Dekretu Liburua, XVIII. mendea eta XIX.aren lehenengo herena.

## 4.1. *Ziortzako Kolejiatako Artxiboa*

Fabrikako bigarren liburua (XVII. mendearen bukaeratik 1812ra).

Fabrikako hirugarren liburua (1813tik 1901era).

Mahai kapitularren bigarren administrazioaren liburua (1751-1806).

Mahai kapitularren hirugarren administrazioaren liburua (1807-1865).

Bigarren kartulario-liburua, 1625ean hasten delarik.

Hamarren eta zergen kitapena.

## 4.2. *Lamuzako San Pedro Parrokiako Artxiboa, Laudioko bailara.*

Laudioko bailarako lau koadrilen txantelak.

Hildakoak, beren adina eta heriotzaren zergatia ezartzeko erabilitako liburua, 1801eko uztailak 8tik 1807ko azaroak 13ra.

#### 4.3. *Balmasedako Parrokiako Artxiboa*

«Razón de los juro que cobra este convento de Religiosas de N<sup>a</sup> S<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Sta. Clara de la Villa de Balmaseda.»

#### 4.4. *Oioneko Parrokiako Artxiboa*

Oioneko Parrokia eta kapituluaren subsidio eta eskusatuaen taula. 1807tik 1831ra arteko hasikina du.

Hamarrenen tazmia (1776-1830).

Bataiatze-liburuak: 1670-1777; 1777-1829; 1829-1855.

«Libro del Pósito de la Villa de Oyón», 4. zkia., 1676-1693.

Orri solteak: Oioneko alkateei egindako fiskalizazioak («residencia»).

#### 4.5. *Deustuko San Pedro Parrokiako Artxiboa.*

Deustuko San Pedroko fabrika-liburua.

#### 4.6. *Haroko Parrokiako Artxiboa.*

Hainbat legajo, oso eragabetuak eta signaturarik gabe.

#### 4.7. *Samaniegoko Parrokiako Artxiboa.*

Sortzez Garbia Kofradiaren kontu-liburua.

Samaniegoko auzotarren erroldak, nobleak eta infantzoiak bereiztuz.

#### 4.8. *Lekeitioko Parrokiako Artxiboa.*

Bataiatuen liburuak: 1670tik 1735era; 1735etik 1763ra; 1763tik 1785era; 1785etik 1803ra; 1804tik 1818ra; 1818tik 1829ra; 1829tik...

Hildakoen liburuak: 1670etik 1722ra, bataiatuenean sarturik; 1670-1735; 1722-1777; 1777-1815; 1816-1854.

Ezkonduen eta beilatuen liburuak: 1670-1760; 1760-1785; 1785-1826; 1826-1864.

Sendotuen lehenengo liburua: 1722tik 1831ra.

Sendotuen bigarren liburua: 1844tik...

#### 4.9. *Plentziako Parrokiako Artxiboa.*

Bataiatuen liburuak: 1658-1717; 1717-1757, sendotuak barne; 1757-1795; 1795-1820; 1820-1833; 1833-1847; 1847-1865.

Hildakoen liburuak: 1658-1717; 1717-1755; 1755-1818; 1777-1815; 1818-1847, 1847-1884.

Ezkonduen liburuak: -1718; 1718-1770; 1770-1813; 1813-1846, sendotuak barne; 1846-1901.

#### 4.10. *Biasteriko San Juan Parrokiako Artxiboa.*

Bataiatuen liburuak: 1676-1754; 1754-1796; 1797-1825; 1825-1850.

Hildakoen liburuak: 1676-1790; 1791-1832; 1832-1869.

Ezkonduen liburuak: 1676-1790; 1791-1847.

4.11. *Biasteriko Santa María de los Reyes Parrokiako Artxiboa*

Bataiatuen liburuak: 1653-1694; 1694-1764; 1764-1816; 1816-1842; 1842-1857.  
Hildakoen liburuak: 1582-1709, 1632-1681 bitarteko ezkonduak sartzen direlarik; 1710-1751; 1752-1825; 1826-1845; 1845-1880.

Ezkonduen liburuak: 1632-1681, 1582-1709 hildakoenean agertzen dena; 1677-1916; 1817-1845; 1845-1922.

Sendotuen liburuak: S. 15 eta S. 14.

4.12. *Beasaingo Parrokiako Artxiboa*

Beasaingo eta Garin auzoko bataiatu, ezkondu eta hildakoen liburuak.

4.13. *Bastidako Parrokiako Artxiboa.*

Bataiatuen liburuak: 1677-1691; 1691-1714; 1714-1734; 1734-1759; 1759-1787; 1787-1823; 1823-1845; 1845-1863.

Hildakoen liburuak: 1632-1690; 1690-1729; 1729-1760; 1760-1800; 1800-1828; 1828-1860.

Ezkonduen liburuak: 1688-1742; 1742-1828; 1828-1860.

Toloñoko Aingeruen Jainkoaren amaren Patroi Jaun dibiseroen kontu eta dekretu-liburuak: 1681-1704; 1704-1717; 1717-1723; 1723-1742; 1743-1759; 1760-1774; 1775-1781; liburu bat falta da; 1795-1807; 1808-1819.

Bastidako tazmia-liburua, 1729tik 1836ra.

4.14. *Gasteizko San Migel Parrokiako Artxiboa.*

U-6, 7, 8, 9 eta 10. legajoak. Eta San Pedroko koruaren aldeko errentamenduak.

4.15. *Gasteizko Katedraleko Artxiboa.*

Gasteizko Kolejialaren kontu-liburua, 1729an hasia.

4.16. *Santa Klara komentuko Artxiboa.*

Komentuaren ordainagiri eta ogasunaren liburua.

4.17. *Madalenaren komentuko Artxiboa.*

Kontu-liburuak (sarrerak), 1773ko otsailean eta 1806ko maiatzean hasiak.

Kontu-liburuak (gastuak): 1773tik 1796ra; 1796tik 1806ra; 1806tik 1824ra.

Kontu-liburuak (errentamenduak): 1761etik 1795era.



## Aipatutako bibliografia eta argitaratutako iturriak

- ALDAMAR, Joaquín, *Opinión...* Madril, 1850.
- ALTUBE Y ALBIZ, L., *Ensayo histórico y apuntes para la historia de la Villa de Guernica*, Gernika, 1913.
- ANES, G., *Economía e «Ilustración» en la España del siglo XVIII*. Bartzelona, 1969.
- ANES, G., *Las crisis agrarias en la España moderna*. Madril, 1970.
- ANES, G., «Los pósitos en la España del siglo XVIII». *Moneda y Crédito*, 105. zkia.
- ANONIMO, *Alegato sobre la nulidad de una sentencia del Corregidor en el pleito de la Rozadura de la Villa de Hernani*, Hernani, u.g.
- ANONIMO, *Essai historique sur les Provinces Basques et sur la guerre dont elles sont le théâtre*. Bordele, 1836.
- ANONIMO, *La villa de Lequeitio en el siglo XVIII*. Bilbo, 1921.
- ANONIMO, *Observaciones sobre la necesidad de examinar el régimen administrativo de las Provincias Vascongadas, para fallar con acierto en esta materia*. Madril, 1834.
- Anuario Estadístico de España*. Madril, 1858.
- APRAIZ, A., «Problemas en la historia del arte del País Vasco», *Primer Congreso de Estudios Vascos*. Bilbo, 1919.
- AREILZA, J. M., «La economía vizcaína a fines del siglo XVIII», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, II. urtea, bigarren koaderno. Donostia, 1946.
- ARÍN DORRONSORO, J., «Ataún, toponimia de carácter religioso», *Anuario de Eusko-folklore*, 1929, IX. libk.
- AROCENA, I., *Los banderizos vascos*. Donostia, 1969.
- AROCENA, I., «Un caso excepcional en el panorama social de Guipúzcoa: el Señorío de Murguía», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, XI. urtea.
- ARPAL POBLADOR, Jesús, *Los Garagarza de Elgóibar*, Donostia, 1973.
- ARTIÑANO Y ZURICALDAY, *El Señorío de Vizcaya, histórico y foral*, 1885.
- ARTOLA, M., *La España de Fernando VII*. Madril, 1968.
- ARTOLA, M., *Los orígenes de la España contemporánea*. Madril, 1959, bi liburuki.
- ASKOREN ARTEAN, *La tradition au Pays Basque*. Paris, 1899.

- ASSO, I. de, *Historia de la economía política de Aragón*, 1947, lehenengo argitalpena. Zaragoza, 1798.
- BALPARDA, G. de, *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros*. Madril, 1925.
- BASAS FERNÁNDEZ, M., «Dinámica de los precios de los artículos de consumo en Vizcaya durante el decenio crítico de 1860-1869», *Estudios Vizcaínos*, 1. zkia., I. urtea. Bilbo, urtarrila-ekaina 1970.
- BASAS FERNÁNDEZ, M., *El Consulado de Burgos*. Madril, 1963.
- BASAS, Manuel «Vida y Fortuna de los Gortázar, caballeros ilustrados de Bilbao en el siglo XVIII». *Anuario de Historia económica y social*, 1. zenbakia.
- BENASSAR, B., *Recherches sur les grandes épidémies dans le nord de l'Espagne à la fin du dixième siècle*. Paris, 1969.
- BENASSAR, B., *Valladolid au siècle d'or*. Paris, 1967.
- BOIS, Paul, *Paysans de l'ouest. Des structures économiques et sociales aux options politiques depuis l'époque révolutionnaire*. Paris-Haga, 1960.
- BOURGOING, G., *Tableau de l'Espagne moderne*, 1803, hirugarren argitaralra, 2 libk.
- BOWLES, G., *Introducción a la historia natural y la geografía física de España*, bigarren argitaldia. Madril, 1782.
- BRAUDEL, F., *La Méditerranée et le monde méditerranéen à l'époque de Philippe II*. Paris, 1966, 2 liburuki.
- BRAUDEL, F., LABROUSSE, E., *Historie Economique et Sociale de la France*. Paris, 1970.
- BRENAN, G., *El laberinto español*. Paris, 1962.
- CABRILLANA, Nicolás, «Salamanca en el siglo xv: Nobles y campesinos», *Cuadernos de Historia*. Madril, 1969.
- Cahier des vœux et instructions des basques français pour leurs députés aux Etats Généraux de 1789*. Baiona, 1874.
- CALATAYUD, P., *Tratados y doctrinas prácticas sobre ventas y compras de lanas merinas*. Madril, 1755, 2 libk.
- CAMINO Y ORELLA, Joaquín Antonio, *Historia civil, diplomática, eclesiástica antigua y moderna de la ciudad de San Sebastián*, Madril, 1923.
- CANGA ARGÜELLES, *Diccionario de Hacienda*. Madril, 1834, 1968an berrarg., 2 libk.
- CÁRDENAS, Juan de, *Problemas y secretos maravillosos de las Indias*. Mexiko, 1591.
- CARO BAROJA, J., *Estudios sobre la vida tradicional española*. Bartzelona, 1968.
- CARO BAROJA, J., *Inquisición, brujería y criptojudasmo*. Bartzelona, 1970.
- CARO BAROJA, J., *Los vascos*, Madril, 1958.
- CARRANDI, Amador F., *Archivo de la Tenencia de Corregimiento de la merindad de Durango. Catálogo de los manuscritos, lista de los Tenientes y Monografía de la Merindad*. Bilbo, 1922.
- CARRERA Y PUJAL, J., *Historia de la economía española*. Bartzelona, 1947, 5 libk.
- CARRIAZO, Juan de M., «Precursores españoles de la Reforma. Los herejes de Durango (1442-1445)». *Sociedad Española de Antropología, etnografía y prehistoria*. Laugarren urtea. Madril, 1925, IV. libk.
- CAYETANO ROSELL, *Crónica general del país vasco-navarro*. Madril, 1865. Bilbon berrargitaratua, 1970.
- CELAYA OLABARRI, P., *Eibar. Síntesis de monografía histórica*. Donostia, 1970.
- Censo de Frutos y Manufacturas*. Madril, 1803.
- Censo de la población de la muy noble y muy leal E. I. Villa de Bilbao*. Bilbo, 1869.
- Censo oficial de 1857*.

- CIRQUIAÍN-GAIZTARRO, M., *Monografía histórica de la noble villa y puerto de Portugalete*. Bilbo, 1942.
- Colección de proclamas... que dirige la Diputación de Vizcaya a los habitantes del Señorío*. Bilbo, 1839.
- COLÓN, F., *Descripción y cosmografía de España por Fernando Colón*. Madril, 1910, 3 libk.
- COSTA, J., *Derecho consuetudinario y económico popular de España*, II. liburukia. Bartzelona, 1902.
- Crónicas de la Casa de Vizcaya*. Bilbo, 1971, berrargitalpena.
- Cuadernos de las leyes y agravios reparados de los años 1794, 1795, 1796 y 1797*. Iruñea, 1797.
- Cuadernos de leyes y ordenanzas con que se gobierna esta muy noble y muy leal provincia de Alava y diferentes privilegios y cédulas de Su Magestad, que van puestos en el Indice*. Gasteiz, 1761.
- CHAUNU, P., *La civilisation de l'Europe classique*. Paris, 1966.
- DA SILVA, S. G., *Desarrollo económico, subsistencia y decadencia en España*. Madril, 1967.
- DEFOURNEAUX, M., *Pablo de Olavide ou l'afrancesado (1725-1803)*. Paris, 1959.
- DELMAS, *Guía del Señorío de Vizcaya*, 1864. Bilbo, 1865.
- Descripción de San Sebastián relativo a su población, costumbres y comercio por uno que acaba de venir de allí*. Londres, 1700. Itzulpena, Donostia, 1943.
- DÍAZ, Simón J., *Manuscritos y documentos relativos a Vizcaya*. Madril, 1947.
- Diccionario histórico-geográfico del País Vasco*, 1802. 2. faksimile-berrargitalpena, Bilbo, 1968
- Documento memorable. Acta de 23 de octubre de 1632. Copia literal, fiel y exacta de uno de los documentos más curiosos, interesantes y notables que se custodian en el Archivo Municipal de la Villa de Bilbao*. Donostia, 1881.
- DOMÍNGUEZ ORTIZ, A., *La sociedad española en el siglo XVIII*. Madril, 1963.
- DUBY, G., *Economía rural y vida campesina en el occidente medieval*. Bartzelona, 1968.
- ECHEGARAY, C., *Compendio de las instituciones forales de Guipúzcoa*. Donostia, 1924.
- ECHEGARAY, C., *Investigaciones referentes a Guipúzcoa*. Donostia, 1893.
- EGAÑA, *Memoria sobre la fábrica de anclas*. Tolosa, 1788.
- ELÓSEGUI, J. «Convulsiones producidas en Amézqueta por las guerras napoleónicas», *Boletín de la R.S.V.A.P.*, XIV zkia., 1968.
- EMMANUEL, A., *L'échange inégal*. Paris, 1972.
- Enciclopedia Salvat de las Ciencias Vegetales*. Mallorca, 1968.
- ENCISO VIANA, E., «Un noticiario del siglo XVI», *Boletín Sancho el Sabio*, XI. urtea, 1967, XI. libk.
- ENCISO VIANA, E., *Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. Arciprestazgo de Treviño y Campezo*. Gasteiz, 1968.
- ENCISO VIANA, E., *Laguardia en el siglo XVI*. Gasteiz, 1955.
- Ensayo de la Sociedad Bascongada de Amigos del País*. Gasteiz, 1768.
- EPALZA, S., *La mortalidad en Bilbao*. Bilbo, 1858.
- ESCARZAGA, E. de, *Descripción histórica del valle de Gordejuela*. Bilbo, 1920.
- ESCRIBANO, J. M., *Itinerario español o guía de caminos*. Madril 1860.
- ESTORNÉS LASA, J., *La Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Buenos Aires, 1948.
- Exposición elevada por la Comisión de Ferrones de Vizcaya*. Bilbo, 1843.



- Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Sociedad Bascongada de Amigos del País*. 1771, 1772, 1773, 1777, 1778, 1779, 1783 eta 1791. urteak.
- FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P., *Vascongadas en el siglo XVIII, aproximación a una estructura regional*. Argitaragabea.
- FERNÁNDEZ DE OVIEDO, Gonzalo, *Sumario de la natural historia de las Indias*, lehen argitalpena, Toledo, 1526.
- FLEURY, M. eta HENRY, L., *Nouveau manuel de dépouillement et d'exploitation de l'état civil ancien*. Paris, 1965.
- FLORANES, *Discurso histórico y legal...* Gasteiz, 1776, berrargitaratua, Bilbo, 1971.
- FONT QUER, Pío, *Plantas medicinales*. Bartzelona, 1962.
- FONTANA, J., «El "Censo de frutos y manufacturas" de 1799: un análisis crítico». *Moneda y Crédito*, 101 zkia.
- FONTANA, J., *La quiebra de la monarquía absoluta, 1814-1820*. Bartzelona, 1970.
- FURTADO, C., *La economía latinoamericana desde la conquista ibérica hasta la revolución cubana*. Mexiko, 1969.
- FURTADO, C., *Théorie du développement économique*. Paris, 1970.
- Gaceta de Madrid*, 1849ko uztailak 29.
- GARAGARZA, E. de, *Cultivo agrario de Vizcaya y sus necesidades más urgentes*. Bilbo, 1859.
- GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A., *El dominio del Monasterio de San Millán de la Cogolla*. Salamanca, 1969.
- GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A., *Vizcaya en el siglo XV*. Bilbo, 1965.
- GARCÍA DE SALAZAR, Lope, *Las Bienandanzas e Fortunas*. Bilbo, 1955, Rodríguez Herreroen argitaldia.
- GIL y ROJAS, B., eta SAGASTUME, J. R. de, *Memoria sobre la epidemia de afección tifoidea de forma mucosa*. Donostia, 1846.
- GONZÁLEZ, T., *Censo de población de las provincias y partidos de la Corona de Castilla en el siglo XVI, con varios apéndices para completar la del resto de la Península en el mismo siglo y formar juicio comparativo con la del anterior y siguiente, según resulta de los libros y registros que se custodian en el Real Archivo de Simancas*. Madril, 1929.
- GONZÁLEZ, T., *Colección de Privilegios, franquezas, exenciones y fueros, concedidos a varios pueblos y corporaciones de la Corona de Castilla copiados de Orden de S. M. de los registros del Real Archivo de Simancas. Sirve de continuación a la colección de documentos concernientes a las provincias Vascongadas*. Madril, 1833, 6 libk.
- GOROSABEL, P., *Antigüedades de Tolosa*. Tolosa, 1853.
- GOROSABEL, P., *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*. Tolosa, Bilbo, 1867, 3 libk.
- GOUBERT, P., *Le Beauvais et le Beauvaisis de 1600 à 1730*. Paris, 1960.
- GOVANTES, D. Angel Casimiro, *Diccionario geográfico-histórico de España por la R. A. H.*, II. atala, Madril, 1846.
- GOY, LE ROY LADURIE..., *Les fluctuations du produit de la dîme*. Paris, 1972.
- GOYHENECHA, E., «L'introduction du maïs en Euskal Herria et en Europe (1523)», in *Homenaje a Don José Miguel de Barandiarán*. Bilbo, 1964, I. libk.
- GUIARD, T., *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. Bilbo, 1908, Bilbon berrargitaratua, 1971, 4 libk.
- GUIARD, T., *Historia del Consulado, de la Casa de Contratación de Bilbao y del Comercio de la Villa*. Bilbo, 1914, 2 libk.

- Guía del Ministerio de Gobernación del Reino*. Madril, 1836.
- GURRUCHAGA, I., «La machinada de 1766 en Azpeitia». *Yakintza*, 5. zkia., 1933.
- GUTIÉRREZ BILBAO, J., *Historia de Munguía*. Bilbo, 1933.
- HAMILTON, Earl J., *War and prices in Spain, 1651-1800*. Cambridge, Massachussets, 1947.
- HENAO, *Antigüedades de Cantabria*. 6 libk.
- HENNINGSSEN, C. F., *Campaña de doce meses en Navarra y las Provincias Vascongadas con el General Zumalacárregui*, 1836an argitaratutako liburu ingelesetik itzulia. Madril, 1935, ingelesezko lehenengo argitarapena, 1836.
- HENRY, L., *Démographie, analyse et modèles*. Paris, 1972.
- HENRY, L., *Manuel de démographie historique*. Geneva-Paris, 1967.
- HUETZ DE LEMPS, A., *Vignobles et Vins du Nord-Ouest de l'Espagne*, 2 liburuki. Bordele, 1967.
- IBÁÑEZ GARCÍA, G. eta VIDAURRÁZAGA ACHA, V., *Orientaciones generales para el desarrollo y prosperidad de la Provincia de Vizcaya*. Bilbo, u.g. (1933).
- IMBERT, G., *Des mouvements de longue durée Kondratieff*. Aix-en-Provence, 1959.
- Informe evacuado con fecha 14 de agosto de 1832 por la Comisión Permanente de Caminos*.
- INSAUSTI, S., «Competencias de jurisdicción entre autoridades eclesiásticas y civiles en Guipúzcoa», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. Donostia, 1968, XXIV. urtea, 2. koaderno.
- ISASTI, *Compendio historial de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa*, Donostia, 1850.
- ITURRIZA, J. A., *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, 2 libk. Rodríguez Herreroren edizioa, Bilbo, 1967.
- JOVELLANOS, G. M., *Obras de...*, Biblioteca de Autores Españoles, L. libk. Madril, 1952.
- LABAYRU, E., *Historia General del Señorío de Bizcay*, berrarg. Bilbo, 1968, 7 libk.
- LABORDE, A., *Itinéraire descriptif de l'Espagne*. Paris, 1808, 2 libk.
- LAFFITTE, Vicente, «El problema de la ganadería en el País Vasco». *II. Congreso de Estudios Vascos*. Donostia, 1920.
- LANDAZURI Y ROMARATE, J., *Historia Civil de Alava*. Gasteiz, 1798.
- LARRAMENDI, M. de, *Corografía de Guipúzcoa*. Buenos Aires, 1950.
- LARRUGA, E., *Memorias políticas y económicas sobre los frutos, comercio, fábricas y minas de España*. Madril, 1787-1800, 45 libk.
- LASA, J.J., «Las luchas en torno a las seles y caserío Albitxuri», in *Homenaje a don J. M. Barandiarán*. Bilbo, 1964, I. libk, 179-188. orr.
- LAUTENSACH, H., *Geografía de España y Portugal*. Bartzelona, 1967.
- LAZURTEGUI, J. de, *Las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa, Alava y Navarra ante el hemisferio de Occidente*. Bilbo, 1828.
- LE ROY LADURIE, E., *Les paysans de Languedoc*. Paris, 1966.
- LEFEBVRE, Th., *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*. Paris, 1933.
- LEFEBVRE, G., *La grande peur de 1789*. Paris, 1970.
- LHANDE, P. S. J., *L'émigration basque*. Paris, 1910.
- LISTA, A., «De los fueros de las provincias vascongadas», *Revista de Madrid*. Madril, 1838, II. libk.
- LUCIO ESPINOSA Y MALO, Félix, *Memorial de la calidad y servicios de la casa de Salazar y Muñatones*. Madril, 1682.

- LUNA, J. de, *Memoria que contiene una estadística sucinta de Vizcaya, por don Julián de Luna, Jefe político e intendente de la misma provincia*. Bilbo, 1849.
- LLORENTE, J. A., *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas*. Madrid, 1805-1807, 5 libk.
- MADOZ, P., *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar*. Madrid, 1846-1850, 16 libk.
- MARTÍNEZ DE AGUIRRE ZALDUENDO, C., *Chrisis cotyolética, juicio o sentencia sobre el Theorema en griego y Appendice en Latín de los dictámenes y la Exposición del cap. 12 de las Ordenanzas antiguas de la Propiedad de la Villa de Bilbao*. Bilbo, 1737.
- MARTÍNEZ KLEISER, *La Villa de Villagrana de Zumaya*. Madrid, 1923.
- MARTÍNEZ, J., «Los mayorazgos del Conde Fundador». *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*. 1. koadernoa, 1969.
- MATILLA TASCÓN, A., *La única contribución y el Catastro de La Ensenada*. Madrid, 1947.
- MAULEÓN ISLA, Mercedes, *La población de Bilbao en el siglo XVIII*. Valladolid, 1961.
- MEJIDE PARDO, «La emigración gallega intrapeninsular en el siglo XVIII», *Estudios de Historia de España*, IV. libk. II. al., Madrid, 1960.
- MELLADO, Francisco P., *Enciclopedia moderna. Diccionario universal de literatura, ciencias, arte, agricultura, industria y comercio*. Madrid, 1851, 33 libk.
- Memoria justificativa de lo que tiene expuesto y pedido la ciudad de San Sebastián para el fomento de la industria y comercio de Guipúzcoa, publicada por acuerdo del Ayuntamiento General de vecinos concejantes y Junta de Comercio de la misma ciudad*. 1832. urtea.
- Memoria sobre el movimiento de la población en España en los años 1858, 1859, 1860 y 1861*. Madrid, 1863.
- MEYER, J., *La Noblesse bretonne au XVIII siècle*. Paris, 1966.
- MIÑANO, S. de, *Diccionario geográfico-estadístico de España y Portugal*. Madrid, 1826-1829, 11 libk.
- MOGUEL, J. A., *Peru Abarka*. Bilbo, 1970.
- MORINEAU, M., «La pomme de terre». *Annales*. Azaroa-abendua, 1970.
- MOXÓ, Savador, «De la nobleza vieja a la nobleza nueva». *Cuadernos de Historia*, Madrid, 1969.
- MUGARTEGUI, J.J., *Índice General del Archivo de Cenarruza*. Bilbo, 1932.
- MÚGICA, G. de, *Monografía histórica de la villa de Eibar*. Irun, 1910.
- MÚGICA, S., *Geografía general del País Vasco-Navarro. Provincia de Guipúzcoa*. Bartzelona, u.g.
- MURUAGA, Domingo de, *Necesidad de implantar viñas en Vizcaya*, Bilbo, 1830.
- NADAL OLLER, J., «Demografía y economía en el origen de la Cataluña moderna. Un ejemplo local: Palamós (1705-1839)». *Estudios de Historia Moderna*, Bartzelona, 1960, VI. libk.
- NADAL OLLER, J., «Les grandes mortalités des années 1793 à 1812: effets a long terme sur la démographie catalane». *Problèmes de mortalités. Méthodes, sources et bibliographie en démographie historique*. Liège, 1965.
- NADAL OLLER, J., *Historia de la población española*. Bartzelona, 1966.
- NIPHO, Francisco M., *Descripción natural, política y económica de todos los pueblos de España*. Madrid, 1771.
- NOILHAN, H., *Histoire de l'agriculture à l'ère industrielle*. Paris, 1965.
- Nomenclátor de los pueblos de España, formado por la Comisión de Estadística General del Reino*. Madrid, 1858.

- ODRIOZOLA, Imanol Elías, *Azpeitia y sus hombres*. Donostia, 1970.
- OTALORA Y GUITSSASA, Gonzalo de, *Micrología geográfica del asiento de la Noble merindad de Durango por su ámbito y circunferencia*. Sevilla, 1634, 1884an berrargitaratua, Madril.
- OTAZU, Alfonso, *El «igualitarismo» vasco: mito y realidad*. Donostia, 1973.
- PALACIO ATARD, V., *El comercio de Castilla y el puerto de Santander en el siglo XVIII*. Madril, 1960.
- PALLOIX, C., *L'économie mondiale capitaliste*, Paris, 1971.
- PELÁEZ REDONDO, J. eta PEÑAYÁÑEZ, A., *Manual de Patología médica*, Madril, 1964.
- PEYRÓN, Juan F., *Nuevos viajes a España en 1772-73*. Aguilar, 1962.
- PONSOT, P., «En Andalousie occidentale: les fluctuations de la production du blé sous l'Ancien Régime». *Etudes Rurales*, 34 zkia., 1969.
- PORCHNEV, B., *Les soulèvements populaires en France*. Paris, 1963.
- PRESSAT, R., *El análisis demográfico*. Mexiko, 1967.
- REINHARD-ARMENGAUD, *Historia de la población mundial*. Bartzelona, 1961.
- Reseña estadística de la Provincia de Guipúzcoa*. Madril, 1959.
- RIMBERT, S. *Cartes et graphiques*. Paris, 1964.
- RINGROSE, David R., «Transportation and economic stagnation in Eighteenth century Castile», *The journal of economic history*, XXVIII. libk., March 1968.
- RINGROSE, David R., *Transportation and Economic Stagnation in Spain, 1750-1850*. Durham, N. C., 1970.
- RODRÍGUEZ HERRERO, *Valmaseda en el siglo XV y la aljama de judíos*. Bilbo, 1947.
- RODRÍGUEZ-FERRER, M., *Las Vascongadas, su país, su lengua y el Príncipe L. L. Bonaparte*. Madril, 1873.
- RUIZ MARTÍN, F., «Demografía eclesiástica hasta el siglo XIX». Madril, 1972.
- RUIZ MARTÍN, F., «La banca en España hasta 1782». Madril, 1970.
- RUIZ MARTÍN, F., «La población española al comienzo de los tiempos modernos». *Cuadernos de Historia*, I. libk., 1967.
- SAGARMINAGA, *El gobierno y régimen foral de Vizcaya*, 4 libk. Bilbo, 1892. Darío Areitiok osatutako argitaldi bat dago. Bilbo, 1928.
- SALOMON, N., *La Campagne de Nouvelle Castille*. Paris, 1964.
- SAMIR AMIN, *L'accumulation à échelle mondiale*. Paris, 1971.
- SAN MARTÍN Y BURGOA, A., *El labrador Vascongado o antiguo agricultor. Demostración de las mejoras de que es susceptible la Agricultura en las Provincias Vascongadas, y de las grandes ventajas que se podrían lograr en todo el Reino observando las reglas de la antigua labranza*. Madril, 1791.
- SÁNCHEZ ALBORNOZ, Cl., *Despoblación y repoblación del valle del Duero*. Buenos Aires, 1966.
- SÁNCHEZ DE SOPRANIS, H., «Las naciones extranjeras en Cádiz durante el siglo XVII». *Estudios de Historia Social de España*, IV. libk., II. al. Madril, 1960.
- SÁNCHEZ RAMOS, *La economía siderúrgica española*. Madril, 1945, I. libk.
- SORALUCE Y ZUBIZARRETA, Nicolás de, *Historia General de Guipúzcoa*. Gasteiz, 1870.
- SUNKEL, O. eta PAZ, P., *El subdesarrollo latinoamericano y la teoría del subdesarrollo*. Mexiko, 1970.
- TEJADA, F. E. de, *El Señorío de Vizcaya (hasta 1812)*. Madril, 1963.
- TEJADA, F. eta PERCOPO, G., *La provincia de Guipúzcoa*. Madril, 1965.
- TELLECHEA IDIGORAS, J. I., *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. XXVII. urtea, 1. eta 2. koadernoak. Donostia, 1971.

- TORRAS ELÍAS, J., *La guerra de los agraviados*. Bartzelona, 1967.
- TRUEBA, A., *Bosquejo de la organización social de Vizcaya*. Bilbo, 1870, eta Bilbo, 1887, Villabasoren artikuluko batekin.
- TRUEBA, A., *Datos para la historia de Vizcaya*. Lugo, 1900.
- TRUEBA, A., *Resumen descriptivo...* Bilbo, 1873.
- Un siglo del Banco de Bilbao*. Bilbo, 1957.
- URQUIJO DE, J., *Refranero vasco. Los refranes y sentencias de 1596*. Donostia, 1967, II. libk.
- USTÁRIZ, J., *Teoría y práctica de comercio y de marina*. Madril, 1757 (2. inprimake-ta).
- VELÁZQUEZ, B., *Terapéutica con sus fundamentos de Farmacología Experimental*, 9. argitalpena, 1963.
- VILAR, P., «El motín de Esquilache», *Revista de Occidente*, 107. zkia.
- VILAR, P., «Structure de la société espagnole vers 1750», in *Mélanges à la mémoire de Jean Sarrailh*, Paris, 1967, II. libk.
- VILAR, P., *Histoire de l'Espagne*. Paris, 1971.
- VILAR, P., *La Catalogne dans l'Espagne moderne*, Paris, 1962, 3 libk.
- VILLABASO, C. de, *La cuestión del Puerto de La Paz y la Zamacolada*. Bilbo, 1887.
- VILLARREAL DE BÉRRIZ, P. B., *Máquinas hidráulicas de molinos y herrerías*. Madril, 1736.
- ZAMÁCOLA, J. A., *Historia de las naciones bascas*. Bilbo, 1898, 1. arg. Auch, 1818.
- ZAVALA Y MIRANDA, J., *Manifiesto que al M. N. y M. Leal Señorío de Vizcaya en su Junta General de Guernica presenta su diputado en la Corte de Madrid, Don Joseph de Zavala y Miranda, sobre establecer en la villa de Bilbao, comercio y navegación por reglas de Compañía para la carrera de Buenos Ayres de la América*. Bilbo, 1740.
- ZIMMERMAN, I. J., *Países pobres, países ricos*. Mexiko, 1965.
- ZUMALDE, I., *Vergara*. Donostia, 1970.

### **Oharretan aipatutako beste lan batzuk**

- «Curiosidades históricas referentes a las provincias vascongadas. Año 1803. Noticia sobre la economía doméstica de los labradores de varios pueblos.» *Euskal-erria*, XLIV. libk., 1901eko lehenengo seihilekoa.
- CASAL Y JULIÁN, Gaspar del, *Historia Natural y Médica de Principado de Asturias. Censo de la población de España, según el recuento verificado en 25 de diciembre de 1860*. Madril, 1863.
- Censo de la riqueza territorial de España*. Madril, 1802.
- DIEM, Konrad, *Documento Geigy. Tablas científicas*. Basilea, Suitza, seigarren argitalpena, 1965.
- EGAÑA, D. I., *El guipuzcoano instruido*. Donostia, 1780.
- ESTEVE CHUECA, F., *Ciencias Naturales*. Alcoy, 1969.
- Estudios socio-económicos comarcales - Guernica*. Bilbo, 1972.
- Exposición de Vizcaya a S. M.*, c. 1661.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E., «El memorial incompleto de Churruca: un exponente de los antagonismos rurales pocos años antes del estallido de la primera guerra carlista», *Revista de Occidente*, 1973ko azaroa.

- GAMINDE, Víctor Luis de, *Intereses de Bilbao exámen de lo perjudicial que seria la permanencia del sistema foral en el siglo XIX al comercio é industria del pais y a los liberales de Vizcaya*. Bilbo, Adolfo Depout-en inprimategia. Iraila, 1839.
- GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A., *La época Medieval*, Madril, 1973.
- GURRUCHAGA, I., «Notas sobre los parientes mayores», in *R. I. E. V.*, XXVI. libk.
- HEERS, J., *L'occident aux XIVème eta XVème siècles*. Paris, 1963.
- HEROS, Martín de los, *Historia de Valmaseda*, Bilbo, 1926.
- LABROUSSE, E., *Fluctuaciones económicas e historia social*. Madril, 1962.
- LAFARGA, Adolfo, *Aportación a la historia social y política de Vizcaya. Siglos XVI-XIX*. Bilbo, 1971.
- LEONHARD FUCHS, *De Historia Stirpium Commentari*.
- MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo S. J., «Alava: desarrollo de las Villas y Fueros Municipales (siglos XII-XIV)», in *Anuario de Historia del Derecho Español*, XLI. libk., Madril, 1971.
- MEDINA, P., *Grandezas de España*. Alcalá de Henares, 1595.
- Memoria sobre el cólera morbo según se ha observado en la ciudad de San Sebastián en el presente otoño...* Donostia, 1834.
- NADAL OLLER, J., «La Catalogne dans l'Espagne moderne». Chronique in *Etudes et Chronique de démographie historique*, 1964.
- OYARZUN, R., *Historia del carlismo*. Madril, 1969.
- Paseos por Bilbao, o cartas familiares sobre esta Villa*, Bilbo, datarik gabe, baina c. 1800.
- UBIETO, REGLÁ, JOVER eta SECO, *Introducción a la Historia de España*. Bartzelona, 1969.
- VILAR, P., «Essai d'un bilan démographique de la période 1787-1814 en Catalogne», in *Annales de démographie historique*, 1965.



## Glosarioa

|                     |                         |                         |   |
|---------------------|-------------------------|-------------------------|---|
| Abadira             | Abadejo                 | Artekaritza             | Correduría                                    |
| Abitu               | Hábito                  | Artzapez-barruti        | Arciprestazgo                                 |
| Abjenezia           | Abjencía                | Aseguro-etxe            | Compañía de seguros                           |
| Adabatzaile         | Remendón                | Atzeragarri             | Regresivo                                     |
| Aduanari            | Aduanero                | Aurrerakin-sistema      | Sistema de adelantos,<br><i>Verlagssystem</i> |
| Aguazil             | Alguacil                | Auzo-eskumen            | Jurisdicción pedánea                          |
| Ahaldun             | Apoderado               | Auzokide-hautagai       | Vecino concejante                             |
| Ahalorde            | Poder (notarial, p.ej.) | Auzotar                 | Vecino  |
| Aholkulari          | Consultor               | Auzotutako              | Avecindado                                    |
| Aihen               | Majuelo                 | Azafrai                 | Azafrán                                       |
| Aihotz              | Machete                 | Azienda larri           | Ganado mayor                                  |
| Ailorbe             | Alholva                 | Azienda xehe            | Ganado menor                                  |
| Aitoren seme        | Gentilhombre, noble     | Azpiforero              | Subforero                                     |
| Aiztogintza         | Cuchillería             | Bahitura                | Embargo                                       |
| Albaramendu         | Sedición                | Baieta                  | Bayeta  |
| Alboko punta        | Punta de costado        | Balazta                 | Freno   |
| Alderrai            | Errante                 | Baldotar                | Valdense                                      |
| Alkabuz             | Arcabuz                 | Balezтари               | Ballestero                                    |
| Alokairu            | Alquiler                | Baratzezain             | Hortelano                                     |
| Alpalpa             | Alfalfa                 | Barra borobil           | Cabilla                                       |
| Altzairu zementatu  | Aceros cementado        | Basobera                | Monte bajo                                    |
| Amugintza           | Anzuelería              | Batez besteko mugikor   | Media móvil                                   |
| Anega               | Fanega                  | Batzar Nagusi           | Junta General                                 |
| Angio               | Dehesa                  | Batzar partikular       | Junta particular                              |
| Antzinako Errejimen | Antiguo Régimen         | Bazka-landare           | Plantas forrajeras                            |
| Apoplexia           | Apoplejía               | Baztanga                | Viruela                                       |
| Arau-hauste         | Infracción              | Beheraldi               | Depresión                                     |
| Arbazta             | Fuste; Broza            | Beloi                   | Vellón  |
| Argien Mendea       | Siglo de las Luces      | Benefiziodun            | Beneficiado                                   |
| Ariel               | Arbitrio                | Berezitu                | Especializarse                                |
| Armazoi             | Casco                   | Berset                  | Versículo                                     |
| Arpilatu            | Saquear                 | Besterendu              | Enajenar                                      |
| Arpilatze           | Saqueo                  | Beta                    | Vena (mineral)                                |
| Arrain-milioi       | Millón de pescados      | Betaren ateraketa libre | Saca libre de vena                            |
| Arroa               | Arroba                  |                         |   |



|                   |                    |                       |                        |
|-------------------|--------------------|-----------------------|------------------------|
| Betaontzi         | Venaquero          | Errotu                | Arraigado              |
| Betearazpen       | Ejecución          | Eru                   | Yero                   |
| Bideria           | Red variara        | Eskaera, eskari       | Demanda                |
| Bidesari          | Peaje              | Eskaintza             | Oferta                 |
| Bigarren seme     | Segundón           | Eskeko                | Vagabundo              |
| Bihotzeko hezueri | Gota coral         | Eskorta               | Corral                 |
| Bilketa           | Acopiamiento       | Eskribau              | Escribano              |
| Birlandaketa      | Replantación       | Eskrofula             | Lamparón               |
| Bizargin          | Barbero            | Eskudiru              | Efectivo               |
| Bizkaiko Jaurerri | Señorío de Vizcaya | Eskumen               | Jurisdicción           |
| Burdingintza      | Siderurgia         | Eskumikatu            | Excomulgar             |
| Deflazio          | Deflación          | Eskusatu              | Excusado (impuesto)    |
| Desamortizazio    | Desamortización    | Estamentu             | Estamento              |
| Desmen            | Desacato           | Estrepa               | Jaro                   |
| Desoinordetu      | Desheredar         | Estrepadi             | Jaral                  |
| Dohain            | Donativo           | Etze                  | Yermo                  |
| Domingotar        | Dominico           | Euskalerrriaren Adis- | R. Sociedad Bascongana |
| Dukat             | Ducado (moneda)    | kideen E. Elkartea    | da de Amigos del País  |
| Ebasketa          | Hurto              | Ezkontsari            | Dote                   |
| Ebazpen           | Resolución         | Ezkutari              | Escudero               |
| Edema             | Edema              | Fabrika-liburu        | Libro de fábrica       |
| Egoiliar          | Residente          | Farfail               | Blonda                 |
| Egoskari          | Legumbre           | Ferrabide             | Camino de herradura    |
| Egunsari          | Jornal             | Ferratzaile           | Herrador               |
| Egur-ikatz        | Carbón vegetal     | Fiel                  | Fiel                   |
| Ehule             | Tejedor            | Finantzamendu         | Financiación           |
| Elezuriz          | «Tartufamente»     | Fiskaltza             | Fiscalía               |
| Elgorri           | Sarampión          | Fisko-su              | Fuego fiscal           |
| Elikatu           | Alimentario        | Forte                 | Fuerte (militar)       |
| Elizate           | Anteiglesia        | Foru-alkate           | Alcalde de fuero       |
| Emari             | Donativo           | Fratitxelo            | Fratricello            |
| Enfiteusi         | Enfiteusis         | Frenitis              | Frenitis               |
| Entzutegi         | Audiencia          | Fundazio-agiri        | Carta fundacional      |
| Erdigalkor        | Semiperecedero     | Funts                 | Fondo                  |
| Erkametz          | Cajjigo, quejigo   | Funts-ondasunak       | Bienes raíces          |
| Erlikitegi        | Relicario          | Gabi                  | Martinete (martillo)   |
| Ermandade         | Hermanidad         | Gainazal              | Superficie             |
| Erreal            | Real (moneda)      | Galdatu               | Fundir                 |
| Errebal           | Arrabal            | Galera                | Galera (transporte)    |
| Errege Almirante  | Real Almirante     | Galondo               | Rastrojo               |
| Errege-bale       | Vale real          | Galtzuri              | Escanda                |
| Erregegai         | Pretendiente       | Ganbaretako           | De cámaras             |
| Erregeladun       | Regular            | Gantz                 | Manteca                |
| Erregezale        | Realista           | Garau                 | Grano, semilla         |
| Errejidore        | Regidor            | Garia jo              | Trillar                |
| Errekisa          | Requisición        | Gaztainondo motz      | Castaño trasmocho      |
| Erremate          | Remate             | Gaztelaniatze         | Castellanización       |
| Errementaritzza   | Herrería (oficio)  | Gerrikogile           | Cinturero              |
| Errenta orokor    | Rentas generales   | Gizakunde             | Encarnación            |
| Errentadun        | Rentista           | Gizalan               | Peonada                |
| Errentari         | Arrendatario       | Golde-lur             | Yugada                 |
| Erreuma           | Reuma              | Goranahi              | Arribista              |
| Errolda           | censo              | Gorozki               | Excremento             |

|  |                               |                        |                           |
|--|-------------------------------|------------------------|---------------------------|
| Gorte                                    | Cortes; la Corte              | Iragazkor              | Permeable                 |
| Gozogin                                  | Cofitero                      | Iratze                 | Helecho                   |
| Granadari                                | Granadero                     | Iraultza burges        | Revolución burguesa       |
| Gurdi-abere                              | Ganado de tiro                | Irun                   | Hilar                     |
| Gurpizti                                 | Bortal                        | Isipula                | Erisipela                 |
| Habe                                     | Viga                          | Istingadi              | Marjal                    |
| Hagun                                    | Llanta                        | Istinkari              | Calafete                  |
| Hamarren                                 | Diezmo                        | Istripu perletiko      | Accidente perlético       |
| Hamarren-barruti                         | Dezmatorio                    | Italdi                 | Obrada                    |
| Handizka                                 | Al por mayor                  | Itsasadar              | Ría                       |
| Hargintza                                | Cantería                      | Itxitura               | Cercado                   |
| Haritz motz                              | Roble trasmochó               | Itzain                 | Boyero                    |
| Harkosko                                 | Canto                         | Izendegi               | Nomenclator               |
| Harrikatz                                | Carbon de piedra,<br>mineral  | Jaiotza-tasa           | Tasa de nacimiento        |
| Hartzekoak                               | Haberes                       | Jaraunspen             | Herencia/<br>Heredamiento |
| Hartzekodun                              | Acreeador                     | Jaraunsi               | Heredar                   |
| Hasikin                                  | Primicia (impuesto)           | Jargoi                 | Márraga                   |
| Hazbete                                  | Pulgada                       | Jarraiko paper         | Papel continuo            |
| Heriotza-tasa                            | Tasa de mortalidad            | Jauntza                | Señorío                   |
| Herri-diputatu                           | Diputado del común            | Jaurgo                 | Señorío                   |
| Herri-erabilera/erabilpen                | Aprovechamiento<br>comunal    | Jaurgo-errejimen       | Régimen señorial          |
| Hesola                                   | Estaca                        | Jende goren            | Notable, jauncho          |
| Heste-zizare                             | Lombriz                       | Jesapen                | Empréstito                |
| Hesteetako hantura                       | Inflamación intestinal        | Jesapen-akzio          | Acción de empréstitos     |
| Hidropesia                               | Hidropesía                    | Jesusen Lagundi        | Compañía de Jesús         |
| Higadura                                 | Erosión                       | Jostun                 | Sastre, costurero/a       |
| Higiezin                                 | Inmobiliario/a                | Jute                   | Yute                      |
| Higigarri                                | Mobiliario                    | Kako                   | Caco                      |
| Hipoteka-erregistro                      | Registro de hipotecas         | Kana                   | Vara                      |
| Hipoteka-zentso                          | Censo hipotecario             | Kanoi-gurdi            | Cureña                    |
| Hiribildu                                | Villa                         | Kantzelaritz           | Chancillería              |
| Hirusta                                  | Trébol                        | Kaparetasun unibertsal | Hidalguía universal       |
| Hobari                                   | Adehala                       | Kaparetasun-kidetze    | Filiación de hidalguía    |
| Hornigaien krisialdi                     | Crisis de subsistencia        | Kaperautza             | Capellanía                |
| Hornitzaile                              | Asentista                     | Kapital-metaketa       | Acumulación de capital    |
| Ibar-lur                                 | Vega                          | Kare hidrauliko        | Cal hidráulica            |
| Idaur                                    | Mayal                         | Karga                  | Carga (medida)            |
| Ihi                                      | Junco                         | Kartusiar              | Cartujo                   |
| Ihitoki                                  | Juncal                        | Kinkilak               | Quincallería, quincalla   |
| Ikastun                                  | Aprendiz                      | Kintal matxo           | Quintal macho             |
| Ikazkin                                  | Carbonero                     | Kleriko                | Clérigo                   |
| Ikuskatzaile                             | Veedor                        | Klero erregeladun      | Clero regular             |
| Inausketa-prozesu                        | Proceso de desmonte           | Koartana               | Cuartanas                 |
| Indargetu                                | Anular, revocar               | Koilazo                | Collazo                   |
| Independenziako Gerra                    | Guerra de la<br>Independencia | Konderri               | Condado                   |
| Industri iraultza                        | Revolución industrial         | Kontseilu Goren        | Consejo Supremo           |
| Infantzoigo                              | Infanzonado                   | Kontsulatu             | Consulado                 |
| Inorenganatze                            | Enajenación                   | Kontsultari            | Consultor                 |
| Ipuru                                    | Enebro                        | Korritu                | Interés                   |
| Irabaziak erdibana<br>banatzeko kontratu | Contratos a media<br>ganacia  | Kostu-laguntza         | Ayuda de costa            |
|  |                               | Kuarto                 | Cuarto de real de vellón  |
|  |                               | Labaki                 | Roturo                    |

|                              |                                |                          |                                  |
|------------------------------|--------------------------------|--------------------------|----------------------------------|
| Labezain                     | Hornera                        | Medeatu                  | Enmendar                         |
| Labore-txandaketa            | Rotación de cultivos           | Memoria                  | Memorial                         |
| Lagin                        | Muestra                        | Mendekoste               | Pentecostés                      |
| Lakari                       | Celemín                        | Merindade                | Merindad                         |
| Lanaren gizarte-zatiketa     | División social del trabajo    | Merio                    | Merino                           |
| Landa-kapare                 | Hidalgo rural                  | Merkataritza aske        | Libre comercio                   |
| Landaketa                    | Postura                        | Merkataritza-balantza    | Balanza comercial                |
| Landare-ongarri              | Abono vegetal                  | Merkataritza-kapitalismo | Capitalismo mercantil            |
| Landatar burges              | Burgués rural                  | Mihise                   | Lienzo                           |
| Landatar gorenak             | Notables rurales               | Milakoak                 | Millares                         |
| Lanesku                      | Mano de obra                   | Mintegi                  | Vivero                           |
| Larrain                      | Era                            | Mintegidun               | Viverista                        |
| Larre-sari                   | Montazgo                       | Minuzia                  | Menucia                          |
| Ledania                      | Ledanía                        | Misto                    | Mixto                            |
| Legoa                        | Legua                          | Monolaborantza           | Monocultivo                      |
| Lehia                        | Competencia                    | Morroí                   | Siervo                           |
| Lehiakor                     | Competitivo                    | Moztaile                 | Esquilador                       |
| Lekaide                      | Religioso                      | Muga-sari                | Arancel                          |
| Lekaime                      | Religiosa                      | Mutin                    | Motín                            |
| Lekale                       | Leguminosa                     | Odol-okada               | Vómito de sangre                 |
| Lepo-saski                   | Cuévano                        | Ogitarako lur            | Tierra de pan sembrar/<br>llevar |
| Lerma                        | Merma                          | Oihalgile                | Pañero                           |
| Lerro-oin                    | Pie lineal                     | Oinetxe                  | Solar, casa solariega            |
| Libreganbio                  | Librecambio                    | Oinplano                 | Planta                           |
| Liho                         | Lino                           | Olagizon                 | Ferrón                           |
| Litxarrerria                 | Ratería                        | Ongarritzatu             | Abonar                           |
| Longain                      | Capote                         | Onuradun                 | Beneficiado                      |
| Luberri                      | Rozadura                       | Oratzaile                | Amasador                         |
| Luberrien hamarren           | Diezmo noval                   | Ordainarazpen            | Exacción                         |
| Luberriketa                  | Sistema de roza,<br>roturación | Ordainketa-balantza      | Balanza de pagos                 |
| Lugorri                      | Barbecho                       | Ordezkarri               | Lugarteniente                    |
| Lukurrero                    | Usurario                       | Orga                     | Carro                            |
| Lur Zabala                   | Tierra Llana                   | Oroitza-txosten          | Memorial                         |
| Lur-urraketa                 | Quebrante,<br>rompimiento      | Orube                    | Solar                            |
| Lurbarneratze<br>flandriense | Transgresión<br>flandriense    | Ostilamendu              | Ajuar                            |
| Lur-sail                     | Tierra de labor, parcela       | Otadi                    | Argomal                          |
| Luzerna                      | Lucerna (planta)               | Otarrekada               | Cesta                            |
| Maiorazko                    | Mayorazgo                      | Ote zuri                 | Argoma                           |
| Makiaveliko                  | Maquiavélico                   | Padura                   | Marisma                          |
| Mako                         | Cimbra                         | Pago motz                | Haya trasmocha                   |
| Mandazain                    | Arriero                        | Pagotxa                  | Trébol encarnado                 |
| Mandeme                      | Muleta (animal)                | Partzuergo               | Aparcería; Parzonería            |
| Marea-errota                 | Molino de marea                | Paskin                   | Pasquín                          |
| Marragero                    | Marraguero                     | Patatx                   | Patache                          |
| Martinete                    | Martinete (ferrería)           | Patroi dibisadun         | Patrón divisero                  |
| Maskulinitasun-tasa          | Tasa de masculinidad           | Pattar                   | Aguardiente                      |
| Masukariola                  | Ferrería masquera              | Pegar                    | Cántara                          |
| Masusta arbola               | Morera                         | Perlesia                 | Perlesia                         |
| Meatzari                     | Minero                         | Pertsonero               | Personero                        |
|                              |                                | Petxari                  | Pechero                          |
|                              |                                | Pezo                     | Adobe                            |
|                              |                                | Pitxer                   | Azumbre                          |

|                       |                             |                                     |                                 |
|-----------------------|-----------------------------|-------------------------------------|---------------------------------|
| Pleita                | Flete                       | Ustiategi                           | Explotación (lugar)             |
| Plusbalio             | Plusvalía                   | Uztai                               | Llanta                          |
| Preboste              | Preboste                    | Uztarri                             | Yunta                           |
| Presbitero erretore   | Presbítero cura párroco     | Xedapen                             | Provisión (decreto)             |
| Probisio              | Provisión (documento)       | Zahagigile                          | Botero                          |
| Produktibitate        | Productividad               | Zaldi-mandoz                        | A lomo                          |
| Produktzio-harremanak | Relaciones de<br>producción | Zalke                               | Arveja                          |
| Protektionismo        | Proteccionismo              | Zamari                              | Cabalgadura                     |
| Puntapax              | Punta de París              | Zatar-paper                         | Papel de estraza                |
| Robo                  | Robo (medida)               | Zelata                              | Emboscada                       |
| Rogo                  | Rogo (medida)               | Zenbaketa                           | Recuento                        |
| Salgai                | Mercancía                   | Zentso baituragarri                 | Censo redimible                 |
| Salmenta-monopolio    | Monopolio de despacho       | Zentso                              | Censo                           |
| Saroe                 | Sel                         | Zentsoa ordaintzen<br>zuen laborari | Labrador<br>censuario           |
| Saroedun              | Poseedor de sel             | Zezipina                            | Cecina                          |
| Sarrailategi          | Taller de cerrajería        | Zistertar                           | Cisterciense                    |
| Sasitza               | Maleza                      | Zitu                                | Cereal                          |
| Saskigintza           | Cestería                    | Zolerdi                             | Media suela                     |
| Sekain                | Secano                      | Zorretan eman                       | Dar al fiado                    |
| Sekular               | Secular                     | Zureria                             | Maderamen                       |
| Šeniparte             | Legítima                    | Zurrategi                           | Curtiduría                      |
| Soberakin             | Excedente                   | Zurratu                             | Curtir                          |
| Sokagile              | Cordelero                   | Zurratzaile                         | Curtidor                        |
| Soldata               | Salario, sueldo             |                                     |                                 |
| Soldatapeko           | Asalariado                  |                                     |                                 |
| Su-zenbaketa          | Fogueración                 |                                     |                                 |
| Sustapen Batzar       | Junta de Fomento            |                                     |                                 |
| Sutegi                | Fogueración; Fragua         |                                     |                                 |
| Talde menderatzaile   | Grupo dominante             | art.                                | artikulua                       |
| Tatxet                | Tachuela                    | atz.                                | atzekaldean                     |
| Tertzianak            | Tercianas                   | bizt.                               | biztanle                        |
| Tiratzaile            | Tiradera                    | errej.                              | errejistroa                     |
| Tratulari             | Tratante                    | eskbu.                              | eskuizkribua                    |
| Tumore eskerroso      | Tumor esquerroso            | eta hurr.                           | eta hurrengoak                  |
| Txalupa-zain          | Barquero                    | kop.                                | kopurua                         |
| Txirotze              | Empobrecimiento             | leg.                                | legajoa                         |
| Txit Santu            | Santísimo                   | libk.                               | liburukia                       |
| Udal-bihitegi         | Pósito                      | neg.                                | negoziatua                      |
| Udal-ireki            | Ayuntamiento abierto        | <i>op.cit.</i>                      | <i>opus citata</i>              |
| Ultzera lezeitsu      | Ulcera cavernosa            | or.                                 | orrialdea                       |
| Untziola              | Astillero                   | orr.                                | orrialdeak                      |
| Urdabere              | Ganado de cerda,<br>porcino | R.A.H.                              | Real Academia de la<br>Historia |
| Urtaro hil            | Estación muerta             | sek.                                | sekzioa                         |
| Ustiapen              | Explotación (acción)        | zkia.                               | zenbakia                        |

#### Oharretan erabilitako laburdurak

Behe Erdi Arotik Lehen Karlistada amaitu arte aldi luzea dago; etapa horretako ezaugarri nagusiak ez ziren oinarrian aldatu, ukitu garrantzitsuak izan zituzten aren.

Nekazaritza-lanetarako baldintza geografiko eskasek manufaktura-sektore garrantzitsua garatu zuten; inportazio-esportazio trafikoari zerga guztiak kendu zitzaizkion eta horrek bertako manufakturen irteera eta behar ziren aleen sarrera bultzatu zuen; gizarte-klase desberdinetako elementu kaltetuenen emigrazioak ordainketa-balantza orekatu zuen eta gizarteko tentsioak baretu egin ziren. Laborariek, olagizonek eta artisauek sortutako soberakina jauntxoek eta merkatarien esku geratu ohi zen, lurraren errentari, merkataritza-zirkuituaren kontrolari —zerealena nahiz produktu manufakturatuen, asken hau *Verlagssystem* delakoaren bidez—, lukurreriari eta, hein txikiagoan, zergei esker.

XVIII. mendearen amaieran eta, batez ere, Independentziako Gerraren ondoren, gizarte-egitura horrek narriadura latza jasan zuen Argien Mendeko produkzio-indarren hazkundeagatik, eta behera etorri zen. Nekazarien zorrek eta gerrek herri-lurrak saltzera behartu zituzten; kolonia amerikarrak galtzeak eta burdina iqgelesaren lehiak merkataritza- eta ordainketa-balantzak desorekatu zituzten. Ez zegoen sistema protekzionista eraginkorrik eta horrek industria siderurgiko tradizionalaren porrota eta oreka zaharraren haustura ekarri zuen. XIX. mendearen bigarren herenean, egitura berri baten bilaketa dramatikoa eta bortitza gertatu zen.

Euskal Herriko historialaritzaren klasiko baten euskarazko itzulpena duzue liburu hau. Lehenengo aldiz 1974. urtean argitaratu zen (gaztelaniaz), eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Feudalismo Garatu garaiko ekonomi eta gizarte-historiaren azalpenaren ardatzak maisuki finkatu zituen. Egileak berak itzulpen honetarako idatzi duen hitzaurrean esaten digun bezala: «Liburua duintasunez zahartu dela uste dut, eta han defendatzen nituen eta orduan onartu ez ziren edo harridura sortu zuten tesi batzuk berretsi egin dira: “artoaren iraultza”, haur-hilkortasunaren jaitsiera, edo industrializazio prozesua ez zela mearen esportazioaren ondorio izan. Gaur egun ohikoa da entzutea Euskal Herria ustiategi txiki eta ertainetako lurraldea izan zela, eta hau ezin dela nahastu nekazari jabe txiki eta ertainen nagusigoarekin».

Emiliano Fernández de Pinedo Bilbon jaio zen (1943). Salamancako Unibertsitatean Historian lizentziatu eta Madrilgoan doktore titulua eskuratu zuen; Parisko L'École Pratique des Hautes Etudes-en osatu zituen bere ikasketak (1971-1972). Katedraduna, egun Ekonomi Historia irakasten du EHUko Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultatean (Bilbo).